


ararteko

Herriaren Defendatzailea · Defensoría del Pueblo

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2016





URTEKO TXOSTENAK



Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2016

Vitoria-Gasteiz 2017

Lan hau [Creative Commons Attribution 3.0 Unported lizentziarekin](#) dago (CC BY 3.0)



Lan honen **bibliografia-erregistroa** [Arartekoko liburutegiaren katalogoan](#) kontsulta daiteke

Formatuak eta edizioak:

Paperean, [RTF](#) eta [XML](#) formatuetan ere bai

Gaztelaniazko edizioa: [Informe anual al Parlamento Vasco 2016](#)

Dibulgaziozko edizioa: [Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2016. Laburpena](#)

Bereizitako liburukian argitaratua: [Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostena 2016](#)

Arartekoaren argitalpenak eskuratzeko:

– [web](#) gunean

– [posta elektronikoz](#) eskatuz

– aurrez aurre gure hiru bulegoetako batean, idatziz (Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)


ARARTEKO

Itzulpena: Hori Hori S. A. L.

Diseinua, maketazioa, inprimaketa eta multimedia aplikazioak: Otzarreta Komunikazioa

ISSN-e 2255-4939

Aurkibidea



AURKIBIDEA

AURKEZPENA	15
I. ATALA Ararteko erakundearen jarduera kopurutan.....	19
II. ATALA Euskal herriko administrazio publikoen jarduera ikuskatzea	47
III. ATALA Arartekoaren jarduerak arreta publikoa behar duten taldeak babesteko	195
IV. ATALA Arartekoaren beste tresna batzuk administrazio ona izateko eskubidea sustatzeko	283
V. ATALA Gizartearekiko harremanak eta erakundeen arteko lankidetzarako jarduerak	297
VI. ATALA Arartekoaren gomendioak eta iradokizunak zenbateraino bete diren	307
ERANSKINAK Eman diren ebazpenak	321
Grafikoen eta taulen aurkibidea	329
Arartekoaren argitalpenak	335

AURKEZPENA	15
-------------------------	----

I. ATALA

Ararteko erakundearen jarduera kopurutan	19
---	----

1. Oharrak eta datu orokorrak	21
2. Arreta zuzeneko bulegoen jarduera (aurrez aurreko kexak eta telefono bidezko aholkuak).....	22
3. Erregistratutako kexa idatziak	23
4. Estatistika alorrez alor.....	24
5. Estatistika, eragindako administrazioen arabera	25
A) Eusko Jaurlaritzaren aurka bideratu diren espedienteak	26
B) Foru erakundearen aurka bideratutako espedienteak	27
C) Tokiko administrazioaren aurka bideratutako espedienteak	28
D) Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka bideratutako kexa-espedienteak.....	30
6. Lurralde estatistika (kexa idatzien banaketa lurraldeen arabera).....	30
7. Prozedurari buruzko estatistika (kexa idatzien espedienteen egoera).....	32
8. Ofiziozko espedienteak.....	33
9. Estatistika soziologikoa. Kexagileen tipologia eta kexen formatua	34
10. Erabiltzaileen iritzia	35
10.1. Erabiltzaileei egindako inkestaren emaitzak.....	35
10.2. Ararteko erakundearen zerbitzu-kartaren web inprimakiaren bitartez jasotako iradokizunak	38
11. Informatzeko betebeharra	39
11.1. 2016an kexak izanda ere, errekerimendurik jaso ez duten administrazioak eta bestelako organismoak	39
A) Eusko Jaurlaritza.....	39
B) Foru aldundiak	40
C) Udalak eta administrazio batzarrak	40
D) Beste erakunde publiko batzuk	41
11.2. Kexak direla-eta, 2016an errekerimenduren bat jaso duten administrazioak eta bestelako organismoak	42
A) Eusko Jaurlaritza.....	42
B) Foru aldundiak	42
C) Udalak eta administrazio batzarrak	43
D) Beste erakunde publiko batzuk	44
11.3. Arartekoak 2016. urtean egin eta erantzunik jaso ez duten ohartarazpenak	44
A) Eusko Jaurlaritza.....	45
B) Udalak.....	45

II. ATALA

Euskal Herriko administrazio publikoen jarduera ikuskatzea	47
1. Hizkuntz eskubideak, kultura eta kirola	51
2. Hezkuntza	61
3. Ogasuna	69
4. Gizarteratzea	77
5. Justizia	89
6. Ingurumena	99
7. Herri lanak, garraioak eta azpiegiturak	109
8. Jarduera ekonomikoaren antolamendua	117
9. Herri-administrazioen zerbitzuko langileak	127
10. Animaliak babestea eta edukitzea	135
11. Herri-administrazioen araubide juridikoa, ondasunak eta zerbitzuak	139
12. Osasuna	147
13. Segurtasuna	155
14. Gardentasuna, herritarren partaidetza, gobernu ona eta datuak babestea	165
15. Lana eta Gizarte Segurantza	175
16. Hirigintza eta lurralde antolamendua	179
17. Etxebizitza	187

III. ATALA

Arartekoaren jarduerak arreta publikoa behar duten taldeak babesteko	195
1. Familiak	199
2. Emakumeen berdintasuna eta osotasuna	207
3. Ezintasunen bat duten pertsonak	215
4. Gaixo kronikoak	225
5. Buruko gaixotasunak edo nahasmenduak dituzten pertsonak	229
6. Espetxeratuak	233
7. Ijitoak eta beste gutxiengo kultural batzuk	243
8. Etorkinak eta kultura aniztasuna	251
9. Lesbianak, gayak, bisexualak, transexualak eta intersexualak (LGBTI pertsonak)	261
10. Adinekoak eta menpekotasun egoeran dauden pertsonak	269
11. Talde terroristen biktimak	277

IV. ATALA

Arartekoaren beste tresna batzuk administrazio ona izateko eskubidea sustatzeko..... 283

1. Gomendio orokorrak	286
1.1. Arartekoaren 1/2016 Gomendio orokorra, urtarrilaren 26koa. Euskadiko energia-pobrezari buruzko gizarte-eztabaidarako oinarriak	286
1.2. Arartekoaren 2/2016 gomendio orokorra, otsailaren 16koa. Eskola kirolean hasi aurreko adinetan kirol jarduera hezkuntza-balioetan oinarritu beharra, eta ez lehiakortasunean	286
1.3. Arartekoaren 3/2016 gomendio orokorra, otsailaren 25ekoa. Babestutako etxebizitza eskatzaileen erregistroko bajak norbanakoari jakinarazteko beharra, etxebizitza duina edukitzeko eta gizarte bazterketarako arriskua saihesteari begirako prestazio ekonomikoetarako eskubide subjektiboan duen eraginagatik	287
2. Ikerketa bekak	288
2.1. Arartekoaren ikerketa beka 2016-2017 aldirako	288
2.2. 2015ean iragarritako Arartekoaren ikerketa-beka	288
3. Txosten bereziak	288
3.1. 2016an argitaratutako txostena	288
3.2. 2016. urtean egiten ari diren txosten bereziak.....	291
4. Arartekoaren udako ikastaroak.....	292
5. Arartekoaren jardunaldiak	293
5.1. “Europako Zuzenbide Penala azaleratzen ari da” Arartekoak EHUrekin lankidetzan antolatutako hitzaldia	293
5.2. “Fiskaltzaren eginkizuna ingurumena kontrolatu eta babestean”	293
5.3. “Emakumeak eta adingabeak sexurako salerostea”	294
5.4. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 68. urtemuga ospatu du Arartekoak	294
6. Arartekoaren argitalpenak	295
6.1. 2015eko ekainean egin ziren XXXIV. Uda Ikastaroetako ponentziak	295
6.2. 2016ko uztailean egin ziren XXXV. Uda Ikastaroetako ponentziak	295
7. Aldizkari digitala	295

V. ATALA

Gizartearekiko harremanak eta erakundeen arteko lankidetzarako jarduerak..... 297

1. Gizarte erakundeekiko harremanak	299
2016. urtean erakundearekin bilerak egin dituzten elkarteak eta taldeak	299
2. Giza eskubideak defendatzen dituzten erakundeen inguruko jarduerak.....	300
2.1. Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako XXXI. Jardunaldiak	300
2.2. Nazioarteko harremanak.....	302
3. Beste jarduera batzuk	305
Arartekoaren eta haren ondokoaren jarduerarik esanguratsuenak, hitzaldiak emateari dagokionez, eta administrazioek eta gizarte erakundeek antolatutako ekitaldietan parte hartzeari dagokionezdeek antolatutako ekitaldietan parte hartzeari dagokionez	305

VI. ATALA

Arartekoaren gomendioak eta iradokizunak zenbateraino bete diren	307
1. Onartutako gomendioak eta iradokizunak.....	310
A) Eusko Jurlaritz.....	310
B) Foru administrazio.....	311
C) Tokiko administrazio.....	312
2. Onartu ez diren gomendioak eta iradokizunak.....	313
A) Eusko Jurlaritz.....	313
B) Foru administrazio.....	314
C) Tokiko administrazio.....	315
3. Erabaki gabe dauden gomendioak eta iradokizunak.....	316
A) Eusko Jurlaritz.....	316
B) Foru administrazio.....	317
C) Tokiko administrazio.....	318

VII. ATALA

Eranskinak	319
Eman diren ebazpenak.....	321
Grafikoen eta taulen aurkibidea	329
Arartekoaren argitalpenak.....	335

AURKEZPENA

“Pertsonarik xume eta ahulenak nagusi eta ahaltzuenek dituzten eskubide zibil, ekonomiko eta sozialak balia ditza-keenean soilik da demokratikoa komunitate bat”. A. Philip Randolph.

Niretzat oso pozgarria da Ararteko erakundearen 2016. urteko txostena aurkeztea. Bertan bildu dira urte horretan egindako jardura eta ekintza guztiak, eta, aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoan giza eskubideak oro har zertan diren erakusten du. Gainera, txosten hau Euskadiko defentsa-erakundearen lanean diharduten 52 pertsonen egindako lan bikainaren emaitza da.

Gure erakundea eta aurten egin dugun jardura ez dira egoera orokorretik kanpo geratu. Aipatzekoa da gehitu egin direla herritarrekin lotuta dauden Arartekoak jarduerak, 10.958ra iritsi baitira; hortaz, aurten %23 hazi da Arartekoaren jardura. Berriro ere lanez gainezka ibili gara azaldutako kexa eta kontsultengatik (8.171). Gehikuntza hori egiaz-tatzeko, begiratu besterik ez diogu 2010. urteari, orduan ikusten hasi baitziren krisiaren ondorioz larrienak; orobat, %70 hazi dira herritarren kexak, arrazoi askorengatik, baina, batez ere, eduki ekonomikoko gizarte-prestazioei buruzko kexek eragin handia izan dutelako.

Era berean, urtetik urtera gora egiten du herritarrak artatzeko gure bulegoetara etortzen diren herritarren kopuruak, nagusi Bilboko bulegoan, 5.600 lagun joan baitira hara 2016an.

Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren jarduerari dagokionez, 2016an 521 espedientetan ikusi da haurrak eta nerabeak tartean zeudela, hau da, Ararteko erakundeari egin dizkieten 5 kexetatik 1ean. Kexa horiek gaiaren arabera banatzen baditugu, %40 beraien familiek bizi duten prekariotasun ekonomikoari buruzkoak dira; %29k hezkuntza-sistemarekin loturako hainbat gai dituzte hizpide; babesik gabeko hau-



rentzako gizarte zerbitzuek eta familiei laguntzeko politikek kexen %6 hartzen dituzte bakoitzak; eta gainontzeko arloak (osasuna, aisia, kirola, justizia, ingurumena) bulego horren espedienteen %5 baino gutxiagotan agertzen dira.

Kexak bideratzeaz gain, Arartekoak txosten bereziak eta azterlanak egin eta argitaratzen jarraitu du 2016an, gure ustez arreta berezia behar duten talde eta egoeren gainean, Euskadin eskubideak baliatu ahal izatea behar bezala babes-tuta egon dadin herritar guztientzat, berdintasun egoeran.

Horrekin batera, Arartekoak era askotako jarduerak egin ditu oinarrizko eskubideei begira arau-hauste, gabezia, arrisku edo ahultasun egoeran dauden taldeen inguruan. Horrela, erakunde honen lan-arlo bakoitzeko jardura-planetan abiarazten diren hainbat ekimen burutu dira. Besteak beste, bilerak egin ditugu gizarte-erakundeekin eta herri-administratioetako arduradun batzuekin; jardunaldi, mintegi eta biltzarretan parte hartu dugu; ikerketa-bekak iragarri dira, e.a.. Tresna horiei guztiei esker, informazio zehatza eta eguneratua biltzen dugu aipatutako egoera horietaz, geroago herri-administratio eskudunei gomendioak egin ahal izateko.

Bestalde, Arartekoarentzat lehentasunezkoa den alderdi batean sakontzen jarraitu dugu: hain zuzen, gizarte zibil antolatuarekin ditugun harremanetan. Izan ere, informazio garrantzitsua ematen digu gure lanerako, eta, gainera, modu erabakigarrian laguntzen du herritarrek beren eskubideak baliatzeko orduan bizi duten egoera hobetzen; horrela, zuzen esan daiteke Arartekoaren zereginak betetzen laguntzen duela. Horren guztiaren berri zehatzagoa ematen da txosten honen V. atalean.

Erakunde honentzat eragingarria da kexak edo kontsultak egitera Arartekora jotzen duten pertsonen erakusten ditugun konfiantza handia. Horixe egiaztatzen du kexa-espedienteak

bukatutakoan kexagileei bidaltzen diegun inkestaren emaitzak. Inkesta horien arabera, hauxe ondoriozta dezakegu: kasuetatik %81ean, beste pertsona batzuei Arartekora joateko gomendatuko liekete, administrazioarekin arazorik izango balute. Eragin hori herri-administrazioekin dugun elkarrizketa zintzo eta konstruktiboaren fruitua da. Elkarrizketa horren ondorioz, aldaketak egiten dira araudietan eta politika publikoetan, eta, azken finean, pertsonen bizimodua hobetzen laguntzen da. Arartekoaren esku-hartzea oso eraginkorra dela nabarmendu behar da, izan ere, 2016an, eragindako administrazioak kexa sortarazi zuen jarduera zuzendu eta aldatu du kasuetatik %93tan.

Batzuetan, administrazioei gogorarazi behar izan diegu arauak kasu zehatz bati ezartzeak berekin dakarrela kasuan kasuko pertsonaren banakako egoera onartzea, eta oraingoa bezalako garai gorabeheratsuetan, ezinbestekoa dela arauak berriz interpretatzea eta ahalik eta erraztasunik handienak ematea, administrazioaren jardueran arau horien muina bete dadin.

Tamalez, 2016an ere biziago nabarmendu da krisi ekonomikoa, pertsona eta talde ahulenen bizkarrak zamatuz. Arartekoak eskubide sozialen gainean jaso dituen kexak dezente ugaritu izanak argi erakusten du zer-nolako arazoak bizitzen ari diren Euskadiko biztanle asko. Eskubide sozioekonomikoak gizakiaren duintasunaren bizkarrezurra osatzen dute; horregatik, politika publikoak eratzean, eskubide horiek baliatu ahal izateko pixkanaka aurrera egitea lehenetsi behar da. Hain zuzen ere, krisi ekonomikoko garaietan hartzen du garrantzirik handiena eskubide ekonomiko eta sozialen egungo egoerak.

Krisiak bere aurpegiak mingotsena erakutsi digu: langabezia eta ohiko etxebizitza galtzea; baina, aldi berean, elkartasunaren eta duintasunaren balio gorena ere erakutsi digu, baita justizia soziala nahi izatea ere, eta hori guztia herri-tarrek laguntzeko asmoz abiarazi dituzten ekimen askotan gauzatu da.

Horregatik, aukera honetaz baliatuta, gizarte-erakundeen eta GKEen eginkizun eratzaille eta euslea aldarrikatu nahi dut, bada horietako asko ekonomikoki ahulduta dauden arren -diru-laguntzak murriztu egin baitira krisi ekonomikoagatik beragatik- ahalegin handia egin dute gizarteratzearen, kohezioaren, ekitatearen eta gizarte justiziaren alde burutzen duten lanaren inguruko kontzientzia eta garrantzia sendotzeko.

Era berean, adin handiko pertsona askoren lan txalogarria nabarmendu nahi dut, izan ere, banaka edo beren familiekin, edo gizarte-erakundeetako kide gisa, gizalegearen, justizia ekitatiboaren, adonearen eta komunitate erantzukizunaren eredu bihurtu dira. Sekula ez diegu behar adina eskertuko beraien isileko eta etengabeko lana, gizarte gisa daukagun barru onenarekin lotzen gaituena.

Aitzitik, emakumearen kontrako indarkeria gehitu izanak, bai erarik latzenez, hilketak burutuz, baina baita delitu sexualak eginez ere, urrundu egiten gaituzte emakumeak errespetatzen dituen gizartetik, eta gutxi eboluzionatu duen gizarte baten ispi-luaren aurrean jartzen gaitu. Beraz, lehenbailehen berraz-

tertutatu behar dira genero indarkeria jasaten duten emakumeak artatu, defendatu eta zigor arloan babesteko mekanismoak, eta berriz pentsatu behar da nola egin daitezkeen eraginkorra-koak gizarte-pentsaera sakon aldatzera erabakitasunez bideratuta dauden politika publikoak, pentsaera horretan oraindik ere gehiegitan nagusitzen dira balio patriarkalak.

Ahaztu gabe, berariaz aipatu nahi dut Europar bereizkeriak gora egin duela, EBren bereizkeriari buruzko txostenaren berri emanez (*Discrimination in the EU in 2015. Report Special Eurobarometer 437*). Txosten horren arabera, europarrak sumatzen dute bereizkeria areagotuz doan fenomeno dela. 2012tik aurrera egindako konparazio bidezko analisisian azpimarratzen da bereizkeriazko jarduerak gehitu egin direla jatorri etniko desberdina duten pertsonekin; LGBTI pertsonekin (lesbiana, gay, transexual eta transgenero, bisexual eta intersexualekin); erlijio gutxiengoetako kideekin; ezgaituekin; eta, azkenik, sexuagatik diskriminatzen diren pertsonekin. Gai hori ezin dugu alde batera utzi. Desberdina denari eraso egiten dioten banakako edo taldekako portaerak eta jarrera xenofoboak ustez gaindituta geneuzkan garaietara itzularazten gaituzte, eta ohartarazi behar gaituzte inboluzio demokratikoa gertatzeko arriskua dagoela eta horren kontra erne egon behar dugula.

Orobat, Europar asilo eta babes eske dabilzten ehunka mila laguneko egoerak okerrera egiten jarraitzen du, Europar Batasuneko estatu kideetan harrera-prozedurak pittinkapittinka izapidetzen diren bitartean, Europako Batasunak bere garaian (orain urte eta erdi) finkatu zituen birkokatze eta birlekukotze kuotak betetzeko asmoz. Prozedura horien desesperatzeko moduko moteltasunak eta eraginkortasunik ezak kezka handia, frustrazioa eta amorrua sortu dituzte biztanleen sektore askotan. Ez zaio erantzun egokirik ematen begi-bistan dugun krisi humanitario larri eta bizi honi.

Hori dela eta, Arartekoak zenbait ekimen hasi ditu jendea egoera horren gainean sentikorrago bihurtzeko (txosten honetan duzue ekimen horien berri). Azken ekimena 2017an abiarazi da: joan den otsailaren 2an, autonomia erkidegoetako herriaren defendatzaile guztiok baterako adierazpen bat egin genuen; bertan, hainbat proposamen egin genituen aho batez, eta Europako, Estatuko eta autonomia erkidegoetako agintariei eskatu genien bete ditzatela asilo eska-tzaileak birkokatu eta birlekukotzearen arloan hartu zituzten konpromisoak, eta lankidetzan aritzeko behar diren neurriak har ditzatela, egungo egoera onartezinari amaiera emateko.

Erakunde honen ustez, gardentasuna eta herritarren partaidetza funtsezkoak dira kalitateko gobernantza bat lortzeko, demokrazia aurreratuko printzipioetan eta gobernu irekian asmo handiko helburuan finkatutakoa, eremu publikoa eraikitzen bideratutakoa. Horretarako, Arartekoa bezalako erakunde eskubide-defendatzaileak tresna egoki eta berariazkoak dira, bai gardentasuna ikuskatzeko, bai herritarrek administrazio publikoaren jarduerari buruzko informazioa gut-tiz eskuratu ahal izango dutela ziurtatzeko, administrazio ona egiten ote den ikuskatuz eta herritarren eskubideak defendatuz, eta herri-administrazioen jarduera interes publiko lortzera bideratuta dagoela ziurtatuz, interes orokorra bermatze aldera.

Globalizazioaren fenomenoak eta nazioarteko ikuspegi baten beharrak, inon garrantzi berezirik izatekotan, giza eskubideen arloan dauka. Giza eskubideei eta horien bermeei dagokienez, ezin da tokian tokiko ikuspegia bakarrik izan. Nahitaez ezagutu behar dira giza eskubideei buruzko nazioarteko tresna juridikoak, zeinak, Konstituzioko manua dela eta, Estatuak sinatzen dituenean, barne-araubidearen osagai bilakatzen diren. Horregatik, beharrezkoa iruditu zaigu Ararteko erakundeari “nazioarteko ikuspegi bat” gehitzea, ez bakarrik nazioarteko araudia sakon aztertuz, gero gure lanean ezartzeko asmoz, baizik eta baita ere Ararteko erakundeak nazioarteko beste erakunde eskubide-bermatzaile batzuekin dituen harremanak sendotzeko.

Beraz, 2016. urtean barrena, gehitu egin da Arartekoak nazioartean duen presentzia eta jardura, txosten honen IV. eta V. ataletan ikusten denez, eta harremanak ugaritu dira IOIrekin (International Ombudsman Institute), ENOrekin (EBko Ombudsmanaren Sarea), OIFekin (Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioa), IALCrekin (Hizkuntza Mandatarien Nazioarteko Elkarte), baita bi aldeko harremanak ere

nazioarteko beste erakunde batzuekin eta Europako hainbat herrialdetako ombudsmanekin.

Bukatzeko, garrantzitsua iruditzen zait honako hau adieraztea: giza eskubideak babestu eta hobetuko badira, ezinbestekoa da herritar konprometituak, zorrotzak eta errespetuaren eta eskubideak babestearen balio demokratikoetan burua sartuta daukatenak izatea. Erregutzen dut Euskadin norabide zuzenean aurrerapausoak egiten jarrai dezagun, hau da, gure herrialdeko pertsona eta talde ahulenak babesten, bada, Cynthia McKinney-k zuzen adierazi duenez, “Askoz indartsuagoak gara elkarri eskua ematen diogunean eta ez elkarri eraso egitean, gure aniztasuna ospatzen dugunean (...) eta elkarrekin bidegabekeriaren harresi ahaltuak botatzen ditugunean”.

Manuel Lezertua Rodríguez
ARARTEKOA



ATALA

Ararteko erakundearen jarduera kopurutan

I. Atala

ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA KOPURUTAN

1. Oharrak eta datu orokorrak

Estatistikazko kapitulu honetan barrena, Ararteko erakundearen jardueraren ikuspegi orokorra eskaintzen ahalegin-duko gara, zifratan. Horrela, erakundeari bide ezberdinak erabiliz egin dizkioten kexei buruzko datuak bereiziko ditugu, baita zuzeneko arretarako hiru bulegoen jardueraren ere, euskal herri-administrazio bakoitzari dagozkion kexen gaineko datuak bilduko ditugu, eta horiek lurraldeen arabera nola banatuta dauden eta prozeduraren zein fasetan dauden adieraziko dugu.

Era berean, euskal herri-administrazioak Arartekoarekin lan-kidetzan zenbateraino aritu diren jakiteko informazioa ematen da.

Kapitulu honetan beste atal bat sartu dugu, alegia, Arartekora etortzen diren pertsonen profilaria buruzkoa, baita inkestetan gure lanaz ematen diguten iritzia ere.

Laburbilduz, informazio sistematizatu horren bidez, kapitulu honetan 2016ko jarduerari buruzko informazio kuantitatibo guztia agertzen da.

Arartekoak garrantzizkotzat jotzen du jardueraren kontzeptu zabalaren barruan bi alderdiok ikusaraztea: batetik, herritarren erreklamazioen esparruan egiten duen lana, hau da, kexak eta aholkularitza hainbat modalitatetan, eta, bestetik, bestelako jarduerak, politika publikoak ebaluatzeko egiten direnak, eta, beraz, Arartekoan eskuarki planteatzen diren kasu konkretuez harago doazenak.

Horretarako, hainbat tresna erabiltzen dira, denak ere Arartekoaren lan-arlo bakoitzaren urteko jardueraren planean egituratuak: bilerak administrazioekin, bilerak gizarte zibileko elkarteekin eta erakundeekin, ikuskapen-bisitak eta ofiziozko jarduerak.

Arartekoak 2016an egin duen jardueraren zenbakizko gutxi gorabeherako datuak estatistikari eskainitako kapitulu honetan kontsulta daitezke.

Arartekoaren web orrialdea sendotu egin da euskal herritarrei informatzeko eta haiekin harremanetan egoteko bide bezala; horren erakusgarri, aurtan 100.000 bisita jaso dira, 193.000 orrialde ikusi dira eta 70.000 erabiltzaile inguru izan dira.

Era berean, Ararteko erakundearen presentzia indartu da gizarte-sareetan; horixe egiaztatzen dute, txosten hau ixteko datan, Googleen 400.000 bilaketa-emaizta izateak, Twitterren 4.200 jarraitzaile, eta Facebookeko orrian (2014an zabalduakoa) 685 pertsonak jarraitzea Arartekoari.

Oro har, 2016an, herritarrentzako laguntzarekin eta administrazioen kontrolarekin lotutako 10.958 jardueraren zenbata dira eta horietatik 8.171 kexa eta kontsultei dagozkie. Beraz, 2016an Arartekoaren jardueraren ia %23 gehitu da.

1. grafikoa.

Arartekoari 2016an egindako kexak eta kontsultak




2016an herritarrek 8.171 kexa eta kontsulta egin dizkiote Arartekoari eta ofiziozko 34 espediente bideratzen hasi gara. Informazio horretatik ondorio hau atera daiteke: 2010. urtearen

aldean –orduan ikusten hasi ziren krisiaren ondorioz larrienak herritarren kexak %70 gehitu direla, arrazoi askorengatik, baina batez ere eduki ekonomikoko gizarte laguntzen gaineko kexak izugarri areagotu direlako.

2. grafikoa.

Arartekoaren jarduera guztiak 2016an



GUZTIRA
10.958

2016. urtean, informazioa eta orientabidea eskatzeko egin diren 2.598 telefono-kontsultari erantzun diegu eta 97 bilera egin ditugu era askotako gizarte-erakundeekin (horien gaineko xehetasunak urteko txostenaren V. kapituluaren kontsulta daitezke, gizartearekiko harremanei buruzkoa baita). Era berean, 78 bilera egin ditugu zenbait administrazioekin: Eusko Jaurlaritzaren sail eta zuzendaritzekin, aldundiekin, udalekin eta beste erakunde batzuekin.

Ikuskatzeko 5 bisita ere egin ditugu. Horien bitartez, funtzionamendua, baliabideak, kudeaketa-programa, Arartekoaren gomendioak zenbateraino betetzen diren, eta abar ebaluatu dugu Getxoko ertzain-etxean, Amorebieta eta Portugaleteko Udaltzaingoetan eta Bilbo eta Gasteizko familia-elkarguneetan.

Gainera, eraginkortasunez parte hartu dugu era guztietako ekitaldi, jardunaldi eta gertakizunetan, batik bat administrazioek eta gizarte-erakundeek sustaturiko ekimenekin loturikoetan (iaz, guztira, horrelako 96 jardueratan esku hartu genuen); horrek guztiak ematen du halako arrasto bat Arartekoak, batez ere erakundea osatzen duten 29 lan-arloetako arduradunen ekimenez, egiten dituen jarduera ugari eta askotarikoen inguruan. Esku-hartze horien zehaztapen handiagoa II. eta III. kapituluetan ematen da, arlo horietako urteko jarduera-plana azaltzean.

2016an kexa idatzien gaineko 1.652 espediente ebatzi dira. Gainera, 1.299 ebazpen eman dira. Gainontzeko kasuak gerora onartu ez diren kexak dira (beste herriaren defendatzaile batzuekiko bikoiztasuna, epailearen ebazpenaren zain dauden auziak, epai irmoa dutenak, auzibideari ekin diotenak eta abar).

Kexa-prozedurek batez beste 69 egun iraun dute 2016an. Beraz, epeak nabarmen laburtzen ari dira urtetik urtera.

lax, kexa eragin zuen administrazioaren jarduera aztertu eta gero, **jarduera okerren bat** zegoela iritzi diogu aztertutako kexa idatzien %46tan (zertxobait hazi da 2015ekoaren aldean, ordukoa %43koa izan baitzen), eta **jarduera ez zela okerra** kexen %52 baino gehiagotan.

Eragindako administrazioak kexa sorrarazi zuen jarduera zuzendu eta aldatu du kasuetatik %93tan. Gehienetan ez da gomendio formalik egin behar izan administrazioak Arartekoaren proposamena onartzeko. Datu horrek argi erakusten du, berez, Arartekoaren esku-hartzea oso eraginkorra dela.

1. taula.

Ararteko erakundearen esku-hartzearen eraginkortasun-maila

	%	%
Konpondutako jarduera okerra		93,04
Gomendiorik gabe	95,94	
Gomendio onartua	4,06	
Konpondu gabeko jarduera okerra		6,96


2. Arreta zuzeneko bulegoen jarduera (aurrez aurreko kexak eta telefono bidezko aholkuak)

1996tik, Ararteko erakundeak arreta zuzeneko bulegoak dauzka Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan. Horri esker, administrazioaren batekin arazoak dituzten herritarrei hobeto lagun diezaiekegu. Bulegoetan hartutako eskarmen-tuak erakusten du, gainera, bertan jasotzen aurrez aurreko kekez gain, telefono bidezko kontsulta ugari ere egiten direla, eta erakundeko langileek erantzuten dituztela.

Horregatik, egiten dizkiguten kexak ez ezik, telefonozko kontsultak ere zenbatzen ditugu, ziur baikaude horien birtatez informatzeko lan interesgarria egiten dela pertsonen administrazioekin dituzten harremanetan zein eskubide dituzten adierazten. Horrela, 2016. urtean guztira 8.240 zerbitzu egin ditugu herritarren arretarako bulegoetan. Horietatik 5.642 hiru bulegoetako batean aurrez aurre egindako kexak eta kontsultak izan dira, eta 2.598tan telefono bidezko aholkularitza eta informazioa eman da.

3. grafikoa.

Aurrez aurreko kexak eta kontsultak eta telefono bidezko aholkuak arreta zuzeneko bulegoetan



Bulegoetako jarduerari buruz, 2016ko datuak aurreko urteetakoekin alderatuta aztertzen baditugu, joera arras aldatu dela ikusten da, izan ere, aurrez aurre kasu egin zaien pertsonen kopuruari begira, Gasteizko bulegoaren nagusitasuna Bilboko bulegora aldatu da, han pertsona asko hartu baitituzte, aurreko urteetan baino dezente gehiago.

Arreta zuzeneko bulegoetan egindako aurrez aurreko kexetatik zenbat bihurtu diren kexa-espediente

Herritarrei kasu egiteko gure bulegoetan aurrez aurre egin diren kexa eta kontsultetatik 1.367 bihurtu dira kexa-espediente, hau da, %24,22. Horrek argi erakusten du bulego horietan aholkularitza-lan garrantzitsua egiten dela.

Gainerakoei dagokienez, batzuetan erakunde honen jardura-eremutik kanpoko gaiei loturikoak ziren; horrenbestez, ezin ziren kexa moduan bideratu; beste batzuetan, agiri gehiago behar ziren edo aurretiazko gestioak egin behar ziren administrazio-organo eskudunetan; eta azkenik, beste zenbait kasutan, azaldutako arazoek kexa-espediente bihurtzeko funtsik ez zuten, bitak aurreko kexa-espediente baten biderapenarekin zuen zerikusia edo kexagileak bere arazo zehatzean zein izapide egin behar zituen jakin nahi zuten.

3. Erregistratutako kexa idatziak

2016. urtean 2.498 kexa idatzi erregistratu ditugu euskal herritarrek hala eskatuta. Gainera, ofiziozko 34 jardura hasi ditugu.


Onartu gabeko kexa idatziak

Ararteko erakunde sortu eta arautzeko 3/1985 Legearen 21. artikuluan adierazten dira zein zertzelada gertatu behar duten herritarren kexak ez onartzeko. Horrela, hainbat arrazoiengatik onartu ez diren kexak bereizi behar dira: norbanakoen arteko gatazka zelako, ordurako auzitegian azalduta zegoen arazoren bati buruzkoa zelako (epai irmoa jasota edo epailearen ebazpenaren zain), edo erakunde honen eskumen eremutik kanpo zegoelako.

Nolanahi ere, kexei ahalik eta babes juridikorik handiena eskaintzeko irizpidea mantentzen da; horrela, ahalegina egiten da prozedurazko arauak herritarrek egindako kexa onartzearen alde interpretatzeko. Onartu ez diren kexetan, erakunde kexagileari aholku ematen ahalegintzen da beti, hark azaldu dituen arazoak konpontzeko egokienak izan daitezkeen bideei dagokienez.

4. grafikoa.

Onartu gabeko kexa idatziak eta egoerak



● Ez dago aurretiazko erreklamazio administratibori	64
● Epaibidean	54
● Eskumen eremutik kanpo	48
● Jarduera okerrik ez, argi eta garbi	43
● Partikularren arteko auzia	22
● Legezko epeen zain egon beharra	15
● Formazko akatsa	11
● Estatuko Herriaren Defendatzailearekiko bikoiztasuna	3
● Izenik gabe aurkeztu da	2
● Urtebete baino gehiago igaro da	2

GUZTIRA**264**

Estatuko Herriaren Defendatzaileari edo beste defendatzaile batzuei bidalitako kexak

Estatuko administrazioaren jardueraren kontrako kexak ez ditu zuzenean Ararteko erakundeak bideratzen, administrazio hori ez baitago erakunde honen kontrolpean. Kexa horiek Estatuko Herriaren Defendatzaileari bidaltzen dizkiogu. Gainera, kexa batzuk beste autonomia erkidego batzuetako parlamentuetako ordezkariari igortzen dizkiegu, horien esku-men-eremupean dauden herri-administrazioei dagozkielako.

Estatuko Herriaren Defendatzaileari bidalitako kexak	72
Beste defendatzaile batzuei bidalitako kexak	4

4. Estatistika alorrez alor

Kontuan hartzen badugu kexa idatziak zein arlo tematikoekin dauden lotuta, hauxe ikusten dugu: aurreko urtearen aldean, oro har, berriz gora egin duela gizarte eremuarekin lotuta bideratu diren kexa idatzi espedienteen kopuruak. Azken kexa horiek kategoriatan banatuta agertzen ez badira ere, hainbat arlotan azaltzen dira, ez bakarrik gizarteratze arloan, baizik eta baita ere etorkinen, buru-gaixoen, haur eta nerabeen, adinekoen, etxebizitzaren, espexeratu, ezgaituen, eta abarren arloetan.


Horrela, ikus daiteke 2016an gehitu egin direla gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzeko bitartekoekin loturiko erreklamazioak: **790** izan dira (2015eko 755 kexen aldean), baina 2013. urteko 883 kexetatik eta 2012ko 1.100etik urrun dago oraindik. 790 kexa idatzi horietatik **759k** (hau da, ia %96k) **Lanbideren** jarduera txarrarekin loturiko hainbat arazorekin dute zerikusia, eta diru-sarrerak bermatzeko errenta (BE) eta etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) kudeatzerakoan izandako jarduerekin.

Gizarteratze arloan ez ezik, jarduera bizia nabari da arlo hauetan: **hezkuntza, etxebizitza, araubide juridikoa, herri-administrazioen ondasunak eta zerbitzuak, ogasuna, Herri-administrazioen zerbitzuko langileak eta segurtasuna**. Era berean, 2016an kudeatutako kexa idatzi artean, ugariak dira **arreta publikoa behar duten taldeei** dagozkienak.

Arartekoak bideratu dituen kexa-espedienteetatik **%53 baino gehiagok eskubide sozialekin** dute lotura (hezkuntza, osasuna, gizarteratzea, etxebizitza, e.a.).

Orobat, azpimarratu behar dugu kexa-espedienteetatik **%42k** gutxi gorabehera (gizarteratze arlokoek barne) zerikusia dutela pertsona guztien **benetako berdintasun eraginkorra** bermatzeko **politika publikoekin**. Politika horien xedea pertsona jakin batzuei: emakumeak, gizarte bazterkeria pairatzen duten edo pairatzeko arriskua duten pertsonak, adinekoak, haurrak eta nerabeak, ezintasunen bat duten pertsonak, homosexualak -gay zein lesbianak- edo transexualak, etorkinak eta kultura aniztasuna, ijitoak, etab., eskubide hori behar bezala gauzatzeko aukera galarazten edo eragozten dieten oztupoak kentzea da.

2. taula.**Hasitako kexa-espeditenteen banaketa, jardura-arloaren arabera***

Arloa		%
Gizarteratzea	790	36,59
Hezkuntza	155	7,18
Etxebizitza	136	6,30
Herri-administrazioen araubide juridikoa, ondasunak eta zerbitzuak	122	5,65
Arreta publikoa behar duten taldeak: ezinduak, adinekoak, berdintasuna, etorkinak eta kultura aniztasuna, espetxeratuak, e.a.	119	5,51
Ogasuna	116	5,37
Herri-administrazioen zerbitzuko langileak	109	5,05
Segurtasuna	95	4,40
Ingurumena	93	4,31
Osasuna	91	4,21
Hirigintza eta lurralde antolamendua	76	3,52
Herri lanak, garraioak eta azpiegiturak	65	3,01
Justizia	48	2,22
Jardura ekonomikoaren antolamendua	38	1,76
Hizkuntz eskubideak, kultura eta kirola	33	1,53
Haurrak eta nerabeak	28	1,30
Lana eta Gizarte Segurantzza	15	0,69
Familiak	14	0,65
Animaliak babestea eta edukitzea	9	0,42
Gardentasuna, partaidetza, gobernu ona eta datuak babestea	7	0,33
Guztira	2.159	100

* Azpiarloen arabera xehatutako datuak Arartekoaren web orrian kontsulta daitezke, [estatistika osoan](#)

5. Estatistika, eragindako administrazioen arabera

Bideratutako kexa-espeditenteek administrazio bakoitzari zer proportziotan eragiten dioten adierazten duten datuak aztertuta, aurreko urteetan bezala, 2016an Eusko Jaurlaritzaren kontra egin dira kexa idatzirik gehienak (ia %65), eta kexa zertxobait gutxitu dira autonomia erkidegoko udalei dagozkiekenak (%24 baino gutxiago).

Edonola ere, espeditenteetan inplikaturako administrazioak ikertzeak ez du esan nahi jardura okerrik egin dutenik, baizik eta haien jardueraren batek erreklamazioa sorrarazi duela.

Arlo eta administrazio bakoitzari zuzendutako kexen kopurua zuzen interpretatzeko era


Hasiera batean, administrazio jakin baten jarduerak kexa asko eragiten badituzte edo arlo zehatz batean kexa anitz jotzen badira, pentsa liteke horrek estua duela herritarrek administrazio horren funtzionamenduaz duten iritzi txarrekin, zabarkeria, gehiegikeriak edo legez kontrako jarduerak egoteari dagokionez.

Hala ere, ñabardura garrantzitsuak egin behar zaizkio kexa-kopuruaren lehen pertzepzio eta interpretazio horri, ondorioak presaka ez ateratzeko, ondorio horiek okerrak eta bidegabeak izan baitaitezke eragindako administrazioei dagokienez.

Horrela, nahiz eta administrazio jakin baten jarduerak sortutako kexa-kopurua hasiera batean esanguratsua izan, are esanguratsuagoa da –eta hori da egiaz garrantzitsua– zenbat kexatan izan zituen kexagileak erakunde honetara etortzeko moduko arrazoiak, administrazio batek oker jokatu zuelako. Halaber, erakunde honen iritzi, kexa-kopuruaren datua bera baino garrantzitsuagoa da kasuan kasuko administrazioaren jokabidea, bai ezarritako epean informatzeko betebeharra betetzeko orduan, bai erreklamazioa ikertu edo aztertu ostean emandako ebazpeni dagokienez. Hau da, funtsezkoa da administrazioak gomendioak edo iradokizunak onartzen dituen ala ez egiaztatzea, administrazioak oker jokatu duela antzeman denean.

5. grafikoa.

Bideratutako espedienteen banaketa, eragindako administrazioen arabera



A. Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren aurka (Eusko Jaurlaritza) bideratu diren espedienteak

Banaketa arloka

Eusko Jaurlaritzak eskumen zabala duen arloetan (gizarte babesa eta enplegua, hezkuntza, etxebizitza, osasuna, herri-administrazioen zerbitzuko langileak eta segurtasuna) egon da kexa idatzien espediente kopururik handiena.

3. taula.


Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren aurka (Eusko Jaurlaritza) bideratu diren espedienteen banaketa, arloen arabera

Arloa	📄	%
Gizarteratzea	710	58,10
Hezkuntza	122	9,98
Etxebizitza	112	9,17
Osasuna	71	5,81
Herri-administrazioen zerbitzuko langileak	55	4,50
Segurtasuna	40	3,27
Hizkuntz eskubideak, kultura eta kirola	17	1,39
Ingurumena	14	1,15
Lana eta Gizarte Segurantzza	13	1,06
Justizia	12	0,98
Jarduera ekonomikoaren antolamendua	12	0,98
Familiak	7	0,57
Herri lanak, garraioak eta azpiegiturak	7	0,57
Buruko gaixotasunak edo nahasmenduak dituzten pertsonak	5	0,41
Gardentasuna, partaidetza, gobernu ona eta datuak babestea	5	0,41
Ezgaitasunen bat duten pertsonak	4	0,33
Herri-administrazioen araubide juridikoa, ondasunak eta zerbitzuak	4	0,33
Emakumeen berdintasuna eta osotasuna	3	0,25
Etorkinak eta kultura aniztasuna	3	0,25
Ogasuna	2	0,16
Espetxeratuak	1	0,08
Talde terroristen biktimak	1	0,08
Animaliak babestea eta edukitzea	1	0,08
Hirigintza eta lurralde antolamendua	1	0,08

Sailen arabera banaketa

6. grafikoa.

Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren aurka (Eusko Jaurlaritzak) bideratu diren espedienteen banaketa, sailen arabera¹



Enplegu eta Gizarte Politikak	806	(%65,96)
Osasuna	110	(%9)
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura	95	(%7,77)
Hezkuntza	56	(4,58)%
Segurtasuna	48	(%3,93)
Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Exebizitza	43	(%3,52)
Herri Administrazioa eta Justizia	18	(%1,48)
Ingurumena eta Lurralde Politika	18	(%1,48)
Kultura eta Hizkuntza Politika	7	(%0,57)
Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna	6	(%0,49)
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	3	(%0,25)
Ogasuna eta Ekonomia	3	(%0,25)
Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak	2	(%0,16)
Ogasuna eta Finantzak	2	(%0,16)
Lehendakaritza	2	(%0,16)
Lana eta Justizia	2	(%0,16)
Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	1	(%0,08)

GUZTIRA
1.222


B. Foru erakundeen aurka bideratutako espedienteak

Banaketa lurraldeka

Foru erakundeen kontrako kexen artean, nabarmentzekoa da gora egin dutela Bizkaiko Foru Aldundiaren aurka bideratutako kexa idatziek, eta behera Gipuzkoakoaren kontrakoek. Egonkor mantendu dira Arabako Foru Aldundiaren aurkakoak. Berrien artean, aipagarria da Gipuzkoako Batzar Nagusien gainean egindako kexa bat.

7. grafikoa.

Foru erakundeen aurka bideratutako espedienteen banaketa, lurraldeen arabera







¹ Sail batzuk bikoiztuta daudela dirudi, Eusko Jaurlaritzak 2016-2020 legegintzaldirako onartutako sailen antolaketa berriaren ondorioz.

Banaketa arloka

Aldatu egin da azken urteotan foru eremuari zegozkion keza idatzien tipologia; horrela, zertxobait gehitu dira ogasun arloarekin eta adinekoen arloarekin lotutako kezak.


4. taula.**Foru erakundearen aurka bideratu diren espedienteen banaketa, arloen arabera**

Arloa	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA	%
					
Ogasuna	4	21	11	36	23,37
Adinekoak eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak	15	9	1	25	16,23
Ezintasunen bat duten pertsonak	1	17	3	21	13,63
Haurrak eta nerabeak	6	3	8	17	11,04
Herri lanak, garraioak eta azpiegiturak	1	7	6	14	9,09
Gizarteratzea	1	4	3	8	5,19
Hizkuntza eskubideak, kultura eta kirola	4	1	2	7	4,55
Herri-administrazioen zerbitzuko langileak	5	2	-	7	4,55
Jardura ekonomikoaren antolamendua	-	2	3	5	3,25
Familiak	1	1	1	3	1,95
Espetxeratuak	3	-	-	3	1,95
Ingurumena	-	1	1	2	1,30
Justizia	-	1	-	1	0,65
Gaixo kronikoak	-	1	-	1	0,65
Buruko gaixotasunak edo nahasmenduak dituzten pertsonak	-	-	1	1	0,65
Animaliak babestea eta edukitzea	-	1	-	1	0,65
Herri-administrazioen araubide juridikoa, ondasunak eta zerbitzuak	-	1	-	1	0,65
Etxebizitza	-	-	1	1	0,65

C. Tokiko administrazioen aurka bideratutako espedienteak**Banaketa lurraldeka**

Espediente gehienak Bizkaiko udalen aurka bideratu dira, baina kontuan hartu behar da horixe dela lurralderik jendetsuena.

5. taula.**Tokiko administrazioen aurka bideratutako espedienteen banaketa**

		%
Bizkaiko udalak	222	49,78
Gipuzkoako udalak	124	27,80
Arabako udalak	85	19,06
Bizkaiko mankomunitateak, partzuergoak eta parkeak	7	1,57
Arabako administrazio batzarrak	4	0,9
Gipuzkoako mankomunitateak, partzuergoak eta parkeak	3	0,67
Mankomunitateak, partzuergoak eta parkeak	1	0,22

6. taula.**Autonomia erkidegoko udalen eta administrazio batzarren aurka bideratutako espedienteak**

Arabako udalak	
Vitoria-Gasteiz	60
Aramaio	4
Laudio/Llodio	4
Artziniega	2
Zuia	2
Beste batzuk*	13
Guztira	85

Bizkaiko udalak	
Bilbo	46
Barakaldo	18
Getxo	15
Sopelana	15
Mungia	9
Erandio	7
Bermeo	6
Durango	6
Gernika-Lumo	6
Leioa	5
Sestao	5
Basauri	4
Galdakao	4
Santurtzi	4
Sopuerta	4
Valle de Trápaga-Trapagaran	4
Berango	3
Elantxobe	3
Ermua	3
Lekeitio	3
Ondarroa	3
Ortuella	3
Zeanuri	3
Zierbena	3
Beste batzuk*	40
Guztira	222

Gipuzkoako udalak	
Donostia-San Sebastián	48
Errenteria	7
Zarautz	7
Oiartzun	6
Hernani	5
Irun	5
Pasaia	5
Deba	4
Tolosa	4
Arrasate/Mondragón	3
Azpeitia	3
Ordizia	3
Eskoriatza	2
Lasarte-Oria	2
Lezo	2
Urnieta	2
Beste batzuk*	16
Guztira	124

* Zerrenda osoa Arartekoaren web orrian kontsulta daitezke [estatistika osoan](#).

Banaketa arloka²

Normalean gertatzen den bezala, tokiko administrazioen jarduerak eragindako errekamazioak modu nahiko homogeneoan banatuta daude udalek eskumen garrantzitsuak dituzten arloen artean. Honako arloak nabarmentzen dira: araubide juridikoa, ondasunak eta zerbitzuak, hirigintza eta lurralde antolamendua, ingurumena, segurtasuna eta ogasuna.

² Toki erakundearen kontra egindako kexa idatziak arloen arabera banatzen dituzten datuak Arartekoaren web orrian kontsulta daitezke, estatistika osoan.

D. Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka bideratutako kexa-espedienteak

Dezente ugaritu dira EAEko beste administrazio batzuen kontrako kexak, ia bikoiztu egin baitira 2015koen aldean. Euskal Herriko Unibertsitatearen aurka egindako kexei dagokienez, areagotu egin dira aurreko urteetakoekin konparatuta. Berri gisa, aipa liteke 7 kexa egin direla BIDEGIren jardueraren gainean.

7. taula.


Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka bideratutako kexa-espedienteak

	📄
Euskal Herriko Unibertsitatea	13
URA – Ur agentzia	8
BIDEGI	7
Bizkaia Jaureriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua	5
Donostia Zinemaldia-Festival de San Sebastián	2
Arabako Prokuradoreen Elkargoa	1
Araba Abokatuen Elkarte Ohoretsua	1
Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestua	1
Euskal Herriko Notario Elkargo Txit Prestua	1
Gipuzkoako Goimailako Teknikari Proiektugileen eta Delineatzaileen Elkargo Ofiziala	1
Haurreskolak	1
Guztira	41

6. Lurralde estatistika (kexa idatzien banaketa lurraldeen arabera)

8. grafikoa.

Erregistratutako kexa-espedienteen lurralde banaketaren bilakaera, jatorriaren arabera (2005-2016)*



* Arartekoaren web orrian kontsulta daitezke, [estatistika osoan](#), Arartekoaren jardueraren hasieratik (1989) izan duen bilakaerari buruzko datuak

Azken urteotan ohikoa den bezala, lurraldez lurralde egindako kexa idatziak aztertzen baditugu, Arabako lurraldea neurritz gain ordezkaturik dago guztizko kopuruan, ziur aski bertan dagoelako Arartekoaren egoitza nagusia, baita erkidegoko erakunde komunen besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren egoitza ere. Aldiz, herritarrei aurrez aurre kasu egiteko bulegoetako kexei dagokienez, Bilboko bulegoa nagusitzen da bereziki.


Erreklamazioak lurraldez lurralde, 10.000 biztanleko

Lurralde historikoen arabera erregistratu diren erreklamazio idatzien jatorriaren konparaziozko azterketa egiteko, lurralde bakoitzetik jasotako kexen kopuru osoa lurralde horretako biztanleriarekin lotuko dugu. Hurrengo koadroan bildu ditugu lurralde bakoitzetik 10.000 biztanleko multzo bakoitzeko jaso ditugun kexei buruzko datuak.

Aurreko urteetan bezalaxe, egiaztatu dugu Araba Lurralde Historikoan egin direla kexa idatzi gehien, hain zuzen, beste bi lurraldeetan halako bi ia-ia, nahiz eta biztanle gutxien hartu bere baitan.

9. grafikoa.

Erregistratutako erreklamazio idatziak lurraldez lurralde, 10.000 biztanleko (2005-2016)



* Arartekoaren web orrian kontsulta daitezke, [estatistika osoan](#), Arartekoaren jardura hasi zenetik (1989) izan duen bilakaerari buruzko datuak

Banaketa lurralde bakoitzean

Kexagileak lurralde historikoko hiriburuan ala beste udalerrri batzuetan bizi diren, herritarren jokabidea ez dela berdina erakusten du kexa-espedienteen banaketak. Egiaz, Bizkaian eta Gipuzkoan, handiagoa da hiriburutik kanpo bizi diren kexagileen kopurua; Araban, ordea, kexetatik %80 Gasteizen bizi direnek egin dituzte.

8. taula.

Kexen banaketa, hiriburuko biztanleek edo lurraldeko gainerako udalerrietako biztanleek egin dituzten kontuan hartuta

Araba/Álava	📄	%
Vitoria-Gasteiz	511	80,85
Beste udalerrri batzuk	121	19,15
Guztira	632	100

Bizkaia	📄	%
Bilbao	474	37,41
Beste udalerrri batzuk	793	62,59
Total	1.267	100

Gipuzkoa	📄	%
Donostia-San Sebastián	206	36,98
Beste udalerrri batzuk	351	63,02
Guztira	557	100

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo etorritako kexak

Urtean zehar, beste autonomia erkidego batzuetatik eta beste estatu batzuetatik etorritako 42 kexa jaso ditugu, euskal herri-administrazioen kontrakoak.


7. Prozedurari buruzko estatistika (kexa idatzien espedienteen egoera)

Jarraian, 2016an bideratutako espedienteak tramitazioaren zein fasetan dauden aztertuko dugu.

2016. urtean 1.652 kexa-espediente bukatu dira eta 1.299 ebazpen eman dira. Arartekoak hartu dituen erabakiak aztertuta, eragindako administrazioaren jarduera okerren bat zegoen 538 kasutan, hau da, ia %46tan; ehuneko hori iazkoa baino (%43) handixeagoa da. Aitzitik, ez da jarduera okerrik antzeman azterturiko espedienteetatik %54 baino gehiagotan (iaz %57 izan ziren).


Izapidetzen ari ziren espediente batzuetan, kexa aztertzen hasi ondoren, azterketa jarraitzea eragozten duten hainbat inguruabar agertu dira: beste defendatzaile batzuekiko bikoiztasuna, epailearen ebazpenaren zain dauden auziak, epai irmoa dutenak, epai bideari ekin diotenak eta abar. Espediente horiek *Gerora ez dira onartu* izenpean jaso dira ondoko grafikoetan.

10. grafikoa. 2016an bukatu diren espedienteak



Kexen egoera: euskal administrazio publikoen jarduera zuzenak eta okerrak

11. grafikoa. Kexa-espedienteen egoera



Aurreko datuetatik ondorioztatzen denez, Arartekoak 2016. urtean sakonki aztertu dituen erreklamazio guztietatik 538 kasutan, hau da, %45,75an ondorioztatu da jarduera okerren bat egin dela.

8. Ofiziozko espedienteak


Herritarren keak aztertu eta ikertzeaz gain, Ararteko erakundeak, bere kabuz, hainbat gai ikertzeari ekiten dio: batzuetan, euskal administrazio publikoren batek agian oker jokatu duela iruditu zaigulako; beste batzuetan, zerbitzu berriak emateko edo laguntzeko aukera ikusi dugulako.

Otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –Ararteko erakundearen sortu eta arautzekoak– ofizioz jarduteko aukera xedatu zuen 17.1 artikuluan. Horri esker, Arartekoak bere kabuz esku har dezake, administrazioaren irregulartasunen edo akatsen baten ondorioz kalteturiko herritarren kexen zain egon barik.

2016an ofiziozko 34 espediente bideratzen hasi gara. Arloen arabera, aipatzekoak dira Haur eta Nerabeentzako Bulegoari dagozkionak eta ingurumen eta segurtasun arloekin lotutakoak, baita ogasunari, gizarteratzeari eta ezgaituei buruzkoak ere.

9. taula.

Ofiziozko espedienteen banaketa, arloen arabera

Arloa		%
Haurrak eta nerabeak	6	17,65
Ingurumena	4	11,76
Segurtasuna	4	11,76
Ogasuna	3	8,83
Gizarteratzea	3	8,83
Ezgaitasunen bat duten pertsonak	3	8,83
Justizia	2	5,88
Herriaren Defendatzailea	2	5,88
Hizkuntz eskubideak, kultura eta kirola	1	2,94
Hezkuntza	1	2,94
Buruko gaixotasunak edo nahasmenduak dituzten pertsonak	1	2,94
Espetxeratuak	1	2,94
Ijitoak eta beste gutxiengo kultural batzuk	1	2,94
Herri-administrazioen araubide juridikoa, ondasunak eta zerbitzuak	1	2,94
Osasuna	1	2,94
Guztira	34	100

Ikus daitekeenez, Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren jardura gailentzen da iaz antzeman ziren egoera edo arazoaren aurrean ofizioz hasitako jardueretan: adibidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren mende dauden babesik gabeko haurrentzako

gizarte-zerbitzuen funtzionamendua aztertzeke hasi zena; babesik gabeko seme-alabak dituzten familia ijitoekin egindako esku-hartze espezializatua; edo, Euskadiko udal batzuetan, adingabeei alkoholik ez saltzea kontrolatzeari buruz egindako jarduerak.

Segurtasun arloan ikuskatzeko bisitak egin dira Amorebieta-Etxano eta Portugaleteko Udaltzaingoetara eta Getxoko Ertzain-etxera, eta ofiziozko jarduerak bat hasi da Sestaoko ziegen egoeraren berri jakiteko.

Ingurumen arlotik bultzatutako ofiziozko jarduerak mota askotakoak dira. Horietako bat, ostalaritza establezimendu batek Arrigorriagako Udalari zaratagatik sortutako eragozpenengatik hasi zen; beste kasu batean, Hondarribiko gazteen lokal batean gertatutako sutea ikertzeke; beste batzuk, berriz, fringilidoak babesteko eta silbestriismoa eragozteke.

Hizkuntza eskubide, kultura eta kirol arloan, Lezamako Bake Epaitegian euskaraz ezin artatu izanarekin zerikusia zuen ekimen bat bultzatu zen.

Ogasun arloan nabarmentzekoak dira Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiei zuzendutako ekimenak, gai hau zela eta: planeamendu-arauetan urbanizagarri edo hiri-lur bezala sailkatuta egon arren, orain nekazaritzarako erabiltzen diren lurzoruetan kokaturiko lursail batzuen katastro-balarazioa. Era berean, Bastidako Udalean hiri-lurren balioa gehitzeari buruzko ekimen bat hasi zen.

Aipagarriak dira, halaber, osasun arloan burututako ofiziozko jarduerak, euskal osasun-sistemak elikadura-nahasdurak dituzten pertsonen zuzendu dizkien berariazko jarduerak aztertzeke; baita ere adingabe atzeritarren osasun-arretarekin zerikusia dutenak.

Orobat, gizarteratze arloan hasitako jarduerak nabarmendu behar ditugu. Horiek Lanbiderekin zerikusia dute, semea edo alaba beraien kargura izateagatik prestazioa jasotzen duten pertsonen diru-sarrerak bermatzeko errentaren osagarria onar diezaieten, edo genero-indarkeria jasan duten emakumeek DSBE eskuratu ahal izan dezaten.

Aipaturiko ofiziozko 34 espediente horiez gain, Arartekoak zenbait jardura hasi ditu beste 16 espedientetan, erakundeak egindako gomendioak bete ote diren aztertzeke. Gehienak Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren ekimenak dira, euskal herri-administrazioek gomendioak betetzen ote dituzten jakiteko. Halakoak dira, esate baterako, Arartekoak haurren pobretasunaz egindako azterlanaren ondoriozko gomendioak; adingabeentzako zentro batzuetan jazotako gertakarien bilakaera aztertzea; egoera txarrean bizi diren haurrei buruzko txostenean egin ziren gomendioetako batzuen bilakaera aztertzea, baita bakarrik dauden adingabe atzeritarrak artatzeari buruzko gomendio orokorrarena ere. Orobat, bulego horrek ikuskatzeko bisitak egin ditu Bilboko eta Gasteizko familia elkarguneen funtzionamendua ikusteko, eta informazioa eskatu du haurren pobretasunaren gaineko gobernu planaz, edo, Estatuko berriztatzeen ondorioz, 2015ean haurren gainean egin ziren arau-aldaketek.

Ofiziozko jarduera horiek eta beste zenbait –horietako batzuk aztergai dugun urtean bukatu dira, beste batzuk bideratzen ari dira– zehatzago kontsulta daitezke txosten honen II eta III. kapituluetan, baita horri erantsitako Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostenean ere.


9. Estatistika soziologikoa. Kexagileen tipologia eta kexen formatua

Gure zerbitzuetara jotzen duten pertsonen harrera egiteko modu naturalak Arartekoaren esku hartzea eskatzen duten pertsonen ezaugarriak eta baldintzak ezagutzearekin zuzeneko zerikusia dauka.

Kexagileen ezaugarriak

2016. urtean egindako kexen analisi soziologikoak ez du al-daketa esanguratsurik erakusten aurreko urteekin aldean.

12. grafikoa.
Jasotako kexen banaketa, kexagileen ezaugarrien arabera




Kexa idazteko erabilitako hizkuntza

Gaur egun gaztelania da kexak idazteko gehien erabiltzen den hizkuntza. Euskaraz eta bi hizkuntzetan aurkeztutakoek gorakada txiki bat izan dute. Halere, Arartekoaren erakundearen herritarrei bi hizkuntza ofizialetan arreta emateko gai diren pertsonak daude.

Ararteko erakundeak erreklamazioak herritarrek aukeratutako hizkuntzan izapidetzen ditu, irizpide modura. Arartekoa kexa eragindako administrazioekin harremanetan jartzean, eta ofiziozko espedienteren bat abiatzen duenean, komunikazioa EAEko bi hizkuntza ofizialetan egiten da.


13. grafikoa.
Kexen banaketa, erabilitako hizkuntzaren arabera




Kexak egiteko era

Kexak egiteko moduari buruz, datuek erakusten digute eutsi egin zaiola iazko joera-aldaketari, izan ere, kexetatik %83 baino gehiago aurrez aurre egin dira, Arartekoaren herritarren arretarako hiru bulegoetan. Horrela, 2014. eta 2015. urteko joera mantendu da eta kexagileak aurreko urteetako joera orokorretik aldendu dira, izan ere, orduan Internet zen kexak egiteko bide nagusia. Ziur aski, krisiaren ondorioekin eta eskubide sozialekin zerikusia duten kexak gehitu direlako gertatu da hori, eta Arartekoari azaldutako kasuak konplexuagoak direlako.

14. grafikoa.
Kexen banaketa, herritarrek erabili duten bidearen arabera



15. grafikoa.
Nolakoa iruditu zaizu Arartekoak bidalitako informazioa?



10. Erabiltzaileen iritzia

10.1. Erabiltzaileei egindako inkestaren emaitzak

Duela zenbait urte, herritarrengana hurbiltzeko bidea hasi genuen, esku hartzeko eskatu diguten pertsonen iritzia jakiteko. Erakundearen jardunbidean ahulguneak zeintzuk diren jakitea eta eskaintzen dugun zerbitzua hobetzen saiatzea ditugu helburu.


Horregatik, kexa-espeditate baten izapideak amaitzen ditugunean, kexagileari galdera-sorta bat bidaltzen diogu, nahi izanez gero eta izena ipini barik, galdera batzuei erantzuteko eskatuz, emandako zerbitzuaren gainean egiten duen balorazioa jakiteko.

Emaitzak balioztatzean, garrantzitsua da honako hau kontuan hartzea: 2016an zenbait kexaren biderapen-lana amaitu da; kexa horien artean, gutxi gorabehera %46tan uste izan da eragindako administrazioak jardura okerren bat burutu zuela.

Herritarrek Arartekoaren esku-hartzeaz 2016an egin duten balorazioa oso ontzat jo behar da. Horixe ondoirozta daiteke Arartekoaren zerbitzuak erabili dituzten pertsonetatik galdera-sortari erantzun diotenen erantzunetatik.


Hortaz, "jasotako informazioa ona edo oso ona" iruditu zaie kexaren bat egin duten herritarren ia %70i, kexaren biderapena bukatu ondoren.

16. grafikoa.
Nolakoa iruditu zaizu Ararteko erakundeko langileek eman dizuten arreta (laguntzeko prest egotea, tratua, enpatia...)?




Arartekoak egiten duen zerbitzuari buruzko balorazio onaren adierazgaririk nabarmenena da kexagileen %82k baino gehiagok ontzat edo oso ontzat jo duela jaso duen arreta.

17. grafikoa.
Oro har, nolakoa iruditu zaizu Arartekoaren lana?
(Azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea,
egindako gestioak...)




Hau da, galdera-sortari erantzun dioten pertsonetatik %70k baino gehiagok oso egokitzen edo nahiko egokitzen jo dute Arartekoaren esku-hartzea, eta ia %10i egokia iruditu zaie.

18. grafikoa.
Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren
bati Arartekora joateko gomendatuko zenioke?




Beraz, kasuetatik %81 baino gehiagotan Arartekora jotzea gomendatuko litzateke, administrazioarekin arazorik edukiz gero.

19. grafikoa.
Nolakoa iruditu zaizu kexa aurkeztu zenuenetik tramitazioa bukatu arteko denbora?



Erantzuna jasotzeko denborari dagokionez, %43 baino gehienek uste dute denbora laburra edo oso laburra izan dela.

20. grafikoa.
Zure ustez, nolakoa da Arartekoak gizartearen eta herri-administrazioaren aurrean duen irudia eta sinesgarritasuna?



Eskubideak babesteko sortu zen Arartekoa bezalako erakunde batean oso garrantzitsua da bere erabiltzaileen iritzian sinesgarritasunaren balioa agertzea. Horretaz jabetuta, azken urteotan galdera hori gehitu dugu. Galdera-sortari erantzun diotenetatik (153 pertsona) ia %65ek uste dute erakundeak gizartearen eta administrazioaren aurrean duen irudia eta sinesgarritasuna onak edo oso onak direla, eta hori laguntza handikoa da Ararteko erakundearentzat.

Era berean, azken urte hauetan Arartekoaren funtsezko bi tresnari buruz galdetu dugu: alde batetik, gure web orriaz, funtsezko tresna baita gure zerbitzuez informatzeko eta herritarrekin elkarri eraginez jarduteko (orri hori erabiltzaileen %55ek ezagutzen dute); eta bestetik, Arartekoaren zerbitzu-kartaz. Bertan biltzen dira kalitateko konpromiso guztiak eta erabiltzaileek erakundearekiko dituzten eskubideak, baita eskubide horiek baliatzeko modua ere (tresna hori galdera-sortari erantzun diotenen %39ek ezagutzen dute). Galdera-sortaren emaitzetan, oso ontzat jotzen da, nabarmenki, Arartekoaren webean eta gainontzeko bideetan ematen den arreta telematikoa (%71k ontzat edo oso ontzat hartzen dute), baita ere Arartekoarekin gestioak egiteko erraztasuna (ona iruditzen zaie %77ri baino gehiagori).

Beraz, emaitza horiek denek –aurreko urteetako antzekoak ondorio hau aterarazten digute: Arartekoaren zuzeneko esku-hartzearekin –bere jardueraren eta giza baliabideen araberakoa– lotutako iritziak aztertzen direnean, oso ontzat jotzen da egindako lana.

Bestelako emaitza lortzen da Ararteko erakundearen erabakitzeko edo jarduteko ahalmenetik kanpo geratzen diren alderdiez galdetzen denean. Alderdi horiek gehienbat administrazioaren laguntzeko edo ez laguntzeko jarrerarekin dute zerikusia: prozesuaren iraupena (%54k baino gehiagok uste dute igarotako denbora luzea edo oso luzea izan dela), nahiz eta Arartekoan espedienteak, batez beste, 69 egunetan bideratzen diren.

Inkestetan lortzen diren datuez gain (jada azaldu direnak), kexagileek galdera-sortaren ataletako baten bidez bidal diezazkiokete Arartekoari beren iritziak eta iradokizunak.

Erakundearen funtzionamenduaz dauden iritzien eta hobetzeko iradokizunen artean, honako hauek daude: langile teknikoek emandako tratu onaren eta haien profesionaltasunaren gaineko hainbat iritzi.

Gainera, erakundearen eta bere funtzioen berri ematea proposatu dute, uste baitugu jendeak gutxi ezagutzen duela erakundeak pertsonarik ahulenak babesteko egiten duen jarduera.

Beste batzuetan, herritarrei kasu egiteko bulegoetan langile gehiago jartzeko iradokitzen da, ez itxaron behar izateko, edo, aldizka-aldizka, prozedurari buruzko informazio gehiago eman dadila. Kasuren batean, Arartekoaren ebazpenarekin desadostasuna agertu da.

Herritarrek Arartekoaren lanaren inguruan eskainitako iritzi datu horiek erantzukizun handia dira eta are pizgarriagoak eguneroko lanean.

10.2. Ararteko erakundearen zerbitzu-kartaren web inprimakiaren bitartez jasotako iradokizunak

2012. urtetik aurrera, Ararteko erakundeak herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuen inguruko iradokizunak edo iritziak emateko aukera erraztu da. Eta 2013an [Arartekoaren zerbitzu-kartan](#) egindako aldaketan ondorioz, Arartekoaren informazio publikoa eskuratzeko eskubidea sartu da, baita ere [ARCO eskubideak](#) erabiltzeko aukera ere (eskubide horiek Ararteko erakundeak dituen datu pertsonalen gainekoak dira).

laz zazpi iradokizun egin dira:

Horietatik lautan, desadostasuna agertu zen Arartekoak emandako arretarekin lotutako alderdi batzuekin. Bosgarrenean adierazi zen gaingitu egin zela Arartekoaren Zerbitzu Kartan ezarritako epea. Beste batean iradoki zen Arartekoaren web orriko informazioa egunera zedila. Eta azkenekoa egiteko arrazoia hauxe izan zen: ez ziotela txakurrarekin sartzen utzi herritarrei kasu egiteko Arartekoaren bulegoan.

Horiek guztiak oso baliagarriak izan dira Arartekoarentzat, izan ere, zenbait kasutan gure zerbitzuak hobetu ahal izan ditugu, eta, beste batzuetan, Arartekora etorri diren pertsonen aholkuak eman ahal izan dizkiegu, baita arreta egokia ere, Arartekoaren Zerbitzu Kartan ezarritako moduan.

ARCO eskubideak baliatuz, pertsona batek eskatu zuen ezeztatu zitezela Arartekoak izan zitezkeen bere datu pertsonalak; gai hori behar bezala ebatzi zen, oso epe laburrean.

laz eskabide bat jaso dugu Arartekoak daukan informazio publikoa eskuratzeko, Gardentasunerako, Informazio Publiko Eskuratzeko eta Gobernu Onerako Legearen ondoriozko eskubideak baliatuz. Eskabide horiek berehala kudeatu da, eskatutako informazioa legean ezarritako moduan eta epeetan emanez.

11. Informatzeko betebeharrak

Lege antolamenduak Ararteko erakundearen modukoei esleitzen dizkien kontrol eginkizunak betetzeko ezinbestekoa da erakunde horien jardura esparruetan sartzen diren herri administrazioen laguntza. Izan ere, administrazio horiek izapidetzen ari diren espedienteen ebazpen oinarritua lortzeko behar den informazio guztia eman behar dute eta, gainera, ezarritako epeetan egin behar dute hori, ikerketa eta kontrolleko lanek gutxienez eragingarritasuna izan dezaten nahi bada behintzat.

Errealitate horretaz jabetuta, Ararteko erakundea sortu eta araupetzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, 23. artikuluan, bere kontrolpean jarritako herri administrazioen betebeharrak hori espresuki aipatzen du, administrazio horiei eskatzen zaizkien datu, dokumentu, txosten eta argitasun guztiak lehentasunez eta premiaz aurkeztu behar dutela dioenean. Era berean, 26. artikuluan adierazten du informazioak, espedienteak edota bestelako datuak bidaltzeko eskatzen zaienean, erakundeak eskatutakoari erantzun dakion epe bat ezarri beharko duela. Betebeharrak hori sendotzeko, lege berberak dio, 24.2 artikuluan, herri Administrazioaren zerbitzura ari den edozein organismo, funtzionario, zuzendari edo pertsonak Arartekoaren ikerketa lanaren aurrean jarrera ezkorra edo oztopatzailea erakusten tematzekotan, txosten berezia egin ahal izango da, urteko txostenean dagokion atalean aipatzeaz gain.

Hain zuzen ere, urteko txosten honetan atal hau sartzearen helburua da Eusko Legebiltzarrak eta, era berean, iritzi publiko orokorrak jakitea zein izan diren erakundearekin lankidetzan jarduteko arreta eta gogo berezia eskaini dituzten administrazio eta organismoak, baita lankidetzak hori ukatu edo atzeratzeagatik herritarrek azaldutako kexak dagokien epean konpontzeko ezintasuna eragin dutenak ere.

Komeni da azpimarratzea lankidetzan aritu beharra gogoratzeko funtzioa zehazki egiten dela, administrazioen kudeaketan eragina duten aldagaiak kontuan hartuta, eta kexa bat azaldu duen pertsonari erantzun eraginkor eta azkarra emateko ageriko helburuarekin. Baina, tamalez, ez dira gutxi arduragabekeria nabarmena islatzen duten egoerak, erakunde honen kontrol funtzioari eta, era berean, kexa azaldutako pertsonen eskubideei errespeturik gabeko jarrera aditzera ematen dietenak. Kasu horietan, hain zuzen, erakundeak ohartarazpenaren azken urratsera jotzea beste erremediorik ez du, lankidetzarik ezak eragin litzakeen ondorio penalen berri emateko asmoz (Zigor Kodeko 502.2 artikulua).

Jarraian erantsitako zerrendetan agertzen dira 2016. urtean lankidetzan aritzeko prest egon diren administrazio edo beste erakunde batzuei buruzko datuak (1). Horregatik, ez da beharrezkoa izan horiei errekerimendurik egitea.


Aitzitik, 2016. urtean errekerimenduak bidali behar izan zaizkien administrazio eta erakundeen gaineko datuak ere jaso dira (2).

Azkenik, kasu larrienak nabarmendu dira: horietan, hainbat erakundetako arduradunek ohartarazpenak jaso dituzte, baina txosten honen testua bukatzeko unean oraindik ez diete erantzun ohartarazpen horiei. (3).

11.1. 2016an kexak izanda ere, errekerimendurik jaso ez duten administrazioak eta bestelako organismoak


Zerrenda honetan jaso dira errekerimendurik egin behar izan gabe, ebatzi ahal izateko 2016. urtean gutxienez informazio-eskaera bat eragin duten **administrazio** eta bestelako **organismo** guztietan izapidetutako espedienteak. Sailak zehazki azaltzen dira EAEko administrazio orokorraren eta foru aldundien kasuan. Beraz, adierazi bezala, ardura eta **arreta bereziena eskainiz lankidetzan jardun duten administrazioak eta erakundeak dira.**


A. Eusko Jaurlaritzak³


Saila	
Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna	5
Hezkuntza	11
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura EITB	2
Ingurumena eta Lurralde Politika	11
Euskal Trenbide Sarea	3
Euskotren	3
Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza	3
Lehendakaritza	1
Osasuna	3
Kontsumobide	3

³ Sail batzuk bikoiztuta daudela dirudi, Eusko Jaurlaritzak 2016-2020 legeingizaldirako onartutako sailen antolaketa berriaren ondorioz.

B. Foru aldundiak

Arabako Foru Aldundia	
Enplegua, Merkataritza eta Turismo Sustapena eta Foru Administrazioa	3
Euskara, Kultura eta Kirolak	1
Ogasuna, Finantza eta Aurrekontuak	1
Bide Azpiegiturak eta Mugikortasuna	1

Bizkaiko Foru Aldundia	
Ogasuna eta Finantzak	7
Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa	4
Ekonomia eta Lurralde Garapena	2
Iraunkortasuna eta Inguru Naturala	2
Euskara eta Kultura	1


Gipuzkoako Foru Aldundia	
Ogasuna eta Finantzak	5
Bide Azpiegiturak	5
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirolak	2
Ingurumena eta Obra Hidraulikoak	2

C. Udalak eta administrazio batzarrak**Arabako Lurralde Historikoa**

Arabako udalak	
Artziniega	2
Elburgo / Burgelu	1
Labastida	1
Lagrán	1
Lapuebla de Labarca	1
Okondo	1
Peñacerrada-Urizaharra	1
Zigoitia	1
Zuia	2

Arabako administrazio batzarrak	
Antoñana	1
Mezkie	1
Urrunaga	1

Bizkaiko Lurralde Historikoa

Bizkaiko udalak	
Arrigorriaga	2
Artea	1
Bakio	1
Barrika	1
Bilbao	36
Elantxobe	1
Ereño	1
Etxebarri	1
Fruiz	1
Galdakao	3
Gamiz-Fika	1
Gatika	1
Gorliz	1
Güeñes	1
Igorre	1
Leioa	4
Lekeitio	2
Ondarroa	2
Portugalete	1
Santurtzi	2
Sopuerta	4
Zalla	2
Zeanuri	3

Gipuzkoako Lurralde Historikoa




Gipuzkoako udalak	
Arrasate / Mondragón	4
Azpeitia	3
Deba	2
Elduain	1
Eskoriatza	1
Ezkio-Itsaso	1
Hondarribia	2
Ibarra	1
Idiazabal	1
Itsasondo	1
Lasarte-Oria	1
Lezo	1
Oñati	1
Ordizia	4
Orio	1
Segura	1
Tolosa	1
Zarautz	6
Zestoa	1
Zumarraga	1

D. Beste erakunde publiko batzuk

	
Bidegi	4
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa	5
Arabako Errioxako Urkidetza	1
Arabako Abokatuen Elkarte Ohoretsua	1
Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestua	1
Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua	1
Enkarterriko Mankomunitatea	1
Euskal Herriko Unibertsitatea	6
Ura – Ur agentzia	7



11.2. Kexak direla-eta, 2016an errekerimenduren bat jaso duten administrazioak eta bestelako organismoak

Zerrenda honetan jaso dira ebatzi ahal izateko gutxienez informazio-eskaera bat eta **errekerimendu bat** egitea eragin duten **administrazio** eta bestelako **organismo** guztietan izapidetutako espedienteak, **sailen arabera**, EAeko administrazio orokorraren eta foru administrazioen kasuan. Zerrendak honako ezaugarriak ditu:

-  (1) zenbat espedientetan egin den 2016. urtean informazio eskariren bat.
-  (2) 2016an informazioa eskatu deneko espedienteetatik zenbatetan egin den errekerimendua.
-  (3) errekerimendua egin zaien espedienteen ehunekoa, 2016an informazio eskaririk egin zaieneko guztirako espedienteen aldean.



A. Eusko Jaurlaritza

	(1)	(2)	(3)
Saila			%
Herri Administrazioa eta Justizia	13	4	30,77
IVAP / HAEE	1	1	100
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura	114	10	8,77
HABE	2	2	100
Enplegua eta Gizarte Politikak	697	355	50,93
Ogasuna eta Finantzak	2	1	50
Osasuna	22	2	9,09
SVS / Osakidetza	71	19	26,76
Segurtasuna	40	1	2,50

B. Foru aldundiak



Arabako Foru Aldundia



	(1)	(2)	(3)
			%
Gizarte Zerbitzuak	19	6	31,58



Bizkaiko Foru Aldundia



	(1)	(2)	(3)
			%
Gizarte Ekintza	24	6	25
Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	1	1	100

Gipuzkoako Foru Aldundia



	(1)	(2)	(3)
			%
Gizarte Politika	11	1	9,09
Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa	3	1	33,33
Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka	2	2	100

C. Udalak eta administrazio batzarrak

Arabako Lurralde Historikoa



	(1)	(2)	(3)
Arabako udalak			%
Aramaio	4	3	75
Arazua-Ubarrundia	1	1	100
Baños de Ebro / Mañueta	1	1	100
Iruna Oka / Iruña de Oca	1	1	100
Laudio / Llodio	4	1	25
Ribera Baja / Erribera Beitia	1	1	100
Vitoria-Gasteiz	33	5	15,15

	(1)	(2)	(3)
Arabako administrazio batzarrak			%
Gordoa	2	1	50

Bizkaiko Lurralde Historikoa



	(1)	(2)	(3)
Bizkaiko udalak			%
Abadiño	3	3	100
Amorebieta-Etxano	2	1	50
Atxondo	1	1	100
Barakaldo	12	3	25
Basauri	1	1	100
Bedia	1	1	100
Berango	3	2	66,67
Bermeo	4	1	25
Derio	1	1	100
Durango	6	2	33,33
Erandio	8	3	37,50
Gernika-Lumo	6	3	50
Getxo	10	6	60
Mungia	8	3	37,50
Orozko	1	1	100
Ortuella	2	2	100
Sestao	3	3	100
Sopelana	7	1	14,29
Trucios – Turtzioz	1	1	100
Urduliz	2	1	50
Valle de Trápaga – Trapagaran	4	3	75
Zaratamo	1	1	100
Zierbena	1	1	100

Gipuzkoako Lurralde Historikoa

	(1)	(2)	(3)
Gipuzkoako udalak			%
Beasain	1	1	100
Donostia-San Sebastián	34	17	50
Eibar	1	1	100
Errenteria	6	2	33,33
Hernani	3	2	66,67
Irun	1	1	100
Lazkao	2	2	100
Mutriku	1	1	100
Oiartzun	2	2	100
Pasaia	2	1	50
Urnieta	1	1	100

D. Beste erakunde publiko batzuk

	(1)	(2)	(3)
			%
Mebisa - Bilboko Metroa	1	1	100

11.3. Arartekoak 2016. urtean egin eta erantzunik jaso ez duten ohartarazpenak

2016. urtean guztira 40 ohartarazpen egin behar izan ditugu; beraz, 2015eko ekitaldian baino %50 gehiago, baina horietako gehienei geroago erantzun zaie. Salbuespenak salbuespen, ohartarazpen gehienak Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari egin zaizkio, baita udal arduradun batzuei ere.

Txosten honen prestaketa itxeko orduan, oraindik erantzuteko daude Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako orduko sailburuari egin zitzaizkion hainbat ohartarazpen (guztira 8). Sail horren ardura orain Beatriz Artolazabal sailburu berriak duelako adierazten dugu hori. Era berean, zenbait udal arduradunek (Arratzua-Ubarrundia eta Zierbenako alkateek) oraindik ez diete erantzun egindako ohartarazpenei.

A. Eusko Jaurlaritz


Saila	Ardura	Titularra	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Ohartarazpe- naren data
Enplegu eta Gizarte Politikak	Sailburua	Ángel Toña	1163/2015	DSBEa bukatzea	2016/11/22
			1538/2015	Lanbidek kopuru batzuk itzultzeko eskatu du, DSBEagatik oker jasotakoak	2016/11/21
			2/2016	DSBEa eta EPOa etetea	2016/11/22
			88/2016	DSBEa eta EPOa ez berritzea	2016/11/22
			342/2016	Lanbidek adierazi du uko egin zaiola DSBE eta EPO eskaera bati	2016/11/22
			875/2016	DSBEa eta EPOa etetea	2016/11/15
			1286/2016	DSBEa ez berritzea	2016/11/22
			1391/2016	Ez dago konforme DSBE baten zenbatekoa aldatzearekin	2016/11/21

B. Udalak**Arabako Lurralde Historikoa**

Udala	Ardura	Titularra	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Ohartarazpe- naren data
Arratzua-Ubarrundia	Alkatea	Blanca Anteparra	1827/2015	Ez dute erroldatu nahi izan bere familiarekin bizi den bizilekuan	2016/04/05

Bizkaiko Lurralde Historikoa

Udala	Ardura	Titularra	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Ohartarazpe- naren data
Zierbena	Alkatea	Iñigo de Loyola	991/2016	Etxebizitza batean egonkortasun arazoak daude, euri-uren eta beste batzuen hodiak pasatzen direlako	2016/11/16



II

ATAKA

Euskal Herriko administrazio publikoen jarduera ikuskatzea

II. Atala

EUSKAL HERRIKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN JARDUERA IKUSKATZEA

EAEko herritarren eskubideak babesteko ardua esleitu diote Arartekoari, EAEko herri-administrazioen irregularitasunen, akatsen, gehiegikeriaren eta jardun okerraren aurrean jardun dezan. Horretarako, oinarrizko bi lanabes erabiltzen ditu:

- herritarrek egiten dituzten kexa-espeditentak ebaztea. Kexa jartzeko, aurrez ezarritako bide hauek erabil daitezke: Arartekoaren hiru bulegoetako batera joan, postaz baliatu, edo internetez, Arartekoaren web orriaren bidez.
- ofiziozko jardunen bitartez (halakoetan, Arartekoak jarrera proaktiboa hartzen du), ofiziozkoa, jardun administratibo batek funtsezko eskubideren bat kalteu dezakeela hautematen badugu, eta indarrean dagoen legeria urratu dezakeela iruditzen bazaigu.

2016. urtean era guztietako 8.171 kexa eta kontsulta egin dituzte herritarrek. Gainera, urtean zehar **ofiziozko 34 espeditente** hasi dira. Arloen arabera, nabarmentzekoak dira Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren ekimenez hasitakoak, baita ere ingurumen eta segurtasun arloei buruzkoak.

Kapitulu honetan egituratuta daude jarduera guztiak, Arartekoaren bulegoa antolatzeko dauden 17 arloen arabera multzokatuta. Arlo bakoitzean jarduerarik adierazgarrienak aztertuko ditugu, eta arlo horretan bideratu diren kexarik garrantzitsuenak azalduko ditugu, gai multzoetan berezita. Era berean, urtean barrena gertatutako lege-aldaketak aipatuko ditugu, halakorik izan bada.

Kexak zer arloekin lotuta dauden kontuan hartuta, 2016. urtean ere goi-mailetan mantentzen dira, aurreko urteetan bezalaxe, gizarte bazterketaren kontra borrokatzeko bitartekoekin zerikusia duten kexak. Bereziki gailentzen dira Lanbideren funtzionamendu-arazoei dagozkienak, baita ere erakunde horrek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta

etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren arloan burutu dituen jarduerekin lotutakoak.

Aurten, arlo bakoitzeko lana aurrez garatutako jarduera-planaren inguruan egituratzea indartu da. Arlo guztietan lana planifikatzeko eta homogeenagoa egiteko tresna da, 2010. urtetik aurrera ezarri duguna. Arloen plangintza estrategikoa egiteko tresna gisa erabiltzen ari da pixkanaka. Era berean, arlo bakoitzaren bukaeran, arlo horrekin lotutako herritarren eskubideak baloratzeko atala agertzen da. Horri esker, begiratu azkar batean, 2016. urtean gaikako arlo bakoitzean kontua nola dagoen ikus daiteke.

Merezi du Arartekoaren lan-mekanika aipatzea, bai Estatuko Herriaren Defendatzaileari bidalitako kexa idatziei dagokienez, bai onartzen ez diren kexei dagokienez, izan ere, horietan denetan izapide laburtua egiten da, baita bideragarritasuneko eta eskumenezko azterketa ere. Egiaz, onartu gabeko kexen estatistikan –aurreko kapituluaren eman dugu hori idatziz–, Espainiako Herriaren Defendatzailearekiko bikoiztasuna agertzen da kexa ez onartzeko arrazoi gisa haietako 3 kasutan. Beraz, kexa bakoitza banaka aztertuz, Arartekoaren jarduerarekiko bikoiztasunak ekidingo direla bermatzen da.

Horregatik, bideratzen ez diren kexetan ere dedikazio hori egiazta daiteke. Kasu askotan, horren osagarri, kexagileari aholku ematen zaio jarduteko modurik egokienaz, edo konponbide zehatzak bilatzen dira azalduetako arazo zehatzetarako –hori da Arartekoarentzat garrantzitsuenaz–, egin daitekeen edo egin nahi den izapidea edozein izanda ere, edo eragindako administrazioari luzatutako gomendioa alde batera utzita. Alegia, administrazio-prozeduraren aurretik, benetako konponbideak lortzea lehenesten dugu eta nolabait bitartekaritza informala egiten dugu. Bitartekotza horrek oso emaitza onak izaten ditu eta kexagileak gogobetetzen ditu.

II. ATALA

1

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK, KULTURA ETA KIROLA

1. Arloa kopurutan

Arlo horretan guztira 33 kexa-espeditente berri ireki dira 2016. urtean; hau da, Arartekoak urtean zehar izapidetzea onartutako guztien %1,53. Jarraian, espeditente horien banaketa azalduko da, arloka:

- Kirol jarduerak9
- Kultura, industria eta arte ondarearen babesa.....9
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa6
- Herritarren hizkuntz eskubideak euskal administrazioekiko harremanetan4
- Beste alderdi batzuk3
- Kultur ekintzak.....2

Urtean zehar izapidetutako kexen egoerari dagokionez, txosten hau ixterakoan, egoera hauze zen:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
47	27	20	6	10	2	2

Beste behin ere, **euskara eta gaztelania koofizialak izatearen ondoriozko hizkuntza-eskubideen** defentsaren ingurukoak izan dira eremu honetan egin diren jarduerak gehienak. Sektoreka, bi hauek nabarmendu daitezke:

- **Euskarazko osasun-arreta.** Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzako **Euskara Zerbitzuari** esker, arrazoi horren harira jaso ditugun kexa batzuk konpondu ahal izan dira, bai eta egiturazko oztupoak identifikatu ere. Oztupo horiek, kasu batzuetan, herritarrei eskubide hori bermatzeko orduan oraindik ere badirauren hobekuntza-tartea jartzen dute agerian.
- **Udaletako jarduera** elebakarrak, hizkuntza batean zein bestean egindakoak, bai ekitaldi publikoen eremuak, bai eskubideen erabilerarako garrantzitsuak diren informazioak zabaltzean egindakoak. **Eusko Jaurlearitzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren** Hizkuntza Politikako sailburuordearekin koordinatuta garatu da, hein handi batean, gure lana; eta, zehazki, bertako **Elebide** zerbitzuarekin koordinatuta.

Euskararen ezagutza sustatzeko eta egiaztatzeko politikei dagokionez, zentzu bikoitzean aritu da Arartekoa: alde

batetik, **euskara ikasteko laguntza publikoen** araubidea hobetze aldera, eskudun administrazioekin akordioak egin, ahalik eta pertsona kopuru handienarentzako laguntza irigarriak izan daitezzen horiek, berdintasun-irizpideetan oinarritutakoak, eta, bestetik, **HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak hizkuntza-gaitasuna ebaluatzeko egiten dituen ebaluazioen** inguruan aritu da erakunde hau. Azterketak egin zituzten pertsona batzuek Arartekora jo zuten, HABEK azterketak zuzentzeko orduan erabiltzen dituen irizpideei buruzko informazio gehiago eskatuz, eskuratutako emaitzak aurkaratzeari begira. Erakunde honen zereginen artean, herritarren babesgabatasuna saiheste aldera, administrazioaren jarduera legeak aurreikusituen bermeei egokituko zaiela ziurtatzea dago. Horretarako, jasotako kalifikazioan arrazoiketa urria egoteari buruzko kexetan hartu ahal izan dugu esku; arrazoiketaren oinarri akademikoari dagokionez, ordea, ez dagokigu ezer egitea.

Kultur-ondarea babesteko gaitetan, babes-araubidea betetzen dela ziurtatzera bideratu dugu gure lana, hirigintza-jarduerari dagokionez. Era berean, kultur-interesekotzat hartzeko ondasunak identifikatzeari eta hautatzeari buruzko espeditenteak izapidetu ditugu, bai partikularrek eskatuta, bai ondasun horiek babesteko ekimen herritarrek eskatuta. Balorazio-irizpideak, herritarren parte-hartzea eta izapidetzeko epeak izan dira gure jardueretako hiru alderdi, Eusko Jaurlearitzako Kultura Sailaren aurrean, Donostiako Udalaren aurrean eta Bizkaiko zein Gipuzkoako Foru Aldundien aurrean izapidetu ditugunak.

Eremu honetan jaso ditugun gainerako kexen artean, **kirol-diziplinaren** ingurukoak eta **haurrentzako kirolaren eta haurren aisialdirako jardueren** ingurukoak nabarmendu ditzakegu.

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Euskararen irakaskuntza, langabetuak lanerako gaitzeko neurri gisa

Salatutako egoera

Hainbat kexatan, kexagileak langabetuak ziren, eta beren kexetan azaltzen zuten Lanbidera jo zutela, bi hizkuntza ofizialak ezagutzea eskatzen duten lanpostuetara sartzeko aukera edukitze aldera, hizkuntza-gaikuntzarako neurriak topatzeko itxaropenez, enplegurako prestakuntzaren zati gisa hartuta horiek. Beren nahigabea adierazten zuten; izan ere, asmo hori zapuztuta ikusi ondoren egiaztatuta zuten beren udalek ere ez zutela eskaintzen berriaz kolektibo horri zuzendutako laguntzarik euskara ikasteko.

Hain zuzen ere, Enplegurako Euskal Zerbitzuak beste hizkuntza batzuk ikasteko ikastaroak jasotzen zituen enplegurako gaitzeko programetan, baina ez euskara ikasteko ikastaroak, udalak baitira xede horretara bideratutako laguntza publikoak kudeatzen dituztenak. Alabaina, erakunde honek egiaztatu ahal izan duenaren arabera, udal guztiek ez daukate horren inguruko programak, eta ez dago homogeneotasunik egun herritarren eskura dauden programen artean.

Arartekoaren esku-hartzea

Gure ustez, erakundeen artean jorratu behar zen kontua, erantzun oso eta homogeneoa emateko xedez. Beraz, [Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailera](#) jo genuen, bai eta horren baitako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailera ere, eta biztanleen kopuru handiena duten udal-letara. Gaiaren gainean zuten iritzia eskatzeaz gain, guztiei eskatu genien laguntza, eremu horren inguruan zituzten laguntzei buruzko informazioa eman ziezaguten.

Aipatu administrazioek bat egin zuten erakunde honek helarazitako kezkarekin, eta 2016an abiarazitako edo abiaraziko zituzten ekimenen berri eman ziguten, euskara unibertsaltasun-irizpideekin ikasteko erraztasunetan aurrera egiteko xedez. Hori guztia, 2014an onartutako [Agenda Estrategikoaren](#) esparruan, “*HABERen, LANBIDERen, udal-euskaltegien, euskaltegi pribatu homologatuen, Hizkuntza Eskola Ofizialaren, IRALERen, IVAPen eta eremu horretako gainerako eragile publiko eta pribatuaren arteko osagarritasuna aztertzea eta indartzea*” aurreikusten baitu horrek.

Euskara sustatzeko neurri horien gaineko balorazio positiboa egiten dugun arren, Arartekoak adierazi zuen gure politika publikoek gabezia bikoitza zutela arlo horretan:

- Bi hizkuntza ofizialak ikasiz langabetuak lan-merkatu sartzeko aukerak hobetzeko estrategia integrala falta da.
- Udal guztien programak ez doaz norabide berean, eta horrek, praktikan, alderaketa eginez gero, kaltea dakarkio biztanleriaren sektore bati; hau da, zein udalerritan bizi gorabehera, botere publikoek berdintasun-irizpideekin indartu beharko luketen sektore bati.

Ondorioz, urtean zehar, [apirilaren 20ko 3/2015 Gomendio Orokorren](#) segimendua egin zuen Arartekoak. Gomendio horren bidez, tokiko administrazioarekin eta Lanbiderekin batera, langabetuek euskara ikasteko laguntza publikoak sustatzeko eta zabaltzeko xedez lan egin zezala eskatu zitzaion Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari, eta berdintasun-baldintza beretan gerta zedila laguntza horietarako sarbidea.

Emaitza

2016ko irailaren 8an, urrats nabarmena eman zen norabide horretan, HABERen eta Lanbiderekin arteko hitzarmen bat sinatu baitzen. Horrekin bat eginez, euskara inolako kosturik gabe ikasteko aukera eskaintzen hasi zitzaion Euskal Enplegu Zerbitzua hiru eremu zehatz hauetan lana eskatzen zuten

langabetuei: eremu soziosanitarioan, merkataritzakoan eta ostalaritzakoan. Halaxe jakinarazi zion HABEK Arartekoari, eta era berean adierazi zion bi erakundeek lanean jarraituko zutela gainerako sektore ekonomikoetara heda dadin eskaintza, orokorra bihur dadin enplegua eskatzen duten pertsona guztientzat, erakunde honek gomendatutako baldintzetan.

2.2. Aurrekariak deuseztatzea kirol-zigor baten xedeetarako

Salatutako egoera

Sokatarako klub batek Arartekora jo zuen, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak tiratzaile bati ezarritako zigorraren gainean kezaka. Klubaren arabera, aipatu batzordeak oker egin zuen berritoki erori ez izanaren ondoriozko aringarria ez ezartzeagatik (Euskadiko Herri Kirol Federazioaren diziplina-erregelamenduan dago jasota). Erakunde kexagilearen ustez, inguruabar hori kontuan hartu beharko litzateke bai kirolaria aurretik zigortu ez denean, bai, aurretik zigorra jaso arren, legeak aurrekariak deuseztatzeke ezartzen duen denbora igaro denean, eta azken hori zen kasua.

Batzordearen iritziz, ordea, inoiz zigorrik jaso ez duenari bakarrik ezar dakiok aipatu aringarria, eta ez aurretik zigorra izan duen bati, aurrekariak deuseztatuta egon arren. Zigor Kodean oinarritu zen horretarako, zuzenbide osagarri gisa hartuta hori; izan ere, horren arabera, berrerortzearen ondoriozko larrigarria ezartzea galarazteko deuseztatzen dira aurrekariak, baina ez aringarria ezartzeko.

Arartekoaren esku-hartzea

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailera jo genuen, funtsezko bereizketa bat azaltzeko: gauza bat da Zigor Kodearen 22.8. artikulua baliogabetu daitezkeen aurrekariak aintzat ez hartzea berrerortzeko ondorioak direla-eta, eta beste gauza bat da, publizitate negatiboa saiheste aldera, hori izatea legeak, 136.5. artikulua bidez, aurrekariak baliogabetzeari emandako funtzio bakarra.

Zigorraren xedeetarako, aurrekariak deuseztatzeke ekintza ez zaio mugatzen berrerortzearen ondoriozko larrigarria ezartzea saihesteari. Halaxe baieztatzen du Auzitegi Gorenak. Horren ustez, inguruabar aringarriak edo larrigarriak ikusteko modua beste prozesu zabalago bateko parte da, eta, prozesu horren bitartez, zigorra banakatu beharra dago, jokaerak merezi duen gaitzespen penalaren arabera. Zentzu horretan, kondenatuak berrerortze xedeetarako deuseztatu ezin daitezkeen aurrekariak dituenen, bere jarrerak gehiago kaltetuko du hala ez denean baino. Ezarri behar den zigorra eta horren exekuzioa zehazteko orduan ordenamenduak aurreikusten dituen mekanismo ezberdinetan islatzen da bereizketa hori. Horien artean, erantzukizuna alda dezaketen inguruabarrak daude. Zigor Kodean, larrigarria ezartzeko edo ez ezartzeko aukeran bakarrik zehazten da hori; beti ere, berrerortzerik ez egoteagatik aringarriak ez badago. Federazioaren diziplina-erregelamenduan, ordea, 21.2. artikuluan aurreikusten da, eta logika berbera erabiliz behar da aringarria ikusteko, kontuan hartuta adminis-

trazioak zigortzeko duen eskubidean proiektatzen direla zigorzuzenbidearen printzipioak.

Horregatik balioetsi zuen erakunde honek, eta halaxe jakinaz zion aipatu sailari, esku artean dugun kasuan kontuan hartu beharko zatekeela aipatu aringarria, zigorra banakatzeko xedeekin.

Emaitza

Arartekoak azaldutako oinarri juridikoa ikusirik, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak berraztertze bidean beheratu zuen ezarritako zigorra, aringarria ezarri baitzion kirolariari, aurrekaririk ez izateagatik.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Erakunde honen nazioarteko proiektzioa areagotu egin da txostenean aipatzen den urtean, erantzun egin baitzaio lan-kidetzaren, praktika onen trukearen eta partekatutako hausnarketaren bidez herritarrei ematen zaien zerbitzua, bai herraldearen barruan, bai kanpoan, hobetzen laguntzen duten foro guztietan egoteko beharrari. Eta, hizkuntza eskubideen esparruan, maila guztietan ekarpen garrantzitsuak egiteko kokaleku bikainean jarri dute Arartekoa bai eskarmentuak, bai eskubide horien defentsan egonkortutako ibilbideak.

Zentzu horretan, aintzat hartu behar da Arartekoa, Euskadiko beste erakunde batzuk eta gure gizarte zibila bezalaxe, gure mugetatik harago aktiboki egon izanak herriaren dimentsio estrategikoa eskuratzen laguntzen duela; izan ere, horren bidez, gizarte dinamiko eta berritzaile gisa erakusten da Euskadi, halakoxea baita; orainak mundu-mailan planteatzen dituen erronken jakitun den eta, gizarte kohesiotik eta kalitateko demokraziatik abiatuta, erronka horiei aurre egin nahi dien gizarte gisa, estatuetak mugek barik, arazo komunek eta balio partekatuek zehaztutako esparru batean.

Arartekoaren lanaren nazioarteko dimentsioari testuingurua eman zioten egitateen artean, hauek nabarmendu daitezke hizkuntza-eskubideen arloan:

- 2016aren hasieran, [Hizkuntza Ordezkarrien Nazioarteko Elkarteko](#) (IALC, ingeleseko siglen arabera) partaide izatea erabaki zuen Arartekoak. Bertan, presentzia aktiboa izan dugu, eta horren berri emango dugu txostenean, erakundearen nazioarteko jarduerari eskainitako atalean.
- [Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak egindako 4. txostena](#) (Espainian [Eskualde edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Ituna zenbateraino betetzen azaltzen duena](#)) aurkeztu da, bai eta Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen gomendioak ere (aipatu txostenean daude oinarrituta gomendiook). 2014ko urrian egindako bisita batetik abiatuta egin zen txosten hori, eta, bertan, askotan errepikatu dira

aipatu batzordeak hiru urte lehenago ere azaldu zituen ohartarazpenak. Gainera, erakunde honek ohartarazpen horien berri eman izan du Legebiltzarrarentzako txostenetan.

- Bilbon egin zen [Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sarearen](#) (NPLD, ingeleseko siglen arabera) urteko batzar nagusia. Sare hori da [Europako Hizkuntza Aniztasunerako Bide Orriaren](#) arduraduna.
- Donostian egin zen [Hizkuntza Aniztasunaren Foroa](#), eta, bertan, zaurgarritasun-egoeran dauden hizkuntzak suspertzeko estrategien inguruan eztabaidatu zuten mundu osoko adituek. Esparru horretan aurkeztu zen [Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa edo Donostiako Protokoloa deritzona](#). Aurrekarizat hartuta [Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsala](#) eta desagertzeko mehatxua duten hizkuntza europarrei eta Europar Batasuneko hizkuntza-aniztasunari buruzko txostena, [Europako Parlamentuak 2013ko ekainaren 18ko ebazpenaren bidez berretsitakoa hori](#), hizkuntzak errespetatzeko 185 neurri proposatzen ditu protokoloak, European egoki kudea dadin hizkuntza-aniztasuna. Onartu zen egunean bertan, hizkuntza-eskubideak bermatzeko lan egiten duten mundu osoko erakundeei aurkeztu zion Arartekoak protokoloa, IALCren *on line* mintegi baten bidez. Oso ondo baloratu zuten hori.
- Europar proiektu gisa onartu zen [Euskararen Adierazle Sistema \(EAS\)](#). Euskal Herri osoko organismo publikoek sustatu zuten, eta [Eskualde Garapenerako Europako Funtsak \(FEDER\)](#) finantzatu zuen gehienbat. Ebaluazio-tresna hori garrantzitsua da; izan ere, hizkuntza hedatzeko normalizazio-neurrien eragina aztertzean, eragin hori ez da fenomeno isolatutzat hartzen, alderdi demografikoekin, ekonomikoekin eta kulturalarekin elkarreaginean dagoen fenomeno sozialtzat baizik, erakunde honek gomendatutakoaren ildoan.

Azken alderdi horrekin duen lotura dela-eta, adierazi beharra daukagu [VI. Inkesta Soziolinguistikoa](#) argitaratu zela 2016an. Horren emaitzen arabera, azken bost urteotan % 2 igo da euskal hitzunen kopurua, eta % 10 azken 25 urteotan. Euskadiko herritar helduen % 34k hitz egiten du euskaraz (63.000 pertsona inguruk), baina ehunekoa % 31ra jaisten da ezagutza aktiboaz hitz egiten badugu. Era berean, adierazgarriak dira, baita ere, herritarrek euskararekiko duten jarrerari buruzko datuak. Horien arabera, euskara sustatzearen alde dago herritarren % 65, 1991n baino % 10 gehiago, eta 2011n baino % 3 gehiago; aldi berean, gainera, murriztu egin da horren aurka daudenen ehunekoa, % 14 baitziren 1991n, % 12 duela bost urte eta % 9,3 2016an.

Ildo horretan, maiatzean [Eta hemendik aurrera zer?/Y a partir de ahora qué?](#) dokumentua aurkeztu zela adierazi behar dugu. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburuordearen ekimena da, eta, Euskararen Aholku Kontseiluan landu ostean, lehentasunezkoa izatera iritsi da; bai **euskara suspertzeko prozesuaren gaineko hausnarketan** adostasunak lortu dituelako, bai garapen jasagarria duelako.

Bestetik, Euskadiko tokiko erakundeek [apirilaren 7ko 2/2016 Legea](#) onartu dela adierazi behar dugu. Lege horrek garrantzia dauka Arartekoaren jardunean, arlo honi dagokionean, herritarrek askotan jotzen baitute erakunde honetara euskararen inguruan kezaka; hala nola, udalek hizkuntzaren normalizazioaren eremuan dituzten eskumenen inguruan.

Eskumen horien erabilerak, hain zuzen ere, ebazpen judicial garrantzitsuak ekarri zituen urtean zehar. Horien artean, [EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2016ko maiatzaren 25eko epaia](#) nabarmendu behar dugu, mugarría izan baitzen gure toki-korporazioetan euskara lanerako hizkuntza gisa erabiltzeari dagokionez. Ebazpen horrek babestu egiten du Estatuko Administrazioari aktak euskaraz bakarrik bidaltzea erabaki zuten udalen jarduera, «legezko benetako zentzugabekeriatzat» jo baitzuen Estatuko Administrazio Periferikoak -gainerako administrazioek bezala- bi hizkuntzen koofizialtasuna xede guztietarako errespetatzeko betebeharra izanik, «lurraldeko beste Administrazio Publiko bati euskara ezagutzen ez dela adierazi edo euskaraz idatzitako testuak itzultzeko eskatu ahal izatea». Erabaki judicial horrek, auzitegi berberak Aretxabaletako Udalaría dagokionez antzeko terminoetan idatzi zuenarekin batera, Gobernuko Ordezkaritzak Euskadiko udal horien jardueraren aurka arrazoi horren harira jarrita zituen errekurtsioak kentzea ekarri zuen.

Arartekoak urte horretan bere jarduerarako kontuan hartu behar izan dituen gainerako epaien artean, hauek nabarmendu daitezke:

- [Auzitegi Gorenaren epaia, 2015eko abenduaren 30ekoa](#), 2014ko apirilaren 29koa berretsi zuena. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak babestu egin zuen Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak hartutako erabaki bat, zeinaren bidez hizkuntza-gaitasun zehatza edukitzea eskatzen baitzuen funtzio publikoko lanpostu jakin batzuetarako.
- Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiaren epaiak, maiatzean, gaitzetsi egin zuen hiriburu arabarreko Udaltzaingoaren herritarren larrialdietarako zerbitzuko sei udaltzainek gutxienez -txanda bakoitzeko batek- euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna edukitzeko eskakizunaren aurkako errekurtsioa. Eskakizun horrekin, erakunde honek gomendatuta duen bezalaxe, telefonoaren beste aldean bi hizkuntza ofizialak ezagutzen eta hitz egiten dituen agente bat egotea bilatzen da. Errekurtsioan adierazten zen apetazko betekizuna zela hori, eta, horren aurrean, zera adierazi zuen aipatu epaitegiak: «Argi dago Euskal Autonomia Erkidegoan edozein herritar zuzendu daitekeela toki-administrazioa bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan», eta hau ondorioztatu zuen: «Ez da Udaltzaingora sartzeko betekizuna; helmuga zehatz bati arreta eman behar dion agentearen egokitasunarekin, gaikuntza profesionalarekin eta gaitasunarekin zuzenean lotutako eskakizuna baizik».
- [Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2016ko irailaren 13ko epaia](#), [Osakidetzan](#)

[Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Planaren](#) zati bat baliogabetzen duena. Horren arabera, aipatu plana indarrean jarri zen unean (2013an) plaza zehatz bat bete ahal izateko euskara ezagutzeko betekizuna egon ezean, baina betekizun hori beranduago ezartzeko data ezarrita egonez gero (derrigortasun-data deritzona), plaza hori titularra erretiratzeagatik aipatu data iritsi aurretik hutsik geratzea ez da arrazoi nahikoa aipatu eskakizuna planaren hasierako datara atzeratzeko.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

Arartekoak arlo honetan duen jarduketa eraentzeko planaren garapenean, nabarmentzekoa da antolaturiko gizartearekin izan dugun lankidetzatza:

- Kirol-taldeak.
- Bizkaiko Abokatuen Elkargoko Euskara Batzordea.
- [Hizkuntz Eskubideen Behatokia](#). Haiekin batera aritu gara lanean, herritarrek administrazioekin euskaraz aitzeko dituzten zailtasunen ondorioz jaso dituzten kezak aztertzeko, eta eskubide hori benetan gauzatu ahal izateko sortu behar diren politika aktiboen diagnostiko orokorra egiteko.

Herritarren hizkuntza-eskubideen eremuan nazioartean egoteari dagokionez, arloan adituak direnekin egin ziren bilerak aipa daitezke, Donostian ospatu zen Hizkuntza Aniztasunaren Europako Foroa baliatuz egin zirenak; bai eta Hizkuntza Ordezkarien Nazioarteko Elkartearen esparruan egindako lana ere. Horri dagokionez, batetik, IALCeko gainerako kideekin urtean zehar *on line* partekatu ditugun hiru saioak aipa ditzakegu, eta, bestetik, Galway-en (Irlandan) aipatu elkarteak antolatu zuen urteko topaketa aipa dezakegu, non Arartekoak lehenengo aldiz hartu zuen parte, [From ethnic to ethnic: approaches to language and identity](#) ponentzia aurkeztuz.

Halaber, [Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko](#) Hizkuntza Politikako sailburuordearekin bildu gara, eta uneoro agertu da prest guri laguntzeko, erakunde honetan keza jartzeko zioak izan diren unean uneko kasuak ebazte aldera, bai euskal administrazioen ingurukoak, bai estatuko administrazioen gainekoak. Ildo horretan, eta indarrean dagoen lankidetzatza-hitzarmenaren arabera, Arartekoak [Elebide](#) hizkuntza-eskubideak bermatzeko zerbitzuarekin elkarlanean egin duen lana aipatu behar dugu.

Atal honetan adieraz dezakegu, beste behin ere, [Osakidetzako](#) Langileen Zuzendaritzaren laguntza jaso dugula. Hainbat bilera egin ditugu elkarrekin, bai jasotzen diren kexei arreta emateko sistema hobetze aldera, bai erakunde honek gomendatutako neurriak ezartzeari begira.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

5.1. Hizkuntza-aniztasuna eta errealitate sozioekonomikoa

Une honetan, badirudi krisia, baita balioen krisia ere, erakuntza europarra mehatxatzen ari dela, eta, beraz, ez da ustekabekoa erakuntza horren arlo kultural eta politikoa parte ziren alderdi batzuk zalantzan egotea. Horietako bat da hizkuntza-aniztasuna, Europako Parlamentuak [2013ko irailaren 11ko ebazpenean](#) adierazi zuenaren arabera. Ebazpen horretan, Europar hitz egiten diren hizkuntza guztiak laguntza eta sustapena behar duten balio komuntzat hartzea ziurtatzeko neurriak gomendatzen ziren. Horregatik ohartarazi behar dugu politika europarrek, mugarik ezagutzen ez duten errealitate sozial eta ekonomikoen aurrean daudenean, **hizkuntza gutxituekiko errespetua horrenbeste ez sustatzeko arriskua dagoela; hau da, eleaniztasunaren aldeko apustu handirik ez egiteko arriskua dagoela, gehiengoan hizkuntzetako gaikuntza eskatzen baita**; azken batean, merkatu globalizatuak erabilgarritzat jotzen dituen horien alde egiten baita, hazkuntza ekonomikoari, laneko mugikortasunari eta lanari begira. Urtea amaitu zenean, Hizkuntza Aniztasunaren Foroan egon ziren [pertsona ospetsu batzuek arrisku horren berri eman zuten](#). Donostiak aipatu foroarekin itxi zuen kultur-hiriburutza.

Gauzak horrela, euskararen zaugarritasuna errealitatea da oraindik ere, eta halaxe adierazi zuen [UNESCOk, Arriskuan dauden munduko hizkuntzen atlasean](#) NBEko Agentzia Espezializatuak berriro aipatu zuen atlasa abenduan, foroan [Munduko hizkuntzen atlas berria](#) aurkeztu zuenean.

Horregatik guztiarengatik azpimarratu behar dugu aipatu zaugarritasuna gainditzeko tresna gisa diseinatu den gure hizkuntza-politika ezin daitekeela bereizi politika publikoen eragin linguistikotik. Bai euskararen eta gaztelaniaren bizikidetzari dagokionean, bai munduko gainerako hizkuntzei dagokionean, eragin horren jakitun izan behar dugu, eta gure errealitate sozioekonomikoak, onerako eta txarrerako, gure administrazioek herritarren hizkuntza-eskubideak bermatze aldera hartzen dituzten neurrien benetako eraginaren gainean nola eragiten duen ikusi behar dugu. Ikuspuntu horrek bakarrik ahalbidetuko du, erakunde honen ustez, neurri horien eraginkortasuna ebaluatzea.

5.2. Hizkuntzaren normalizazioaren inguruko adostasun sozialak

Elkarreragin horien ezagutza informazio-iturri etengabea izan behar da gure erakundeentzat, baita **akordio sozial eta politikoko zabala** sustatzeari begira ere; izan ere, politika publikoen bidezkoitasuna indartzeko komeni bada, hizkuntza-politikaren arloan ezinbestekoa da.

Horregatik baloratu dugu ondo **Euskararen gaineko oinarriko diskurtsoen lanketa** ekarri zuen hausnarketa-prozesu partekatua, Euskadin hizkuntza-politikak 20 urtera begira eduki behar dituen lehentasunen inguruan ezberdinen arteko elkarguneak sortzea ahalbidetu zuen neurrian. Zentzu horretan, erakusgarria da zera izatea oinarrietako bat, kontua ez dela gizarte elebiduna eraikitzea, eleaniztuna eraikitzea baizik, non “guztiak ulertuko dituzten bi hizkuntza ofizialak, eta euskara modu jarraituan haziko den”. Gizarte hori, eleaniztza izateaz gain, aniztza da, eta, bertan, hizkuntza-bizikidetzara “funtsezko elementua” da gizarte-bizikidetzarako. Horixe da, azken batean, Arartekoak [Erakunde Adierazpenean](#) islatu nahi izan zuen ikuspegia. Euskararen Nazioarteko Egurenaren harira argitaratu zen aipatu adierazpena.

5.3. Euskarari laguntzeko udal-politikak

Arartekoak arrazoi horren harira jasotzen dituen kekek zuzeneko lotura dute aipatu berri ditugun adostasun horiekin. Beste alde batetik, Eusko Legebiltzararentzako aurreko txostenean jada adierazi genuen ziurgabetasun juridikoa atzematen zela udal jakin batzuek eremu horretan hartutako neurri batzuen inguruan, bai euskararen erabileraren inguruko ordenantza arautzailerik edo plan orokorrik egon gabe hartu zirelako, bai, ordenantzak edo planak egon arren, horiek indarrean dagoen araudiari egokitzen zaizkiela ziurtatzeko irizpide interpretagarriak zeudelako, euskararen eta gaztelaniaren koofizialtasunari dagokionean nahiz udalek hizkuntzaren normalizazioaren arloan dauzkaten eskumenei dagokienean.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko [apirilaren 7ko 2/2016 Legeak](#) arindu du arazoa, berariaz jasotzen baititu, 7. artikuluan, tokiko erakundeek eta udalerrietako erakundeek euskararen erabileraren inguruan dauzkaten eskumenak. Hala ere, horrek ez du eztabaidak desagertzea ekarri, ez erakunde aldetik, ez partikularren aldetik, eta Arartekoa irizpide hauek jarraituz mintzatu behar izan da:

- Euskara ofiziala den lurraldeetako administrazio-istantzia guztietarako **euskaraz idatzitako dokumentuek erabateko balio legala dutela** babestu, Estatu-ko Administrazio Periferikoa barne hartuta, Euskadin erakunde ofiziala den heinean, euskara ulertzeko gai izan behar baitu. Gorago adierazi denez, zentzu berean mintzatu ziren auzitegiak 2016an. Horrek aldaketa ekarri zuen Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzak EAEn zuen irizpidean, aipatu ordezkaritzak azkenik kendu egin baitzituen justiziaren aurrean arrazoi horren harira jarrita zituen errekursoak.
- Ulergarria da udal batzuek hizkuntzaren normalizaziorako planen esparruan hartu duten erabaki hau: **bestarik adierazi ezean, euskara erabiltzea herritarrekin komunikatzeko orduan**. Ez da apetzeko hautua; izan ere, agerikoa da euskal hiztun askok gaztelaniara jotzeko joera dutela administrazioarekiko harremanetan, gure hizkuntzaren gutxitzearekin zerikusia duten arrazoi historikoak medio, eta botere publikoek joera hori

murritzeta nahi izatea. Euskal hiztunen kopuru handia dagoen udalerrietan dago euskara bakarrik erabiltzeko aukera, gaztelaniaz lagundu gabe, euskara komunikatzeko benetako tresna izan dadin.

- Hala ere, beste behin ere esku hartu behar izan dugu irizpide horien ezarpenak diskriminaziorik eragin ez diezaiezen **gaztelania erabili nahi duten pertsoneri**, eta gogorarazi egin dugu administrazio publikoek ez dutela hizkuntza-eskubiderik, herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzeko legezko betebeharra dutela baizik. Kasu azpimarragarrienak honako hauek izan dira:
 - Ingurune euskaldun batean dagoen udalerririk gabeko udal-aldizkaria edo horren “paisaia linguistikoa” osatzen duen seinaleztapena euskaraz bakarrik egotea ez zaigu iruditu, azaldu ditugun terminoetan, legearen aurkako jarduera denik.
 - Alabaina, zentzuzkoa da ulertzea norbaitek obra baimena edo negozio baterako lokala jartzeko baimena izapidetu behar badu, bai eta banakako jakinarazpenetan ere, pertsona orok duela udalak bidaltzen dizkion jakinarazpenak gaztelaniaz jasotzeko eskubidea, hala eskatzen badu.
 - Era berean mintzatu gara herritar guztiei zuzendutako udal-bandoen edo lan-deialdien argitalpenen inguruan, bi hizkuntza ofizialen erabilera ezartzen baita horietan. Izan ere, herritar guztientzako informazio garrantzitsua helarazten da horien bitartez, eta, administrazioak bi hizkuntzak jakiteko betebeharra badu ere, herritarrek ez dute horrelako betebeharririk.

Arartekoak hainbat udaletara jo du ildo horretan, eta guztien laguntza jaso du, baita Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarena ere, Elebide zerbitzuaren bidez. Ondorioz, Arartekoaren esku-hartzea ekarri duten kasu partikularrak konpondu ahal izan dira. Dena dela, erakunde honek urte horretarako zituen proiektuen artean, ahalik eta toki-erakunde gehienek horren gaineko irizpideak hitzartzea zegoen, 2/2016 Legearekin eta euskararen erabilera normalizatzeaz **azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearekin** bat eginez.

5.4. Eremu defizitarioak Europako Gutunaren diagnostikoan

Beste behin ere, Europako Kontseiluak Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Itunak Espainian duen ezarpenaren inguruan egin duen txostenak agerian jarri zuen eraginkortasuna falta dela eremu jakin batzuetan, euskal hiztunek botere publikoekiko harremanetan euskara erabiltzeko eskubideari dagokionean. Horien artean, hiru eremu hauek jaso zituzten kexa gehien Arartekoan:

- **Justizia Administrazioari** dagokionez, adieraztekoa da bertan lan egiten duten langileen erdiak baino gehiagok egiaztatuta dutela hizkuntza-gaitasunen bat, eta 2016an izan dela posible, lehen aldiz, abokatutzara

sartzeko azterketak euskaraz egitea, edo gure epaitegietako dokumentuen bi heren elebidunak izatea (organo judizialen erabileran bestela gertatzen da, gaztelaniazko bertsioan bakarrik jasotzen baitituzte askotan kasua banakatzen duten datuak). Horrek guzti horrek aurrerapen nabarmena egin dela erakusten du, **EAEko Justizia Administrazioaren Hizkuntzaren Normalizaziorako 2008-2017 Plan Orokorren** eta **Auzia Euskaraz** proiektuaren esparruan, irizpide onez lortu nahi baitute euskaraz idatz dadila prozedura judizial guztien izapidea, abokatuak demanda jartzen duenetik ebazpen judiziala idazten den arte.

Egiazki, ordea, euskal hiztunen kopuruak nabarmen egiten du behera lekualdatu ez diren langileen artean, eta, bereziki, Justizia Administrazioako epaileen, fiskalen eta abokatuaren artean. Ondorioz, euskaraz egiten diren demandek eta ebazpenek oso gutxi izaten jarraitzen dute, eta, gainera, ez da gorako joerarik ikusten, eremu akademikoan adibidez gertatzen ari denaren kontrara; izan ere, urtez urte, nabarmen areagotzen ari da euskaraz aurkezten diren doktoretza-tesien kopurua. Horregatik guztiarengatik, Gutunaren Adituen Batzordeak azpimarratzen jarraitzen du gure auzitegien erabiltzaileei, praktikan, burutik kentzen zaiela auzitan euskaraz jarduteko eskubidea, horrek dakartzan eragozpenei, atzerapenei eta berehalakotasun-galerari erreparatzen bazaie. Ondorioz, bi hizkuntza ofizialak hitz egiten dituzten epaile eta fiskal gehiago behar dira azpimarratzen du, eta legedia aldatu behar dela, prozedura judizialak euskaraz egitea bermatze aldera, aldeetako batek hala eskatzen badu.

- **Osasuna** da, batzordearen arabera, eskubideen eta horien eraginkortasun-mailaren artean desfase handienetakoa duen bigarren eremua. **Osakidetzak**, irizpide onez, eskubide horiek erabiltzera bultzatzen ditu herritarrak, arreta jasotzeko hizkuntza aukera dezaketela jakinaraziz. Hala ere, gutxirako balioko du aukera horrek, **Osakidetza Euskararen Erabilera Normalizatzeako Bigarren Planean** aurreikusten diren neurrien betetze-mailan aurrerapenak erregistratu diren arren, egiturazko arazoek hor egoten jarraitzen badute. Izan ere, planaren indarraldiak ekuatorea igaro badu ere, aipatu arazoek arriskuan jartzen dute bertako xedearen lortzea, bai mediku-arreta euskaraz jasotzeari dagokionez, bai, euskal osasun-sisteman, euskara lanerako hizkuntza normalizatua bihurtzeari dagokionez. Gauzak horrela, esanguratsua da batzordeak aipatzen duen hobekuntza-tarteak eta Arartekoak beste behin ere egiaztatuta duen hobekuntza-tarteak bat egitea.

- Ezinbestekoa da Osakidetza Zuzendaritzak hizkuntzaren normalizazioarekiko konpromisoa edukitzea; hala ere, hori ez da nahikoa hartu diren neurri asko eraginkorak izan daitezten. Arduratako bitarteko eremuetan ikusten da, batzuetan, gainditu beharko litzatekeen ezagutza- edo inplikazio-gabezia.
- Hizkuntza normalizatzeaz aukera ekartzen dute erretiroa hartzen duten langileen ordezkariak,

baina bakar-bakarrik bi hizkuntza ofizialetan lan egiteko gai direnek hartzen badituzte postu horiek. Bestela, arazoa sortzen da, eta, jaso ditugun kexen arabera, mediku-arretan ardura duten lanpostuei eragiten die horrek; zehazki, zerbitzuetako buruzagitzen mailan.

- Zerbitzuak kanporatzeari begira, bereziki garrantzitsua da kontratazioan eskatzen diren hizkuntza-irizpideak betetzen direla ziurtatzeko kontrola eta segimendua egitea, horren arabera baita, praktikan, herritarren eskubideen bermea.
- Oraindik ere kexa asko sorrarazten ditu **Estatuko Administrazioak** euskaraz ematen duen arretak, eta eskasa da bai batzordeak bai Arartekoak gomendatzen dituzten neurrien betetze-maila. Beraz, berriro deitu behar ditugu agintaritzak nagusiak, zerbitzuak bi hizkuntza ofizialetan eman ditzaketan langileen kopurua nabarmen areagotu dezaten, eta Euskadin postu horietara iristeko prestakuntza-planak berrikus ditzaten, xede horrekin.

5.5. Kirola eta aisialdiko jarduerak

Gai horren inguruan aurkeztu diren kexen artean, adingabeentzako kirol- eta aisialdi-jarduerak sustatzeko politika publikoen ingurukoak izan dira gehienak. Ebazpenetan bildutako informazioaren arabera, hobetzeko hiru eremu bereizi ditzakegu:

- **Haurrentzako udalekuei eta aisialdi-jarduerari** dagokienean, informazioa egotea eta gurasoen eta jardueraren arduradunen artean harreman zuzena egotea dira, gure esperientziaren arabera, unean-uneko gaixotasunen edo egokitu ezinen inguruan sor daitezkeen antsietate- edo tentsio-egoerak murrizteko edo, hala badagokio, kudeatzeko modu onena. Bi kontu nabarmendu nahi genituzke zentzu horretan:
 - Egokia litzateke gurasoek aurretik ezagutzea [gure hiru foru-aldundiek hitzartu duten jarduera-esparruak](#) kasu horietarako ezartzen dituen jarduera-ildoak.
 - Haur batek gaixotasun-sintomak baldin badauzka, mediku-azterketa batek proba gehiago egiteko beharra adierazten badu, ziurtatu egin behar da modu arin eta zuzenean emango zaiela horren berri haurraren gurasoei, behin betiko diagnostikoari itxaron gabe.

- Arartekoak 2015eko urteko txostenean adierazi zenez, urtean zehar hainbat esku-hartze egin zituen zenbait klubek edota entrenatzailek **eskola-kirolaren aurretiko adinetan egiten den kirolaren esparruan** izandako jarrera jakin batzuen inguruan. Hain zuzen ere, entrenamenduetan eta partiduetan, lehia-errendimendu handiagoa edo txikiagoa izatearen arabera adingabe batzuei, beste batzuen kalterako, ematen zaien protagonismoez ari gara. Erakunde honek badaki, ordea, klub eta entrenatzaile gehienek zuzentasun osoz burutzen dutela haur eta gazteen kirol-jardueraren zuzendaritza. Horregatik, Euskadiko hamabi udalerritako laginetik horri buruzko informazioa bildu ondoren, udalei zuzendutako [otsailaren 16ko 2/2016 Gomendio Orokorra](#) igorri zuen Arartekoak, heziketa-irizpideetan, irizpide parte-hartzaileetan eta ez lehiakorretan oinarritu daitezkeen beren udalerrietan haurrentzat antolatzen diren kirol-jarduerak, eskola-kirolaren aurretiko adinetan bereziki, eta irizpide horiek betetzearen mende jar dezaten, hala badagokio, klubek jasotzen duten udal-laguntza, bai instalazioen lagapenean, bai diru-laguntzetan edo sustapenean.

- **Beste herrialde batzuetan jaiotako adingabeak kirol federatutan inskribatzeko arazoak daude** oraindik ere. Haurrak adoptatuta dauzkaten euskal familiek jarri zituzten arrazoi horren harira jaso genituen kexak; izan ere, tratu ezberdina ematen zitzairen seme-alaba adoptatuei eta seme-alaba biologikoei, aurretiko errola eskatzen baitzitzairen atzerrian jaio izanagatik.

FIFAk ezarritako prebentzioa da hori, futbol-klub handiek gehiegikeriazko praktika zehatz batzuk egitea saihesteko xedea duena. Baina praktika horiekin zerikusirik ez duten kasuetan ere neurri hori ezartzeak, argi eta garbi, eragin disfuntzionala sorrarazten du adingabeen interes nagusian, eta horixe da kasua. Eusko Jaurlaritzako [Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak](#) arduraz lagundu dio Arartekoari, agertu diren kasu guztiak konpontze aldera, erakunde honek gaiaren inguruan dituen eta aurreko txostenetan aipatu ditugun irizpideen ildoan.

Alabaina, kasuak errepikatu egiten dira, eta, beraz, azpimarratu egin behar dugu kirol-federazioek, Euskadiko Futbol Federakundeak bereziki, gaiaren inguruko irizpideak aldatu behar dituztela, berdintasunezko tratu jaso dezaten adingabeek, beren jaiotza-tokia edozein izanda ere; batez ere, beren prestakuntzarekin eta garapen integralarekin zerikusia duten eremuetan.

II. ATALA

2

HEZKUNTZA

1. Arloa kopurutan

2016an hezkuntza arloan, guztira, 155 kexa izapidetu dira.

Honako administrazioei eragin diete kexa horiek:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritz) 122
- UPV/EHU 11
- Tokiko administrazioa 2

Kexen edukari dagokionez, hurrengo azpiarloei buruzkoak izan dira jasotako kexak:

- Eskubideak eta betebeharrak 28
- Ikasleen onarpena 21
- Bekak eta bestelako laguntzak 19
- Hezkuntza-premia bereziak 16
- Unibertsitateko irakaskuntza 12
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa 11
- Lanbide heziketa 10
- Eskola-jantokia 9
- Eskola-garraioa 6
- Ikastetxeak - instalazioak 4
- Haur hezkuntza 4
- Beste alderdi batzuk 3
- Hezkuntzako plangintza/programazioa 3
- Eskolako tratu txarrak edo jazarpena 3
- Irakaskuntza artistikoak 2
- Ikastetxeak - itunak 2
- Hizkuntzen irakaskuntza 1
- Kontratazio-araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna 1

Aurten kudeatutako kexen izapidetze xehetasunei dagokionez, nabarmendu behar da 2016an zehar jasotako kexa guztiak, 2016ko urtarrilaren 1ean izapidetze fasean zeudenak barne, honako egoera hauetan daudela txosten hau idazteari ekin zaion unean:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
176	37	139	27	70	4	38

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Hiyaba edo estalki islamiarra erabiltzea

Hezkuntza administrazioaren mendeko zentro publiko baten ez zion ikasle bati hiyaba edo estalki islamiarra jantzita bertaraten utzi. Zentroko zuzendaritzak Antolamendu eta Funtzionamendu Araudiaren babesean jokatu zuen, araudi horretan txanoak edo burua estaltzeko beste edozein arropa erabiltzea debekatu baitzen. Horren ondorioz, familiak kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan.

Horrelako egoera batek Euskal Autonomia Erkidegoan hurrengo besteko oihartzuna lortu duen lehen aldia izan da, baita Arartekora kexa modura iritsi den lehen aldia ere. Gure iritziz, aurrekaririk ez izateak azalduko luke hezkuntza arloko administrazioak, lehenik eta behin, duela zenbait urte Madrilgo Erkidegoan gertatutako adibidearekin konparatuz erantzutea; izan ere, orduan gertatutakoa hizpide dugun egoeraren parekoa zen, eta Madrilgo Administrazioarekiko Auzietarako 32. Epaitegiaren epaiarekin itxi zen (2012ko urtarrilaren 25eko 35. Epaia); epaia argia izan zen: ezarritako debekua zilegizkoa zela berretsi zuen.

Aurkeztutako kexa aztertzen hasterakoan, erakunde honek gogoan izan zuen, hala ere, [Lleidako Udaleko Elkarbizitza eta Gizalegeari buruzko Udal Ordenantzaren gainean Auzitegi Gorenak esandakoa](#); ordenantza horretan xedatu zenez, zerbitzuen eta udal ekipamendu eta eraikinak erabiltzeko testu arautzaileak erabat estaltzen duen beloa jantzen zuten emakumeak horretarako prestatutako espazio eta lokaletara sartzea eta bertan egotea debekatu edo mugatzeko aukera ezarri zuen. Epaian, bai Lleidako Udaleko Osoko Bilkuraren erabakiak, bai erakunde horrek onartutako testu arautzaileak zuzenbidearen aurkakotzat jo eta baliorik gabe utzi zituen Auzitegi Gorenak.

Zalantza izpirik gabe, hezkuntzari ez dagokion eskumen esparru baten gaineko adierazpenak dira; bestalde, estalki osoaren erabilera eztabaidatu da erabaki horretan, ez estalki simple edo hiyabari dagokiona. Auzitegiak bere irizpidea azaltzen duen lehen epaia (eta bakarra, uste dugu) izan da, eta auzitegiak berak onartu bezala, eztabaida bizian dagoen gai bat da. Arartekoaren iritziz, bertan jasotako gogoetak ezin dira alde batera utzi, izan ere, arrazoiketaren oinarria doktrina konstituzional tinkoa da.

Hartara, doktrina horretan oinarrituz, Auzitegi Gorenak argi eta garbi eta modu kategorikoan ondorioztatu du erlijio askatasunaren eskubidea baliatzeko muga ezarri ahal izateko legea funtsezkoa dela, eta horren ordez ezin dela beste araudi iturrik baliatu; hortaz, hezkuntza arloko administrazioak hasierako erantzunean aipatutako aurrekariak baztertu egin behar dira.

Hortaz, gaia aztertzerakoan ezin izan ditugu hezkuntza arloan estalkia erabiltzeari buruzko ondorengo beste adierazpen batzuk ahaztu, erakunde honen iritziz planteatutako arazoari ongi erantzuten ez badiote ere. Horrelakoa da Gaztela Leongo Justizia Auzitegi Nagusiaren azaroaren 28ko 277/2014 zenbakidun epaiaren kasua. Epai horretan Gaztela Leongo Justizia Auzitegi Nagusiak ikastetxeek antolatzeke gaitasuna daukatela xedatu zuen, gaitasun hori irakasteko askatasunaren azken adierazpen gisa ulertuta, elkarbizitzarako arauak edo erregimen bat ezartzeko dago-kiela defendatzeko; arau horiek jantzeko irizpide zehatz batzuk izateraino iristen dira, baita gurasoek seme-alabentzat erlijio printzipioetara hobekien egokitzen zaien ikastetxea aukeratzeko gaitasuna gehitzea edo gaineratzea ere; hala ere, zalantzan jarritako erlijio askatasunerako eskubidea mugatzearen gaineko estaldura legala ez zen azaldu edo justifikatu.

Beharrezkotzat jotako elkarbizitza eta jokabide arauak zehaztuz, ikastetxeek bertako antolaketa eta funtzionamendu arau propioak onartu eta ezartzeko antolaketa gaitasun aitortua daukatela zalantzan jartzea ez dago Arartekoaren helburuen artean; baina, gure ikuspuntuaren arabera, eta aurreratu dugun moduan, Gaztela eta Leongo Justizia Auzitegi Nagusiak lortutako ondorioak, dirudienez, ez du arazo honetarako erantzun egokirik eman. Ikastetxeen gaitasun hori zalantza izpirik gabe onartzeak ezin du ekarri, aldi berean, oinarritzko eskubide baten babesa arriskuan jartzea, alegia erlijio askatasunerako eskubidea, aipatutako gaitasuna gehiegi erabiltzeagatik; ezin da alde batera utzi erlijio askatasunerako oinarritzko eskubidea baliatzea mugatzeko formalki lege bat behar dela; exijentzia konstituzional bat da.

Gaia aztertu ondoren ondorio horietara iritsita, Arartekoak kezka ikusi ditu hezkuntza ikuskaritzak prestatutako txostenean jasotako proposamenak; izan ere, ikasgela barruan estalkia erabiltzeko erabakiak ekarritako egoera arautzea eskusiboki ikasle kexagilearen ikastetxearen esku uzten zuen. Hala ere, azkenik, [Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko](#) arduradunek euskal ikastetxeen hezkuntza komunitateetara zenbait gomendio igortzea erabaki zuten, aniztasunari erreparatzeko eta eskola inklusiboaren marko pedagogiko berriaren testuingurua aipatuz. Gomendio horietan buruan painelua janzten duten neskatuen eskolatzea ez debekatzeko gomendatzen zen, eta antolaketa eta funtzionamendu arauak edo hezkuntza proiektuak horrelakorik onartzen ez duten kasuetan testuok berrikusteko gomendatu zen, aniztasunari erreparatzeko eta eskola inklusiboaren marko pedagogiko berriaren planteamendutik.

2.2. Ikasle etorkinak modu orekatuan banatzea

2014ko apirilean, *Burunzpe* Guraso Elkarteko arduradunek elkarte honetara jo zuten, eta Lasarte-Orian kokatutako haur eta lehen hezkuntzako bi ikastetxe publikoen artean ikasle etorkinen banaketari dagokionez desoreka zegoelako kexa bat aurkeztu zuten.

Udalerrri horretan haur eta lehen mailako hezkuntza eskaintza Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mendeko bi ikastetxe publikoetan dago: P. Garaikoetxea-Landaberri HLHI eta Sasoea-Zumaburu HLHI zentroetan, alegia. *Burunzpe* elkarteko kideen seme-alabak azken zentro horretako ikasleak dira, eta ikasle etorkinen indize edo proportzio handiagoa dago ikastetxe horretan; aipatutako guraso elkartearen kideen aburuz, egoera horrek zenbait ondorio kaltegarri dakartza bai hezkuntzari dagokionez, bai gizarteari dagokionez.

Kexa aurkezterakoan, elkarteko ordezkariak erakunde honi adierazi zioten bere ikuspuntuaren arabera desoreka eragiten ari zen faktoreetako bat ikasleak onartzeko Garaikoetxea-Landaberri HLHI zentroa erabiltzen ari zen baremazio irizpideetako bat zen, hain zuzen ere, seme-alabak ikastetxe horretan eskolatu nahi zituzten familietako gurasoak zentro horretako ikasle ohi izatea. *Burunzpe* elkartearen arabera, P. Garaikoetxea-Landaberri HLHI ikastetxeak irizpide hori aplikatzeak ondorio baztertzailerak eragiten ditu. Nolanahi ere, ordezkariak planteatzen dutenez, beste era bateko neurriak ere hartu behar dira, tartean eskola mapa orekatzea, ikastetxeei beharrezko baliabideak ematea, ratioak gainditzeko aukera modu orekatuan erabiltzeko ahalegina egitea edota ikastetxeak bateratzeko prozesua aztertzea.

Arartekoak kexa hau izapidetzen bukatu du [2016ko otsailaren 25eko Ebazpena](#) emanez, bertan esku hartzeak iraun zuten hilabeteetan zehar egindako kudeaketa guztiak azaldu dira, eta testu horren irakurketara jotzen dugu. Hala ere, ebazpen horretan jasotako ondorioetako batzuk jarraian azaltzea komenigarritzat jo dugu.

Erakunde honen iritziz, gurasoak ikasle ohiak izatea irizpide gisa erabil daiteke ikasleak onartzeko prozesuetan, ez dago horretarako eragozpenik, betiere zentroen ordezkariak organo gorenek hala adosten badute eta hezkuntza administrazioa eskolako giro ona bermatze aldera faktore garrantzitsuena "*familiak zentroko parte direla sentitzea*" dioen Erkidegoko Ikastetxeen Kontseiluko Parte hartze Batzordearen argudioarekin bat baldin badator.

Hala ere, gure ikuspuntuaren arabera, ikasle etorkinak Lasarte-Oriako haur eta lehen hezkuntzako bi ikastetxe publikoen artean modu orekatuan banatzea lortzea Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren helburu ukaezinetako bat izan beharko litzateke.

Onartu behar da Sailak dagoeneko zenbait plangintza neurri hartu dituela; neurriok eraginkorrak izatea espero dugu, eta une honetan existitzen den desoreka epe ertainean konpontzeko lagungarriak izatea. Hain zuzen ere, Sailak bigarren hezkuntzako ikastetxeak gradualki fusionatzea erabaki du; horrek, zalantza izpirik gabe, haur eta lehen hezkuntza mailako eskolatze eskaera aldatzea ekarriko du.

Baina, nolahi ere, eta Sailak ikasleak ikastetxe horien artean modu desorekatuan banatuta daudela onartzen duen bitartean, ezin dio uko egin [martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuan](#) berariaz adierazitako balizko ekimenak egoki erabiltzeari. Hain zuzen ere, berariazko laguntza behar duten ikasleentzako plazak gorde (14. artikulua) eta ikasgela bakoitzeko ikasle

gehieneko kopurua gehienez % 10 areagotzeari (20. artikulua) buruz ari gara.

Azken horri dagokionez, garrantzitsua da, halaber, Sailak aukera hori gaizki ez erabiltzea, eta benetan dagokion helburuetarako erabiltzea, hau da, berandu iritsitako ikasleak hartzeko. Horren haritik, askok ohartarazi dute igoera hori baliatzeko aukera modu desegokian baimentzen ari dela ohiko matrikula dela eta ("ratio gaineko" matrikulazioa); horrenbestez, geroago, ez da bideragarria izango berandu iritsitako ikasle gehiago hartzea.

Horri guztiari, jakina denez, gainerako jarduera eta helburu estrategikoak ongi betetzea ere gehitu behar zaio; orain arte [Ikasle etorkinentzako hezkuntza arretarako programa, eskola eredu inklusibo eta kulturartekoaren barruan \(2012-2015\)](#) dokumentuan jasotakoei jarraipena emango zaie

2.3. Ikasleak onartzea. Errolda datuak gehiegi erabiltzea

2016-2017 ikasturtean ikasleak onartzeko prozesuan hezkuntza arduradunek lehen aldiz ohartarazpen bat baliatu dute; ohartarazpen horren arabera, alde aurretik salaketa bat eta ondoren erakunde eskumendunak emandako ziurtagiri ofiziala izanik, errolda ziurtagiria faltsua dela frogatzen bada (dela dokumentua faltsua delako, dela bertan jasotako datuak aldatu egin direlako), orduan hezkuntza administrazioak, eskatzaileari entzunaldia eskaini ondoren, baremoko atal horretako puntuak murriztu ditzake. Erakunde honetan aurkeztu diren hainbat kexaren arrazoiak, hain justu ere, horixe izan da.

Arartekoak ulertu duenez, errolda datuak gehiegi erabiltzeari dagokionez azken urteetan askotan plazaratutako gomen-dioak onartu badira ere, horrek ez du eragotzi aurreikuspen horiek aplikatuz hartutako neurriak berrikusteari ekitea, eta halaxe egin dugu, eta hainbat erabaki desberdinekin ebazpenak eman ditugu.

Kasuetako batean, adibidez, kexa aurkeztu zuen familiak eskaerak aurkezteko epea ireki zenean (ikasleak onartzeko prozesua abiatuz) errolda agiri bat baino ez zuen aurkeztu, eta bertan interesduna alabetako batekin etxebizitza batean erroldatuta zegoela ageri zen; ondoren jakinarazi zuten, gertuko senide batekin sinatutako logela bat alokatzeko kontratu bati esker zeuden etxebizitza hartan. Etxebizitza hura oso gertu zegoen lehen aukera gisa eskatutako ikastetxetik, eta horri esker gehienezko puntuazioa eman zitzaien familiaren etxebizitzaren gertutasunaren baremoari buruzko atalean. Orduan, familia unitateko gainerako kideen bizilekuari buruzko balizko erreferentziarik ez zuten egin, eta soilik ondoren jakin zen, [Gasteizko Udalaren](#) kolaborazioari esker, familiaren bizilekua egiaztatze aldera salatutako kasuetan ziurtagiriak aztertu eta egiaztatze Onarpena Bermatzeko Lurralde Batzordeak hartutako erabakiaren ondoren.

Udaletik emandako informazioak frogatu zuen familiaren lehenengo etxebizitza saldu ondoren, aita eta familiaren beste bi

alabak beste etxebizitza batean erroldatuta egon zirela, eta ikasleak onartzeko prozesuan parte hartu zuen alaba ere, onarpen prozesuan amaitu eta gero, bigarren etxebizitza horretan inskribatu zela.

Horrenbestez, erakunde honek ulertu zuenez, informazio berri horrek aurkeztutako ziurtagiriari printzipioz zor zaion ohiko egoitza eta bizilekuaren presuntzioa modu arrazoituari zalaratzen jartzeko bide ematen zuen; bidenabar, hezkuntza arduradunek hartutako erabakia 2016-2017 ikasturteko ikasleak onartzeko prozesua kudeatze aldera onartutako jarraibideetan jasotako ikuskatze eta fiskalizazio ahalmenak baliatzearen ondorio izan zela uste dugu.

Aztertutako beste kasu batzuetan, ostera, ez da horrelakorik gertatu. Adibide gisa ikus daiteke [Arartekoaren 2016ko urriaren 3ko Ebazpena](#), horren bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari gomendatzen zaio 2016-2017 ikasturterako ikasleak onartzeko prozesuan egindako eskaerari emandako tratamendua berrikus dezala, zehazki: etxebizitza eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan egoteagatik hasiera batean esleitu zitzaizkion puntuak kentzeko erabakia; azkenean, Hezkuntza Saileko arduradunek onartu egin dute.

2.4. Jokabideak zuzentzea

Batxilergoko lehen mailako ikasle baten amak kexan azaldu zuenez, idatzi bat igorri zioten semearen jokabidea zuzentzeko ohiko prozedura abiarazi zutela eta hogeiei egunez eskolara joateko eskubidea bertan behera uzteko behin-behineko neurria ezarri ziotela jakinarazteko.

Kexa izapidetzen hasi ondoren, interesdunak uko egin edo bertan behera uzten zuela ez zuen onartu hezkuntza arloko administrazioak, eta, horrenbestez, erakunde honen esku hartzeko tartea bereziki estutu da. Nolanahi ere, gogoan izanik hezkuntza ikuskaritzak ikastetxeen erreferente izatea lortu nahi duela eta, aldi berean, ikasleen eta hezkuntza komunitate osoaren eskubideak bermatzeko elementu erabakigarria izatea lortu nahi duela, erakunde honen aburuz konpromiso horiek benetan gauzatuz gero ikuskaritzak bere baloraziopean jarritako kasu guztien balorazio kritikoa egin beharko luke, nahitaez. Horregatik, hasitako esku hartzea bukatu aurretik kexa aztertzerakoan sortutako hausnarketetako batzuk hezkuntza arloko arduradunei igorri nahi genizkien, erabateko kautelaz, betiere.

Horretarako, eta sarrera gisa, ikasleek betebeharrak eta eskubideei buruzko [abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak](#) bete nahi zuen helburua aipatzea garrantzitsua iruditu zitzaigun. Zioen azalpenean azaltzen denaren arabera, [Euskal Eskola Publikoaren Legeak](#) eskatzen duen moduan ikasleek arbitrariotasunik gabeko diziplina trataera izatea bermatzeko helburuari eutsi zion, beharrezko prozedura bermeekin eta legezketasunaren, tipikotasunaren eta aldeko entzunaldiaren printzipioekiko errespetu osoarekin; horrez gain, elkarbizitza eskumenak eskuratze aldera jokabidea zuzentzeko prozesua funtsezko tresna izatea lortu nahi zen, eskola curriculumaren oinarritzko eskumenen artean jasoz, betiere hezkuntza ikuspuntua izanik. Horrela, jokabidea zuzentzeko hezkuntza prozesua zigor edo

administrazio izaeradun zehapen prozedura bihurtzea ekidin nahi zen, ikaslearen eta ikastetxearen artean gatazka juridiko izatea bihur zitekeena, eta, batez ere, edozein hezkuntza neurri hezkuntza balioa mantentzea lortu nahi zen.

Jarraian, eta dekretu honetako agindu batzuen gaineko erreferentziak zehatzago jasoz, kexa aurkeztu zuen emakumeak planteatutako zenbait alegazio nabarmendu nahi ditugu, besteak beste, jokabidea zuzentzeko bide alternatiboei buruzkoa eta ezarritako kautelazko neurriaren eta neurri zuzentzailearen balizko gehiegizkotasunari buruzkoa.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Azken urteetan, hezkuntza arloan Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko [abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak](#) (LOMCE) lortu duen erabateko gaitzespena gailendu da; dirudienez, gaitzespen hori bukarazi nahi da.

Estatu mailan, Diputatuen Kongresuko Hezkuntza Batzordean 2016ko abenduaren 1ean hartutako erabakiak azpibatzaorde bat sortzea xedatu du, Hezkuntzarako Estatu mailako Itun Sozial eta Politiko handia prestatzeko. Horren adibide edo froga gisa, berriki [abenduaren 9ko 5/2016 Lege Errege Dekretua](#) argitaratu da, Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren ezarpen egutegia luzatzeko premia neurri buruzkoa; neurri horien artean jaso da, besteak beste, orain arte horren polemikoak izan diren ebaluazioak ezartzeko epea luzatzea.

Bestalde, EAE mailan, izendatu berri den gobernu hezkuntza bereziki aintzat hartzen duen gobernu akordio baten emaitza da. Akordio horretan, aukera berdintasuna sustatzeko eta elkarbizitza demokratiko, solidario eta arduratsua eraikitzeko hezkuntza ezinbesteko elementutzat jo da. Akordio horretan jasotako konpromisoen artean hezkuntza eragile guztien artean hezkuntza arloko itun bat lortzea ere ageri da; Hezkuntzako Euskal Lege berria eratzea izango da prozesu horren amaieran. Erakunde honen iritziz, itun horretan ["Heziberri 2020"](#) Planaren inguruan azken urteetan garatu diren proiektuen jarraitutasuna aztertu beharko litzateke, eta horien testuinguruan entzun diren iritzi kritikoak ere aintzat hartu beharko lirateke.

Hain zuzen ere, proiektuetako bat aurten eman da ezagutzera, [EAEko Hezkuntza Sistema Hobetzeko Plana](#). Aurkezpenen jaso denez, EAEko hezkuntza sistemak eta beste hezkuntza sistema batzuetan frogatutako esperientziek posible egiten dute hezkuntza bikaintasunerantz jotzeko lan ildo eraginkorrenei buruzko datu eta ondorioak izatea, betiere berdintasuna galdu gabe.

Hala ere, duela gutxi [PISA 2015 txostenaren](#) ebaluazioen emaitzak jakin dira. Emaitzek agerian utzi dute euskal ikasleek atzera egin dutela azterketako hiru ataletan (zientziak, irakurmena eta matematikak). Oso kezagarria izan behar da, hezkuntza arloko hainbat ahots nabarmenek ohartarazi duten moduan; Arartekoak bat egin nahi du aipatutako ahots

horiekin. Erakunde gisa, sailburuak Euskadiko Eskola Kontseiluari eta Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeari eskatu dien azterketako datuak lehenbailehen jakitea espero da, proban lortutako puntuazioaren beherakada azaltzeko arrazoiak aztertu eta egoera bideratzeko proposamenak egin ahal izateko.

4. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Arartekoaren ustez, hezkuntza ituna lortzea lehentasunezko helburu edo asmo ukalezina izan behar da, eta horri esker gure sistemari behar dion egonkortasuna emango diogu.

Horrez gain, Hezkuntza Saileko arduradun berriek orain arte erakunde honekin izan duten kolaborazio ildo berberarekin jarraitzea espero du Arartekoak; izan ere, beti esan dugun moduan, herritarrek eta zenbait hezkuntza eragile eskatuta izapidetu diren kexen errealitatea hezkuntza zerbitzu publikoaren prestazioan hobekuntzak txertatzeko baliagarria izan daiteke, bikaintasuna lortu nahi duen zerbitzu honetan, eta Arartekoak ez dio horri lepoa ematen.

Kolaborazio horren emaitzen adibide batzuk dira ikasleak onartzeko prozesuan lehen aldiz egin diren aldaketak, eroldako datuei gehiegizko garrantzia ez emateko, bereziki Gasteiz hiriarren kasuan ondorio nabarmenak eragin baititu. Hezkuntza administrazioak berak emandako informazioaren arabera, guztira bi urteko 270 ikasleren kasuak eta hiru urteko 80 ikasleren kasuak berrikusi dira; azkenean, guztira 75 kasutan iruzurra izan dela baieztatu da. Arartekoak kasu honetan hezkuntza arloko arduradunek izan duten inplikazio berezia nabarmendu besterik ezin du egin; bidenabar, bide beretik jarraitzeko animatu nahi ditu.

Hezkuntza administrazioa onarpen prozesu horietan aplikatzen diren irizpideak berraztertu beharraz ere jabetu da, gurasoetako bat zentroko ikasle ohia izatearen gaineko irizpidea zalantzan jartzen zuten kexa puntualek espedienteak izapidetzearen ondorioz. (Ikusi bigarren atalean Lasarte-Oriako guraso elkarte batek aurkeztutako kexa).

Horri dagokionez, kontuan izan behar da askotan, ikasleak onartzeko irizpideak zalantzan jartzen direnean edo irizpide horietakoren bat gehiegi erabiltzen ari dela salatzen denean, horren atzean benetan dauden auziak askoz sakonagoak direla. Hala gertatu da, adibidez, ikasle etorkinen banaketaren auzian; aurten gai horrek kezka nabarmena eragin du Gasteizen, eta hiriko zenbait ikastetxetan sortzen ari ziren ghettoen egoera bideratzeko irizpideak finkatze aldera erakundearen arteko mahai bat sortu da. Gauza bera gertatzen da hezkuntza programazio edo plangintzako zenbait erabaki zalantzan jartzen direnean. Besteak beste, Miribilla (Bilbo) bezalako hezkuntza eremuak edo Eibar bezalako udalerriari dagozkionak aipatu behar dira.

Baina atzerriko jatorria daukaten ikasleen gaira bueltatuz, aipatu behar da 2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura

artekoaren eremuan Ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana berriki aurkeztu dela, eta ikasleak onartzeari lotuta erakunde honek xedatu dituen hainbat proposamen jaso dira bertan. Plan horrek aldizka berrikusi eta jarraipena egiteko konpromisoa jaso du; gure iritziz, arreta berezia eskaini behar zaio horri, nahikoa ez dela aldarrikatu duten iritzi kritikoak bideratzeko baliagarria izan daitekeen neurrian.

Ezgaitasunen bat daukaten ikasleak Diseinuko Goi mailako Arte Irakaskuntzara sarbidea izateko probetan txertatutako aldaketek osatzen dute erakunde honen eta hezkuntza arloko arduradunen arteko kolaborazioaren beste emaitzetako bat. Aurreko konpromiso bat betez, aurtengo (2016. urtea) proba antolatu, garatu eta ebaluatzeko emandako jarraibideetan eskainitako plazen % 5 erreserbatu da % 33 edo gehiagoko ezgaitasun maila aitortuta daukaten ikasleentzat.

Ezin da gauza bera esan ezgaitasunen bat daukaten ikasleek erdi mailako eta goi mailako prestakuntza zikloetara sarbidea izate aldera erakunde honek planteatutako iradokizunari dagokionez, aurreko eskolatze fasean erabateko hezkuntza normalizazioa lortzeko laguntza eta baliabideak behar izan dituzten ikasleei ezarritako erreserba handituz. Erakunde honen iritziz, hezkuntza arduradunak ez dira bat etorri proposatu zitzaizkien iradokizunarekin. Horregatik, gure asmoa gai hau errepikatzea da.

Lanbide heziketako ikasketekin jarraituz, aurkeztutako kexek agerian utzi dute horrelako ikasketak egiteko nahia gero eta handiagoa dela, eta ez zaio beti erantzuna ematen, lehen-tasun eta preferentzia agindu batzuk aplikatzen direlako; ikasturte honetan Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko 8/2013 Lege Organikoak (LOMCE) sartutako zenbait aldaketek eragina izan dute, erdi mailako lanbide heziketako zikloetara sarbidea izateko baldintzei dagokienez. Hala ere, Arartekoaren aburuz, horrek ez du esan nahi eskaera handiena daukaten irakaskuntza zikloen eskaintza areagotzeko aukera baztertu behar denik.

Beste gai batzuei dagokienez, hezkuntza beharrian bereziak dituzten ikasleen gaineko kexa kasuetan hezkuntza arduradunek izandako kolaborazio jarrera ere nabarmendu behar da; oro har, kaltetutako familiei behar bezalako erantzun azkarra eman zaie. Oro har, adibide gisa Euskadiko Dislexia Elkartearen (DISLEBI) izenean aurkeztutakoa aipa daiteke; Hezkuntza Berrikuntzako Zuzendaritzak ondo hartu zuen. Kexa horretan, kexagileak kezkatuta agertu ziren hezkuntza administrazioak ez zuelako erantzunik eman dislexia daukaten ikasleen hezkuntza beharriari erantzun hobea emateko balizko ekarpen gisa planteatutako hainbat ekimenen aurrean, Euskadiko Logopeden Elkargoaren parte hartzearekin prestatutako “Eficacia de las intervenciones para el tratamiento de la dislexia: una revisión” txostena egin ondoren, ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei arreta emateko mahai teknikoan.

Jarrera berezi horri esker, Gasteizko Gorbeialde HBI zentrora doazen ikasleen eskolatze baldintzen inguruan jasotako kexak laster bideratu ahal izatea espero dugu; EAEko hezkuntza bereziko zentro publiko bakarra da Gorbeialde HBI, eta erakunde honek ez du baztertu ofiziozko jarduketa hastea,

ikasle horien osasun beharriari ematen zaien erantzuna aztertzeko, horren ondorioz Legebiltzarrean legez besteko proposamena onartu baita.

Tamalez, aurten ere eskola jazarpeneko balizko kasuen gaineko kexak aipatu behar ditugu; horrelakoetan Internetek eta teknologia berriek gero eta presentzia handiagoa daukate. Horrez gain, aurten lehen aldiz Fiskaltzak berak ohartarazi du Internet eta teknologia berrien bitartez adingabeek pairatutako jazarpen sexuala dela-eta gero eta zerkatuago dagoela. Hezkuntza arloan izandako azken kasuak eta aipatutako kexkak eragin dute Hezkuntza arloan gerta daitezkeen haurren eta nerabeen babesgabetasun, tratu txar, sexu jazarpen eta sexu abusu egoerarako prebentzio eta jardun Protokoloa, hezkuntza arloaren eta adingabeak babesteko esku hartzen duten agenteen arteko lankidetzeta eta koordinazioak.

laz urteko txostena idaztea baliatu zen kasu askotan hezkuntza arloko ikuskaritzaren esku hartzeak daukan garrantzia nabarmentzeko, familiekin harremana izateko ikuspuntutik, familiek behar bezala artatu direla senti dezaten eta hezkuntza administrazioan konfiantza izan dezaten. Kexen aukeraketan, jarrera zuzentzeko prozedurari lotuta aurten izapidetutako kasuetako bat aipatu nahi dugu. Honako gomendio hauek ere bereziki nabarmendu nahi ditugu: hezkuntza administrazioak formalki onartu dituen arren, kasuetako bat behin betiko ebaztea gaur egun oraindik ere gehiegi luzatzen ari da: [Arartekoaren 2016ko otsailaren 26ko Ebazpena](#). Haren bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari gomendatzen zaio, beren-beregi eta modu arrazoituan ebatz dezan elkarbizitzari larriki eragiten dion jokabide bategatiko neurri zuzentzailea aplikatzeko jarraitutako prozeduraren baliogabetasuna adierazteko egindako eskaeraren ingurua eta [Arartekoaren 2016ko otsailaren 24ko Ebazpena](#), honen bidez gomendatzen zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari ebazpen berariazkoa eta arrazoitua emateko kexa sustatu duen interesdunak Hezkuntza Ikuskaritzara bideratutako idatziari.

Zerbitzu osagarriari dagokienez, eskola jantokiarena bezala, Sailak, berriz ere, zentzuzko jarrera agertu du gaixotasun bat zeukan adingabe baten kasuan; gaixotasunaren ondorioz elikadura mota zehatz bat jarraitu behar zuen aipatutako ikasleak, eta elikadura mota horrek jantokia erabiltzea baldintzatzen zuen. Azkenik, arazoa konpondu ahal izan zen ikaslearen beharriarenetara egokitutako menu berezia prestatzeko zenbait teknika eman zirenean, baita sukaldeko langileei elikadura segurtasunaren gaineko prestakuntza eman eta gero.

Beka eta bestelako laguntzen atalean, kexarako arrazoiak aurreko urteetan agertutakoen berdinak dira: eskaerak ebazterakoan administrazioaren jarduna atzeratzea, onartutako zenbatekoak ordaintzean atzeratzea, etab. Nabarmendu beharrekoa da, hala ere, prozeduretan Arartekoaren jarduna gero eta lehenago eskatzeko joera dagoela; horren ondorioz, erakunde honen balizko esku hartzea atzeratu behar izaten da, administrazio espedienteen izapidetzea aurreratuago dagoen arte.

Ohikoa den moduan, horrelako kexak (laguntza eta bekei dagozkienak) ohikoenak dira unibertsitate irakaskuntza mailan. Horiekin batera graduondoko prestakuntzaren arloan aurkeztutako laguntza eskaerak ukatzeari dagozkionak ere badaude, baita ikertzaile eta master irakaskuntzetarako direnak ere.

Izaera oro har ekonomikoa daukaten gai hauetatik kanpo, aurtun (2016an) ikasleak zenbait ikasketetan onartzeari lotutako beste era bateko eztabaidak ere sortu dira. Esaterako, [Euskal Herriko Unibertsitatean](#) Zuzenbidean graduatutako batek abokatu lana profesionalki garatzeko interesa zeukan, eta Abokatu Masterreko ikasketetan sarbidea izateko eskaera ukatu egin zaio.

II. ATALA

3

OGASUNA

1. Arloa kopurutan








2016an 116 kexa aurkeztu dira ogasun arloan, eta erakunde honetan izapidetu diren kexa guztien %5,37 izan da hori. Honakoa izan da eragindako administrazioen araberrako banaketa:

- Tokiko Administrazioa 43
- Foru Administrazioa 36
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritzan) 2

Aztertzen diren gaiak edo azpiarloak kontuan hartuta, honela sailka daitezke jasotako kexak:

- Tokiko zergak 32
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa 31
- Foru zergak 22
- Tasak 21
- Prezio publikoak 8
- Kontratazio-araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna 1
- Beste alderdi batzuk 1

Urtea ixtean aipatu arloan aztertu ditugun kexen izapidearen xehetasunari dagokionez, 2016ko abenduan honakoa izan da informazio estatistikoa:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
200	120	80	14	36	18	12

Era berean, zehaztu beharra dago aurreko urteetan aurkeztu ziren herritarren kexen beharrezko kudeaketak baldintzatu duela 2016an aipatu arloan jasotako kexen azterketa, izan ere, jarduera-eskaera horien izapideak ezin izan ziren amaitu abiarazi ziren urtean.

2. Kexarik aipagarrienak

Herritarrek egindako kexa eta kontsultetan jorratzen den kasuistika zabalak horien aukeraketa zaildu egiten du. Nolanahi ere, nabarmendu beharra dago eremu horren barruan **tokiko tributazioaren** esparruari buruzko erreklamazioek daukaten pisua. Tokiko administrazioa da herritarrengandik

hurbilen dagoen administrazioa; horrenbestez, hori da zerbitzu gehien ematen dituen eta herritarren eskaerak eta beharrezko neurri handiagoan estaltzen dituen.

Aurreko ekitaldietan ere egin izan dugun bezala, zerga-garrantzia duten harreman juridiko pribatuen esparruko ez-ordaintze egoerak aipatu behar ditugu, zehazki, alokatutako ondare higiezinaren jabeen ezjakintasuna zergadunaren ordezkioak izanik higiezin horietako bizilagunei eragiten edo mesede egiten dieten tasen ordaintzari dagokionez (ur-, saneamendu-, zabor- eta estolderia-tasak). Halaber, etxebizitza bat eskuratzen dutenentzako harrigarria izan ohi da zerga-legeriak erantzukizuna euren erantzukizuna, ondorioz, udalak euren eskatu ahal izatea higiezinaren aurreko titularrak, hura jabea zenean, ordaindu ez zituen eta preskribatu ez diren Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren (OHZ) kuoten ordaintzeta.

Aipagarria da hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga-kontzeptuaren tributazioari lotutako herritarren haserrea; izan ere, higiezinak eskuratu zireneko prezioa baino balio txikiagoaren truke eskualdatzea egoera erreala da trafiko juridikoan, higiezinaren sektorearen krisiaren ondorioz, eta ez da jaso zerga hori arautzen duten arauetan. Horrez gain, katastro-balioaren egokitze berriaren emaitzek agerian jarri dute, Lurralde Historiko batzuetan, lurzorua balioak ez duela gehikuntzarik jasan.

Tokiko tributazioari dagokionez, Ararteko erakundeak honako gomendio eta iradokizun hauek igorri ditu 2016an:

2016ko apirilaren 19ko gomendia, Mungiako Udaleri, zabor-tasa gisa igorritako likidazioak ofizios balio gabetu zitzaizkion, familia kexagileari ez zitzaizkion inolako zabor-bilketa zerbitzurik ematen ari.

2016ko irailaren 27ko gomendia, Erandioko Udaleri, eskulanaren benetako kostu erreal gisa esleitutako zenbatekoa nahikoa arrazoitu ez izanagatik, hirigintza-zerbitzuengatik eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergarengatik (EIOZ) tasen kontzeptu gisa igorritako likidazioetan, bai eta EIOZren zerga-oinarria zehazteko orduan BEZaren kontzeptupean kexagileak ordaindutako zenbatekoak barne hartu izanagatik ere.

2016ko azaroaren 29ko gomendia. Horren bidez, Urrunagako Administrazio Batzordeari gogorarazi zitzaion ordaintza fiskalak aldatzeko prozedurari jarraitu behar diola, ur-horniduraren tasa igo ahal izateko.

Horrez gain, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko **maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Araua** onestearekin batera familia ugarien aldeko hobariak kentzearen ondorioz, Arartekoak honako hau **iradoki zion Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari:** hausnarketa prozesu bat has

zezala, Lurralde Historiko horretan seme-alabak dituzten familiei laguntzeko neurri eta baliabide ekonomikoen sustapenaren eremuan sakondu eta aurrera egin ahal izateko, hala, familiek euren bizi-proiektuak autonomiaz garatu ahal izateko. Familiek beren gain hartzen duten ahalegin ekonomiko handia kontuan hartu behar da, eta horretarako, ezinbestekoa da kostuak konpentsatzeko neurriak ezartzea.

Ildo horretatik, ondoko hau gogorazi zitzaion: erabakiak hartu baino lehen, foru-sail horrek aktibatu nahi dituen zerga-neurriek seme-alabak dituzten familiengan izan ditzaketen eraginak aztertu behar dituela, bai eta zerga-onurak kentzen dituzten zerga-erreformak ere.

Azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak aurrerapausoak egin beharko lituzkeela azpimarratu zen, oro har, familientzako zerga-onurak homogeneousatzeko, seme-alabak dituzten familiak Euskal Autonomia Erkidego osoan, beren bizitokia edozein dela ere, sistema berdintsu batez babesturik egon daitezten.

Foru-tributazioari buruzko gaiak dagokienez, kexa gehienak **Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari** (PFEZ) buruzkoak izan dira. Zerga horri dagokionez, behin eta berriro azaltzen diren hainbat problematika daude: zerga ordaintzeko modua hautatzeko epealdia, ohiko etxebizitza erosteagatik kenkariaren aplikazioa, familia-kenkariaren konfigurazioa eta kenkari orokorra kentzeak zerga-kuotan daukan eragina, ekitaldian jasotako etekin guztiak kapital-errentetatik eratorzen direnean, esaterako, zergadunak jaso dituen diru-sarrerak bakarrak etxebizitza baten alokairuaren ondoriozkoak direnean edo kapital txiki batek sortu dituen etekin ekonomikoaren ondoriozkoak direnean.

Halaber, aipatu beharra dago baita ere Arartekoak [2016ko apirilaren 4ko gomendioa](#) igorri ziola [Arabako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari](#), Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) auto-aitorpenen prestazioaren aplikazio telematikorako sarbide elektronikoa neutrala bermatu zezan.

Zergadunak bere desadostasuna agertu zuen, PFEZaren auto-aitorpena egiteko aurkezpen telematikorako aplikazioak, 2014ko ekitaldian, Microsoft teknologia izatea eskatzen zuelako (Windows eta Explorer). Hau da, aplikazioaren konfigurazioa ez zen bateragarria beste teknologia batzuen erabilerekin, libreak zein ordainpekoak.

Zerga administrazioaren funtzionamenduari dagokionez, oraindik ere betiko patologia antzematen dira: herritarrek aurkeztutako erreklamazioen edukari berariaz eta epe barruan ez erantzutea, egiturazko arazo ekonomikoak dauden kasuetan ordainketak geroratzeko akordioetara iristeko zailtasunak eta ondasunen enbargatzea, normalean, egoera zaurgarrietan dauden pertsonen titulartasunekoak diren kontu korranteetan dauden saldoei dagokienez.

Aitortu beharra dago, oro har, euskal zerga-administrazioak zorra kitatzea ahalbidetzeko ordainketa-akordioak egitearen alde agertzen direla, eta duintasunez ematen dietela arreta zordunaren oinarritzko beharrei. Zailtasunak sortzen dira likidazio faltak egiturazko izaera hartzen duenean zordunarentzat

edo eragindako pertsonak aurreko zatikatzeren bati lotutako baldintzaren bat bete ez duenean, zor berriak betearazpen bidean sartzea utzi duelako edo ezin izan duelako hilekoren bat ordaindu.

Egoera zailetan ekonomia xumeek nekez egingo diote aurre ordainketak egiteko egutegiari, euren eta seme-alaben bizi-modua ateratzeko baliabideen zati oso handia horretarako bideratu behar baldin badute, nahiz eta metatutako zorra ordaintzeko borondate sendoa izan.

Pertsona batzuen zaurgarritasun egoerak oso zail egiten du metatutako zorraren ordainketari aurre egin ahal izatea, ez bada bere egoera ekonomiko prekarioarekin bateragarria den zatikatze berri bat ematen.

Hori dela eta, komenigarria izango litzateke zerga-administrazioek kasu horietako inguruabarrak aztertzea, gizarte-zerbitzuekin koordinatuz, kudeaketa publikoari dagokion eraginkortasun-printzipioa kontuan hartuz, zeinak zor diren zenbatekoen itzulera bideratzeko eskatzen duen, horrek gizarte-bazterkeria prozesua gaizkiagotu gabe.

Ordainketa zatikatze eskaera ezetsi edo atzera bota ostean, zerga-bilketa prozesuak aurrera jarraitzen du eta ondasunen enbargoarekin amaitzen da, normalean, zordunen kontu korranteetan eskuragarri dauden saldoak enbargatuz.

Zerga-administrazioa Prozedura Zibilaren Legeak (PZL) ezartzen dituen mugetan jardun behar da. Hala eta guztiz ere, zordunari dagokio muga horiek bete diren egiaztatzea eta, hala ez bada, eragozpenaren aurkako errekurtsioa jartzeari, non PZLren 607. artikuluan ezarritako muga ekonomikoak gainditu direla ulertzeko arrazoiak azaldu behar diren, eta, ondorioz, enbargoak zenbatekoari dagokionez ezin enbargatu daitezkeen ondasunei eragin diela ulertu behar den.

Prozedura hori konplexua da, eta aholkularitza eta laguntza egokirik gabe oso zaila da giza-baliabide eta baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonen horiei egoki aurre egitea.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Bereziki azpimarragarria da 2016. urtean **Konstituzio Auzitegiaren** (KA) Osoko Bilkurak hartutako bi erabakik izan duten garrantzia, foru fiskalitatearen eremuan eragina izan dutenak: 2016ko ekainaren 23ko eta abenduaren 1eko epaiak.

[Otsailaren 19ko 1/2010 Lege Organikoa](#), Auzitegi Konstituzionalaren eta Botere Judizialaren lege organikoak aldatzeko, onartu zenetik, Auzitegi Konstituzionalari dagokio Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurraldeetako zergen foru arauen aurka jarritako errekurtsioak ezagutzea, errekurtsio horiek lurraldeen eskumenen baitan eman badira. Izan ere, eskumen horiek [Konstituzioaren](#) lehenengo xedapen gehigarriak bermatzen ditu eta [Euskadiko Autonomia Estatutuaren](#) 41.2. a) artikuluan aitortzen dira.

Zergen foru arau horiek *blindatzeko* eman zen justifikazioa da, lurralde bakoitzeko Batzar Nagusiek onartutako arauak, Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriaren arabera, estatuko gainontzeko lurraldeetan Gorte Nagusiek onartzen dituzten legeak mantendu, ezarri eta erregulatu ditzaketela. Hau da, zergei dagozkien foru arauak estatu mailako legeak *ordezten* dituzte lurralde historiko bakoitzean eta, beraz, lege horien pareko inpugnazio-erregimena izan beharko lukete.

2016ko ekainaren 23ko epaian, Konstituzio Auzitegiko Osoko Bilkurak 1/2010 Lege Organikoaren aurrean bildutako konstituzio-kontraktasun errekurtsoen oinarritzat hartutako argudioak aztertu eta gaitzesten ditu eta Lege Organiko horren konstituzionaltasuna berresten du eta, horrenbestez, bai eta Lurralde Historikoen zerga-arauen kontrollean duen eskumena ere.

Epai horretan, Konstituzio Auzitegiak honako hau defendatzen du: foru-araudien aurkaratze-erregimenearen aldaketak, 1/2010 Lege Organikoan barne hartzen denak, ez dakar orain arte zerga foru arauak eragindako pertsona fisiko eta juridikoei aitortu zaien bermeen konstituzionalki onartezina den murrizketarik. Hala, adierazten da foru arauen aurkaratze-erregimenean egindako aldaketa foru autonomiaren defentsa-baliabide gisa arbitratzen dela eta, aldi berean, bai eta Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen sistemarekin bermeak alderatzeko neurri gisa ere.

Halaber, epaiak ukatu egiten du zerga foru arauen erregelamendu-mailak Konstituzio Auzitegiaren jurisdikzio-objektutik baztertua, Konstituzioak ez duelako diseinatu jurisdikzio konstituzionalaren eredu itxirik, Konstituzio Auzitegiak ezagutu ditzakeen prozesu konstituzionalen zerranda itxi eta zehatz bat barne hartzen duena, eta ez du barne hartzen ezta ere errekurtsuak jartzeko legezkoatasuna duten pertsonen eta erakundeen zerrendarik.

Hala ere, agian, epai horren alderdirik eztabaidagarrienak ondokoak dira: Konstituzio Auzitegiak kontrolpean hartzen duen zerga-arauaren kontzeptuaren mugaketa eta konstituzionaltasunaren parametroaren konfigurazioa.

Hala, Konstituzio Auzitegiak aitortzen du zerga foru arauen baliozkotasunaren berehalako edo zuzeneko parametroak direla, Konstituzioaz gain, bai Autonomia Estatutua bai **maiatzaren 23ko 12/2002 Legea**, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia-ituna onartzen duena, Estatuaren eta Lurralde Historikoen arteko zerga-harremanak agintzen dituzten arauak direlako. Horrez gain, honako hau ere adierazten du: *“son parámetro mediato o indirecto del enjuiciamiento de aquella validez, por expresa remisión de la Ley del concierto, tanto las normas estatales reguladoras de los diferentes tributos que configuran “la estructura general impositiva del Estado” (art. 2.1.2 de la Ley del Concierto Económico) como “la Ley General Tributaria” [art. 3 a) de la Ley del Concierto Económico], pues únicamente en contraste con las mismas puede comprenderse el concreto alcance y comprobarse el correcto ejercicio de las competencias normativas que les han sido reconocidas”*.

Halaber, gaineratzen du zergak arautzen dituzten estatuko arauak ere foru-arauen konstituzionaltasunaren parametro gisa konfiguratzeko direla, baina soilik foru lurraldeek euren zerga erregimen propioa mantendu, ezarri, arautu eta kudeatzeko eskumenak Estatuaren zerga egitura orokorra kontuan hartzen duen heinean; izan ere, Lurralde Historikoei ezauzgarri hauek betetzen dituzten zergak ezarri behar dituzte: *“identificable la imagen de los que integran el sistema tributario estatal (...) sin que quepa exigir una identidad regulatoria completa que llegue al punto de considerar que cualquier elemento contenido en la norma estatal reguladora de cada una de las figuras tributarias que integran dicho sistema sea un elemento configurador de la estructura general impositiva del Estado.”*

Hala ere, Konstituzio Auzitegiak mugatu eta zehaztu egiten du Batzar Nagusietatik datozen zerga foru arau guztiak ez daudela bere kontrolpean; aitzitik, arau mota zehatz bat baino ez dago bere kontrolpean: *“aquellas que hayan sido dictadas en el ejercicio de las competencias reconocidas por el art. 41.2.a) EAPV, a saber, las que se dirijan a mantener, establecer y regular, dentro de su territorio, el régimen tributario, atendiendo a la estructura general impositiva del Estado. Las restantes normas forales fiscales, esto es, las que no se dirijan a replicar los tributos integrantes del sistema impositivo común, quedarían fuera del ámbito de las competencias de este Tribunal, por no traspasar el umbral de la legalidad ordinaria, correspondiendo su exclusivo control, directo e indirecto, a los tribunales ordinarios a través del sistema de recursos previsto en las correspondientes leyes procesales”*.

Horrez gain, 2016ko amaieran, Konstituzio Auzitegiko Osoko Bilkurak, **2016ko abenduaren 1eko epaian**, konstituzioaren kontraktat eta baliogabetzat jo zuen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren 30.2 artikulua.

Konstituzio Auzitegiak, Batzar Nagusiek zenbatespen objektiboko erregimena ezarri zein kentzeko aukera dutela aitortu ostean, ondoko hau azpimarratu du 10/2006 Foru Arauari dagokionez: *“acogió la aplicación del método de estimación objetiva por signos, índices o módulos, para la determinación del rendimiento neto de las actividades económicas “que reglamentariamente se establezcan” (art. 30.1), eso sí, precisando, a renglón seguido, que su aplicación “nunca podrá dejar sin someter a gravamen los rendimientos reales de la actividad económica”, de manera que, “en el supuesto de producirse diferencia entre el rendimiento real de la actividad y el derivado de la correcta aplicación de esta modalidad de determinación del rendimiento neto, se procederá al ingreso o devolución de la cuota resultante, sin que resulten exigibles el recargo por ingreso fuera de plazo, los intereses de demora o las sanciones” (art. 30.2).*

Hain zuzen ere, 30. artikuluko bigarren atal hori da Konstituzio Auzitegiak baliogabetzat jo duena, *“zuzeneko zenbatespen desegokitzat”* jotzen duen kontzeptua sortzen duelako; izan ere, zenbatespen objektiboko metodoa eta zenbatespen zuzeneko metodoa bata bestearen ondoren aplikatzea ahalbidetzen du zerga-betebehar berdina kalkulatzeko, eta

horrek, Konstituzio Auzitegiak defendatu duenaren arabera, “*vulnera la regla de armonización impuesta en el art. 3 a) de la Ley 12/2002 que obliga a los Territorios Forales a adecuar su normativa a la Ley General Tributaria en cuanto a terminología y conceptos, lo que determina la nulidad del precepto foral por desfigurar el concepto de estimación objetiva contenido en este último texto legal del Estado, sin que existan especialidades o peculiaridades en la Ley del Concierto que permitan, ex art. 3.a) de la Ley 12/2002, apartarse del mismo*”.

Hala, Konstituzio Auzitegiak honako hau argudiatu du: “*Si bien es cierto que el contenido de la estimación objetiva por signos, índices y módulos del Territorio Histórico puede ser diferente al establecido en el Territorio Común, las Normas Forales sobre el IRPF deberán en todo caso –y porque así lo exige el art. 3.a) de la Ley del Concierto– respetar las características intrínsecas del concepto de estimación objetiva ofrecido por la LGT. En este sentido, la estimación objetiva por signos, índices o módulos de la base imponible de un tributo por su propia naturaleza sólo puede arrojar un resultado estimativo a diferencia de lo que acontece con la estimación directa. Por ello, no puede considerarse que respeta el concepto de estimación objetiva contenido en la LGT aquel régimen que obliga al contribuyente, en el supuesto de producirse diferencia entre el rendimiento real de la actividad y el derivado de la correcta aplicación del régimen de estimación objetiva, “a proceder al ingreso o devolución de la cuota resultante” (art. 30.2 de la Norma Foral 10/2006), pues la inamovilidad de la cuantía derivada de la correcta aplicación de la estimación objetiva es una característica intrínseca de aquel régimen de determinación de la base del tributo. En este mismo sentido se pronunció la Sala de lo Contencioso-administrativo del Tribunal Supremo en su Sentencia de 23 octubre 2014 (Recurso de Casación núm. 230/2012), al resolver un recurso frente a una norma foral fiscal distinta (el artículo 26.2 de la Norma Foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa 8/1998, de 24 de diciembre), pero de contenido similar a la enjuiciada en el presente proceso*”.

Konstituzio Auzitegiaren adierazpen horren birtualtasun materiala (Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak sustatutako konstituzio-kontrakotasun auzi bat ebazten duena) mugatua da; izan ere, PFEZaren erreformaren eta PFEZa arautzen duen 3/2014 Foru Arauaren onespeneraren erreformaren kariaz, desagertu egin da zenbatespen objektiboaren erregimena PFEZaren jarduera ekonomikoen errendimendua zehazteko metodo gisa. Hau da, gaur egun zuzeneko zenbatespen-sistema baten bidez baino ezin da zehaztu jarduera ekonomikoen errendimendua. Hala eta guztiz ere, zerga foru arauen “*baliozko auzipetzearen bitarteko edo zeharkako parametro*”ren garrantzia azpimarratzea-gatik da adierazpena garrantzitsua, izan ere, terminologia eta kontzeptuei dagokienez Tributuaren Lege Orokorra egokitze-ko betebeharra ezartzen du.

Tributu-ordenamedua oso ordenamendu dinamiko da, eta ohikoa izaten da zerga nagusiei (bai foralei bai tokikoei) eragiten dieten aldizkako aldaketak, eguneraketak, egokitzapenak eta zuzenketa teknikoak onartzea. Horrela, tributuak aplikatzerakoan saiheste eta bidegabekeria egoerak ekiditea

da asmoa. Egokitzapen horietako batzuk eman dira zerga-araudia Euskal Zuzenbide Zibileko [ekainaren 25eko 5/2015 Legean](#) jasotako aurreikuspenetara moldatzeko.

Edonola ere, argitalpen hau nabarmendu beharra dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko Legearen testu bategina onesten duen 1/2007 Legegintzako Dekretua aldatzen duen [apirilaren 7ko 4/2016 Legea](#).

Halaber, aipatu beharra dago, iruzurraren aurkako borrokaren testuinguruan, hiru Lurralde Historikoen Foru Ogasun horiekin zorrak dituztenen zerrenda argitaratu zutela 2016an.

Azkenik, adierazi beharra dago 2016an hiru Lurralde Historikoetan amaitu dela **ondasun higiezinaren katastro-balio egokitzeko prozesua**. Neurri hori hartzeko eskaera asko jaso izan dira, krisi ekonomikoak eta eraikuntza-krisiak ondasun higiezinaren merkatuaren balioan izan duten eragina ikusita. Horrek eragin zuzena izango du, besteak beste, 2017an igorriko den Ondasun Higiezinaren Zergaren zerga-bilketan: izan ere, balorazio berriek 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak.

Bizkaiari dagokionez, balioen eguneraketa horren aurretik bi foru arau onetsi dira: Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko [maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Araua](#) eta Higiezinaren Katastroari buruzko [maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Araua](#).

2016an indarrean zeuden balio-ponentziak onetsi zirenetik berriak onetsi diren arte denbora luze igaro denez, oro har, katastro-balioak 2016an erabilitako balioak altuagoak dira. Igoera horri aurre egite aldera zerga-tasa murriztu da.

Hala, katastro-balioaren igoera konpentsatze aldera, gutxieneko karga-tasa bat ezarri da hiri-ondasunentzako eta beste bat landa-ondasunentzako, aurreko araudian indarrean zeudenak baino txikiagoak direnak, bai eta bi kategoria horietako bakoitzeko gehieneko tasa bat ere. Hala ere, hiri-ondasunei dagokionez, eta erabileren arabera, gehienekoak baino handiagoak diren karga-tasak onesteko aukera ematen zaie udalei.

Gaikuntza hori, bai eta horren zehaztapenak ere, zabal eztabaidatuak izaten ari dira katastro-balio jakin bat gainditzen duten bizitegi-erabilerako hiri-ondasunei dagokienez euren ordenantza fiskalean ordenantzak ezartzen duen zerga-tasa areagotua barne hartu duten udaletan.

Horrez gain, familia ugarien aldeko hobari fiskalak ezabatu izanak desadostasuna eragin du.

Etxebizitzaren funtzio soziala zergan sartu izana arau horren beste alderdi azpimarragarri bat da (eta eztabaida eta zalantzak eragingo dituela aurreikusten da); izan ere, 4/2016 Foru Arauak tokiko erakundeei ahalmena eman die euren ordenantza fiskalean zergaren kuota likidoaren 100eko 50era arteko hautazko errekaru batekin kargatu ahal izateko bizitegi-erabilerako higiezinak diren baina subjektu pasiboaren edo besteren baten –alokatuta edo erabiltzeko lagata– ohiko bizilekua ez diren higiezinak. Errekargu hori urtero sortu eta likidatuko da zerga horren kuotarekin batera.

Antzeko aurreikuspen bat barne hartu da OHZn, Arabako Lurralde Historikoan Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren 15. artikulua aldatzen duen [urriaren 26ko 12/2016 Foru Arauan](#).

Lurralde Historiko horretan katastro-balioen eguneraketa [Vitoria-Gasteiz](#) udalerrian zentratu da; oro har, higiezinaren katastro-balioak behera egin duela antzeman da.

Azkenik, Gipuzkoako Lurralde Historikoan badirudi higiezinaren katastroaren balioaren eguneraketak higiezinaren katastro balioaren areagotzea ekarri duela.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

Herritarren kontsultak eta kexak aztertu eta ebatzea da Ogasun Sailaren eginkizun nagusia. Alabaina, arloan garrantzia eskuratu du ofiziozko jardunbideen sustapenak, araudian aldatetako egiteari eta herritarrentzat hobeak diren administrazio-praktikak ezartzeari dagoko bideratuta horren xedea.

2016an **ofiziozko** hainbat **espediente** hasi dira, OHZren ondorioerako hiri-lurzoruaren mugaketa berrikuste aldera, zehazki, egungo xedea hertsiki nekazaritza-erabilera edo -helburukoa izan arren urbanizagarri gisa sailkatuta dauden lursailei dagokienez.

Hala, saihestu egingo litzateke hirigintza-plangintzarako tresnak onartu gabe dituzten hirigintza-lurretan kokatutako lur-sailek, OHZri dagokionez, bidezko prezioa baino askoz altuagoa den zerga-presioa jasatea. Izan ere, nahitaezko desjabetzea gertatuz gero, lur berberak jasoko lituzkete, lur horien egungo erabilera nekazaritzari dagokiona delako halabarrez.

Halaber, [Bastidako Udaleri](#) adierazi zitzaion bere webgunearen bitartez hedatzen ari zen Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren testua eguneratu zezala, hutsegiteak egitea eragiten zuelako. Txosten hau amaitu den egunean, oraindik ez dira udalaren webgune ofizialean argitaratu 2015eko abenduan ordenantzaren testuan barne hartutako aldaketak.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Espainiako Konstituzioak 31.1. artikuluan zera xedatzen du: *“Guztiak gastu publikoei aurre egiten lagunduko dute, bakoitzak bere ekonomia-ahalbidearen arabera; horretarako, zerga-sistema zuzena ezarriko da, berdintasun- eta progresibitate- printzipioetan oinarriturik; sistema hori ez da inoiz konfiskagarri izango”.*

Zergapetu beharreko kontribuzio-ahalmenak benetakoa eta oraingoa izan behar du, eta ez luke eratorri behar zergaren mekanikatik bertatik. Egoera hori, gure ustez, Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zergaren likidazio batzuetan jartzen da agerian, izan ere, zerga hori erregulatzen duten arauak ez dute kontuan hartzen eskuratu ziren prezioaren azpitik transmititzea higiezinak. Hala ere, transmisio horiek gertatu gertatzen direla eta ez direla zerga-saihestearen ondorioa izaten adierazten ari da higiezinaren trafikoa. Era berean, higiezinaren katastro-balioa eguneratzeko prozesuak, oraintsu bukatutakoak, agerian jartzen ari dira udalerrri batzuetan lurzoruetako batzuek balio-gehitzerik ez, baizik eta balio-gutxitzea izan dutela urte hauetan.

Pairatu dugun krisi ekonomiko sakonak berekin ekarri du bilketa murriztea -orain lehengorazten ari bada ere-, eta zerga-saihestearen gaineko kezka handiagoa egotea eta iruzurraren aurkako borroka areagotzea.

Zerga administrazioak **beharrezko erregularizazio prozedurak** burutu behar ditu, herritar guztiek eraginkor bete dezaten konstituzioko betebeharrak. Alabaina, batzuetan, ahaztu egiten da hutsegite batzuk zergen araudiaren konplexutasunaren ondorio izaten direla, eta, zenbaitetan, foru ogasunek parte hartu ere egin dutela hutsegite horiek denboran luzatzen.

Zergapekoek, oro har, onartu egiten dute hutsuneak zuzentzea eta egokiak diren likidazio diferentzialak bidaltzea, baina oso kritikoki agertzen dira ordenamenduak balizko erruduntasunik kontuan ez hartzearekin. Hau da, ez da inola ere kontuan hartzen foru ogasunek beraiek autolikidazio horien (normalean PFEZri dagozkionak) prestaketan edo horiek jasotzen zituzten datu okerrak denboran luzatzean eduki duten parte-hartzea.

Horregatik, foru ogasunek arreta areagotu behar dute beren bulegoetan egiten diren edo zergapekoen etxetara autolikidazio-proposamen gisa bidaltzen diren errenta aitormenak prestatzean, eta, gainera, ahaleginak egin behar dituzte aitortpena aurkeztu eta berrikuspen prozesuei ekin artean beharalaketasuna lortze aldera.

Ezin dezakegu albo batera utzi pertsona gehienek, batzuek gehiago eta beste batzuek gutxiago, ez dutela zergen araudia ezagutzen, ezta zergaren likidazio mekanismoak ere.

Oraingo testuinguru ekonomikoan, inoiz baino gehiago, **zorraren ordainketa luzatzeko eta zatitzeko** adostasunak eskaini behar dira, bai betearazpen-bidean bai borondatezkoan, ekonomia apalak dituzten pertsonen bizitza estutasunean jartzen ez dutenak.

Pertsona batzuen zaurgarritasun egoerak oso zail egiten du zorraren ordainketari aurre egin ahal izatea, ez bada bere egoera ekonomikoarekin bateragarria den geroratze berri bat ematen.

Nolanahi ere, gogoan izan behar da egoera zailtan ekonomia txikiak nekez egin diezaioketela aurre ordainketa-egutegi bati, baldin eta horrek bizirik irauteko behar dituzten baliabideen zati garrantzitsu bat erreklamatzeko badie.

Komenigarria litzateke zerga administrazioek kasu bakoitzaren zirkunstantziak neurtzea, kudeaketa publikoan eraginkortasun printzipioa kontuan hartuta. Printzipio hori aplikatzeak zordundutako zenbatekoak itzultzearen alde egiten du, zorduna jasaten ari den gizarte bazterketarako prozesua larriagotzea ekarri gabe.

Zerga administrazioak aintzat hartu beharko luke, orokorrean, herritarrek ez dituztela baliabideak eta trebetasunak izaten, lehen unetik bertatik eta dagokien dokumentazioarekin aurkez ditzaten behar bezala oinarritutako eskabideak eta erreklamazioak.

Enbargoak gauzatzean, zerga-administrazioak Prozedura Zibilaren Legeak (PZL) ezartzen dizkion mugetara egokitu behar bere jarduera. Hala ere, zergapeko zordunak egiazta beharra dauka ea muga horiek bete diren, eta, hala ez bada, tratatze horren kontrako helegitea jarri, bertan azalduz zergatik uste duen PZLren 607. artikulua ezarritako muga ekonomikoak gainditu direla, eta, hortaz, enbargoak ezin enbargatuzko ondasunei eragin diela, horiek duten balio handiagatik.

Prozedura hori konplexua da, eta aholkularitza eta laguntza egokirik izan ezean, oso zaila da gizarte- eta ekonomia-baliabide urriko pertsonak prozedura horri ondo aurre egin ahal izatea.

Ezinbestekoa da aldizkari ofizialetan **ordenantza fiskalak behar bezala argitaratzea** arauak indarrean jar daitezen, hau da, zertarako sortu diren kontuan hartuta, kasuan kasuko ondorio juridikoak izan ditzaten.

Beste kontu batzuei buruz, azpimarratu beharra dago zerga administrazioak bere **jakinarazpenak** egokitu behar dizkielela jakinarazpen horien hartzailerak zehatzek eskatzen dituzten beharrez. Zergapekoa, normalean, ez da teknikari juridikoa

izaten, ez eta zergen araudia eta horren prozedura desberdina ezagutzen eta ulertzen dituen aditua ere. Hortaz, ahalegina egin beharko litzateke zerga administrazioek sarri bidaltzen dituzten jakinarazpen estandarizatuak argiagoak eta ulergarriagoak izan daitezen.

Herritar zergapekoarentzat oso alderdi garrantzitsuak izaten dira ordainketa egiteko modua, ordainketa egiteko daukan epeak, geroratzeak edo zatikatzeak eskatzeko aukerak, errekurtsioa jartzetik erator daitezkeen ondorioak... Garrantzi handiko elementuak dira horiek; askotan, ordea, oharkabean igarotzen dira, bai idazketan erabiltzen den letraren neurri txikiarengatik, bai kontu horiek azaltzeko erabiltzen den terminologia tekniko juridikoarengatik.

Epeak preklusiboak izaten dira tributu gaietan, beraz, behin likidazioaren aurka egiteko emandako epea igaro denean likidazioa errekurritu ez bada, irmoa izango da, eta, hortaz, ezin izango zaio aurre egin errekurtsioaren ohiko bideetan.

Betebehar fiskalei lotutako aitorpenak bitarteko telematikoen bidez aurkeztea orokortzen ari den une batean, nabarmendu behar da zerga-administrazioek **administrazio elektronikoa neutral eta inklusiboa** lehenetsi beharko luketela, hau da, zergapekoari bide telematikoen bidez berarekin harremanetan jartzea erraztuko dion administrazioa, teknologia bereziren bat egitez edo berariaz inposatu gabe, eta, aldi berean, harremanetarako kanal gehigarriak sustatzen dituen, jada badaudenak eta herritar partikularren eskura daudenak baztertu gabe.

Azkenik, berriro ere esan behar da errekurtsioak ebazteko epearen barnean **berariazko erantzun arrazoiturik ez eskaintzeak** administrazioaren funtzionamendu zuzenaren kontrako prozeduraren patologia izaten jarraitzen duela.

II. ATALA

4

GIZARTERATZEA

1. Arloa kopurutan

2016an zehar gizarteratzearen arloan 790 kexa-espeditente izapidetu dira, alegia, erakunde honetan izapidetutako kexen gutzitzaoren %36,59.

Erreklamazio gehienak diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzerako abenduaren 23ko 18/2008 Legearen ziozko prestazio ekonomikoari lotuta daude, batez ere, diru-sarrerak bermatzeko errentari eta etxebizitzarako prestazio osagarriari. Horrez gain, udalek kudeatzen dituzten gizarte behar larrietarako laguntzak eskatzeari lotutakoak ere jaso dira, gutxiago izan badira ere.








Eragindako herri-administrazioa, batez ere, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Saila da. Tarteko administrazioaren arabera banaketa honako hau da:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) 710
- Tokiko administrazioa 23
- Foru administrazioa 8

Bertan jorratutako azpiarloen arabera, honela sailka daitezke:

- Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko eta gizarteratzeko legean jasotako prestazio ekonomikoak (diru-sarrerak bermatzeko errenta, etxebizitzarako prestazio osagarria eta gizarte behar larrietarako laguntzak) 759
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura 12
- Gizarte bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako prestazioak eta zerbitzuak 11
- Herritarren eskubideak 8

2016an izapidetutako kexen egoerari dagokionez, txosten hau ixterakoan, egoera hau da:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
1.173	556	617	201	215	32	169

2012an kexa-espeditenteak nabarmen ugartu ostean, 2013an eta 2014an gutxiti egin ziren, %12,6 eta %31 hurrenez hurren, batez ere, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarrien eskaerak izapidezterakoan jazotako atzerapenak kexa izateari utzi ziolako.

2015ean arloko kexa-espeditente kopuruak goraka egin zuen, 604tik 755era pasaz. Horietako gehienak Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legetik sortutako prestazio ekonomikoetan eragina zuten, 2014an 576 ziren eta 2015ean 739 izan ziren. Horietatik 536 2014an eta 612 2015ean Enplegu eta Gizarte Politiken Sailera zuzendu ziren, eta horrek %22,05ko igoera ekarri zuen. Gorakada hau hasiera batean bidegabe jasotako prestazioen erreklamazioengatik azaldu zen, Lanbidek espeditente asko birpasatu zituelako eta prestazioak erreklamatzeko prozedurak abiarazi zituelako, gero jarraitutako prozedura zalantzan jartzen zuten kexak aurkeztea ekarri zuena, baita zorraren jatorria ere.

2016an Lanbidek kudeatzen dituen prestazio ekonomikoetan eragina duten kexen gorakadak jarraitu du, 710 arte. Kexa hauek izapidetze eta funtzionamenduari lotuta daude, hala nola, emateko edo berrabiarazteko eskarien ebazpenen atzerapenari edo diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatze, etete, iraungitze eta ez berritze dagozkionak, baita Lanbidek oker ordainduta-ko prestazioen erreklamazioari lotuta ere. Pasa den urtean, Ararteko erakundeak Lanbideri bere jarduna aztertze eta gomendioak helarazteko ebazpen kopuru garrantzitsua bidali dio. Elementu garrantzitsu gisa azpimarratu beharra dago Lanbidek Arartekoaren informazio eskariei erantzuna emateko atzerapena duela, eta hori berrikusi beharko litzateke.

Lanbideren kudeaketaren hasiera bateko zailtasunak garrantzitsuak izan ziren, horregatik eta Enplegu eta Gizarte Politiken Sailarekin kolaboratzeko asmoz, Arartekoak 2013an **txosten-diagnostikoa** bat egin zuen. Bertan, Lanbideren jardun zehatz batzuk aztertu ziren, kexak izapidetzeagatik edo erakundeak abiarazitako ofiziozko jardunen emaitza izateagatik Arartekoaren esku-hartzearen helburu izan zirenak. Txosten-diagnostikoa 41 gomendiorekin amaitu zen. 2016an **txosten-diagnostiko** berri bat egin da. Bertan, egitura berdina mantentzeko saiakera egin da, Lanbideren kudeaketaren aurrerapenak baloratu ahal izateko. Gainera, azken urteetan Arartekoak alor honetan egindako jardunen gaineko beste atal batzuk gehitu dira, kexak izapidetzean Lanbideri bidalitako Arartekoaren iritzia azpimarratzen dutenak. Urteko txosten hau ixterakoan oraindik ez zaio ikerketa hori entregatu Lanbideri. Txosten-diagnostiko hori erakundearen web orrian argitaratuko da.

2015 urteari dagokion Arartekoaren txostenean, Enplegu eta Gizarte Politika Sailak kudeaketaren alderdi garrantzitsuak garatzeko asmoa duela helarazi digula adierazi zen, adibidez, prestazio ekonomikoaren erregulazioa hobetzea, baita lanbide formazioari, lan merkatuko bitartekotzari eta, azken batean, laneko inklusioa sustatzeari eragiten dioten eta dagozkion funtzioetan sakontzeko asmoa ere. 2016an organismoak go-goeta prozesu bat egin du, iragarri duenez hurrengo urtean garatuko diren aldaketak abiaraztea aurreikusten duena.

Azpiratu beharreko datu gisa, aurten eskarien ebazpenen **atzerapena** oinarri duten kexa kopurua handitu da, aurreko urteetan aurrerapen nabarmena izan duen zailtasuna. Atzerapen hori Lanpostuen Zerrenda onartu eta ezartzearen ondorio bat bezala azaldu du Lanbidek.

Jaso diren kexen artean, errolda edo egoitza eraginkorrean aurretiko epe jarraituan izena emanda egotea egiaztatzeari lotutako irizpideak ez betetzeagatik eskariak **ukatzeari** dagozkionak, ondasun eta errekurso ekonomikoak egiaztatzeko eta horiek identifikatzeko errekeritutako dokumentua aurkezteko ezintasuna, aurkeztu den dokumentazioan irregulartasunen bat onartzea, edo ondare mugak gainditzen direlako edo enplegu bat ukatzeari dagozkionak aipatuko ditugu. Kexa hauei Bizikidetzaren Unitatea osatzen duten kideak ez egiaztatzeagatik edo horien gaineko zalantzak egoteagatik sortutakoak gehitu behar zaizkio. Arduratzeko elementu gisa azpiratu beharra dago ukapen ebazpen batzuetan adierazi dela ezin dela urte beteko epean eskari berririk aurkeztu, eta jardun horrek ez du beharrezkoa den araudiaren estaldura.

Eskubidea aldi baterako **etetearekin** lotuta dauden kexa kopuru nabarmena ere izapidetu da. Gehien errepikatu diren arrazoien artean dago Euskadiko Autonomia Erkidegotik atzeratzea ez jakinaraztea, diru-sarrerak bermatzeko araudian berriaz adierazten ez den betebeharra den arren, epea eta Arartekoaren ebazpen ezberdinetan askotan adierazi den bezala.

Beste kexa sorta baten oinarria da adostutako prestazioen **iraungitzea**, izaera ekonomikoa duten eskubideak balioztatzeke betebeharra ez betetzean oinarritutakoa. Arartekoaren ustez, batzuetan araudi aurreikuspenen **gehiegizko** interpretazioa egiten ari da. Adibidez, Lanbidek prestazioaren iraungitzea adostu du mantenu-pentsioak ez ordaintzean gauzatzeko eskatu ez denean, dibortzio epaiketa prozesua amaitu gabe dagoenean, babes ofizialeko etxebizitza bat ukatu denean edo EEZPren prestazio bat iraungi denean, besteren artean. Arartekoaren iritziz, kasu askotan eskubide ekonomikoa ez balioztatzeke ezintasuna justifikatzen zuten arrazoiak zeuden, eta betebeharra betetzeko borondatea egiaztatu zen. Beraz, kaltetutako pertsonen betebeharra betetzera zuzenduta egindako jardunak ez dira egoki neurtu. Beste kasu batzuetan izaera ekonomikoa duen eskubide bat balioztatzeke betebeharrak suposatzen duen edukia gainera ezjakintasuna dago, adibidez, babes ofizialeko etxebizitza bat ukatzearen kasuetan.

Kexaren oinarria ere izan da prestazioak **berritzea** ukatzea eteteko arrazoi bat hauteman ondoren. Arazo nagusia eteteko arrazoi bertan behera geratu den kasuetan eman da, Lanbidek ez duelako data horretatik aurrera prestazioa berrabiarazi edo ez duelako prestazioa berriro ere eskatzeko eskubidea jakinarazi.

Era berean, aipatu beharra dugu bidegabe ordaindutako prestazioen **errekamazioa**, batzuetan berrikuspen prozedura bat oinarri izan duena. Horrela, asko dira eskatutako dokumentazioa aurkeztu eta prestazioa onartu ondoren hura ofizioz berrikusten hasi diren espedienteak, prestazioak erreklamatzeko prozedura bat abiarazi dezakeena, irizpideen betetzearen balorazio ez-egokia egin zelako.

Arartekoak egiaztatu du askotan, izapidetu bitartean, ez dela erreklamazioaren oinarri diren kontzeptu eta epeen gaineko **informazio** zehatza ematen, eta hori oinarritzeko bermea dela uste dugu. Gainera, beste batzuetan, preskripzioaren institutu juridikoa ezar daitekeen data batean erreklamatzeko diru ordaindutako prestazioak.

Arartekoaren ustez Lanbideren irizpideen arabera bidegabe ordaindutako kopuruak erreklamatzeko kontzeptu eta arrazoien gaineko **gogoeta** beharrezkoa da. Horretarako, betebeharrak ez betetzearen eta irizpideen galeraren edo bizikidetzaren unitatean diru-sarrera berriak daudelako kopurua aldatu behar den kasuak ezberdindu beharko liriteke. Betebeharrak ez betetzearen, irizpideen galeraren eta arau-hausteen artean ezberdintzeko garrantziak, eta jarreraren balore ezari proportzionatutako erantzuna emateko beharra dira, Arartekoaren ustez Lanbidek sistema hobetzeko proposamenen artean hobetu beharreko erronketako batzuk.

Epigrafe honi amaiera emateko, gogorarazi behar dugu Lanbidek funtzio konplexua eta gizartean eragin handia duena egiten duela. Izan ere, behar egoerei aurre egiteko jaiotako prestazio ekonomikoaren eskubidea aitortzeaz gain lan aktibiziorako ekintzak sustatzen ditu. Espedienteak izapidetzean prestazioen onuradunek errespetatu behar dituzten irizpide eta betebeharrak betetzen direla zehatz-mehatz berrikusten da, batzuetan ezarri beharreko araudiaren gehiegizko interpretazioa eginez, Arartekoaren ebazpenetan adierazi den bezala. Berrikuspenak prestazioak ematean edo berrabiaraztean atzerapenak sortzen ditu. Zentzu honetan, funtzionamendua hobetzeko eta kudeaketa eraginkorra egiteko aukera ematen duten errekursoak emateko egindako esfortzuez gain, oraindik ere prestazioen izapidetzea atzeratzen da, batez ere berrikuspen edo berrabiarazte fasean, baita prestazioen kopurua aldatzean eta lortzen diren diru-sarreen gaineko informazioari egokitzean ere.

Administrazio errekursoak ebazteko epeak, orokorrean, hobetu diren arren, errekurtsua onartu den kasuetan horrek ez du berehalako ondorioz, batzuetan eskaria egin eta 16 hilabete arte luzatu daitekeen prestazioaren aitortzea emateko berrikuspen prozesu bat abiarazten da. Arartekoak **2014ko uztailaren 17ko ebazpena** egin zuen, zeinetan Lanbideri gomendatu genion aukerako berraztertzeke errekurtsu baten ebazpena aldekoa zenean Lanbidek bertako nahie errekurtsuaren ebazpenean bertan erantzuteko, orokorrean berrikuspen espediente berri bat abiarazi gabe irizpide guztiak bete direla egiaztatzeke asmoz. Lanbidek ebazpen hau onartu zuen baina praktikan ez dugu betetzen ari dela ikusi.

Kexa-espediente askorengan eragina duen eta erakunde honengan kezka sortzen duen egoera garrantzitsu bat da adingabeak egotea eta diru-sarrerarik ez izateak duen inpaktuari dagokiena. Horretarako, Arartekoak **apirilaren 8ko 2/2015 Gomendio Orokorra** egin zuen, *politika publikoetan eta, bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman adingabearen interes gorena derrigorrez kontuan hartzeari buruzkoa*. Gomendio horren edukia adingabeak barnean dauden Arartekoaren esku-hartze guztietan gogorarazten da.

Oraindik bete ez den Lanbidek hartutako beste konpromiso bat da irizpideen dokumentua positibatzeko egokitasunari dagokiona, irizpide horiek ezartzeko eta publikitatea emateko helburuz, edozein interesdunarentzat eskuragarria egoteko moduan. Bere garaian, Arartekoak Lanbideri helarazi zizkion horren erabilerak sortzen ari zituen arazoak, eta pertsonak norbanako gisa, udal gizarte zerbitzuek eta hirugarren sektoreko gizarte erakundeek helarazitako ardurari arreta emateko beharra, irizpideen dokumentua ez argitaratzeko ekartzen zuen gardentasun falta, baita moduren batean dokumentuaren edukia helarazteko aukera ere. Horri 18/2008 Legearen araudi garapena egiteko beharra lotu zitzaion, 4/2011 Legeak sartutako aldaketan ostean (2/2010 eta 147/2010 Dekretuen eguneratzea), eta irizpideen dokumentua konfiguratzeko aukera, adibidez, Enplegu eta Gizarte Politiken Sailaren Sailburuaren Agindu baten bidez.

Lanbidek positiboki erantzun zituen erakunde honek helarazitako gomendio era proposamenak, baina denbora igaro den arren oraindik ez dira argitaratu.

Era berean, ez dugu prestazioaren etetea eta iraungitzea ekiditen duen **zigor prozedura** bat ezartzearekin lotutako jardunak abiaraztearen berri, eta hura urtebetez berriz eskatzeko ezintasuna ez betetze baten aurreko erantzun bakarrazitea.

Azkenik, ijitoi eta beste kultura gutxituei eta immigranteei eta aniztasun kulturalari dagozkion txosten honetako ataletan, eremu horretan ere eragina duten jardunak jasotzen dira, baina elementu zehatz bat sartzerakoan atal horietan garatu behar dira.

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Eskararak artxibatzea, herritarrentzako arreta

Alderdi batek eskatutako eskarien izapidetzerako ezarritako prozedurak eskariarekin batera dokumentazioa ere aurkezte aurrekusten du, eta, hala badagokio, administrazioak eskaria ebazteko nahitaezkoa den dokumentazioaren errekerimendua. Lanbidek bi hilabeteko epean ebatzi behar du eskaria.

Aztertutako kexan, Lanbidek dokumentazioa aurkezteko eskaria egin zuen epea igaro ostean. Arartekoaren ustez errekeritutako dokumentua ez da ezinbestekoa, eta ez ditu Lanbidek eskaria ebazteko dagoeneko ez dituen datu berririk; gainera, dokumentua bi hilabeteko epearen ostean egin zen. Beraz, epe hori igaro zenez Lanbidek berriazko ebazpenik eman gabe, diru-sarrerak bermatzeko errenta onartua egon beharko zen ([Arartekoaren 2016ko maiatzaren 26ko ebazpena](#).) Kexagileak aurrerako eskari berri bat aurkeztu zuen, onartu zitzaiona.

2.2. Prestazioak ukatzea

2.2.1. Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzea ebatzi zuen ulertu zuelako eskatzaileak ez zuela eskaria aurkeztu eta urtebete lehenago bizikidetzaren unitate bat osatzen. Uste zuen kexagilearen anaia etxe berean erroldatzeak eta berarekin hilabete batzuk bizitzeak 2013. urtean oinarritzko bizikidetzaren unitatearen egitura eteten zuela. Arartekoaren ustez kexagileak berezko bizikidetzaren unitate bat osatu zuen, independentea eta pertsona bakarrekoa, familiaren etxea utzi zuen momentutik, eta ondoren bere anaia hilabete batez erroldatzeak ez duela oinarritzko bizikidetzaren unitatearen egitura eteten ([Arartekoaren 2016ko martxoaren 14ko ebazpena](#)).

2.2.2. Lanbidek eskari bat ukatu zuen uste zuelako eskatzaileak ez zuela alokairu harremana egiaztatzen zuen dokumentazioa aurkeztu, behin betikoa ez zen kontratuaren ale bat aurkeztu zuelako. Dena den, aurkeztutako gainontzeko dokumentaziotik ondorioztatzen zen alokairu harremana existitzen zela. Arartekoak prestazioa lortzeko ezarritako aurreikuspen legalak gogorarazi zituen ([Arartekoaren 2016ko otsailaren 17ko ebazpena](#)).

2.2.3. Beste kexa-espeditente batean, prestazioa ukatzeko arrazoia zen subrogatutako pertsonak ez zituela alokairu kontratuaren datuak eguneratu, alokairu harreman bat zegoela ondorioztatzen bazen ere eta ezar daitekeen araudian aurreikusitako gainontzeko irizpideak betetzen bazituen ere. Hori dela eta, Arartekoak berrikusteko gomendioa egin zuen ([Arartekoaren 2016ko ekainaren 14ko ebazpena](#)).

2.2.4. Beste espeditente bat ere aipatu beharra dugu. Honetan, Lanbidek ukatu zuen alokairu harremana egiaztatzeko aurkeztutako dokumentazioa egokia ez zela baloratu zuelako, egiaztatze zehatza egin gabe edo zigor salaketarik gabe. Espeditente honetan, gainera, eskariaren ukapenari prestazioaren iraungitzea efektuen eskaria egotzi zitzaion, urte beteko epean eskari berri bat aurkezteko ezintasunarekin gainera. Arartekoaren ustez, hasiera batean adierazi zuen etxebizitzan bizileku eraginkorra zuela egiaztatzeko beste jarduera batzuk abiarazi beharko zituzkeen Lanbidek, sortutako zalantzak argitzeko xedez. Edonola ere, espeditentearen instrukzio-fasean beste dokumentazio bat aurkeztu izanak balorazio berria eskatzen zuen, bai eta entzuteko beste irizpide bat ahalbidetzea ere ([Arartekoaren 2016ko abenduaren 16ko ebazpena](#)).

2.2.5. Beste batean, Lanbidek prestazioa ukatu zuen ulertu zuelako pertsonak Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntza jasotzen zuela, Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen zuena. Dena den, kexagileak laguntzak amaitu zirela egiaztatzen zuen dokumentazioa aurkeztu zuen. Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntza diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko irizpideak betetzen direnean amaitzen da. Lanbidek 5 hilabete eman zuen espeditentea ebazteko, laguntzak ukatzeko arrazoia jakinarazi gabe hura ebatzi arte ([Arartekoaren 2016ko urriaren 28ko ebazpena](#)).

2.2.6. Aurkeztutako beste erreklamazio batean, Lanbidek eskaria ukatu zuen eskatzailea ohiko etxebizitzaz gain beste

ondasun higiezin baten jabea zelako, eta beste baten jabekide. Dena den, bi higiezin horiek bi lursail ziren, eta usufuktu batez kargatuta zeuden. Beraz, ezin zituen eskuratu eta ez zuten inolako ondare errendimendurik sortzen. Arartekoak bere [2016ko urriaren 13ko ebazpenean](#) Lanbideri gomen-datu zion prestazioaren ukapena berrikusteko. Izan ere, ondasun higiezinak usufuktuaren karga zuten bitartean lortu ezin zituenez, ez zizkiotela bere behar egoerari aurre egiteko errekurtsio ekonomikorik sortzen.

2.3. Prestazioak etetea

2.3.1. Lanbidek ulertu zuen, Arartekoak aztertutako beste egoera batean, berralokatzeko kontratu ezberdinetatik etxebizitza batetik lortzen den errenta ezin dela ezberdina izan justifikatzen duten arrazoi objektiboak ez badaude. Lanbide berralokatzeko batetik errendimendu handiagoa lortzeko existentzia lege oinarriarik ez duen betebeharrak berri baten sorrera “ex novo” suposatuko luke. Izan ere, horrek, berez, etxebizitza baten titulartasuna duenak, jabetzan edo alokairuan, diru-sarrerak bermatzeko errenta baten onuraduna izanik, irabazi bat lortzeko, ahalik eta irabazirik handiena, gela bat berralokatzera derrigortuta egongo litzatekeela suposatuko luke. Gainera, Arartekoak alokairu kontratuetatik sortutako diru-sarreraren zenbaketen gaineko gogoeta egin du. Izan ere, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 21.1 artikulua ez zenbagarritzat ditu diru-sarrera hauek ([Arartekoaren 2016ko ekainaren 27ko ebazpena](#)).

2.3.2. Beste espediente batean, kexagilea espetxetik atera zen, Espetxeetako Erregelamendua onestekoa den otsailaren 9ko [190/1996 Errege Dekretuaren](#) 182. artikularekin bat, eta kexa aurkeztea erabaki zuenean, gizarteratu eta laneratzeko prozesuan parte hartzen ari zen Gizakia Fundazioan. Lanbidek etete egoera mantentzea erabaki zuen uste zuelako *“tratamendu fasean espetxeko hirugarren graduaren dauden pertsonak ez dute diru-sarrerak bermatzeko errenta kobratzeko eskubiderik, Espetxeetako Erregelamendua 182. art.”*

Arartekoak Lanbideri helarazi dio ez dagoela hirugarren graduaren dauden beste pertsonetako oinarriko ezberdintasunak justifikatzeko arrazoirik, osasun alorrekoa salbu. Baliteke Lanbidek egindako interpretazioak berdintasun printzipioa haustea, ez baitago arrazoirik DSBerako eskubidea tratamenduan psikiatrikoan edo toxikomania gainditzeko tratamenduan dauden pertsonen ukatzeko, baldin eta tratamendu horiek zentro soziosanitario batean sartzea ekartzen badute ondorioz; baina bai ukatzen zaie prestaziorako eskubidea tratamenduan Espetxeetako Erregelamendua onesteko dekretuaren 182. artikulua aginduta daudenei, kontuan hartu behar den gizarte-egoera kasu batean zein bestean berdina izanik.

2.3.3. Diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioa eten eta iraungi zuen espediente bat ere aipatu da, kexagileak ez zuelako judizialki formalizatu hitzarmen arautzailea eta bikote-harremana eten izana ere ez zuen jakinarazi Egitatezko Bikoteen Erregistroan. Dena den, hasieratik bere bikote ohiarekin sinatutako akordioa aurkeztu zuen, eta horren ara-

bera bere bi seme-alabengatik mantenu-pentsioa ordaintzeko konpromisoa hartu zuen. Hitzarmen erregulatzailea ez gauzatzea jasan zuen indarkeriagatik izan zen, baina txosten sozial baten bidez bere banaketaren errealtatea egiaztatu zuen, eta ez zuela Izatezko Bikoteen Erregistroan jakinarazi ez zekielako.

Arartekoak ulertu zuen aurreko ez betetze “formalak” ezin zirela irizpideak ez betetze bat bezala baloratu, kexagileak 2009tik osatzen zuelako bizikidetzaren unitate bat bere bi seme-alabekin batera. Prestazioak etetea eta iraungitzea, 18.389,02 € itzultzeko betebeharrarekin batera, desproporzionatua dela, honako hau kontuan hartuz, batez ere: 2015era arte, Lanbidek ez zuela espediente berrikusi, nahiz eta erabaki pribatua agertzen zen diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa aitortzeko eta berritzeko erantsitako dokumentazioaren artean. Lanbidek aurrez eskatu izan balio hitzarmen arautzailea edo Egitatezko Bikoteen Erregistroan baja formalizatzea hautemandako akatsak konpondu ahal izango zituen ([Arartekoaren 2016ko abuztuaren 3ko ebazpena](#)).

2.4. Prestazioak iraungitzea

2.4.1. Honakoan, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria prestazioak iraungitzea adostu zuen, lan-eskaintza bateko hautaketa prozesuan parte hartzera ukatu zelako. Bizikidetzako unitatea berak, bere bikoteak eta bien alabak osatzen dute. Kexagileak Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako familia esku-hartze programa batean parte hartzen zuen, Trebatu programa, eta kexa izapidetzen ari zen bitartean familia esku-hartzeak jarraitzen zuen. Arartekoaren ustez, kontuan hartu behar zen familia hori familia sozio-hezkuntzako esku-hartze programa batean parte hartzen ari zela. Familia esku-hartze programatik eta Lanbidetik lantzen ari ziren helburuen koordinazio falta agerian jarri zen. Arartekoaren ustez, lan-eskaintza baten hautaketa prozesuan parte-hartzea ukatzeko justifikatutako arrazoirik zegoen baloratu behar zen, kontuan izanda sinatutako Gizarteratze Aktiborako Hitzarmenak ez zituela aipatzen parte hartzen ari zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoa den esku-hartze sozio-familiarraren programaren ondorioz adostu ziren jarduera eta konpromisoak. Arrazoizkoa zen espero izatea Lanbidek beste eragileek egindako gizarte esku-hartzeak eta diagnostikoa aintzat hartzea, lan eta gizarte inklusio prozesua errazteko esku hartu zutenak ([2016ko maiatzaren 24ko Arartekoaren ebazpena](#)).

2.4.2. Beste espediente batean kexagilea, dibortziatua zegoena, adierazi zuen bere adingabeko bi seme-alaben zaintza eskusiboki zuela. Horietako batek ezgaitasun gradu bat zuen eta segurtasun zaindari bezala lan egiteko eskaintza egin zioten, aste bakoitzean txanda ezberdinekin. Bere adingabeko seme-alaben beharrak kontuan izanda, bereziki ezgaitasuna duenarena, lan-baldintza horiek sortzen zizkioten zailtasunak adierazi zituen, eta familia bizitza bateratzeko ezintasuna dela eta lan-eskaintza ukatu behar izan zuen. Hori dela eta, Lanbidek prestazioa iraungitzea adostu zuen. Arartekoaren ustez lan ordutegia eta egoera pertsonalak, kontuan izanda adingabearen interes gorena, lana ukatzea justifikatzen zuten, enplegua ukatzeko justifikatutako arrazoiari lotutako aurreikuspena

betetzen zela ulertzen zuelako, 18/2008 Legearen 28.1.i) artikulua ezarri, 4/2011 Legearen aldaketak emandako idazketan (2016ko abenduaren 2ko Arartekoaren ebazpena).

2.4.3. Beste kasu batean, Lanbidek hasiera batean prestazioa etetea adostu zuen eta gero, prestazioaren kopurua murriztea, eskatzaileak herentzia bat jaso zuelako, zeinaren bidez ondasun higiezin baten jabetza soila lortu zuen %8,21eko baloreagatik. Arartekoaren ustez, eta amaren aldeko biziarteko gozamenak irauten duen bitartean edo etxebizitza saltzen zein alokatzen ez bada, ezin da esan interesdunak herentzian jasotako etxebizitza eskuratu dezakeenik eta, ondorioz, ezin da esan gaitasun ekonomikoa diru-sarrerak bermatzeko errenta gabe biziraun ahal izateko beste handitu zaionik. 147/2010 Dekretuaren 20. artikuluan ezarritako aurreikuspena interpretatu daiteke kontuan izanda ez-ohiko diru-sarrerak zenbatzeko diru-sarrerak edo diru bihur daitezkeenak izan behar direla. Modu horretan, ondasun higigarriak edo higiezinak emate, legatu edo herentzian bidez lortzeko kasuetan, eta onuradunak ekonomikoki egitea galarazten duen eskubide erreal bat denean, titularraren diru-sarrera bezala zenbatzea atzeratu beharko litzateke “errekurtsuak sortzeko” ahalmena dutenera arte (Arartekoaren 2016ko urriaren 5eko ebazpena).

Iritzi hau beste kasu batzuetan ere helarazi dugu, hala nola, herentzia bidez ondasun higiezin baten zati proportzional bat jaso denean, eta zati horrek diru-sarrerak bermatzeko errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.3 artikuluan aurreikusitako mugak gainditzen ez dituenean. Arartekoak Lanbideri gomendatu dio kasu hauetan ez alderatzeko diru sarrera bati duen katastro baloreagatik, baizik eta ez-ohiko diru-sarrera bezala zenbatzeko saltzeko itxoiteko.

2.4.4. 147/2010 Dekretuaren 20. artikuluekin lotuta, maileguen zenbaketa 3.f) atalean oinarritutako ez-ohiko diru-sarrera bezala hartzeari lotutako iritzi ezberdina du. Arartekoaren ustez, Lanbide gehiegizko interpretazioa egiten ari da maileguaren kontratuaren berezko izaera kontuan hartu gabe, ez dena herentzia, legatu emate, pentsio, kalte-ordain edo ondarearen salmentak sortutako errekurtsuoen berdina, aipatutako 20. artikuluan berriaz adierazitako ez-ohiko diru-sarrerak, (Arartekoaren 2016ko azaroaren 30eko ebazpena).

2.4.5. Beste espediente batean, Lanbiden diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioa iraungi zuen onuradunari berritze eskaera ukatu ostean, uste zuelako betebeharraren baten ez betetzea eman zela Euskaditik kanpo egindako irteera labor batzuegatik. Arartekoak bi arrazoiengatik gomendatu zuen iraungitzea berrikustea: betebeharraren bat ez betetzea berez ezin dela iraungitzeko arrazoiak izan ez berritzeagatik, eta araudiak ez duelako aurreikusten Euskaditik kanpo egindako irteerak jakinarazteko betebeharra (2016ko maiatzaren 2ko Arartekoaren ebazpena).

2.4.6. Lanbidek kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungi zuen, beste kasu batean, lan batean borondatezko baja emateagatik. Lan-bizitzaren txostena ikusi ondoren, egiaztatu zen kexagileak, ostalaritza sektoreko langilea denak, asteburuetarako kontratu asko sinatu zituela. Horietako bat amaitzean borondatezko baja ageri bazen

ere, kexagileak enpresa berdinarekin hurrengo astebururako kontratu berri bat sinatu zuen (Arartekoaren 2016ko martxoaren 11ko ebazpena).

2.4.7. Lanbidek ere diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungi zion pertsona bati lan-hautaketa prozesuetan ez parte hartzeagatik, prozesu horietan parte-hartzeko ukapena lan bat ukatzearekin lotuz. Espedientean ez zen existitzen langileak hautatzeko prozesu batean parte-hartzeko eskaintzaren jakinarazpena, prozesuaren deialdia egin zuen erakunde kolaboratzaileak egin zuelako kudeaketa telefono bidez. Jakinarazteko modu honek ez ditu, Arartekoaren ustez, zuzenbidean baliaigarria izateko eskatutako baldintzak betetzen. Horrek, egindako proposamenaren eduki zehatza zein den ezagutzeari galarazten du, proposamena zein terminoetan ukatu zen edo kaltetutako pertsonari ukatzearen ondorioen berri eman zitzaion. Arartekoaren iritziz, jarduteko modu honek babesgabetasun egoerak sortzen ditu (Arartekoaren 2016ko abuztuaren 23ko ebazpena).

2.5. Beste kexa batzuk

Arartekoak Gizarte Larrialdiko Laguntzen ukapenean eragina duten kexak jaso ditu, gizarte zerbitzu batzuen arreta ez egokiari, zerbitzuak ukatzeari eta gizarte bazterketa egoera larrian dauden pertsonen zuzendutako egoitza zentroetatik kaleratzea.

Kasu batean, Bilboko Udalak Gizarte Larrialdiko Laguntza ukatu zuen Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria prestazioak iraungi zituelako berrastea ez eskatzeagatik, berari egotzi ahal zitzaion jarrera zela ulertuz. Arartekoaren ustez, udalaren oinarria araudian aurreikusitako irizpideak betetzea izan beharko litzateke, eta beste Administrazio baten ebazpena (2017ko urtarrilaren 12ko Arartekoaren ebazpena).

Beste kexa batek gizarte bazterketa egoera larrian zegoen pertsona bat kaltetzen zuen. Horren gizarte bazterketa egoeraren balorazioa Uribe Kostako gizarte zerbitzuen mankomunitateak Bizkaiko Foru Aldundira eta Bilboko Udalaren gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen arreta emateko zerbitzuetara bideratu zuten. Beste kexa batzuetan bezala, argi geratu da gaueko harrera egiteko zerbitzuaren 1.8 fitxa garatzeko beharra, udalen eskumenekoa dena, Euskal gizarte zerbitzuen sistemaren prestazio eta zerbitzuen sailleko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak aurreikusten duen moduan, 2016-2019 gizarte zerbitzuen plan estrategikoaren aurreikuspenen arreta eman ahal izateko. Gomendatzen diren mugapen geografikoak derrigorrezko izaera ez duten arren, planean tamaina zabaleko eta populazio bolumen handiko eremuak sortzeko helburua azpimarratu da, bertan hiriburuetan soilik ematen diren zerbitzuak kokatu ahal izateko (Lurralde Historikoko biztanleei irekita badaude ere), eta deszentralizatzeko eta osasun sistemaren lehen mailako arreta eskualdeen konfigurazioa errespetatzeko egokitasuna.

Azkenik, errepikatu den jarrera disruptiboa dela eta gizarte bazterketa egoeran dauden egoitza zentro batetik kaleratzea oinarri duen espediente bat aipatu beharra dugu. Arartekoak

kasu hauetan bete beharreko betebeharren aurretiko informazioari eta horrek dituen ondorioei dagozkion bermeak errespetatu diren jakin nahi du, aurretiko audientzia eman den eta jakinarazpenaren edukia, hau da, edozein zigor prozeduraren oinarritzko bermeak.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Azpitarratu beharreko berritasun batzuk gertatu dira 2016. urtean ondoren zerrendatuko direnak:

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak murriztu dira 2016an. 2015ean 66.000 baino gehiago izan ez badira ere, aurreko kopurua pixkanaka jaitsi da, eta abenduan 63.797 onuradunera heldu da.

Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko [maiatzaren 12ko 6/2016 Legea](#) onartu da, sektore publikoaren eta gizarte ekimenaren aurrerapen faktoretzat jotzen dena.

Era berean, 2016ko uztailearen 26an EAEko egoitza bazterketa larriko egoeren ikerketarako, jarraipen eta analisirako instituzioen arteko kolaborazio protokoloa sinatu zen, ikerketa eta analisirako ekimen mota hauei marko egonkor bat emateko asmoz. Euskadin Etxerik ez duten Pertsonen Arreta Emateko Institutuzioen arteko Estrategia bat egiteko prozesuaren barruan dago, eta horietako baten ekintza plana ikerketa, sentsibilizazio, formazio eta jakintzaren kudeaketa jarduerak sustatzeari lotzen zaio.

Protokolo hori ezartzeko, 2016. urte amaieran EAEn egoitza bazterketa egoera larriari dauden pertsonen zenbaketa egin da. Gutxi gorabehera, amaierako datuen zain, kalean lo egiten duten hirurehun pertsona baino gehiago eta etxerik ez duten 2.000 pertsona baino gehiago daudela baloratzen da.

Txosten hau aurkezteko egunean, 2017an, urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretua onartu da, gizarte larrialdiko laguntzen dekretua aldatu duena.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

4.1. Ofiziozko jarduerak

4.1.1. Oker jasotako prestazioen erreklamazioa

Arartekoak 2016an amaitu zuen Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarri gisa bidegabe jasotako prestazioak erreklamatzeko jarraitzen ari zen prozedura xehetasunez aztertu zuen jardun

bat ([Arartekoaren 2015eko abenduaren 22ko ebazpena](#)). Ebazpen horretan Lanbideri helarazi zitzaion prestazioen erreklamazioa soilik adostu daitekeela, erakunde honen arabera, irizpideen galeraren kasuan edo aitortutako kopurua kalkulatzeko kontuan hartu ziren egoeren aldaketa bat dagoen kasuan. Gainera, adierazi zen aldi batez etenenez prestaziorako eskubidea edo prestazioa iraungi eginenez eta eragindakoak ezin duenez urtebeteko epean berriro eskatu, araudiak betebeharra ez betetzeagatik "ondorio negatiboa" aurreikusitu du jada.

Lanbidek, erakunde honi bidalitako erantzunean, jakinarazi du ez duela ordaintzeko prozeduren aurretik jakinarazpen gehiagorik bidaliko. Hala ere, modu desegokian jasotako zenbatekoen jakinarazpena bidaltzen jarraituko da, berrikuspene-espeditatea amaitzeko ebazpenarekin batera. Hori ere egingo da aldatzeko, eteteko edo iraungitzeko prozeduren ebazpenean.

Modalitate horrek ez du jasoko borondatezko ordainketak egiteko aukera. Bertan, adieraziko da geroago ordaintzeko prozedura bat hasiko dela eta Lanbide interesdunarekin jarriko dela harremanetan.

Horrez gain, Lanbidek adierazi du aipatutako jakinarazpenarekin batera taula bat erantsiko dela; taula horretan, prestazio desegokiak nola eta zein epean sortu diren azalduko da.

Bestalde, bidegabe jasotako prestazioen arrazoiei dagokien erantzunean, adierazi da irizpideak ez betetzeko kasuetan eta egoerak aldatzean sortzen direla, baina batzuetan aldi berean ematen dira aurreko kasuak eta betebeharrak ez betetzea, bidegabe jasotakoak sortuz, baina ez arau-hausteenatik baizik eta irizpideak ez betetzeagatik.

Adierazi beharra dago Lanbidek, noizean behin, herritarrari oker erreklamatu diola, arau-hausteagatik, baina akatsa dela ikusi ondoren konpondu duela.

Azkenik, jakinarazi da jasotzaileentzat betebeharrak ez betetzeak dituen ondorioak berrikusteari dagokionean, Lanbidek ez betetze horiek zigor-prozeduretan ezartzea aztertzen ari dela, baina bitartean, betebeharrak eta irizpideak ez betetzearen kasuetan [147/2010 Dekretuak](#) ezarritako erregulazioa ezartzen dute.

Bidalitako erantzunaz gain, erreklamatu diren arrazoen, kontzeptu eta epeen informazio zehatza ez duten kezak jasotzen jarraitzen ditugu. Beraz, kexen izapidetzean Arartekoaren 2015eko abenduaren 22ko Ebazpenean helarazitako iritzia errepikatu da.

4.1.2. Berriz ere jo dute erakunde honetara pertsona eta elkarte asko **ezgaitasun egoeran dauden pertsonen kolektiboa** babesteko eskatuz eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren osagarria jasotzeko pentsiodun bezala hartzeko eskatuz. Arazo hau [Arartekoaren 2015eko uztailearen 21eko ebazpenean](#) aztertu zen.

Lanbidek erakunde honi emandako erantzunean adierazi du ez diela Arartekoak egindako gomendioei arreta emango

pertsona horiek euren oinarrizko beharrak ondo beteta dituztelako euren gurasoekin bizi direlako. Beraz, estaldura umezurtzak balira bakarrik jasoko lukete. Aitortu du historikoki zaurgarritasun larriko egoeretan egon diren antzeko egoeretan dauden kolektibo zehatzak babesten ari direla, hala nola, jubilatuak, alargunak, ezintasunen bat duten pertsonak, etxeko indarkeriaren biktimak, euren kargupean adingabeak dituzten pertsonak, eta banatu edo dibortziatu direlako edo errekurso ekonomiko nahiko ez dituztelako euren etxebizitza utzi behar izan duten pertsonak, edo oinarrizko gizarte zerbitzuek behar larriko egoeratzat hartutako egoera batengatik. Azpimarratu dute *“egoera hauek ez-ohikoak direnez tratamendu aniztasun hori nahikoa justifikatuta dagoela diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortzeari dagokionean”*. Arartekoak jarrera hori berri-kusteko eta kolektibo honi estaldura emateko eskatu du.

4.1.3. Berriz ere Arartekoak Lanbide ezartzen ari zen irizpideari dagokion ofiziozko jardun bat abiarazi zuela adierazi behar da, diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioa eskatzeko **etxebizitza baten okupazio titulu juridiko baliozkoa izatea egiaztatze behar** eragina zuena.

Pasa den urteko txostenean adierazi zen Lanbide jakinarazi zigula hurrengo barne irizpideen berrikuspenean aldatuko zela, eta pertsonak egoitza eraginkorra frogatu fede-emaile edo “froga sendo” baten bidez egiaztatzea nahikoa izango zela, Euskadiko Justizia Epaitegi Gorenaren Administrazio Auzietarako Gelaren epaian jasotzen den bezala (2012ko abenduaren 28ko 991/12 zenbakidun Epaia).

Berrikuspen hori ez da egin eta erakunde honek kexak izapidetzen jarraitu du.

4.1.4. Gizarte babesari dagokion prestazioak **bi administrazioek** (Lanbide eta SEPE) **kudeatzeak sortzen duen zalantza** adierazten duten hainbat kexa ere jaso ditugu, espazio berdina konpartitzen dutenean edo gertu kokatuta daudenean. Kaltetutakoek ez dute administrazio egitura eza-gutzen eta ulertzen dute Lanbide -euskal enplegu zerbitzu-bezalako administrazio bati jakinarazten dioten informazioa beste administrazio batera SEPE -estatuko enplegu zerbitzu publiko- helarazten dela, eraikin berdinean edo gertuko batean dagoena. Bi administrazioen arteko informazioa hobetzea beharrezkotzat jotzen da. Arartekoak Herriaren Defendatzaileari helarazi dio kezka hori.

4.2. Euskadiko Autonomia Erkidegoaren udal gizarte zerbitzuen egoeraren gaineko txosten berezia: egungo egoera eta hobetzeko proposamenak

Aurten **udal gizarte zerbitzuen egoerari buruzko txosten berezia** argitaratu da.

Bertan, zerbitzu eskaintza, langileak eta gizarte zerbitzuetako udal gastuaren gaineko datu garrantzitsuenak aztertuta dira, baita gizarte eta erakundeetako eragile talde anitz batek zerbitzu hauen egoeraren gainean aurkeztu duen ikuspegi

kualitatiboa ere. Ondorioen artean, lurraldeen arteko ezberdintasunak jarraitzen dutela, zerbitzuek lehen mailako arreta guztia aintzat hartzeko dituzten zailtasunak, oinarrizko gizarte zerbitzuari berariaz egotzitako zerbitzuek haratago, Lanbideri diru-sarrerak bermatzeko prestazioen (diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria) kudeaketa lekualdatzeko balantze anibalentea eta Gizarte Larrialdiko Laguntzen eskariak gora egingo duenaren aurreikuspenaren aurreko kezka azpimarratu dira. Zentzu honetan, ondorioztatuta da eskaria mantendu dela prestazioen kudeaketa lekualdatu arren. Pobrezia eta gizarte bazterketa egoerak askotan beste zailtasunei lotuta daude, hala nola, buru-gaixotasuna, muga funtzionalak eta babestuko duen famili sarea ez egotea. Hori dela eta, udal gizarte zerbitzuen arreta eskatzen jarraitzen dute. Horri diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria prestazioen etete edo iraungitzea sortzen duten ondorioak gehitzen zaizkio, lehendabizi udal Gizarte Zerbitzuetara jotzea sortzen dutenak.

Nahikoa estalita ez dauden beharren artean prebentzio izaera dutenak daude. Txostenean ere konpartitutako kudeaketa formulatan oinarritutako zerbitzuen garapenean garrantzia azpimarratu da. Txostena 27 gomendiorekin amaitu zen. Horien artean, 13. azpimarratuko dugu, gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen eremuan eragina duelako, eta honakoa gomendatu zen: *“Prestazioen eta zerbitzuen katalogoan jaso diren lehen mailako arretako eguneko eta egoitzako harrera-zerbitzuak garatzea”*. Bertan, hauxe adierazi da: *“Sortuko diren zerbitzuen kasuan, hurbiltasun printzipioaren arabera eta lurraldean egoki eta modu baketsuan heda daitezten (hurbiltasun printzipioa bermatuz eta baliabide jakin batzuk adibidez, bazterketakoak udalerriri gutxi eta zehatzetan biltzea saihestuz), egoki ikusi dugu aurretiko hitzarmenak egitea zerbitzuaren kokalekua eta leku kopurua zehazteko, edota finantzaketako parte-hartzea edo sarbide-prozedurak zehazteko, hainbat udalerririk partekatutako zerbitzuen kasuan. Lurralde mapetan aurreikusi den garapen-markoan egin liteke prozesu hori, eta, bertan, tartean dauden tokiko erakundeen parte-hartzearekin, lurralde hedapenean irizpideak eta xehetasun zehatzak/eragi-leak hitzartuko lirateke”*. Lurralde mapak 2016an egin dira.

23. gomendia ere azpimarratu behar da, lehen eta bigarren mailako arretaren arteko koordinazioari dagokiona, eta batez ere, diru-sarrerak bermatzeko sistemarekiko koordinazioa jorratzen duen 24. gomendia. Bertan, oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren arteko harremana eta horiek diru-sarrerak bermatzeko sistemari duten papera berrikustea planteatu zen.

4.3. Gomendio orokorren jarraipena

Arartekoaren apirilaren 8ko 2/2015 Gomendio Orokorren jarraipenean honela adierazi zen: *“Politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sistemari”,* baloratu ahal izan da ez dela termino guztietan betetzen ari.

Lanbide erakunde honi erantzun dio printzipio honen ezarpena sektorearen arabekoa dela, hau da, haurtzaroaren eremuan bakarrik ezar daitekeela (guraso eta seme-alaben

arteko harremanak, dibortzio egoerak, adopzio prozedura, tutoretza erregimena eta harrera eta antzeko egoerak). Arartekoak aldiz, adierazi du herri-administrazio guztiek bete beharreko araua dela.

Lanbideren eskubideak mugatzen dituzten ebazpenak oinarritzeko beharri dagokion [Arartekoaren urtarrilaren 20ko 1/2014 Gomendio Orokorren](#) jarraipenari dagokionean. Azken urte hauetan etete ebazpenak arrazoitzean hobekuntza nabaritu bada ere, oraindik hobetzeko tartea ikusten da.

Hobekuntza tarte hau emango litzateke, batez ere, diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioa ukatzeko, eteteko edo iraungitzeko oinarri diren zuzenbide oinarriak adieraztean.

4.4. Bilerak

4.4.1. Lanbiderekin hainbat bilera egin dira Lanbideren funtzionamenduari eta eskariak ebazteko edo errekurtsio bat onartu ondoren prestazioa aitortzeko atzerapenari lotutako gaiak jorratzeko, baita hitzorduei edo dokumentazio erregistroari dagokionean ere. Jasotzaileen egoera prestazioa ez berritu ondoren eta berritze, etete eta herritarrei informazioa emateko gaiekin lotutako eztabaida eman zen.

Lanbidek Arartekoari informatika aplikazioak hobetzeko, enplegu eskaria berritzeko hitzorduak SMS bidez jakinarazteko aukera eta web orriaren bidez diru-sarrerak jakinarazteko errazteko egiten ari den analisiaren berri eman dio.

Arau-hauste eta zigoren erregimenak abiarazteko edo irizpideak positibizatzeko ekimenei dagokienez, horretan dihardutela aipatzen dute.

Itzulera baldintzei buruzko 1/2015 Zirkularra otsailetik aurrera ofizioz aplikatuko zela jakinarazi ziguten, soldata-orria konpentsatzeko aukera onena ezariz.

Izandako bileretan Arartekoak kexa-espeditenteen izapidez sortutako irizpide zehatzei dagokien kezka helarazi da, horien artean etxebizitzarako prestazio osagarriaren etetea eta bidegabe jasotako prestazioen erreklamazioa etxebizitza eskatzaileen erregistroan baja emateagatik.

Kexak Etxebideko izen ematea baja egoeran zutela ez zekiten pertsonengan zuten eragina, euren eskaria ez berritzeagatik edo ukatzeagatik. Espediente hauetan, Etxebizitza alorrean eskumena duen sailak ebazpenak iragarki Taulan argitaratuta jakinarazten ditu.

Arartekoak jakinarazpen erregimen horrekin duen desadostasuna adierazi du askotan. Zehazki, gertakari hau [urteko txosten](#) eta ebazpen ezberdinetan adierazi da, besteren artean [Arartekoaren 2013ko azaroaren 26ko ebazpena](#). Gainera, [Arartekoaren 25eko 3/2016 Gomendio Orokorra](#) eman zuen. *Babestutako etxebizitza eskatzaileen erregistroko bajak norbanakoari jakinarazteko beharra, etxebizitza duina edukitzeko eta gizarte bazterketarako arriskua saihesteari begirako prestazio ekonomikoetarako eskubide subjektiboan duen eraginagatik.*

Gure ustez, administrazio jardun baten balio faltak, Etxebideko izen emate edo baja baten ukapenaren jakinarazpen akastun batetik sor daitekeena bezala, adierazitako ukapen edo erregistro baja horrekin zuzenean lotutako gainontzeko administrazio jardunen balioan eragiten du, etxebizitzarako prestazio osagarriaren etetea, etxebizitzarako prestazio osagarriaren iraungitzea edo hura ez berritzea bezala.

Arartekoaren ustez, [Etxebiden](#) izena emateko betebeharrak etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrei eragiten die 2/2010 Dekretuaren 5 c) artikularen arabera. Ez da antzeko aurreikuspenik existitzen diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioa erregulatzen duen araudian. Beraz, diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioa arrazoi honengatik etetea ez litzateke egokia izango.

Lanbidek ondo hartu ditu Arartekoak emandako gogoetak eta 2016ko abuztuaren 1ean indarrean sartu den ebazpen bat eman du. Horren bidez, adostu da berrikuspenean zehar Etxebide-etxebizitza eskatzaileen erregistroan izen eman gabe egotea edo baja ematea antzematen bada, entzutezko izapide bat egingo dela, eragindako pertsonak bere egoera erregularizatzeko aukera izan dezan. Izapide hori 30 egunez luzatuko da, Etxebiden duen egoera erregularizatzeko aukera izan dezan. Epe horren barruan kaltetutako pertsonak erregistroan berriro ere alta emanez gero, ez da prestazioa etetea erabakiko. Epe hori igarotakoan bajaran jarraitzen badu, etxebizitzarako prestazio osagarria eten egingo da, alta eman arte. Gainera, agindu horretan onartu da, inolaz ere ez dela zenbatekorik itzultzeko eskatuko Etxebiden bajaran emanda egon izanagatik. Hau da, etxebizitzarako prestazio osagarria etetea adostu aurretik pertsonari jakinaraziko zaio Etxebiden bajaran dagoela ikusi dela, alta izapidetu eta Erregistroan izena emanda egoteko irizpidea betetzeko, eta prestazioaren ordainketa mantentzeko asmoz.

Era berean, Lanbidek erakunde honi jakinarazi dio jarraibide hori kontuan hartuko duela egiten diren errekurtsioak izapidetzean. Bestalde, Etxebiden izena emanda ez egoteak diru-sarrerak bermatzeko errentan eraginik ez izateko gomendioak ere onartu ditu.

4.4.2. Bilboko Udalarekin bilera bat izanda [Arartekoaren 2015eko uztailaren 23ko ebazpeneko](#) gogoetekin lotuta. *Horren bidez, Bilboko Udalaren gizarte laguntzen kontrol eta berrikuspen aurreikuspenak salatzen zituen kexa batean bere jarduna amaitu du.*

Udalak erantzun zuen jakinaraziz horretarako adostuko den prozeduran kontuan hartuko zirela.

Bileran ere Udaleko hainbat sail (Osasun Saila eta Gizarte Ekintza Saila) murgilduta dauden “*Diogenes*” kasuetako esku-hartze programaren berri eman zen, baita Haurtzaroaren eta Nerabeen Bulegoaren txostenean aztertzen diren haurren pobrezia dagozkion gaiei buruzkoak ere.

4.4.3. Arartekoa **gizarteratze eremuan lan egiten duten elkarrekin** bildu da, zaugarritasun egoeran dauden familiak kanpoan uzten ari diren errolda eta egoitza eraginkorra egiaztatzeari lotutako irizpide batzuen gaineko, etxebizitza bakoitzeko bi bizikidetzaren unitateko mugaren gaineko edo

bizikidetza-unitate berezien kasuan bizikidetza bi urte baino gehiago ezin luzatzeko debekuaren gaineko zalantzak adierazi dizkigutenak. Lanbideren irizpideak jasotzen dituen dokumentuarekiko mesfidantza azpimarratu dute, diru-sarrerak bermatzeko errenta eskubidean eragina duten erabakiak hartzeko balio duelako eta ez dutelako edukia ezagutzen, hura hedatzea aurreikusita ez dagoelako. Udaltzaingoak harreman sentimentalak kontrolatzea ere aipatu zuten, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria prestazioak eteteko oinarri bezala erabiltzen dituen txostenak egiten dituztelako, bizikidetza-unitatea osatzen duten kideen errealitatea jakinarazi ez dela ulertzen dutelako.

Presuntzio hau emakume eta gizon bat elkarrekin bizi direnean bakarrik ematen da. Emateen edo prestazioen berrabiarazte ebazpen epeei dagokienean, egiaztatu da azken hilabeteetan luzatu direla, eta horrek gizarte erakundeek eskaintzen duten laguntzan eragina dauka, gizarte bazterketa prozesu larriagoak ekiditeko kopuruak aurreratu behar dituztelako. Bidegabe jasotako prestazioak erreklamatzeko prozeduran ez da kalkulu orria barne hartzen, edo Lanbidek erreklamatzeko dituen kopuruak zenbatzeko modua. Hori dela eta, ez dago alegazio fasean “aurkaratu” daitekeen informaziorik.

Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak espedientean duen informazioa lortzeko dagokionez konpromiso bat hartu zuela ere adierazi dute, eta horretarako pasahitz bat emango zela, baina oraindik ez da bete. Era berean, itzuli beharreko prestazioak zatikatzeari buruz dagoen ezjakintasuna adierazi zuten, zergatik Lanbidek bidegabe jaso direla ulertu duen. Preskripzioaren irudia ezartzea ere aipatu zuten, eta babesgabetasun egoerak ekiditeko informazioa hobetzeko garrantzia azpimarratu zuten.

Lanbidek langile autonomoei ematen dien tratua nabarmendu dute eta euren lan jarduna bertan behera uztera eraman dituzten zailtasunen ulergarritasun falta.

Azkenik, bulegoek ematen duten arreta kaxkarra salatu zuten, batez ere tratuari dagokionean, eta erabiltzaileei ematen zaien informazio nahasia (ez egokia) ezar daitekeen araudia- ren eta egin beharreko izapideen gainean. Elkarte guztiak ados daude tratu duin bat egiaztatzeko garrantziarekin.

4.4.4. Azkenik, APDEMArekin izandako bilera aipatu genuen. Bertan, besteren artean, ardurapean seme-alabak izateagatik prestazioa jasotzen duten eta diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungi zaien familien egoera jorratu zen, aurretik aipatu den ofiziozko jardunaren helburu izaten ari dena.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Atal honetan eremuan egin den lanari lotutako ondorio eta gogoeta batzuk azpimarratu ditugu.

5.1. Euskadiko gizarte babeserako sistemak **pobrezia eta bazterketa adierazleak estatu eta europar mailako batez**

bestekoa baino txikiagoak izatea lortu du. Beraz, beharrezkoa da nahikoa azpimarratzea, gizarte kohesioan eta gure gizartearen ongizatean duen eraginagatik.

5.2. Pertsona guztiek enplegu duin eta kalitatezko bat izateko **eskubidea** lortzeko beharrezkoak diren ekintzek lehen-tasuna dute, eta pertsonen enplegarritasuna hobetzeko.

5.3. Lan prekarietateari aurre egiteko gizarte babeserako sistema baten **laguntza** beharrezkoa da (enplegurako estimulua), ez lukeena denbora mugarik izan beharko, gaur egun gertatzen den bezala.

5.4. Gaur egungo ereguak gizarte babeserako eta lan aktibazioa lotzen ditu, baina formazio ekintzen harremanaz gain, lan aktibazioan paper garrantzitsu bat izatearen zain jarraitzen du. Bestalde, prestazioak jasotzeko lotuta dituzten betebeharrak ez betetzeari dagokionez eta prestazioen etetea eta iraungitzeak dakartzaten lan aktibazioa. **Tentsioa** dago batzuetan pertsona baten lan aktibazioa lortzeko beharrezkoa den bultzadaren eta prestazioak etetea eta iraungitzeak dakarren gizarte bazterketa egoera handitzearen artean. Beraz, paradoxa bat sortzen da sistemak ez duelako lortzen lan aktibazioa baina prestazioen mantentze eta ematea enpleguarekin lotutako betebeharrak betetzearekin lotuta daude (bilatzea, parte hartzea eta lan-eskaintzak onartzea...).

5.5. Gizarte bazterkeria egoeran dauden eta prestazio ekonomikoak jasotzen ez dituzten pertsona kopuru handiak egoten jarraitzen du. Kontraesan bat da pertsona hauek prestazio ekonomikoak ezin eskatzea ez dituztelako irizpideak betetzen. Kasu hauetan gizarte erakundeekin eta gizarte zerbitzuekin **kolaboratzeak** sisteman integratzeko bideak ireki beharko lituzke.

5.6. Oso beharrezkotzat jo da prestazioen titularrek eta bizikidetza-unitateko kideek bete behar dituzten irizpide eta betebeharren gaineko **informazioa** hobetzea eta egokitzea. Kontuan izan behar da prestazioen iraungitze eta etetea oso ondorio larria dela, behar oinarritzkoenei aurre egitea galarazten duelako, eta ez da “nahita” egindako zerbait, batez ere seme-alabak dituzten familietan. Hori dela eta, ezinbestekoa da informazioa hobetzea, ez ahoz bakarrik, arreta pertsonal eta egoki batekin, baizik eta idatziz ere (web orria, informazio orriak, pertsonalizatutako idatzizko komunikazioak, informazio kanpainak). Informazio hau ulergarria den eta pertsonen beharrei egokitutako hizkuntza batean egin beharko litzateke.

5.7. Arartekoak Lanbiden izandako bileretan eta egindako ebazpenetan funtzionamenduari zein prestazioa lortzeko dokumentazio zehatza aurkeztearen exijentziari eta prestazioak eten edo iraungitzen dituzten prozeduren oinarri diren betebeharrak ez betetzearen edo irizpideen galeraren interpretazioan eragina duten **hobekuntza alderdi** garrantzitsuak helarazi ditu. Prestazioak erreklamatzeko prozeduran eragina duten hobekuntza alderdiak ere jakinarazi ditu.

2016an erakunde honek Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari araudia aztertzeke eta Lanbidek egin duen araudia- ren interpretazioa aztertzeke hainbat gomendio eta iradokizun zuzendu dizkio. Ebazpen hauek hura onartzeko zenbaketa

egokiaren oinarri izan beharko lirateke, zaurgarritasun egoeretan eragina baitute. Hori dela eta, onartuak izatea espero dugu.

Gainera, Arartekoak 2016 txosten-diagnostiko berri bat egin du, erakundearen azken urte hauetako esku-hartzeak jaso eta Lanbideri hainbat gomendio ematen dizkionak. Bertan adierazitako gabeziak konpontzeak sistemaren hobekuntzarako oso interesgarri bezala baloratu da.

5.8. 2016an ez da diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren kudeaketan aldaketa nabaririk eman, bidegabe jasotako prestazioen itzulera baldintzak zehazteari buruzko 1/2015 zenbakidun Zirkularra abiaraztea baino, Arartekoak positiboki baloratu duena, baita bulego bakoitzean dokumentazioaren erregistroan egondako beste hobekuntza batzuk ere.

Ebazpen epeei eta herritarrentzako informazioari dagokionean hobetzeko alderdi garrantzitsuak daude, ebazpenen araudiaren interpretazioari eta oinarri juridikoari lotuta, eta prestazioen erreklamazio prozeduraren oinarri diren kontzeptuen informazio eta argitzeari lotuta ere. Uste du ezinbestekoa dela taula jakinaraztea eta horretan pertzepzio desegokiak nola eta noiz sortu diren jasotzea. Bestalde, Lanbide ez dago ados bere jardun guztietan adingabearen interes gorenaren eskubidea barne hartzeko gomendioa, derrigorrez kontuan hartzekoa bada ere. Izan ere, bere esku-hartzetako asko euren kargupean adingabeak dituzten familiengan eragina dute.

5.9. Erakunde honek sistema hobetzeari begira gogoeta prozesu bat ematen ari dela eta aldaketa proposamenak egiten ari direla badaki ere, 2016an ez dira eman. Beraz, ez dira bete Lanbideren bulegoetan erabakiak hartzerakoan erabiltzen ari diren irizpideen positibitate eta hedatzeari lotutako hartutako konpromisoak, edo berraztertze errekurtsoak onartzearen ondorioei dagozkienak. Arau-hausteak bere desbalorizazioaren arabera ezberdintzeko zigor prozedura bat erregulatzeko eta ezartzeko ez da aurrera egin, eta prestazioen etetea eta iraungitzea betebeharrak ez betetzean ematen den erantzun bakarra izatea ekiditea.

5.10. Arartekoaren ustez, gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen egoera aniztasuna, Lanbiden zein **udal gizarte zerbitzuetan** arreta ematen zaiena, bi sistemen arteko kolaborazioaren gaineko gogoeta serio bat exijitzen du, lan eta gizarteratze prozesutik sortutako beharrei arreta emateko eta gizarte zerbitzuen eremuan printzipio orokorra eta arretaren jarraikortasun printzipioa betetzeko. Momenturen batean Lanbidek erabili ezin daitezkeen erabiltzaileentzako Lanbideren bulegoaren alternatiba gisa arreta prozedura bat zehaztea aztertzen ari zela onartu badu ere, orain arte ez da aurrerapen garrantzitsurik egon. Arartekoak Lanbideri helarazi dio udal gizarte zerbitzuen kolaborazioa ezinbestekoa zela, batez ere kolektibo zehatz batzuei dagokionean. Udal gizarte zerbitzuei buruzko Arartekoaren txosten berezian beharrezko kolaborazio hau jorratzen du 24. gomendioan.

5.11. “**Etixerik gabeko**” gizarte fenomenoari aurre egiteko beharra planteatzen jarraitzen da, gure hirietako kaleetan

pertsonak bizitzea ekiditeko. Protokoloa sinatzea aurrera pausu bat da, sustatu beharreko neurriak hobetzeko eta estrategia bat egiteko ikertzeko konpromisoa bezala. Egoera honetara heltzea ekiditeko prebentzioak duen garrantziaz gain, garrantzitsua da egungo dispositiboan eta exijitzen diren irizpideen balioa ebaluatzea, kalean bizi diren pertsonak egotea ekiditeko helburuz. Errekurtso berrien beharra eta hura martxan jartzeko konpromisoa, Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko Dekretua eta gizarte zerbitzuen plan estrategikoa ezarri, ez du berrikuntza eta egungo dispositiboan berrikuntza mugatu behar.

5.12. Oraindik ere **lurraldeen arteko desoreka** mantentzen da gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen ematen zaizkien zerbitzuei dagokionean, udal gizarte zerbitzuen egoeraren gaineko Arartekoaren txosten berezian jasotzen den bezala. **Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea** eta **zorro eta prestazioei buruzko 185/2015 Dekretua** betetzeko, baita **Gizarte Zerbitzuetako Plan Estrategikoak** eta Gizarte Zerbitzuetako Mapak dituen gogoetak ere, beharrezkoa da da administrazioen arteko planifikazio bat egotea, zerbitzuak hirietan kontzentratzea mugatzeko eta bazterketa egoeran dauden pertsonen zuzendutako zerbitzuak ez egotea eskualde eta lurralde eremu batzuetan, baita etxebizitza beharra ere. Bestalde, hiru lurralde historikoetan ezartzen ari den bazterketaren balorazio instrumentuen garapenak antzeko moduan baloratu beharko litzuke aztertzen diren egoerak, lurraldeen arteko desoreka ekiditeko. Modu berean, interesgarria litzateke lurralde zerbitzu eta prestazioak lortzeko exijentziek aurretik beste Lurralde Historiko batean erroldatuta egotea kontuan izatea.

5.13. Aurten udalerririk batzuk ere gizarte larrialdiko laguntza eskariei aurre egiteari zuzendutako diru-partidak handitu behar izan dituzte; beste batzuk ezin izan dute aurrekontua handitu eta hori dela-eta ezin izan dituzte eskari guztiak erantzun. Gizarte Larrialdiko Laguntzei lotutako araudi berriaren helburuen artean energia gastuei arreta ematea dago. Energia gastuaren eraginak perspektiba ezberdinetatik aurre egitea exijitzen du, Arartekoak **Arartekoaren 2016ko urtarrilaren 26ko 1/2016 Gomendio Orokorrean** adierazi zuen bezala: *Energia pobrezia gainera gizarte eztabaidarako oinarriak Euskadin*. Bertan, jardura eta gomendio proposamen ugari egin ziren, hala nola, Euskadin energia pobrezia aurkako borroka plan bat ezartzea, energia kontsumitzaile ahulena babestera zuzendutako neurriak hartzea, energia kontsumitzaile ahulena ikuspuntutik egokiena den informazioa ematea (gizarte boñoa...) eta etxe eta eraikinetako energia eraginkortasuna hobetzea (energia auditoretzak...), eta energia berrikuntzarako laguntzak, besteren artean.

5.14. **Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko 6/2016 Legearen** eta Hirugarren Gizarte Sektorearekiko gizarte kontzertazioaren marko juridiko bereziaren zabalte eta garapena garrantzi handikotzat jo da, ardura publikoko zerbitzuez hornitzeko, **Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legean** aurreikusita-koaren arabera.

II. ATALA

5 JUSTIZIA

1. Arloa kopurutan

Justiziaren arloan guztira 48 kexa-espeditente berri ireki dira 2016. urtean; hau da, Arartekoak urtean zehar izapidetzeraz onartutako guztien %2,22. Jarraian, espeditente horien banaketa azalduko da, arloka:

- Justizia Administrazioaren eta bulego judicialaren funtzionamendua 19
- Beste alderdi batzuk9
- Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak8
- Doako laguntza juridikoa4
- Erregistro Zibila eta Jabetza Erregistroa3
- Notarioen eta erregistratzaileen elkargoak2
- Adingabe lege-hausleak1
- Beste elkargo profesional batzuk1
- Familia elkarguneak1

Urtean zehar izapidetutako espeditenteei dagokienez, txosten hau amaitzean egoera honetan zeuden:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
49	28	21	12	1	7	1

Hala ere, horiek ez ziren Arartekoan aurkeztu diren eta Justiziako Administrazioarekin zerikusia duten kexa bakarrak. Arlo honi dagokionez, izapidetu ezin izan ditugun beste erreklamazio batzuk jaso ditugu, honako arrazoi hauetako batentzat gure eskumen-eremutik kanpo geratzen direlako:

- **Partikularren** arteko gatazkak.
- **Estatuko** administrazioaren organoen jardunak. Sor-tutako kexak bere homologoari, **Herriaren Defendatzaileari**, bidali dizkio Arartekoak, informazio garrantzitsuarekin eta, hala badagokio, erakunde honek egindako balorazio batekin batera. Informazioa ematen den urtean, balorazioak batez ere bi alderdietan egin dira: alde batetik, polizia-jardun batzuk kanpo-ratze espeditentea irekita duten atzerritarren babes judizialerako eskubidearen gainean; bestalde, Erregistro Zibilak ematen dituen ziurtagiriak ez daudela familia errealitate berriei egokitua, eta bereziki sexu bereko pertsonen arteko ezkontzei.

- **Epaitegien erabakiak.** Izan ere, duten independentzia Arartekoak edo jurisdikzionala ez den beste edozein instantziak berrikustea galarazten du. Erabaki horietako batzuek bide judizialean dauden auziak ebazte edo izapidetzearekin zerikusia zuten, hortaz, erreklamazioak planteatu dituzten pertsonak kasu bakoitzari dagokion errekurso-bidera bidali behar izan ditugu; beste erabaki batzuek, aldiz, gobernu-izaerako kontuak aipatzen zituzten; halakoetan, Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Aretolari, Fiskaltzari edo Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Ikuskaritza Zerbitzuari jakinarazi genion.

Edozein kasutan, ezin ditugu formalki ukatu behar izan ditugun kexa batzuk islatzen zuten pobrezia, ahultasun edo gizarte bazterketa egoerak alde batera utzi. Eskubideen defentsan duten inplikazioa kexagilearen arazoa bere osotasunean aintzat hartuz bakarrik zehaztu daiteke. Horregatik, Defentsa Bulego honen irizpidea honako hau da: alde batera utzita aipaturiko eskumen-eragozpenen ondorioz erreklamazio bat formalki izapidetu dezakegun edo ez, erreklamazio hori jarri duenari gure esku dagoen laguntza guztia eman behar diogula, betiere haren funtsa egiaztatuta badugu. Helburu horrekin kudeaketa informalak egin ditugu epaitegietan, esleitutako defentsako abokatuarekin batera garatutakoak.

Bere jardun eremuko Arartekoaren esku-hartzeen artean, azpimarratu beharrekoak dira ondorengo eremuak, herritarren eskubideen eraginkortasunean duten eragina errepikatzen delako:

- Prozedura judizialeko **izapideetan atzerapena**. Ere-mu honi dagokionez, aurten jasotako kexek jurisdikzio zibil eta zigor jurisdikzioari eta Erregistro Zibilari egin diote erreferentzia.
- Gure Epaitegi eta Epaimahaietako erabiltzaileei ematen zaien **informazioaren gabeziak**, edo **Justizia Administrazioaren zerbitzura lan egiten dutenek ematen dieten tratuan**. Eredu gisa, gazte baten heriotza bortitza ikertu zuen Epaitegiak bere amari autop-sia-txostena osorik ematea lortu zuen esku-hartzea, Fiskaltzarekin batera egindakoa; justizia-epaitegie-tako seinaleetako gabeziak zuzendu dituztenak, bai hizkuntz koofizialtasunari dagokionean baita genero berdintasunari dagokionean ere; judizioz barneko prozesuetan lortutako akordioen jarraipenari lotutakoak; edo zigor prozedura batean epai agindu baten bidez atxikitako ibilgailuak, behin-behineko neurria kendu ondoren, jabearentzat inolako kosturik gabe itzultzea baimendu dutenak.
- Epaitegiek, baita gainontzeko eragile juridikoek ere, pertsonak beraien aurrean duten jarreraren lekua berrezten duten egoerak aintzat hartzea, **ahulgarritasun**

edo gizarte bazterketan egoera zehatzetan baliatzen dituztenean. Informazioa ematen den urtean, esku-hartze hauek dohaineko justiziaren eta zigor-betearazpen espedientei buruzkoak izan dira batez ere.

Gure lanaren alderdi honetan **kolaborazioa** eskertu behar diegu, beste urte batez, **Epaitza** eta **Fiskaltzari**. Ezinbestekoa zaigun laguntza, eta bereziki aktiboa izan dena gainera, **Justizia Administrazio**ko **abokatu**en aldekoa da, bai epaitegi zehatzetan baita Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Aretoan eta probintzia koordinatzaileetan ere.

2. Kexarik aipagarrienak

Ondoren, Arartekoak gure epaitegi eta auzitegi-tako erabiltzaileei emandako laguntzaren eredu diren bi esku-hartzeren adibideak emango ditugu.

2.1. Dohaineko asistentzia juridikoa ukatzearen aurkako alegazioak ez erantzutea

Salatutako egoera

Erakunde honetara jo zuen haren asistentzia juridikoko eskaria behin betiko ebatzi ez zen pertsona bat, egin zuenetik bederatz hilabete igaro ziren arren, eta lau hasiera bateko ukapenaren aurkako alegazioak aurkeztu zituenetik. Horrek, hirugarren baten aurka zuen kreditu eskubide bat gauzatzen eskatzea galarazten zion, eta aldi berean, Lanbidek bere diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioa etetea ekarri zuen, momentu horretan bere bizibide bakarra zena.

Arartekoaren esku-hartzea

Gertakariak ez ziren bateragarriak, egiaztatu ahal izan zen bezala gure botere publikoen jarduna oinarritu behar duten eraginkortasun, koordinazio eta kooperazio printzipioen arabera. Batez ere kontuan izanda kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errentaren etetearen gainean zuen eragina. Hori dela eta, premiazkoa zen aurkaratutako ebazpen administrazioaren gainean adierazpen bat egitea.

Horregatik, Bizkaiko Doako Justiziaren Batzordeko kolaborazioa eskatu genuen, atzerapenaren jatorria identifikatu ahal izateko eta gainditzen laguntzeko. Batzordeak Arartekoari jakinarazi zion eskaria legeak ondorio horietarako ezartzen dituen baldintza ekonomikoak betetzen ez zituela ulertzen zuelako ukatu ostean, kexagilearen alegazioak Lehen Auzialdiko Epaitegira bidali zituela, horren aurrean eskatu nahi zuen kexagileak adierazitako gauzatzea, eskatutako doako justiziaren onuraren gainean ebazpena emateko. Aldi berean, aipatutako epaitegiko Justizia Administrazioko abokatuaren aurrean kudeaketak egin genituen kasuaren izapidetzean eman ahal izan ziren balizko disfuntzioak egiaztatzen asmoz.

Emaitza

Azaroko bidalketak erreparatu ondoren, abokatuak konturatu zen kexagilearen alegazioak epaitegira bidali zirela horretako adierazpen bat egin zezan, baina ez zuen horren berri izan aplikazio informatikoarekin izandako arazo batzuk zirela eta. Adierazi zigun kasuari lehentasun osoa emango ziola, eta laster konponduko zela. Horrela izan zen, eta herritar honi epaitegien aurrean bere eskubidea defendatzeko aukera eman zion asistentzia juridikoa esleitu zitzaion, ondoriozko diru-sarrerak bermatzeko errentaren etetea kenduz.

Justizia Administrazioko abokatuak Arartekoari eskatu zion batzordeari helarazteko itxita dauden espedienteetan Doako Justizia eskatzen duenak gauzatze gorabehera batean jarduten duena denean, kasu honetan gertatzen zen bezala, berriz ireki behar direnean, abisu sistema aldatzeko beharra. Horrela egin genuen, eta batzordeak jakinarazi zigun bere operatiboa berrikusiko zuela, espediente hauek epaitegira lekualdatzea azkarragoa eta arinagoa izateko.

2.2. Justizia Administrazioak erabiltzaile bat guraso bakarreko familia gisa aintzat ez hartzea

Salatutako egoera

Bizkaiko udalerrri bateko emakumeen elkarteak Arartekoarengana jo zuen, bere Udalak ez baitzion laguntzarik eman jarritako kexa bati. Kexa horretan, bere Bake Epaitegiko prozesu kudeatzaile-idazkariak *in vitro* ernalketaz sortutako haur baten jaiotzaren Erregistro Zibilaren ordezkari gisa izen-ematean izandako errespetu gutxiko jarduna salatu zuten.

Bere ama horretarako Erregistrora joan zenean, bertan amaren seme-alabatasuna bakarrik agertzeko nahia adierazi zuen. Horretaz gain, aipatutako funtzionarioak bere alabaren aita gisa asmatutako izen bat agertzeko egokitasuna errepikatu zion, arreta ez deitzeko eta etorkizunean, benetako aitak seme-alabatasuna bere alde izena ematen saiatuko balitz, arazoak saihesteko. Interesduna ukatu zenez, eta guraso bakarreko familia zela azpimarratzen zuen, funtzionarioak, proposatzen zion konponbidea egokiena zela adierazi zion, adibidez, haurren aitaren izena ezagutzen ez bazuen aitagai asko baldin bazeuden.

Gertakari hauengatik Epaitegien Dekanotzan kexa bat jarri zuen, eta funtzionario horrek esan zuen ez zuela ulertzen euskaraz idatzita zegoelako. Horretaz gain, txosten bat egin zuen gertakariak beste termino batzuetan adieraziz, eta hori dela eta jardunak artxibatu egin ziren, bi bertsioen artean benetakoa zein zen egiaztatzen ezintasunagatik.

Arartekoaren esku-hartzea

Kexa artxibatzeak gertatutakoa modu objektiboan hartzeko zailtasunagatik eman zen, egitate berberen gaineko pertzepzio subjektiboaren ondoriozkoa izan baitaiteke bi aldeen bertsioen artean ikus daitekeen kontraesana. Dena den, [Eusko](#)

Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailera jo genuen, erakunde honen ustez azpimarratu beharreko bi alderdi aipatuz, epaitegi dekanok hartutako erabakitik at:

- Alde batetik, Justizia Administrazioari langileek ematen duten informazioak, eta, bereziki, guraso bakarreko familiek eskura dituzten aukera ezberdinei buruzko informazioak, erabiltzaileek adierazitako aukera erresetatu behar duela bermatzeko beharra, azalduko bezalako egoerak eragin ditzakeen ekiteak saihestuz.
- Bestalde, euskara eta gaztelania ofizialak izatetik ondoriozta daiteke keza bat euskaraz aurkezteak ez duela arretaren kalitate okerragoa ekarri behar, eta, aldi berean, keza izapidetzeko orduan esku-hartzen duten eragile ezberdinek ezin hobeto uler dezatela eskatzen duela horrek, bai zuzenean, bai dagokion itzulpenaren bidez, egitateen edo arazoiketaren gainean informatzeko. Esku artean dugun kasuan, epaitegi laguntzaile euskalduna dago; beraz, lekuz kanpo dago kudeatzaileak adieraztea edukia ulertu gabe erantzun behar izan diola kexari.

Emaitza

Sailak Arartekoari adierazi zion analisi horrekin bat egiten zuela, eta kasuaren ebazpenean ezarriko zuela. Eta halaxe egin zuten, kaltetutako funtzionarioari erakunde honek erabiltako terminoetan zuzendu zitzaionean.

Era berean, Justizia Saila epaitegiko erabiltzailearekin harremanetan jarri zen, ebazpenaren berri emateko eta barkamena eskatzeko.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

3.1. Europar jurisprudentzia eta oinarrizko askatasunak

Urtean zeharreko Arartekoaren jardunean etengabekoa izan da euskal administrazioen eta orokorrean herritarren sentibilizazioa, gure politika publikoak **oinarrizko eskubideen alorrean europar jurisprudentzia eta araudiko** irizpideei egokitzeko.

Zentzu honetan, azpimarratu dugu haren garrantzi juridikoa Espainiak nazioarteko instrumentuak berrestetik sortua dela, eta gure konstituzio sisteman duen funtzioa bikoitza dela: alde batetik, eta gainontzeko itunak bezala, **ondorio guztietako barne zuzenbide arauak** ordezkatzeko dituzte; bestetik, **interpretazio irizpideak** ematen dituzte, gure oinarrizko arauan aitortutako eskubide eta askatasunei esanahia ematean aintzat hartu behar direnak.

Zentzu honetan, aipagarriak dira 2016an **Giza Eskubideen Europako Auzitegiak** Espainiaren aurka emandako zortzi

epaiak, torturaren debekuaren, adierazpen askatasunaren eta epaiketa justu bat izateko eskubidearekin lotutako eskubideen urraketak aitortzen dituztenak. Horietako bat, **2016ko maiatzaren 31ko GEEaren epaia**, erakunde honek tortura salaketak modu eraginkor batean ikertzeko behararen gainean egindako adierazpenekin zuzenean lotuta dago. Europar jurisprudentziak alor honetan emandako irizpideak ezarri, Konstituzio Auzitegiak **2016ko irailaren 19ko 144/2016 Epaian** babes-eskatzaille baten osotasun fisiko eta moralaren eskubideak urratu zirela uste izan zuen, baita zaintza judicial eraginkorra eta berme guztiak dituen prozesu batena ere, aurkeztu zuen tortura salaketaren ikerketa judicial nahikoa eman ez zelako.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ere oinarrizko eskubideen alorreko bi epai garrantzitsu eman ditu Espainiaren lotuta. **Lehendabizikoak, 2016ko otsailaren 18koa**, prozesu monitorioetako dekretuen gauzatzean ezar daitekeen araudiaren epaiketa justu bat izateko eskubidearekin lotutako inplikazioak planteatzen ditu. **Bigarrenak, 2016ko irailaren 13koa**, aurrekari penalak dituzten adingabe espainolen gurasoei egoitza eta lan baimena ukatzearen gaia jorratzen du, eta familia bizitzarako duten eskubideari ez egokitzea. Testuinguru honetan, aipatu beharra dago **Estatuko Fiskaltzaren 1/2016 Instrukzioa**, herritarren eskubideak babesteko berme handiagoen bilaketan sakontzen duena, epaiketa aurreko alorra modu prozesalean jorratuta, espainiar auzitegien eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren arteko harreman bide garrantzitsuena dena. Dena den, gure testuinguruan garrantzi handien izan duen erabakia **2016ko abenduaren 21ean Sala Nagusiak** hartutakoa izan da, gardentasunik gabe ezarritako “zoru-klausulen” gehiegizko izaerari buruzkoa, interes-tasen murrizketak hipoteka bermea duten mailguetako zordunentzat onuragarriak izatea galarazten dutenak. Banku-entitateek arrazoi horrengatik gehiegi kobratu zituzten kantitateen itzuleran atzeraeragin osoa ezartzean, nabaria da beste urte batez erakunde honetan keza eta zalantzak sortu dituen arazoan duen eragina.

3.2. Araudi aldaketan, krisiaren eta epaitegi eta auzitegiek pairatzen duten kargari buruzko bitartekaritzaren eragina

Txosten honen urtean zigor bidean sartu diren gaien jaitsiera nabaria eman da estatu osoan. Horrela islatu dute **Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak argitaratutako datuek**, zigor eremuko jaitsiera hau **Prozedura Kriminalaren Legea aldatzen duen urriaren 5eko 41/2015 Legea** indarrean sartzeari egotzen diona.

Familia auziekin erlazionatutako kexak, hala ere, ez dira jaitsi. Horrek beste gertakari honekin lotura dauka, **Familia Abokatu Espainiako Elkarteak** krisi ekonomikoari egotzen dion ezkontzen hausturen % 15eko jaitsiera eman arren, eremu honetako benetako auzi kopuruak gora egin du bi faktoreen eraginez: alde batetik, eta krisiarekin zuzenean lotuta duena, zaintza, mantenu-pentsio edo pensio konpentsagarri alorreko neurrien aldaketekin lotutako gorabehera kopurua handitzea; bestalde, epaitegiara jotzen duten eta seme-alabak

dituzten ezkondu gabeko bikoteen haustura. Bestalde, krisi ekonomikoak bikote ohiek euren lotura apurtu ondoren duten autonomian ere eragina dauka, hipoteka likidatzeko edo hura gehi alokatutako bigarren etxebizitza bat ordaintzeko ezintasuna dela eta.

Egoera hauei aurre egiteko, bitartekaritzak gero eta espazio gehiago lortzen ari da Euskadin, auzibideen aurretik, bai eremu zibilean baita, gero eta indar gehiagorekin gainera, gainontzeko jurisdikzioetan ere. Gure botere publikoek [auzi barneko eta kanpoko bitartekaritza zerbitzuen](#) alde egindako apustuak horretan lagundu du, eta Arartekoarekin izandako kolaborazioa aurten ere erabakigarria izan da erakunde honetara jo duten herritarren arazo batzuk konpontzeko. Horrek bere lanak gure epaitegietako lan-zama arintzeaz gain aldean arteko konponbideak eta hura judizialki berresteko proposatzen duten justizia konpontzaile irtenbideek Justizia Administrazioari erabiltzaileen asebetetzea handitzen dutela.

Honen harira, 2016an abiarazitako bi esperientzia aipatu behar ditugu: batetik, Notariotza judizial barneko bitartekaritzan laguntzen duten eragile juridikoen barruan sartzera bideratutakoa; bestetik, Eusko Jaurlaritzaren eta Kataluniako Generalitatearen artean irekitako kolaborazio esparru berria, justizia konpontzailearen eta delituen biktimen arretarako eremuan ezagutzak, formazioa, ebaluazioa eta hedapena partekatzeko.

3.3. Pertsona juridikoei ezarritako tasa judizialen konstituzionaltasun eza

[Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 21eko 140/2016 Epaian](#), erakunde honek aurreko txostenetan ardura sortzen ziola adierazitako gai bat aho batez ebatzi zuen, hau da, pertsona juridikoek Justizian sartu ahal izateko ezarritako tasak.

Ekintza judizialak burutzeko ordena zibilean, administrazioarekiko auziaren eta gizarte ordenan ezartzea berez ez dela konstituzioaren aurkakoa adierazi ondoren, Auzitegi Gorenak [azaroaren 20ko 10/2012 Legearen](#) 7. artikuluko 1. eta 2. atalak horretarako aipatzen zituzten zergak bai zirela adierazi zuen, gehiegizkoak zirelako. Ondorioz, konstituzioaren aurkakotzat jo ditu, judikaturaren, abokatuen, sindikatuak eta kontsumitzaileen alorreko adituek eskatzen zutenarekin bat, neurrigabekoak direla eta pertsona juridikoak Justizia Epaitegietara jotzea ekiditea sor lezaketela ulertzen duelako, euren errekurtsioen arabera zaintza judizial eraginkorrerako eskubidearen eraginkortasuna baldintzatuz.

4. Jardura-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

4.1. Bilerak elkarteekin

Arartekoarekin Giza Eskubideak prozesu penalean bermatzeko sistemaren eragingarritasunari buruzko elkarrizketa izan ahal duten gobernuz kanpoko erakundeetatik eta tokiko zen nazioarteko elkarteetatik jasotako eskaerak aztertu ditugu.

4.2. Erakundeetako eta korporazioetako arduradunekin bilerak

Urtean zehar, lan-bilerak egin ditugu **Epaitzak**o kide ugariarekin. Erakunde honekin izan duten lankidetzak ez da agerikoa soilik adierazi ditugun kudeaketa zuzenetan, baizik eta baita adingabeen aurkako sexu-jazarpen salaketan ondoriozko prozesu penalen instrukzioa bezalako alderdi zehatz batean iritziak alderatzen lagundu digutelako ere.

Era berean, EAEANgo **Gobernuko Idazkaritzarekin** eta lurralde historiko bakoitzaren Idazkari Koordinatzaileekin lan egiteko aukera izan dugu, adierazi dugun bezala. **Fiskaltzari** dagokionean, herritarrek erakunde honetara arazo ezberdinek konpontzera jotzen dutenean emandako laguntzaz gain, Arartekoak **Europar Estatu Fiskalaren** gaineko lana emankorra antolatu zuen, horren erredakzio-taldearen koordinatzailea fiskal nagusiarekin eta Euskadiko probintzia fiskal buruekin bildu zuen Europar Batzordeko Justizia Zuzendaritza Orokorrean.

Korporazio profesionalei dagokienez, harremanetan egon gara eta lankidetzan aritu gara hiru lurralde historikoetako abokatuen elkargoekin, baita Abokatuen Euskal Kontseiluarekin ere, erakunde horren jardueraren aurka aurkeztutako keketan agertzen diren bi alderdien gainean: alde batetik, doako justiziaren inguruko auziak, bereziki bezeroak konfiantza galtzen duenean esleitutako abokatuaren aldaketan; bestaldekik, prozedura-bermeak lanbidearen kontrol deontologikoan, bereziki, espedienteak ikusteko eta amaierako ebazpenen arrazoiketa ezagutzeko aukerari dagokionez.

Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailarekin bildu gara, eta horren arduradunekin, arlo horretan jasotako keketatik eratorritako egitura-alderdiei heltzeko aukera izan dugu. Era berean, Justizia Administrazioarekin kolaboratzeko zerbitzuak bisitatu ditugu, biktimari laguntza, bitartekaritza eta zigor-betearazpen eremuan emandako kolaborazioaren harira.

Eremu honetako instituzioen arteko kolaborazioa **unibertsitate eremuraino** hedatzen da, eta aurten Kriminologiaren Euskal Institutuarekin egondakoa azpimarratu beharra dago, bereziki Justizia Konpontzailearen gaiaren gainekoa, baita [Euskadiko torturaren gaineko ikerketa 1960 eta 2013 artean](#) ere.

4.3. Ekitaldian parte hartzea, txostenetan parte hartzea eta materialak egitea

Arartekoaren presentzia publikoa zabala izan da arlo honetan landutako gaiekin lotuta. Arartekoaren esku-hartzea honako foru hauetan nabarmen daiteke:

- Justizia Auzitegi Nagusia. Biktimaren Estatutuaren gaineko lan jardunaldia
- Ombudsmanaren Nazioarteko Erakundea (Bartzelona). Mehatxuen aurrean Ombudsmanaren Nazioarteko Mintegia. Txostena: *“Askatasun-segurtasun dilema”*
- Oñatiko Lege Soziologiako Erakundea. Estatuaren esku-hartze zigortzailearen mugei buruzko nazioarteko mintegia. Txostena: *“Securitization & Surveillance: Administrative sanctions and the Ombudsman”*
- Ombudsmanaren Nazioarteko Erakundea (Bartzelona). Giza Eskubideen gaur egungo erronken nazioarteko mintegia. Txostena: *“Eskubideen defentsatik segurtasuna birpentsatu”*
- Oñatiko Lege Soziologiako Erakundea. Genero Indarkeriaren eremuko Justizia Konpontzaileari buruzko mintegia
- Euskal Herriko Unibertsitatea (Gipuzkoako campusa). Justizia Konpontzailearen Europar Kongresua. Justizia Konpontzailearen gaur egungo erronken eztabaidaren aurkezpena.
- Euskal Herriko Unibertsitatea (Gipuzkoako campusa). Tortura salaketen ikerketei buruzko Udako Ikastaroa. Eremu horretako europar jurisprudentziaren irizpideei buruzko hitzaldia.
- Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritza. Hiria Giza Eskubideen kultura bat sustatzeko eremu gisa, hitzaldia.
- Gasteizko Udala. Justizia Konpontzailea eta indarkeria matxista: Marko hitzaldia

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

5.1. Justiziaren eraginkortasuna eta organizazioa

Gure epaitegi eta auzitegietan azken urtean sartu ziren 270.000 gaiak konpondu zirenak baino gutxiago izan ziren, eta txosten hau ixteko momentuan izapidetzen ari zirenak azken hiru hilabeteetan sartutakoekin bat zihoan. Erantzun epeei dagokienean, lehenengo instantziako batz bestekoa 3,1 hi-

labetekoa da eta 1,6 hilabetekoa bigarren instantziakoa. Hori guztia profesionalen konpromisoaren eta lan onaren isla da, eta auzi kopuru baxuarekin batera, mila herritarretatik 122 gai ditu, eta estatuko batz bestekoaren 10 puntu azpitik dago. Horrek Euskadiko Justizia Administrazioaren eragin-kortasuna agerian jartzen du.

Horrela egiaztatu ahal izan dugu Arartekoak bere jardueraren eremu honetan aurkeztutako kekek aztertzean. Edozein kasutan, sortu zuten kasu partikularretan hartutako erabakiaz haratago, salatutako disfuntzio eta atzerapenek egitura gabeziak azaltzen zituzten, eta horiek gainditzeko, erakunde honen ustez, hiru alderdian aldatetako eman behar ziren:

- Sail judizialaren diseinu zorrotza, partidu judizial bakoitzaren mugen kooperazio juridikozionala mugatzen duena, pertsona bakarreko epaitegietako titularren eta lan kargen probintzia birkokatzearen arteko juridikzioaren elkargoaren jarduna mugatzen duena. Konplexutasun handiko gaiak izapidetzeko beharrezko esfortzuak berriaz orekatzen edo gainzama arintzen duten mekanismo arinak hartu behar dira, baita masa-azuziak ere.
- Espezializatutako epaitegien gabezia
- Planta organikoaren eredu berritzea praktikan jartzeko beharra, Instantzia Epaitegiak sortuz.

5.2. Espediente digitala

[42/2015 Legea](#), informazioa ematen den urtearen hasierak erreferentzia bat ordezkatzeko zuten. Horretatik abiatuz, eragile juridikoen Justizia Administrazioan existitzen diren sistema telematikoen erabili beharko zituzten, bai idatziak eta dokumentuak aurkezteko komunikazio prozesaleko jardunak burutzeko ere. Prozesua graduala izan da 2016an, epai jakinarazpenetatik hasita, urte erdian izapide idatzietara eta aldean ordezkari prozesalek aurkeztutako hasiera idatzietara pasatzeko. Horretarako JustiziaSip aplikazioa jarri da martxan, eta [Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailaren 2016ko maiatzaren 19ko Ebazpenak](#) erregulatu du.

Eragile juridiko guztiek, hala ere, Justizia Administrazioan IKTen erabilera erregulatzen duen [uztailaren 5eko 18/2011 Legearen](#) aurreikuspenei jarraiki ezarritako epeen errealismoa zalantzan jarri dute. Espediente elektronikoak partekatutako eta ukaezina den helburua du, zalantzarik gabe. Jasotako kekek, hala ere, pixkanaka ezartzeak aurre egin beharrek konpondu gabeko arazoak alde batera uztea galarazten digute, bai paperaren kulturatik kultura digitalera pasatzeak dituen arazoengatik baita beharrezko azpiegitura informatiko faltagatik ere. Horien artean, honako hauek aipa ditzakegu:

- Fiskalek epaitegiekin duten barne komunikazio digitala txosten hau ixterakoan aurkeztutako azken [Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Fiskaltzaren Memorian](#) dituen arazoak islatzen ditu.
- Epaitegi eta Fiskaltzaren eta Ertzaintzaren arteko jakinarazpenak.

- Epailleek espedientea datu guztiekin batera ikusteko, batzuk bereziki luzeak direnak, behar dituzten eki-poak, lan egin behar duten lekuetan.
- Tiflotecnía: JustiziaSip plataforma ez da ikusmen ezgaitasuna duten pertsonentzat eskuragarria, bere beharrak eta [Ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta euren gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren](#) errekerimenduak kontuan hartu gabe. Ondorioz, hura ezartzeak arazo larriak sortu dizkie abokatuari eta beste eragile juridikoei. Izan ere, euren kexak direla eta, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailari “persona guztientzako diseinua” printzipioan oinarritutako konponbide bat eskatu zion, eta txosten hau ixteko momentuan hura martxan jartzeko lanean jarraitzen zuen.

5.3. Doako justizia

2016an 20 urte bete dira doako asistentzia juridikoa erregulatzen duen araudia, [urtarrilaren 10eko 1/1996 Legea](#) indarrean sartu zenetik. Orduetik, eta batez ere krisiak markatutako azken hamarkadan, onuradun kopuruak gora egin du, eta azken urtean gorakada % 20koa izan da.

Txosten hau ixteko momentuan Eusko Jaurlaritzak 14,5 milioi euroko inbertsioa egitearekin -2015eko kopuru berdina-, Ofiziozko Txandara jo behar izan zuten pertsonak 25.000 inguru izango ziren aurten Euskadin. Horrek kohesio sozialari dagokionean lorpena izan arren, hura mantentzeak baliabideak handitzea dakar; bestela, euskal Abokatzak salatzen duen bezala, arretaren handitzea bakarrik izango da posible abokatu bakoitzaren ordainketa, egun gertatzen den bezala, urtez urte murrizten bada. Hau, lehiakortasun askearen mesedetan zerbitzua lurraldeko zela zabaldu jartzearekin batera, eremu honetan planteatu diren erroka garrantzitsuenetako bat izan daiteke. Sailean izapidetutako espedienteen harira, edozein kasutan beste bi adierazi daitezke:

- Egiazatu ahal izan dugun moduan, euskal Abokatzak ematen duen asistentzia juridikoaren kalitatea oso altua da ofizioz jarduten duenean eta modu partikularrean esleituta dagoenean, kasu gehienetan. Dena den, horrela ez den ez-ohiko kasuetan, abokatuaren elkargoetan esleitutako defentsaren akatsak zuzentzeko eta ordezkatu ere egin dezaketen sistemak existitzea beharrezkoa da, egungoak baino arinagoak direnak eta behin-behineko diziplina arduetatik haratago, justiziaren menpe dagoen pertsonaren eskubidea bermatu ahal izateko beharrezkoa balitz bederen.
- Gizarte bazterketa egoerak sortzen dituzten hipoteka betearazteko eremuan, arazoaren eragina kontuan hartuta, sor dezaketen ahulgarritasun egoerak eta ekidin ahal izateko kalitatezko asistentzia juridikoa izateak duen garrantzia, Arartekoak botere publikoei hiru lurraldeetan alor honetan espezializatutako ofiziozko txanda bat sortzeko egokitasunaren gaineko gogoea egiteko eskatu die, beste autonomia erkidegoetan existitzen den bezala.

5.4. Sexu abusuen biktimen adingabeei arreta ematea

Arartekoak aurten zabalduetako ofiziozko jardunen artean, gure epaitegietan agertzen diren haurrek jasotzen duten arretari dagokiona azpimarratu beharra dago, biktima edo lekuko gisa izan, balizko sexu abusuen kasuan.

Horren markoaren barruan, erakunde honek Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Aretorekin eta Fiskaltzarekin lan saioak deitu ditu, baita abokatuaren kualifikatutako ordezkariekin ere, partekatutako helburu batekin: kontradikzio printzipiotik eta defentsarako bermetik sortutako prozesu eskaerak espainiar eta europar araudian agertzen diren haurrak babesteko irizpideekin bateratzea. Zentzu honetan, eta erreferentzia gisa [biktima eta lekuko diren adingabeak babesteko Estatu-ko Fiskaltza Orokorren 3/2009 Zirkularra](#) hartuz, hobetzeko eremu bezala honakoak identifikatuko ditugu:

- Bulego adiskidetsuak adingabeek parte hartu behar duten diligenziak praktikatzeko.
- Ireki aurretik esku hartu duten beste sistema publiko batzuek igorritako txosten teknikoaren zigor prozeduran aintzat hartu eta jaso, eta bereziki euskal osasun sistemak eta gizarte zerbitzuak.
- Adingabeei praktikatutako frogak bete beharreko denbora, espazio eta lan dinamikaren baldintzak, nahikoa ez den instrukzio jardura baten parte bezala, aldi berean bigarren mailako biktimizazioaren prebentziorako baliagarria dena.
- Adingabeekin egin beharreko Justizia Administrazioako zerbitzuen eta langileen berariazko formazioa, eboluzio garapenari eta prozesuaren ulermen mailari buruzkoa.
- Hasieratik haurrei eman beharreko arreta terapeutikoa.

5.5. Auzitegiko medikuen greba

Epaitegietako egunerokotasuna markatu zuen gertakarietako bat auzitegiko medikuen greba izan zen, soldata, formazio eta zerbitzua emateko baldintzak hobetzeko eskarietatik abiarazitakoa, kontatzen ari garen epealdiaren erdialdean eman zena. Eragin handia izan zuen atzerapenak sortu zituelako, eta hainbat kexa sortu zituen lesio batzuk edo ezgaitasun bat ebaluatzeko hitzordua eman zieten pertsonen diligenzia bertan behera eta prozesua geldiarazi zitelako. Gauza bera esan daiteke erasoan, lan-istripuen eta ohiko istripuen biktima izan diren pertsonen balorazioez, baita etorkin adingabeen edo zigor prozedura zehatzen egozgarritasunaz ere.

Horrek guztiak Justiziaren zerbitzu publikoan izan zuen eragina dela eta Bizkaiko Auzitegiak eta Euskadiko Fiskaltza Nagusiak profesional hauek Justizia Administrazioako laguntzaile gisa duten garrantzia eta izaera ordezkazina gogoratu zuten, baita “epaitegietako kolapso orokor bat” ekiditeko akordioa lortzeko deialdi publikoa egin ere.

2016ko irailean greba bertan behera geratu zen gatazka konpondu gabe. Hori dela eta, urte honetan akordioa lortzea desiragarria litzateke, zerbitzuaren funtzionamendu egokiaren mesedetan.

5.6. Abxilotuen eskubideak

Aurten, Giza Eskubideen Europar Auzitegiak berriz ere kondenatu zuen Espainia torturak ez pairatzeko eskubidea urratzeagatik. Beste behin ere, Strasburgoko Gorteak aitortu zuen ez zela gutxienerako ikerketa bat egon ondo oinarritutako salaketa batean, eta Estatua Torturaren Prebentziorako Batzordeak aurretik emandako ebazpenak onartzeko agindu zio, ez betetze sistematikoarekin amaituz.

Tortura salaketen ikerketak inpartziala, azkarra, eraginkorra eta zorrotza izan behar du. Giza Eskubideen kultura zabalatzeko eta horretan sakontzeko lanarekin konpromisoa duen erakunde gisa, Defentsa Bulego honek ezin ditu eremu honetako prebentziorako europar jurisprudentziak eta erakundeek helarazten dizkioten gabeziak alde batera utzi. Aldiz, horiek erreklamatzeko dituzten neurri zuzentzaileak hartzea sustatzeko betebeharra du, baita ez betetzea salatzen dutenei, urte erdialdean [epaile eta magistratu ugari](#) egin zuten moduan, laguntza eman ere. Eginkizun honi erantzuna eman zion [Torturaren Biktimak laguntzeko Nazioarteko Egunaren Arartekoaren aitortpenak](#), [Torturaren Aurkako Nazio Batuen Kontalariaren](#) laguntza publikoki jaso zuena, Euskal Herriko Unibertsitateak Donostiako Kanpusean eremu honetan antolatutako Ikastaroaren harira, eta bi erakundeek parte hartu zuten.

Horregatik guztiagatik, biktimek egia, justizia eta konponketarako duten eskubideak aurten instrumentu baliagarri bat lortzea espero da, Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzak Idazkaritzak sustatutako [tortura Euskadin 1960 eta 2013 artean](#) ikerketa zorrotzaren ondorioak publikoki agertzen direnean, aditu talde entzutetsu bat garatzen ari dena, Zuzenbidea, Antropologia, Kriminologia, Medikuntza eta Gizarte Psikologia barne hartzen duen diziplina anitzeko ikuspegi batekin.

5.7. Kostu judizialak

Administrazioak erreklamatzeko dituen kostu judizialen kopuruarekin lotutako kexen harira, erakunde honek administrazioarekiko auzietarako apelazioaren arriskuei buruzko [2009ko abenduaren 31ko Gomendio Orokorra](#) betetzearen jarraipena egin du: erabiltzaileei ematen zaien informazioa hobetzeko eta administrazioaren kostu bezala erreklamaturako profesionalen ordainsariak aztertze beharra.

Modu honetan, egiaztatu dugu epaiketa bat irabazi ostean Osakidetza haren abokatuen ordainsari profesionalak kalkulatzeko dituela prozesuko kostu bezala erreklamatzeko xedez, erabiltzen duen irizpide bakarra galtzaileak erreklamaturako kalte-ordainaren kopuruaren gaineko ehuneko bat ezartzea da. Horrek, kontzeptu horren pean erreklamatzeko dituen kopuru batzuk, beharbada ereduagarriak izan eta eragozteko balio dezaketenak, errekurso egileak ordaindu ezin ditzakeen zenbaterako handietara iristea eragiten du, eta hala ezegonkortasun egoera nabarmen handitzea eragiten du. Izan ere, herritarrek arrazoi honengatik Euskal Osasun Sistemaren aurka jartzen jarraitzen dituzten kexetan gomendio hori sortu zuten kasuetan ikusi genituen desinformazio eta abokatuen praxi txarreko egoera berdinak ematen dira.

Beraz, azpimarratu beharra dugu euskal administrazioek, salbuespenik gabe, jurisprudentziak, automatismoetatik at, eremu honetan gehiegikeriak saihesteko legeak jasotzen dituen justizia irizpideetara egokitze ezartzen dituen irizpide berdinak ezartzea kostu gisa jasanaraziko diren ordainsarien kalkuluetan barne hartzeko. Arartekoak pertsonen eskubideak defendatzeko eginkizuna dauka, administrazio onaren parametroak irizpide. Horregatik parametro horiek sustatu behar ditugu gure eskumeneko administrazioetan, epaitegi batek halakorik ezartzearen zain egon gabe. Izan ere, neurketa irizpide horiek justiziako administrazioaren erabiltzaileen eskubideen eduki materiala uneoro konfiguratzeko laguntzen dute, egonkortuta dagoen jurisprudentzia ildo osatzen dutelako. Aipatu ditugun eskubide horien arabera egokitu behar dute botere publikoek beren jarduna.

II. ATALA

6

INGURUMENA

1. Arloa kopurutan

Ingurumen-arloaren barruan, lurzoruari, urari edo aireari eragiten dieten kutsadura-kategoriek sortutako kalteei buruzko erreklamazioak biltzen dira. Horrez gain, giza jarduerak espazio naturalengan, florarengan eta faunarengan duen eragina aztertzen da. Guztira, 2016an, 93 kexa aurkeztu dira. Kexak azpiarloetan banatzen dira; horretarako, irizpide material bat aplikatzen da, salatutako ingurumen-afekzioarekin lotutakoa. Hala, kutsadura akustikoa, atmosferikoa, lurzoruarena eta urarena izan daiteke, baita beste eragile kutsatzaile batzuek eragindakoa ere. Horrez gain, ingurumen-kontrolari buruzko erreklamazioak eta informazioa eskuratzeko eskubidea gauzatzeari eta ingurumeneko parte-hartzeari buruzko erreklamazioak desberdintzen dira.








Eragindako administrazioen arabera, kexak modu honetan banatzen dira:

- Tokiko administrazioa 58
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurilaritza) 14
- Foru administrazioa.....2

Azpiarlokako banaketaren arabera, sailkapena honako hau da:

- Kutsadura akustikoa 59
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazioaren prozedura 13
- Ingurumenaren kontrola.....9
- Ingurumenaren informazioa eta parte-hartzea.....5
- Kutsadura elektromagnetikoa.....4
- Lurzoruaren eta uraren kutsadura1
- Natur gune babestuak. Flora eta fauna babestea1
- Ingurumeneko beste kutsadura batzuk.....1

Arlo honetan aurkeztutako kexen izapidetze-egoerari eta emaitzari dagokienez:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herriarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
208	167	41	22	10	2	7

Ingurumen-eremuko kexa-jarduketa gehienak kutsadura akustikoarekin lotuta daude. Zehazki, kasu horietan, herriarrek salatzen dute beharrezkoa dela udalek administrazio-kontrol egokia burutzea, zarata etxeetan sartzen den kasuen

aurrean. Funtsean, kutsadura-fokuak espazio publikoetatik datoz, ostalaritza-jardueretatik, industrietatik edo garraiobide-azpiegituretatik. Eremu honetan, ingurumen-informazioa eskuratzeko jarduteko arrazoi nagusi bat izaten jarraitzen du.

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Ingurumen arloko informazioa eskuratzeko eskubidea

Arartekoak erreklamazioak jasotzen jarraitzen du, ingurumen-informazioa eskuratzeko eskaerei erantzuteko atzerapenari dagokionez.

Izan ere, pertsona batek adierazi du ingurumen-informazio eskaera baten erantzuna atzeratu dela, araudian aurreikusitako hilabeteko epe horren barruan. Informazioa hondakinak kudeatzeko instalazio baten ingurumen-zainketako programa batean 2004., 2005., 2006., 2007. eta 2008. urteetan erregistratutako dokumentazioari buruzkoa zen. Arartekoak informazioa eskatu zuen informazioa eskuratzeko eskaeraren egoerari buruz eta informazio hori bidaltzeko atzerapenaren inguruan. [Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak](#) erakunde honi helarazi zion kexagileari emandako erantzuna; horretan, informazioa eskuratzeko eskaera onetsi zen. Hori bidaltzeko atzerapenari dagokionez, txostenean adierazten zen eskatutako informazioaren bolumena kontuan hartuta, eskatutako informazioa dagokion epearekin batera, ezin izan zela aurreikusitako epean erantzun. Behin erantzun hori baieztatuta, Arartekoak amaitutzat jo zuen bere esku-hartzea. Hala, administrazioari gogorarazi zion ingurumen-informazioko eskaerak arin eta lehentasunez izapidetu eta ebatzi behar direla, ingurumen-informazioa eskuratzeko eskubidea arautzen duen araudian aurreikusitako epeetan. Aztertutako kasuan, ingurumen-administrazioak eskatzaileari jakinarazi behar zion eskaera jaso zuela. Horrez gain, erantzuteko hilabeteko epea luzatzen zela jakinarazi behar zion, ingurumen gaietan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitegietara joateko eskubideak arautzen dituen [uztailaren 18ko 27/2006 Legearen](#) 10. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Legezko betebeharrak horren osagarri gisa, interesgarria izan daiteke beste formula batzuk bilatzea informazio nahikoa helarazteko eta ingurumen arloko gaietan interesa duten pertsonen informazioa hobetzeko.

2.2. Kutsaduraren ingurumen kontrola

Arartekoak kontu honetan duen eginkizun nagusia da kexa eta erreklamazioak jasotzea euskal herri-administrazioek egiten duten ingurumen-kontrolaren funtzionamendu egoiaren inguruan. Funtsean, banakako pertsonak edo taldeek

eskatzen dute eginkizun hori betetzeko; izan ere, erakunde honetara jotzen dute salatuz beharrezkoa dela neurriak hartzea, inguruko giza jardura kutsatzaileek ingurumenean edo osasunean dituzten ondorio kaltegarriak aurre egite aldera. Kexa horietan adierazten da ostalaritza-jardueren (tabernak, jatetxeak, diskotekak...) eta bide-azpiegituren (errepideak, trenbideak, tranbiak...) zarata etxeetan sartzen dela. Bestelako arazo batzuk ere badaude. Adibidez, prozesu industrialek edo hondakin-uren araztaileek eragindako usainak eta kutsadura atmosferikoa. Arazo horiek gogai-karriak izan daitezke eta oso arriskutsuak ere bai, etxeetan sartzen diren igorpenengatik. Hori gertatzen da jardura ez dagoelako jardueren funtzionamendua ahalbidetzen duen araudi-esparrura egokitu.

Kexa nagusia da administrazioek ez dutela erantzunik eman arazo horien aurrean. Ez da erantzun zenbait arrazoiengatik. Kasu askotan, administrazioari informazioa eskatu ostean, Arartekoak egiaztatu ahal izan du esku-hartze administrazioaren bat burutu egin dela. Kasu horietan, jardueraren titularrari salaketaren berri eman zaio eta neurriak hartzeko ere eskatu egin zaio, eskatzaileen etxean zarata berriz ere legez kontra ez sartzeko. Halakoetan, administrazioaren funtzionamendua ez da egokia interesdunari ez zaiolako behar bezala jakinarazi administrazioak salaketaren aurrean emandako erantzuna. Beraz, interesdunak ez daki zeintzuk diren hartutako neurriak, eta hala badagokio, jatorrizko arazoa konpontzeko beharrezko bitartekoak jarri ote diren.

Beste batzuetan, herri-administrazioek ez dituzte ingurumen-salaketak kontuan hartzen, baliabide teknikorik ez dituztelako edo salatutako gertakariak benetan gertatu diren egiaztatzea zaila delako. Bereziki, zaraten edo beste afekzio kutsatzaile batzuen kontrolean, beharrezkoa da berehala jardutea salaketaren egiazkotasuna edo funtsa egiaztatzean; izan ere, kasu askotan, ikuskaritzaren atzerapenak gertakariak behar bezala egiaztatzea eragozten du.

Halaber, adierazi behar da kexa batzuetan administrazioaren jarduerarik eza azaltzen dela; horietan, soilik administrazioaren aurrean tematu ostean eta Arartekoarengana jo ondoren lortzen da administrazioak erantzutea. Jardura horien kontrola, gehienetan, ukitutako pertsonen salaketen aurrean baino ez da egiten. Hala, eremu horretako erreklamazio askotan, ez dago administrazio-plangintzarik kontrolatu beharreko jardueren inguruan, ezta zainketa eta ikuskaritza programarik ere.

Bizitegi-lurzoruan kokatuta dauden jardueren udal ingurumen kontrola

Arartekoak zenbait ebazpen eman ditu, elkarte gastronomiko, taberna, jatetxe eta gazteen lokalei lotutako zarata eta bestelako eragozpenen behar bezalako kontrola sustatzeko; horien artean, ebazpen hauek azpimarra ditzakegu:

[Arartekoaren 2016ko uztailearen 4ko ebazpena](#); horren bidez, [Barrikako Udalari](#) gomendatzen zaio dagozkion neurriak hartzeko, jatetxe batek eta horren kanpoan instalatutako terrazak eragindako eragozpenak saihesteko.

[Arartekoaren 2016ko abenduaren 15eko ebazpena](#); horren bidez, [Donostiako Udalari](#) gomendatzen zaio jarritako ingurumen-salaketei erantzuteko. Kexagileak salaketa horiek jarri ditu gaueko garbiketako udal zerbitzuek bere etxebizitzaren inguruan eragiten duten zaratagatik.

Petrolioaren fintzeko planta Muskizen

2016. urtean zehar, Arartekoan kexak jasotzen jarraitu dugu, Muskizeko petrolioaren fintzeko plantaren jardueraren ingurumen-kontrolari buruzkoak hain zuzen ere. Zehazki, elkarte batek intzidente bat salatu du. Intzidente horren ondorioz, koke partikulak dituen lurrunezko hodei bat sortu zen eta partikula horiek Santa Juliana auzoaren inguruan erori ziren. Kexa-espedita aztertzeke dago, [Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren](#) erantzuna jaso ostean; bertan, hartutako ingurumen-kontrolak neurriak jasotzen dira, koke-hautsaren igorpen lausoak dagokienez. Arartekoak aurretik ere esku hartu egin du intzidentek horiei dagokienez. Zehazki, erakunde honek Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari bidali zion [2014ko abenduaren 10eko ebazpena](#), euskal herri-administrazioek Bizkaiko Petronor S.A. enpresak garatzen duen petrolioaren fintzeko jardura industrialaren gainean egiten dute ingurumen-kontrolari buruzkoa. Ebazpen horretan, Arartekoak zenbait kontu jarri zituen mahai gainean, ingurumen-ikuskaritza sistema hobetzeko eta industria igorpenen gaineko araudira egokitzeko. Horrez gain, konposatu organiko lurrunkorren eraginpean jartzearen gaia jorratu genuen –hala nola, bentzenoa, toluenoa–, baita kiratsa ere. Halaber, proposatutako beste mekanismo bat industria jardueraren ingurumen-kontrolaren jarraipena egiteko mahai bat sortzea izan zen. Mahai horretan pertsona eta elkarte interesdunek hartuko dute parte, ingurumen-informazioa zabaltzeko tresna gisa eta proposamenak, salaketak edo ingurumen arloko legeria ezartzeko eta betearazteko aldarrikapenak aurkezteko bide gisa.

2.3. Planen eta programen ingurumen eraginaren ebaluazioa

Lamiakoko Ibarren Defentsarako Plataforma herritarraren ordezkari batek Leioako udalerriko hezegune horren babes-egoera azaldu dio Arartekoari. Plataformak bere idazkian adierazi zuen hezegune horrek naturaren eta paisaiaren aldetik dituen balioak zehaztu eta babestu beharra dagoela, inguru horretan egin nahi diren obra eta azpiegituretako batzuek ekar litezketen ondorioei aurrea hartzeko edo, behintzat, haien eragina murrizteko. Lamiakoko ibarra EAEko hezeguneen inbentarioan sartu zen –2011ko maiatzaren 3ko Aginduaren bidez–, hain zuzen ere III. multzoan. Kasu honetan, Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana (HGLAP) onartzen duen [uztailearen 27ko 160/2004 Dekretuak](#) 18. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik, babes-araubidea udal planeamenduaren bitartez ezarri behar da. Plataformak azpimarratu duenez, hezegunea inbentarioan aspaldi sartu zen arren, [Leioako Udalak](#) oraindik ez du egokiro bete HGLAPeko aurreikuspen hori, hezegunearen ingurumen balioak behar bezala bermatzeko, hura udal planeamenduan

sartuz. Nolanahi ere, kexan azaltzen zen, ea hirigintza-antolamendurako tresna hori onartzeko izapideetan behar bezala ebaluatu ote diren hezegunearen ingurumen balioak eta ea babes-araubide egokia jaso ote den.

Leioako Udalak Arartekoari adierazi dionez, Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean aldaketa egin da 18. eremuan (Lamiakoko dartsena) eta 18 B-AXA eremua sortu da. Aldaketa hori 2013ko otsailean onartu zen behin betiko, eta hezegune horren babes araubidea erantsi zitzaion. Kasu horretan, Leioako Udalak ingurumen-azterlan bat egin zuen, Lamiakoko ibarraren ingurumen-balioak ezartze aldera. Udal txosten horren arabera, 18 A eta 18 B eremuan jasotako antolamendua lehengoratzearekin eta udal babesarekin bateragarria da. Hala ere, ingurumen-organoak, [Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko](#) Biodibertsitate Zuzendaritzaren bidez, bi txostenetan adierazi zuen Leioako HAPOn aldaketan ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura bete behar zela.

Arartekoak Leioako Udalari gogorarazi dio hiri antolamendurako planei eta horien aldaketei, ingurumenean eragin nabarmena badute eta 2004ko uztailaren 21a baino geroago jaso badute hasierako onarpena, zenbait plan eta programak ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzko [apirilaren 28ko 9/2006 Legean](#) jasotako prozedura aplikatu behar zaiela (gaur egun indarrean dagoen ingurumen ebaluazioari buruzko [abenduaren 9ko 21/2013 Legeak](#)). Ingurumen-ebaluazio prozedura hori [Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001eko ekainaren 27ko 2001/42/CE Zuzentarauan](#) ezarritako betebeharrak bat zen; zuzentarau hori zenbait planek eta programek ingurumenean izan ditzaizketen ondorioen ebaluazioari buruzkoa da. Autonomia erkidegoko ingurumen-organoa da ingurumenarentzat ondorio nabarmenak existitzen diren ezarri behar duena hirigintza-planak onartzen direnean. Izapide horren garrantzia Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian dago jasota. Besteak beste, apirilaren 13ko 1652/2016 epaiak zuzenbidearen araberrakotzat jo du Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean aldaketa bat ingurumen izapide hori ez betetzeagatik deusez deklaratu izana.

3. Gure esku-hartzea testuinguruaren barruan

Erakundeen arteko foroa Euskadin erakundeen koordinazioa hobetzeko ingurumen-kontrolaren eremuan

Arartekoak jardunaldi bat sustatu eta koordinatu du, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-kontrolako eta ikuskaritza organo desberdinek ingurumen-legeriaren betearazpenean dituzten esperientzia eta ohiko jardunbideak ezagutzeko aldera. Laneko jardunaldi hori 2016ko apirilaren 7an egin zen eta ingurumen-babesaren arloko jardunbide egokiak eta esperientziak partekatu ziren. Hala, erakunde bakoitzaren independentzia salbu utzita, proposamenak egin ziren eremu honetan erakundeen arteko koordinazioan sakontze-

ko. Lan-metodologiari dagokionez, lehenik eta behin, Auzitegi Gorenako Salako fiskalak eta Ingurumen eta Hirigintza ataleko koordinatzaileak Ingurumeneko fiskaltzaren eginkizunaren inguruko sarrera bat aurkeztu dute. Horrez gain, ingurumenaren babes hobeto babesteko koordinazio-esperientziak azaldu dituzte. Jarraian, erakunde parte-hartzaile bakoitzak egiten duen kontrol-lan espezifikoen azalpen labur bat egin du, baita lankidetzako eta koordinazio eremu posibleen lehenengo balorazio bat ere. Eztabaidatutako gaiak, besteak beste, hauek izan dira: administrazioen eta beste organo judizial batzuen ingurumen-kontrolako funtzio publikoaren edukia; administrazioaren eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko aukerak eta herritarren parte-hartzea ingurumen-kontrolan.

Topagune horretan, zenbait euskal administrazioek hartu dute parte (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko, [Bizkaiko](#) eta [Arabako](#) foru aldundietako eta [Donostiako](#) eta [Gasteizko](#) Udaletako ikuskaritza eta ingurumen-polizia zerbitzuak), fiskaltzak eta Arartekoak.

Jardunaldi horren ondorio eta proposamenen barruan, topaketa-foro bat mantentzeko konpromisoa jaso da, ingurumen-kontrolan erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko. Parte hartu duten erakunde guztien helburu komuna da Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen gobernantza maila handitzea, erakundeen arteko harremana hobetuz. Hori guztia, ingurumen zuzenbidearen aplikazioan lankidetzaren estuagoa sustatzeko eta ingurumen alorrean diharduten aginpideen arteko koordinazioa bultzatzeko. Horretarako, proposatu da informaziorako bideak eta protokoloak ezartzeko, baita erakunde guztien arteko babes eta lankidetzaren indartzeko ere. Halaber, adierazi da beharrezkoa dela Ertzaintzaren ingurumen-unitatea indartzea eta finkatzea; horrela, erakundeen arteko koordinazioa sustatu daiteke, ingurumenaren, lurraldearen antolamenduari eta ondare kulturalaren babes zaintze aldera. Azkenik, proposatu da herritarrek parte hartzeko mekanismoak areagotzea, ingurumena zaintzeko ekintza horretan parte hartzen duten botere publikoen esku-hartze eta kontrolako maila guztietan.

Herriaren Defentsa Bulegoak koordinatzeko eta gehiegizko zarataren aurkako dekalogo bat aurkezteko jardunaldiak

Autonomia erkidegoetako herriaren defentsa bulegoek eta Espainiako Herriaren Defendatzaileak irailaren 22an eta 23an ospatu dituzte Iruñean [Herriaren Defendatzaileak Koordinatzeko XXXI. Jardunaldiak](#); jardunaldi horietan, ikuspegi desberdinetatik aztertu dute nola eragiten dion kutsadura akustikoak gure bizitza-kalitateari. Gizakien jarduerak sortzen duen zarata ohiko adierazpena da aisialdirako esparruetan eta egunerokotasunean garatzen ditugun hainbat jardueren baitan. Zarata hori neurrigabe bilakatzen denean, ezinegon handia eragiten du gure bizi-kalitatean eta gure ingurumena aztoratzen du. Herritarren ezinegon horrek gizarite-gatazka etengabeak sortu izan ditu eta, horregatik, hainbat erreklamazio eta kexa eragin ditu gure Defentsa Bulegoetan. Aurkeztutako kexen harira defentsa bulegoek eman dituzten gomendioekin batera, zenbait txosten berezi egin dira gai horren inguruan. Jarduketa horiek zarataren

kontrako gizabidezko kultura sortzeko lagungarriak izan dira eta, pixkanaka-pixkanaka botere publikoek ere igarri dute, pertsona guztiak baitute kutsadura akustikorik gabeko etxebizitza izateko eskubidea.

Defentsa bulegoek badakite zein den kutsadura akustikoak herritarren bizitza-kalitatearengan duen eragina; hala, zenbait neurrien ezarpena sustatu nahi izan dute, kutsadura akustikoaren eraginagatik urra daitezkeen konstituzio-eskubideak benetan eta eraginkortasunez bermatzeko. Neurri horiek jaso dira botere publikoei zuzendutako [herritarrek zaratarik gabeko etxebizitza bat izateko duten eskubidea defendatzeko dekalogo batean](#). Bertan, defendatzaileek legez eskuragarri dituzten ekintzak egiteko konpromisoa hartzen dute, herritarrek zaratarik gabeko etxebizitza batean bizitzeko duten eskubidea behar bezala babesteko.

Basa-hegaztien babes Euskal Autonomia Erkidegoan. Hegazti fringilidoak harrapatzeko debekua

Normalean, hegazti horiek egoera basatian bizi dira basoetan eta hiriko espazio berdeetan. Silbestri-moa deritzen giza jarduera oso zaharra da; izan ere, antzina-antzinako garaietatik landako txori txiki horiek hartu eta zaindu egin dira gatibutasunean, txiorako hartzeko eta hezteko.

Arartekoak jakin izan duenez, [Europako Batzordeak](#) zehapen-espeditentea ireki dio Espainiari, praktika zinegetiko hori justifikazio egokirik eman gabe baimentzen jarraitzen duelako. Aldi berean, zenbait talde eta elkarte ekologistek, [Seo Birdlife](#) elkarteak bezalaxe, zalantzan jarri dute hegazti horiek hartzea eta atxikitzea debekatzen duen babes-araubidearen eta silbestri-moa praktikatzearen bateragarritasuna. Basa-hegaztien babes-araubidea [basa-hegaztien kontserbazioaren inguruko 2009/147/CE Zuzentarauan](#) jasota dago; bertan, ezartzen da estatu kide guztiak modu basatian bizi diren hegazti-espezieak kontserbatu behar dituztela. Horretarako, estatuak neurriak ezarri behar dituzte; hala nola, ehizatu eta harrapatu ezin daitezkeen hegaztiak nahita harrapatzeko, saltzeko edo gero atxikitzeko debekua ezarri behar dute.

Estatu kideek basa-hegaztien babes-araubide hori salbuestsi dezakete, besteak beste, arrazoi hauengatik: *“baimentzeko, kontrol osoz eta modu selektiboan, hegazti horiek kopuru txikietan hartzea, atxikitzea edo beste edozein ustiapen zentzudun”*. Basa-hegaztien “ustiapen zentzudunak” honako hauek aipatu behar ditu: zein espezie salbuestsiko diren, baimendutako harrapaketa-metodoak eta ezarri behar diren mugak eta kontrolak.

Testuinguru horretan, ebazpen eta foru agindu batzuk onetsi dira Euskal Autonomia Erkidegoan hegazti fringilidoen harrapaketa egokitzeko eta mugatzeko. Era berean, baimenak emateko baldintzak zehaztu dira, Europako Batzordearen araudi-aldaketan eta gomendioen edo iradokizunen arabera, bai eta estatuko zein autonomia erkidegoko bilera teknikoaren arabera ere, silbestri-moa jardueraren gainekoak horiek. Hala ere, Europako Batzordeak hainbat jarduketa

hasi ditu, basa-hegaztiei buruzko zuzentarautik eratorritako betebeharrak betetzen direla egiaztatzea zuzendutakoak. Zuzentzarauaren aplikazio zuzena ezartzen duen prozedura komunitario horren ondorioaren zain egon bitartean, Araban eta Bizkaian fringilidoen harrapaketa salbuespen-araubidea indargabetu zuten. Hala eta guztiz ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoan 2009ko ekaineko Foru Agindua indarrean jarraitzen zuen, salbuespen hori aplikatzea ahalbidetzen zuena.

Arartekoak jarduketa bat hasi zuen ofizioz; hala, informazioa eskatu zion [Gipuzkoako Foru Aldundiari](#) lurralde historiko horretan hegazti fringilidoak bizirik harrapatzeko baimenaren indarraldiari buruz eta zuzentzarauan hegazti horiek kopuru txikietan harrapatzeko aurreikusitako salbuespen-araubidearen aplikazio egokiari buruz.

2016ko azaroaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak 2009ko ekainaren 2ko Foru Agindua indargabetzen duen [azaroaren 10eko 569 LI/2016 Foru Agindua argitaratu du](#); horren bidez, Gipuzkoan basa-hegazti fringilido jakin batzuen aleak bizirik harrapatzeko eta edukitzeko salbuespeneko baimena emateko araudia ezarri da. Foru Agindua berrikusi egin du txori txiki horien silbestri-moa jarduera baimentzen zuen aurreko irizpidea. Hala, erantzun egin dio Arartekoak hasitako **ofiziozko jarduerari**. Arartekoak jarduera hori hasi du basa-hegaztien kontserbazioaren inguruko Zuzentzarauan eta [Ondare Naturalaren eta Biodibertsitatearen Legean](#) aurreikusitako hegazti fringilidoak kopuru txikietan hartzeko salbuespen-araubidea eraginkortasunez betearazteko.

Euskadi 2020 Estrategia Energetikoaren berrikuspenaren ingurumen-ebaluazio estrategikoa

2016. urtean, Eusko Jaurlaritzako [Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila Euskadi 2025 Estrategia Energetikoa \(3E2025\)](#) eratzen hasi zen, aurreko 3E2020 Estrategia araudiaren, teknologiaren eta merkatuaren aldaketek ezartzen dituzten errekerimendu berrietara egokitzeko. Hala, 2016ko urtarrilaren 14ko EHAAK jaso du 2025erako Euskadiko estrategia energetikoa ingurumen ebaluazio estrategikoa bete behar duela, Euskadiko Ingurumena Babesteko [otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrarekin](#) bat eginez. Horretarako, 3E2015 strategiaren [ingurumen-azterlan estrategikoa](#) aurkeztu zuen kontsulta publikorako. Geroago, [Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren 2016ko uztailaren 4ko ebazpenaren bidez](#), Euskadi 2030 Estrategia Energetikoaren ingurumen-adierazpen estrategikoa egin zuen.

Arartekoak ingurumen-eskakizun hori jaso zuen Eusko Jaurlaritzako Industria eta Ingurumen Sailei zuzendutako [2012ko azaroaren 19ko Gomendioan](#). Gomendio horretan, Arartekoak 2020rako Euskadiko estrategia energetikoaren berrikuspen prozesua hasteko eskatu zuen, Euskadin dauden gas naturaleko meategien (“fracking”) esplorazioaren eta ustiapenaren ingurumen ebaluazio egokia txertatu ahal izateko. Ebazpen horretan, Arartekoak adierazi zuen eztabaida soziala, gardena eta irekia hasteko aukera zegoela, Euskadik ezarri nahi duen eredu energetikoaren inguruan.

Hori dela-eta, estrategia energetikoa berraztertuz eta horren ingurumen ebaluazioa eginez, eztabaida sustatu ahal izan da, modu horretan, euskal eredu energetikoari buruz eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean gasa erazteko egon daitezkeen aurreikuspenei buruz.

Arartekoak azpimarratu du oso garrantzitsua dela ingurumen-ebaluazioko prozedura Eusko Jaurlaritzak egindako Euskadi 2030 (3E2030) Estrategia Energetikoaren berrikuspenean. Ingurumen-ebaluazioko prozedura hori [Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001eko ekainaren 27ko 2001/42/CE Zuzentarauan](#) ezarritako betebeharrak bat zen; zuzentzarau hori zenbait planek eta programek ingurumenean izan ditzaketan ondorioen ebaluazioari buruzkoa da.

Eredu energetiko berri batera igarotzea

Gai horri dagokionez, Arartekoa ez-ohiko txosten bat egiten hasi da ekitaldi honetan Euskadi eredu energetiko berri batera igarotzeki buruz. Eredu hori iraunkorra izango litzateke eta baxua karbono-igorpenetan (arreta handiagoz kontsulta daiteke txosten honen II.8 kapituluak: “Jarduera ekonomikoaren antolamendua”).

4. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Euskadiko Tokiko Erakundeek [apirilaren 7ko 2/2016 Legeak](#) Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko erakundeek eskumen-esparrua ezarri du. Arlo horri dagokionez, adierazi behar da 17. artikulua jasotzen duela udalerriek berezko eskumenak gauzatu ahalko dituztela honako esparru hauek: “*Ingurumenaren babesa eta garapen jasangarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta*”. Era berean, antolamendu, kudeaketa, egikaritze eta diziplinako eskumenak onartzen dira hirigintzaren eremuan. Lege horren 43. artikulua aitortzen du herritarrek ingurumen eta hiri-espazio publiko egokia eta iraunkorra gozatzeko eskubidea dutela. Tokiko erakundeek gutxienezko gardentasun-betebeharren barruan, 54 d) artikuluan hirigintza eta ingurumen zerbitzuen inguruko informazio agregatua, laburra eta argia eskaintzea jasotzen da.

Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailburuaren [2016ko maiatzaren 10eko Aginduak](#) 2016rako laguntzen deialdia eta horren oinarri arautzaileak ezarri ditu. Laguntza horiek emango dira EAEko lurraldea zaintzeko akordioetan jasotako ondare naturalaren kontserbazio aktiborako jarduketak finantzatzeko. Lurraldea zaintzeak esan nahi du lursailen jabeen edo erabiltzaileen eta zaintza-erakundeek artean bondatezko akordio bat egon behar duela. Zaintza-erakundeak biodibertsitatea eta geodibertsitatea kontserbatzeko jarduerak egiten dituzten eta irabazteko asmorik ez duten erakundeak edo elkarteak dira.

Horrez gain, Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailburuaren [2016ko maiatzaren 6ko Agindua](#) onetsi da; horren bidez, mehatxatutako hegazti-espezieak erreproduzitzeko, elikatze, sakabanatzeko eta kontzentratzeko lehenetsuneko eremuak mugatu dira. Gainera, abifauna babesteko guneak argitaratu dira; bertan, tentsio altuko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatze edo horien aurka ez jotzeko neurriak aplikatuko dira.

5. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

5.1. Ofiziozko jarduerak

Arartekoak ofiziozko 4 espediente hasi ditu ingurumenaren eremuan (horietako bi aipatu ditugu kapitulu honetako 3. atalean). Espediente bat hedabideetan agertu den salaketa bati buruzkoa da; Arrigorriagako zenbait herritarrek jarri dute salaketa hori ostalaritza-establezimendu bateko zarrak eragindako eragozpen larriengatik. Informazio horren arabera, Arartekoak egokitzat jo du ofizioz izapidetzea espediente bat, gai horren inguruko datuak biltzeko eta horren inguruan hartutako ingurumen-kontrolako neurriak egiaztatze aldera.

Arartekoak beste behin esku hartu du ofizioz Hondarribiko gazte-lokal batean sute bat egon zela jakin ostean. Prentsan agertu den berriaren arabera, intzidente hori dela-eta, zortzi etxebizitza hustu behar izan ziren. Ofiziozko jardueraren helburua da informazioa eskuratzea udalak ingurumen eta hirigintza kontrolaren eta diziplinaren eremuan dituen eskumenak gauzatzeko burutzen dituen jarduketei buruz. Horrez gain, lokal horien funtzionamendu zuzena bermatu nahi da eta arriskuak saihestu erabiltzaileentzat eta jarduera horien inguruan bizi diren herritarrentzat.

5.2. Bilerak elkarteekin

Lankidetzaren esparru hori erreklamazio zehatzak aurkeztuz, aldi berean behingo bilerak eta dibulgazio jardunaldiak eginez garatzen da, baita teknologia berriak erabiliz ere, hala nola, Arartekoaren ingurumen bloga.

Harremanen testuinguru horren barruan, nolabaiteko harreman izan dugu ondorengo elkarte auzotar eta ekologistekin: [Ekologistak Martxan](#), [Ezpitsua](#), [Eguzki](#), [Lobo de Euskadi Taldea](#) eta [Coordinadora Anti Coke](#) plataforman dauden zenbait talde eta elkarteak, [Belartza 2 Gelditu plataformakoak](#).

Ingurumen arloan erabiltzen dugun beste komunikazio tresna bat Arartekoaren ingurumen foroa (<http://blogak.ararteko.net/ingurumena/>) Ingurumeneko blogaren urteko balantzea kontuan hartuta, 11 sarrera egon dira eta 4.000 bisita baino gehiago izan ditu (23.000 bisita abiarazi zenetik).

5.3. Topaketak herri-administrazioekin eta beste erakunde batzuekin

Ingurumeneko fiskaltza koordinatzailea

Arartekoak Auzitegi Goreneko Salako fiskalaren eta Ingurumen eta Hirigintza ataleko koordinatzailea den Antonio Vercher jaunaren bisita jaso zuen 2016ko apirilaren 7an eta 8an. Bisitaren helburua izan da ingurumeneko fiskaltza koordinatzaileak ingurumenaren aurkako delituak ikertzeko eta jazartzeko gidatutako jardueraren berri izatea. Horrez gain, topaketa horretan fiskaltzari Arartekoaren eta beste euskal erakunde batzuen lana aurkeztu zaio, ingurumen-eskubideen aitorpenari dagokionez.

Bisita horretan, Arartekoa Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenaren alorreko arduradunak diren fiskaltzetako atalekin bildu da. Topaketa horren helburua izan da bi erakunde arteko komunikazio arina mantentzea, bi erakunde horiek ingurumenaren, hirigintzaren eta ondare kulturalaren babesean garatzen duten lanari dagokionez. Biler horretan, ingurumen-kontrollean eskudunak diren erakunde publikoen topaketaren balorazioa egin dute batera (Kapitulua horren 3. Atalean aipatutakoa).

Egonaldi horretan, biler bat egin da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuarekin eta horren taldeko zenbait kidekin. Era berean, Ertzaintzako Ingurumen Atala bisitatu da (Erandioko polizia-etxean), Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburuarekin batera.

Zarataren inguruko lantegia

Arartekoak [zarataren inguruko lantegi bat antolatu zuen 2016ko maiatzean](#); bertan, Estatuko Defentsa Bulego guztietako ordezkariak hartu dute parte. Jardunaldi horretan, kutsadura akustikoak gure bizitza-kalitatearengan duen eragina aztertu da eta herri-administrazioei zuzendutako ondorioak eta gomendioak jasotzen dituen dokumentu bat sortu da.

Ingurumeneko Fiskaltzaren seminarioa

Arartekoak Ingurumen Fiskaltzak antolatutako seminario batean parte hartu zuen 2016ko ekainean; seminario hori Valsainen egin zen (Segovia), [Ingurumen-hezkuntzako Zentro Nazionalarekin \(CENEAM\)](#) elkarlanean. Arartekoak honen inguruko esku-hartze bat burutu du: [“Ingurumen-ikuspegia Europako testuinguruan. Defentsa Bulegoen papera ingurumen-kontrollean”](#). Azalpen horretan, adierazi du Europako ingurumen-zuzenbideak eragin positibo duela estatu kideengan. Horrela, bi mugari nabarmendu dira: ingurumena politika publikoetan integratzea eta ingurumenean parte hartzeko eskubideak beren-beregi aitortzea. Horrez gain, zenbait kasu azaldu ditu, non, Arartekoaren eguneroko esperientzia ikusita, azter daitekeen erkidegoko zuzenbidea ingurumen-eskubideak eratzeko funtsezko oinarri bat izan dela eta izaten jarraitzen duela.

5.4. Iritzi artikulak eta erakunde adierazpenak

Ekainaren 5ean ingurumenaren nazioarteko eguna ospatu zen; hala, [Nazio Batuen Erakundeak Go wild for life/Enloquezca por la Vida](#) lema aukeratu zuen 2016rako, planetan bizitza basatia babesteko esfortzuak biltzeko. Arartekoak erakunde-adierazpen bat egin zuen Xabier Maiztegiri gorazarre egiteko; azken hori albatari ospetsu bat izan zen eta zauritutako, abandonatutako edo konfiskatutako animaliak hartzeko proiektu bat hasi zuen. Proiektu horren bidez, Euskadin basafauna berreskuratzeko zenbait zentro sortu ziren, besteak beste, Enkarterriko [Karpin parkea](#) eta Urdaibaiko [Basondo zentroa](#).

Arartekoak eta [Nafarroako Herriaren Defendatzaileak](#) zenbait hedabidetan argitaratu dute honako titulua duen iritzi artikulua bat: [“Atsedeneren Apologia”](#). Artikulu horretan, defentsa bulegoen eginkizuna aldarrikatzen da giza jardura iraunkorrak errazten dituzten konponbideak sustatze aldera; jardura horiek dezibelio gutxiak izango dira eta etxe guztiek atsedenerako duten eskubidearekin bat etorriko dira.

6. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Arartekoak herri-administrazioei behin eta berriro azpimarratzen die ingurumen-informazioko eskaerak arin eta lehentasunez izapidetu eta ebatzi behar direla, ingurumen-informazioa eskuratzeko eskubidea arautzen duen araudian aurreikusitako epeetan. Administrazioek eskatzaileari jakinarazi behar diote eskaera jaso dutela. Horrez gain, erantzuteko hila beteko epea luzatzen dela jakinarazi behar diote, ingurumen gaietan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitegiara joateko eskubideak arautzen dituen [uztailaren 18ko 27/2006 Legearen](#) 10. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Legezko betebeharrak horren osagarri gisa, interesgarria izan daiteke beste formula batzuk bilatzea informazio nahikoa helarazteko eta ingurumen arloko gaietan interesa duten pertsonen informazioa hobetzeko.

Herri-administrazioek ingurumen-informazioa modu aktiboan zabaltzeak gardentasuna bermatzen du eta parte-hartzea sustatzen du ingurumeneko zenbait elementuren egoerari dagokionez, besteak beste, airea eta atmosfera, ura, lurzorua, paisaia eta espazio naturalen egoerari dagokionez. Aldi berean, tokiko erakundeek, gutxienean gardentasuneko betebeharrak barruan, ingurumen-zerbitzuen zorroaren inguruko informazioa jaso behar dute.

Jardura kutsatzaileen ingurumen-kontrola planifikatu egin behar da, administrazio eskudunek ingurumen-zaintzako eta ikuskaritzako programak ezarriz. Esku-hartze publikoa ez da soilik egin behar ukitutako pertsonen zarategatik, usainengatik edo beste afekzio batzuegatik aurkeztutako salaketen ostean. Izan ere, administrazioak kutsa dezaketean jardueren gaineko plangintza bat ezarri behar du aurretiaz.

Arartekoak badaki zein den kutsadura akustikoak herritarren bizitza-kalitatearengan duen eragina; hala, gogorarazi du garrantzitsua dela ingurumen-kontrolako neurrien ezarpena sustatzea, kutsadura akustikoaren eraginagatik urra daitezkeen konstituzio-eskubideak benetan eta eraginkortasunez bermatzeko. Neurri horiek jaso dira botere publikoei zuzendutako eta autonomia erkidegoetako defentsa bulegoek eta herriaren defendatzaileak onetsitako [herritarrek zaratarik gabeko etxebizitza bat izateko duten eskubidea defendatzeko dekalogo batean](#). Bertan, legez eskuragarri dituzten ekintzak egiteko konpromisoa hartzen dute, herritarrek zaratarik gabeko etxebizitza batean bizitzeko duten eskubidea behar bezala babesteko.

Kontrola eta esku-hartze administratiboa administrazio eskudunak egin behar ditu, eta, hala badagokio, ingurumenaren eta pertsonen osasunaren babesean diharduten administrazio eta erakunde guztien artean koordinatuz. Horretarako, ez-betetzea gertatzen den une zehatzean, egin-beharren betetzea egiaztatu ahal izateko bitarteko tekniko eta pertsonal nahikoak eman behar dira.

Ingurumen-zuzenbidearen alorreko erkidegoko zuzentzaruetan ezarritako betebeharrak behar bezala iraultzea eta

aplikatzea ez da beti prozesu baketsua izaten. Arartekoak ikusi du zaila dela hori behar bezala aplikatzea, besteak beste, kasu hauetan: giza kontsumoko uren kalitatea, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa eta basa-hegaztien kontserbazioa.

Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren zuzentzarua behar bezala aplikatzean, ingurumen-administrazioak behar bezala ebaluatu ditu hirigintza antolamenduko plan gehiago edo Euskadiko estrategia energetikoa. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak berrikusi egin du txori txiki horien silbestrisimo jarduera baimentzen zuen aurreko irizpidea. Hala, erantzun egin dio Arartekoak hasitako **ofiziozko jarduerari**. Arartekoak jarduera hori hasi du basa-hegaztien kontserbazioaren inguruko 2009/147/CE Zuzentzaruan aurreikusitako hegazti fringilidoak kopuru txikietan hartzeko salbuespen-araubidea eraginkortasunez betearazteko.

Horrela, erreklamazio horiek eta horiek kudeatzean sortutako kontrastea ingurumen-kontrollean esku hartzen duten erakunde eta profesional desberdinen arteko lankidetzareduztat hartu dira, ingurumen-legeriaren onurak maximizatzeke helburuan aurrera egiteko.

II. ATALA

7

HERRI LANAK, GARRAIOAK ETA AZPIEGITURAK

1. Arloa kopurutan








Aurten 65 kexa-espeditente kudeatu dira sail honetan eta honakoa izan da eragindako administrazioen araberrako banaketa:

- Foru administrazioa..... 29
- Tokiko administrazioa 14
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritz).....7

Azpiarloen araberrako banaketari erreparatu gero, honela sailkatuko litzateke:

- Garraioak..... 21
- Herri lanak eta azpiegiturak 20
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa.....9
- Obrak egitea.....5
- Kontratazio-araubidea, ondarea eta administrazio erantzukizuna5
- Nahitaezko desjabetzea.....4
- Beste alderdi batzuk 1

Ekitaldiaren itxieran, sailean jasotako kexen estatistika-informazioa ondorengoa litzateke:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herriarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
75	37	38	14	15	5	4

Laburbilduz, aurreko urtean jasotako kexa kopuruarekin alderatuta, ekitaldi honetan mantendu egin da kexa kopurua. Ohikoa den bezala, nabarmentzekoak dira **garraio publiko** izeneko azpiatalari dagozkion kexak, baita **obra publiko**ak blokeari dagozkionak ere, bere alderdi ezberdinetan, besteak beste obren egikaritzea, proiektuak idaztea eta horiekin loturiko beste alderdi batzuk, diseinua eta errepide publikoen ibilbidea, besteak beste. Aipamen berezia merezi dute urbanizazio zaharretako espazio publikoen **irisgarritasunari** loturiko eskariei. Nahiz eta planteatu diren kasuak urriak izan diren, lursailen **nahitaezko desjabetze**ari buruzko kexak ere aipatu egin behar dira. Kexa horiek behin-behineko eta behin betiko okupazioen inguruan egin dira, hain zuzen ere esku-hartze horiek direla-eta espeditentea behar bezala izapidetu ezin delako kalteak sortu eta ondorioak egin direlako.

Jaso ditugun kexen izapidetzearen egoera arrazoizkoa da, izan ere, gutxi gorabehera jaso ditugun kexen bi herenetan gure jarduketak amaitu ditugulako, eta amaitzeke daudenak, batez ere, laugarren hiruhilekoan jasotako kexen jarduketa-faseak direlako. Beste kexa batzuen kasuan ordea, arazoa da ez dugula administrazioaren erantzunik jaso edo erantzuna jaso baldin badugu ere, oraindik baloratzeke dagoela. Orokorrean, jarduketa desegoki bat egon dela ikusi dugun kasuetan, administrazio publikoen erantzuna arrazoizkoa izan da eta helarazi ditugun gogoetak kontuan hartuak izan dira, baina hala ere adierazi beharra dago izapidetutako zenbait gomendio ez direla onetsiak izan.

Bestalde, berriz ere nabarmendu behar da administrazio publikoei loturiko esku-hartzeen lehenengo arrazoi **administrazioaren isiltasuna** izan dela, hain zuzen ere erantzun edo jarduketa zehatzen bat eskatzen den eskariei dagokienez.

2. Kexarik aipagarrienak

Atal honetan, urte honetako jarduera islatzeko, izapidetu ditugun kexa azpimarragarrien laburpen bat egingo dugu, eta bereziki aipatuko ditugu gomendio edo ondorioen idazki baten xede izan direnak. Kexak azpiatal materialei jarraiki multzokatuko dira, jarraian xehatuko ditugun epigrafeen arabera.

2.1. Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura

Gai honi dagokionez ez dago berririk, eta kexak gauzatzeko arrazoi nagusiak berriz ere administrazio publiko ezberdinek kexagileek izapidetutako eskariei erantzunik ez ematea, eta eskari bat aurkezten dutenek administrazioaren aldetik jasotako arrazoirik eza edo behar ez besteko arrazoiak jasotzea izan dira.

Bestalde, **informazio publiko eskuratzeko eskubidea** eta interesatu nolakotasuna gauzatzeko zailtasunei edota legeko interesa egiaztatze beharizanari lotutako kexak egon dira berriz ere, baita administrazioaren zenbait informazio jasotzeari buruzkoak ere.

Pertsona orok du informazio publiko lortzeko eskubidea; hau da, administrazioarenak diren eduki edo dokumentuak lortzeko eskubidea, formatua edo euskarria edozein delarik, Gardentasun, informazio publiko lortzeari eta gobernu onari buruzko **abenduaren 9ko 19/2013 Legearen** 12. eta 13. artikuluen arabera, beti ere Legeak berak zehatzen dituen mugak errespetatuz; muga horiek behar bezala azaldu beharko dira ezesteko oinarri bezala erabiltzen direnean.

Indarrean dagoen Legearen arabera, eskatzailea ez dago behartuta informazioa zergatik eskuratu nahi duen azaltzera. Beraz, eskatzaileak azalpenak eman ez izana bakarrik ezin da erabili eskaera ukatzeko arrazoi gisa (Legearen 17.3. artikulua). Kasuan kasu, eskatu den informazioa eskuratzeko baimena eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri, ebazpena ematen duen organoak eman beharko dio eskatzaileari, eskaria jasozten duenetik hilabeteko epean (Legearen 20. artikulua).

Erakunde honek esku hartu duen beste zenbait kexen arazoia honako hau izan da: Arabako Administrazio Batzarretan eskariak aurkezteko edota zerbitzu orokorrak lortzeko oztopoek eragindako arazoak. Erakunde horien administrazio egituran, orokorrean ez dago publikoari zuzendutako bulegorik, eta hori dela-eta, zenbaitetan ez dute sistema eraginkorrik beraien betebeharrak modu egokian bete ahal izateko. Herri-administrazio oro dago behartuta erregistroa irekita egongo den egunen eta orduen berri ematera, betiere, bizilagunek dokumentuak aurkezteko duten eskubidea bermatuz (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen [urriaren 1eko 39/2015 Legearen](#) 16 eta 31. artikulua). Nahiz eta kontzejuek normalean ez duten publikoari zuzendutako bulegorik, legezko betebeharra dute oinarrizko eskubide hori betearazteko sistema eraginkor bat zehazteko, beharrezko bitartekariak eskuragarri jarri (fede-emaileak edo Batzordeko presidentek etxean entregatzea adibidez, edo beste bitarteko egokiren bat, entregatzeko egun eta orduak zehaztuz). Ezartzeko dagoen erregistro elektronikoa orokorra (2017ko urriaren 2an martxan jarriko dena), eta ezarpen horrek Kontzejuei eragingo dizkien zailtasun gehigarriak albo batera utzi gabe, publikoari zuzendutako bulegoetan dokumentuak entregatzeko eskubidea izateaz gain, hiritarrek eskubidea dute dokumentazioa Posta Zerbitzu bidez aurkezteko, eta kasu horietan, Administrazioa behartuta egongo da gutunak behar bezala jaso eta erregistro orokorrean erregistratzera.

Ildo horretan, [2016ko abuztuaren 22ko Arartekoaren Ebazpena](#) bidali da. Horren bidez, Mezkiako Batzorde Administrazioari gomendatu zitzaion lursail pribatuen okupazioa legezatzeko. Gomendio hori ez da onartua izan.

2.2. Herri lanak eta azpiegiturak

Atal honetan, gehienbat **azpiegituren** mantenu eta kontserbazioari loturiko kontuak planteatu dira, eta horrez gain, gaur egun eskatzen diren parametro eta beharrianak betetzen ez dituzten eta nolabaiteko antzinakotasuna duten urbanizazioak berri eta eguneratzeari buruzko eskariak ere jaso dira.

Hala, **errepideei** dagokienez, foru-errepide batean ezbeharrei aurre egiteko neurri egokiak egotea zalantzan jarri zuen pertsona batek. Foru aldundiak beraien lurraldetik igarotzen diren errepideen titularrak dira eta era berean, errepideak mantentzeko eta kontserbatzeko ardura dute. Ertzaintza, bere aldetik, segurtasunaren arduraduna da. Hala, erakunde horiek, bakoitzak bere eskumenen testuinguruan eta koordinazio egokiarekin, beharrezkoak diren zaintza-neurriak hartu behar dituzte zirkulazio-arauak betetzen direla bermatzeko, baita zirkulazioan eragina duten beste jarduketak batzuk betetzen direla

bermatzeko ere. Termino aritmetikoetan, biktimak dituen trafikoko istripu bakar bat beti da larria istripua eduki duen pertsonarentzat eta horren ingurukoentzat. Ezbehar-tasaren balioak, ordea, kalkuluak, indizeak eta baldintzak kontuan hartzen dituen estatistika zehatz batzuen arabera neurtzen dira. Horri esker, aurretik ezarritako parametroen arabera, modu objektiboan zehaztu ahal izaten da errepide batean gertatutako istripu kopurua ezohikoa den edo ez.

Bestalde, erabiltzaileek errepideetan jarritako **seinaleztapena** ere zalantzan jartzen dute, kasu batzuetan urria delako eta beste batzuetan ordea, gehiegizkoa. Horri buruz aipatu behar da errepideen seinaleztapenaren diseinua eta ezarpena zehazten duten zenbait irizpide tekniko daudela. Hala, seinaleak errepidearen ezaugarrien arabera (autobidea, errepide arrunta, etab), errepidearen diseinuaren arabera (bihurguneak, zirkulazio-norabide batean bide bat baino gehiago egoitea, etab) eta beste egoera batzuen arabera jarri behar dira, besteak beste ezarriko diren eremuko trafiko dentsitatea.

Oinezkoen **irisgarritasunari** ez ezik, ibilgailuen irisgarritasunari loturiko arazo larriak dituzten urbanizazioak berritzeko eskariaren irtenbideak konplexuak dira; horren arrazoiak, alde batetik, gure udalerrietako egoera orografikoa eta beste alde batetik, aurreko garaietan hirigintza egikaritzeko modua dela-eta jada jalkinez beteta dauden eta urritasunak dituzten urbanizazio kopuru nabarmena dira.

Edonola ere, eremu horietako hirigintzaren hobekuntza eta egokitzapena sustatzeko ekimen pribatua alde batera utzi gabe (errotutako urbanizazioetan nekez gertatu daiteke hori), ezin da ahaztu hirigintza onura publikoko funtzio baten gisara eratzten dela eta, hiri birgaitze eta eraberritzeari buruzko politika gaitan Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko [ekainaren 30eko 2/2006 Legearen](#) arrazoi-azalpenak berak adierazi bezala, laguntza berezia eta bereizketa positiboko neurrien beharra duten eremuei administrazio publikoek arreta berezia eskaintzeko eskatzen da, finantza-euskarria eta beste baliabide batzuk jarriz hirigintza esku-hartzeen kudeaketan eraginkortasun handiagoa lortzeko helburuarekin. Laburbilduz, errealitate horri aurre egiteko udal-administrazioek hainbat jarduketa egin behar dituzte, ekimen pribatua bultzatzeko finantza-sustapenetik hasi eta mota horretako urbanizazioak hobetu eta egokitzapena sustatzen duten jarduketak publikoetaraino.

Irisgarritasunaren arazoari dagokionez, beharrezkoa da Irisgarritasuna sustatzeari buruzko [abenduaren 4ko 20/1997 Legeari](#) erreferentzia egitea. Legearen 13. artikulua *“Irisgarritasunaren sustapena”* jorratzen du. Hala, hiri-eremu eta espazio publikoen irisgarritasuna bermatzeko udalek lau urteko egitarauak egingo dituztenaren aurreikuspena zehazten da. Horrenbestez, udalek jarduketa-plan bat eduki behar dute eta plan horretan zenbatuta jaso behar dira, beste batzuen artean, egokitzapena behar duten kanpoko eremuak, ekonomia eta finantza programa batekin batera. Programa horrek beharrezkoak diren jarduerak lehenetsi behar ditu eta, aurrekontu-baliabideen arabera, esku-hartzeak programatu behar ditu.

Arlo horretan behar asko daude, eta baliabide publikoak beti dira urriak. Hala ere, hori ezin da izan programazio bat

egoteko oztopoa; programazio horri esker, administrazio publikoek mota horietako proiektuak egikaritzeko denboran zehar dituzten lehentasunak jakin eta zehazten dituzte. Era berean, kaltetutako bizilagunei aurreikuspen horien berri eman beharko zaie.

Beste azpiegitura batzuk egikaritzeari dagokionez, kexa bat jaso dugu urbanizazio berri batera doan zubi batean dagoen ibilgailu-nolakotasunaren inguruan. Orokorrean, hirigintza ordenazioa ezartzerako orduan, udalak behartuta daude sistema orokorren zuzkidura-sareak zehaztera; horien funtzioek eta zerbitzuek udalerrira egituratzeko balio behar dute, hau da, gune berriak hiri-bilbean sartuta geratu behar dira. Horrez gain, mota horretako azpiegitura bat egikaritzeko, indarrean dagoen planteamenduan beharrezko euskarria behar da. Hala, jarduketara aurreikusita dagoenean, ezin izango da edukia berrikusi.

Bukatzeko, errepideen **bide** berrien azpiegituren eskaria eta lurzoru urbanizazinean daudenak hobetzeko eskaria aipatu behar ditugu. Bide berri bat egiteko lursailak eskuratu behar direnean, udalak ezin du esku hartu mota horretako lurzoruetan, ez zuzenean ezta hirugarren baten onuran ere, hirigintza-legerian jasotako aurreikuspen murriztaile (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 28.5 artikulua) edo nahitaezko desjabetzeak salbu. Lursail pribatuetarako irisgarritasuna hobetzea helburutzat duten jarduketek dagokionez, zaila da mota horretako proiektuen interes publiko edo soziala justifikatzea. Pertsona bat bizi den etxea kokatuta dagoen lurzoria urbanizagarria ez den lurrean egoteak, udalak bermatu behar dituen zerbitzu publikoen eskubideak osatzen ditu. Lurzoru mota horretan, prestazioak jabeen kontura dira (Legearen 28.4 d) artikulua), eta horiek dira zerbitzu publikoak amaitzen diren puntuetan beharrezko azpiegitura eta instalazioak gauzatu behar dituztenak edo euren konturako instalazioak bermatu behar dituztenak (ur horniketaren sare orokorretiko hargunetik, hobi septikotik edo kasu honetan bezala asfaltatutako errepidetik doan adarra, etab.). Baina aurrekoa ez da oztopoa izan behar udalek, laguntza edo diru-laguntzen bitartez landa-ingurunearen eta beraien bizilagunen hobekuntza sustatzeko.

2.3. Ondarea

Arlo honetan, oraindik ere eztabaidak daude **jabari publikoaren** eta bere kudeaketaren inguruan. Zehazki esanda, kanpoaldean dauden plaza publikoen egoera txarrak lurazpian dauden garaje pribatuei eragindako kalteei buruzko kexak izapidetu dira. Egoera hori udalerrira askotan gertatzen da, eta eztabaida konplexuak sortzen dira horren ardura norena den zehaztean, edo horien kontserbazioa gauzatzeko beharrezko gastua nola banatu erabakitzean. Arartekoak zenbait irizpide nabarmendu ditu, haren iritziz irabazi asmo lur-azpiko espazioa eta kanpoaldean erabilera publikoko espazioa duten eremu horietan sortutako gastuak banatzeko orduan egokiak liratekeenak. Hala, besteren jabetza baten erabilpen-eskubideetan udal administrazioak dituen betebeharrak, teiltuaren helburu publikoari arreta emateko eraikuntza-elementu eta hiri-tresneriari dagozkionak dira. Zentzu horretan, teiltuaren azpian dauden iragazgaitze eta

gainontzeko eraikuntza elementuak soil-soilik irabazteko aprobetxamendu pribatua jasotzen duenaren ardurakoak izango dira, hau da, kaltetutako jabeen erkidegoenak.

Kontu horri buruzko nabardura edo zehaztapen bakarra Bermeoko Udalari zuzendutako gure [2010eko abuztuaren 31ko gomendioan](#) aipatu genuen. Hala, mota horretako eraikinen eraikuntza-ezaugarriak medio (asko eta asko hirurogeita hamargarren hamarkadakoak) zeintzuen iragazgaitze sistemak hamar edo hamabost urtean behin berritu behar diren, garrajeetako jabeak arduratu behar dira epe mugagabeen zolaketa berritzeaz, berritzea kontserbazioaren egoera dela-eta sortu ez denean, baizik eta iragazgaitze jarduteko zolaketa altxatu behar denean. Horregatik, irabazteko aprobetxamenduen jabeen eta espazio publiko baten erabilerearen zortasunaren onuradun den administrazioaren artean dauden elkarrekiko harremanak, fede on eta berdintasun printzipioen arabera ezartzearen alde egiten da. Harreman horiek gainera, etorkizunean alderdi bien eskubide eta betebeharrak arautzeko irizpide eta parametroak izan behar dituzte.

Bestalde, ondare publikoari dagokionez, ondasun publikoen kudeaketa desegokiaren planteamenduari jarraipena eman zaio udalen lursail-mailan, ondasun publikoak pribatuetatik mugatzean, egoera juridikoa araztean, inbentarioan eta jabeago erregistroan sartzean, etab. Edozein obra egikaritu aurretik, dagokion proiektuaren zuinetak ez du zalantzarik utziko kaltetutako lursailen erabilgarritasun eraginkorrari dagokionez. Edonola ere, kaltetutako lursailaren edo mugakideen inguruko titulartasunari buruz dudak daudenean, Administrazioaren betebeharra da espediente kontrajarria izapidetzea. Hala, kaltetuei lursailaren titulartasunaren inguruan jasotako proben berri emango zaie, eta ebazpen-proposamena idatzi aurretik egitea egokitzen jotzen diren beste batzuen berri ere emango zaie (39/2015 Legearen 77. eta 82. artikulua). Espediente horiek izapidetzeko, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onetsitako [Toki Erakundearen Ondasunen Araudiaren](#) 56. artikuluan eta ondorengoetan zehaztutakoa oinarri hartu behar dira. Artikulu horietan zehazten da udalaren eta partikularren ondasunen **mugaketa** sustatu eta egikaritzeko eskumena, zeinaren mugak zehaztu gabeak izan ziren edo usurpazio zantzuak egon ziren.

2.4. Desjabetzea

Gai horri dagokionez, behin-behineko okupazioa aurreikusitakoa baino gehiago luzatu den kasuetan, dagozkion kalte-ordainak kobratzeko egon diren zailtasunak salatu dira. Hau da, kaltetuei eman beharreko konpentsazioen zenbatekoa hasiera batean aurreikusitako aldiarekin bat ez daterenean gertatutako arazoak. Aurretik okupatu beharreko azalera eta okupazioaren iraupena zehaztu ezin direnean, Legearen aurreikuspenen arabera zenbateko finko nahikoa zehaztu daiteke, eta bere garaian, behin betiko zenbatekoa ere zehaztu ahal izango da (Nahitaezko Desjabetzeari buruzko [1954ko abenduaren 16ko Legearen](#) 114. artikulua). Beraz, okupazioaren behin-behineko aurreikuspenak betetzen ez direnean, desjabetzea gauzatzen duen Administrazioak berrikusi beharko du hasiera batean xedatutako prezioa.

Bestalde, 2.1. atalean aipatu den Mezkiako Administrazio Batzordeari bidalitako gomendioan, egitate bidetik lursailak okupatzearen arazoa planteatu da, hau da, beharrezko titulurik izan gabe egindako okupazioen arazoa. Hala, izapidetutako kexan, kexagilearen finkaren zati bat okupatu zela azaltzen da, bere garaian hitzartutako trukatzeko espediente gauzatu gabe. Okupazioak gaitze-titulurik ez duenez, egindako ordezkotako bidea igarotzen den lursailaren zatiaren egitate-okupazioa legezkatzea Administrazio Batzordearen betebeharra da, partzelak biltzeko tituluan agertzen den mugarritutako bidearen ordeza.

2.5. Garraioak

Garraioaren arloan, aurreko ekitaldian gertatu zen bezala, 2016. urtean errepidea erabiltzen duten bidaiarien garraio zerbitzua emateari buruzko kexak jorratu dira gehienbat, bai hiriko baita hiriarteko zerbitzuei dagokionez ere. Arlo honetako kexak, erkidegoko hiru lurraldeetako hiriarteko lineetan ohiko garraioaren kontzesioen berritzeagatik sortu diren dis-funtzioen ingurukoak izan dira.

Hala, Erakundeak salaketa berriak jaso ditu Zarautzeko udalerriko geldialdi berria txertatu den Gipuzkoako lineako hiriarteko garraioaren funtzionamenduan sortutako zailtasunen inguruan. Kexagileek adierazi dute atzerapenak sortzen direla aurretik ibilbidean leku batetik bestera zuzenean ematen zen zerbitzuan, desbideratzerik gabe alegia.

Horri buruz, gogoratu behar dugu Foru Aldundiek aukerako ahalmena dutela linearen ibilbide zehatza ezartzeko. Horrek esan nahi du, linearen ibilbidea zehazteko planteatu daitezkeen aukera ezberdinen artean, horietako edozein hautatzeko ahalmena dutela Foru Erakundeek. Beraz, azkenean, ibilbide zehatza aukera, irizpide tekniko eta ekonomikoaren arabera hitzartuko da.

Era berean, enpresa emakidadunak zerbitzua kudeatu behar du, dituen arrisku eta ustekabeekin, eta zerbitzua antolatze-ko eta emateko betebeharra dauka, kontratuan ezarritako ezaugarriei hertsiki helduz, bai eta kontratuan adierazitako epeen barruan ere. Edonola ere, poliziaren beharrezko botereak dauka Administrazioak, kasu bakoitzean esku artean dituen zerbitzuak ondo ematen direla ziurtatzeko.

Zerbitzuaren hobekuntza eta hiriarteko garraio linearen baten gidatzearen segurtasuna ere azaldu dira kexetan. Hala, kexagile batek autobusean egiten den ibilbide bati buruzko kexa aurkeztu zuen, puntako orduan erabiltzaileak zutik joan behar izaten direlako, eta horri autobusak joaten diren abiadura gehituz gero, bidaiarien segurtasun eta erosotasuna kaltetu egiten dira bere iritziz. Bizkaibusek ibilgailuek abiadura mugak izateko ezarritako neurrien berri eta ibilgailu bakoitzarentzat erabiltzen diren erabiltzaile kopuruaren ratioen berri eman zuen, bai zutik joaten direnak baita eserita joaten direnak ere. Edonola ere, [Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioak](#), Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Sailak adierazi duenez, autobusaren zenbait parametroetan etengabeko kontrola gauzatu ahal izateko, besteak beste, gidatzeari loturiko segurtasunean, adibidez, une edo

eremu zehatz bateko abiadura kontrolatzeko, zerbitzuaren enpresa emakidaduna telediagnosi sistema aurrerakoi bat ezartzen ari da. Hala, trafikoko agente-postutik sistema hori etengabe kudeatuko da eta ustiatzen ari diren ibilgailuak aurrez grabatuz, urrutitik segituan komunikatu ahal izango dira aparteko gorabeheraren bat gertatzen baldin bada. Sistema horri esker, enpesak modu eraginkorragoan kontrolatu ahal izango ditu gidariak eta horrek zerbitzua hobetzea eta seguruagoa izatea ekarriko du.

Horrez gain, kexa asko jasotzen jarraitu dugu AP-1/AP-8 autobideak erabiltzeagatik ezarritako deskontu eta kenketak ez direlako aplikatzen. Zenbait kasutan, deskontuak ez aplikatzean egon diren dis-funtzioak zehaztu ahal izan dira, baita kobratzeetan egon diren akatsak ere, eta beharrezko zenbatekoak kalkulatu eta itzuli dira.

A-68 autobideari dagokionez, kexaren batean arrazoitu da diskriminazioa ematen dela tarifak eta kenketak ezberdin ezartzen direlako errepide berean, bi lurraldetatik igarotzen delako hain zuzen ere. Errepide eta zergen arloan Foru Aldundi bakoitzak arautzeko gaitasun osoa onartuta du, Lurralde Historikoen Legearekin bat etorritik eta halaber, hiritarrek zalantzan jartzen dituzten tratamendu ezberdinak sortzen dira. Hala, bizitokiaren arabera autobideetan tarifa ezberdinak aplikatzea eztabaidatzen da, Foru Aldundi bakoitzak diru-laguntza politika ezberdin bat duelako, Foru Erakunde bakoitza titularrak den autobide tartearen arabera.

3. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Arabide juridikoaren eta administrazio publikoen **funtzionamenduari** dagokionez, aurreko ekitaldian bezala, erakunde honetan izapidetu diren hainbat kexetan errepikatu den arazoia, aurkezten diren eskariei ematen zaien erantzun falta izan da. Administrazio publikoek jasotzen dituzten eskaerak ebazteko betebeharra dute berriazko ebazpen baten bidez, eta interesdunari hartutako erabakia jakinarazi behar diote dagokion prozedura arautzen duen arau xedatutako gehieneko epearen barruan (arau horrek gehieneko eperik ezartzen ez duenean, epe hori hiru hilabetekoa izango da). Hala xedatu du Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen [urriaren 1eko 39/2015 Legearen](#) 21. artikulua. Egoki arrazoitutako ebazpen horrek, bestalde, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 88. artikuluan aurreikusitako edukia izan beharko du. Laburbilduz, onartezina da administrazioak erakusten duen gelditasuna eskari bat izapidetzeari uzten dionean, eta ulertzen duenean ez baldin bada erantzuten ezetsitatu ematen dela **administrazioaren isiltasunagatik**.

Zenbaitetan, administrazioak ez ebaztearen arazoia gatazketan esku hartzeko zailtasunak direla argudiatu ohi da, edo zuzenean kaltetuak izaten diren gai zehatz batean dauden jarrera kontrajarriak ere ez ebaztearen arazoia izan ohi dira. Hala ere, Administrazio Publikoek beraien eskumenak erabiltzeko betebeharra dute, eta horretarako esku-hartzeko

tresnak dituzte, bizilagunen eguneroko bizitzan sortzen diren beharrei erantzuna emateko, adibidez behar bezala izapide-tutako ordenantzen bitartez. Horrez gain, kaltetutako administrazioek (nagusiki tamaina txikiko udalerriek eta batzordeek) argudiatu dute arazoak dituztela neurri arautzaileak ezartzeko, bitarteko gutxi dituztelako.

Bistakoa da Toki Erakundeek dituzten baliabide ekonomiko eta materialak eta langile-baliabideak eskasak direla, bereziki tamaina txikiko kasuan. Hala ere, Foru Aldundiek laguntza tekniko eta babesa eskaintzeko funtzioa dute eta beharrezkoa da hori egitea, bereziki derrigorrezko gutxieneko zerbitzuak kudeatzean. Hala, adibidez, Arabako Lurralde Historikoan dauden Batzorde Administrazioei dagokienez aipatu behar da gabezia horiek nolabait arintzeko helburuarekin, [Arabako Foru Aldundiak](#), Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailaren bitartez, aholkularitza juridikoa eta laguntza tekniko eskaini eta ematen diela udalerrira baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeek, euren eskumenekin lotura zuzena duten arloetan. Aholkularitza eta laguntza horiek [Arabako Kontzeju Elkartearen](#) bitartez ere eskura daitezke.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko [apirilaren 7ko 2/2016 Legeak](#) Foru Aldundiei 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan gutxieneko zerbitzuak kudeatzeko eskumena ematen die. Hala, Aldundiek koordinatzeko eginkizuna eta zerbitzu horiek ematean kalitate-estandarrik ezin hobekia izan daitezkeen lortzeko eginkizuna dute, kudeaketa partekatuko formula proposamenek izango duten lehentasuna albo batera utzi gabe (97.3 artikulua).

Edonola ere, aurreko ekitaldietan hausnartu ahal izan dugun bezala, udalerrri txiki eta kontzejuen lurralde-mailan, gutxieneko administrazio egiturarik ez dagoenez eta bitartekoak urriak direnez, bereziki garrantzitsuak izaten dira bizilagunen arteko harremanak eta bizikidetzara-errespetua, bai dagokion Administrazioan karguak dituztenen aldetik, baita lurralde eremuan bizi diren bizilagunen aldetik ere. Ondorio horietarako, komeni da baita ere aipatzea Euskadiko Toki Erakundeei buruzko [Legeak](#) udalerriko biztanleen hiri-bete-behar eta -erantzukizunak arautzen dituela, hala nola arduradun politikoei dagozkienak (44. artikulua). Besteak beste, honako erantzukizun hauek jaso ditu [legeak](#):

- Tokiko arauak betetzea eta horiek aplikatzeko laguntza ematea eta horretarako, tokiko agintariak informatzeko bizikidetzara-errespetuarekin dagokienez espazio publikoan izaten den arau-hauste oroz eta zerbitzuak ematea eragozten edo zailtzen duen edo erabiltzaile edo hirugarrenentzat arriskua dakarren edozein anomaliaz.
- Udal-ondarea, azpiegiturak eta udal-zerbitzuak zentzu eta egoki erabiltzea, eta haiek kontserbatzen eta berreskuratzen laguntzea. Era berean, udal ekipamenduak eta zerbitzu publikoak –bide seinaleak eta hiri-altzariak barne hartuta– errespetatu beharko dituzte, baita haiek berreskuratzen eta kontserbatzen lagundu ere.
- Espazio publikoan herritarren bizikidetzarako arauak errespetatzea, eta, era berean, beste pertsonen eskubideak ere errespetatzea.

Araudi hori Administrazioak hiritarrek duen harremanaren jarduketa-testuingurutzat hartu behar da, eta ez da eragozpena izan behar azpimarratzeko nahiz eta eskala txikian eta beharrezkoa denean kanpoko bitartekoak laguntza izanez, beharrezko esfortzuak egin behar direla erakunde guztientzat berdina diren oinarriko prestazioak betetzeko, kaltetutako Administrazioaren tamaina edonolako izanda ere.

Obra publiko eta azpiegiturari dagokienez, urte honetan jasotako hainbat kexen bitartez eskatu da nolabaiteko antzinateasuna duten urbanizazioetan hobekuntzak egiteko. Horretarako, arazoitu dute bide horiek indarrean dagoen arautegira ez direla egokitzen irisgarritasunari dagokionez, eta egitura-aren elementu batzuk kontserbatzen ez direnez, pertsona eta ondasunentzat arriskutsuak direla.

Horri buruz, lehenik eta behin aipatu behar da udalek beharra dutela azpiegitura horien segurtasun-baldintzak ziurtatzeko, eremu zehatz batean bizi direnen duda edo ezinegonak ahalik eta azkarren argituak izan daitezkeen. Bigarrenik, adierazi behar da udalerriek aukerako ahalmena dutela beraien eskumeneko zerbitzuak emateko eta eskuragarri dauden baliabide ekonomikoak dauden beharrei esleitzeko, ezartzen dituzten lehentasunen arabera. Hala ere, beharrezkoa da azpimarratzea zenbait zerbitzu ematea derrigorrezkoa dela. Hain zuzen ere, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko [Legearen 17. artikulua](#) udalen berezko eskumenen zerrenda luze bat definitu arren, udalek kontuan hartu behar dute Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen [apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 26. artikulua](#) nahitaez eman behar diren zerbitzu gisa ezartzen dituenak. Besteak beste, kasu honetan nabarmendu behar direnak udalerrri guztiek eman beharreko derrigorrezko zerbitzuak dira, bide publikoak zolatzea eta herriguneetarako sarbidea, alegia. Bukatzeko, [abenduaren 4ko 20/1997 Legearekin](#) bat eginez, irisgarritasuna sustatzeko urbanizazioaren egoera baloratu beharko litzateke ikuspuntu honetatik, hain zuzen ere irisgarritasuna hobetzeko ezinbestekoak eta arazoizkoak diren neurriak hartu ahal izateko. Arauak berak irisgarritasuna hobetzeko arazoizkoak diren irtenbideak aurreikusten ditu, hain zuzen ere topografia arazoizkoak gorabehera eta legez aurreikusitako zehaztasun guztiak betetzea zaila denean, beti ere hartutako irtenbidea behar bezala justifikatuta geratzen denean ([apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren II. eranskineko 3.2.3. atala](#)). Horren bitartez, hiri-eremu, espazio publiko, eraikin, informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasunari buruzko arau teknikoak onetsi dira).

Hitz batez, alderdi horiek guztiak, eta jarduketaren kostuak eta esku-hartzeak eragingo litzuzkeen onuradunak kontuan hartu beharko litzuzkete udalek aurrekontu-ekitaldi bakoitzean baliabide ekonomikoaren lehentasun-ordena ezartzeko orduan. Kasuan kasu, ezinbestekoa da Administrazioak behar bezala erantzuna ematea kaltetuei, egikarituko dituzten proiektuak aukeratzeko erabili dituzten irizpideak jakinaraziz hain zuzen ere.

Aurreko gogoeten ildoari jarraiki, **herritarren parte-hartzea** gehitzeko aurreikuspen berrien testuinguruan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko [Legearen 79. artikulua](#) ezartzen denez, toki-erakundeek kontsulta edo deliberazio publikoko

prozesuak abiarazi ahal izango dituzte, gastuaren inguruko erabaki edo alderdi puntual batzuk definitze aldera erakunde hurrengo urteko aurrekontuak prestatzen hasi behar denean. Horrela, herritarrek inbertsioetako udal politika definitzen duten irizpideak ezagutuko lituzkete, eta, hala bada-gokio, egikaritu beharreko proiektuak erabakitzean lagundu.

Kexa espedienteren baten ebazpenean, hain zuzen ere, prozesu parte-hartzaile bat ireki izanaren praktika onaren berri izan dugu, zehazki bizilagunen elkartean bitartez aurrera eraman zena. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 72. artikuluan jasotzen den praktika da, Udalbatzaren kudeaketan bizilagunen interesak defendatzeko toki erakundeek elkartean parte-hartzea sustatzea aurreikusten duelako. Elkartean parte-hartzea albo batera utzi gabe, interesgarria litzateke ekarpenak egiteko prest dagoen edozein bizilaguni parte hartzeko prozesuan esku hartzeko aukera ematea.

Azkenik, **garraio publikoari** buruzko hausnarketa txiki bat. Gai honi buruzko politika publikoak hiritarrentzat efizientea eta eraginkorra den garraio-sistema publiko bat eskuragarri jartzera bideratuta egon behar dira, eguneroko joan-etorrietan erabiltzaileen mugikortasuna hobetuko duena alegia. Zentzu horretan, kontuan harturik lurralde berean garraibide

eta agintaritza arduradun ezberdinak daudela, nahitaez azpimarratu behar da publikoarentzat jartzen diren bitartekoen arteko koordinazioa eta elkarreragingarritasuna behar direla. Hala, zerbitzuen kalitatea hobetuko da eta garraio publikoa geroz eta jende gehiagok erabiltzea lortuko da, beste mota bateko garraibide pribatuen erabilera gutxituko delarik.

Beste ekitaldi batzuetan adierazi dugun bezala, elkarreragingarritasuna hobetzeko esfortzu handiak egin dira, garraiorako txartel bakarra ezarri ahal izateko. Hau da, Autonomia Erkidegoko garraibide publiko guztietan kontaktu txartel guztiak erabili ahal izateko, eta hori erabiltzaileentzat onuragarria da. Hala ere, urtez urte azpimarratzen ari garen bezala, geroz eta iraunkorragoa den hiri bat lortu ahal izateko, mugikortasun orokorra planifikatzean aurrerakuntzak egin behar dira. Hau da, garraio publikoko bitarteko ezberdinak konbinatu behar dira eta hala, sistema geroz eta balizko erabiltzaile gehiagora iritsiko da. Horrek aurrerapenak egotea eskatzen du adibidez ibilbideen iraupenak murriztuz, geldialdi-ordutegiak eta maiztasunak gehituz, hirira iristeko bitarteko ezberdinen ordutegiak koordinatuz (trenaren eta hiri barneko autobusaren ordutegiak adibidez), etab. Hori lortzeko, ezinbestekoa da gai horretan eskumenak dituzten administrazio publiko guztiak modu koordinatuan inplikatzeko.

II. ATALA

8

JARDUERA EKONOMIKOAREN ANTOLAMENDUA

1. Arloa kopurutan

2016an, 38 kexa-espeditente jaso dira arlo honetan, alegia, erakundeak ekitaldi honetan zehar jaso dituen kexa guztien %1,76.

Kexa horiek honako administrazio hauei dagozkie:

- Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritzza) 12
- Foru administrazioa.....5
- Tokiko administrazioa1

Azpiarloak, berriz, honakoak izan dira:

- Finantza-erakundeak eta aseguru-etxeak..... 16
- Merkataritza, turismoa eta kontsumoa.....9
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazioaren prozedura8
- Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta industria.....2
- Energiaraz (elektrizitatea eta gasa) hornitzeko zerbitzuak1
- Telefoniaraz zerbitzuak.....1
- Beste alderdi batzuk1

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
29	15	14	2	8	-	4

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta industria

Arlo honi dagokionez, ekitaldi honetan azpimarratzekoak dira ohiko okupazioko etxebizitzetan leihoak ordezkatzeko inbertsioetarako diru-laguntzak emateko jarraitu zen prozeduraren inguruko kexak, erakunde honek jaso dituenak. Hain zuzen, [Energiaren Euskal Erakundeak](#) (EEE) argitaratu du laguntza horiei buruzko deialdia.

Izan ere, kexa horien bidez, aurreikusitako diru-saila deialdia argitaratu eta handik hiru egunera agortu izana salatu da, diru-laguntzak emateko irizpidea –eskaerak onartzeko erre-

gistro berezian ezarritako ordena oinarri hartu izana–, baita Energiaren Euskal Erakundeak beharrezko dokumentu guztiak ez zituzten eskaerak onartu izana ere.

Lehenik eta behin, esan beharra dago laguntzak emateko erabakia arautua dela. Horrek esan nahi du, aplikagarria den araudiak ezartzen duenez, erabaki hura hartu aurretik, laguntzak emateko oinarrietan ezarritako arauak onartu behar direla. Gainera, oinarriak dagokion aldizkari ofizialean argitaratu behar dira.

Kasu honetan, Energiaren Euskal Erakundeak zuzendari nagusiak [2015eko abuztuaren 7an emandako ebazpenaren](#) bidez (EHAA, 169/2015 zk., irailaren 7koa) argitaratu zen ohiko okupazioko etxebizitzetan leihoak ordezkatzeko inbertsioetarako 2015. urteko laguntzen deialdia.

Oinarrietako 3. atalean, honako hau ezarri da: “Euskal Herriko Agintaritzak Aldizkarian (aurrerantzean EHAA) oinarri hauen iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da diru-laguntza programa honetara eskabideak aurkezteko epea, eta programari esleitutako diru-saila agortu arte zabalik egongo da”. Gainera, adierazi zen EEEko web orrian emango zela aurrekontua agortzearen berri.

Era berean, hauxe aipatu zen: “diru-laguntza eskabide osoak aurkeztuta eta bideratzen egongo diren arren, bazter egingo dira, baldin eta esleitutako aurrekontua amaitzen bada, EEEko zuzendari nagusiak emango dituen ebazpenen bidez.” Hain zuzen ere, 2015eko irailaren 11ko Ebazpenaren bidez (EHAA, 182/2015 zk.), diru-laguntzak emateko aurrekontua agortu egin zela jakinarazi da.

Oinarrietako 8. atalean laguntzak eskatzeko prozedura ezarri zen eta interesatuek aurkeztu beharrezko dokumentuak zehaztu ziren. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko [1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen](#) 71. artikularekin bat, 9. atalak aipatzen zuenez, eskabidea osatu gabe aurkeztuz gero edo akatsak egonez gero, eskatzaileak 10 laneguneko epea izango zuen horiek zuzentzeko, komunikazioa jaso zen egunetik zenbaitzen hasita.

Bukatzeko, diru-laguntzak jasotzeko eskabideak ebazteari dagokionez, adierazi zen prozedura hori lehia edo konkurrentzia jarraitua izango zela, eta, beraz, eskabideak aurkeztu zirenean hurrenkeraren edo ordenaren arabera aztertu eta bideratuko zirela espeditenteak, eta modu egokian formulatuak eta beteak egongo zirenean eta hurrenkeran bideratuko zirela.

Hori guztia dela eta, sektore publikoaren sustapena eratzen duten publizitate, gardentasun, lehia, objektibotasun eta berdintasunaren printzipio orokorrak bete zirela eta erakunde honek esku hartzeko aukera guztiak agortu zituela konfiantza hartuta, Arartekoak amaitutzat jo zuen bere jarduera.

2.2. Merkataritza, turismoa eta kontsumoa

Aurreko urteetan bezala, atal honetan jasotako kexa gehienak enpresa pribatuen jardunari buruzkoak izan dira; baina euskal administrazio publikorik tartean egon ez denez, erakunde honek ezin du arlo horretan esku hartu. Ekitaldi honetan, aipatu behar da nabarmen jaitsi dela telefonia-enpresen jardunari buruzko kexen kopurua.

Oro har, mahai gainean jarritako gai zehatzaren inguruan egoki irizitako informazioa kexa horiek aurkeztu zituzten interesatuei helarazteaz gain, jakinarazi diegu Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak eta [Kontsumobide](#) direla kexa horiek izapidetzeaz arduratzen direnak eta, legeak hala aginduta, une honetan, gure esku hartzeko ahalmena jarduerak ordenamendu juridikoarekin bat etortzen ote diren aztertzea mugatzen dela.

Bulego hauetara bidali diren pertsonetako batek gehiegizkoztat jo du higiezin agenteei etxebizitza bat alokatzeagatik errentariari komisioa kobratzea, zerbitzua eskatzen duena errentatzailea denean. Gainera, jakinarazi da higiezin zerbitzuen bitartekarien esku-hartzea batzuetan ez dela nahitaezkoa, hain zuzen, errentatzaileak zerbitzuak dagoeneko kontratatu dituenen. Hala ere, gehienetan, errentariak ezin izaten du komisioa ordaintzea saihestu, zerbitzuaren prezioa negoziatu ez duen arren, eta azkenean, ordaindu egiten du.

Kontu horri dagokionez, jakinarazi da, halaber, higiezin bitartekaritza ohiz kanpoko kontratua dela, ez formala, adostasunez eta kostu bidez gauzatua, merkatu-askatasuna eta lehia librea babesteko legeriak arautua, higiezin agentzia dagoen tokia, bere usadio eta ohiturak, etxebizitzaren ezaugarriak eta kokapena, baita emandako zerbitzuak ere aintzat hartuta. Hori dela eta, legearen ikuspuntu hutsetik, bitartekariaren jardunaren prezioari dagokionez, legeak ez du argibiderik ematen eta ez du arautzen zerbitzu horiek nori kobratu behar zaizkion; halakoetan, enpresari edo profesional baten eta kontsumitzaile baten arteko kontratua dugunean, kasu honetan gertatzen den bezala, kontsumitzailea babesteko berariazko araudia aplikatu behar da, eta horren arabera, higiezin agentziek ematen duten zerbitzuaren ezaugarriak alde aurretik aditzera eman baino ez dute egin behar.

Kontsumobiden kontsumo arloko erreklamazio bat bideratzeko modua dela eta, herritar batek desadostasuna helarazi zion Arartekoari. Azaldu zenez, ahoz jakinarazi zioten planteatu zuen kontuak konponbide bakarra zuela: zigor ekonomikoa, baina ez zioten eman bere erreklamazioa izapidetzeko moduari eta izapidetze-egoerari buruzko oinarriko informaziorik; hortaz, zalantzan jartzen zituen bai Kontsumobide egoteko arrazoiak, baita esleitu zitzaion ahalmenak ere.

Institutuaren laguntza eskatuta, jakinarazi ziguten konponbidea bitartekotzaren bidez aurkitzen saiatu izan zirela baina ez zutela lortu; gainera, enpresaren jokabidean arau-hauste administratiborik egon ote zen aztertu zuten, eta azkenean, erreklamazioa artxiboan gorde zuten.

Jasotako erantzuna ikusita, Arartekoak jakinarazi zion kexagileari zigortzeko prozedura ofizioz abian jartzen den horie-

takoa zela, ez interesdunak hala eskatuta, eta ustez legez kanpokoak diren gertakari batzuen berri administrazioari ematea zela salaketaren ondorio bakarra, administrazioak jardun ikertzailea eta zigortzailea abian jartzeko.

Era berean, jakinarazi genion halako prozeduretan, oro har, salatzaileak ez dauka interesdun gisa parte hartzeko ahalmenik, hala xedatzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko [otsailaren 20ko 2/1998 Legearen](#) 34.4 artikulua; hau da, salaketak berak, besterik gabe, ez du bihurtzen salatzailea interesatu zigor-jardunbidean, horrek honako eskubide hauek baino ez baititu, oro har: organo eskudunak jardunbidea irekiko duen edo ez jakitea, eta, hala badagokio, jardunbide horri amaiera emango dion eabazpenaren berri jasotzea.

Hori dela eta, jasotako informazioa ikusita, Arartekoak ez zuen irregulartasunik antzeman, kexaren alderdi horri dagokionez.

Pertsona batek Arartekora jo zuen honako hau adierazteko: Eroski denda batean bere audiofonia galdu ondoren, jakin zuen segurtasun-zaintzaile batek aurkitu zuela eta beste pertsona bati eman ziola, berea zela egiaztatzeko eskatu gabe. Horregatik, herritarrak Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo Sailera jo zuen eta kontsumoko arbitrajea eskatu zuen, merkataritza-establezimenduak aparatuaren balioaren zenbatekoa ordaintzea lortzeko asmoz.

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 3.1 artikulua ezartzen du kontsumitzaile-erabiltzailearen definizioa:

“Lege honen ondorioetarako, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak honako hauek dira: edozein nazionalitate edo bizileku duten pertsona fisikoak edo juridikoak, ondasun higigarriak edo higiezinak, produktuak edo zerbitzuak azken hartzaile gisa eskuratzen, erabiltzen edo baliatzen dituztenak, baldin eta hornitzailea enpresa bat edo profesional bat bada, edota Administrazioa bera bada, zerbitzuak egitean edo produktuak hornitzean zuzenbide pribatuko erregimenean arituta”.

Hau da, egintza juridiko baten bitartez, kostu bidez edo doan ondasun edo zerbitzuak amaierako hartzaile gisa erosten, gozatzen edo erabiltzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiak (gizonak, emakumeak, entitateak, erakundeak, enpresak) dira kontsumitzaileak.

Hori dela eta, kontsumo-harremana eta, gatazkak sortzen direnean, horiek ebazteko judizioz kanpoko prozedura –kontsumoko arbitrajea– ondasun, produktu edo zerbitzu horiek eskaintzen dituzten enpresen eta produktu edo zerbitzu horiek erosten edo erabiltzen dituzten kontsumitzaileen artean baino ezin da sortu. Horregatik, hain zuzen ere, kontsumorako eskubideak ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harremanen funtsezko alderdiak arautzen ditu:

- Osasuna babesteko, kalitate oneko bizitza izateko, segurtasunez bizitzeko eta ingurumen egoki batez gozatzeko eskubidea. Kontsumitzaileek erosten dituzten produktu edo zerbitzuak ezin dira ariskutsuak izan osasunaren, segurtasunaren eta ingurumenaren ikuspuntutik.

- Interes ekonomikoak eta gizartearen interesa babesteko eskubidea. Eskaintzek, sustapenek eta, batez ere, produktu eta zerbitzuen publizitateak egiarekin bat etorri behar dute, produktu eta zerbitzu horien izaerari, ezau-garrii, baldintzei eta helburuari dagokienez.
- Informazioa eskuratzeko eskubidea. Kontsumitzaile orok badu merkatuan dauden ondasun eta zerbitzuen ezau-garrii buruzko informazioa –egiazkoa eta osatua– jasotzeko eskubidea.
- Hezkuntzarako eta etengabeko prestakuntzarako eskubidea. Guztiek, haurrek zein helduek, kontsumitzaileak izateak ematen dizkien eskubide eta betebeharrak eza-gutu behar dituzte.
- Ordezkaritza-eskubidea. Eskubide hori kontsumitzaileen elkarrean bidez gauzatzen da. Elkarre horiek pertsonak (kontsumitzaileak) eratzen dituzte, araudiaren arabera, kolektiboan enpresen aurrean defendatzeko eta administrazioaren aurrean elkartekideen ordezkaritza jarduteko.
- Entzunaldirako eskubidea. Horretaz gain, kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarre entzun egiten zaie zuzenean eragiten zaizkien arauak egiteko prozeduran zehar.

Azaldutako testuinguruan, Kontsumobidek ez zuen onartu arbitrajearen eskaera, kexagilearen eta Eroskiren artean kontsumo-harremanik ez zegoela ulertuta. Arartekoak, bere aldetik, erabaki horren alde agertu zen, segurtasun-zaintzaileak audiofono bat horren jabea zela egiaztatu ez zuen pertsona bati entregatu izana kontsumo-harreman batetik kanpo gertatu zelako; bestela esanda, tartean ondasunak ekoizten edo zerbitzuak eskaintzen dituen pertsona baten eta ondasun edo zerbitzu horiek kontsumitzen edo erabiltzen dituen baten arteko harremanik ez zegoenez, kontua aztertzeke, ezin da kontsumo-arbitrajearen prozedura erabili.

2.3. Finantza-erakundeak eta aseguru-etxeak

Bankuen praktikei eta aseguru-etxeen erabakiei buruzko kexa eta kontsultak, herritarrek Arartekoaren erakundeari helarazi dizkietenak, jaso dira epigrafe honetan.

Finantza-erakundearen edo aseguru-etxearen jardunaren kontrola ez dagokio Arartekoaren erakundeari. Hala eta guztiz ere, pertsona horiek orientatzen saiatzen gara, hau da, beren eskura dauden bideei (erreklamazioa egiteko eta arazoa bideratzeko) buruzko informazioa ematen diegu.

Banku-produktuak eta aseguruak kontratatu edo erabili dituzten herritarrek, jurisdikzio zibileko justizia-organismoetan salaketa jartzeaz gain, beste aukera batzuk ere badituzte. Adibidez, Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoetara (KIUB) eta [Kontsumobidera](#) ere jo dezakete. Bertan, zerbitzu horien kontsumitzaile eta erabiltzaile izateagatik dagozkien eskubide eta beharrei buruzko informazioa jasoko dute.

Era berean, kontuan izan behar da banku-erakundeek zein aseguru-etxeek badutela barruko zerbitzu espezializatu bat,

erreklamazioak egiteko. Banku-erakundearen kasuan, [Espainiako Bankuaren Erreklamazio Zerbitzura](#) iristen dira kexak. Horren ardura da neurrigabeko jarduerak saihestea eta bankuei buruzko indarreko araudia edozein unetan bete dadila zaintzea.

Era berean, aseguru eta pentsio-planei dagokienez, [Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioako Aseguru eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Orokorra](#) arduratzen da halako zerbitzuak kontratatzean sor daitezkeen gatazkak ebazteaz. Prestatutako prozedura doakoa eta judiziorik kanpoko da, hala ere, ez ditu ebazten jarduera ekonomiko horretan sor daitezkeen arazo guztiak.

Azkenik, aipatu behar da gure autonomia-erkidegoan borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeak indartsu garatu direla, eta, ondorioz, euren funtzionamendua ere Arartekoaren iritzira jarri dela. Halaber, kontuan izan behar da [Eusko Jaur-laritzako Ogasun eta Finantza Sailak](#) esleitura dituela zenbait fiskalizatze-ahalmen, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak (BGAE) dagokienez. Arartekoak azter ditzake ebazpen horiek, EAEko administrazioaren organo batek emandakoak direlako.

2016an jasotako kexen artean, banku-produktuak kontratatu eta erabili dituztenek desadostasuna helarazi digute, bankuek libreta mantentzeagatik eta zorpekoa izateagatik **komisioak** kobratu dizkietelako. Era berean, gaitzespena adierazi dute bankuek irimotasunez erabiltzen dituzten praktika batzuekiko; hain zuzen ere, kexagilea ekonomia-egoera hobean zegoela emandako mailegu pertsonala –zenbateko nagusia eta interesak– itzultzeko eskatzen dute bankuek, banku-txartelak entregatzea atzeratzen dute edo kaudimen-txostena ordaintzeko eskatzen dute, eskatutako mailegu pertsonala eman ez den arren.

Hala ere, kexa gehien eragin dituen arazoa **enpresako BGAE batzuetan metatutako eskubideak berreskuratzeko aukerarik eza** izan da, iraupen luzeko langabeziaren kasuetan. [Otsailaren 23ko 5/2012 Legeak](#), Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak buruzkoak, hainbat kontingentzian gaitzen du BGAEaren bitartez berreskuratzeko, besteak beste, bazkidea iraupen luzeko langabezian dagoenean. Hala ere, legeak ez du ezartzen funts horiek berreskuratzeko beharrik, eta ez du horretarako biderik ematen, kontingentzia hura ez bada aurreikusitako eragindako BGAE jakin bat arautzen duten estatutuaren. Hau da, iraupen luzeko langabeziaren kasuan fondoak berreskuratzeko aukera egoteko, BGAEaren Estatutuek berriaz aipatu behar dute kontingentzia horrek metatutako fondoak berreskuratzeko bidea ematen duela.

Era berean, estatutu batzuek mugatu diete beren onuradunei prestazioak jasotzeko modua, erakundearen metatutako zenbatekoaren arabera. Irizpidea aldatzeak ere kexak eragin ditu.

Azkenik, eragindako pertsonak desadostasuna adierazi dute honako kontu hauekin: zirkulazio-istripu bat izan ondoren aseguru-etxeek eskaintzen duten osasun-estaldura, eta aseguratutako kalte-ordaina ordaintzeari uko egitea, ezintasun iraunkor osoa aitortzea eragiten duen gaixotasun baten kasuan.

Auzitegi Gorenak zoru-klausulen arloan duen jurisprudenziaren ondoriozko **zoru-klausulen eraginkortasunik ezaren ondorioak mugatzeari** dagokionez, hasieran, 2016ko uztailan jakitera eman ziren **Paolo Mengozzi abokatu nagusiak aurkeztutako konklusioak**; izan ere, Espainiako hipoteka-maileguetan jasotako zoru-klausulen eraginkortasunik ezak ondorioak izateko epea mugatzea Kontseiluak 1993ko apirilaren 5ean emandako 93/13/CEE Zuzentarauaren 6. artikuluko 1. idatz-zatiarekin bateragarria zela deklaratzeko eskatu zion abokatuak Justizia Auzitegiari.

Hala ere, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak, azkenean, atzera bota du tesi hori eta honako hau defendatu du bere **2016ko abenduaren 21eko epaian**: *“el Derecho de la Unión se opone a una jurisprudencia nacional en virtud de la cual los efectos restitutorios vinculados a la nulidad de una cláusula abusiva se limitan a las cantidades indebidamente pagadas con posterioridad al pronunciamiento de la resolución judicial mediante la que se declare el carácter abusivo de la cláusula”*.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak azpimarratu du klausula bat abusuzkoa dela deklaratzeko kontsumitzailea lehen egoeran, hau da, klausula hori egon ez balitz bezala, geratzea eragin beharko lukeela. Zehaztu duenez, Europar Batasuneko Justizia Auzitegia, Batasuneko Zuzenbideko arau bat interpretatzen duenean, interpretazioari aplika dakizkioken erabakiak (denboran mugatzeari buruz) har ditzakeen organo bakarra da.

Eta, hain zuzen ere, honako hau aitortu du: *“la limitación en el tiempo de los efectos jurídicos derivados de la declaración de nulidad de las cláusulas suelo, que el Tribunal Supremo acordó en la sentencia de 9 de mayo de 2013, equivale a privar con carácter general a todo consumidor que haya celebrado antes de aquella fecha un contrato de préstamo hipotecario que contenga una cláusula de ese tipo del derecho a obtener la restitución íntegra de las cantidades que haya abonado indebidamente a la entidad bancaria sobre la base de la cláusula suelo durante el período anterior al 9 de mayo de 2013”*.

Auzitegi Gorenak hartutako erabakien ondorioz babesa mugatzea, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren hitzetan, *“resulta incompleta e insuficiente y no constituye un medio adecuado y eficaz, para que cese el uso de dicha cláusula”*.

Era berean, eremu komunitarioan, **Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (Lehenengo Sala) 2016ko apirilaren 14an** emandako epaia¹ aipatu behar da, honako hau deklaratzeko duena: *“el artículo 7 de la Directiva 93/13 debe interpretarse en el sentido de que se opone a una normativa nacional, como la de los litigios principales, que obliga al juez que conoce de una acción individual de un consumidor, dirigida a que se declare el carácter abusivo de una cláusula de un*

contrato que le une a un profesional, a suspender automáticamente la tramitación de esa acción en espera de que exista sentencia firme en relación con una acción colectiva que se encuentra pendiente, ejercitada por una asociación de consumidores de conformidad con el segundo apartado del citado artículo con el fin de que cese el uso, en contratos del mismo tipo, de cláusulas análogas a aquella contra la que se dirige dicha acción individual, sin que pueda tomarse en consideración si es pertinente esa suspensión desde la perspectiva de la protección del consumidor que presentó una demanda judicial individual ante el juez y sin que ese consumidor pueda decidir desvincularse de la acción colectiva”.

2.4. Energia

Energia-pobretasunari buruzko gomendio orokorra. XXI. mende betean, Euskadin jende askok eta askok zailtasun larriak ditu hilabete hotzetan etxean tenperatura egokia mantentzeko. Pertsona horien kopurua 235.526raino iritsi da 2014an, 2008an 90.000 baino gutxiago izan arren. Energia-pobretasuna izenez ezaguna den fenomeno baliabide ekonomiko nahikorik ez izatearen ondorioz gertatzen da normalean, baina etxebizitzak baldintza objektibo txarrak izateagatik edo baliabide energetikoen prezioa gehiegizkoa delako ere gerta daiteke.

Euskadin pobretasun energetikoaren fenomenoaren ezaugarriak aztertzeko eta horri aurrea hartzeko, Arartekoak **1/2016 Gomendio Orokorra, Euskadiko energia-pobrezari buruzko gizarte-etzabaidarako oinarriak** aurkeztu du. Horren bidez, administrazio publikoei dagoeneko existitzen diren politika publikoak eta gizarte-ekimenak laguntzeko proposamen eta gomendioak eman nahi izan dizkio, negu honetan Euskadin 200.000 baino biztanle gehiagori eragingo dion fenomenoaren ondorioak murriztu eta arintzeko.

Fenomeno horren ezaugarri bereziak ikusita, kontuan izan behar da energia-baliabideen urritasuna ez bakarrik pertsonen egoera ekonomikoari dagoela lotuta. Energiaren premia etxeko baldintza objektiboei estu lotuta dago (etxebizitza mota, eraikitze erabili diren materialak, isolamendua edo energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko neurriak). Era berean, badu lotura zerbitzu energetikoen hornidura-merkatuko baldintzekin (zenbatekoak diren zerbitzuaren kostuak, energia-iturriak erabiltzeko sistema zentralizatua edo deszentralizatua izatea). Gauzak horrela, energia-pobretasunak ez die eragiten errenta txikia duten pertsonen baka-rrik, baizik eta eraikinaren baldintza txarren edo energiaren prezio altuaren ondorioz gehiegizko gastu energetikoa jasan behar duten kolektiboei ere eragin diezaike.

Herri agintariei energia-pobretasunari aurrea egiteko eta horren ondorioak arintzeko estrategia bat eskatzea Europar Batasunaren araudiak botere publikoei ezarritako eginkizuna da. Estrategia horrek kontuan hartu behar ditu printzipio batzuk, baita zerbitzu publikoaren betebeharrak ere. Printzipio eta betebeharrak horiek egun arte gai hori buruzko arauetatik sortzen dira. Gizarte-bazterketa mota horren kontra egiteko neurri publikoak edo hitzartutakoak zenbait esparru hartu behar dituzte aintzat.

¹ Epaia aurreko arazo horien artean, honako honi buruzko iritzia eskatu zitzaion Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari: hipoteka-mailegua berritzeko kontratu batean jasotako zoru-klausularen deuseztasuna –abusuzkoa izateagatik– deklaratzeko eskatzen zuten akzio indibiduala bertan behera uztea, akzio kolektiboa epai irmoaren bidez ebatzi arte. Eskari horiek aurkeztu aurretik, kontsumitzaileen elkarte batek 72 banku-erakunderen aurka akzio kolektiboa egikaritu zuen, hain zuzen ere, mailegu-kontratuaren zoru-klausulak erabiltzeari uztea lortzeko. Prozedura Zibilaren Legearen 43. artikulua erabiltzeko, auzi nagusietan salatutako aldeek prozedura horiek akzio kolektiboa amaitu zuten epai irmoa eman arte etetea eskatu izan zuten; eragindako kontsumitzaileek eskaera horren aurka egin zuten, hain zuzen ere.

1. Energia-sektorearen eta kontsumitzaile ahulenen arauketa-eremua.
 - 1.1. Euskadiko energia-pobretasunaren aurka borrokatzeko plana finkatzea.
 - 1.2. Energia-pobretasuna jasateko zorian dagoen kontsumitzaile ahula definitzea.
2. Energiaren kontsumitzaile ahulenak babesteko neurriak.
 - 2.1. Kolektibo ahulenei energia-hornidura bermatzea.
 - 2.2. Energiaren kontsumitzaile ahulenen ikuspuntutik egokia den informazioa eskuratzeko eskubidea.
3. Energiaren pobretasunak eragindako etxebizitzetan eta eraikinetan energia-eraginkortasuna hobetzeko neurriak.
 - 3.1. Energia-ikuskaritzak bezero ahulენტzat.
 - 3.2. Babes ofizialeko etxebizitza-parkearen energia-eraginkortasunaren azterketa.
 - 3.3. Kolektibo ahulenei zuzendutako energia-berrikuntzarako laguntzak.
4. Energia-pobretasunaren ondorioak arintzeko gizarte-neurriak.
 - 4.1. Gizarte-larrialdietarako laguntzak, energia-pobretasunak eragindako etxeen eraginkortasuna hobetzeko.
 - 4.2. Energia aurrezteko laguntzak lotzea.

Aipatu behar da Eusko Legebiltzarrak mozio bat eztabaidatzen zegoela eta pasa den urteko apirilaren 22an, legez besteko proposamena aurkeztu zuela, Eusko Jaurlaritzak lehenbailehen zehatz dezan Euskadiko energia-pobretasunaren aurkako euskal estrategia bat.

Arartekoak azpimarratu du energia-pobretasunaren aurkako neurriak aplika daitezkeen Europako zuzentarauetan aurreikusi direla; bertan xedatutakoaren arabera, mekanismo nahikoak ezarri behar dira, aldi kritikoetan –nolanahi ere, neguko hilabeteetan (abendua, urtarrila, otsaila, martxo)– energiaren hornidura bermatzeko.

Gaurdaino, egoera ekonomiko txarrean daudenei argindar eta gas hornidura bermatzeko neurri batzuk ikusi ditu Arartekoak. Udal batzuek, besteak beste, euskal hiru hiriburueta-koek (Bilbo, Vitoria-Gasteiz eta Donostia) baita Irungo Udalak ere, hitzarmen bat sinatu dute Iberdrola energia-enpresarekin, udalerrri horietan energia-pobretasuna jasaten dutenak modu aktiboan babesteko. Hitzarmenak koordinazio-mekanismo batzuk jasotzen ditu, familia ahulenei energiaren hornidura (argindarra eta gasa) etetea saihesteko. Hitzarmenaren helburua udalaren eta enpresaren arteko koordinazio-mekanismoak ezartzea da, faktura ez ordaintzeagatik hornidura eteteko kasuak saihesteko. Neurri hori udalerrri horietan erroldatuta dauden eta gizarte-larrialdietarako laguntza baten onuradunak izan daitezkeen pertsonentzat da, baldin eta legez ezarritako baldintzak betetzen badira eta kreditu egokia eta nahikoa baldin badago. Era berean, konpainiak energia-eraginkortasunaren arloko aholkuak eta informazioa emango dizkie laguntza horien hartzaileei.

Ekimen horiek energia-merkatua erregulatzen duten Europako arauak (2009/72/CEE Zuzentaraua eta 2009/73/CEE

Zuzentaraua) ezarritako bideari jarraitzen diote. Arau horiekin bat, Euskadiko administrazioek energia-pobretasunaren aurka borrokatu behar dute, eragindako pertsonen kopurua gutxituz eta haiei lagunduz, energia-horniduran etenak jasan ez ditzaten, batez ere larrialdietan.

Laburbilduz, horiek denak jarduera solidarioaren eredu egokiak dira, eta Arartekoak jarduera hori hedatu nahi du euskal udalerrri guztietara eta energia merkaturatzen duten enpresetara, energia berriztagarriaren kooperatibetara eta arlo horretan jarduera berritzaileak eta esperimentalak egiten dituzten sektoreko beste erakunde batzuetara.

Euskal Autonomia Erkidegoan eredu energetiko iraunkorra eta karbono gutxikoa ezartzeko prozesuari buruzko txosten berezia

2016an, Euskal Autonomia Erkidegoan eredu energetiko iraunkorra eta karbono gutxikoa ezartzeko prozesuari buruzko txosten berezia prestatzen hasi da Arartekoa. Txostenaren xedea hau da: Euskadin gaur egun dagoen eredu energetikoari buruzko hausnarketa egiteko oinarri batzuk proposatzea eta euskal eredu energetikoa iraunkorrago bihurtzeko aholkuak biltzea. Gaur egungo eredu energetikoak hiru hauek bermatu bete behar ditu: horniduraren segurtasuna, ekonomia-egonkortasuna eta ingurumen-iraunkortasuna. Xede horiek arazoak sortzen dituzte gaur egun. Gure sistema gune ezegonkorretan dauden herrialdeetatik datozen energia iturrien mende dago, sistema energetikoaren kostuetatik eratorritako prezio altua du, eta gainera, karbonoaren isuriak zorrozki eta hamarkada gutxitan murrizteko beharra dago. Ondorioz, karbonoaren igorpen txikiko eredu bat bilatu behar da nahitaez. Gaur egungo eredu energetikoaren oinarri horiei beste bat gehitu behar zaie: onargarritasun soziala. Gure gizarteak gobernantza-eredua aldatzeko eskatzen du, erabaki publikoak hartzeko modua hobetzeko, eta proposamen horietatik dator laugarren eskakizun hori.

Testuinguru horretan, energiaren inguruko politikaren barruan hartzen diren erabakiak energia alorreko eragileen, botere publikoen eta herritarren artean adostea eskatu behar litzateke. Badago gizarte-mugimendu bat, ordezkaritza sozial eta politiko zabalekoa, energia-eredu iraunkor hori lortzeko proposamenak bultzatzen dituena. Eredu energetiko berri hori eraikitzeko, lau funtsezko oinarri hauek hartu behar dira kontuan: energiaren kostua eta prezioa; horniduraren segurtasuna; ingurumen- eta klima-inpaktua; eta gizarte-eragina eta onargarritasun publikoa. Gai horiek une berezian jartzen dira mahai gainean, hain zuzen, nazioarteko eta Europar Batasuneko eremuan hartutako konpromiso eta hitzarmenak berotegi-gasen isuriak murrizteko, aurrezpen eta eraginkortasun energetiko eta energia berriztagarriko iturrietatik datorren energiaren kontsumoaren kuotak ezartzeko zuzenduta daudenean.

Horretarako, Arartekoak energia-estrategia iraunkorren oinarri buruzko dokumentu bat hartuko du abiapuntu (energiaren kostua eta prezioa; horniduraren segurtasuna; ingurumen- eta klima-inpaktua; eta gizarte-eragina eta onargarritasun publikoa). Abiapuntua izango den dokumentua behin prestatuta, eztabaida-jardunaldi bat antolatuko da,

gaian interesa duten euskal elkarte, organizazio eta erakundeekin batera. Eztabaida-jardunaldia lehen urratsa izango da Arartekoak gomendio eta ondorio batzuk emateko, Euskal Autonomia Erkidegoan energia-eredu berri bat ezartzeko prozesuari buruz.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Arauzko testuingurua

Finantza arloari dagokionez, 2016. urtearen hasieran, [azaroaren 4ko ECC/2316/2015 Agindua](#), finantza-produktuen gaineko informazioa emateko betebeharreri eta produktu horiek sailkatzeari buruzkoa, jarri zen indarrean.

Arau horren xedea finantza-produktuak kontratatu dituen edo kontratatuko dituen bezeroari babes maila egokia bermatzea da, informazioa emateko eta produktu horiek sailkatzeko sistema normalizatu bat ezarrita; hain zuzen, inbertsioaren arrisku maila koloreen bidez adieraziko da, bezeroaren beharrei eta aurrezteko nahari egokitutako produktuak aukeratzeko laguntzeko. Horretarako, erakundeek bezeroei edo bezeroak izan daitezkeenei arrisku-adierazle bat eman beharko diete, baita, hala badagokio, likidezia eta konplexutasunari buruzko alertak ere. Horrela, bete egiten da Herriaren Defendatzaileak 2012an egindako proposamena.

Krisialdiaren ondorioak, bankuen sektoreak eskura dituen baliabide eta informazioaren eta herritarrek dituzten artean alde handia dagoela herritarrek gero eta hobeto ulertzea, iragarritako errentagarritasun-itxaropena bete ez duten inbertsio-produktuak erosteagatik herritar batzuk jasaten ari diren ondorioak edo hipoteka-maileguen kontratuek barnean hartutako klausula batzuk behar den informaziorik gabe sinatzea, hori guztia dela eta, azken urteotan, ugaritu egin dira bankuen jardunaren inguruko auziak, baita finantza-sektoreak –aurrezteko eta inbertitzeko produktuen merkaturatzaile izanik– betetzen duen eginkizunari lotutako auziak ere.

2016an Espainiako zein Europako organo judizialek ebazpen ugari eman dituzte, bankuetako bezeroek –kontsumitzaile eta erabiltzaileek– salatutako praktika batzuen inguruan.

Ebazpenen zerrenda osoa emateko asmorik gabe, horietako batzuk nabarmendu nahi ditugu, krisialdiko azken urte horietan zehar euskal herritarrek aurkeztu dizkiguten gaiak lantzen dituzten heinean.

Adibidez, [2016ko otsailaren 3an](#), [Auzitegi Gorenaren Zibileko Salak](#) gaitzetsi egin zituen Bankiak [Valentziako Probintzia Auzitegiaren 2015eko urtarrilaren 7ko epaiaren](#) aurka jarritako aparteko errekursoak, arau-hauste prozesalean oinarritutakoa eta kasaziokoa; izan ere, epaiaren bidez, entitateak burtsara irtetea aztertu ondoren, akzioak harpidetzeko kontratuen deuseztasuna deklaratu zen, adostasunaren akatsa zela medio. Honela arrazoitzen du bere erabakia Auzitegiak:

“Y si resulta que dicho documento (Bankia burtsara irteteari buruzko informazio-liburuxka) contenía información económica y financiera que poco tiempo después se revela gravemente inexacta por la propia reformulación de las cuentas por la entidad emisora y por su patente situación de falta de solvencia, es claro que la Audiencia anuda dicho déficit informativo a la prestación errónea del consentimiento, en los términos expuestos, sin necesidad de que utilicen expresamente los vocablos nexos causal u otros similares. Lo determinante es que los adquirentes de las acciones ofertadas por el banco (que provenía de la transformación de una caja de ahorros en la que tenían sus ahorros), se hacen una representación equivocada de la solvencia de la entidad y, consecuentemente, de la posible rentabilidad de su inversión, y se encuentran con que realmente han adquirido valores de una entidad al borde de la insolvencia, con unas pérdidas multimillonarias no confesadas (al contrario, se afirmaba la existencia de beneficios) y que tiene que recurrir a la inyección de una elevadísima cantidad de dinero público para su subsistencia de donde proviene su error en la suscripción de las acciones, que vició su consentimiento”.

Halaber, [Auzitegi Gorenaren \(Zibileko Sala\) 2016ko abenduaren 1eko Epai](#)a aipatu behar da; izan ere, epai horretan auzitegiak Kode Zibilaren 1301. artikularen interpretazioa sustatu du, aplikatu behar den garaiko errealitatearen arabera: adostasunaren akatsa dela medio deuseztatzea gautzeko 4 urteko epea ezin dela mendeko finantza-erakundeak erosteko kontratua perfektionatu zenetik zenbatzen hasi, epaitegiak ulertu zuen bezala, auzi-jartzaileak kontratua deuseztatzeak arrazoitzat aipatutako akatsari lotutako inguruabarraren berri jaso zuenetik baizik. Inguruabar hori 2013ko urtarrilaren 31ri dagozkion kupoiak ordaintzeko etetea da, hain zuzen ere. Une hartan ezagutarazi zitzaizkion auzi-jartzaileari erositako finantza-produktuaren ezaugarriak eta bere gain hartu zituen arriskuak. Auzitegi Gorenak aitortu duenez, *“en relaciones contractuales complejas como son con frecuencia las derivadas de contratos bancarios, financieros o de inversión, la consumación del contrato, a efectos de determinar el momento inicial del plazo de ejercicio de la acción de anulación del contrato por error o dolo, no puede quedar fijada antes de que el cliente haya podido tener conocimiento de la existencia de dicho error o dolo. El día inicial del plazo de ejercicio de la acción será, por tanto, el de suspensión de las liquidaciones de beneficios o de devengo de intereses, el de aplicación de medidas de gestión de instrumentos híbridos acordadas por el FROB, o, en general, otro evento similar que permita la comprensión real de las características y riesgos del producto complejo adquirido por medio de un consentimiento viciado por el error”.*

Gardentasun-ezagatik zoru-klausulen deuseztasuna deklaratzaren ondorioei dagokionez, Auzitegi Gorenako Lehenengo Salak eutsi dio lehen esandakoari: kasaziopean jarritako aurkaratze-akzio indibidualei dagokionez, dagoeneko ordaindu diren zenbatekoak itzultzeko beharrak 2013ko maiatzaren 9tik aurrera izango ditu ondoreak.

Auzitegi Gorenak itzulketa mugatu duenez, estatuko auzitegi batzuek epaitu aurreko arazoak Europar Batasuneko Justizia Auzitegian aurkeztu dituzte. Bertan, [Kontseiluak 1993ko](#)

apirilaren 5ean emandako 93/13/CEE Zuzentarauaren 6.1 artikulua xedatzen duen abusuzko klausulekin ez lotzearen printzipioarekiko bateragarritasunari buruzko iritzia eskatu da.

Energiaren arloan, 2016an, **Euskadiko Energia Estrategia berrikusi** da. Izan ere, **Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak Euskadiko 2030 Estrategia Energetikoa (3E2030)** prestatu du 2016an, aurreko 3E2020 Estrategia zenbait arlotan izandako aldaketek (arauetan, teknologian, merkatuan) ezarritako eskakizun berrietara egokitzeko asmoz. Estrategiak Eusko Jaurlaritzaren 2016-2030 aldirako helburuak eta jarduteko norabideak zehazten ditu, politika energetikoaren arloan, eta, lehiakortasunaren eta horniduraren segurtasunaren aldetik, gero eta iraunkorragoa den eta karbonoa gero eta gutxiago erabiltzen duen sistema energetiko bat lortzeko proposamena egiten du.

3E2030 estrategiak planteatutako helburuetako batzuk, hurrengo 15 urteetarako, honako hauek dira:

- 2030ean %17ko aurrezpena lortzea, energia primarioari dagokionez.
- Energia berriztagarrien erabilera bultzatzea, 2030ean azken kontsumoan berriztagarrien kuota %21 izatea lortzeko (inportazio elektriko berriztagarria barne).
- Klima-aldaketa arintzen laguntzea urtean energiak sortzen dituen berotegi-efektuko gasen isuriak %35 murriztuz, 2005. urtearekin alderatuta.
- Euskal administrazio publikoaren konpromiso eredu-garria sustatzea, haren instalazioetan energia-kontsumoa %25 murriztu ahal izateko 10 urteko epean; hartarako, haren eraikinen %25ean energia berriztagarrien aprobetxamenduko instalazioak ezarriko dira eta, gainera, zerbitzu publikoko ibilgailu alternatiboak gehituko dira.
- Errepideko garraioan ordezko energien %25eko kuota lortzea, pixkanaka petrolioaren baztertua eta ibilgailu ja-sangarriagoak erabiltzea nabarmenduta.

Planifikazio estrategikoaren tresna garrantzitsu horren ebaluazioa eta jarraipena egiteak eztabaidarako aukera ematen du, euskal eskumen-esparruko gai batzuk –eraginkortasuna, aurreztea, energia berriztagarriak eta atmosferara aieratzen diren karbonoaren emisioak murriztea kontuan hartzen dituen euskal energia-eredu iraunkorrari loturikoak– jorratzeko.

Era berean, kontuan izan behar da ingurumenaren eta klima-aldaketaren estrategia ebaluatzeko beharra. 2015eko ekainean, Eusko Jaurlaritzak 2050erako **Klima Aldaketaren Euskadiko estrategia** onetsi zuen. Estrategiak honako helburu hauek azaldu ditu: berotegi-gasen isuriak %80 murriztea 2050. urterako (2005ekoak erreferentziaz hartuta) eta energia berriztagarrietatik sortutako azken kontsumitzaileak erabiltzen duen energiaren kantitatea %40 igotzea (inportatutako argindarraren kontsumoa barne).

Energia-adierazleak

Adierazle bi horiei dagokionez, esan behar dugu, gaurdaino argitaratu den azken **berotegi-efektuko gasen emisioen inbertarioaren** arabera, oinarritzat hartzen den 1990etik –Kyotoko hitzarmena sinatu zenean– 2014ra bitartean, **Euskadiko isuriak %10 inguru jaitsi direla** (%24,7, 2005. urtea oinarri hartuta), 19,3 milioi tona CO₂-ren baliokidea izanik.

Bestalde, **EEE Energiaren Euskal Erakundeak** aurkeztutako **energia datuen** arabera, **azken kontsumoan energia berriztagarrien kuota %7,2** zen 2015ean (%13,2, inportatutako elektrizitatearen jatorri berriztagarria kontuan hartzen bada). Energia berriztagarriaren aprobetxamendua 454 ktpb-ekoa izan da urte hartan (mila tona petrolio baliokide). Kopuru horretatik %68,4 biomasari dagokio, %15,1 bioerregaiei, %8,2 hidroelektrikoari eta %6,5 eolikoari.

Energia aurrezteari dagokionez, esan behar da **azken energia kontsumoa %1 igo** egin zela 2015ean eta 5.034 ktpb-ra iritsi zela, murriztu zuen sektore bakarra industria izanik. Energiaren kontsumoa garraioan, azken kontsumoaren %38,2, alegia, 1.925 ktpb-era iritsi zen, %3,4ko igoera izan ondoren (garraioan erabilitako energiaren %95,6 petroliotik eratorriek dagokie oraindik).

Energia-eraginkortasunari dagokionez, **azken energia intentsitatea** (azken energia-kontsumoa BPGd-ren unitateko) **%2 hobetu** da Euskadin (oinarri hartutako 2007. urtearekin alderatuta, %11 jaitsi da), BPGd-ren %2ko igoera dela medio kontsumoak gora egin duen arren.

Araudiaren arloan, gizarte-bonuaren eta energia elektrikoaren kontsumitzaile ahula babesteko beste neurri batzuen kostua finantzatzeko mekanismoa arautzeko **7/2016 Errege Lege Dekretua, abenduaren 23koa** aipatu behar da.

Era berean, arau horrek energia elektrikoaren kontsumitzaile ahula babesteko neurri berriak onartu ditu eta beste urrats bat izan da **2009/72/CEE Zuzentarauak** ezarritako betebeharren transposizio egokia lortzeko.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

Energiaren arloan, egungo eredu energetikoaren aldaketarekin eta kontsumitzaile ahulenen babesarekin zerikusia duten zenbait jarduera burutu dira.

4.1. Gomendio orokorrak

Bigarren idatz zatian **Arartekoaren 1/2016 Gomendio Orokorra** aipatu da: **Euskadiko energia-pobretasunari buruzko gizarte-etzabaidarako oinarriak**.

4.2. Iritzi artikulua eta erakundeen adierazpenak

Arartekoak “Negua itzuli baino lehen” izenburuko artikulua argitaratu du, Euskadin energia-pobretasunaren inguruan piztu den eztabaidari buruz. Horren bidez, Arartekoaren erakundeak berriz azpimarratu du energia-pobretasunaren aurkako estrategia bat ezarri behar dela Euskadin.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Berez, hori ez da Arartekoaren erakundeari dagokion jarduera-eremua, finantza-erakunde eta aseguru-etxeen jardura kontrolatzea erakunde hau sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legeak esleitutako kontrol ahalmenetatik kanpo geratzen baita. Hala ere, saiatzeko gara herritar horiei orientabideak ematen, haien erreklamazio eta kexak organo eskudunen aurrean aurkezteko aukera izan dezaten.

1. Oro har, azpimarratu behar da oso gutxi direla arlo honetan aztertu diren kexak. Hala ere, horien guztien artean nabarmendu behar ditugu funtsezkotzat jo ditzakegun zerbitzuen erabiltzaileek aurkeztutako kexak, hala nola, gas eta elektrizitate hornidurarekin edo telefoniarekin loturikoak. Zerbitzu horiek enpresa pribatuak ematen dituzte, baina interes orokorreko zerbitzuei dagokienez, herri administrazioak arduratzen dira aginduzko kontrolak egiteaz.

Honi dagokionez, mahai gainean jarritako kasu gehienetan, azaldutako kontuari loturiko lege-esparruaren berri eman diegu kexagileei, eta beraien eskubideak defendatzeko nora jo dezaketen jakinarazi diegu.

2. Maiz jasotzen ditugu Autonomia Erkidegoko herritarren kexak, erakunde ekonomiko eta finantza-erakundeekiko harremanetan sortzen zaizkien arazoei buruz. Hori horrela izanik ere, aurrerapen handiak egin dira, bai arau-mailan, baita nazioarteko zein Europako organo judizialek emandako ebazpenen bidez ere. Organo horiek beraien iritzia eman dute bankuetako bezeroak diren kontsumitzaile eta erabiltzaileek salatutako praktiken inguruan. Ildo horretan, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren erabakia nabarmendu behar da; izan ere, auzitegiaren arabera, abusuzko klausula bat deuseztatzeko deklarazioaren ondorioak (dirua itzultzea) erabatekoak izango dira kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat, hortaz, estatu mailako auzitegiek ezin dituzte ondorio horiek murriztu, ebazpen judiziala eman ondoren bidegabe ordaindutako zenbatekoak bakarrik kontuan hartuz.

3. Arartekoak gogorarazi du Euskal Autonomia Erkidegoan energia-pobretasunaren aurka borrokatzeko gizartean piztu den eztabaidarekin jarraitu behar dela, fenomenoaren ondorioak murriztu eta arintzeko. Horretarako, Euskadin orain arte eman diren urratsak egiturazko neurrien bidez indartu behar dira, gizarte-politiken, etxebizitzaren edo energiaren kontsumitzaileen arloetan.

Azpimarratu behar da energia-pobretasunaren aurkako neurriak aplikatu daitezkeen Europako zuzentarauetan aurrekusi direla; bertan xedatutakoaren arabera, mekanismo nahikoak ezarri behar dira, aldi kritikoetan –nolanahi ere, neguko hilabeteetan (abendua, urtarrila, otsaila, martxoa)– energiaren hornidura bermatzeko.

Gaurdaino, egoera ekonomiko txarrean daudenei elektrizitate eta gas hornidura bermatzeko neurri batzuk ikusi ditu Arartekoak. Azpimarratu behar da udal batzuek, besteak beste, euskal hiru hiriburuetakoei ([Bilbo](#), [Vitoria-Gasteiz](#) eta [Donostia](#)) baita [Irungo Udalak](#) ere, hitzarmen bat sinatu dute, udalerririk horietan energia-pobretasuna jasaten dutenak modu aktiboan babesteko. Ekimen horiek, laburbilduz, jardura solidarioaren eredu egokiak dira, eta Arartekoak jardura hori hedatu nahi du euskal udalerririk guztietara eta energia merkaturatzen duten enpresetara, energia berriztagarriaren kooperatibetara eta arlo horretan jardura berriztagarriak eta esperimentalak egiten dituzten sektoreko beste erakunde batzuetara.

II. ATALA

9

HERRI-ADMINISTRAZIOEN ZERBITZUKO LANGILEAK

1. Arloa kopurutan

2016an, Ararteko erakundeak 109 kexa-espeditente jaso ditu herri-administrazioen zerbitzura lan egiten duten langileen arloan. Kopuru hori erakunde honen jarduera-arlo guztien %5,05 da.








Honako administrazio hauei eragin diete:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritz) 55
- Tokiko administrazioa 16
- Foru administrazioa.....7

Edukiari erreparatuta, espeditente horiek arlo hauekin izan dute zerikusia:

- Ordezkapenak 35
- Funtzio publikoan sartzeko hautaketa-prozesuak 16
- Beste alderdi batzuk 15
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura 12
- Ordainsariak9
- Oporrak, lizentziak eta baimenak9
- Lanpostuak betetzea3
- Laneko jazarpena.....2
- Prestakuntza2
- Lanpostuen zerrenda2
- Bateriaezintasunak1
- Hizkuntz normalizazioa1
- Barne sustapena1
- Kontratazio-araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna1

Urte honetan zehar kudeatu diren kexa horien (jasotakoak zein ebazteke egoteagatik horiei gaineratutakoak) izapidetze prozesuaren xehetasunei dagokienez, azpimarratzekoa da txosten hau idatzi den unean honako egoera honetan dardela:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herriarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
151	60	91	34	34	-	23

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Bitarteko funtzionarioak eta lizentziak

2016an, zentro ofizialetan azkenengo azterketetara joateko bitarteko funtzionarioek aurkeztutako lizentzia eskaerei Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako tratamenduari lotutako kexa bat izapidetu zen Arartekoan. Aipatutako erakundeak eskaera horiei emandako tratamendua ikusteko, kexa aurkeztu zuen pertsonak kexa aurkeztu aurretik egindako administrazio jarduketan berri eman zion erakunde honi, bereziki langileen arloan aurkeztutako eskaera kontsultak jasotako erantzunari zegokionez; honako hau azaldu zuen: *“La licencia por asistencia a exámenes finales en centros oficiales, está prevista en el artículo 32.2 o) del Decreto Foral 59/2007 del Consejo de Diputados de 24 de julio, por el que se aprueba el segundo Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal al servicios del Organismo Autónomo Instituto Foral de Bienestar Social, expresamente para los funcionarios de carrera, por lo que de conformidad con el artículo 3.1 de este mismo Decreto esta licencia no afecta a la totalidad del personal funcionario al servicio del Instituto Foral de Bienestar Social”*.

Jakina denez, funtzio publikoa antolatzean karrerako funtzionarioen araubide orokorra bitarteko funtzionarioei ere hedatu zaie, kasuan kasuko izaerara moldatu bezain azkar. Halaber, eranskinean jasotako iraupen jakineko lanari buruzko esparru akordioa aplikatzea xede duen [Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/70/CE Zuzentarauak](#), iraupen jakin bateko lanaren kalitatea hobetzeko helburu argia duenak, espresuki honako hau ohartarazi zuen, bazterketarik gabeko printzipioa aplikatzea bermatuz: *“por lo que respecta a las condiciones de trabajo, no podrá tratarse a los trabajadores con un contrato de duración determinada de una manera menos favorable que a los trabajadores fijos comparables por el mero hecho de tener un contrato de duración determinada, a menos que se justifique un trato diferentes por razones objetivas”* (Esparru akordioaren 4. klausula, 1. atala).

Klausula horri aitortu beharreko irismena edo birtualtasuna [Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren \(EJJA\)](#) hainbat adierazpenetan aipatu da, eta, horrenbestez, horri eman beharreko interpretazioari buruzko jurisprudentzia finkatua ezarri da. Horren haritik, EJJAk zehaztu du iraupen jakin bateko kontratua duten langileen eta langile finkoen arteko tratamendua desberdina izatea ezin dela justifikatu estatu mailako arau orokor eta abstraktu batean (esaterako lege edo hitzarmen kolektibo batean) aurreikusita egoteagatik. Nabarmendu duenez, “arrazoi objektiboen” kontzeptuak eskatzen du tratamendu desberdina justifikatzeko elementu zehatzak izatea, kasuan kasuko lan baldintzei dagozkienak, testuinguru zehatz batean eta irizpide garden eta objekti-

boekin bat etorri, egiazatzeko, batetik, desberdintasun hori benetako beharizan bati dagokiola, bestetik, lortu nahi duen helburua lortzea ahalbidetzen duela, eta, azkenik, horretarako ezinbestekoa dela. Horrez gain, zehaztu zenez, elementu horien sorburua betebeharren izaera berezia (betebehar horiek betetzeko iraupen jakin bateko kontratuak egiten badira) eta horien berezko ezaugarriak izan daitezke, edo, bestela, gizarte politikaren helburu legitimo bat lortu nahi izatea.

Hizpide dugun kexaren kasuan, erakundeak ulertu duenez, Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakunderako lan egiten duten bitarteko funtzionarioen eta karrerako funtzionarioen egoera argi eta garbi konparagarria da, eta elkarren arteko desberdintasun bakarra zerbitzuari dagokion denborazkotasuna da. Hortaz, EBJAren jurisprudentziarekin bat etorri, kexa eragin duen tratamendu desberdina justifikatuko lukeen balizko arrazoi objektibo bat existitzen ote den egiaztatzea beharrezkotzat jo da; hala, Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen erakunde autonomoaren zerbitzura lan egiten duten langileen enplegu baldintzak arautzeko akordioan tratamendu desberdin hori jasota egotea ez da nahikotzat jotzen.

Hala, kexa izapidetu denez, Arabako Foru Aldundiak azaldutako egoeren artean bat ere ez da nahikotzat jo kexa eragin duen tratamendu desberdina justifikatzeko arrazoi objektibo gisa onartzeko. Horren ondorioz, Arartekoaren 2016ko abenduaren 21eko Ebazpena eman zen; horren bitartez, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailari gomendatu zitzaion Arabako Gizarte Ongizateko Foru Erakundeak bitarteko funtzionarioek zentro ofizialetan azkenengo azterketara joateko egindako lizentzia eskaerei emandako tratamendua berrikusteko.

2.2. Prestakuntza eta Hezkuntzaren Berrikuntza Laguntzeko Zentroetan (Berritzeguneak) aholkulari gisa lan egiten duten irakasleen kidegoko irakasle funtzionarioak. Soldatak parekatzeko eskaera

Prestakuntza eta Hezkuntzaren Berrikuntza Laguntzeko Zentroetan (Berritzeguneak) aholkulari gisa lan egiten duten irakasleen kidegoko irakasle funtzionarioen talde batek kexa aurkeztu du erakunde honetan, beste aholkulari batzuekin erkatuta soldata desberdina jasotzearekin ados ez daudela azaltzeko; izan ere, zerbitzu berdinak eskainiz, beste aholkulariek soldata altuagoa jasotzen dute, soilik beste irakasle kidego batzuetakoak direlako.

Kexa aurkezteko unean, interesdunek 2015eko urtarriletik maiatzera hezkuntza administrazioaren aurrean modu indibidualean aurkeztutako zenbait ekimenen berri eman zitoten erakunde honi, baita Langileak Kudeatzeko zuzendariak ekimen horiei emandako aurkako ebazpenen berri ere.

Funtzionario talde honen helburuetako bat, azaldu dutenez, lehenengo eskaerei zegokienez lortutako isiltasun onargarria ziurtatzea zen, hau da, hezkuntza administrazioak beha-

rrzko urratsak emateari ekiteari zegokiona, hain zuzen ere, [otsailaren 17ko 41/2009 Dekretuko](#) xedapen gehigarria aldatzeko; dekretu horren bitartez, Berritzeguneetako lanpostuen zerrenda onartu zen, eta, parekatzea dela bide, A azpitaldeari esleitutako jatorri osagarria jasotzea aurreikusitako aldi baterako osagarri pertsonal baten bitartez.

Erakunde honen aburuz, hezkuntza administrazioak ulertu du, baita ondo ulertu ere, interesdunek aurkeztutako eskaerak Konstituzioaren 29. artikuluan aitortutako eskaera eskubidea baliatzeari zegozkiola, eta, horrenbestez, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen [azaroaren 26ko 30/1992 Legeko](#) 43.2. artikuluan jasotakoari jarraituz, testu horretan bertan aurreikusitako arauaren salbuespen kasuetako bat zela; hortaz, ez zen posible interesdunek eskabideak onartuzat jotzea, administrazio isiltasuna zela eta.

Horrez gain, erakunde honen iritzi, hezkuntza administrazioak ongi ulertu du interesdunen eskabideei erantzunak ematean soilik Eskariak egiteko eskubidea arautzen duen [azaroaren 12ko 4/2001 Lege Organikoaren](#) 11.3. artikuluan jasotakoa bete behar dela. Horrenbestez, otsailaren 17ko 41/2009 Dekretua aldatzea sustatzeko aurkeztutako eskaerak ez dira onartu behar. Horren haritik, erabaki erabat diskrezionala zela ulertuta, soilik aurkeztutako eskabideak ez onartzeko arrazoiak azaltzeko betebeharra zeukatela ulertu dute, eta, hain zuzen ere, erakunde honen esku hartzean argudiatze eskakizun hori landu da. Lan horretan interesdunek egindako planteamendua berritzailea dela nabarmendu nahi izan dugu.

Hain zuzen ere, interesdunek Bigarren Hezkuntzako institutuetako lanpostuak dituzten irakasleen egoerarekin konparatu zuten bizi duten egoera, lehenik eta behin; institutuko irakasle horiei Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasle kidegoetako (maisu-maistren kidegoetako izan ezik) lan legepeko eta funtzionario diren irakasleentzat gordetako lanpostuen zerrenda onartzen duen [urriaren 28ko 210/2014 Dekretuko](#) seigarren xedapen gehigarria aplikatuz, ordainsari gehigarri bat aitortu zitzaion, lanpostu mailako osagarria Bigarren Hezkuntzako irakasleek aitortuta dutenarekin parekatzea lortze aldera.

Hala ere, hezkuntza arloko arduradunek azaldu dute egoerak ez direla parekarriak. Horri dagokionez, azaldu dutenez, lehenengo kasuan (Berritzeguneetako lanpostuak), lanpostu horiek dituzte titulazio talde desberdinetako funtzionarioentzako atxikipen bereizigabe gisa konfiguratutako lanpostuak izateak eskaintzen dituen promozio edo mugikortasun aukerak direla-eta; bigarren kasuan, berriz (ikas-tetxeetako lanpostuak), Bigarren Hezkuntzako lehenengo bi mailetako lanpostuak har ditzakete LOGSEk ekarritako hezkuntza erreforma garrantzitsuaren ondoren hartutako xedapen iragankorrenatik ([urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoa](#), Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorri buruzkoa); jakina denez, legeak ordura arte indarrean zeuden hezkuntza etapan egitura aldatu zuen. Langileak Kudeatzeko zuzendariak, halaber, ohartarazi nahi izan du, aurrekoa gorabehera, irakasleen komunitatearen negoziazioaren bilakaeran akor-

dioak lor daitezkeela, eta kasuan kasuko araudian jaso ondoren, interesdunek dituzten asmoak erantzun eta bideratzeko aukera sor daitezkeela.

Hala, hezkuntza administrazioak, erantzuna ematen gehiegi atzeratu bada ere, azkenean funtzionario talde horien eskareren erantzuna emantzat jo du.

2.3. Ertzaintzan sartzeko adin eskakizunak

Aurten ere, [Ertzaintzan](#) sartu nahi izan duen pertsona batek horretarako ezarritako adin eskakizunak zalantzan jarri ditu erakunde honen aurrean.

Arartekoak kexa ez onartu beste aukerarik ez du izan, erakunde eratzeko legearen 13. artikuluan agindutakoa aplikatuz; izan ere, artikulua horren arabera, ebazpen judizialenen zain dauden kexak ezin ditu aztertu.

Nolanahi ere, erabaki hori hartu arren, erakunde honek interesdunari azaldu zion Polizia eta Larrialdietako Akademiaren 2014ko apirilaren 1eko Ebazpenaren aurka aurkeztutako errekurtsua tarteko, 2014-04-01eko 63. EHAAan argitaratu zena eta Ertzaintzako oinarrizko eskalan agente kategorian sartzeko hautapen prozeduraren deialdia egin zuena (362/2014 errekurtsua), Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak (Administrazioarekiko Auzi Aretoak) erabaki zuela gaia [Europar Batasuneko Justizia Auzitegi](#) (EJJA) aurrean aurkeztea; hain zuzen ere, euskal polizia autonomoko agente plazara sarbidea izateko deialdian parte hartzeko gehienez 35 urteko adin muga finkatzea Okupazioan eta lanean tratu berdintasuna lortzeko esparru orokor bat ezartzeari buruzko [2000ko azaroaren 27ko Kontseiluaren 2000/78/CE Zuzentarauko](#) 2. artikuluko 2. atalaren, 4. artikuluko 1. atalaren eta 6. artikuluko 1. atalaren interpretaziora egokitzen ote den galdetu zitzaion.

EBJAK 2016ko azaroaren 15ean emandako epaiarekin erantzun dio gai horri, eta adin muga horrekin ados agertu da, nahiz eta 2014ko azaroaren 13ko epaiak aurrekaria ezarri zuen, Ovidoko Udaleko Udaltzaingoko agenteak aukeratzeko aurreikusitako adin muga (30 urte) neurrigabea zela ulertuta.

Erabakia justifikatzeko EBJAK jarraian jaso ditugun argudioak erabili zituen:

- Autonomia Erkidegoetako Polizia Kidegoek betetako funtzioak ez dira Udaltzaingoei emandakoen berdinak. Ertzaintzako oinarrizko eskalako agenteek funtzio erabat operatibo edo exekutiboak betetzen dituzte; horrek indar fisikoa eta funtzioak egoera zailtan bete behar izatea eska dezake, baita muturreko egoeretan ere.
- 40 urtetik aurrera, Ertzaintzako agenteek degradazio funtzionala pairatzen dute; horrek esan nahi du esfortzu luze baten ondoren berreskuratzeko gaitasuna murriztu egiten dela, eta denbora aldi zehatz batean eskatzen duen beste edozein funtzio egiteko gaitasuna galdu egiten dela. Horrez

gain, ezin da esan 55 urtetik gorako agente batek bere lana ongi eta bera eta hirugarrenak arriskuan jarri gabe egiteko beharrezko gaitasun guztiak dituenik.

- Hau da, 2009an, auzi nagusian aipatutako adin mugari buruzko [uztailaren 19ko 315/1994 Dekretua](#) indarrean sartu aurretik, Ertzaintzak 8.000 agente zituen. Une hartan, 59 agentek 60 eta 65 urte artean zituzten, eta 50 eta 59 urte arteko 1399 agente zeuden. 2009an egindako aurreikuspenen arabera, 2018an 60 eta 65 urte arteko 1135 agente egongo dira, eta 50 eta 59 urte arteko 4.460 agente, alegia, erdia baino gehiago. 2025ean 55 eta 65 urte artean izango dituzte agenteen % 50 baino gehiagok. Hala, datu horiei esker aurreikusi daiteke agenteen artean zahartze masiboa gertatuko dela. Horrenbestez, agenteen lantaldea pixkanaka ordeztzea aurreikusi behar da, eta horretarako adinez nagusiagoak diren agenteen ordeztze pertsona gazteagoak aukeratzeko prozesuak egin behar dira, ikuspuntu fisikotik funtzio zorrotzenak betetzeko gai izango direnak.
- Aukeraketa unean agenteak duen adinak zehazten du, hain zuzen ere, Ertzaintzako oinarrizko eskalako agenteen funtzioen berezko lanak zenbat denboraz egin ahalko dituen. Agente bat 34 urte dituen aukeratzeko gero, bi urteko prestakuntza egin behar izateaz gain, aipatutako lan horietan gehienez 19 urtez egon ahalko da, hain zuzen ere 55 urtera iritsi arte («bigarren jarduera»). Egoera horretan, agentea zaharragoa denean aukeratzeko gero, ikuspuntu fisikotik betebeharrak gogorretara agente kopuru nahikoa bideratzeko aukeran eragin negatiboa izango luke. Bidean, aukera horrek eragotzi egingo luke horrela hautatutako agenteek aipatutako lanetan denbora nahikoa ematea. Azkenik, Ertzaintzako kidegoaren antolaketa zentzuzkoa izan dadin, ikuspuntu fisikotik zorrotzak diren lanpostu kopuruaren (adinez nagusiagoak diren agenteei egokitu ez daudenak) eta ikuspuntu fisikotik horren zorrotzak ez diren lanpostu kopuruaren (agente nagusi horiek bete dezaketenak) artean oreka egotea bermatu behar da.
- Ertzaintzako zerbitzuaren funtzionamendu ona eta izaera operatiboa mantentzea da helburua; hala, adin piramide egokia berrezartze aldera, gaitasun fisiko zehatzak izatea ez da modu estatikoan ulertu behar, soilik hautapen prozesuko probei dagokienez; aitzitik, modu dinamikoan ulertu behar da, agentea aukeratu eta gero zerbitzuan emango dituen urteak aintzat hartuta.

2.4. Irakaskuntzarako desgaitzea

Interesdun batek kexa aurkeztu du erakunde honetan. Horri lotuta, hezkuntza administrazioak adierazi zuen interesdun horrek Irakasleen Kidegoko funtzionario izaera galdu zuela. Interesdunak azaldu zuenez, zigor prozedura batean sartua zegoen, eta, horren ondorioz, epai zigortzailea jaso zuen; zigor horretan, besteak beste, desgaitasun berezia aplikatu zitoten, hamabost urtez adingabeen aurrean irakasle lana gara

ez zezan. Aurkeztutako kexan, interesdunak ez zuen adingabeen aurrean irakasle gisa aritzeko desgaitasuna zalantzan jartzen, baina, bere hitzetan, lanbidea beste esparru batzuetan garatzea eragozten zion desgaitasun osoaren aurka ageritzen. Horri dagokionez argudiatu zuenez, maisu-maistren kidegoko funtzionario bat kasu gehienetan adingabeen irakaskuntzan aritzen dela egia bada ere, egia da, baita ere, irakasle bat adingabeekin zerikusirik ez duten beste lanpostu batzuetan aritu daitekeela, hala nola, helduen hezkuntzan.

Zigor Kodean ezarritako enplegu edo kargu publikorako desgaitasun berezia dakarren zigor nagusi edo osagarriak, epaia irmo bihurtzen denean, enplegatu publikoaren zerbitzu-harremanaren eremuan, karrerako funtzionarioaren izaera galtzea dakar, epaian zehaztutako enplegu edo karguei dagokienez. Hala jaso zen [Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren](#) 66. artikuluan.

Jurisprudentziak funtzionario izaera galtze horren automatismoa berretsi du; azaldu denez, funtzio publikoko kide izateko beharrezko baldintza bat-batean ez betetzearen ondoriozko zigor epaiaren zuzeneko ondorioa zen galera hori; izan ere, kontuan hartu behar da sartzeko betekizunen artean ez dagoela desgaitasun absolutuan edo ebazpen judiziala tar-teko kargu edo lanpostu publikoetarako desgaitasun berezi edo absolutuan egotea.

Horrez gain, desgaitasun bereziaren ondorioak maila estatutarioan murriztea nahi zuten funtzionario salatzaileen argudioak ukatu dituzten beste adierazpen batzuek ere izan dira; desgaitasun bereziaren ordean, maila estatutarioan destinoa edo lanpostua galaraztea jasotzea nahi zuten, epaiak iraun bitartean maila berekoak okupatzeko mugarekin; horrela, zigorraren helburua, alegia, funtzionario izateko eskatutako eskakizunak bat-batean galdu izana desbirtuatu egingo litzateke. Horren haritik, Auzitegi Nazionalako epaia dago, Administrazioarekiko Auzietarako Aretoa, 5. sekzioa, 2012ko urtarrilaren 25ekoa (RJCA 2012\80).

Horrenbestez, erakunde honen aburuz, interesdunak Irakasle Kidegoko funtzionario izaera galdu izana berraztertzeo [Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak](#) emandako ezezkioa argudiatuta dago.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

lazko urteko txostenean (2015), Euskal Enplegu Publikoaren Lege proiektua izapidetzen ari zela azaldu genuen. Orduan adierazi genuenez, Gobernu Kontseiluak onartutako proiektuak aurrera egiten jarraitu behar zuen, Legebiltzarrean izapidetzen; X. legegintzaldia bukatu egin denez, ostera, izapidetze fasea eten egin da. Nolanahi ere, gobernu berria osatzen dutenen artean sinatutako gobernu akordioan, lortutako konpromisoen artean, Euskal Enplegu Publikoaren Legea onartzea ere ageri dira; diotenez, euskal administrazio guztietako langile publikoentzako eredu komun bat ezarriko du. Akordioaren arabera, araudi berriak enplegu publikoaren

erakundeen kalitatea hobea izatea du helburu, sindikatuen eta langile publikoaren parte hartzea, profesionalizazioa, lanpostuak betetzeko mekanismoak eguneratzea, bitartekotasuna gutxitzea eta enplegu publikoa finkatzea sustatzeko elementuak txertatuz.

Aurretik esandakoaz gain, 2016an EBJAk plazaratutako adierazpenak ere nahitaez aipatu behar dira, [Iraupen zehatzeko lanari buruzko 1999/70/CE Zuzentarauaren](#) eranskinean jasotako akordio markoaren interpretazioari buruz auzitegiaren iritzia jasotzeko plazaratutako hainbat gai direla medio. 2016ko irailaren 14an emandako zenbait epai dira.

Epai horietako batean egindako adierazpena jurisprudentzia finkatura ere hedatu da, gizarte ordena jurisdikzionalan, enplegatu publikoaren aldi baterako kontratazioak gehiegi erabiltzeari zegokionez, hau da, iraungitzea bertan behera uztea eta harremana mugagabe ez finko gisa hartzea, baita iruzurrezko kontratazioa administrazio zuzenbideko erregimenean izendatuz egin denean ere. Horren adibide dira 608/2016 eta 618/2016 Epai berriak, biak abenduaren 12an emandakoak, EAEAnko Administrazioarekiko Auzietarako Aretoa emandakoak.

Beste epai batean, EBJAk argitu zuen esparru akordioko laugarren klausula bitartekotasun kontratua duten langileen kontratua bukatzeagatik kalte-ordaina ukatzen duten estatu mailako araudien aurkakoa zela; langile finkeko kasuan, ordea, bai ematen die. Gai hori argituta, EAE mailan, aldi baterako langileen eta langile finkeko kaleratzeak parekatu dituen eta aldi baterako kontratu baten kalte-ordaina areagotu duen lehenengo epaia 2016ko urriaren 18ko 1962. Epai izan zen, EAEAnko Lan Arloko Salarena. Horrek sindikatu erakunde gehienak ildo horretako errekurtso eta erreklamazio kopuru esanguratsua aurkeztera bultzatu ditu.

4. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Iraupen zehatz bateko lanei buruzko esparru akordioaren inguruan EBJAren azken adierazpenek euskal administrazio publikoetan lanean dauden aldi baterako langileen egoera modu serioan lantzerantz bultzatu beharko lukete, betiere etorkizuneko Euskal Enplegu Publikoaren Legeari lotuta lortutako konpromisoekin bat etorritik, besteak beste, bitartekaritza murriztu eta enplegu publikoa finkatzera bideratutakoak.

Egia esan, gaia ez da berria. Lehenago ere egoera horri buruz ohartarazi da. Esaterako, 2015eko abenduaren 1eko [Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren Enplegu Planaren](#) kasua da; gobernu berriaren gobernu akordioan ere jaso da, eta bitarteko langileen enplegua finkatzea lortu nahi zen, EAEko Administrazio Orokorreko bitartekotasun tasa altua bukaraziz; izan ere, kasu batzuetan % 40tik gorakoa zen. Baina, hala ere, gure ustez, oso egoera konplexua da, eta modu tinkoan jorratu behar da; Euskal Enplegu Publikoaren Lege berriak beharrezko estaldura eman beharko lioke.

Nolanahi ere, adierazi behar da erakundeak aldi baterako kontratazio politzen kudeaketa zalantzan jartzen duten kexak jasotzen ari garela, esaterako Osakidetza-SVS bezalako sektoreetan.

Europa mailako araudi horrek debekatu egiten du iraupen zehatz bateko lan kontratua duten langileak modu baztertzailan tratatzea, ez bada arrazoi objektiboak daudelako; hortaz, kexak eragin dituen administrazio batzuen zenbait jardun berrikusi behar izatea ere planteatu dugu. Kexak aukeratzeko atalean bitarteko funtzionarioek zentro ofizialetan azkenengo azterketara joateko egindako lizentzia eskaerei Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako tratamenduari dagokionez izapidetutako kexa aipatu da.

Une honetan izapidetze fasean dagoen arren, telelana egiteko aukera aldi baterako langileei ere ematea aztertzeko [Bizkaiko Foru Aldundiaren](#) aurrean egindakoa ere interesgarria eta aipagarria da.

Beste gai batzuei helduz, 2016ko ekitaldi honi dagokionez, familia eta lan arloko ardurak hobeto uztartzen saiatzeko premia dela-eta sustatutako kexa kopurua handia izan dela nahitaez agerrarazi behar dela uste dugu. Horietako batzuk Ertzaintzako langileei lotuta egon dira. [Segurtasun Saileko](#) arduradunek ulertu dute, eta ondo ulertu ere, gure ustez, kontziliazio aukerak lan arloko baldintzen negoziazioaren emaitzetatik eratorri behar direla, interesdunen artean tratamendu desberdinak izatea eragozteko. Nolanahi ere, gure iritziz, horrek ez du oztopatzen helburu hori lortzeko lagungarria izan daitekeen neurri oro lantzea komenigarria dela iradokitzea. Horiez gain, beste kexa batzuen behin betiko

ebazpenak emateke daude, eta horien artean gaixotasun larriak dituzten seme-alabak zaintzeko lanaldia murrizteko aukerari buruzko kexa bat nabarmendu nahi dugu.

Beste alde batetik, ohikoa den moduan, erakundeak laguntza eskaini die enplegu publikoak lortzeko sarbidean horrelako prozesuak gidatu behar dituzten berdintasun, mehezimendu, gaitasun eta publizitate printzipio argiak zuzen betetzeari buruzko zalantzak izan dituzten herritarrei. Horren adibide gisa, [Arartekoaren 2016ko uztailaren 19ko Ebazpena](#) aipatu behar da; ebazpen horretan, Euskotren elkarte publikoari gomendatzen zaio aldi baterako lan poltsa bat eratzeko prozesuan egindako nortasun probetan eta elkarrizketa pertsonalean aplikatu ziren irizpideak eta horiek nola aplikatu ziren jakinaraz diezaiela kexagileei.

Nolanahi ere, aitortu behar da aurreko ekitaldien joerei jarraiki, sektore garrantzitsuetako enplegu eskaintza publikoek (esaterako irakaskuntza eta polizia sektoreetakoak) ez dutela kexa kopuru nabarmenik eragin, beharbada, aurreko txostenean esan bezala, horrelako prozesuak kudeatzen tradizio luzea duten sektoreak direlako.

Aurreko uste horren salbuespena [UPV/EHU](#) esparruan irakasle elkartuen kontratuak esleitzeko lehiaketa publikoen gainean oraindik ere jasotako kexak dira. Horrenbestez, gure ondorioak berretsi behar ditugu, hain zuzen ere, horrelako lehiaketen kudeaketa ez dela nabarmendu horrelako prozeduretan zaindu beharreko betekizunak betetzeagatik, eta, halaber, administrazio onaren eskubidetik eratorritako betekizunak arriskuan eta konpromisoan jartzen dituela gogoan izan behar dela.

II. ATALA

10

ANIMALIAK BABESTEA ETA EDUKITZEA

1. Arloa kopurutan

2016an 9 kexa jaso dira animalien babesaren arloan, alegia, erakundeak urte osoan zehar erregistratu dituen kexen %0,42.

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
11	2	9	2	6	-	1

2. Kexarik aipagarrienak

Ekitaldi honetan, jasotako kexen kopurua oso altua izan ez bada ere, adierazi behar dugu eremu ezberdinetan pertsonen eta animalien arteko bizikidetzan sortutako gatazkei buruzko erreklamazioak gailendu direla adierazi behar dugu.

Herritarrek aurten ere erakunde honetara jotzen jarraitu dute administrazioek zenbait animaliek espazio publiko jakin batzuetan jasan dituzten gertakarien aurrean erantzun ez dutela salatzeke.

Horregatik zuzendu gara dagozkien toki erakundeengana, pertsonen kalterik ez egiteko animaliak izateko araudia betetzen dela bermatu behar dutelako. Hartara, hiriko bide eta espazio publikoetan txakurrek kontrolaturik eta loturik egon behar dute eta, horretarako, kateak edo uhalak erabili behar dira. Halaber, animalia horiek mikrotxiparekin identifikaturik, eroldaturik eta kasuan kasuko udalerriko erregistroan erregistraturik egon behar dute. Horretarako, garrantzitsua da toki-erakundeek animaliak identifikatzeko kanpainak egitea, txakurrak abandonatzeak, erasoek, kexek, etab. eragin ditzaizketen ondorio negatiboak ekiditeko.

3. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Hala ere, gaur egun argi dago gero eta etxeko animalia gehiago daudela espazio publikoetan. Horrenbestez, udalerriek kontrol politikak ezartzea ezinbestekoa den arren, agian, komenigarria izango litzateke etxeko animaliak dauzkaten pertsonen eta gainerako herritarren arteko bizikidetzaren orekatua lortzeko bestelako irtenbideak hartzea.

Horrela, animalientzako aisialdirako eremu zehatzak prestatu daitezke ordutegi zehatzetan, era berean, beharrezkoa da animalien jabeen txakurren kakak jasotzeko aukera emateko udal baliabide egokiak eskuragarri jartzea eta informazio kanpainak egitea animalien jabeak animaliak edukitzearekin lotutako alderdian hezi eta kontzientziatzeko, dauzkaten betebeharrak zein diren eta betebeharrak horiek ez betetzearen ondorioak zein diren jakin dezaten.

II. ATALA

11

HERRI ADMINISTRAZIOEN ARAUBIDE JURIDIKOA, ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK

1. Arloa kopurutan








Aurten 122 espediente kudeatu dira sail honetan eta honako izan da eragindako administrazioen araberrako banaketa:

- Tokiko administrazioa 103
- Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza)4
- Foru administrazioa.....1

Azpiarloen araberrako banaketari erreparatuz gero, honela sailkatuko litzateke:

- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio-prozedura 41
- Kontratazio-araubidea, ondarea eta administrazio-erantzukizuna 37
- Tokiko zerbitzu publikoak 25
- Udal-errolaren kudeaketa7
- Informazioa eta herritarren parte-hartzea7
- Herritarren eskubideak3
- Beste alderdi batzuk2

Aurten hainbat kexa bideratu ditugu, ekitaldi honetan jasotakoak eta aurreko ekitaldietan ebatzi geratu zirenak, batez ere azken hiruhilekoari dagozkionak. Kexa horien biderapenari buruzko xehetasunak direla eta, nabarmendu behar da ondorengo egoeran daudela txosten hau idatzi den ulean:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei arlokuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
152	45	107	66	30	5	6

Arlo honetan, lantzen den esparrua orokorra denez, gai gehienak toki administrazioetara bideratutako kexen gainekoak dira. Arartekoaren aurrean herritarrek planteatutako alderdi nabarmenenak, neurri handi batean, toki administrazioen funtzionamendu orokorrari buruzkoak dira; izapidetzen diren eskaeren erantzun faltaren arazoa (**isiltasuna**) eta aurkeztutako salaketen ebazpena gehiegi luzatzea bereziki nabarmentzen dira. Bideanabar, **administrazio prozedura**ren oinarriko zenbait izapide ez betetzeak ere kexa ugari eragiten ditu oraindik (alegazioetarako entzunaldiak, etab.), baita administrazio egintzetan arrazoi gutxiegi edo arrazoirik ez ematea ere; egoera horien guztien ondorioz, kaltetutako pertsonak ezin diote administrazioaren jardunari eraginkortasunez eta beharrezko berme guztiekin aurre egin.

Halaber, **informazio publikoa izateko sarbide eskubideari** lotutako alderdiak ezin dira aipatu gabe utzi, Administrazio Publiko guztietarako Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko **abenduaren 9ko 19/2013 Legea** indarrean sartu zenetik; izan ere, eskaera egin beharrik gabe, eskubidea balia dezaketen pertsona guztien titulartasuneko eskubide bihurtu zen. Eskubidea herritarren kontrol demokratikorako eta administrazio jarduna aztertzeke oinarriko tresna gisa ikusi behar da, hala gizarte gaietan parte hartzea handiagoa izan dadin. Hori dena eraginkorra izan dadin, administrazio publikoek eskubidea betetzea bermatzeko protokoloak kasuan kasuko antolaketa guztian eta zeharkakotasunez bultzatu behar dituzte.

Arloa nabarmendu beharreko beste gai bat udal jabetza publikoari eta horren kudeaketari buruzkoa da. Ildo horretan, alde batetik, **terrazak eta mahaiak** jarriz espazio publikoa okupatzeko udalek ematen dituzten baimenen betekizunak ez betetzeari eta udal ordenantzak ez betetzeari buruzko zenbait kexa izapidetu dira. Beste alde batetik, **ezohiko jaiak** direla eta, espazio publikoa txosnak eta bestelako instalazioak jartzeko erabiltzeari buruzko hainbat kexa ere jaso dira, besteak beste, esleipen irizpideak zehatzak eta gardekan ez direlako edota marko legala betetzen ez delako.

Zertzelada labur hauekin bukatzeko, udal mailako funtsezko zerbitzuetan (bideak, urak, argiak, etab.) hobekuntzak egitea edota **zerbitzu publikoak** jartzea oraindik ere eskatu egiten da.

Jasotako kexen izapidetze faseen betetze mailari dagokionez, jardun okerrren bat antzeman den espedienteen kopuru handi batean administrazio eskudunek Arartekoaren oharrak onartu dituzten arren, Arartekoak gomendio zehatzen bat plazaratu duen ebazpenen kasuan gehienak ez dira onartu, hurrengo atalean azaldu den moduan.

2. Kexarik aipagarrienak

Atal honetan erakunde honek arlo honetan izapidetutako kexa esanguratsuenak laburbildu ditugu, lantzen den gaia dela-eta edo kexan aipatutako gaia berria delako; gomen-dioren bat jaso dutenak bereziki azpimarratu dira, azpiarlo materialen arabera multzokatuta, jarraian azaldutako epigrafeen arabera.

2.1. Administrazio prozedura eta Administrazioaren funtzionamendua

Administrazioa jotzen dutenean, herritarrek izapidetzen dituzten eskaerei garaiz eta zuzen erantzuteko administrazioaren jardun eraginkorra eskatzeko eskubidea daukate. Arartekoak zenbait kexatan izandako esku hartzea bukatu egin da

administrazioen aurrean erreklamaturako **administrazio espedienteak** etenda edo izapidetu gabe zeudelako. Hortaz, [Arartekoaren 2016ko otsailaren 29ko Ebazpenaren](#) bitartez, gomendioa igorri zitzaion [Gasteizko Udalari](#) desjabetutako lonja baten balio justuari buruzko espedientea behar bezala izapidetu zezan (gomendio hori ez da onartu). Jarduketa horretan, gainera, aipaturako auzia ebazteko entitate edo erakunde arduradunak zehaztasun falta zuelako ere kexu agertu zen kexagilea. Administrazioa jotzen duten pertsonak nora jo behar duten jakiteko eta aurkeztutako eskaera ebazteko eskumena zein erakunde edo organok duen jakiteko eskubidea daukate.

Udal egituren eta erakunde horien **barne antolaketa**ren konplexutasunak ezin du, inolaz ere ez, herritarren babesgabetasun egoera sorrazi, eta entitateak berak horrelako gaiak ebazteko barne prozedurak izan behar ditu, kasuan kasuko prozedura edo protokoloen bitartez. Toki araubidaren oinarriak arautu zituen [apirilaren 2ko 7/1985 Legeak](#) toki administrazio berberaren mendeko entitate eta organoen artean sor daitezkeen eskumen gatazkak argitzeko prozedura xedatu zuen.

Nolanahi ere, 19/2013 Legea indarrean sartu zenetik, administrazio publikoek eta merkataritza sozietateek (kapitalaren % 100 udalarena baldin bada) egoitza elektronikoetan edo webguneetan erakundearen, antolaketa eta plangintza-ren gaineko informazioa emateko betebehara daukate (6. artikulua). Horrenbestez, garatzen dituzten funtzioak, aplikagarria zaien araudia eta baliatzen duten antolaketa egitura zehatz-mehatz azaldu eta horren gaineko informazioa argitaratu beharko dute, erakundera jotzen duten herritarrek arazoak konpontzeko zein atalera jo behar duten jakin dezaten.

Urte urte Arartekoak errepikatu duen moduan, administrazio publikoek ahalegin handiagoa egin behar dute egiten duten lana eta horren arrazoiak herritarren aurrean azaltzeko, baita **erabakitze**ko **ahalmenaren** barruan hartutako erabakiei dagokien ere, erabaki horiek justifikatzen dituzten arrazoi zehatzak eta horiekin zehazki lortu nahi dena jakin ahal izateko. Hartutako erabakiak justifikatzeko helburuak hartutako erabakia aproposena dela ebazteko balio behar du, administrazio jardunaren **arbitrarioratasuna** baztertu ahal izateko.

Aurkeztutako eskaeren izapidetze eta erantzun faltaren gaineko arazoarekin jarraituz, [Arartekoaren 2016ko martxoaren 16ko Ebazpenaren](#) bitartez, [Guardiako Udalari](#) gomendatu zitzaion bere garaian formalizatutako salerosketa kontratua eskritura publikora igo ahal izateko beharrezko izapideei buruzko eskaerari erantzun ziezaien (gomendioa ez da onartu). Horren haritik, [Zaldibiako Udalari](#) gomendatu zitzaion espazio publikoa terrazekin okupatzeko baimena izapidetzeko eta zegokion tasa igor zezan irabazizko aprobetxamendugatik, kexa aurkeztu zuen pertsonak salatu bezala ([Arartekoaren 2016ko maiatzaren 19ko Ebazpena](#); onartu egin zen).

Azken gomendio hori eta izapidetutako beste kexa batzuk direla medio, **legezkotasunaren printzipioa** betetzeko eskaera azpimarratu behar da, arlo bakoitzean aplikatu beharreko lege arauari dagokionez zein araudia bera betetzeari dagokionez,

eta udal mailan **ordenantza** eta **araudiei dagokie**. Hainbat kexatan jaso den moduan, udal eskumeneko zerbitzuen prestazio eta kudeaketan, hainbat arrazoiengatik, udal araudia bera ez da aplikatzen edo ez da zuzen interpretatzen.

2.2. Udal eroldaren kudeaketa

Arlo honetan jasotako kexak gutxitu egin dira, baina udal eroldan izena ematea oinarriko gizarte prestazioak jasotzeko beharrezko sarbide atea denez, gai hau nabarmentzen jarraitu behar dugu, legezkotasuna zorrotz betetzea eskatzeko. Udal erolda kudeatzeko udaletarako jarraibide teknikoetan erroldatzeko eta eroldaren kudeaketan sortzen diren zenbait egoera argitzeko prozedura zehazten da ([2015eko martxoaren 16ko Ebazpena](#), 2015eko martxoaren 24ko BOEa).

Ebatzitako kexen artean nabarmendu behar da erolda eskaera bat aurkeztu denetik udalak hiru hileko epean ebatzi ez badu, orduan **isiltasun positiboa** (ebazpenaren 1.13 atala) gailentzen dela; hala, erolda eskatu duen pertsona eskatu duen datatik erroldatzea beste aukerarik ez dago. Hala ere, alta eman nahi den egoitzan benetan bizitzaren gaineko zentzuzko zalantza baldin badaude, orduan udalak ofiziotik baja izapidetzeari ekin diezaioke, interesdunari entzunaldia eskainiz kontraesana espedientea abiatuz eta kasuan kasuko lurralde esparruko erolda kontseiluari nahi-taetzko txostena igoriz.

Aurreko kasuez gain, oraindik ere erroldatzea berez ukatu egiten da (hau da, ebazpen formalik gabe) egoitza lekua ez denean legeztatutako etxebizitza bat. Eskatutako erroldatze lekuan erroldatzeko betebehara du Udalak, betiere benetako helbidea denean eta hartzaileak komunikazioak jaso ahal badiu; "fikziozko helbide batean" erroldatzea ez da zuzena, esaterako udal gizarte zerbitzuen egoitzan; egoera hori bakarrik aplika daiteke udalerriri batean bizi den pertsona batek etxerik ez badu. Horren haritik, erakunde honek [Arratzua-Ubarrundiko Udalari](#) igorri zion [Arartekoaren 2016ko abuztuaren 11ko Ebazpena](#), baina udalak ez du gomendio hori onartu.

2.3. Informazioa eta herritarren parte-hartzea

Herritarrek gero eta gehiago eskatzen duten gai bat da gardentasuna, eta horixe azpimarratzen dute administrazioan dagoen informazioa sarbidea izateko eskubidea erreklamatu erakunde honetan kexak aurkeztu dituzten pertsonak, informazioa edozein euskarritan egonda ere; informazio hori lege ezarritako epeetan eman behar da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 20. artikularekin bat etorri. Ildo beretik nabarmendu behar denez, arloaren araudi berriarekin ez da beharrezkoa informazioa sarbidea izateko eskaera arrazoitzea, ezta interesduna izatea ere. Bidean, eskaera bat ezin da baztertu ziorik ez dagoelako, eta sarbidea ukatzeko zio indartua beharrezkoa da, lege aurreikusitako mugak aplikatzearen ondorioz.

Betebarrei aurre egiteko erakunde guztia modu aktiboan kudeatu behar da, herritarren eskaerak arrakastaz konponetzea posible egiten duten beharrezko aldaketak eginez. Horren ildotik, zenbait gomendio igorri zaizkio [Sopuertako Udalari](#), zenbait udal ondasun komunali buruzko eta azken bi urteetan lur zati publiko zein pribatuetatik zura atera duten enpresei buruzko informazioa emateko eskaerei erantzuteko ([Arartekoaren 2016ko urriaren 25eko Ebazpena](#), eta [Arartekoaren 2016ko urriaren 25eko Ebazpena](#), hurrenez hurren). Gomendioak onartu dira.

Gizarte zibilaren eta herritarren parte hartzeari dagokion maila zehatzean, helburua elkarrean eta beste interes talde batzuen bitartez gai publikoetan parte hartze aktiboagoa izatea da, besteak beste, udal erabakien organo gorenetan landu nahi diren ekimenak aurkeztuz. Hala ere, osoko bilkuran proposamenak jasotzea udal bakoitzean osoko bilkuraren araudi organikoan aurreikusitako araudi propioaren arabera da, eta horrelakorik ez badago, Toki araubidearen oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta berriki onartutako Euskadiko Toki Erakundeei buruzko [apirilaren 7ko 2/2016 Legean](#); azken lege hori berria da, eta hirugarren atalean hizpide izango dugu. Oro har, salbu eta osoko bilkuran eztabaidatze aldera udal taldeek herri ekimen bat aurkeztea bereganatzen badute, araudi, ordenantza edo araudi proiektu bat aurkezteko prozedura eskakizun tasatu batzuen mende dago, tartean, bertan bizi diren herritarren ehuneko zehatz batek ekimena babestea; horrek zaildu egiten du horrelako ekimenek aurrera egiteko aukera izatea.

2.4. Herri-administrazioen ondarea

Aurreko ekitaldian bezala, udal jabari publikoa okupatzen duten **terrazak eta mahaiak** instalatu eta kaltetutako pertsonen aurkeztutako salaketan aurrean jardunik ezak ekarritako arazoei buruzko kexak oraindik ere badira, baimenetako baldintzak ez betetzeagatik zein udal araudia bera ez aplikatzeagatik.

Hala, [Gernika-Lumoko Udalera](#) igorritako gomendioan ([Arartekoaren 2016ko abuztuaren 16ko Ebazpena](#)) indarrean dagoen ordenantzaren arabera, espazio publikoa terrazekin okupatzeko baldintzak betearazteko eskatu zitzaion (gomendioa ez zen onartu). Ildo beretik, [Ondarroako Udalak](#) ere ez du onartu [Arartekoaren 2016ko abuztuaren 1eko Ebazpena](#); horren bitartez, mahaiak eta aulkiak instalatzeko baimen bat indargabetezko aholkatu zitzaion, jabari publikoaren okupazioa erregulatzen duen udal ordenantzaren aurkakoa izateagatik.

Beste alde batetik, kaleko salmenta egiteak edo udalek antolatutako aldizkako **azoketan** parte hartzeak ere hainbat jardun eragin ditu; horietan, horretarako eskuragarri dagoen espazio publikoa banatzeko interesdunen artean lizitazio publikoaren bitartez lehia sustatzeko premia adierazi da. Deialdien oinarriak onartzean, horrelakoetan espazio publiko esleitzeko aintzat hartu beharreko alderdietako bat, hain zuzen ere, irizpideak Zerbitzu jardueretan aske sartzeari eta aritzeari buruzko [azaroaren 23ko 17/2009 Legearen](#) II. kapituluaren aurreikusitako mugekin bat etortzea da. Zehazki esateko, espazio publiko aukeratu eta esleitzeko irizpideak finkatzean debekatutako betekizunak aintzat hartu behar dira,

Legearen 10. artikulua arabera, besteak beste, emaileen bizilekua edo jarduera lehenago aldi zehatz batean lurralde horretan garatu izana irizpide baztertzailer gisa jotzen dira. Horren haritik, [Bermeoko Udalarekin](#) izandako esku hartze bat ere bukatutzat eman da; erakunde horretara [Arartekoaren 2016ko martxoaren 7ko Ebazpena](#) igorri zen, aldian behingo azoketan espazio publiko legeria errespetatuz adjudikatzeko gomendatuz. Udalak gomendioa onartu zuen. Halaber, Erandioko Udalari ere gomendio bat igorri diogu, kaleko salmenta erregulartzeko udal araudiari dagokionez, arlo honetako hirugarren atalean jaso den moduan.

2.5. Ondare-erantzukizuna

Txosten hau egitean egiaztatu denez, beste behin ere, administrazio publikoaren ondare erantzukizunari lotutako gaiak planteatzeko herritarrek erakunde honetara jotzeko konstantzia dute. Kexa horien sorburua, jakina denez, kalte materialak edota pertsonalak eragin dituen gertaera bat administrazio arduradunaren aurrean kaltetuek aurkeztutako erreklamazioak dira, kaltetuen arabera ez badute horrelakorik jasan behar eta, horrenbestez, kalte ordainak jaso behar dituzte.

Aurreko txostenetan adierazi den moduan, ohikoa da kexa zehatzak erreklamazioak baztertzeko edo epe barruan eman gabeko ebazpenen berriazko adierazpenekin bat ez etortzea. Txosten honetan 2014. urteko txostenean nabarmendu zen gai batera joko dugu berriz ere.

Partikular bat eta administrazio publiko bat egoteaz gain, kontratista edo emakidadun gisa ageri den hirugarren alderdi inplikatu bat ere badaukaten administrazio espedientei lotutako kexei buruz ari gara; egoerak horrelakoak izan arren, administrazioek ezin dute beste alde batera begiratu. Orduan esaten zenez, kexagileek eztabaiden muinari buruzko erabakiak izateko administrazioaren praxi ona antzematen zen. Hau da, interesdunak administrazioa edo hirugarren batengana jotzeko gaitasuna dauka, eta lehena aukeratu du; administrazioak kasuan kasuko espedienteak izapidetzeko betebeharrak dauka, erantzukizuna dagoen ala ez eta, hala badagokio, kalte-ordaina nork ordaindu behar duen zehaztuz.

Jardun horretan, eta aipatutako ildoan, aldeko jarrera hori modu argian agertu duten zenbait gai aipatu behar dira. Kexak izapidetzean kexagileen eskaeren aldeko ebazpenak eman ziren, eta azalpen atalean honako esamoldeak jaso ziren: “agintzea...” eta “-ri eskatzea...”; eragindako kalteen erantzuletzat jotako hirugarrenei zuzenduta zeuden.

Atala osatzeko zenbait araudi argitaratu eta indarrean sartzeak eragindako berrikuntzak aipatu behar dira, hain zuzen ere [urriaren 1eko 39/2015 Legea](#), Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta [urriaren 2ko 40/2015 Legea](#), Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

Lehenengoak ondare erantzukizuneko erreklamazio espedienteetan jarraitu beharreko prozedura arauak jaso ditu; bigarrenak, berriz, printzipio orokor arautzaileak ditu hizpide. Horrenbestez, orain arte arlo honetako diziplina ezartzen zuten Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio

Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea eta martxoaren 26ko 492/1993 Errege Dekretua indargabetu dituzte, ondare erantzukizunaren arloan administrazio publikoen prozeduretarako arautegia onartu zuena.

2.6. Tokiko zerbitzu publikoak

Aurten udalerrri guztietan nahitaez eman beharreko **zerbitzu publikoei** buruzko hainbat kexa jaso dira, esaterako argi publikoak, saneamendua, hilerriak, ur hornidura eta hiri hondakin solidoak jasotzeko zerbitzua. Herritarrek jasotzen dituzten zerbitzuak oro har hobetzea eskatzen du, edo horiek jasotzeko eskubidea badaukate zerbitzuok finkatzeko eskatzen dute, ematen ez bazaizkie, bereziki landa eremuan.

Emandako zerbitzu publiko desagokiaren adibide gisa, hiri hondakin solidoak jasotzeko edukiontzien kokapen desagokiaz izateari buruzko kexak izapidetu ditugu. Hala, Añanako Kuadrillari, Osmako Administrazio Batzarrari eta Arabako Foru Aldundiari gomendio bat igorri diegu ([Arartekoaren 2016ko azaroaren 9ko Ebazpena](#)), Osmo herrian dauden hiri hondakinak biltzeko edukiontzia beste leku batean jar ditzatela eskatuz; izan ere, une horretan kokapen desagoki batean zeuden, bai beste baten jabetzan kalteak eragiten zituztelako, bai errepideko erabiltzaileen bide segurtasunerako kaltegarriak izan zitezkeelako.

3. Lege-arloko berritasunak

Azkenean, autonomia erkidegoak badu udal lege bat: Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Legearen zioen azalpenean jaso zenez, EAEko egitura juridiko eta instituzionalaren zutabeetako bat izan beharko zukeen arren, hogeita hamar urte baino gehiago behar izan dira testua onartzeko.

Horrelako arauetan ohikoa den bezala, alderdi berritzaileenetako batzuk aplikatzea atzeratu egiten da, epe nahiko luzeetan, esaterako gardentasunaren gaineko betebeharrak, gardentasun ataria edota zerbitzu gutunari dagozkionak (bosgarren eta seigarren xedapen iragankorrak). Halaber, lehenengo xedapen iragankorra ere aipatu behar da, udalerrien eskumen propioei buruzkoa, Legearen 17.1. artikuluan aurreikusitako esparru materialetan behin-behineko zuzeneko esleipenen bitartez.

4. Ofiziozko espedienteak

Aurreko ekitaldian abiarazitako ofiziozko espedienteen jarraipen gisa, erakundeak Erandio udalerrian **kaleko salmentari** buruzko ofiziozko espediente baten esku hartzea bukatu du, kaleko salmenta arautzeko ordenantza ez zegoelako egokituta [martxoaren 1eko 1/2010 Legea](#), aldatu zuena Txikizkako merkataritza antolatzeke urtarrilaren 15eko 7/1996 Legea eta kalez kaleko salmentan edo salmenta ibiltarian aritzeko jardura arautzen duen [otsailaren 26ko 199/2010](#)

[Errege Dekretua](#). Ordenantzak araudi berrietara egokitzean kaleko salmentaren jardun libreari ezin zaizkio mugak ezarri, salbu eta horrela jokatzeko interes orokorreko arrazoietan oinarrituta dagoela justifikatuta baldin badago; arrazoi horien artean ezin dira egon izaera ekonomikoko betekizunak, tokiko produktuetarako erreserbak edo merkatuan existitzen den eskaria.

Ofiziozko beste espediente bat ere abiarazi da, hirietako eta hiriarteko errepideetan **abiadura murrizteko gailuak** instalatzeak eragindako arazoei dagokienez. Espediente Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren mendeko Euskadiko Bide Segurtasuneko Batzorde aurrean bideratu da, kontsulta erakunde gisa; izan ere, batzordearen betebeharra bide segurtasunean eragina daukaten eskumenak dituzten administrazio publikoen koordinazioa erraztea eta arloa hobetzea bultzatzea da, bide segurtasun eta zirkulazioari lotutako entitate publiko eta pribatuen parte hartze eta topaketaren bitartez.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Administrazioak ez jarduteak administrazioaren jarduna gidatu behar duten printzipio nagusien haustura dakar, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren [urriaren 2ko 40/2015 Lege](#) berriko hirugarren artikuluekin bat etorritik. Zehazki esateko, herritarrentzako zerbitzu eraginkorraren printzipioei buruz ari gara, baina baita parte hartze, objektibotasun eta gardentasun printzipioei buruz ere. Aurkezten dizkieten eskaerak izapidetzen ez dituen edo behar bezala izapidetzen ez dituen administrazioak (egokitzen diren izapidetak eta legezko betekizunak aurretik bete badira) nekez adierazi ahal izango du zerbitzatu behar dituen herritarren zerbitzura dagoenik bere jardura. Publikoa denak gure eguneroko bizitzako eremu guztiei eragiten die, nabarmen, eta, ondorioz, euren jardura eraginkorra izan dadila eska dakieke herri-administrazioei.

Beste ikuspuntu batetik erreparatuta, eta aipatutako legearen hirugarren artikuluan jasotako printzipio orokorren plano berean, herritarren eskubidea da administrazio publikoek jardun administratiboa garatzean legea eta zuzenbidea errespetatu jotzea itzarotea, asmo onez eta bidezko konfiantzaz printzipioak erabat errespetatu. **Legezkotasunaren printzipioari** dagokio administrazio jardun oro, eta alderdi zehatz bat dauka, garrantzia duelako udalerrri bateko herritarrek jasotzen dituzten zerbitzuetan eta udalen auto antolaketarako ahalmenean; araudi eta ordenantzen bitartez tokiko bizitzaren maila guztiei eragiten dien jardun eta zerbitzuen edukia zehazten dute, eta horiek betetzea bereziki zaindu behar da.

Argi dago ahalegin handia egin behar dela legea betetzeko eta administrazioaren antolakuntza administrazio publikoaren eskumenen barruko esparru material guztietan etengabe ageri diren eskaera berrietara egokitzeke. Ondorio guztiatarako, herritarren zerbitzuetara bideratutako jardunen zerbitzu publikoen prestazioa funtsezkoa da, eta administrazioaren betebeharrak oro inspiratu behar du; herritarren eskaerak ez dira administrazioaren jardunerako karga gisa hartu behar.

Horren haritik, administrazioaren engranajea etengabe egokitu behar da; izan ere, batzuetan ez dago informazio nahikorik, administrazio erakundeek garatzen dituzten funtzioak ez daude argi, giza baliabide eta baliabide materialak eskasak dira eta emandako eskumenen edukia ez da argia, eta horren ondorioz herritarren eskubideak baliatzea ezinezkoa izaten da.

Testuinguru horretan, herritarrek egindako **gardentasun** eskaerak aipatu behar dira, eta administrazio publikoek aitzakiarik gabe onartu behar dituzte, ez soilik legeak hala agintzen duelako, baita demokrazia gobernu forma gisa izateko gardentasuna ezinbesteko ardatza delako. Herritarrek informazioerako daukaten eskubidea gizarteak geroz eta gehiago eskatutako gai bat da, eta, aldi berean, gobernu arduratsuen betebeharrak ere bada; hala, diseinatutako politiketan baliabide erraztaileak ezarri behar dituzte, benetan ezartzeari erabateko lehentasuna emateko. Lidergoa hartu eta adibidea emateko norabide politikoa beharrezkoa da, eta informazio publikora sarbide erraza eta gardentasuna izateko politika publikoek antolaketa osoa modu koordinatuan eta zeharkakotasunez inplikatu behar dute, benetan eraginkorra izan dadin; hala, giza baliabideak eta baliabide materialen multzoa behar bezala eta benetan planifikatuta ez badago, ez da benetan eraginkorra izango.

Aurreko ekitaldiko memorian azaldu genuen moduan, Gardentasun Legea benetan eraginkortasunez aplikatzeko era askotako neurriak hartu behar dira, antolakuntza, edukia sortzeari dagozkionak eta euskarrietara egokitzea, etab. Hala ere, iaz jaso bezala, webguneei azkar erreparatu eta azaleko azterketa bat egin ondoren, begiratu bakarrean, oso kezagarria iruditu zaigu, oro har, udaletan antzematen diren gabeziak, tamaina askotako administrazioak eta administrazio ugari diren aldetik. Gai horietan guztietan tematzen jarraitu behar dugu, oraindik erabiltzen diren inertzien ez dutelako indarrean dagoen araudiaren espiritua eta betebeharrak integratzea ekarri.

Hala, herritarrek gai publikoetan parte hartzeko oinarri gisa informazio publikora sarbidea izatea zailtzen duten jardun horien adibide bat jartze aldera, udal araudiak eta ordenantzak publikoki ikusgai jartzea aipatu behar da. Udal askok araudi eta ordenantzen hasierako onarpenari dagokion iragarkia jartzen dute webgunean, baina, hain zuzen ere, interesatuek alegazioak edo iradokizunak aurkezteko epea zabaltzea xedatzen duen proiektuaren testua ez da plazaratzen. Jokatzeko modu hori 19/2013 Legearen 7 e) artikulua- ren aurkakoa da, artikulua horrek sektore legediaren arabera jendaurrean aldi batez jarri beharreko dokumentu guztiak argitaratu beharra eskatzen baitu. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea, araudi eta ordenantzak argitaratzeko betebeharrak indarrean sartzea atzeratu egin da, bosgarren xedapen iragankorrean jaso bezala, baina aipatutako oinarriko gardentasun legedian jasotako gutxieneko betebeharrak aplikatu behar dira.

Bestalde, toki administrazioaren esparruan (jasotako irizpide orokorrak beste administrazio maila bati ere aplikatu ahal zaizkion arren), apirilaren 7ko 2/2016 Lege berrian (Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa) informazio publikora sarbidea izatea arautzeko printzipioak aipatu ziren, eta honako hau

nabarmendu zen: *“informazio publikoa eskuratzeko eskubidea –toki-botere publikoen eta erakunde horien arduradun publikoen kontu-ematearen kontrol demokratikorako beharrezko den aldetik”* (62.3. artikulua). Hala, jokatzeko jarraibide eta irizpide hauek finkatzen dira:

- Legeriak ezartzen dituen mugak era murriztailean interpretatuko dira.
- Informazioa ukatzen denean, ebaluatu beharko dira, alde batetik, aipatzen diren interes publiko eta pribatuari eragindako ustezko kalteak, eta, bestetik, eskatutako informazioa zenbateraino den garrantzitsua edo adierazgarria, eta zenbateraino den beharrezkoa, objektiboki, gobernuaren ekintzaren kontrol demokratikoa egiteko.
- Prozedurak antiformalismoan eta garapen-samurtasunean oinarrituko dira.
- Eskubide hori berariaz ukatzen denean –gardentasunaren oinarriko legerian aurreikusitako mugak aplikatzearen ondorioz– arrazoibideak oinarri sendoagoak izan beharko ditu.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen aplikazioarekin jarraituz, indarrean sartu zenetik igarotako denbora laburrean, igorritako kexen edukira praktikoki aplikatuz printzipio orokorren definizioan udal eskumenak zehazteko legean antzemandako ahalegina eta eskumen propioen zereendaren xehetasun maila aintzat hartu behar dira; horrez gain, nahitaez eskaini beharreko zerbitzuei dagokienez, toki mailako oinarriko legedian aurreikusitakora jo behar da (97. artikulua). Bestalde, berrikuntza gisa interesgarria da, printzipioak diren aldetik, tokiko araugintza ahala eta politika publikoak informatu behar dituzten udalerririk bateko herritarren eskubide, betebeharrak eta arduen gainean legeak egindako aipamena. Askotan, planteatutako kasuen kasuistikak logika eta arrazoia erabiltzea eskatzen du; horretarako, araudi hau erabilgarria izango da, printzipio orokorrak eta herritarren eskubideak eta betebeharrak korrelatiboak testuinguruan kokatzeko orduan.

Udalek tokiko interes publikoko gaiak antolatzeko eta kudeatzeko erabateko autonomia daukate, ordenamendu juridikoaren barruan (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 9.1. artikulua). Besteak beste, espazio publikoetako elkarbizitza harremanen ordenaziorako eta kudeaketarako eskumenak xedatzen ditu (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17.1.2. artikulua). Bada, gai hori udalak komenigarritzat jo bezala arautu ondoren, kasuan kasuko ordenantzen bitartez, udal administrazioak zein eraginpeko pertsonak edo onuradunek araua errespetatu eta beteaz egin behar dute, lehenago maila orokorrean aipatu bezala. Aipatutako betebeharrak eta erantzukizunekin batera, herri horietako herritarrek gai publikoetan parte hartzeko eta udal araubidea bete dadin eskatzeko eskubidea dute, legetan eta ordenantza edo araubideetan ezartzen denaren arabera (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 43. eta 44. artikulua).

Horren haritik, espazio publikoan **terraza eta mahaiak** edo **ezohiko azoketan** instalazio desmuntagarriak jartzea kexa ugari sorrarazten ari da ez soilik jabari publikoa okupatzeko emandako baimenetako baldintzak betetzen ez direlako, baita emandako baldintzak benetan betearaztean eskumena daukaten agintariek beste alde batera begiratzen dutelako, edo udal araudia bera aplikatzeari uzten diotelako, edo ordenantza legearekin bat etorri gabe interpretatzen dutelako. Azokei dagokienez, “tradizioaren” indarrak eta “beti egin izan da horrela” dioen esaldia aitzakia gisa erabilia, irizpide baztertzailak erabiliz (esaterako udalerrian bizieta edo antzinatasuna) eta zuzenean esleitzea debekatzeko duen araudi berria ez da betetzen ari.

Beste alde batetik, udalerririk bateko herritarren betebeharrak eta erantzukizunen artean **jabari publikoaren** gaian jaso da “*udal ondarea, azpiegiturak eta udal zerbitzuak zentzuz eta egoki erabiltzea, eta haiek kontserbatzen eta berreskuratzen laguntzea.*

Era berean, udal ekipamenduak eta zerbitzu publikoak –bide-seinaleak eta hiri-altzariak barne hartuta– errespetatu beharko dituzte, baita haiek berreskuratzen eta kontserbatzen lagundu ere” (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 44.1.d) artikulua). Horrez gain, udalek udal ondasunak zaintzeko betebeharrak eta erantzukizuna daukate, kontserbazio eta hobetzeko neurri guztiak hartuz, eta helburuarekin bat ez datozen erabilerak debekatzeko oztopoak kenduz.

Azkenik, **zerbitzu publikoaren** prestazioen gaineko erreferentzia labur bat. Herritarrek zerbitzuen prestazioaren kalitate eta exijentzia maila gero eta altuagoak eskatzen dituzte, funtsezkotzat jotzen ez diren zerbitzuetan ere. Udalek zerbitzu publiko horien kalitate maila zehazteko eskumena daukate, baina komenigarria da oinarritzko edo gutxieneko estandar batzuk finkatzea, modu objektiboan har daitezkeen parametro eta beharrian finkatuen arabera, bai zerbitzuak antolatu eta planifikatzeko, bai herritarrek ezagutzeko.

II. ATALA

12








OSASUNA

1. Arloa kopurutan

Aurten arlo honetan 91 kexa jaso dira guztira. Kexa horiek zenbait azpiarlotan sailkatu dira:

- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa 37
- Erabiltzaileen eskubideak 25
- Osasun laguntza 13
- Herritarren eskubideak 7
- Itxaron zerrendak 4
- Kontratazio-araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna 2
- Beste alderdi batzuk 2
- Osasun publikoa 1

Hauxe da arloan izapidetu diren kexen estatistika-informazioa abenduaren 31n.

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
114	47	67	31	21	9	6

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Hautapena

Arartekoak atzerritarrek osasun-laguntza jasotzeko dituzten zailtasunen berri ematen duten kexak jaso ditu berriz ere. Bai arazorik premiazkoena den larrialdietan laguntza jasotzeko eskubidearen interpretazioak, bai laguntzaren eskubidea aitortzeko eskaerak onartzeko objektioek agerian uzten dute egungo erregulazioaren ondorioz pertsona horiek daukaten administrazio-egoera korapilatsua.

Osasun-sistema publikoaren aseguramendua izateko eskubidea daukaten pertsonak izan arren, atzerritarrek arazoak izan dituzte, dirudinez, atzerritarrak izateagatik. Horren erakusgarri da 20 urteko seme batek bere amaren aseguramenduaren onuradun gisa aitortua izateko izan zuen zailtasuna. Jaioberriak diren adingabe atzerritarrek ere zailtasunak dituzte osasun-laguntza jasotzeko duten eskubidea nazionalen baldintza beretan gauzatu dadin.

Laguntza jasotzeko eskubidearen aitortzeko eskaerei dagokionez, guztiak onartu behar dira formalki, indarrean dagoen askotariko araudia aintzat hartuz, zehaztasunez azter daitezzen. Bidezketasuna aurrez epaitzea eta eskaera ez onartzea ez da zuzena. Ohar hori egin da kexa batzuek eskaeraren ez-bidezketasuna ahoz jakinarazi izan den egoeren berri eman dutelako, eta horrek dagokion ondorengo azterketa egitea zaila edo ezinezkoa izatea dakar. Laguntzaren araudiaren konplexutasunak izapidetzerako onartzea aholkatzen du.

Osasun Sailak eta **Osakidetzak** Arartekoari jakinarazi diote osasun-zentroetako onarpenen, fakturazioko eta bezeroen arretarako zerbitzuen arloetan horri buruzko prestakuntza ematen ari direla etengabe. Jasotako kexek erakusten dute aplikatu beharreko arauak aplikazioaren arduradunei helarazten ari zaizkien irizpideekin bat ez datozen interpretazioak sortzen dituztela.

Atzerritarrei arreta emateari dagokionez, jaioberriak diren adingabe atzerritarren arazoa aipatu beharra dago; izan ere, zailtasunak dituzte prestazio osagarriak eskuratzeko, esaterako farmazia-prestazioa, haien eskubidea oraindik eztabaidatu ez bada ere. Hori dela eta, erakunde honek ofiziozko espedienteen idatz zatian jasotako jarduketa hasi zuen.

2.2. Erabiltzaileen eskubideak

Bigarren iritzia jasotzeko eta etxe-medikua, ospitalea nahiz mediku espezialistak aldatzeko aukerak hainbat kexa eragin dituzten gaiak dira. Horrelako beste kasu bat paziente bati egiten zebilen errehabilitazioa beste errehabilitazio-zentro batean jarraitzea ukatu izanari buruzkoa da.

Ama batek bere semeari esleitutako adimen-osasuneko zentroa aldatzeko eskatu zuen, eta ondoren kexa bat egin zuen hori ukatu ziotelako. Bere eskaera hurbiltasun-arrazoiengatik egin zen (beste osasun-zentroa bere bizilekuaren aurrean zegoen), eta Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duen [uztailaren 21eko 147/2015 Dekretuan](#) jasotako medikua hautatzeko eskubidean oinarrituta zegoen. Osasun-sistema publikoak erabiltzaileei eskaintzen dien aukera da, hasiera batean esleitu zaizkien bitartekoetan aldaketak eskatu ahal izateko.

Eskaeraren funtsezko arrazoiak hurbiltasunari lotua zegoen, bizilekuaren aurrean baitago beste zentroa. Ukapena honetan oinarritu zen: plangintzak ez du aztertu aldaketa eskatu deneko adimen-osasuneko zentroan haren semeari arreta ematea.

Arartekoak egindako informazio-eskaerari emandako erantzunak azaldu zuen haur eta gazteen adimen-osasuneko zentro espezializatuetan posible den arretarik onena emateko irizpideak zonakatzean ezarritakoak direla, tresna horrek artatutako pazienteen kupoak parekatzen baititu.

Arartekoaren ustez, eskatutako aldaketa ukatzeak ez zituen apartekoak ez izan arren bereizirik azter daitezkeen bi esparru desberdinu. Lehenengoa plangintza-irizpideei buruzkoa da eta, beraz, osasun-administrazioak osasun-laguntzari esleitutako bitartekoak antolatzeko eskumenekin dauka zerikusia. Bigarrena hautatzeko eskubideari dagokio eta, esku-bidea absolutua izan ez arren, izaera propioa dauka.

Bi esparru horiek bereizten ez badira, hautatzeko eskubidearen edukia husteko arriskua dago.

Administrazioak baliabideen plangintzarako duen eskumena justifikatzen duten arrazoiak eskuragarri dauden baliabideak antolatzeko bere ahalmeneko gaitasunaren esparruan kokatu behar dira. Baina justifikazio hori imitazioz eramaten bada geroko edozein eskaerara, erabiltzaileak hautatzeko duen eskubidearen isla izanik eskaera hori, aurretiko plangintzan oinarrituta, eskatu den banakako edozein aldaketa ukatzeko xedez, eskubide horren edukia husteko arriskua sortzen da. Horrenbestez, antolakuntza aldatzen duteneko modua justifikatzen ez bada, plangintza-irizpideen alegazio soilak ezin ditzake zentro-aldaketaren eskaerak ukatu.

Eskatu den eskaera onartzearekin egungo antolakuntza kalte-tutuko dela egiaztatuko balitz, hautatzeko eskubidearen mugaketa justifikatua egongo litzateke. Eskubide hori baldintzatuta egongo litzateke ere, hizpide dugun kasuan bezala, ez balitz bermatuko eskatutako adimen-osasuneko zentroan beharrezkoa den haur eta gazteen berariazko arreta egun artatzen duten zentroan dauden baliabide antzekoekin gauzatuko dutenik.

Erakunde honen iritziz, ezin zaio aterik itxi hautatzeko eskubideari geroko balizko eskaeretan oinarrituta, aurkeztuko ziren zantzurik ez bazegoen (Osakidetza emandako erantzunean adierazi zen eskaera horri arreta ematea aurrekaria izango litzatekeela, eta hori onartzeak ezarritako antolakuntza bat ez etortzeak ekarriko lituzkeela). Ukatzeko arrazoi hori onartzen bada, eskatutako banakako aldaketak antolakuntza oinarritzen duten plangintzen ostekoak direnez beti, ordenamenduak erabiltzaileei ondoren hautatzeko ematen dien banakako eskubidearen edukia hustuko litzateke.

Zerbitzu espezializatua eta ospitalea hautatzeko eskubideari dagokionez, Arartekoak ikusi du batzuetan eskubide hori bigarren iritiztat jotzen dela. Eskubide horren helburua hasiera batean sistema publikoan proposatutako diagnostikoa edo proposamen terapeutikoa egiaztatzea da. Alabaina, ez da harriztekoa beste espezialista baten aukeraketa bigarren iritzia jasotzeko eskaera gisa izapidetzea.

Horrek argi erakusten du bigarren iritzia horrekin zerikusia ez duten beste eskaera batzuk erakartzen dituela. Hori izan zen, hain zuzen ere, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean ebakuntza egin zioten paziente baten kasua, hiru urte igarotakoan Basurtoko Unibertsitate Ospitalean proba diagnostiko bat eskatu baitzuen. Bere eskaera bigarren iritzia gisa izapidetu zen, baina erabiltzaileak benetan nahi zuena azken ospitale horrek zentro pribatu batean gomendatutako proba diagnostiko bat egitea zen.

Hori informazio egokia izango litzateke interesdunak Basurtoko Ospitalean lehen eskaera aurkeztu zuenerako; izan ere, orain, hilabete batzuk geroago, bideratu duten prozedura hastera ahalbidetu izango lioke (beste hitzordu bat Gurutzeta Ospitalean bere espezialistarekin, ondoren, hala badagokio, bigarren iritzia eskatzeko bere gaitzaren proposamen terapeutikoaren inguruan).

Bigarren iritziaren interpretazio zuzena eginez, Osasun Sailak Euskadiko osasun-sistematik kanpo gauzatzeko eskaera ukatu zuen. [Irailaren 18ko 149/2007 Dekretuak](#), Euskadiko Osasun Sistemaren bigarren iritzia medikoa eskatzeko eskubideaz baliatzea arautzen duenak, ez du aukera hori ukatzen. Alabaina, interesdunak ez zuen inolako justifikaziorik aurkeztu dekretu horren 4.3 artikulua aipatutako inguruabar berezien inguruan (*“Teknika diagnostiko eta/edo terapeutiko baten egoera bereziagatik beharrezkoa gertatzen denean, Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko beste osasun sistema publiko batekoak diren zentro itunduetan edo osasun-zentroetan lortu ahal izango da bigarren iritzia medikoa, betiere, Osasun Sailaren baimenarekin”*).

Aztertutako beste kasu bat pazienteak joaten zen errehabilitazio-zentroa beste errehabilitazio-zentro bategatik aldatzeko eskaeraren ukapenari buruzkoa da.

Hasiera batean, Euskadiko osasun-sisteman hautatzeko eskubidea honen ingurukoa da: etxe-medikua eta pediatra, lehen mailako arreta-zentroa nahiz, hala badagokio, ospitalearen aukeraketa. Kasu horietatik kanpo, mediku espezialisten edo fisioterapeuten aldaketak, printzipioz, zerbitzu beraren erabilgarritasunen barruan egon beharko luke; kasu honetan, Gorkiz Ospitalearen errehabilitazio-zerbitzuan.

Arartekoak interesdunari jakinarazi zion bere nahia bideratu ahal izateko baliagarria izango litzatekeela errehabilitazioa agindu zion mediku espezialistarekin hitzordu bat eskatzea, bere prozesua kontrastatze aldera. Osterantzean, bere eskaera ospitale-aldaketa ez bazen ere, arauak ezartzen dituen baldintzetan (149/2007 Dekretua ospitalea hautatzeko eskubidea arautzean erreferentzia-ospitale gisa ezagutzen denaz ari da), horretarako ezarritako prozedurara jo beharko litzateke.

Hurrengo kexak prestazio bat jasotzeko eskubidea daukan pertsona baten egoera deskribatzen du, ez da eztabaidatzen eskubide hori duenik, baina prestazioaren kostua bere gain hartu behar du. 1972an lan-istripu bat izan zuen pertsona bat da; beharrezkoa duen protesi bat berritzeko daukan zailtasuna azaldu du.

Ez da eztabaidatzen beharrezkoa duen prestazioaren azken erantzukizuna nori dagokion (kasu honetan, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari, GSIN) baizik eta zuzeneko edo berehalako erantzukizuna nor hartu behar duen (GSINK edo Eusko Jaurkitutako Osasun Sailak). Aurreko berritzeen zenbatekoa GSINK itzuli zion.

GSINK uste du [abuztuaren 3ko 1192/2012 Errege Dekretua](#), funts publikoaren kargura eta Osasun Sistema Nazionalaren bidez Espainian osasun-laguntza jasotzeko asegurutu eta onuradun izaera arautzen duena, onetsi zenean, [azaroaren](#)

[16ko 2766/1967 Dekretuaren](#) 11. artikulua indargabetu zela. Horrek esan nahi du osasun-laguntzaren irismena ez dela desberdintzen kontingentzia arrunt edo profesionalagatik. Hori dela eta, GSINK uste du ez dela bidezkoa ordaindutako fakturen gastua itzultzea eta bere erantzukizuna erkidegoko osasun-zerbitzuei ordaintzea dela, dagokion likidazio-sistemaren bidez. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, finantzaketa-sistema bereziaren bitartez.

Bestalde, [azaroaren 12ko 1506/2012 Errege Dekretuak](#) xedatzen du lan-istripuen ondorioz behar diren tratamenduak Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak finantzatu behar dituela, baina ez du zehazten nor den prestazio hori gauzatzeko betebeharra duena (9. art.). Hau da, administrazio batek finantzatzeko betebeharra izatea ez dago kontraesanen beste erakunde batek prestazioa ematearekin.

Horrenbestez, tartean diren administrazio bietako batek ere ez du interesdunak gastuaren itzulketa jasotzeko duen eskubidea eztabaidatzen, eta eztabaida honetan ardatzen da: eragin duen gastua nork ordaindu behar dion lehenengo.

2.3. Osasun laguntza

Odontologia-tratamendu bat behar zuen eta, autismo izateagatik, ebakuntza-gelan anestesia behar zuen adingabe bati emandako arretak sorturiko inguruabarrek azterketa xehatua eragin zuten.

Osakidetzaren plangintzarekin bat etorri adingabeari esleitu zizkieten osasun-zerbitzuak bere osasun-arloari zegozkionak ziren, Gipuzkoan. Hala eta guztiz ere, odontologia-tratamendua Haurren Hortzak Zaintzeko Programan (PADI) dago, Osasun Sailak itundutakoa; hortaz, Osakidetzaren osasun-arloarekin bat ez datorren plangintza dauka. PADIren plangintza horren arabera, autismoagatik jaso behar zuen arreta berezia Bizkaian gauzatu behar zen, Sestaoko anbulatorioan lehenik eta, ebakuntza-gelara joan behar izanez gero, San Juan de Dios Ospitalean, Santurtzin.

Hasiera batean, Sestaoko medikuak erabaki zuen adingabeak behar zuen esku-hartzeak ez zuela ebakuntza-gelaren beharrik, eta lasaigarri batekin egitea proposatu zuen. Hori ez zen posible izan, eta hiru hilerik behin bere PADIko odontologoarekin koordinatutako mediku-azterketak egitea adostu zuten, hortzaren eboluzioa ikuste aldera. Ondoren, odontologo horrek esku-hartzea sedazioarekin (ebakuntza-gelarik gabe) egiteko aukeraren inguruko informazioa biltzeko gomendatu zien. Izan ere, txantxarraren neurria ikusita, ezin zen gehiago itxaron.

Gurasoek, aukerez informatu ostean, hitzordua eskatu zuten Donostiako Quirón Ospitalean (Osasun Sailarekin itundutako zentroa, esku-hartze horiek behar dituzten Gipuzkoako pazienteentzako dena). Gurasoek horren berri eman zioten Sestaoko zentroari, eta zentro horretan aurreikusita zeukaten hitzordua ezeztatu zuten. Quirónen esan zioten ezinezkoa zela sedazio bidezko esku-hartzea egitea, esku-hartzea luzea izango zelako eta, ondorioz, anestesia orokorra (ebakuntza-gela) beharko litzatekeelako.

Aurrekari horiekin, gurasoek baimena eskatu zuten Quirónen bere semeari esku-hartzea burutzeko. Osasun-administrazioak Gipuzkoako zentro horretan esku-hartzea egiteko baimena ukatu zuen, haiei zegokiena ez izateagatik. Hori dela eta, hitzordua eskatu zuten Sestaon; bertan adierazi zieten esku-hartzea gauzatzeko ebakuntza-gela behar izanez gero erreferentziako zentroa Santurtziko San Juan de Dios Ospitalea zela.

Administrazio-ikuspuntutik, Osasun Sailak emandako erantzuna zuzena izan zen. Alabaina, laguntza-prozesuaren eboluzioak izandako aldaketen arabera, ukatu zieten Quirónera joateko baimen-eskaera egin zuten unean adingabeak bi proposamen terapeutiko desberdin zeuzkan: bere Bizkaiko erreferentziako zentroan (laguntza hori emateko itundutakoan) ukitutako hagina ateratzea proposatu zioten, baina Quirón zentroan (Gipuzkoako pazienteentzat itundutakoan) proposatu zioten tratamendua endodontzia bat zen.

Osasun Sailaren aurrean egoera baldintza horietan aurkeztu zenean, osasun-administrazioak aurrekari guztiak aztertu zituen, bereziki desberdina den proposamen terapeutikoa, eta azkenik gurasoen nahia bideratu zuen, proposamen desberdinen espezifikotasuna aintzat hartuz.

Osasun-laguntzari buruzko idatz zati honetan, osasun-garraio lagundua ukatzeagatik kexa jaso da. Beste autonomia-erkidego batean premiaz artatu behar izan zen paziente batek jarri zuen, beharrezkoa zuen ebakuntza kirurgikorako bere Osakidetzako erreferentziako zentrori eraman zezatela eskatu baitzuen. Arazoa, premiaz ospitaleratu behar izan zuten autonomia-erkidegoan esku-hartzea gauzatu izan biltz, esku-hartzearen ondoren izango lukeen laguntza-faltari buruzkoa zen. Burututako jarduketak [Arartekoaren 2016ko abenduaren 19ko Ebazpenean](#) jaso dira. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari gomendatzen zaio berriker dezala pertsona bat Figuereseko Ospitaletik Donostiako Unibertsitate Ospitalera osasun-garraio lagunduan eramateko baimen-eskaera ukatzeko erabakia.

Halaber, aipatutako ebazpenean jorratu ez den ikuspegi batek, ospitaleratzean familiaren laguntza izatearen baliagarritasuna eta hori izateko zailtasuna azaldu dira. Aiarako Udalean bizi den pertsona batek sortu zuen kasua; bere erreferentziako ospitalea Arabako Unibertsitate Ospitalea da, baina familia-inguruabarrengatik Basurtora eraman eta bertan artatu zezatela eskatu zuen. Hori dela eta, bere egungo lehen mailako arreta-zentroa mantenduz, arreta espezializatua Bilboko ospitale horretan esleitu ziezaiotela eskatu zuen.

Eskaera ukatu zioten arreta erroldatuta zauden tokiari lotuta dagoelako eta, osasunaren antolakuntzaren ikuspuntutik, esan zioten ez dagoela beste aukerarik.

Arartekoa ez dago antolakuntza egokiak laguntza-baliabideen plangintzan daukan pisuaren kanpo. Hori guztia aintzat hartuz, aldaketa-aukerak ez lirateke guztiz baztertu beharko eskaera horiek oinarritzen duten berriazko inguruabarrak aztertu barik.

2.4. Itxarote-zerrendak

Ebakuntza kirurgikoentzako itxarote-denborari buruzko idatz zati honetan, adierazi beharra dago aurreko txostenetan egindako ohar bera egin beharra dagoela 180 egun baino gehiago igaro diren kasuetan.

Kexa horiek izapidetzeko bideratu baziren ere, Arartekoak uste izan du bidezkoa dela Osakidetzari ohar bat helaraztea honako hau adieraziz: egoera horietan (180 egun baino gehiagoko itxaronaldiak) jakinarazi beharko litzateke itxarote-zerrendek larritasun medikoen lehentasunak islatu behar dituztela nahiz berdintasun-irizpideen arabera kudeatu behar direla, baita Euskadiko Osasun Sistemaren konturako prozedura kirurgiko programatuetara eta urgenteak ez diren iristeko gehieneko epeak ezartzeko den [martxoaren 21eko 65/2006 Dekretuan](#) ezarritako bidearen berri eman ere, itxaronaldiak epe hori gainditzean.

Garrantzi bera dauka kexetan jorratutako beste alderdi bat, aurreikusitako denborari buruzko informazioaren ingurukoa da, hain zuzen ere. Osasun-karpetara sarbidea izanez gero, itxarote-zerrendaren hurrenkera jakite hutsak ez dauka inolako baliorik baldin eta esku-hartzea burutzeko aurreikusitako data zehazten ez bada, data orientagarria izan arren.

Ernalezintasun arazoaren tratamendua jasotzeko buruz 2016ko azaroan egindako kexa batek bi alderdi azaldu zituen, batetik Araban prestazio hori jasotzeko dagoen eskaintza gabezia eta horrek eragiten dion lekualdatzeko beharra, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalera joan behar izango baitu; eta bestetik, itxaron beharreko denbora, aipatutako ospitalean hurrengo hitzordua 2017ko irailean izango baitu.

Horregatik, Arabako Unibertsitate Ospitalean prestazio hori martxan jartzeko dagokionez, osasun-administrazioak adierazi zuen zentro horretan aipatutako eskaintza ematea ez zela lehentasunezkoa, une horretan.

Ez dagokio erakunde honi osasun-administrazioaren lekua hartzea hark dituen baliabideak erabiltzaileen beharrei erantzuteko nola planifikatu behar dituen esateko. Hori hala izanik ere, kexagile horren bezalako nahiei ez litzaieke zilegitasunik kendu beharko; izan ere, eskaerak ez dira soilik zerbitzu bat gertuago jasotzeko nahian oinarritzen, baizik eta, funtsean, kexagileak aipatu du prestazioa denbora-tarte laburragoan jaso nahiko lukeela. Itxaronaldiari lotutako alderdi horrek garrantzi gehiago dauka emakumeak amatasunaren aukerak murrizten hasten diren adinaren mugara hurbiltzen direnean.

Ezin daiteke ahaztu ernalezintasuna osasun-arazo bat dela eta, zuzenbidearen ikuspuntutik, ordenamenduak prestazio gisa aitortzen duela. Hori guztia dela eta, zilegi da, aipatutako kasuan bezala, ernalezintasun arazo bat duten eta gehiegizko itxaronaldiak dituzten pertsonen arazo hori konpondu nahi izatea. Izan ere, lehentasunak ezartzeko beharra onartu bada ere, ez litzaieke itxaronaldiei garrantzia kendu beharko.

2.5. Funtzionamendua

Ospitaleko alta izan ostean pertsona batzuek batzuetan, osasun-garraioa erabiliz, beren bizilekura eraman ditzaten itxaron behar duten gehiegizko denborak kexa eragin du berriz ere. Aztertutako kasu batean, ospitaleak garraio hori 14:30ean eskatu zuen, eta anbulantzia 18:45ean iritsi zen, ospitaletik hainbat dei jaso ondoren.

Hitzarmen bidez gauzatzen den sistema publikoaren osasun-prestazio bat denez, erakunde horrek atzerapen horri buruzko informazioa eskatu zion Osasun Sailari. Era berean, sail horrek garrantzitsutzat jotzen zuen ohar hau helarazi zion Arartekoari: paziente ospitaleratuta zegoen (eta, hortaz, behar bezala artatzen zuen) zentroaren alta medikoa zenez, zerbitzu-erakundeak itxaronaldien inguruan egindako balorazioa ez da premiazko lekualdatze baterako edo osasun-presztazio bat egiteko anbulantzia bat eskatzen denaren bera.

Txostenak azaldu zuen arratsaldeko ordu-tartean premiazko eskaerak gora egin ohi dutela, eta lehentasuna eman behar zaiela horiei. Horregatik, hain zuzen ere, kasua ezin zenez isolatutako kasutzat hartu, Arartekoari jakinarazi zitzaion Bizkaiko Osasun Lurralde Ordezkaritzak zenbait ordu-tarte ibilgailu gehiagorekin indartu dituela, eta beren jarraipena monitorizatzen duela atzerapenak ahal den neurrian murrizte aldera.

Itxaronaldia saihestezina dela onartuz, kaltea arintzen saiatu ahal da pazienteari edo familiari garraioak daukan atzerapena edo hori eragin duen arrazoia jakinaraziz. Bestalde, erakundearen ikuspuntutik, atzerapen horrek ondorioak eragin ditzake ospitalean. Gauzak horrela, gerta liteke paziente baten ospitaleko larrialdietako zerbitzuan behar baino denbora gehiago itxaron behar izatea solairuko ospitaleratzea egin diezaioten, hain zuzen ere ospitaleko solairuko ohe hori dagoeneko ospitale-alta jaso duen pertsona batek okupatzeagatik, gelan jarraitzen duelako anbulantziaren zain.

Atzerapenaren luzapenarekin batera, kexa honetan beste gai bat aztertu zen, kexagileari (pazientearen senide laguntzaileari) informazioa ez emateko arrazoiei buruzkoa. Arreta-zerbitzuak honako hau adierazi zion: *“Lamentamos no poder dar contestación a dicha contestación por no acreditar la relación familiar con la paciente, en base a la Ley de Protección de Datos.”*

Arartekoak uste du familia-lotura egiaztatze eskakizuna eta kexa honi erantzuteko ondoriozko erabakia ez liratekeela pazientearen osasunaren gaineko datu pertsonalak babesten dituen araudiarekin batera joan beharko, batik bat osasun-garraioaren enpresa adjudikaziodunari helarazitako kexaren idazkian kexa aurkeztu ez zuen pazientearen datuak nahiz kexagilearenak jaso zirela egiaztatu denean.

Kexagile salatzaileari objekzioen bat jar diezaiokela onartuta, lehenik aztertu beharko litzateke kexagileak interesdun gisa jarduten zuen. Horrenbestez, bere salaketa onartu behar zen, horrek kexan adierazitako egitateak ikertzeko ireki ahaliko litzatekeen prozeduran interesdunaren kategoria ematea eragin barik.

Egia da osasunaren gaineko datu pertsonalen babesa arautzen duten arauak aintzat hartu behar direla, baina egia da ere osasun-laguntzak normaltasunez burutzean, adibide ugari egoten direla non agerian geratzen den laguntza-errealitate horretatik kanpo egindako arau horien aplikazioak funtzionamenduan zailtasuna eragin dezakeela. Hain zuzen ere, egoera horietako bat ospitaleratuta dauden adinekoena da; izan ere, zaila izango litzateke haiek behar duten arreta, osasun-eremuari hertsiki dagokion arretaren laguntza-alderdi osagarri ugarietan, beren laguntzaileak gabe (normalean, beren senideak) ematea lortzea.

Laguntza-errealitateari buruzko gogoeta horien helburua ez da osasunaren gaineko datuek behar duten babes juridikoa alboratzea; dirudienez, kasu honetan, babes juridiko hori ez litzateke arriskuan jarriko.

Era berean, zerbitzuen funtzionamenduari buruzko idatz zati honetan, larrialdietako ospitaleratzea egin behar izan zioten pertsona baten gurasoek informazio-faltagatik jarritako kexa jaso dugu. Zehazki, adierazi zuten ez zietela ospitaleratzearen berri eman eta, azkenean, alaba ospitale horretan lokalizatzea lortu zutenean, azaldu zuten zenbait aldiz galdetu arren bi ordu eta erdi egon behar izan zutela informazioa jasotzeko zain.

Larrialdietan mota horretako itxaronaldiak egin behar direnean, informazioa izateak arreta jasotzeko orduan dagoen atzerapena lasaitasun handiagoz jasatea dakar; beraz, ez da elementu mespretxagarria inguruabar horietan. Onartu beharra dago horrek ez duela eraginik larrialdietara joatera bultzatu duen gaitzaren tratamenduan, baina ezin dugu alde batera utzi, luze itxaron behar den unetan, familia informazioa bezalako alderdiek duten garrantzia.

2.6. Osasun publikoa

Kexa batek enpresa batean jazotako osasunari buruzko gora-beheraren berri eman zuen. Bertan, interesdunak adierazita koaren arabera, zenbait pertsonak gastroenteritis pairatu zuten. Osasun-ikuskapena egin ostean, Gipuzkoako Osasun Lurralde Ordezkaritzak agerraldi horren jatorria hauteman zuen: edateko uraren sareak eragin zuen, sukalde-jangelatik gertu dagoen zona batean enpresak askotariko prozesuentzako erabilitako “industria-uraren” sarearekin dagoen konexio batengatik kutsatutakoa. Kutsadura-puntu hori hauteman ostean, hainbat neurri zuzentzaile hartu ziren sarea deskonektatzeko eta edateko uraren sare guztia garbitu nahiz desinfektatzeko. Irailaren 30ean, elikagaien manipulazioaren zein uraren erabileraren gaineko kautelazko debekua kendu zen. Gorabeherari buruzko txostenaren ondorioa honako hau izan zen: 200 pertsonak baino gehiagok norobirusak nahiz rotavirusak eragindako gastroenteritis akutua izan zuten hainbat astez, eta beherakoak, gorakoak nahiz goragaleak izan zituzten horren ondorioz.

Osasun Sailak gorabehera horri buruzko informazio-eskaerei erantzun zien, baina interesdunak uste izan zuen informazio hori gorabeheraren arduradunei ezarritakoaldi baterako administrazio-neurrien gainekoarekin osatu behar zela. Txosten honetako ingurumen-arloan jasotako kexa horren inguruan burututako jarduketak egitateak arau-hauste gisa kalifikatzen dituen alderdi horretan ardaztu dira.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Hasieran, atzeritarrek jarritako kexa askok zailtasun batzuk adierazten dituztela aipatu da. Horren arrazoietakoa bat eskatutako osasun-laguntza jasotzea arautzen duen eduki arauemailearen konplexutasuna izan daiteke. Aurreko txostenetan, Arartekoak jakinarazi du ez dela Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Osasun Sistema Nazionalaren osasun-prestazioak emateko araubideari buruzko [ekainaren 26ko 114/2012 Dekretua](#) egokitzeko bidea utzi behar; gauzak horrela, kolektibo horrek osasun-laguntza jasotzeko duen eskubidea aitortzeko trabak gaindituko dira, lurralde horretan benetan bizi dela egiaztatu ostean.

Aurten, Euskadiko osasun-zentro eta -zerbitzuetan osasun-laguntza jasotzen duten pazienteen segurtasun-neurriari buruzko [maiatzaren 17ko 78/2016 Dekretua](#) onetsi da. Arau horretan ezarritako tresnak —segurtasun plan bat eta segurtasun-gertaeren berri emateko sistema— betetzeak laguntza-jarduerari lotutako gertakizun kaltegarrien esperientzia aprobetxatzen lagunduko du.

Osasun-alorrean daukan garrantziagatik, bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzko [uztailaren 8ko 11/2016 Legea](#) onetsi beharra dago. Zioen azalpenak adierazten duen bezala, nahitaezko helburuetako bat ordezkarriaren funtzioak behar bezala mugatzea da, bereziki aurretiazko borondateen adierazpenean egoera klinikoak aurreikusi ez direnean. Halaber, bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen erabateko duintasuna benetan ziurtatzearen, prozesu horretan gaixoak artatzen dituzten laguntza- eta osasun-langileen betebeharrak ere zehazten ditu, eta hainbat betekizun ezartzen dizkie erakunde sozial eta sanitario publiko eta pribatuei gaixoaren eskubideak bermatzearen.

Era berean, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko [apirilaren 7ko 1/2016 Legearen](#) bitartez, arreta integrala lortu nahi duen araudi berria onetsi da.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak. Ofiziozko jarduerak

Arartekoak jaioberriak diren adingabe atzeritarrek eskubidez jaso dezaketen osasun-laguntza jasotzeko dauzkaten zailtasunen berri izan du. Arazoa ez da osasun-arreta jasotzeko unean sortu, medikuak agindutako prestazio osagarriak eskuratzerakoan baizik, esaterako farmazia-prestazioa.

Hori gertatzen da umea jaiotzen denetik haurren gurasoek jatorrizko herrialdeetik administrazio eskudunak (GSINK edo Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak, kasuaren arabera) la-

guntza jasotzeko eskubidearen aintzatespena izapidetzeko eskatu dien dokumentazioa lortzen duten arte igarotako denboragatik.

Egoera horrek eragina dauka bai adingabearengan, bai horren gurasoengan, [apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuak](#), osasun-sistema nazionalari eusteko eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko urgentziatzeko neurriei buruzkoak, osasun-laguntza jasotzeko onuradun izaera aitortzen baitie. Era berean, arau horrek berak, egoera berezietan osasun-laguntza jasotzeko kasuetan, atzeritarrak ez diren adingabeen baldintza berdintsuetan beti jasotzeko eskubidea aitortzen die.

Horrenbestez, osasun-laguntza (prestazio guztiak barne) jasotzeko eskubidea zalantzan jarri ez den egoera baten aurrean gaude, baina eskatutako dokumentazioa aurkeztu arte igaro daitekeen denborak horren eraginkortasuna baldintzatzen du luzaroan. Ondorioz, epe horretan zehar osasun-arretaren prestazio osagarriak bere osotasunean ordaindu behar dituzte.

Osasun Sailak laguntza-zentro guztiei emandako erantzuna helarazi dio Arartekoari, honako hau dioena: *“Halako kasuetan ezin da erabili “Presbide” aplikazio informatikoa, pediatrek egiten duten preskripzioa errezeta elektronikoaren bidez izapidetzeko. Horren ordez Osakidetza errezeta ofiziala eman go da paperean, eskuz idatzita, eta jaioberriaren gurasoetako edozeinen OTI zenbakia jarriko da bertan. Farmazia-bulegoan,*

besterik adierazi ezean, %40ko ekarpena aplikatuko diote, beste autonomia-erkidego batzuetako gaixoen errezetei aplikatzen dieten bezala, 65 urtetik beherako gaixoak izanez gero (zaharragoei % 10eko ekarpena aplikatzen zaie)”.

Kontsultatu diren iturri batzuek iradoki zuten adingabe horien arretaz arduratzen diren osasun-profesional guztiek ez dutela ezagutzen paperean errezeta ematea barne hartzen duen jarduteko moduari buruzko informazio hori. Hori dela eta, Arartekoak informazio osagarria eskatu zuen, oraingo honetan Osakidetza. Eskaera horretan bertan, preskripzioak paperean egiteak adingabeen kolektibo horren historia klinikoan preskripzio horiek jasotzeko unean arazoa sortzen duen argitzeko eskatu da.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Aurten, berriz ere, gogorarazi beharra dago osasun-laguntzari buruzko eskaerei nahiz hori jasotzeko eskubidea aitortzeko eskaerei emandako erantzuna osasun-erreformagatik gehien ukitutako pertsonen arazo-iturri izan dela; horietako gehienak adierazitako eskubidea aitortzen ez zaien atzeritarrak dira.

II. ATALA

13

SEGURTASUNA

1. Arloa kopurutan

2016an idatzizko 95 kexa aurkeztu dira segurtasun arloan, eta Arartekoak aldi horretan erregistratu dituen kexa guztien %4,40 da hori. Eragindako herri-administrazioak eta azpiarloak kontuan hartuta, honakoa izan da kexen banaketa:







Administrazioka:

- Tokiko Administrazioa 45
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurilaritza) 40

Azpiarloka:

- Trafikoa 64
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura 17
- Herritarren eskubideak 7
- Herritarren segurtasuna 3
- Jokoak eta ikuskizunak 2
- Beste alderdi batzuk 2

Txostena itxi zen egunean, hurrengo egoeran zeuden urte horretan izapidetutako kexak:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
226	165	61	10	31	1	10

Bestalde, honako azpi-arloetan 4 espediente izapidetu ditugu ofizioz:

- Atxiloketa zentroak 3
- Herritarren eskubideak 1

Aurreko urteetan bezala, 2016an **kexa gehien jaso dituzten administrazioak** Eusko Jaurilaritzako **Segurtasun Saila** eta **Bilboko Udala** izan dira. Kexek **Donostiako Udalar** eta **Gas-teizko Udalar** ere eragin diete, eta neurri txikiagoan beste udal batzuei.

Aurreko urteetan bezala, atal honetan emandako kopuruek ez dituzte jaso, bai legeak ezarritako **baztertzeko** kasuetako bat izateagatik, bai **Espaniako Herriaren Defendatzaileen** edo beste defendatzaile batzuen eskumenen eremuan egoteagatik, Arartekoak jorratu ezin izan dituen kexak.

Administrazioek euren jarduera zuzendu dute Arartekoak aurtan aztertu dituen kexa batzuetan, izapidetzean jokaera ezegokiren bat hauteman ondoren.

Oro har, administrazioek modu onargarrian bete dute Arartekoarekin **elkarlanean aritzeko betebeharra**. Hala ere, erakunde honek bere lana egiteko zailtasunak izaten ditu oraindik. Arartekoak egindako galderei **ez erantzuteak** eta eskatutako informazioa emateko orduan egoten den **atzerapenak** jarraitzen dute izaten arazorik ugariena. Horrelako egoera bat trafiko-araudia hausteagatik ezarritako zigorrari buruzko kexa batekin gertatu da. Izan ere, **Guardiako Udalak** ia-ia hiru urte behar izan ditu Arartekoaren eskaerari erantzuteko, eta gainera, bidali diguten informazioak ez die erantzuten erakunde honek egindako galdera guztiei. Beste kasu batzuetan, administrazioak ez ditu helarazten eskatutako dokumentuak; hori egin beharrean, Arartekoa bere bulegoetara gonbidatzen du, erakunde honek egokitzen jotzen dituen egiaztapenak bertan egin ditzan. Ez du azaltzen zergatik ezin dion erantzun eskaerari, erakunde honek adierazitako moduan. Arartekoaren iritziz, bere eginkizunak burutzeko behar duen informazioa eskuratzeko ordenamendu juridikoak hainbat bide aurreikusten dituen arren, horietako bat edo bestea hautatzea erakunde honi ez beste inori dagokio. Horrek ez du eragozten, hala dagokionean, beste bide batzuk erabiliz aukera aztertzea, administrazioak horretarako arrazoiak azaltzen dituenean. Arartekoak berriro esan behar du bere eskaeretan azaltzen diren kontuei erantzunik ez ematea edo erantzun eskasak ematea oztopo handia direla legez esleitutako eginkizunak behar bezala betetzeko; gainera, horrek modu larrian kaltetzen ditu ordenamendu juridikoak beren interesak defendatzeko eskura jartzen dizkien tresnetako bat erabiliz erakunde honetara jotzen dutenen eskubideak. Aipatutako arazoetako batzuk **Arartekoaren 2016ko abenduaren 20ko Ebazpenean** azaldu dira.

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Herritarren eskubideak

2016an izapidetu ditugun kexak, funtsean, **polizia-funtzioaren erabilerari** buruzkoak izan dira. Horren inguruan, beste urte batzuetan azaldutakoen antzeko kontuak planteatzen dira oraindik ere, hala nola kexen barne ikerketa, indarraren erabileraren kontrola eta atestatuen eta administrazio salaketan edukiaren kontrola, horiek arazoitzen dituzten egitatei dagokienez. Horretaz gain, aurtan, **atxiloketek** eta **bide publikoan identifikazioek** eragin dituzte kexa batzuk.

Aurreko epigrafean aipatu dugun **Arartekoaren 2016ko abenduaren 20ko Ebazpenak** kontu horietako zenbait jaso dituen kexa bat aztertu du. Kexa horretan ertzain batzuen

jarduera salatu zen. Izan ere, ertzainek **adingabe** bat atxilotu zuten, frogarik gabe, eman ez zituen tratu txarren ustezko delituagatik. Adierazi zenez, gogoeta hori oinarri hartuta, Adingabeen Fiskaltzak **atxiloketaren** ondorioz bideratutako atariko eginbideak behin-behinean largestea erabaki zuen, adingabea salatutako ekintzen egilea izan zela esateko daturik ez zegoela ulertuta. Era berean, kexak salatzen zuen ertzainek **indarra** erabili zutela adingabea atxilotzeko, bere gauzak arakatu zituztela, eskuburdinak jarri zizkiotela eta gertatutakoarekin bat ez zetorren gertakarien bertsioa eman zutela. Halaber, kexaren arabera, ez ziren errespetatu behar besteko bermeak, ez **atxiloketan**, ezta adingabea Ertzaintzaren bulegoetara eramateko orduan ere.

Era berean, musikari profesional batek aurten aurkeztutako kexa azpimarratu behar da. Hain zuzen ere, Donostian, bide publikoan gitarra jotzen ari zenean, udaltzainek atxilotu egin zuten, desordena publikoen ustezko delituagatik. Kexan azaldu zenaren arabera, **atxiloketa** arrazoirik gabekoa zen. Izan ere, atxiloketaren ondorioz bideratutako atestatutik eratorritako eginbideak izapidetzeaz arduratu zen instrukzio-epaitegiaren erabakian agerian utzi zuten ez zegoela nahikoa frogarik kexagileak delitua egin zuela esateko. Udaltzainek, beren aldetik, euren jarduera justifikatu zuten. Azaldu zuten, musikariak baimenik gabeko jarduera bat egiten ari zen; ez zion kasurik egin udaltzainek agindutakoari, jotzeari uzteko esan ziotenean; ez zuen identifikaziorik erakutsi nahi izan; modu aktiboan aurka egin zien eta hitzez adoretu zituen bertan bildutakoak udaltzainekin kontra. Halaber, adierazi zuen, egitateak desordena publikoen delitua zirela onartu ezin izan arren, bere iritziz, desobeditze-delituaren eta udaltzainei aurre egitearen zantzuak egon bazeudela.

Aurten ere, zalantzan jarri da **poliziaren esku-hartzea, gaixotasun mentala duen herritar bati dagokionez**. Esku-hartzea osasun-sistema publikotik jasotako eskaera bati erantzunez burutu zen, hain zuzen, pertsona bat bere borondatearen aurka ospitalizazio psikiatrikoko unitate batean sartzen laguntzeko eskatu zuten. Kexaren arabera, poliziaren jarduera, herritarren erresistentziari erantzuteko, eta pertsona horri emandako tratua giza duintasunaren aurka zegoen, ez baitzuen kontuan hartzen horrelako gaixotasunak dituztenen berriazko egoera. Izan ere, pertsona horiek ez dute kontrolrik, emozio-egoera eta burua orekan mantentzeko behar duten medikazioa utzi dutelako, kasu horretan gertatu zen bezala. Azaldu zenez, udaltzainek **indarra erabili** zuten eta herritarra hiru orduz lurtean etzanda zegoen, bilurtuta, uniformeaz jantzitako udaltzain batzuk bere gainean eserita eta beste batzuk zutik, uniformerik gabe, ambulanzia iritsi eta ospitale zentzora eramane zuten arte.

Aurten, herritar batek aholku eske jo du Arartekora, zer egin behar duen jasandako kalteengatik ordaina jasotzeko galdetuz. Azaldu duenez, Mexikoko agintariek, Estatu Batuen errekerimenduari kasu eginez, ez zioten utzi Mexikon sartzen, opor egun batzuk pasatzeko. Kexagilearen arabera, dirudienez, ez zituzten ezabatu egitate batzuegatik atxilotu ondoren jasotako **datu polizialak**, 2012an **Auzitegi Gorenak** kexagilea errugabetu zuen arren. Erakunde honek jaso zuen informaziotik ondorioztatu zenez, datu horiek **INTERPOL** erakundeari eman zitzaizkion eta Estatu Batuek hortik atera

zituzten. Ondorioz, herritar horri ez zitzaion baimenik eman Mexikon sartzeko. Gardentasunari, parte-hartzeari, gobernu onari eta datuak babesteari buruzko atalean kexari buruzko informazio zehatzagoa eskaini da.

2016an izapidetu ditugun kexek erakutsi dute **bete gabe jarraitzen dutela erakunde honek** aparteko mugaketak saihesteko eta, horiek gertatuz gero, hauteman ahal izateko **proposatu dituen prebentzio eta kontrol mekanismoetako askok**. **Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean** jaso dira nagusiki. Ondorengo 4.3. idatz zatian, gabezia horietako batzuk azalduko dira.

2.2. Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura

Azpimarratu behar da erakunde honek Bilboko Udalari egin dion iradokizuna, poliziak egiten dituen bizikidetzatxostenei buruz (**Arartekoaren 2016ko apirilaren 12ko Ebazpena**). Gizarteratzeari buruzko atalean horri buruzko informazio zabalagoa eskaini da.

2.3. Herritarren segurtasuna

Aurtengo kexek, berriz ere, **segurtasun gabeziari** egin diote erreferentzia. Aipatu nahi dugu jabeen erkidego batzuek aurkeztutako kexa, Bilboko Juan de la Cosa kalean, eta, oro har, Santutxu auzo osoan, herritarren segurtasunik eza eta bizikidetzatxosteko arazoak direla eta. Herritarren arabera, auzoan ugaritu ziren delitu-ekintzak eta gizalegearen aurkako jorkabideak espazio publikoan, eta horrekin erlazionatu zuten segurtasun gabezia. Kexa jarri zuten komunitateek onartu zuten Ertzaintzak eta Bilboko Udaltzaingoak erantzun egokia eman zirela gertaera zehatzen aurrean bizilagunek egindako errekerimenduei. Dena den, uste zuten poliziaren ikerketa puntualak ez zirela nahiko gorabehera horiek adierazten zuten arazo orokorra konpontzeko. Adierazi zuten bezala, legez kanpoko jardunak berriz ere errepikatzen ziren polizia bertatik aldentzen zenean. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila eta Bilboko Udalak jakinarazi zuten kexa jaso ondoren Ertzaintzak eta Bilboko Udaltzaingoak jarduera osagarri batzuk burutu zituztela eta prebentzio neurriak hartu zituztela. Jasotako informazioarekin bat, nabarmen hobetu zen salatutako egoera. Arartekoak arazoa bideratu egin zela ikusi arren, aldi berean, adierazi zuen polizia-zerbitzu biek batera kasuaren jarraipena egin behar zutela, modu koordinatuan, hartutako neurrien egokitasuna ebaluatzeko, ordenamendu juridikoak eskubideen erabilera askea babesteko, herritarren segurtasuna bermatzeko eta arau-hauste penalak egitea prebenitzeko esleitzen dizkien eskumenen babespean. Halaber, segurtasun publikoaren arloan agintzen duten koordinazio-printzipioak eta emaitzak ebaluatzeko irizpideak erabili behar zituzten, horrelakoak berriz gertatzea saihesteko [**Espainiako Konstituzioaren** 104. artikulua, **martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoaren** 11. artikulua, Euskal Herriko Poliziari buruzko **uztailaren 17ko 4/1992 Legearen** 3. eta 27. artikulua, eta Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema

Antolatzeko [ekainaren 28ko 15/2012 Legearen](#) 3.1.e), 3.3, 5.c) eta 6. artikulua].

Zigortzeko araubideari buruzko kexak aurten ere jaso dira, batez ere, prozedura izapidetzearekin zerikusia duten kontuak salatu dituztenak.

2.4. Trafikoa

Iaz bezala, **Bilboko TAO eremuko egoiliarren araubidetik zenbait ibilgailu baztertu dira**, eta bazterketa hori salatu duten kexak jaso ditugu. Izan ere, [Trafikoa eta Aparkalekua arautzen dituen Ordenantza \(TAO/OTA\)](#) aipatu araubidean sartu dituen kategorien antzeko ezaugarri teknikoak dituzte araubidetik baztertzeko diren egoiliarren ibilgailu horiek, eta erabilera irizpide bereberari erantzuten diete, erabilera partikularrerako ibilgailu gisa. Horixe gertatzen da **furgoneta** jakin batzuekin. Kontua da, trafikoko araudiaren arabera, ordenantza onuradun gisa jaso ez diren kategorietan daudela sailkatuta ibilgailu horiek, eta horretan oinarritzen da bazterketa. **Bilboko Udala** emandako arrazoiak ikusita, Arartekoaren iritziz, ibilgailu horiek bazterzea ez dago justifikatuta. Hori dela eta, Arartekoak gomendioa eman dio udalari berriz azter dezala bere ordenantza eta aipatutako araubidea zabal dezala, irizpide orokor batzuk (zerbitzuaren onuradunak diren ibilgailuen zehaztapenaren oinarri direnak), baita araubide horren xedea ere, betetzen dituzten ibilgailu guztiak barnean hartzeko ([Arartekoaren 2016ko martxoaren 8ko Ebazpena](#)).

Antzeko gomendioa egin dio Arartekoak Bilboko Udalari: ordenantza bera azter dezala, **enpresako ibilgailua** esleituta duten eta aldi berean ibilgailu partikularra duten egoiliarrei araubideen artean bata ala bestea hautatzeko aukera emateko, horrela, egoiliarren araubideari onura atera diezaioten ([Arartekoaren 2016ko maiatzaren 17ko Ebazpena](#)). Kexa egoiliar batek jarri zuen, udalak, ibilgailu partikularra izateagatik, ukatu baitzion egoiliar txartela esleituta zuen enpresako ibilgailurako. Kexagileak adierazi zuenez, ez zuen eskatu egoiliar txartela ibilgailu partikularrean jartzeko, horretarako eskubidea izan arren, behar ez zuelako; izan ere, ibilgailua garajea aparkatzen eta gordetzen zuen. Hala ere, enpresako ibilgailua bide publikoan utzi behar izaten zuenez, egoiliar txartela eskuratu nahi izan zuen.

2016an, berriz ere, zalantza jarri da aipatutako ordenantzak ezartzen dituen baldintza: **pertsona desgaituak** ibilgailua gidatu behar izatea, desgaitasunen bat duten pertsonen ibilgailuak salbuespeneko araubidera bildu ahal izateko (36. eta 37.1. artikulua). Erakunde honek bi aldiz eman zuen bere iritzia gai horren inguruan, hain zuzen, Bilboko Udalari egindako gomendioetan, aipatutako araubidea hedatzeko eta ezinduentzako aparkaleku txartel bakarraren titularrak barnean hartzeko ([Arartekoaren 2014ko urriaren 30eko Ebazpena](#) eta [urriaren 29ko 24/2004 Gomendioa](#)). Gomendioak ez ziren onartu. Hala ere, aurten gaiarekin zerikusia duen kexa bat jaso dugunez, egokia iruditu zaigu kontua berriro planteatzea, udalak horren inguruan berriz hausnar dezan. Arartekoaren iritziz, aurten onetsi den [martxoaren 22ko 50/2016 Dekretuak](#), desgaitasuna duten pertsonentza-

ko aparkatze-txartela arautzen duenak, sendotu egiten ditu gomendioen oinarri gisa erabilitako argudioak. Udalak, hala ere, oraindik ez du onartu erakunde honen irizpidea.

Era berean, aurten jasotako kexen artean, **trafiko-istripu bati buruzko polizia txostenaren edukia** zalantza jarri zuen kexa nabarmendu behar da. Kexa horretan adierazitakoaren arabera, instruktore taldeak istripuaren balizko kausari buruzko hipotesi bat egiteko oinarri hartu zituen egitateak ez zetozen bat benetan gertatu zenarekin, eta gainera, ibilgailuek jasandako kalteak eta istripuaren balizko bilakaera, txostenean grafikoaren bidez adierazi zena, ez ziren bateragarriak hipotesi horrekin. Arartekoak askotan azpimarratu du poliziaren dokumentuak eta erregistroak ahalik eta arreta handienarekin bete behar direla, eta ahalik eta fideltasun eta zehaztasun handienaz islatu behar dituztela jardueraren inguruko xehetasunak. Erakunde honek adierazi du, era berean, polizia-txostena egin duten udaltzainek trafiko-istripua ikusi ez badute, idatziz jaso behar dela udaltzainek ez dutela istripua ikusi, istripua gertatzeko arrazoiaren gainean ezarritako hipotesia behar beste justifikatu behar dela, hipotesi bat dela adierazi behar dela, udaltzainek hipotesia egiteko kontuan hartu dituzten elementuak zehaztu behar direla eta elementu horietatik egin den balorazioa iristeko arrazoiak azaldu behar direla. Arartekoaren iritziz, funtsezkoa da txostenek goian adierazitako zehaztapenak jasotzea, bai eragindakoei, bai txostenaren hartzaile izan daitezkeen beste pertsona batzuek zehatz jakin dezaten zer gertatu den. Era berean, funtsezkoa da istripuaren ikerketatik abiatuta udaltzainek egin duten hipotesiaren arrazoiak ere azaltzea txostenetan. Administrazioak kontuan hartu behar du eginkizun horretan ibilgailuen aseguru-etxeek eta organo judizialek beraiek dokumentu horiei ematen dieten garrantzia, balizko erantzukizunen froga gisa erabiltzen dituztelako. Horren ildoan, Arartekoak gomendio bat egin dio aurten Gasteizko Udaltzaingoari, trafiko-istripu bati buruzko txostena berrikus dezala, txostenaren zuzentasunari buruz planteatutako zalantza guztiak argitu ditzala eta, hala badagokio, agiri horren edukia berrikuspenaren emaitzari egokitu diezaiola ([Arartekoaren 2016ko ekainaren 17ko Ebazpena](#)). Gasteizko Udalak gomendioaren zati bat baino ez du bete. Izan ere, berrikusi egin du txostena, baina ez du edukia egokitu berrikuspenaren ondorioen arabera eta gomendioan emandako jarraibideen arabera.

Gainerakoan, 2016an izapidetu ditugun hainbat kexa, aurreko urteetan bezala, **zigortzeko araubideari** buruzkoak izan dira, eta prozedurarekin zerikusia duten arazoak aipatu dituzte gehienbat. Kontu horren inguruan gai errepikatuak agertu dira, hala nola **jakinarazpenak** egiteko modua eta arau-hausteen **froga**, baita beste gai batzuk ere, adibidez, zehapena eragin duten egitateak eta bete ez den agindua, zigorra ezartzeko erabilitakoa, bat ez etortzea. Azken hori eta benetan zigortu zen arau-haustearen frogari buruzko kontua **Bilboko Udalari** egindako gomendioan aztertu dira, zigor bat efekturik gabe utz dezan ([Arartekoaren 2016ko uztailaren 7ko Ebazpena](#)).

Eragindako administrazioek euren jarduera zuzendu dute aurten izapidetu ditugun eta jokaera ezegokiren bat jaso duten kexa batzuetan. Adibidez, **Erandioko Udalak** onartu du Arartekoaren gomendioa, neurri egokiak har ditzala kale

batean ezarritako oinezkoentzako araubidea, oinezkoentzako kale horrekin elkartzen den beste kale bateko espaloian aparkatzeko eta salgaien deskarga egiteko debekua, eta gune bietako bide-segurtasuna bermatzeko (**Arartekoaren 2016ko otsailaren 22ko Ebazpena**).

3. Arauzko testuingurua

2016an, honako hauek jarri dira indarrean: **Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina**, urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu dena; eta **uztailaren 9ko 17/2015 Legea**, Babes Zibilaren Sistema Nazionalarena.

Era berean, **abenduaren 23ko 10/2015 Legea**, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena, atera da aurten.

Beste arau batzuk ere onartu dira 2016an. Horien artean, aipatzekoak dira **apirilaren 21eko 5/2016 Legea**, Larrialdiak Kudeatzeko Legea aldatzekoa onartu duena; **uztailaren 27ko 120/2016 Dekretua**, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokora onesten duena; eta **martxoaren 22ko 50/2016 Dekretua**, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartela arautzen duena.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

4.1. Ofiziozko espedienteak

2016an izapidetu ditugun ofiziozko jardunbideak atxiloketa zentroen egoera aztertzeari zuzenduta egon dira. Horretaz gain, atxiloketari buruz eta poliziaren jardueretako berme sistemari buruz Arartekoak egindako gomendioak betetzen ote diren aztertu dugu. Hurrengo 4.4. idatz zatian, aipatu jardunbideen laburpena egingo dugu.

Halaber, aipatu behar da ofiziozko jarduera bat, Eusko Jaurilaritzako Segurtasun Sailak ertzain-etxe batean gertatutakoa –atxilotu baten heriotza– argitzeko abian jarri zuen barne ikerketaren jarraipena egitea xede duena.

4.2. Txosten berezien segimendua

Atxiloketa zentroetara egindako bisitaldiek eta kexak izapidetu bitartean bildutako informazioak eremu horri lotutako **Kalabozoak, Ertzaintzaren eta Udalen atxiloketa egoitzak (1991)** txosten bereziaren jarraipena egitea ahalbidetu digute.

Erakunde honen irizpena, txostenean jasotakoa betetzeari buruz, 4.4. atalean ageri da laburtuta.

4.3. Gomendio orokorren segimendua

Aurten Arartekoak izapidetu dituen kexek, ofiziozko jarduerak eta atxiloketa zentroetara egindako ikuskapen-bisitaldiek **urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorraren** jarraipena egitea ahalbidetu digute. Gomendio horretan, Arartekoak bere ibilbidearen hasieratik segurtasun arloan formulatu dituen gomendio gehienak bildu dira.

Polizia jardueren **barne ikerketetan** gabezia handiak antzematen jarraitzen dugu (II.1.1. idatz-zatia). Ikerketaren urritasuna eta ikerketa eza dira oraindik ere irauten duten arazoetako batzuk. Gainera, eremu horretan jarduera protokolo argiak eta zehatzak ezarri gabe jarraitzen dutela egiaztatuta da.

Oraindik ez da behar bezala betetzen polizia kideen identifikazioari buruz gomendia: polizia funtzionarioek **polizia uniformean identifikatuko dituen zenbakia** edo erreferentzia erakuts dezaten (V. atala). Kasu batzuetan gomendia ez da betetzen uniformeak identifikaziorik ez delako, horixe da, adibidez, Arartekoak aurten bisitatu dituen Zornotzako eta Portugaleteko udaltzainen kasua. Besteetan, aldiz, eramaten den identifikazioa ez da nahikoa, Ertzaintzan, oro har, gertatzen den bezala. Arartekoak errepikatzen jarraitu behar du zenbakia inolako zalantzarik eragin gabe egon behar dela ikusgai, herritarrek polizia-agenteekin harremanak normalean izaten dituzten distantziatik.

Halaber, berriz atzeman ditugu gomendioak betetzen ez dituzten egoerak, **prebentzio eta kontrol mekanismoak** jartzeari dagokionez. Aurreko urteetan bezala, aurten, honako egoera hauetan atzeman ditugu gomendioak betetzeko arazoak: barne ikerketak; indarra erabiltzea eta horren barne kontrola; argiketen eta administrazio-salaketen edukia, eragin dituzten egitateak islatzeko moduari dagokionez; eta **atxiloketen** kontrola (II.1.1, II.2.1 eta II.2.3 atalak, baita II.2.2 atala ere, erakunde honen iritziz, atxiloketa gertatzen den guztietan aplikatu daitekeena).

Atxiloketa zentroetara egindako bisitaldiek, modu berean, aipatu gomendio orokorraren III. atalean eta **“Miaketa personalaren dilijentzia poliziaren bulegoetan”** Gomendio Orokorrean (2001eko ohiko txostena) formulatu genituen irizpideen jarraipena egitea ahalbidetu digute. 4.4. idatz zatian laburtuta jaso dugu segimendu horren emaitza.

Trafikoari dagokion azpiarloan jarraitu dugu egiaztatzen zigorretako prozeduretan jasotzen den arrazoiketak ez dituela beti betetzen **“Trafikoa, ibilgailu motordunen zirkulazioa eta bide segurtasuna: aurrez taxututako ereduaren erabilera zehapen prozedurak tramitatzean. Zenbait arazo defentsarako eskubidearen inguruan”** gomendioan (2003ko ohiko txostena) adierazi genituen eskakizunak.

4.4. Ikuskapen bisitak

2016an Ertzaintzaren Getxoko eta Udaltzaingoaren Portugaleteko atxiloketa-zentroak bisitatu ditugu, baita Zornotzako Udaltzaingoaren polizia-etxea ere. Azken zentro horrek ziegarik ez duenez, bertako udaltzainek gauzatzen dituzten

atxiloketak Ertzaintzak bideratzen ditu, eta berak zaintzen ditu atxilotuak Ertzaintzako bulegoetan.

Ertzaintzaren eta Portugaleteko Udaltzaingoaren atxiloketa-zentroetako **instalazioak**, oro har, egokiak dira esleituta duten eginkizuna betetzeko. Bisitaldiaren egunean, bi zentroetako garbitasun eta mantentze egoera onargarriak ziren. Hala ere, ez batak ez besteak ez dute **adin txikikoen zaintzarako berariatzko gelarik**, [urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak](#) (17.3 artikuluan) eskatu bezala. Erakunde honek bisitatu zituen Ertzaintzaren atxiloketa zentro guztietan gertatzen da.

Ertzaintzaren zentroak atxiloketaren **bideo-grabaketa sistema** bat du, funtsean, [2006ko ohiko txostenean](#) (I. atala, 7.1. idatz zatia) aztertu genuen ereduari dagokiona. Gure ikuspuntuaren arabera, aztertutako sistemak ez ditu betetzen mekanismo horrek eraginkorra izateko eduki beharko litzukeen baldintza guztiak, urriaren 6ko 81/1999 Gomendioan adierazi genuen moduan ([1999ko ohiko txostena](#), II. atala, 7.2. idatz zatia). Hala ere, beste zentro batzuekin alderatuta, kamerek grabatzen duten eremutik kanpo geratzen da polizia-ibilgai-luak polizia-etxearen barrutian egiten duen ibilbidearen tarte bat. Gainera, erreserbatutako elkarrizketaren grabaketa jasotzen du irudietan. Horrek ez ditu bermatzen jarduera horren berezko ezaugarriak diren pribatutasuna eta isilpekotasuna. Zentroak ez ditu txertatu, oro har, atxiloketen bideo-grabaketari buruzko proposamen berriak, “**Inkomunikatutako atxiloketaren eremuko berme sistemari buruzko azterlana eta hobekuntza proposamenak**” ikerketan (2010eko ohiko txostena) eta [urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean](#) (III.8. idatz zatia) jaso ditugunak. Era berean, ez du bermatzen grabatutako jardueretatik erator litezkeen balizko administrazio eta zigor erantzukizunen preskripzioarako gehieneko denbora-mugan zehar **gordetzea grabatutako materiala**, eta, xede horietarako, ez dituzte kontuan hartzen giza eskubideak bermatzeko erakundeek (Arartekoa bezalakoek) esku hartzeko duten epea. Babesten ditugun irizpideetatik urruntzen da hori, eta mekanismo honen izaera bermatzailea mugatzen du.

Portugaleteko Udaltzaingoaren zentroko ziegak dauden guztiak, aldiz, ez dago bideo-grabaketa sistemarik.

Portugaleteko Udaltzaingoaren **atxiloketaren liburu** biak (adingabeena zein adinez nagusia) eskuz betetzen dira. Orri bakoitza atxiloketa bati egokitu arren, liburuak urtekoak ez direnez, ezin da edozein unetan kontsulta bakar baten bidez urtean zehar egindako atxiloketen kopurua ezagutu, erakunde honek gomendatzen duen bezala. Era berean, ez dira atxiloketaren jarduera nagusiak erregistratzen, nahiz eta erregistratuta ez daudenetako batzuk atxiloketarekin lotutako beste erregistro eta dokumentu batzuetan ageri diren.

Zornotzako Udaltzaingoak, aldiz, ez du berariatzko libururik atxiloketak erregistratzeko, atxiloketetan burutzen diren jardueretako batzuk beste erregistro batzuetan jasota geratzen diren arren. Polizia-kidego horrek ez du adingabeen atxiloketei buruzko libururik, [uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuak](#), adingabeen erantzukizun penala arautzen duen [urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak](#) onartzen duenak, hala eskatu arren (3.5 artikulua).

Erakunde honek bisitatu zituen Ertzaintzaren zentroan eta Portugaleteko Udaltzaingoaren zentroan burututako atxiloketak, oro har, behar bezala zeuden bideratuta, horien erregistroak behar bezala beteta eta dilijentziak arrazoizko denboran eginda. Hala ere, zenbait disfuntzio hauteman genituen. Ondorioz, gogorarazi beharra daukagu ahalik eta zehaztasun eta xehetasun handienaz islatu behar dela nola gertatu den atxiloketa, bat ez etortzeak saihestu behar direla eta eremu horretan gerta daitezkeen balizko hutsegiteak ezagutzea eta zuzentzea ahalbidetuko duten neurriak hartu behar direla (urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean III.6. idatz zatia).

Ertzaintzaren zentroan begiratu genituen **eskubideei buruzko informazio aktek**, oro har, ez zituzten betetzen [Prozedura Kriminalaren Legearen](#) 520. artikuluko eskakizunak, izan ere, kasu batean izan ezik, atxiloketa arrazoitzeke egitateen kalifikazio juridikoaz eta ez egitatez informatzen zuten. Erakunde honek urtero ohartarazten du Ertzaintzaren zentroetan errepikatzen den praktika horren inguruan, hala ere, zuzendu gabe jarraitzen dute. Aktak egiteko Ertzaintzak erabiltzen duen eredu oraindik ez dira aplikatu [urriaren 5eko 13/2015 Lege Organikoak](#) jasotako eskakizunak, doako laguntza juridikoa eskatzeko prozedurari eta berau eskuratzeko baldintzei buruz daukan informazioari dagokionez, eta, egokia den kasuetan, lege-laguntzarako eskubideari uko egiteari dagokionez. Ertzaintzaren zentroan, atxilotuari ez zaio uzten akta eskura izaten atxiloketak irau bitartean, aipatu lege organikoak eskatzen duen bezala; izan ere, dokumentua kentzen zaio behin eskubideen berri ematen zaionean, eta ez zaio berriro ematen atxiloketa amaitzen den arte. Portugaleteko Udaltzaingoaren zentroan, berriz, aktak atxilotuaren eskuetan egon daitezke.

Bisitatuak hiru zentroetako batean ere ez zaio atxilotuari ematen, atxiloketaren unean bertan, momentu horretan bere eskubideei buruz ahoz ematen zaion informazioa jasotzen duen dokumenturik. Era berean, Ertzaintzaren zentroan eta Portugaleteko Udaltzaingoaren zentroan, atxilotuari ez zaio **lege-laguntza** ematen atxiloketaren lehen unetik, Arartekoa urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean adierazitako moduan (III.1. eta III.2. idatz zatia).

Ertzaintzaren zentroan, egin den **gorputz-miaketa** mota baino ez da idatziz jasotzen, modu orokorrean, zehazki zer izan den zehaztu gabe eta modu horretara egiteko arrazoiak azaldu gabe, miaketa biluzik egiten denean salbu. Portugaleteko Udaltzaingoaren kasuan, ez da jasota geratzen miaketa mota, ez nola egin den, ezta modu batera edo bestera egiteko arrazoia ere. Zornotzako Udaltzaingoak ere ez du jasota uzten atxilotzeko unean egiten den gorputz-miaketari buruzko informaziorik. Hiru zentroetako jokatzeko moduak urruntzen dira gure gomendioetatik (urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean III.5. idatz zatia eta “**Miaketa pertsonalaren dilijentzia poliziaren bulegoetan**” izenburuko dokumentua). Bisitaldian, era berean, [martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoak](#), herritarren segurtasuna babesteko, aplikatzeko moduaren jarraipena egin dugu, **poliziaren bulegoetatik kanpo egindako identifikazioei eta gorputz-miaketei** dagokienez (16. eta 20. artikulua). Hiru zentroetan aztertu ziren identifikazioei dagokienez, burututako jarduerak ez ziren erregistro-liburuan jasota geratu, aipatu lege organikoak

hala eskatzen duen arren. Zentroetako batzuetan, ez ziren jasota uzten jardueren arrazoiak, inguruabarrak eta iraupea, legeak hala agindu arren. Portugaletako Udaltzaingoaren kasuan, aipatutako erregistroetan ez zeuden jasota udaltzaingoaren bulegoetatik kanpo egindako identifikazioaren ordua eta tokia, aipatutako pertsonak izapidea egiteko udaltzaingoaren bulegoetara eramateko zein identifikazioa egiteko arrazoiak, ezta esku hartu zuten agenteak ere. Erakunde honen iritziz, datu horiek guztiak jaso beharko liriteke, beste erregistro batzuetan baldin badaude ere. Horretaz gain, Udaltzaingoaren zentro bietan, ez ziren betetzen martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoak ezarritako betebeharrak: hilean behin, egindako identifikazioen laburpen bat Fiskaltzara bidaltzea, bakoitzean erabilitako denbora adierazita. Eman-dako informazioarekin bat, Zornotzako Udaltzaingoak uko egiten dio identifikatutako pertsonari identifikazioaren egiaztagiria emateko beharrari, eta ez du aparteko erregistrorik adingabeen identifikazioak jasotzeko.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

- 5.1.** 2016an **kexa gehien jaso dituzten administrazioak Eusko Jauriaritzako Segurtasun Saila** eta **Bilboko Udala** izan dira, eta **Donostiako** eta **Gasteizko** Udalak daude horien atzetik. **Administrazioek euren jarduera zuzendu dute** jokaera ezegokiren bat egon den zenbait kexatan. Oro har, Arartekoarekin **elkarlanean aritzeko duten betebeharrak** modu onargarrian bete dute. Hala ere, erakunde honek jarraitzen du zereginak egoki betetzeko oztupoak izaten, eta horrek kaltetzen ditu ordenamendu juridikoak euren eskubideak babesteko eskura jarri dizkien mekanismoak erabiliz Arartekora jotzen duten pertsonen eskubideak. Arartekoak egindako galderei ez erantzutea, informazioaren bidalketa atzeratzea eta eskatutako agiriak ez bidaltzea arazo ugariak izaten dira, aurreko urteetan bezala.
- 5.2.** Aurten izapidetu ditugun kexek **polizia-funtzioaren** erabilerari buruzko kontu errepikatuak azaldu dituzte berriz ere; hala nola, ustez ezegokiak diren jardueren barne ikerketa, indarraren erabilera eta horren barne kontrola, atestatuaren eta administrazio salaketaren kontrola, horiek arrazoitzen dituzten egitatei dagokienez. Horretaz gain, atxiloketekin, bide publikoan identifikazioekin eta gaixotasun mentala duten pertsonekin burrututako jarduerekin zerikusia izan dute aurten jasotako kexa batzuek. **Arartekoaren 2016ko abenduaren 20ko Ebazpenean** kontu horietako batzuk aztertu dira.
- 5.3.** Oro har, **atxiloketei** dagokienez, ez dira ezarri prebentzio eta ondorengo kontrol mekanismoak, erakunde honek gomendatu dituenak, lege urraketa txiki batengatik askatasunerako funtsezko eskubidea arrazoirik gabe mugatzea, baita askatasuna

kentzea bezalako zigor larria neurritz gain jartzea ere saihesteko, zigor-arloko jurisdikzioak atxiloztea eragiten duten delitutzat jotzen ez dituen egitateen kasuetan, atxilotuaren erantzukizuna frogatu ezin denean, eta agenteek baloratu balituzte, atxiloketa burutuko ez zuketenean (**urriaren 28ko 7/2011 Gomen-dio Orokorra**, II.2.2. idatz zatia, atxiloketa gertatzen den guztietan aplikatu daitekeena).

- 5.4.** Oraindik ez dira ezarri **indarraren** erabilera eta **atestatuen eta administrazio salaketan** edukia gainbegiratzeko Arartekoak gomendatu dituen mekanismoak. Oro har, erakunde honek **poliziarren praktikak gainbegiratzeko** gomendatu dituen **tresna** gehienek ere (urriaren 28ko 7/2011 Gomen-dio Orokorren II. atala) ezarri gabe jarraitzen dute. **Ikerketaren** kasu zehatzetan, aurreko urteetan hauteman ditugun gabeziak hor jarraitzen dute. Ikerketaren urritasuna eta ikerketarik eza dira oraindik ere antzeman diren arazoetako batzuk. Gainera, eremu horretan jarduera protokolo argiak eta zehatzak ezarri gabe jarraitzen dutela egiaztatu da.
- 5.5.** Arartekoak egiaztatu du oraindik ez dela betetzen formulatu dugun gomendioa, polizia funtzionarioek **polizia uniformearen identifikazio-zenbakia** edo erreferentzia eraman dezatela (urriaren 28ko 7/2011 Gomen-dio Orokorren V. atala). Berritoki esan behar dugu zenbakia inolako zalantzarik sortu gabe ikusi behar dela, herritarrek agenteekin harremanak normalean izaten dituzten distantziatik.
- 5.6.** Ertzaintzaren Getxoko **atxiloketa zentroa** eta Portugaletako Udaltzaingoaren zentroa, erakunde honek 2016an bisitatu dituena, oro har egokiak dira bere eginkizunerako, nahiz eta ez dituen **adin txiki-koentzako berariazko gelarik**.

Arartekoak aurten bisitatu duen Zornotzako Udaltzaingoaren bulegoari dagokionez, udaltzainek gauzatzen dituzten atxiloketak Ertzaintzak bideratzen ditu, eta lehenengoak ziegari ez duenez, Ertzaintzak zaintzen ditu atxilotuak Ertzaintzako bulegoetan.

Ertzaintzaren zentroak atxiloketen bideo-grabaketa sistema du, eraginkor izateko eduki behar dituen baldintza guztiak betetzen ez dituen arren. Ondorioz, sistemaren izaera bermatzailea mugatzen du horrek. Portugaletako Udaltzaingoak, aldiz, ez du halako sistemarik ziegari dauden tokian.

Zornotzako Udaltzaingoak ez du aparteko **libururik atxilotutako adingabeak erregistratzeko**.

Bisitaldietan kontsultatu genituen **atxiloketak**, oro har, behar bezala zeuden bideratuta, horien erregistroak behar bezala beteta eta jarduerak arrazoizko denboran eginda, disfuntzio batzuk antzeman diren arren. Ertzaintzaren zentroan, ez zaio atxilotuari aktak edukitzean uzten atxiloketan zehar, **urriaren 5eko 13/2015 Lege Organikoak** hala ezarri duen arren.

Gainera, **gorputz-miaketa** egiteko eta jasota uzteko modua, zentro bietan, zein Zornotzako Udaltzaingoaren zentroan, ez dator bat erakunde honen gomendioekin. Bisitatutako hiru zentroetako batean ere ez zaio atxilotuari ematen, atxilotetaren uanean bertan, momentu horretan bere **eskubideei buruz** ahoz ematen zaion **informazioa** jasotzen duen dokumenturik, Arartekoak urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean adierazitako moduan (III.2. atala). Atxiloteta zentro bietan **lege-laguntza** ez da hasieratik ematen, gomendioan aipatutako moduan (III.1. atala).

Hiru zentroetan aztertu ziren **identifikazioei** dago-kienez, burututako jarduerak ez ziren erregistro-liburuan jasota geratu, **martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoak**, Herritarren Segurtasuna Babestekoak, hala eskatzen duen arren. Zentroetako batzuetan, ez ziren jasota uzten jardueren arrazoiak, inguruabarrak eta iraupena, legeak hala agindu arren. Udaltzaingoaren zentro bietan, ez ziren betetzen aipatutako legeak ezarritako betebeharrak: hilean behin, Udaltzaingoaren bulegoetan egindako identifikazioen laburpen bat Fiskaltzara bidaltzea, bakoitzean erabilitako denbora adierazita.

- 5.7.** **Trafikoa eta Aparkalekua arautzen dituen Ordenantzak (TAO/OTA)** ezarritako **Bilboko TAO eremuko egoiliarren araubidetik zenbait ibilgailu baztertu** dira, eta hori, iaz bezala, kexa jartzeko arrazoietako bat izan da 2016an. Arartekoak gomendioa eman dio udalari araubidean sar ditzala irizpide orokor batzuk (zerbitzuaren onuradunak diren ibilgailuen zehaztapenaren oinarri direnak) betetzen dituzten eta, erabilera partikularrerako ibilgailuak direnez, erabilera irizpide bereberri erantzuten dieten ibilgailu guztiak, besteak beste, furgoneta jakin batzuk (**Arartekoaren 2016ko martxoaren 8ko Ebazpena**). Antzeko gomendioa egin dio Arartekoak **Bilboko Udalari**: aipatutako ordenantza azter dezala, **enpresako ibilgailua** esleituta duten eta aldi berean ibilgailu partikularra duten egoiliarrei araubideen artean bata ala bestea hautatzeko aukera emateko, horrela, egoiliarren araubideari onura atera diezaioten (**Arartekoaren 2016ko maiatzaren 17ko Ebazpena**). Gomendio horiek ez dira onartu.

2016an, berriz ere, zalantzan jarri da aipatutako ordenantzak ezartzen dituen baldintza: **pertsona**

desgaituak ibilgailua gidatu behar izatea, desgaitasunen bat duten pertsonen ibilgailuak salbuespenezko araubidera bildu ahal izateko. Arartekoak bi gomendio eman zituen gai horren inguruan, hain zuzen, aipatutako araubidea hedatzeko eta ezinduentzako aparkaleku txartel bakarraren titularrak barnean hartzeko gomendatu zuen (**Arartekoaren 2014ko urriaren 30eko Ebazpena** eta **urriaren 29ko 24/2004 Gomendioa**). Bilboko Udalak ez zituen gomendio horiek onartu. Udalak ez du berriz tentsatu bere erabakia, erakunde honek hala eskatu arren. Izan ere, aurten gaiarekin loturiko kexa bat jaso dugu eta desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartela arautzen duen **martxoaren 22ko 50/2016 Dekretua** onartu da, eta horiek hartu ditugu oinarri, eskaera egiteko.

- 5.8.** **Trafiko-istripuei buruzko polizia-txostenetan** idatziz jaso behar da polizia-agenteei istripua ikusi duten ala ez. Era berean, istripua gertatzeko arrazoiaren gainean ezarritako hipotesia behar beste justifikatu behar da, hipotesi bat dela adierazita, agenteek hipotesia egiteko orduan kontuan hartu dituzten elementuak zehaztu behar dira, eta elementu horietatik egin den baloraziora iristeko arrazoiak azaldu, bai eragindakoek, bai txostenaren hartzaile izan daitezkeen beste pertsona batzuek zehatz jakin dezaten zer gertatu den. Era berean, funtsezkoa da istripuaren ikerketatik abiatuta udaltzainek egin duten hipotesiaren arrazoiak ere azaltzea. Erakunde honek aurten gainbegiratu dituen txostenek ez dituzte eskakizun horiek betetzen.
- 5.9.** **Erandioko Udalak** onartu du Arartekoaren gomendioa, neurri egokiak har ditzala kale batean ezarritako oinezkoentzako araubidea, oinezkoentzako kale horrekin elkartzen den beste kale bateko espaloian aparkatzeko eta salgaien deskarga egiteko debekua, eta gune bietako bide-segurtasuna bermatzeko (**Arartekoaren 2016ko otsailaren 22ko Ebazpena**).
- 5.10.** Aurreko urteetan bezala, **trafikoaren** arloan, **zigortzeko araubidearekin** zerikusia duten kexa batzuk jaso dira 2016an, honako gai hauek salatuzko: berriro ere, **jakinarazpenak** egiteko modua eta arau-hausteen **froga**, baita beste gai batzuk ere, adibidez, zehapena eragin duten egitateak eta bete ez den agindua –zigorra ezartzeko erabilitakoa– bat ez etortzea, edo formula estandarizatuak erabiltzea.

II. ATALA

14

**GARDENTASUNA, HERRITARREN
PARTAIDETZA, GOBERNU ONA
ETA DATUAK BABESTEIA**

Aurrekariak

Arloko jardueraren balantzea egin aurretik, arloaren eraketan eta izendapenean aldaketa nabarmen bat egin dela jakinarazi behar da; izan ere, 2016ko urtarrilean, Arartekoak erabaki zuen bere arreta-xedea zabaltzea, beren-beregi kudeatzeko jasotzen ari ziren kexa batzuen orientazioa eta Arartekoaren jarduketak garatzeko, informazioaren eta ezagutzaren teknologien eta datuen babesaren aurreko arloaren izendapenaz harago doazenak.

Erabaki hori hartu zen kontuan hartuta, 2015eko abenduaren 9an, autonomia erkidegoan indarrean zegoela Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea, bere bi alderdietan: publizitate aktiboa eta pasiboa herri-administrazioek duten informazioa eskuratuz. Hala, gai hori jorratzen dugu zehaztasun handiagoz kapitulu honetako 3. atalean.

Era berean, arloaren birkonfigurazio hau legeriari, doktrinari eta gizarteari dagokienez finkatzen ari diren joeren ildotik doa. Joera horien arabera, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea kalitatezko gobernantzaren funtsezko parte bat dira, demokrazia aurreratuko eta gobernu irekiko printzipioetan oinarrituz eta espazio publikoaren eraikuntzara bideratuz.

Halaber, lan-esparru honen helburu bat da, besteak beste, herritarrek datuen babesarekin eta administrazio elektronikotik eratorritako eskubideekin lotuta dauzkaten eskubideen garrantzia azpimarratzea. Era berean, eskubide horiek zabaltzean eginkizun proaktiboa eduki nahi du, horien erabilera eta babesak berrikuntza-potentzial handiagoa duten herritarrek sustatzen laguntzen dutelako uste osoa du eta.

1. Arloa kopurutan

2016an, arlo honetan 7 kexa jaso ziren eta horiek ekitaldi honetan erakundeak jasotako kexa guztien % 0,32 dira.

Kexa horiek honako administrazio hauei dagozkie:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritz)5
- Tokiko administrazioa1

Datuen babesari dagokionez, Euskal administrazioek datuak babesteko araudia betetzen dutela kontrolatzeko erakunde espezifiko bat dago, hau da, –la Datuen Babeserako Euskal Agentzia–. Hori dela-eta, gai horren inguruko kexa gehienak aurkezten dira erakunde horren aurrean. Hala ere, geroago aztertuko den bezala, herritarrek etengabe kezkatzen dira

bere datu pertsonalak Interneten mantentzeagatik eta kezka hori areagotzen ari da. Horren ondorioz, zenbait herritarrek Arartekoarengana jo dute, egoera horri aurre egiteko neurriak ezar daitezzen eskatzeko.

Informazioaren eta ezagutzaren teknologiek lotutako eskubideak gauzatzeari dagokionez, pixkanaka, ikusten ari da herritarrek gehiago dakitela administrazio elektronikoari dagokionez titular diren eskubideen inguruan, baita eskubideak gauzatzeko jo beharreko organoen inguruan ere. Hori dela-eta, joan den urtean, zenbait erreklamazio aurkeztu ziren Arartekoaren aurrean, funtsean, administrazio elektronikora iristeko eskubideei buruzkoak.

Nolanahi ere, oraindik distantzia handia dago baliabide teknologikoen erabilerean eta horri atxikitako eskubideen erreklamazioaren artean. Beraz, herritarrek administrazioarekin dituzten harremanetan IKT erabiltzea sustatzen duten ekimenak zabaltzeak funtsezkoa izaten jarraitzen du, baita eremu espezifiko horretan dituzten eskubideen kontzientzia eta hedapena bultzatzen dituztenak ere. Are funtsezkoagoa da 2015ean **Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea** eta **Sektore Publiko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea onetsi ostean; izan ere, lege horiek izapide elektronikoen aldeko apustu irmoa egin dute.**

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Euskal Herriko Agintaritz Aldizkariako iragarki batean datu pertsonalak ezeztatzea

Pertsona batek Arartekora jo zuen, Lanbideko zuzendari nagusiak EHAA-n argitaratutako iragarki batean bere datu pertsonalak agertzen zirelako, eta, bere ustez, argitalpen horrek bere eskubideei kalte egiten zirelako. Izan ere, Interneteko bilatzaileetan bere izen-abizenak edo NAN zenbakia sartzean, informazio hori agertzen zen emaitzatzat. Gainera, kexu zen argitalpen horrek irauten zuen denboragatik, berari ondorio kaltegarriak sor liezazkiokeelako, bada, informazio horretatik, egoera ekonomiko jakin bat zuela ondoriozta zitekeen.

Espedientean bildu eta aztertutako informazioa abiapuntu hartuta, Arartekoak ondorio hau atera du: ezarri beharreko araudiaren arabera, ez dela legez kanpoko ezer ikusten Lanbidek edo Euskal Herriko Agintaritz Aldizkariak erabili duten prozeduran kexagileari administrazio-ekintza bat iragarki publiko baten bidez jakinarazteko, burutzerik izan ez zen jakinarazpen pertsonala egin beharrean. Hala ere, Arartekoak zenbait jarduera iradoki ditu, informazio hori Interneten mantentzeak ekar litzakeen kalte pertsonalak saihesteko.

Horretarako, Arartekoak [Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari](#) eta [Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari](#) iradoki die iragarki horretan agertzen diren datu pertsonalak ezeztatzeaz gain, beren web orrietan adieraz dezatela edo nork zer eskubide dituen bere datu pertsonalak ezeztatzeko, eta balizko neurri teknikoak aztertu eta ezar ditzatela, aldizkari digitaletan argitaratutako datu pertsonaletarako sarbidea mugatzeko, bai denborari dagokionez, bai Interneteko bilatzaileei dagokionez.

2.2. Baimenik gabe ematea datu pertsonalak Alokabideren espediente batean

Pertsona batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, uste zuelako Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, zehazki, Etxebizitzako Sailburuordetzak administrazio horrekin zer ikusia ez zuen hirugarren pertsona bati eman zizkiola bere nebaren datu pertsonalak baimenik gabe. Datu horiek [Alokabide](#) kudeatutako etxebizitza baten balizko kopurua berriari buruzkoak ziren.

Prozedura burutzen zen bitartean, informazio hori nahi gabe eman zela egiaztatu zen eta sailak adierazi zuen zegozkion neurri zuzentzaileak hartu zituela. Horren ondorioz, ez zen aldatu administrazioaren jarduketaren kalifikazioa, hau da, okerra zela mantendu zen, baina espediente hau irekitzea eragin zuen kausa indargabetu zen. Beraz, Arartekoak espedientea itxi zuen. Hala ere, espedientea itxi baino lehen, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gogorarazi zion ukitu ahal izan ziren eskubide horiek oso garrantzitsuak direla. Halaber, sailaren kargura lan egiten duten pertsonen zuzendutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak garatzeko gomendatu zion, honelako egoerak berri ere gerta ez daitezela.

2.3. Durango Kirolak organismoak kirol-jardueraren ordainagiriak kobratzea

Kexagileak zalantzan jarri zuen [Durango Kirolak](#) organismoak burututako jarduketak; izan ere, organismo horrek 2016ko otsaileko eta martxoko kuotak ordaintzeko eskatu zion. Hala ere, bere ustez, ez zuen alta eman jardura horretan eta, gainera, alta hartutako datan, ezinezkoa zen otsaileko jarduerak egitea.

Arartekoak, 2017ko hasieran argitaratutako [ebazpenean](#) gomendatu dio Durangoko Udalarik 2016ko otsaileko ordainagiria ofizioski baliogabetzeko. Izan ere, ordaindu behar duen pertsonari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, kirol-jardura hori ezin zitzaion interesdunari eskaini aipatutako hilaletan.

Halaber, udalarik gomendatu dio Durango Kirolak organismoak kirol-jardueretan alta emateko diseinatutako izapide-tze-prozedura berrikusteko, baita ordainagiriak ordaintzeko prozedura ere, hobekuntzak egite aldera eta, horrela, za-

lantzarik gabe, erabiltzaileek egindako izapideak jasotzen direla bermatzeko.

2.4. Euskal administrazioen egoitza elektronikoa, webgune edo erregistroetara sartzeko arazoekin lotutako kexak

Erakunde honek zenbait kexa jaso ditu erakunde-webguneetako espazio horietara sartzeko arazo zehatzen inguruan ohartaraziz.

Zaila da arazo horien irismena eta kausak zeintzuk diren jakitea; izan ere, horietako batzuk ez ziren begi bistakoak kexa Arartekoarengana heldu zenean. Horrez gain, kontuan hartu behar da arazo horien kausak aldi baterako intzidentziak izan ahal zirela edo, besteak beste, nabigatzaileekin edo antibirusekin izandako arazoak. Hori guztia dela-eta, kasu horietan, kexa-espedienteak izapidetu baino lehen, egin ahal izan ditugun egiaztapen tekniko guztiak egin ditugu eta herritarrei informazioa eta aholkularitza eman zaizkie.

2.5. Beste arlo batzuetan kudeatutako kexak eta kontsultak bideratu bitartean, IKTen eta informazio publikoa eskuratzearen inguruko kontuak agertu dira, eta duten interesarengatik aipatuko ditugu:

Informazio publikoa eskuratzeari dagokionez:

Sopuertako Udala

Joan den urtean, [Sopuertako Udalaren](#) aurkako bi kexa jaso genituen. Bi espediente horietan azaltzen ziren udal horrek ukatutako informazioa eta dokumentazioa eskuratzeko eskaerak. Eskaera batean, zenbait ondasun komunalen inguruko informazioa eskatzen zen eta, bestean, baso-aprobetxamenduen egikaritzeko kontratazio-espedienteen ingurukoak.

Arartekoak emandako ebazpenetan, azpimarratzen da udalak eskatzaileek eskatutako informazioa ematea ukatzeko emandako motibazioa ez dela nahikoa [Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen](#) parametroen arabera. Izan ere, eskatzaileek ez dute eskaera arrazoitu behar eta ez dira administrazio-espediente bateko interesdunak izan behar eskatutako informazioaren merezidunak izateko. Hala, tokiko erakundeek horretarako emandako arrazoiak ez dira Gardentasunaren Legearen 14. eta 15. artikuluetan ezarritako mugen barruan sartzen. Era berean, Euskadiko Tokiko Erakundearen [apirilaren 7ko 2/2016 Legeak](#) informazio publikoa eskuratzeko kontuan hartu behar diren printzipioak jasotzen ditu eta hauxe azpimarratzen du: *“Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea -toki-botere publikoen eta erakunde horien arduradun publikoen kontu-ematearen kontrol demokratikorako beharrezko den aldetik-”*.

Hortaz, legezketasuna betetzeko eta udal antolakuntza araudiaren eskakizun berri hauek egokitzeko egin beharreko esfortzua ulertzen dugun arren, funtsezkoa da administrazioak erantzun egoki bat ematea. Hala, erantzun hori administrazio-jarduketaren beharrezko azterketaren barruan sartzen da. Hori dela-eta, Arartekoak Sopuertako Udalari gomendatu zion interesdunek [ondasun komunalen inguruko informazioa eskuratzeko](#) eta [zura atera duten enpresen inguruko informazioa eskuratzeko](#) espedienteetan eskatutako informazioa emateko. Bi gomendioak onartu dira.

Laudioko Udala

Pertsona batek Arartekoari jakinarazi zion [Laudioko Udalean](#) dauden hirigintza-kudeaketarekin lotutako dokumentu batzuk eskuratzeko ukatu diotela; izan ere, soilik eskatutako dokumentuetako bat eman diote eta gainerakoak ematea ukatu diote, tokiko erakunde horrek uste duelako dokumentu horien emakida ez dela sartzen dokumentu publikoak eskuratzeko eskubidearen barruan.

Udalak azaldutako arazoak desberdinak ziren: dokumentuak eskuragarri ez egotea administrazio-espediente batean; espediente bat egin behar izatea; eskaera orokor bat izatea edo zerga-garrantzia duten datuen isilpeko izaera. Kasu batean, informazio horren ukapena argudiatzen zen esanez espedienteetan datu pertsonalak egon litezkeela. Kontu zehatz horri dagokionez, Arartekoak gogorarazi zuen 19/2013 Legean aurreikusitako dokumentazio publikoa eskuratzeko mugaketak modu murriztailean hartu behar direla kontuan (bereziki babestutako datuak izan ezik) eta behar bezala arazoitu behar direla. Hala, administrazioari dagokio “behar beste arazoitutako haztaperen” bat egitea informazioa hedatzeko interes publikoaren eta datuek ukitutako pertsonen eskubideen artean.

Arartekoak, [2016ko azaroaren 15eko ebazpenean](#), [Laudioko Udalar](#)i gomendatu zion informazio publiko hori eskuratzeko ukapena berrikusteko; hala, ebazpen horretan jaso zuen prozeduraren deskribapen xehea, baita eskatzaileari eman ez zitzaion dokumentu bakoitzari dagozkion ondorioen legezko oinarria ere. Udalak gomendio hori onartu du.

Informazioaren eta Ezagutzaren Teknologiei dagokienez

Arabako Foru Aldundia

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga Arabako Lurralde Historikoan ordaintzen zuen zergadun batek adierazi zuen ez zegoela ados Arabako Foru Ogasunak burututako jarduketarekin; izan ere, errentaren autoaitorpena telematikoki aurkezteko aplikazio informatikoan Microsoft teknologia baino ez zen ezarri (Windows eta Explorer). Ukitutako pertsona horrek adierazi zuen aplikazioa horrela eratuta zegoenean ez zela bateragarria zergadunek erabilitako beste teknologia batzuekin, horiek doakoak edo ordainpekoak izan. Arartekoaren ustez, herritarrek baliabide telematikoen bidez herri-administrazioekin harremanetan jartzeko duten eskubideak

betebehar korrelatibo bat dakar horientzat; betebehar horren arabera, neutraltasun teknologikoko printzipioa eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien aurrerapenera egokitzeko printzipioa guztiz gauzatu ahal izatea eragozten edo zailtzen duten oztopo guztiak baztertu behar dira.

Hortaz, erakunde honek, herritarrak elektronikoki zerbitzu publikoetara iristeko [ekainaren 22ko 11/2007 Legearen](#) 4. artikuluan jasotako (kexa aurkeztu zenean indarrean zegoena) neutraltasuneko printzipio horretan oinarrituz, gomendio bat helarazi zion foru ogasunari [2016ko apirilaren 4ko ebazpenaren bidez](#). Hala, estandar irekien erabilera lehenesteko gomendatu zion, hau da, estandar publikoen erabilera; horiek doan eskuratu ahal dira edo sartzeko zailtasunik eragiten ez duen kostu baten truke. Horrez gain, horiek erabiltzeko eta aplikatzeko ez da jabetza intelektual edo industrialeko eskubidea ordaindu behar. Adierazi beharra dago foru aldundiak gomendio hori onartu duela.

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lanbide

Arartekoak, bertako langile batzuek [Lanbideko](#) zenbait bulegoetara egin dituzten bisiten txandaren ostean, egiaztatu zuen arazoak zeudela diru-sarrerak bermatzeko errenta kudeatzeko erabilitako tresna informatikoaren funtzionamenduari. Hori dela-eta, horren inguruko informazioa biltzeko espediente bat hasi zen. Erakunde honek egindako informazio-eskaerari erantzunez, batetik, Lanbidek jakinarazi zuen gaur egun sistema elikatzen duten datu-base desberdinak bateratzeko prozesu bat abian dagoela. Beraz, datu-base guztiak integratuta ez egotearen ondorioz sortutako arazoak laster konpontzea aurreikusi da. Bestalde, sistema informatikoari dagokionez, jakinarazten da lan egiten ari dela erabilitako programa osatzen duten hamabi azpisistemaren arteko elkarreragingarritasun arazoak konpontzeko. Ondorio gisa, jakinarazi da gaur egun tresna informatikoa egonkorra dela; hala ere, etengabe egiten dira hobekuntzak. Hain zuzen ere, Lanbidek erabilitako aplikazio informatikoen eta horien ondorio desegoki batzuen inguruko hausnarketa bat jaso da erakunde hau amaitzen ari den txosten-diagnostikoan.

Euskal Estatistika Erakundea-Eustat

Arartekoak pertsona batek bere amaren izenean aurkeztutako kexa bat izapidetu zuen; hala, kexa hori jarri zuen bere amari sortutako eragozpenengatik, bere adin aurreratua dela-eta, 2015eko Ingurumenari-Familiari buruzko Inkestarekin lotutako datu estatistikoak eskuratzeko.

Kexa eta araudi estatistikoak jasotzen dituen betebeharrak aztertu ostean, Arartekoak [Eustati](#) zuzendu zion [2016ko abuztuaren 24ko Ebazpena](#); horren bidez, betebehar estatistiko hori salbuesteko egoerak arautzeko iradokitzen zen, arazoi gisa inkestatutako pertsonen adina barne hartuz. Horrez gain, iradoki zen prozedura eta inprimaketan adineko pertsonak beren-beregi hartzeko kontuan, datu estatistikoak zuzenean biltzerakoan gehiegizko zama saihestuz.

Estadistikako Euskal Erakundeak iradokizun hori onartu du eta Arartekoari jakinarazi berri dio 2016ko azaroan eraturako protokoloa: “Jarduketa etxeetan inkestei erantzun ezin dietelako ez erantzutearen aurrean”.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Jakinarazi dugun urtean, datuak babestera eta Euskadin gardentasuna sustatzera bereziki bideratutako araudi-jardura egon da, hau da:

Europa mailan

Europar Batasuneko datuak babesteko araudi orokorra

2016ko apirilaren 27an, pertsona fisikoen babesaren inguruko [Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren \(UE\) 2016/679 Araudia](#) onartu zen, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez. Araudi horren bidez, 95/46/CE Zuzentaraua indargabetu zen (Datuen babesaren inguruko araudi orokorra). Luzaroan itxaron den tresna bat da; tresna horrekin, datuen babesaren inguruko legeria bateratua eta eguneratua izatea lortu da, pertsonen euren datu pertsonalak babesteko duten funtsezko eskubidea bermatze aldera. Horrela, herritarrek hobeto kontrola ditzakete bere datuak eta ekonomia digitala gara daiteke, aldi berean delinkuentziaren eta terrorismoaren aurkako borroka indartuz. Era berean, araudi horretan, datuen tratamenduen arduradun eta erantzuleen betebeharrak ezartzen dira eta araudi horretan xedatutakoa betetzeko metodoak jasotzen dira, baita arau horiek hausten dituztenei ezarriko zaizkien zigoren irismena ere.

Araudi horrekin batera, [Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko \(UE\) 2016/680 Zuzentaraua](#) argitaratu zen; funtsean, zuzentarau hori poliziaren eta justiziaren eremuetara dago zuzenduta. Hala, horren helburua da delituen egile izatearen pertsona susmagarrien, biktimen eta lekukoaren datuak behar bezala babestea ikerketa kriminal baten eremuan.

Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeiki egun beranduago indarrean sartu zen arren, 2018ko maiatzaren 25etik aurrera izango da aplikagarria.

Europar Batasuneko Administrazio Elektronikoen inguruko 2016-2020 Ekintza-plana

[Europar Batasuneko Administrazio Elektronikoen inguruko 2016-2020 Ekintza-planaren](#) Administrazioaren eraldaketa digitala bizkortzen (COM(2016) 179 final) helburua hauxe da: “2020an, Europar Batasuneko herri administrazioak eta erakunde publikoak irekiak, eraginkorrak eta integritateak izan beharko dira, Europar Batasuneko herritar eta enpresa guztiak zerbiztu publiko digitalak eskainiz; zerbiztu horiek perso-

nalizatuak izango dira, mugaz gaindikoak, erabiltzeko errazak eta mutur batetik besterakoak. Ikuspegi berritzaileak erabiliko dira herritarren eta enpresen beharretara eta demandetara egokitutako zerbiztu hobeak diseinatu eta eskaintzeko. Herri administrazioek inguru digital berriak eskaintzen dituen aukerak baliatzen dituzte, interesdunekiko eta horien arteko elkarrekintza errazte aldera.”

Planak, [Europarentzako Merkatu Digital baterako Estrategiak](#) ezarritako esparru estrategikoaren barruan, jarduteko 3 lehentasun nagusi ezartzen ditu eta Europako Batzordeak garatu beharreko 20 ekintza adierazten ditu, horren inguruko legeriaren eta horrekin lotutako zerbiztu publiko digitalen ezarpena bizkortzeko:

- I. Herri administrazioak modernizatzea IKTen bidez eta gaitzeko gailu giltzarriak erabiliz.
- II. Mugaz gaindiko mugikortasuna gaitzea zerbiztu publiko digital elkarreragingarrien bidez.
- III. Administrazioen eta herritarren eta enpresen arteko elkarrekintza digitala erraztea, kalitate altuko zerbiztu publikoak sustatzeko.

Europar Batasuneko Herriaren Defendatzaileak antolatutako Herriaren Defendatzaileen Europako Sarearen hitzaldia -ENO 2016

2016ko ekainaren 13 eta 14an, Bruselan European Ombudsman deritzonaren bulegoak antolatutako [Herriaren Defentsa Bulegoen Europako Sarearen](#) (ENO 2016) hitzaldia ospatu zen; bertan, gardentasunaren gaia jorratu zen, Zuzenbideko Estatuaren eta gobernantza onaren funtsezko baldintza gisa. Izan ere, gai hori erabakigarria da European eskubideak defendatzen dituzten erakundeentzat.

Arartekoak hitzaldi honetan parte hartu zuen, Europako Herriaren Defendatzailea den Emily O'Reillyk gonbidatu zuelako; hala, garatutako eztabaidetan aktiboki hartu zuen parte Arartekoak.

Eztabaidatutako gaien artean, Europako Herriaren Defendatzaileak burutzen dituen kontrol-eginkizunak aztertu ziren; hala, eginkizun horien bidez, saiateren da presio-taldeek (“lobby”ak) Europako Batzordearen erabakiak hartzeko prozesuan eragin desegokirik ez dutela bermatzen. Izan ere, erabaki horien motibazioa beti izan behar du interes publiko defendatzea. Bertan zeuden defendatzaileen ustez, garrantzitsua da presio-taldeen inguruko araudia Europa osoan orokortzea.

Eztabaida horietan, adostasun orokorra egon zen gai baten inguruan, hau da, beharrezkoa dela sistema nazional eta eskualdeko sistema batzuei, presio-jardueren gardentasuna kontrolatzeko esparru juridiko bat hornitzea, baita tresna egoki eta espezifikoa ere, oraindik ez badituzte. Horrez gain, tresna nahikoa izan behar dituzte, herritarrek gobernu onaren anbizio handiko helburu horretara bideratutako herri administrazioen jardueren informazioa eskuratu dezaketela bermatzeko.

Era berean, denok zeuden ados, eremu honetan, pertsonen eskubideak defendatzeko erakundeek administrazio ona kontrolatzeko eta herritarren eskubideak defendatzeko eginkizunak ere izan behar dituztela. Hala, bermatu behar dute herri administrazioen jardura interes publikoa lortzera bideratuta dagoela, interes orokorraren berme gisa.

Estatu mailan

2015 oso urte emankorra izan zen administrazio elektronikorekin lotutako legezko erreformei dagokionez; izan ere, irismen handiko lege hauek eman ziren: **Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea** eta **Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea**. Hala ere, joan den urtean ez da berritasun nabarmenik egon.

Ezaguna da Ogasun Ministerioko Herri Administrazioari Estatu Idazkaritzaren ekimena Errege Dekretuko oinarritzko Proiektu bat eratzeko, administrazio elektronikorekin funtzionamenduari buruzkoa. Hala, horren inguruko aurreziakoz kontsulta publikoa egin zen 2016ko azkenengo hilabeteetan.

Gardentasunaren inguruko araudiari dagokionez, komenigarria litzateke Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko **abenduaren 9ko 19/2013 Legea** garatzen duen araudi bat edukitzea. Hori guztia, Lege honek eratorritako eskubideak eta betebeharrak eta horiek gauzatzeko modua xehetasun handiagoz ezagutzeko. Halaber, komenigarria litzateke bertan jasotako manuak betetzen ez dituztenei ezarriko zaizkien zigorraren katalogo bat edukitzea.

Autonomia erkidego mailan

2016an, zenbait berritasun egon dira; jarduketa-arlo honentzat interesgarriak direnez, hemen jasotzen ditugu:

Estatuko legegileak **Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea** indarrean sartzeko prozesua **artikulatu zuen**; hala, lege hori indarrean sartu zen modu mailakatuan 2013ko abenduaren 11tik aurrera. Lege horren ataletarako aldi baterako zenbait indarraldi ezarri ziren, baita erakunde eta lurralde esparru desberdinetarako ere, autonomia erkidegoen kasuan bezalaxe. Horrela, lege horrek autonomia erkidegoetako administrazioentzat eta erakundeentzat eta tokiko erakundeentzat ezarritako konpromisoak **2015eko abenduaren 11n** sartu ziren indarrean oso-osorik.

Arau hori honako hauei aplikatzen zaie: Eusko Jurlaritzak, Eusko Legebiltzarrak, Arartekoa, tokiko erakundeak, tokiko organismoak, berezko izaera juridikoa duten herri administrazioekin lotutako edo horien menpeko zuzenbide publikoko erakundeak, unibertsitate publikoak, alderdi politikoak, erakunde sindikalak eta enpresa-erakundeak barne, besteak beste.

Legeria hori oinarritzkoa da; beraz, publikitate aktiboari dagokionez, hedatu eta zehaztu daiteke, erakunde-esparru bakoitzaren berezko legeriaren bidez.

Joan den urtean, autonomia erkidegoko legegintzaldia amaitu zenez, **Euskal sektore publikoko gardentasunari, herritarren parte-hartzeari eta gobernu onari buruzko lege-proiektua** indargabetu zen; izan ere, legebiltzarreko egoitzan zenbait zuzenketa egin zitzaizkion proiektu horri. Hala, proiektuaren helburua zen Euskadiko Autonomia Erkidegoari eremu horretan arauketa berezia hornitzea; gaur egun, oraindik ere, ez dugu arauketa hori. Horrenbestez, arazo gehigarri bat zegoen: ezin izan zen autonomia erkidegoan organo independente bat sortu, euskal administrazioek eskaerei erantzuten ez dietenean euskal herritarrek bertara jotzeko.

Egoera hori arintzeko, Eusko Jurlaritzak, **irailaren 13ko 128/2016 Dekretuaren bidez**, Informazio Publikoa Eskuratzeko Euskal Batzordea sortu zuen, behin-behinean garatzeko, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eremuan, Gardentasunari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen funtsezko eskema operatiboa, gardentasuna kontrolatzeko organo espezifikoko baten eskuragarritasunari dagokionez. Hala, Eusko Jurlaritzako hiru pertsonak osatzen dute batzorde hori.

Foru mailan

Bizkaiko Gardentasunaren buruzko 1/2016 Foru Araua onetsi zen. Horrek, zioen azalpenean jasotzen den bezala, lortu nahi du gardentasuna eta informazio publikoa eskuratzeko ibilgailu egokiak izatea herritarrek erabakiak hartzeko moduaren inguruko azterketa handia egin ahal izateko. Informazio publikoa eskuratzeko eskubideari dagokionez, arauak ezartzen du informazioa eskuratzeko ukapenei ez-ohiko izaera esleitu behar zaiela, lege ezarritako mugen interpretazio murriztaile baten bidez. Horrez gain, gardentasuna datu publikoen berreskurapenarekin eta Open Dataekin konektatzen du.

Udal eremuan

Euskadiko Tokiko Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen VI Kapitulua, gobernu onaren, gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen kapitulua izeneko (berez, hori asmoen adierazpen bat da), euskal tokiko erakundeek bete beharko dituzten publikitate aktiboko betebeharrak buruzkoa da eta banakapen xehea egiten da eremu materialen arabera. Hala, gardentasun-betebehar horiek tokiko errealitateari eta tokiko erakundeetan dauden araudi-tresnetara eta tresna ekonomiko eta finantzarioetara egokitu beharko dira. Era berean, zenbait arau orokor jasotzen ditu informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen inguruan eta informazio hori eskuratzeko ukatzen denean aurkez daitezkeen erreklamazioen inguruan.

Arartekoak uste du oso garrantzitsua dela arau horiek ezartzea. Hala, uste du funtsezkoa dela informazioa bere alderdi desberdinetan ematen dela bermatzea, herritarren parte-hartzerako aurreko betekizun gisa eta administrazio onerako eskubidearen euskarrietako bat bezala.

Oraindik araututa ez dagoen eta Arartekoak interesgarria dela uste duen kontu bat da **interes-taldeak** arauketa,

hau da, hizkera arruntean “lobby” izenez ezagutzen diren taldeen arauketa. Hala ere, joan den urtean aurrerapauso batzuk eman ziren gai horren inguruan eta, dirudienez, **Kongresuak** otsailean eztabaidatuko du interes-talde horien jarduketa normalizatzeko arauketa bat. Era berean, **Parlament de Catalunya** edo Kataluniako Legebiltzarrak oso aurrerata dagoen proiektu bat dauka, **politika publikoetan eragina duten pertsona eta erakundeek osatutako interes-taldeen erregistro bat sortzeko**.

Gizarte-testuinguruan, azpimarratu behar dugu herritarrak gero eta kezkatuago daudela Interneten dauden bere datuen segurtasuna dela-eta. Izan ere, Arartekoak kezka hori hartu du kontuan bere jarduketetan.

2016an, Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak Datuak Babesteko Euskal Agentziarekin elkarlanean egindako **landa-lan** berri bat argitaratu zen; landa-lan horren ondorioetako batzuk nabarmendu nahi ditugu:

- Azkenengo urteotan, datu pertsonalen babesaren inguruko kezka apur bat areagotu da. 2008an, herritarren % 37 oso edo nahiko kezkatuta zeuden; gaur egun, kopuru hori % 43koa da.
- Herritarren % 57arentzat segurtasuna pribatutasuna baino garrantzitsua da eta % 30arentzat alderantziz. Hala ere, apur bat murriztu da segurtasuna garrantzitsuagoa dela pentsatzen dutenen ehunekoa.
- Hori gorabehera, erabiltzaileen kezka Interneten bere informazioa erabiltzearen inguruan oso altua da, hain zuzen ere, % 74k dute kezka hori.
- Gehienek (% 89) uste dute herritar anonimoez ahaztuak izateko eskubidea izan beharko luketela, hau da, Interneten horien inguruan dagoen informazioa ezabatzeko eskubidea izan beharko luketela. Aitzitik, soilik % 51k pentsatzen du hori kargu publikoak okupatzen dituzten pertsonen dagokienez.

Datu pertsonalak babesteko behararen kontzientzia-maila horrekin batera, erabiltzaile guztiek aplikatu behar ditugun arreta-neurriak areagotu behar dira. Hori, analista adituen arabera, pixkanaka egiten ari da. Izan ere, ordenagailuetan birusek eragindako infekzioak murriztu dira. Nolanahi ere, Arartekotik, gai horren inguruan uste duguna esan ahal izan dugunean, azpimarratu izan dugu beharrezkoa dela ekipoak eta sistemak babesteko neurri teknikoak ezartzea baina, funtsean, sen ona aplikatu behar da, arraroak edo arriskutsuak izan daitezkeen posta edo jardunbideei atea ez irekitzeko.

Ekipamendu eta zerbitzu elektronikoei dagokienez, EUSTATEk 2016ko lehenengo hiruhilekoko **Euskadiko familiei zuzendutako Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestan** emandako datuen arabera, Euskadin Internet erabiltzen duten 15 urte eta gehiagoko pertsonen kopurua 1.370.800 da, hau da, herritarren % 74,1. Aurreko urtearekin alderatuz, % 2,4 areagotu da kopuru hori.

Internet erabiltzen duten herritarren ehunekoari dagokionez, Araba da lurralde historikoen sailkapenaren buruan dagoena % 76arekin. Horren atzetik, Bizkaia dago % 74,8arekin eta Gipuzkoa % 73,3arekin.

Etxeen IKT ekipamenduari dagokionez, euskal familien % 70,1ak ordenagailu pertsonal bat dauka eta % 74,1ak Interneteko konexioa dauka. Hortaz, esan daiteke Euskadin lau pertsonetatik hiruk Internet erabiltzen dutela.

Etxea da euskal herritar gehienek aukeratzen duten lekua Internetera konektatzeko (% 97,3).

Telefono mugikorrari dagokionez, inkestan parte hartu dutenen % 94,8k adierazi dute telefono mugikor bat dutela (% 96,8k 15 urte baino gehiagoko pertsonen kasuan). Beraz, telefono mugikorra da edozein teknologiaren eta zerbitzu digitalaren euskarriztat hartu beharreko oinarritzko tresna. Izan ere, hori da ekipamendu eta erabilerako edozein eten osorik gainditzen duen bakarra.

Adinari dagokionez, ia-ia 15 eta 24 urte bitarteko euskal gazte guztiek (% 99,2) erabiltzen dute Internet; erakutsi da adin-tarte horretako pertsonak direla Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiez gehien jabetu direnak. Nabarmendu behar da 55 eta 64 urte bitarteko erabiltzaileen kopurua handitu dela, hain zuzen ere, 7.2 portzentajezko puntu. Horrez gain, 65 urte edo gehiagoko erabiltzaileen kopurua 5,8 portzentajezko puntu handitu da.

Genero-etenari dagokionez, 2015ean, 8,3 portzentajezko puntukoa zen; aitzitik, 2016ko lehenengo hiruhilekoan 5,9 portzentajezko puntura murriztu zen. Horrela, 15 urte eta gehiagoko herritarrei dagokienez, Internet erabiltzen duten gizonak gizonezko herritarren % 77,1 dira; emakumezkoak dagokienez, Internet erabiltzen dutenak emakume guztien % 71,2 dira. Aurten Internet erabiltzen ari diren erabiltzaile guztietatik, % 50,2 gizonezkoak dira eta % 49,8 emakumezkoak. Horrela, emakumeen Interneten erabileraren etengabeko joera negatiboa apurtu da.

Jarduerari dagokionez, ikasleen % 99,2k Internet erabiltzen dute; lan egiten duten herritarren % 94,2k erabiltzen dute Internet eta aktibo ez dauden edo langabezian dauden pertsonen % 46,9k erabiltzen dute. 2015ekin alderatuz, gehiuntzarik handiena azkeneko taldean eman da eta portzentajezko 4,4 puntukoa da. Horrela, oso argi geratu da eten ekonomikoa dela desberdintasun berrien iturria. Hala ere, oro har, datuak islatzen dute euskal etxeetan IKT ekipamendua hobetu dela.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

2016an, zenbait jarduketa osagarri planifikatu eta garatu dira:

4.1. Bilerak

2016an, bilera desberdinak egin dira:

- **Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzarekin** aldizkako bilerak egiten dira baterako intereseko proiektuetan ekarpenak eta hausnarketak partekatzeke, gardentasunarekin lotutako alderdiak bezalaxe. Proiektu horietako bat da hauxe: **Ararteko mapak**. Proiektu honen helburua da Euskadiko Autonomia Erkidegoko turismo-baliabideen, garraiobide publikoaren eta liburategien irisgarritasunari buruzko informazioa ematea. Webgunean eskuragarri dago **Ararteko mapak**, baita gailu mugikorrenat ere. Horrekin, edozein pertsonak eskura dezake irisgarritasun mapetan dagoen informazioa gure lurraldeko edozein gunetik.

Halaber, Arartekoaren **E-inklusioa eta Euskadin herritarrek IKTen bitartez gizartean eta eremu publikoan parte hartzeari** buruzko txostenean jasotako gomendio batzuen segimenduari buruzko informazioa eguneratu zen, bereziki Euskadi.eus webgunearen irisgarritasunari eta lrekiaren bidez datu publikoak zabaltzeari dagokionez.

- Arartekoak kudeaketaren bikaintasunean konprometituta dauden Euskadiko Autonomia Erkidegoko 29 erakunde publikoek (administrazioak eta enpresa publikoak) osatutako **Q-epa** sarearen 6 bileretan hartu du parte aktiboki; hala, Arartekoa sare horretan dago.

Bilera horiekin, 2015ean Gardentasunaren Legearen aplikazioa barne-mailan aztertzeke sortu zen lan-taldean (9 kideek osatutakoa) parte hartu ahal izan da; proposamenak egin ahal izan dira eta jarraibide komunak ezarri arauak zehazten ez dituzten gardentasun-informazioaren alderdietan. Horrez gain, gardentasunaren adierazleak identifikatu ahal izan dira, Q-epa sarearen talde-mailako gardentasunari dagokionez.

- Arartekoak, **Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte-politika Sailak gonbidatuta, GOBERNANTZA +65 URTE Proiektuaren** barruan antolatutako hausnarketa-saio batzuetan hartu du parte. Proiektu hori ezagutzaren ordezkagarritasunaren ereduari buruzkoa da, baita zahartzen diren pertsonen erabaki sozial eta politikoak hartzean dituzten beharrei eta interesei buruzkoa ere. Zehazki, proiektu horren barruan sortutako hirugarren batzordean hartu dugu parte aktiboki. Batzorde horren helburua izan da adineko pertsonen erabaki politikoak hartzekeko prozesuetan parte hartzeke edo horiek ordezteke modua edo

eredua bilatzea. Txosten hau egin denean, ondorioen aurretiazko testu bat dago eskuragarri.

- Gainera, Gaia, Tecnalia eta Grupo Servicios Sociales Integrados Klusterrak antolatutako **ICT4Silver Proiektu europarraren** esparruan antolatutako lantegi batean hartu dugu parte. Lantegi horretan, IKT konponbideen erronkak, beharrak edo hesiak identifikatzen saiatu dira, Euskadin "Silver Economy" deritzonaren merkatuari aurre egiterakoan, adineko pertsona guztiei zuzendutakoak.

4.2. Jardunaldiak

Azaroaren 18an, Euskalitek antolatutako Kudeaketa Aurreratuaren Aste Europarraren barruan, jardunaldi hau ospatu zen: **"Kudeaketa Publiko Aurreratu. Q-epa sarearen jardunbide egokiak"**. Jardunaldi horretan, Arartekoak informazioaren eta barne-komunikazioaren kudeaketan duen esperientzia praktikoa aurkeztu zuen.

4.3. Adierazpen instituzionala interneten nazioarteko eguna dela eta

Maiatzaren 17an, interneten nazioarteko eguna zela eta, Arartekoak **"Gauzen internetetik pertsonen internetera"** adierazpena argitaratu zuen.

Egun honen xedea da teknologia berriek herrien eta herritarren bizi-maila hobetzeko eskaintzen dituzten aukerak ezaugaraztea.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) gure bizitzetako osagarri bat gehiago izateke, gure bizitzak aldenik alde eta modu iraunkorren zeharkatzea igaro dira. Eskolan daude, lanean, Administrazioekiko eta bankuekiko harremanetan, ongi pasatzeko eta komunikatzeko ditugun moduetan.

Internet geratzeko etorri da eta lehen mailako tresna da demokratizaziorako, informazioa eskura izateke eta herritarrek parte hartzeke eta lankidetzan aritzeko; ondorioz, gure bizitzetan duen presentzia ikaragarria da eta ez ezagutzea edo ez erabiltzea gizartetik kanpo geratzeko faktorea izan daiteke egungo gizartean; hori dela eta, herri-administrazioak adi egon behar dira eta pertsona guztien erabateko inklusio digitala sustatu.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

5.1. Kapitulu honetan aztertu den bezala, 2016an, zenbait herritarrek Arartekoarengana jo dute gure esku-hartzea eskatuz, funtsean, erantzunik eman ez den edo osatu gabeko erantzuna eman den kasuetan, publikitate aktiboko eskubide gaiztatzean. Kasu horietan, erakunde honek euskal herri

administrazioak zaindu eta kontrolatzeko eginkizunak burutu ditu, oro har, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Arartekoa sortu eta arautzekoak- esleitzen dizkion eginkizunen esparruan.

5.2. 2016an, euskal administrazioen araudi-jarduera areagotu zen, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko [abenduaren 9ko 19/2013 Legea](#) indarrean sartzearen ondorioz. Horrez gain, Bizkaiko Gardentasunaren [otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua](#) onetsi zen eta Euskadiko Tokiko Erakundeen [apirilaren 7ko 2/2016 Legeak](#) gardentasunari buruzko arauketa berezia jasotzen du.

Herritarrek gero eta gehiago gauzatzen dute herri administrazioek duten informazioa eskuratzeko eskubidea; horretarako, administrazioek jarrera bermatzaileak izan behar dituzte alde guztien eskubideekin. Izan ere, lehian dauden eskubide desberdinak haztatu behar dira eta informazio edo dokumentazio hori eskuratzeko ukatzen den kasuak arrazoitu.

5.3. Arartekoak uste du eremu batean ez direla behar beste urrats eman eta gardentasunaren inguruko lege-aurreikuspenek irismen handia izateko osagarri bat izango zela; eremu hori da interes-taldearen arauketa eta lobbyen erregistroa.

5.4. Datuen babesari dagokionez, beharrezkoa da herritarren eskubideen bermean aurrerapausoak ematea. Testuinguru honetan, herritarrak gero eta kontzientziatuago daude beharrezkoa dela datu pertsonalak babestea eta, horregatik, eragile aktiboak izan behar dira eta arrisku-jokabideak saihestu Interneten eta sare sozialen erabileran.

Bereziki, aurrerapausoak eman behar dira Interneten datu pertsonalak ezabatzea ahalbidetzen duten neurrien ezarpenean,

ukitutako herritarrek hori eskatzen duten kasuetan. Izan ere, Arartekoak, joan den urtean, behin baino gehiagotan esku hartu zuen alderdi horretan. Horrez gain, ARCO eskubideak (sarbidea, zuzenketa, deuseztapena eta aurkaritza) gauzatu ahal izatea erraztu behar da. Hala, eskubide horiek dituzte tratatzen diren datu pertsonalen titular diren pertsona guztiek.

5.5. Euskal herri administrazioek muturreraino eraman behar dituzte neurriak Interneterako sarbidearen eskuragarritasuna desberdintasuna sortzeko beste elementu bat bihur ez dadin bizitza oso bat garatu ahal izateko eta gizartearen balia-bideak eskuratzeko aukeretan. Horretarako, adi egon beharko dira eta eten digitalaren arriskua minimizatzen duten neurriak ezarri. Bereziki, zaindu behar dute langabezia dauden pertsonen dituzten zailtasunek ez dutela eten ekonomikoko arriskua larriagotzen edo enplegarritasuna kaltetzen.

Era berean, administrazio elektronikoaren eta bide telematikoen sustapenak herritarren eskubideak ukitzea saihestu behar dute; hori dela-eta, administrazio elektroniko inklusibo lehenetsi beharko dute eta harremaneko bide gehigarrien erabilera bultzatu, daudenak baztertu gabe. Halaber, herritarren esku jarri behar dira teknologia ez-jabeak.

5.6. Arartekotik, uste dugu oraindik gauza asko daudela egiteko benetako erkidego digital bat eraikitzeko; erkidego horretan, Interneten eta webgune sozialaren potentzial zoragarria erabili ahal dugu aukera-berdintasuneko terminoetan. Hala, testuinguru honetan, euskal herri administrazioetara zuzentzen gara, horretan eragin negatiboa izan dezaketen oztopoak edo faktore inhibitzaileak baztertzeko.

II. ATALA

15

LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA

1. Arloa kopurutan

Aurten arlo honetan guztira 15 kexa ireki dira, eta tramitatu direnen informazio estatistikoa, abenduaren 31n, honako hau izan da:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei ahoikua eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
21	6	15	4	7	3	1

2. Kexarik aipagarrienak

Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

Arlo honetan jasotako kekek planteatutako auziak hainbat alderdiri buruzkoak izan dira, besteak beste prestakuntza-ikastaroei buruzkoak eta profesionaltasun-egiaztagiriaren inguruko ebazpenetan igarotako denbora luzeegiari buruzkoak.

Horrez gain, Lanbiderekiko lankidetzaz hitzarmen bati dagokion diru-laguntza baten ordainketa berandutu dela planteatu da; eta laguntzen esparruan bertan, enpresa-proiektu bat sendotzeko diru-laguntza ukatu izanarekiko desadostasuna planteatu da. Auzi horiek kexen tramitazioan bideratu ziren.

Lan Ikuskaritzaren esku-hartzeari buruz, kexa batzuetan desadostasuna azaldu da, interesdunen ustez salaketak tramitatzean atzerapenak gertatu zirelako. Lan Ikuskaritzaren administrazio-jarduera arautzen duen arauaren ikuspuntutik, planteatutako suposamenduak aztertutakoan ondorioztatu zen kasu horietan ikuskaritzaren funtzionamendua ez zela txarra izan.

Tramitazioa ahalik eta arinena izateko asmoa legitimoa dela onartuta, egindako azterketak zera utzi zuen agerian: egiaztapen jarduerak lan-arloko arau-hausteengatik zehapenak ezartzeko eta Gizarte Segurantzaren kuotak kitatzeko espedienteetarako prozedurei buruzko araudi orokorra onartzen duen [maiatzaren 14ko 928/1998 Errege Dekretua](#) aurreikusitako epearen arabera egin zirela. Kexan jasotako datuak kontuan hartuta, salaketa aurkeztu zenetik lantokian bisita egin zen arte, bi hilabete eta zazpi egun igaro ziren.

Prozeduren tramitazioari dagokionez, kexa bat jaso da profesionaltasun-egiaztagiria ukatzeagatik. Horrek agerian jartzen du ezarritako epea errespetatzeak duen garrantzia. 2014ko azaroaren 17an aurkeztutako eskaera bat izan zen, eta Lanbidetako zuzendari nagusiaren 2016ko maiatzaren 11ko ebazpenaren bidez ukatu zen. Berandutzeaz gain, profesionaltasun-egiaztagiriaren eskariari ezeztatu erantzuna eman zitzaion. Profesionaltasun-egiaztagiria inskribatzeko eta egiteko prozedura zen, eta Lanbiderekin erkatu ondoren, Arartekoak erabaki zuen administrazioaren funtzionamendu txarra egon zela.

Atzerapena onartuta, Lanbiderekin ustez, eskaera egin zenetik erantzuna eman zen arte 17 hilabete igaro ziren arte, ez zela babesgabetasunik egon. Horretarako argudioen oinarri gisa, zera azaldu zuen: ezarritako prozedurak xedatzen duenez, sei hilabeteko epea igaro eta gero ebazpenik ematen ez bada, eskaria ukatu dela ulertuko da ([463/2013 Dekretua](#), [abenduaren 17koa](#), Profesionaltasun-ziurtagiriaren eta Egiaztapen Partzial Metagarrien Euskal Erregistroa sortzeko, 7.7. artikulua).

Argi dago aurreikuspen hori egin arren ezin dela ondorio hori atera, ñabardura egokiak egin gabe; izan ere, nahitaez kontuan hartu behar da honako hau: ebazteko betebeharrak ezarrita dauden epean (6 hilabete) bete izan balitz, interesdunak orduan bertan jakingo zuten –eta ez 17 hilabete geroago– prestakuntza-zentroari buruz aurkeztu zuen egiaztagiria Lanbidetik desegokitzat jo zuela. Hori jakin izan balu, denbora hartan deitu diren ikastaroak egin ahalko zituzkeen, baina ezin izan du hala egin, hasierako eskaria egokia zela uste zuelako.

Arartekoak kexa berriak jaso ditu enplegu-zerbitzuen funtzionamenduari buruz, enplegu bilaketari dagokionez. Datuek egiaztatzen dute zerbitzu horien benetako eragina oso eskasa dela pertsona horiek lan-merkatu arruntan sar daitezela lortzeko dagokionez, eta horregatik, bitartekaritza-zerbitzuen praktikak hobetu egin behar dira, eta zerbitzuen helburuak hobeto betetzea lortu behar dutela. Arartekoaren esku-hartzea kexa horien aurrean jarduerak aukera zehatzetatik kanpo gertatzen bada ere, bere betebeharrak da hemen jasota uztea, gogorarazteko kasu hauek existitzen direla eta arreta behar dutela.

Zalantzarik gabe, enplegua aurkitzeko eragozpenak dakartzen inguruabarretako bat adina da. Hain zuzen ere, osasun-arrazoiengatik mugei dagokionez, pertsona batek zera planteatu zuen: finantzaketa publikoa duten ikastaro jakin batzuetan gehienez 40 urte edukitzearen eskakizuna ezarri zen, eta horri aurka egiten dion errealitatea da lan-merkatu sartzeko zailtasun horrek neurri handienez laneratzeko eragozpen handiak dituzten pertsonen eragiten diela, adibidez adin jakin batetik gorako pertsonen.

Oztopo horri dagokionez, gaixotasun mentala duten pertsonen arretaren arloan lan egiten duten eta pertsona horiek laneratzeko eta gizarteratzea lortu nahi duten elkarte batzuek Arartekoari adierazi diote haserre daudela ez delako aurrera

egin enplegu-zentro berezien jarduera erregulatzeko. Zehazki, Euskadin enplegu-zentro berezien erregistroa sortzeari buruz ari ziren.

Gai hori Legebiltzarraren egoitzan aztertu zen (2016ko maiatzaren 20ko Osoko Bilkura), eta horri buruz, elkarrekin Arartekoari eskatu zioten gabezia horren berri eman zieziaio-la administrazio eskudunari, Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailari, alegia. Aurreko legegintzaldia amaitu arretik sail horrek eman zuen informazioaren arabera, Euskadin enplegu-zentro berezien erregistroa sortzeko arauaren proiektua prestatzeko lana nahiko aurreratua zegoen. Arartekoak espero du jada egindako jarduketak baliagarriak izango direla erregistro horren sorrera bultzatzeko.

3. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Arartekoak uste du arreta berezia jarri behar dela enplegua bilatzeko sistema publikoaren bitartekaritzak jasotzen dituen kexek duten aurreikuspen urriari buruz, bereziki laneratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen enpleguari dagokionez.

II. ATALA

16

HIRIGINTZA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA

1. Arloa kopurutan

Hirigintza eta lurralde-antolamenduaren arloan, Arartekoak gai horren inguruan egindako esku-hartzeak biltzen dira; horren barruan sartzen dira hiri-antolamendua, lurzorua urbanizazioaren bidez eta ondoko eraikuntzaren bidez hirigintza aldetik eraldatzeko prozesua eta hirigintza arloko legezkotasuna babestea.








Hirigintza eta lurralde-antolamenduaren arloan jasotako ke-xak 76 izan dira guztira, hau da, aurkeztu diren erreklamazio guztien %3,52. Eragindako administrazioen arabera, ke-xak modu honetan banatzen dira:

- Tokiko administrazioa 64
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritz) 1

Azpi-arloak, berriz, honakoak izan dira:

- Hirigintzako diziplina 46
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa 11
- Hirigintza arloko informazioa jaso ahal izatea 8
- Hirigintzako kudeaketa 6
- Lurralde antolamendua 4
- Beste alderdi batzuk 1

Arlo honetan jarritako kexen izapidetze-egoerari eta emaitzari dagokienez:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amañtuta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
90	30	60	28	30	1	1

2016. urtean hirigintza eremuan egindako erreklamazioak aurreko urteetako kopuruan mantendu dira. Erreklamazioek batez ere dagokion baimenik gabe egindako hirigintza erabileren eta obren hirigintza legezkotasuna babesteko esku-menak gauzatzearekin lotutakoak izan dira. Baita ere handitu dira jabeek euren lurzoruak eta eraikinak osasungarritasun, segurtasun eta apaindura publiko baldintza egokietan mantendu eta eraberritzeko dituzten betebeharren inguruko erreklamazioak. Batez ere udal katalogoan babestutako eraikuntzak direnean, zaindu beharreko balio kulturalak dituelako.

2016. urtean 6 gomendio burutu dira, [gure web orriaren](#) dagokion atalean kontsultatu daitezkeenak.

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Hirigintza legedia hausteagatik egindako eskariak eta salaketak erantzuteko betebeharra

Eremu honetan herritarrek planteatutako arazo nagusietako bat herritarrek hirigintza araudia urratzeagatik egindako eskari, erreklamazio eta salaketen erantzun falta da. Asko dira hirigintza legedia betetzen dela bermatzeko helburuz herritarrek egindako idatziei Arartekoak udal administrazioei denbora epe egoki batean erantzuteko aholkatu dizkien ebazpenak.

[Arartekoaren 2016ko irailaren 21eko Ebazpenaren](#) kasua da. Horren bidez, [Lasarte-Oriako Udalar](#) gomendatzen zaio jarrai dezala bere jardueran, lizentziarik gabeko obra bat salatzeko aurkeztutako kexari erantzuteko.

Beste kasu batzuetan, Arartekoak dagokion kexa izapidetu ondoren, udal administrazioak salaketari dagokion izapidea eman diola eta interesdunari erabakia jakinarazi diola egiaztatu du. Kasu hauetako batzuetan Arartekoaren ebazpenak Lur eta Hirigintzari buruzko [ekainaren 30eko 2/2006 Legearen](#) zehaztapenak betetzeari dagozkion balorazioak sartu ditu.

Babes bereziko urbanizagarria ez den lur batean baserri bat berreraikitze eta lekualdatzeko udal baimena

Arartekoari elkarte batek planteatutako kexaren oinarria da udal-administrazio baten aurrean baserri bat berreraikitze obra batzuk gauzatzeagatik aurkeztutako salaketa bati ez erantzutea. Gauzatze obra horiek egiteko baimena ematen duen lizentzia jada existitzen den baserri bat berriz eraikitze eta ohiko babes bereziko nekazaritzako eremu gisa kalifikatutako lurzoru urbanizaezinean kokapena aldatzea ahalbidetzen du. Elkarrekin salaketan argudiatu zuen Lur eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen xehetasunak betetzeko justifikazio falta, lekualdatzeko eta eraikuntza bolumena handitzeko araudi horrek ez zuelako eraikin berri bat aukeratutako lekuan eraikitze baimenik emango. Kasu horri buruzko informazioa eskatu ondoren, udalak Arartekoari elkarteak aurkeztutako salaketaren udal erantzunaren berri eman zion. Kasu horretan udal administrazio horrek eskaria ukatu zuen eta legedia berrezartzeko espediente bat abiaraztea ukatu zuen, lizentzia hirigintza legediaren arabera eta arau subsidiarioak indarrean daudela uste zuelako.

Egindako salaketari emandako berriazko erantzuna egiaztatu ondoren, Arartekoak bere ebazpenean udalari gogora-

razi zion babes bereziko urbanizagarria ez den lurra ez dela egokia urbanizazio edo eraikuntza bidez aldatzeko. Horregatik dago lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean araubide juridikoak lurzoru urbanizaezinaren inguruan jaso dituen xedapenen menpe. Lurzoru mota horretan bakarrik baimendu daiteke baserrien berreraikitzea modu fede-emailean frogatzen bada Lur eta Hirigintza [ekainaren 30eko 2/2006 Legeak](#) garatu duen eta premiazko neurriei buruzko [ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren](#) 9. artikulua berariaz aipatu dituen baldintzen betetzea, baita plangintzak barne hartzen dituen gehigarriak ere. Edozein kasutan, Lur eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 30.1. artikuluan jasotako baserriak berreraikitzeke araubideak ez du kokapenaren aldaketa baimentzen. Kokapen aldaketaren aukera soilik derrigorrezko desjabetzeen ondorioz (sistema orokorren ezarpenak eraginda) eraitsi diren baserrien kasuan aplikatuko da eta horiek babesik gabeko lurzorura lekualdatu beharko dira.

Eraikuntza berriko hirigintza kontrola, urbanizagarria ez den lur batean gaztandegi bat handitzeko

Beste espediente batean bizilagun talde batek planta berriko obra batzuk gauzatzearekin duen desadostasuna adierazi zuen, baserri bateko gaztandegiko instalazioak handitzeko. Handitze obra horiek [Idiazabalgo Udalak](#) onartu zituen gaztandegia handitzeko eraikuntza berri bat eraikitzeke obrak egiteko lehenengo hirigintza lizentzia baten bidez eta lehenengo proiektua aldatzeko bigarren lizentzia baten bidez. Lizentzia horiek gaztandegitik gertu zeuden lursailetan eraikin berri bat eraikitzeke baimena ematen zuten, ez urbanizagarri bezala klasifikatutako lursail batean, G.20 landa-eremu "nekazal eta landazabal" bezala izendatutakoa. Eraikin berri horretan gaztandegi jarduerari lotutako erabilera ematea aurreikusten zen (150 ardi inguruko ardi-ukuilua eta biltegi eremu bat), baita ludiko eta turistiko jardunetarako proiektu bat (erakusketa eremua duen instalazioan bisitak egiteko instalazioak, salmenta eta gazta dastatzeko sukalde eremua). Kexagileek salaketan argudiatu zuten hirigintza-planeamenduaren zehaztapenen betetzea ez zela justifikatu eta, bestalde, jardura hori ingurumenaren exijentzietan egokitzeke beharra planteatu zuten, jardura horretatik sortu daitezkeen eragozpenak galarazten dutenak, Idiazabalgo egoitza hiri-lurretik 50 metrora baitago.

Udalak Arartekoari urbanizagarria ez den lur batean gaztandegi jarduna handitzeko eraikin berri bat eraikitzeke baimena emateko jardunen berri eman zion. Gai honekin lotuta Arartekoak toki-administrazio horri gogorarazi zion aurkeztutako eraikuntza proiektuek indarrean dagoen udal planeamenduan adierazitako hirigintza irizpide eta parametroak bete behar zituztela eta Lur eta Hirigintzako [ekainaren 30eko 2/2006 Legearen](#) aurreikuspenen arabera izan. Kasu horretan behin betiko onartutako hirigintza araudia Idiazabalgo Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen urbanizagarria ez den luraren hirigintza erregimenaren aldaketan aurreikusitakoa zen, Foru Aldundiak onartutakoa. Hala ere, Idiazabalgo Udalak ez zuen indarrean dagoen hirigintza araudia aipatu, baizik eta Hirigintza Antolakuntzaren Plan Orokorra, izapidetzen ari zena. Kasu horretan ere, aurkeztutako txosten teknikoek adierazten zuten eraikuntza berriko proiektuak izapidetzen

ari zen hirigintza araudian jasotako baldintza guztiak bete behar zituela, urbanizagarria ez den luraren mugarekiko gutxieneko banaketak bezala.

2.2. Hirigintza espedienteen parte diren dokumentuak lortzea

Espedienteetako eta erregistro publikoetako dokumentazioa eskuratzeko eskariak gaur egun herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen [urriaren 1eko 39/2015 Legeak](#) eta gardentasun, informazioa eskuratzeko eta gobernu onaren [abenduaren 9ko 19/2013 Legeak](#) erregulatzen ditu Arau hauek administrazioaren esku dauden eduki edo agiriak eta beren funtzioen jardunean egin edo eskuratu direnak jotzen dituzte informazio publikotzat. Gainera informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen gauzatzea errazteko, lege hauek prozedura arin bat ezartzen dute eta eskaria hilabete bateko gehieneko epean ebatzi behar dela uste dute. Hirigintzari buruzko informazioari dagokionez, zehaztu beharra dago Lurzoruaren Legearen Testu Bategina onartu duen [urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuan](#) eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean dagoela jasota eskubide hori.

Atal honetan pertsona batek Arartekoari planteatutako kasua adierazi behar da, [Urnietako Udalari](#) bere higiezinan egindako obra batzuen gaineko informazioa eskuratzeko eskatu eta erantzuna jaso gabe hainbat hilabete egon ondoren. Beste gai batzuen artean, udalak obren sustatzaileari eskatu zion txosten teknikoa ikusteko eskatu zuen. Hainbat kudeaketa egin ondoren, udalak Arartekoari jakinarazi zion kexagileari eskatutako dokumentazioa bidali ziotela. Edozein kasutan, informazioa eskatu eta hamaika hilabete berandua go bidali zen. Beraz, Arartekoak bere esku-hartzea amaitu zuen Urnietako Udalari gogoraraziz hirigintzako informazioa eskuratzeko eskaerak azkar, lehentasunez eta araudiak aurreikusten dituen epeetan izapidetu eta ebazteko.

2.3. Lursailak mantentzeko betebeharra

Kasu honetan udalei dagozkien udal jarduerak hirigintzako legerian jasota daude. Hirigintza diziplinaren markoan, lursailtako eta eraikuntzetako jabeek horiek segurtasun baldintza zehatzetan edukitzeke betebeharra daukate, osasungarritasunerako, apaindura publikorako eta pertsonentzako zein gauzentzako arriskuak saihesteko xedez. Esku artean dugun kasuan, betebeharra beteko dela bermatzeko eskumena dauka udal administrazioak, dagokion espedientearen bidez; eta, dagozkion txosten teknikoak bildu ostean, dagozkion exekuzio-aginduak emateko eskumena dauka, edo, bestela, hondamen egoera adieraztekoa. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko [ekainaren 30eko 2/2006 Legearen](#) 199. artikulua ezarritakoarekin bat eginez esleitzen da eskumen hori. Lursailen jabeek segurtasun, osasungarritasun, apaindura publiko eta begiramen baldintzetan eduki behar dituzte horiek. Gauzak horrela, kontserbatzeko eta mantentzeko xedez legez eska daitezkeen betebeharrak bete daitezkeen emandako exekuzio-aginduak beteko direla bermatzeko eskumen utziezina dauka udal administrazioak.

Azpimarratu beharra dago pertsona batek Arartekoari helarazitako kexa, [Oiongo Udalaren](#) jarduna hondakinak pilatzen ziren lursail baten garbiketa egoera kaxkarraren aurrean. Udalak Arartekoari jakinarazi dio, udalak errekerimendua egin ondoren, partzelako jabeak behar bezala garbitu duela partzela. Kasu honetan, lursaila modu klandestinoan ari zen erabiltzen, askotariko hondakinak botatzeko eta gordetzeko bertan (metalezko hagaxkak, etxetresna elektrikoak, kristalak edo obra-hondakinak). Horrek beste inguruabar batean eragiten zuen, kexagileak azaldutakoa; hau da, hondakinak kontrolrik gabe isurtzen diren espazioetan sutea pizteko dagoen arriskuari.

Egoera hau, Arartekoaren ustez, bereziki kontuan hartu behar da berriz erreplikatu ez dadin, eta horretarako, prebentzio neurriak hartzeko aukera azaldu zuen, udalak berak gomendatutakoak, hala nola, lursaila modu eraginkorrean ixtea, hondakinak uztea debekatzearen ohartarazpena edo lursailaren garbiketa aldizka programatzea. Prebentzio neurri horien garrantzia ingurumena babesteko ardura duten hainbat agintaritzak eta erakundeak azaldu dute. Auzitegi Goreneko Aretoko Fiskalaren eta Ingurumen eta Hirigintza Ataleko koordinatzailearen proposamenaren kasua da, aurkeztutako urteko memorietan adierazten den bezala, Indar eta Segurtasun Kidegoei suteak sortzeko arriskua duten jardueren zerrenda egitea eskatzeko, horien artean zabortegei klandestinoak. Eskudun administrazio agintaritzari zabortegei klandestinoak izan daitezkeen horien legezketasunik eza eta kasu bakoitzetik erator daitezkeen baso-suteen arriskua adierazi ahal izatea da inbentario horren xedea, zabortegeia kentzera edo suteak saihesteko neurri zehatzak hartzera bultzatzearekin bat. Fiskaltzaren jardura horren helburua zigorraren garrantziaz ohartaraztea da, ez beharra gertatuko balitz, baso-sutea eragin izanaren delitua erator daitekeelako, arduragabekeria mailan.

Horregatik eman behar zaie arreta berezia hondakinak modu irregularrean isurtzeko puntu horiei, sute arriskua areagotzen duten hondakinak sar daitezkeelako bertan; hala nola, bidegabe pilatutako etxeko hondakin jakin batzuk edo gailu elektronikoak. Kasu hauetan Arartekoak azpimarratu beharra du lursailak kontrolatzeko funtzio publikoa betetzea udalaren plangintzaren eta programazioaren zati izan behar dela, administrazio horrek eduki ditzakeen bitarteko tekniko eta pertsonalen arabera.

Fibrozementua duen edateko ura banatzen duen hodi bat aldatzeko eskaria

Sopuertako bizilagun batek Arartekoari helarazi zion [Sopuertako Udalaren](#) erantzun eza, Los Cotarros auzoa hornitzen duen edateko ura banatzen duen hodi bat ezabatze eskariari, estaldurak fibrozementua (amiantoa) zuelako. Aurretik, auzo horretako bizilagun talde batek udalari hodi horrek osasun publikoan zuen eragina ebaluatze eskaria egin zion, eragile kutsakor horren menpe egoteagatik, barneko estalduraren higaduratik sortutakoa. Material hori duen hodia aldatzeko neurriak har zitezela ere eskatu zuten. Hala ere, ez zuten erantzunik jaso. Erreklamazioa izapidetu ostean, Arartekoak [Sopuertako Udalari gomendio](#) bat helarazi zion, hodia aldatzeko eskariari berariaz erantzuteko. Udalak erantzun du esanez Los Cotarros auzoa hornitzen duen fibrozementozko hodia aldatzeko asmoa duela, eta interesdunei jakinaraziko diela.

2.4. Eraikinen babes kulturalako erregimena

Hirigintza eremuaren barruan ere eraikitako hirian ondare kulturala babesteko erregimenari erreferentzia egiten dioten erreklamazioak barne hartzen dira. Kasu honetan higiezin horien mantentze erregimena aipatu beharra dago, eta euskal araudia erregulatzen duen administrazio zaintza.

Dituen balore kulturalengatik babestutako higiezin bat mantentzea

Donostiako ondare kulturala babestu eta defendatzeko elkarte batek ondare kulturala defendatzeko eskumena duten administrazioek Arte Ederretako jauregia babesteko erregimenaren kontrolaren gaineko kexa bat planteatu zion Arartekoari. Arte Ederretako jauregia bere kokapen eta Donostiako Ensanche Cortazarreko monumentu ikono gisa duen osaketagatik bereziki esanguratsua den eraikina da. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko ondare arkitektonikoaren inbentarioaren barruan sartu zuen 2015eko martxoan. Elkarrekin adierazi zuen handik gutxira, 2015eko urrian, [Donostiako Udalak](#) kupula botatzeko baimena eman zuela, aurrigo egoeran zegoelako, eta [Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Sailak](#) aurretik baimena eman zuela. Udal agindu horrek berreraikitze betebeharra barne hartzen bazuen ere, elkarrekin adierazi zuen ordura arte ez zirela berreraikitze “filologikoa” bermatzeko errekeritutako neurriak hartu. Bidalitako informazioa aztertu ondoren, Arartekoak Arte Ederretako jauregiaren osotasuna bermatzeko ondare kulturalaren defentsan eskumena duten administrazioen esku-hartzeari buruzko [2016ko otsailaren 25eko Ebazpena](#) egin zuen. Ebazpen horretan ondorioztatu zen esku hartu zuten administrazioek prozedura “ez-egokia” jarraitu zutela, aurrigo egoeraren udal espediente bat abiarazteko aukera eman zuena babestutako elementu bat botatzea adosteko ondorio bakarrarekin. Aurrigo-espedientearen ez zen agertu udal eta foru administrazio horri neurri hori hartzeko baimena ematen zien ezinbesteko egoeraren justifikaziorik. Modu berean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak premiazko neurri hori eman zuen beste aukerak kontuan hartu gabe. Arartekoak ebazpen horretan uste zuen [Euskal Ondare Kulturalaren 7/1990 Legearen](#) aurreikuspenei jarraiki, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak kupula konpontzeko obrak onartutako babes erregimenaren terminoetan agindu behar zuela. Aldi berean, Arartekoak [gomendio](#) bat bidali zion sail horri, Arte Ederretako jauregiko jabeek kupula ordezkatzeko obrak azkar gauzatzeko agindua ematen zien espediente bat abiarazteko. Bestalde, Arartekoak ebazpenean adierazi zuen Donostiako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailarekin eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin batera, zuzenean interesa zuten aldean artean mahai-inguru egonkorra izateko proposamena (elkarrekin, higiezinaren jabetza eta interesa duten hirugarrenak), administrazioen arteko koordinazioa lortzeko, Arte Ederren jauregiak ordezkatzeko duen euskal ondare kulturalaren osotasunari eusteko helburuz. Horretarako interesgarria zen babesa eta balorea bermatzen zuen ekintza plan bat ezartzea, eta galera, suntsitzea edo matxuratzeko ekiditen zuen finantziario eta lehentasunen programa bat barne hartzea.

Donostiako Udalak kupula berrezartzeko agintzeko abiarazitako espedientearekin jarraitu du. Horretarako, gauzatze

subsidiarioko espediente bat abiarazi du, obrak gauzatzeko. Bere aldetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak ez du gaur egunera arte euskal ondare kulturala babesteko dagozkion eskumenak modu autonomoan burutzera bideratutako gomendioa aintzat hartu.

Eraikin bat toki ondarea babesteko erregimenean sartzeko eskaria

Donostiako kultura-ondarea babesteko hainbat elkartek Mirakruz kaleko 19. zenbakian dagoen eraikinaren babesgabetasun-egoera agerian utzi dute. Kexaren xedea zen [Donostiako Udalaren](#) erantzun eza helaraztea, hiriko eraikin paregabe eta adierazgarria den hau babesteko berriz ere eskatzen zuen herritarren eskari bati. Horretarako, kexa aurkeztu duen elkarteak berriz ere eskatu zuen espediente bat irekitzeko, eta horren bidez, Donostiako eraikitako ondare urbanistikoa babesteko Plan Berezia aldatzeko, aipatu eraikina babes-erregimenean sar zedin. Donostiako Udalak bidalitako erreklamazioa eta informazioa baloratu ostean, Arartekoak 2016ko uztailaren 29an [gomendio](#) bat bidali zion, Donostian eraikitako hirigintza ondarea babesteko Plan Berezia aldatzeko eskariari erantzuteko eskatuz. Erantzun horretan udalak [Eusko Jaurjaritzaren Kultura Sailak](#) egindako balorazioa aintzat hartu behar zuen, txosten batean eraikinak tokiko babesa behar dezaketen balore kulturalak dituela onartzen duena. Era berean, Arartekoak zuzenean interesatuta dauden aldeek (elkartea, eraikinaren jabea eta beste interesdun batzuk) parte hartzeko prozedura bat ezartzeko beharra planteatu zuen, eta bestetik, kultura-ondarea babestea bermatuko lukeen ekintza-plan bat. Halaber, dagoeneko eman diren hirigintzako lizentziak kontuan hartuta, ondarea suntsitzea saihesteko neurriak hartu beharko lituzke.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Euskadiko Toki Erakundeak [apirilaren 7ko 2/2016 Legeak](#) Euskadiko Autonomia Erkidegoaren toki erakundeak eskumen markoa ezarri du. Eremu honekin lotuta, azpimarratu beharra dago 17. artikulua adierazten duela udalerriek eskumen propioak gauzatu ahalko dituztela *“ingurumenaren babesa eta garapen jasangarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta”*. Era berean, hirigintza eremuko antolaketa, kudeaketa, gauzatzeko eta diziplinan eskumenak onartzen dituzte. Lege honen 43. artikulua ezartzen du bizilagunen ingurumen eta hiriko espazio publiko egoki eta jasangarri batez gozatzeko eskubidea dutela. Toki erakundeak gardentasunaren gutxieneko betebeharen artean, 54 d) artikulua informazio osagarria, laburra eta argia ematen du hirigintza eta ingurumen zerbitzuen zorroari buruz.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

Ekintza-plan honetan jasotako ekimenek lotura zuzena dute ingurumen arloko planean sartutakoekin, bereziki ingurumenaren eremuan jarduten diren elkarteekin izandakoak.

Aurretik aipatutako jardunez gain, hauek ere aipatu beharra dago:

4.1. Bilerak elkarteekin

2016an Arartekoak ondare kulturala babesteko interesa duten hainbat talde eta pertsonen elkarteekin egon da harremanetan. Ancora Elkartearen kasua da Donostiako ondare kulturala babesteko eta defendatzeko osatutako elkarte hiritarra- eta Donostiako Ondare Kulturala Defendatzeko Elkartea. Arartekoak [Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkartearekin](#) bilera bat izan du, industria ondarea egoki babesteko eta industria eraikin eta instalazioak desegitean hirigintza eta ingurumen araudia betetzen dela kontrolatzeko.

4.2. Bilerak administrazioarekin

[Sestaoko Udalarekin](#) harremanetan egon gara, hirigintza eremuarekin lotutako erantzuteke dauden gaien jarraipena egiteko.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

- Arartekoak adierazi du herri-administrazioen arreta eta errekurso ekonomikoak zaharkituta dauden auzo edo inguruetako hirigintza eta gizarte eraberritzean zentratu behar dutela. Estrategia horren barruan degradatuen dauden eremuei eman behar zaie lehenetsuna. Erakunde honek hiri eraberritzeari zuzendutako tokiko politiken beharrezko ikuspegi barneratzailea aipatu du, inteligenteagoa, jasangarriagoa eta sozialki barneratzaileagoa den hiri garapen baten oinarritutakoak.
- Adierazi beharra dago lur berrien urbanizazioa sustatzen ez duen hiri garapen eredu baten aldeko apustua egiteko beharra. Horretarako, gogoratu beharra dugu lurzoru mota hori ez dela egokia urbanizatzeko edo eraikuntzaren bidez eraldatzeko eta, gainera, lurzoruari eta hirigintzari buruzko [ekainaren 30eko 2/2006 Legean](#) araubide juridikoak ezarri dituen mugaketen menpe dagoela.
- Arartekoak gogoratu du lursailak kontrolatzeko funtzio publikoa betetzea udalaren plangintzaren eta programazioaren zati izan behar dela, administrazio horrek eduki ditzakeen bitarteko tekniko eta pertsonalen arabera.

Udal planifikazio ikuskatzaileak arriskuaren araberako esku-hartze lehentasunak zehaztu behar ditu.

Zentzu horretan, arreta berezia eman behar zaie hondakinak modu irregularrean isurtzeko puntu horiei, sute arriskua areagotzen duten hondakinak sar daitezkeelako bertan; hala nola, bidegabe pilatutako etxeko hondakin jakin batzuk edo gailu elektronikoak. Udal administrazioek baso-suteen arriskua izan dezaketen zabortegien ilegaltasuna adierazi behar dute, zabortegia kentzea edo suteak saihesteko neurri zehatzak hartzea eskatuz jabeei.

- Balore kulturala duten eraikinak babesteko mantentze egokiari dagokionean, Arartekoaren ustez euskal kultura ondarea babesteko eskumena duten euskal administrazioek (Eusko Jaurlaritzak, udalek eta foru organoek) koordinazio-mekanismo arinagoak eta azkarragoak ezarri beharko lituzketela, erakunde bakoitzaren eskumen-eremuaren barruan, tokiko kultura ondarea behar bezala babestuta dagoela bermatzeko eta hori hondatzea edo desagertzea saihesteko.

II. ATALA

17

ETXEBIZITZA

1. Arloa kopurutan








2016an, atzera botatako edo beste defentsa erakundeetara igorritako keak alde batera utziz gero, Etxebizitza arloan 136 espediente kudeatu dira, hau da, Arartekoaren erakundeak izapidetutako guztien %6,30. Dagokien administrazioen arabera, honela banatu daitezke espediente horiek:

- Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurilaritza) 112
- Tokiko Administrazioa9
- Foru Administrazioa1

Bestalde, gaia kontuan izanez gero, honela banatu dira:

- Etxebizitza babestuaren alokairua..... 60
- Etxebizitzarako sarbidea: premia frogatzea eta esleitzeko prozedura 34
- Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa..... 27
- Beste alderdi batzuk7
- Kalteak etxebizitza babestuetan eraikitze akatsengatik6
- Etxebizitza erosi eta birgaitzeko laguntzak2

2016an kudeatutako erreklamazioen tramitazio xehetasunari dagokionez, dela 2016an jasotakoak dela 2016ko urtarillaren 1ean, txosten hau idazten hasitakoan, indarrean jarraitzen zutenak kontuan izanez gero, hau da arloko egoera:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
169	44	125	27	51	11	36

2. Kexarik aipagarrienak

Etxebizitza arloaren barruan dauden gaien sailkapenari jarraituz, herritarren erreklamazioa eragin duten kontu nagusiak aztertuko ditugu jarraian.

2.1. Etxebizitzarako sarbidea: premia frogatzea eta esleitzeko prozedura

Aurten oso handitu da herritarren kontsulten eta kexen kopurua. Haietan kexagileek diotenez, premia behar dute gizarte

alokairuko etxebizitza bat eta [Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak](#) ez du haien eskaera onartzen.

Euren kexetan adierazten dutenez, urte asko eman dute Babespeko Etxebizitza eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroan izen emanda, ez zaie babespeko etxebizitzarik esleitu eta euren sarrera ekonomiko urriak direla-eta ezin dituzte ordaindu errentamendu pribatuaren prezio altuak ordaindu.

Erakundeak aztertutako kasuetan, gure ustez, Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzek emandako erantzunak babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurak arautzen dituen araudiaren arabera ziren eta, erreklamazio horiek, berriz ere, agerian uzten dute administrazio publikoak daukaten etxebizitza publikoen kopurua herritarren eskaria baino askoz txikiagoa dela.

Ildo horretatik, komenigarria da [2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzendariaren 2014 Ebaluazio Txostenean](#) jasotako ondorioak hona ekartzea. Haietan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak berak onartzen du babespeko alokairu politikari dagokienez Euskal Autonomia Erkidegoaren babes publikoko etxebizitza politiken plangintza tresna nagusian ezarritako aurreikuspenak ez direla betetzen ari. Hau dio ebaluazio txosten horrek:

“Lehen bi urteetan ezin izan dira erdietsi Plan Zuzentzaileak ezarritako alokairuko eraikuntza-helburuak. Horrenbestez, eraikuntza-programak bultzatzeko formulak bilatzeko premia planteatzen da, Plan Zuzentzailearen amaieran helburuak bete ahal izateko”.

Arestikoa esanda, bidezkoa da Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari 2016an egindako esfortzua aitortzea, [Etxebizitzaren 3/2015 Legean](#), etxebizitza duin eta egokirako esku-bide subjektiboa mailaka aplikatzeko, ezarritako xedapenak betetzeko: horri esker, hiru kide edo gehiagoko bizikidetzaren unitate askori funtsezko eskubide hori aitortu eta bermatu zaie. Halaber, gizarte alokairuko etxebizitzak esleitu zaizkie bi kidek osatutako bizikidetzaren unitateei, 2017an bizikidetzaren unitate horiek ere lege babesa izango dutela aurreikusita.

2.2. Etxebizitza babestuaren alokairua

Errentarien eta administrazio erakunde publiko errentatzaileen arteko eztabaidek pilatzen dute erreklamazioen eta Arartekoaren etxebizitzaren arloan emandako ebazpenen kopururik handiena. Alderdien artean alokairu publikoen zenbatekoagatik, maizterrei jasanarazten zaien komunitate-gastuengatik eta fidantzen atxikipenengatik (kontratuak ez betetzeagatik) alderdien desadostasunak dira auzigai ohikoak.

Aurten, berriz ere, erakunde honek aipatu egin nahi du Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari atxikitako [Alokabide sozietate publikoak](#) emandako laguntza; izan ere, babes

ofizialeko etxebizitzaren eta “Bizigune” Etxebizitza Hutsaren Programan sartutako etxebizitzaren errentariak aurkeztutako desadostasun asko ondo konpontzen lagundu du.

Maizterrek planteatu ohi duten arazoetako bat da Alokabide sozietate publikoak ez duela fidantzaren zenbatekoa itzultzen errentamendu kontratua amaitzean. Fidantzak itzultzea ukatzeko zioa errentak edo haien pareko kopuruak ordaintzeke egotea edota etxebizitzak gabeziak edo kalteak, errentari orok etxebizitza egoera onean kontserbatzeko hartzen duen betebeharra bete ez izana erakusten dutenak, egotea da.

Batzuetan, Arartekoak esku hartu ondoren eta maizterrek helarazitako alegazioak aztertuta, sozietate publikoak ikusi du hasieran hartutako erabakia ez zegoela behar bezain justifikatuta eta fidantzak itzuli dizkie errentariei. Aztertutako beste kasu batzuetan, egindako atxikipena egokia zela egiaztatu da, eta ezin izan da ondorioztatu administrazioaren jardura ardura urrikoa edo irregularra izan denik.

Etxebizitzaren kontserbazio desegokiagatik -gehienetan gauzak kenarazi eta alokatutako etxebizitzan garbiketa eta pintura lanak eginarazten dituzte- gertatzen diren fidantzen atxikipenen kopurua txikiagotzeko, komenigarria litzateke Alokabide sozietate publikoak, errentamendu kontratuak amaitu aurretik, errentariei berriaz ohartaraztea, oro har, euren kontratuetan hartutako betebeharrak bermatzeko gordailuan utzitako fidantzak ez itzultzea dakarren konponketa motari buruz.

Babespeko errentamenduari buruzko atal hau amaitzeko, esan behar da, halaber, sumatu denez, errentariak kexa eta kontsulta gehiagotan adierazi dutela beste etxebizitza bat esleitzeko eskatu dutela -oro har handiagoa edo logela gehiagokoa, haien bizikidetzaren unitatearen eraketa aldatzeagatik-, baina, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, aldatzeko aukera ukatu diela, haren ustez indarreko araudiak familia unitateko kide bakoitzeko 15 m²ko legezko gutxieneko ratioa betetzen denean baino ez baitu derrigortzen etxebizitza ibilbideetan sartzera.

Arestian esandakoa egia izanik, babespeko etxebizitza parkearen barruan etxebizitza aldaketa bat eskatzen duten errentarien eskaerak pixkanaka gora egiten dutela ikusita, erakunde honen ustez “etxebizitza ibilbideen” arauketa berria ezarri beharraz ohartarazi behar da, Etxebizitzaren 3/2015 Legearen 39. artikuluan ezarritako aginduaren babesean. Halaber, sumatzen denez, komenigarria administrazio publikoek, logelapremiari lotutako beste egoera batzuei erantzuna ematea alde batera utzita, behar diren baliabideak jartzea, etxebizitza babestuaren ibilbideak gauzatu daitezken eta gizarte alokairuko etxebizitzak pertsona eta familia errentarien beharrei egokitu daitezken lortzeko, bizitzako etapa guztietan.

2.3. Kalteak etxebizitza babestuetan erakitze akatsengatik

Babes publikoko etxebizitzetan agertzen diren eraikuntza gabeziak konpontzeari buruz ere kexatu ohi dira etxebizitza babestuen onuradunek.

Aurten aztertutako kexak aztertuta, Arartekoak berriz esan behar du administrazio publikoek prestasunez eta epean erantzun behar dietela babestutako etxebizitzaren jabeek edo erabiltzaileek eraikuntza-hutsuneengatik aurkeztu dituzten erreklamazioei, etxebizitza horiek lehenbailehen berreskura ditzaten beren ezaugarri izan beharko liritekeen kalitatea eta bizigarritasuna; horrela, erreklamazioak bide judizialean sartzera eta horrek eraikuntza-hutsuneak konpontzeko orduan ekar dezakeen atzerapena saihesteko.

Arazo horri dagokionez, aurten berriaz aipatu behar da kasu batzuetan etxebizitza babestuen erakunde sustatzailea kooperatiba bat dela eta, beraz, kasu horietan etxebizitzaren jabe den kexagilea kooperatiba-kidea dela.

Kasu horietan jabeek, kooperatiba-kide izateagatik, zalan-tzak izaten dituzte etxebizitzan agertzen diren gabeziak konpontzeko erreklamazioa egiteko eskubideari buruz. Erakunde honen ustez, inguruabar hori ezin daiteke oztopo izan ikuskaritza zerbitzu publikoek arreta eta emaitza berarekin egiaztatu eta ebaluatu ditzaten eraikuntza-hutsuneak, beste sustatzaile publiko zein pribatu mota bateko etxebizitzetan erakusten dutenari dagokionez. Ildo horretatik, [Etxebizitzaren Euskal Behatokiak](#) egindako “[Kooperatibei eta BOE-en sustapenari buruzko txosten](#)”ean egindako hausnarketak oso egokiak dira. Han adierazten denez, besteak beste, administrazio publikoek “*etxebizitza-kooperatibaren kudeaketa gainbegiratzeko, jarraipena egiteko eta prebentzioa egiteko lana hartu beharko lukete euren gain, hein batean behintzat*”, hori dena, ikusita Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorenak hauteman duenez, etxebizitza kooperatibei lotutako kontsulten kopurua nabarmen handitu dela.

2.4. Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

Halaber, 2016an Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak hileko iragarki-taulan Babespeko Etxebizitza eta Zuzkidura Bizitokiaren Eskatzaileen Erregistroan ukatutako alta eta baja eskaerak argitaratzen jarraitu du. Hori dela-eta, kexa espediente berriak aztertu dira. Kexa horietan, etxebizitza eskatzaileek ediktuen argitalpen horiek eragiten dituzten ondorioak salatzen zituzten: erabakiak ez ezagutzea eta babesgabatasuna.

Erakunde honek behin eta berriz kritikatu duen jardunbide batek badirauela ikusita, 2016ko otsailaren 25ean Arartekoak [3/2016 Gomendio Orokorra](#), “**babestutako etxebizitza eskatzaileen erregistroko bajak norbanakoari jakinarazteko beharri buruzkoa, etxebizitza duina edukitzeko eta gizarte bazterketarako arriskua saihesteari begirako prestazio ekonomikoetarako eskubide subjektiboan duen eraginagatik**”, egin zuen. Gomendio hori ondorengo 4.1. atalean aztertu da xeheago.

Esku-hartze horren ondorioz, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak konpromisoa hartu du Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroaren erabakiak norbanakoari jakinarazteko sistema bat ezartzeko, 2017ko urtarrilaz geroztik. Ez du onartu,

ordea, iragarki tauletan argitaratuta egindako bajak berraztertzea eta, beraz, kexa espediente askotan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren administrazio jardura behar bezala zuzendu ez dela ondorioztatu behar izan du erakundeak (540/2015/QC, 1062/2015/QC, 1113/2015/QC, 1918/2015/QC, 2087/2015/QC, 159/2016/QC, 173/2016/QC y 1048/2016/QC kexa espedienteak).

Azkenik, atal honetan egokia deritzogu Irungo Udalak izandako jardura proaktibo eta eraginkorra aipatzeari. Izan ere, Arartekoaren erakundeak lankidetzara eskaera bat egin zion, etxebizitza babestu baten erosle batek aurkeztutako kexa baten kariatara, zeinak, banku finantzaketarik ezagatik, ezin izan baitzuen eskuratu esleitutako udal etxebizitza.

Kexagileak bere kexa idazkian salatu zuenez, enpresa eraikitzaileak ez du onartzen babes publikoko etxebizitza erosteko aurreratutako kopuruak itzultzea eta udalaren bitartekaritza eskatu du.

Irungo Udalak erakunde honetara bidalitako erantzun txostenean azaldu du kexagilearen asmoa onartua izan dela eta beharrezkoak ziren kudeaketak egin direla enpresa eraikitzaileak babespeko etxebizitza erosteko aurreratutako zenbatekoak bueltatu ditzan.

Era berean, udalak jakinarazi duenez, irizpide bera aplikatzea erabaki du kexagilearen antzeko egoeran dauden pertsonen dagokienez. Erakunde honentzat jarrera hori jardun administratibo egoki baten seinale da, zalantzarik gabe.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Atal honetan aztertu behar diren gai nagusiak Etxebizitzaren 3/2015 Legeari buruzkoak dira. Lege hori iazko irailaren 26an jarri zen indarrean eta Konstituzio Auzitegiak haren artikulua batzuek eten ditu, guztiz edo partzialki, Estatuak jarritako konstituzio-kontraktasuneko errekursoa ebazteko epaia eman arte. Etenda utzi diren artikulua zehatzak [uztailaren 19ko 144/2016 autoan](#) adierazi dira.

Etxebizitzaren arloan beste autonomia-erkidego batzuek (Nafarroa, Andaluzia, Kanariar Uharteak) argitaratu dituzten legeekin gertatu bezala, Estatuak 3/2015 Legean jasotako alderdi batzuek jarri ditu zalantzan; izan ere, haren ustez Euskal Autonomia Erkidegoak ez dauka eskumen nahikorik “etxebizitzaren erabilera egokia” eta “etxebizitza hutsa” legezko kontzeptuei buruzko legeak egiteko edo jabeen betebeharrak juridiko batzuek ezartzeko eta etxebizitzak berezko duen gizarte eginkizuna betetzen ez duela uste denean esku-hartze neurri publikoak hartzeko. Besteak beste, neurri hauen aplikazioa dago etenda: gizarte eginkizuna ez beteagatik desjabetzea, derrigorrezko errentamendua etxebizitza hutsen kasuan eta isunak eta zehapenak jartzea.

Arestikoak, ordea, ez die eragiten legearen xedapen gehienei ezta haren funtsezko aurreikuspenei, hala nola etxebizitza

duin eta egoki baten legezko okupazioa eskuratzeko eskubide subjektiboaren mailakako arauketa eta aplikazioari.

Etxebizitzaren Legeak askotan aipatzen du geroko erregelamenduzko garapena. 2016an Eusko Jaurlaritzak eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak arautzeko ekimen handiagoa izango zutela aurreikusarazten zuen horrek, baina erregelamendu bat baino ez da argitaratu, [martxoaren 15eko 42/2016 Dekretua](#), fidantzak jartzeari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroari buruzkoa.

42/2016 Dekretuaren bidez, Eusko Jaurlaritzak Etxebizitzaren Legearen 54. eta 55. artikuluetan eta azken xedapenetako lehenengoak ezarritako agindua bete du. Berrikuntza garrantzitsua izan da hiri finkak etxebizitzarako nahiz beste erabilera batzuetarako alokatzen dituzten pertsona edo erakundeentzat. Izan ere, euren alokairuak bermatzeko jasotako fidantzak Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzetan jarri behar izan dituzte eta orain haien errentamendu kontratuek Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistro berrian inskribatuta egon behar dute.

Azken batean, 2017an Etxebizitzaren 3/2015 Legean jasotako manuak garatzeko beste arau batzuek ematea eta legearen alderdi berriak arautzen dituztenei lehentasuna ematea espero da. Alderdi berri horien artean, besteak beste, etxebizitza duin eta egokia izateko eskubide subjektiboa dago, era horretan, administrazio publikoen eta auzitegien aurrean eskubide subjektiboa eskatzeko baldintzak ezartzeko. Haien artean dago, halaber, prestazio ekonomikoen sistema. Etxebizitza edo ostaturik ezean, etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea betetzea ahalbidetuko du sistema horrek.

Etxebizitza Prestazio Ekonomiko berriaren arauketari lotuta, hain zuzen ere, Arartekoaren ustez elkarte batzuek erakutsitako kezkarren berri eman behar da. Elkarte horiek gizarte eta bizileku bazterkeria arriskuan dauden pertsonen eskubideen alde dihardute, eta kezkatuta daude egun Etxebizitza Prestazio Osagarria jasotzen duten pertsonen egun eskatzen zaizkien legezko baldintzak gogortu daitezkeelako. Prestazio bien araudiak bat etortzean, gerta liteke oinarriko etxebizitza gastuei aurre egiteko prestazio bat (Etxebizitza Prestazio Osagarria) jasotzen duten pertsona batzuek ordezko Etxebizitza Prestazio Ekonomikorako eskubiderik ez edukitzea eta sarrera ekonomikoak urritzea. Etxebizitzarik eta oinarriko beste baliabide batzuek ez edukitzearen egoera larriagotu lezake horrek.

Horregatik, [Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak](#) kontu oso handiz idatzi beharko du arau proiektu hori eta sakonki aztertu beharko ditu egun Etxebizitza Prestazio Osagarria jasotzen duten pertsonak eta familiak, prestazio ekonomikoen sistema berriarekin ere ohiko etxebizitza edo ostaturiko aldirak.

Izan ere, 2016an, [abenduaren 23ko 9/2015 Legeak](#), Euskal Autonomia Erkidegoko 2016. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituenak, zarpigarren xedapen gehigarrian ezarritako aurreikuspenen, ezarri duen araubide iragankorri esker, prestazio biek batera iraun ahal izan dute eta haien zenbatekoa 250 eurotan ezarri da.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

4.1 Gomendio orokorrak

lazko urteko txostenean, “Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura” atalean, hainbat urtez, Babespeko Etxebizitza eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroan alta eskaerak ukatzeko eta bajak erabakitzeak dauden berme formalik ezak dakarren arazoa aztertu zen.

Txosten horretan, Arartekoaren erakundeak ohartarazi zuenez, Etxebizitzaren 3/2015 Legea indarrean jarrita -zeinak etxebizitza duin eta egokiaren legezko okupazioa eskuratzeko zuzenbide subjektiboa onartzen baitu-, erregistroko antzinatasuna funtsezko baldintza bihurtzen da bizilekurako eskubidea bermatzeko eta, horregatik, berriz adierazi, zen administrazioaren jardunak are gehiago bete behar dituela berme formal guztiak etxebizitza babestua eskatzen duten pertsonen eskaerari baja emanda amai daitezkeen prozedura guztietan.

Bestalde, 2015eko txostenean jaso zenez, Arartekoaren erakundeak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren ordezkariekin 2015eko abenduan izandako bilera batean, berriz eskatu zuen, 2016ko urtarrilaren 1az geroztik, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko izen emateen ukoak eta bajak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean jasotako xedapenak betez egin behar zirela.

Sailak eskaera bete ez zuenez gero, otsailaren 25ean erakunde honek **3/2016 Gomendio Orokorra** eman zuen, **“babestutako etxebizitza eskatzaileen erregistroko bajak norbanakoari jakinarazteko beharrezko gainea, etxebizitza duina edukitzeko eta gizarte bazterketarako arriskua saihesteari begirako prestazio ekonomikoetarako eskubide subjektiboan duen eraginagatik”**.

Etxebizitza babestuaren eskatzaileen erregistroaren erabakian norbanakoari ez jakinarazteak dakartzan ondorio kaltegarri larriak egiaztatuta, zeinek etxebizitza duin eta egokirako eskubide subjektiboari eragiten eta Etxebizitza Prestazio Osagarriari baitiete, ebazpen orokor horretan Arartekoak gomendio hau egin zion Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:

- Babestutako etxebizitza eta zuzkidura-etxebizitza eskatzaileen erregistroko baja ebazpenen eta inskripzio ukapenen jakinarazpenak norbanakoari egin diezazkiotela eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 59.1. artikuluan ezarritakoari jarraiki.
- Etxebizitzarako prestazio osagarria edo bestelako edozein prestazio ekonomiko etetea erabaki aurretik, eta bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko prozedurak hasi aurretik, babestutako etxebizitza eta zuzkidura-etxebizitza

eskatzaileen erregistroko baja ebazpenen jakinarazpenak behar bezala egin direla egiazta dezala Lanbideek.

Sailak berehalako eta aldeko erantzuna eman zuen oinarriko beharrezko eta gizarteratze prozesuak dakartzan gastuei aurre egiteko prestazio ekonomikoari eragiten dien gomendio orokorrari eta, jakinarazi zuenez, Lanbideek eman duen jarraibideak Etxebizitza Prestazio Osagarriaren eteteak eta eman behar ez ziren prestazioak itzultzeko prozedurak eraginik gabe uztea ahalbidetzen du, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan baja emateko ebazpenaren aurretik norbanakoari jakinarazi izana egiaztatzen ez denean. Alderdi hori xehetasunez aztertu da kapitulu honetako “gizarteratze” arloari buruzko 4. atalean.

Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko bajak jakinarazteko moduari dagokionez, iragarki tauletan argitaratuz egin diren baje baliozkotasunari eutsi dio sailak eta ez du onartu erreklamatu duten pertsonen erregistroan duten antzinatasuna berrikustea. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, ordea, etorkizunerako konpromisoa hartu du, honakoa adieraziz:

“Somos conscientes de que el sistema de notificación actualmente vigente, y regulado en la Orden de 15 de octubre de 2012, es mejorable, y por ello se ha adoptado la decisión por parte de este Departamento de Empleo y Políticas Sociales de impulsar un nuevo sistema de notificación individual. Sistema de notificación individual que recordaremos ha venido reclamando el Ararteko desde su primera recomendación en el año 2008.

Confiamos en que el nuevo sistema de notificación ayude a que no se produzcan más quejas de este tipo, y que las personas inscritas en el Registro de Solicitantes de Viviendas Protegidas y Alojamientos Dotaciones tengan una información suficiente y adecuada sobre la situación de sus expedientes de demanda de vivienda a partir del mes de enero de 2017”.

Konpromiso hori gauzatzeko, zalantzarik gabe, etxebizitza duin eta egokia izateko eta prestazio ekonomiko publikoetarako eskubidearen bermeak hobetuko lituzke, eta datozen urteetan Arartekoaren erakundeak haren jarraipena eta balorazioa egingo ditu.

4.2. Ofiziozko jarduerak

Bestalde, etxebizitza arloaren plana garatuz, aurten 2015ean hasitako **ofiziozko hiru jarduera** izapidetzen jarraitu da. Haietan, Arartekoak euren Batzar Nagusietan Ondasun Higienezin gaineke Zergaren egungo arauketaren aldaketa bat sustatzeko aukera aztertze eskatu zion **Araba, Bizkai** eta **Gipuzkoako** foru aldundiei, udal etxebizitzaren errentarietara zerga hori ordaindu behar ez izateko, 2014az geroztik Aloka-bide sozietate publikoak kudeatutako etxebizitza babestuen edo parekoen onuradunekin gertatzen den bezala.

Txosten hau ixteko egunean erakunde honek ez dauka Zergak Koordinatzeko Organoak hartutako erabakia. Izan ere, foru administrazioek egokitzen jo dute Arartekoaren eskaera hari bidaltzea erantzun bateratu eta koordinatua ematen saiatzeko.

Hortaz, ofiziozko hiru espediente horiei dagozkien ebazpenak hurrengo ekitaldian emango dira.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Arartekoaren erakundearen aburuz, Etxebizitzaren 3/2015 Legearen laugarren xedapen iragankorrean xedatutakoa betez etxebizitza duin eta egokirako eskubide subjektiboa mailaka aplikatzea neurri oso ona da eta, zalantzarik gabe, 2016an, bizileku bazterkeriako arrisku larrian edo etxebizitza egokia izateko premiazko beharrezana duten familia askoren ongizateari lagundu dio.

Aurreikusten denez, datozen bi urteetan etxebizitzaren legezko okupaziorako eskubide subjektiboa etxebizitza duinik ez duten edo alokairu librearen merkatuan etxebizitza gas-tuei aurre egiteko zailtasun larriak dauzkaten beste bizikidetzaren unitate batzuei ere aplikatuko zaie, legez eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Etxebizitzaren Legean ezarritako xedapenak bete ez direnez, noski, euskal administrazio publikoek arau eta aurrekontu neurri osagarriak hartu behar dituzte eta esfortzu guztiak egin behar dituzte eskubide hori asetzeko. Izan ere, beste gizarte eskubide batzuk bezala (hezkuntzarako eskubidea eta osasunerako eskubidea), hura ere funtsezkoa da baliabide ekonomiko urriak dauzkaten pertsonen eta familien bizi baldintzak hobetzeko eta berme bat da osatzen duten pertsonen duintasunaren eta berdintasunaren aldeko kolektibitate osoaren beharrezko gizarte kohesiorako.

Urtero gero eta nabarmenagoa da gizarte alokairuko etxebizitzaren eskariak gora egiten duela pixkanaka baina, arestiko ataletan adierazi denez, ordea, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila ez da betetzen ari 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzendarian bertan ezarritako errentamendu babestua sustatzeko helburuak. Hori dela-eta, premiazko neurriak hartu beharko dira, planaren indarraldia amaitu aurretik, errentamendu erregimeneko etxebizitza babestuen parkeari buruz hautemandako desoreka zuzentzen saiatzeko.

Azken batean, erakunde honek berriz eskatzen die euskal administrazio publikoei babes publikoko etxebizitza parkea handitzeko, Etxebizitzaren Legean ezarritako erronkei erantzun egokia emateko eta, denboraren poderioz, esleitutako alokairuko etxebizitza baino handiagoa edo bestelako eraketa daukana behar duten errentari publikoen eskaerei aurre egiteko.

Babespeko Etxebizitza eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroko inskripzioaren antzinatasunaren eta etxebizitza duin eta egokiaren legezko okupaziorako eta zenbait prestazio ekonomiko jasotzeko eskubide subjektiboaren onarpenaren arteko legezko lotura dela-eta, Arartekoaren erakundeak jarraipena egingo dio Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak hartutako konpromisoari. Haren arabera, 2017ko urtarrilaz geroztik, erregistro horretako izen emateen ukapenak eta baja emateko erabakiak norbanakoari jakinaraziko zaizkio eta behar diren berme formalak hartuta.

Azkenik, egiaztatu denez, etxebizitzaren arloan eta gizarte laguntzan eskumenak dauzkaten administrazio publikoen arteko koordinazioa berme bat da pertsona eta talderik ahulenak babesteko eta ezinbesteko tresna bat bizileku bazterkeria saihesteko.

III

ATALA

Arartekoaren
jarduerak arreta
publikoa behar duten
taldeak babesteko

III. Atala

ARARTEKOAREN JARDUERAK ARRETA PUBLIKOA BEHAR DUTEN TALDEAK BABESTEKO

III

Arartekoaren lan-arloak gaikako banaketaren arabera egituratu izan dira beti. Banaketa hori osatzeko, Ararteko erakundearen jarduerak sailkatu izan diren alorretan barreiatuta dauden eta ezaugarri bereziak dituzten zenbait talderen arazoak berriazko tratamendua egiten da.

Alde horretatik eta Ararteko erakundeak pertsona guztien eskubide guztiak bermatu behar dituela uste izanda, beharrezkotzat jo da beren eskubideak burutzean kalteren bat izan dezaketen talde batzuekin lehentasunez jardutea, ahultasun handiagoko balizko egoeran daude eta.

Arreta publikoa behar duten taldeen gaineko arlo horiei esker, ikuspegi praktikotik begiratuta, talde horiekin zerikusia duten gaiak bila eta aurki daitezke urteko txostenean, eta ikuspegi orokorra ematen dute. Baina garrantzitsuena zera da: talde horiek dituzten arazo eta beharrei berriaz erantzuteko eta beraien arazoak ikusarazteko jarduera-esparruak sortzeko asmoz eratu zirela. Gainera, talde horien inguruan estrategia koherentea burutzen laguntzen dute, talde bakoitzari dagokion arloko jarduera-planaren barruan.

Talde horiekin lehentasunez jarduteari eman nahi zaion garrantziak justifikatzen du urteko txostenean bakoitzak bere atala izatea, haien eskubideen gaineko berme-lan garrantzitsu hori balora dadin.

Aurreko bi urteetan egin zen moduan, Haur eta Nerabeentzako Bulegoa ikusgai egitea sustatu da. Bulego horrek berezko proiektzioa izango du, eta bereizitako tokia urteko txosten honetan, izan ere, txosten orokor honi erantsitako txosten batean bilduko da 2016an burutu duen jarduera.

Atal honetan, hamaika puntutan bildu dira arreta publikoko taldeez burutu diren jarduerak:

1. Familiak
2. Emakumeen berdintasuna eta osotasuna
3. Ezintasunen bat duten pertsonak
4. Gaixo kronikoak
5. Buruko gaixotasunak edo nahasmenduak dituzten pertsonak
6. Espetxeratuak
7. Ijitoak eta beste gutxiengo kultural batzuk
8. Etorkinak eta kultura aniztasuna
9. Lesbianak, gayak, bisexualak, transexualak eta intersexualak (LGBTI pertsonak)
10. Adinekoak eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak
11. Talde terroristen biktimak

III. ATALA

III

1

FAMILIAK

Aurrekariak



Botere publikoek familiak babesteko duten betebeharrak Konstituzioaren 39. artikuluan du azken oinarri juridikoa. Halaber, Euskal Herriko Autonomia Estatutuak 10-39. artikuluetan dio familien babesa eskumen eskusibokoa dela, estatutu-arauak “komunitate-garapen, emakume kondizioaren arazo, eta haur, gazte eta hirugarren adinekoen aldeko politika” gisa definitzen dituen arloen barrukoa. Euskadin, *Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legeak* eratu du familiei laguntzeko politika publikoen oinarriak finkatu berri dituen lege- eta araudi-esparrua. Lege horretan, gai horren inguruko esku-hartze publikoaren oinarriak eta printzipioak ezartzen dira eta Eusko Jaurlaritzak burututako araudi-garapenaren bidez osatu da; horrek arautu ditu [seme-alabengatiko diru-laguntzak](#), [lana eta familia bateragarri egiteko laguntza ekonomikoak](#) eta [familia-errenta estandarizatzeko sistema](#).

Familiak, zalantzarik gabe, botere publiko guztien babes berezia behar du, pertsonen garapen osorako euskarri material eta afektiboa izatearen funtzio ezinbestekoa baitu, baita egiteko kuantitatibo eta kualitatibo bat ere, adingabeei, adinekoei eta gaixotasunagatik edo mendekotasunagatik premia bereziak dituzten pertsoneri arreta emanaz betetzen duena.

Arartekoak, arlo honetan, familiak babesteko politika publikoak bultzatu eta indartu daitezen sustatzen du, familia-eredu askotarikoen garrantzia kontuan hartuta. Zuzenbideak aintzatetsiak ditu familia-ereduok, eta zenbait kasutan arreta berezia behar izango dute, beren funtzioak betetzeko behar dituzten prestazio guztiak erabateko berdintasunez eskuratzeko. Era berean, familiak babesteko politika publiko horiekin loturiko herritarren kexak bideratzen ditugu, baita horiei arreta eskaintzea helburu duen beste edozein jardura publiko ere.

1. Arloa kopurutan

2016an, 14 espediente kudeatu ziren Familien Arloan; espediente gehienak familiei buruzko politika publikoen ingurukoak izan dira, administrazioaren eta administrazio-prozeduraren funtzionamenduaren ingurukoak eta lana, bizitza pertsonala eta familiarra adiskidetzearen ingurukoak.

2016ko abenduaren 31n, 2016an kudeatutako eta 2016ko urtarrilaren 1ean izapidetze-prozesuan jarraitzen zuten kexa-espedienteen izapidetzearen egoera hauxe zen:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
14	8	6	1	4	1	-

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Familia ugariaren titulua lortzeko edo tituluaren ondorio batzuez gozatzeko legezko betekizunekin zerikusia duten arazoak

a) Familia ugariaren titulua bikoteak apurtzen diren kasuetan, bereziki, zaintza partekatua kasuan

Erakunde honetan familia ugarien inguruko legediaren aplikazioarekin eta kudeaketarekin lotutako zenbait kexa jaso ditugu; foru aldundiei dagokie hori egitea. Legedia horrek ezarri ditu familia ugarizat jotzeko betekizunak, familia horietako kideei onura ekonomikoez gozatea ahalbidetzeko xedez. Aipatutako espedienteetan, esanguratsua da kexa askotan dibortzioagatik edo banantzeagatik bikotea apurtzen den kasuetan sortzen den arazoa aipatzea. Kexa horietan adierazten da, horren ondorioz, zaila dela guraso bati edo besteari esleitzea familia ugariaren titulua. *Familia Ugariak Babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen* 2.2 c) artikulua ezartzen du beharrezkoa dela bi gurasoetako bat aukeratzea familia ugariko kidearen izaera mantentzeko. Horrenbestez, beste gurasoak titulartasuna galduko luke, familia ugaritik kanpo geratuz. Gurasoen arteko adostasunik ez badago, bizikidetzaren irizpidea hartuko da kontuan, hau da, familia ugariaren titulartasuna esleitu beharko zaio

judizialki zaintza duen gurasoari –aitari edo amari–. Ukuitako herritarrentzat zaila da arau hori ulertzea, batez ere, kasu batzuetan. Izan ere, kasu horietan, zaintza ofizialki bati esleitu arren, bisiten araubidea zabala da eta bi gurasoek dute erantzunkidetasuna seme-alaben heziketa eta zaintzari dagokionez. Beraz, bi gurasoetako bat familia ugariaren onuretatik baztertzen duen arau hori ez da bidezkoa. Arazo honen inguruan aurkeztutako kexen konponbidea desberdina izan daiteke. Batetik, gai horren inguruko Estatuko legeria erreformatu daiteke eta, bestetik, euskal eremuan *ex novo* arauketa bat egitea. Horrek, Familiei Laguntzeko [abendua-ren 12ko 13/2008 Legearekin](#) bat etorritz, bultzada berri bat emango lieke familiei laguntzeko neurriei, kargura dituzten seme-alaben kopuruaren arabera.

Horrez gain, estatuko araudi horrek ez ditu kontuan hartzen **benetan seme-alabekin bizitzearekin lotutako baldintza horiek, zaintza partekatuko kasuetan ematen direnak**. Familia ugarien inguruko Estatuko legeria aztertu ostean, erakunde honek gai horren inguruko iritzia eman zuen joan den urtean. Hala, azpimarratu zuen egia zela manu horrek eskatzen duela, seme-alabak gurasoetako batekin bizitzeari uzten dioten dibortzioen kasuan, bi gurasoetako bat aukeratu behar dela familia ugariaren titulua izateko. Hala eta guztiz ere, familia ugarien tituluen kudeaketako administrazio-jardunbidean –foru aldundien eskumenekoa dena– konponbide bat ezarri behar da, seme-alabak bi gurasoekin bizitzeari uzten dioten zaintza partekatuko kasuei erantzun bat emateko.

Zaintza partekatua nahiko berria da eta eremu honetan legezko hutsune bat dago; horrela, Eusko Jaurilaritzari helarazi genion arazo hori, Eusko Legebiltzarrak gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremanei buruzko [ekainaren 30eko 7/2015 Legean](#) adierazitakoa kontuan hartuta, irizpide homogeen bat ezartzeko foru erakundeek familia ugarien inguruko Estatuko Legearen manu hori aplikatzeko. Izan ere, familia ugarien titulua kudeatzeko eskumena foru aldundiek dute. Irizpide homogeen hori ezarri da; horrela, familia ugariaren titulua urtero txandakatuko dute guraso bien artean, zaintza partekatua den kasuetan. Formula horrek kudeaketa-arazo ugari sorraz dizkie foru erakundeei eta, horregatik, herritar askok kexak aurkeztu dituzte Arartekoaren aurrean, arauketa horrekin, ez direlako zaintza partekatuaren aukera hautatu duten gurasoen legezko itxaropenak asetzen. Izan ere, zaintza partekatua aukeratzen duten gurasoek familiei laguntzeko neurri desberdinen onurak izaten jarraitu nahi dute zaintza partekatuaren araubidea indarrean dagoen bitartean.

b) Familia ugarietako neba-arrebei hezkuntzaren arloko onurak emateko hedapen iragankorraren irismena familia horien titulua iraungi denean seme edo alaba nagusiak legezko gehienezko adina betetzeagatik

Izan ere, hori da 2016an erakunde honek jorratu duen beste gai bat. Arazoa *Haurrak eta nerabeak zaintzeko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearen* Bosgarren Xedapen Iragankorraren interpretazioarekin sortu dira; izan ere, xedapen horrek *Familia Ugariak Babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen* 6. artikulua berriaren ondorioetako batzuen

atzeraeraginezko luzapena aplikatu du, 2015eko urtarrilaren 1etik eta legea indarrean sartu arte, hau da, 2015eko uztailaren 17ra arte titulua galdu duten familia ugarietako bermatzeko matrikulazio- eta azterketa-hobariak lortu ahal izateko hezkuntzaren alorrean, lege hori indarrean sartzen denetik familia ugariaren izaera oraindik duten gainerako familiek bezalaxe. Izan ere, familia horiek titulua mantenduko dute (eta kasu horretan, titulu horren onura guztiak) 21 urte baino gutxiagoko seme edo alaba bat edo ikasten duen 26 urte baino gutxiagoko seme edo alaba bat, neba-arreba nagusiek izaera horretatik kanpo geratzeko legezko adina beteta duten arren.

Arazoa sortzen da Gipuzkoako Foru Aldundiak 26/2015 Lege horren **bosgarren xedapen gehigarriaren terminoen interpretazio murriztailea** egiten duelako, matrikulazio eta azterketa onuren luzapen hori soilik 2015/2016 ikasturterako aplikatzen dela jo duelako. Hala, jo du kexagilearen bi seme-alaba txikiek ezingo dutela baliatu, ikasturte horretatik aurrera, familia ugariaren kide izaera, hezkuntzaren alorrean zenbait matrikulazio eta azterketa onura izate aldera. Erakunde honen ustez, exegesiaren xede den bosgarren xedapen gehigarriaren literalasunetik eta izaeratik ezin da ondorio hori atera. Horregatik, txosten honen amaieran Gipuzkoako Foru Aldundiari zuzendutako gomendio bat jaso dugu. Hala, gomendio hori 2017. Urtea hasi ostean argitaratuko da eta gainerako foru aldundiei ere jakinaraziko zaie, baita Eusko Jaurilaritzari ere, xedapen horren aplikazio uniformeaz ezartzeko Euskal lurralde osoan. Gomendio horretan, egiaztatzen da ez dela egokia jotzea onura hori soilik ikasturte batean aplikatuko dela (2015/2016), Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten duen bezala. Izan ere, **Legean ez da mugaketarik ezartzen zentzu horretan, ez esplizitua, ez inplizitua. Herritarren aldeko lege-arau baten interpretazio murriztaile bat da hori**. Horrek, indar handiagoarekin, **legegilearen nahian beren-beregi babesteko** eskatuko luke eta interpretazio hori ezin da inolaz ere legezko xedapen horretan aurkitu. Hortaz, ondorioztatzen da Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako interpretazioa, kexagilearen familia onura horietatik baztertzen duena 2016/17 ikasturteetik aurrera, ez dela Zuzenbidera egokitzen eta *Haurrak eta nerabeak zaintzeko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeak* egindako *Familia Ugariak Babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen* erreformaren izaera eta literalasuna urratzen dituela. Hori dela-eta, Gipuzkoako Foru Aldundiari gomendatzen zaio **kexagilearen bi seme-alaba txikiei aitortzeko, ikasturteekin lotutako mugarik gabe, familia ugariaren inguruko legerian ezarritako hezkuntzaren arloko matrikulazio eta azterketa onurak, seme-alabek legeria horren aplikazio-eremutik kanpo geratzeko legezko adina bete arte**.

2.2 Familia ugarietako onura fiskalak bertan behera uztea: Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kasua Bizkaian

Euskadiko Kide Ugarietako Familien Elkartearen Federazioak (Hirukide) jarritako kexa bat jaso dugu; federazioak erakunde honi helarazi zion ez zegoela ados Bizkaian, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera, familia ugarietako kideen aukerako hobaria ken-

tzearekin Ondasun Higiezin gaineko Zergaren [maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Araua](#) indarrean sartzearen ondorioz. Gai horren inguruan egin ditugun azterketa eta esku-hartzearen ondorioz, Arartekoak [2016ko azaroaren 2ko Ebazpena](#) eman zuen. Horren bidez, [Bizkaia Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari iradokitzen dio seme-alabak euren kargu dituzten familien aldeko onura fiskalen aitortzearen aurre-egitea sustatzeko Ondasun Higiezin gaineko Zergan](#). Horrez gain, ebazpen horretan, euskal herri-administrazio guztiei gogorarazten zaie Legean beren-beregi jasotako herritarren demandari erantzun nahikoak eskaini behar dizkiotela. Batetik, neurri desberdinek aplikatzen zaizkien familiengan izan dezaketen eragin ekonomikoa aztertu behar da eta, bestetik, familiei babes egokia eman behar zaie, bereziki familia ahulenei. Hori guztia lortzeko, zalantzarik gabe, ezinbestekoa da era askotako neurri publikoetan –baita zerga arlokoetan ere– neurrien eraginpean dauden familiak seme-alabarik ote duten kontuan izateko ohitura hartzea. Zehazki, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailari iradokitzen diogu hausnarketa-prozesu bat hasteko, lurralde historiko horretan bere kargu seme-alabak dituzten familiak babesten dituzten tresna eta neurri ekonomikoen indartzean aurrera egiteko eta sakontzeko, horien bizitza-proiektuak autonomiarekin garatu ditzaten laguntzeko, kostuak konpentsatzeko neurriak ezarriz. Horrez gain, iradokitzen zaio, aurrerago, erabakiak hartu aurretik, aktibatu nahi dituen neurri fiskalek bere kargu seme-alabak dituzten familiengan izan ditzaketen eragina aztertzea, zerga-erreformak barne. Izan ere, espediente honetan zalan-tzan jartzen dena bezalako erreformek onura fiskalak kentzen dizkiete familia horiei. Bestalde, uste dugu aurrerapausoak egin beharko lituzkeela, oro har, familientzako zerga-onurak homogeneizatzeko, seme-alabak dituzten familiak Euskal Autonomia Erkidego osoan, beren bizitokia edozein dela ere, sistema berdintsu batez babesturik egon daitezten.

2.3 Familia bizitza eta lanbidea bateratzeko laguntzak: Amatasun-baimenaren epea diruz laguntzen ez den epe gisa

Zenbait kontsulta eta kexa jaso ditugu [martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuak aldatu duen familia eta lana bateragarri egiteko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 4.2. artikulua aplikatzearen balizko disfuncioari buruz](#). Artikulu horren bigarren atalean berariaz **salbuetsi** da **amatasunagatikoko baimenaren aldi diru-laguntzak emateko aukera**, zera ezarri duenean: *“ezingo dira diruz lagundu amatasunagatikoko edo aitatasunagatikoko baimenarekin bat egiten duten aldiak”*. Xedapen horren arabera, bigarren eta ondorengo seme/alabatik aurrera, laguntza horien balizko onuradunek ezin dute lehenengo seme/alaba adingabea zaintzeko zuten jardunaldi-murrizketarengatik ematen zaien laguntza jasotzen jarraitu bigarren semea edo alaba jaiotzen denetik aurrera. Izan ere, laguntza hori ez da bateragarria amatasun-baimenarekin, nahiz eta amatasun-baimena jardunaldi-murrizketarako araubidearen bidez baliatuko den (lehenengo semea edo alaba zaintzeagatik). Halaber, dagokion Gizarte Segurantzaren prestazioa jasoko da, murriztuta egongo dena jardunaldi osoarekin jarraitzekotan jasoko lukeenarekin alderatuz. Gai hori Eusko Jaurlaritzari aurkeztu genion azter zezan; horrek

uste du xedapenak berez ez duela diskriminaziorik sortzen. Erakunde honek uste du, manu horren ustezko literaltasunaren neutraltasuna gorabehera, aurreikusi gabeko ondorioak sor ditzakeela kasu batzuetan. Zalantzarik gabe, beharrezkoa da sakonago berrikustea arauzko xedapen horrek ondorio diskriminatzaileak sortzen ari den amatasuna dela-eta.

2.4 Seme-alaben jaiotza edo adopzioagatikoko laguntzak eskuratzeko betekizun formalak

Seme-alabengatikoko laguntzei buruzko euskal legediaren babespean eskatu diren laguntzen ukapena dela-eta, kexak jasotzen jarraitu dugu 2015ean ere. Horietan guztietan, arazo formalak planteatu dira, funtsean, aipatu laguntzak eskatu ahal izateko eskatzen den dokumentazioari buruzkoak. Aurreko txostenetan jada, kasuistikaren eta erakunde honek gai horren gainean egindako balorazioaren gaineko azalpena eman dugu, interesdunei eman beharreko informazioan hobekuntzak proposatuz, Eusko Jaurlaritzako Zuzenean zerbitzuaren aurrean prozedura irekitzetik hasita.

Hala, administrazio-prozeduran dauden irregulartasunen ondorioz azaldutako arazoan artean, bat nabarmendu nahi dugu. Herritar batek kexa bat aurkeztu du eta horretan adierazi du Eusko Jaurlaritzak laguntza-prozedura batean atzera egindakotzat jo zuela, [abenduaren 19ko 255/2006 Dekretuaren arabera](#), interesdunak aurkeztutako dokumentua galdu zelako. Hala ere, adierazi behar da dokumentu horren sarrera behar bezala formalizatu zela dagokion Correos-en bulegoan. Kasu horretan, gure ustez, administrazioak bi jarduketa desegoki burutu ditu. Batetik, eskaera formalizatzeo eskatu zen laguntzak eskatzeko prozeduraren arauan aurreikusita ez dagoen betekizun dokumental batekin eta, bestetik, ustez, egoitza administratiboan galdu zen interesdunak administrazioak akatsak zuzentzeko egindako errekerimendua betetzeko bidalitako dokumentazioa. Argi dago, administrazioaren funtzionamendu desegoki bat dela hori; horrek, berez, interesdunak gora jotzeko errekurso baten bidez aurkatutako jarduketaren ezeztapena justifikatzen zuen. Gora jotzeko errekurso hori jadanik ezetsi zen; hori kontuan hartuta, Arartekoak jo zuen administrazioak bere jarduketak indargabetu behar zituela, prozedura administrazioaren funtzionamendu desegokia gertatu zen unera atzera eramanez. Hortaz, [Arartekoak 2016ko apirilaren 20ko Ebazpena](#) eman zuen; horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio eskaera-prozedura batean emandako ebazpena indargabetzeko, seme-alabak dituzten familien diru-laguntzak arautzen dituen abenduaren 19ko 255/2006 Dekretuaren arabera.

Puntu honetan, azpimarratu behar da, erakunde honek aurreko urteetan egin duen bezala, komenigarria dela ahal den neurrian seme-alaben jaiotzagatikoko laguntzen emakida automatizatzea edo, behintzat, sinplifikatzea, kasu guztietan, herri-administrazioek jadanik duten dokumentazioa aurkezteko eskatzen duen eta interesdunentzat gero eta konplexuagoa den izapide bat burutu behar ez izateko. Zalantzarik gabe, izapide horrek, praktikan, laguntza horiek jaso ahalko

zituzten pertsona asko bazterten ditu laguntza horietatik. Bestalde, egiaztatu dugu 2015etik laguntza horiek errentaren menpe egoteak Eusko Jaurlaritzak kudeatzea zailtzen duela. Horren ondorioz, askotan, atzerapenak daude eta forma-akatsak ere bai, laguntza horien balizko hartzaileak kaltetzen dituztenak. Diru-laguntza horiek dira gaur egun seme-alabak edukitzea zuzenean babesten duten bakarrak, demografiko-ki jaiotza-tasaren bultzada handia behar duen gizarte honetan. Beraz, uste dugu laguntzen kudeaketan dauden arazo horiek berrikusi beharko lirakeela, hobetze aldera.

III

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

2015 urte oparoa izan zen Estatuan eta Euskadiko Autonomi Erkidegoan familien babesean zuzenean eragiten duten lege, arau eta beste tresna batzuen ezarpenari dagokionez (horri dagokionez, Arartekoaren 2015eko urteko txostenaren epigrafe bera kontsulta daiteke). Aitzitik, 2016. urtean, ez da berrikuntza nabarmenik egon horri dagokionez.

Hala eta guztiz ere, aipagarria da lehendakariak 2016ko martxoan egindako iragarpena; hala, Eusko Jaurlaritzaren Familia eta Haurtzaroko Estrategia deritzona iragarri zuen. Horren helburua da haurren pobretasuna saihestea eta mutil eta nesken aukerak berdintzea eta, batez ere, ziurgabetasun ekonomikoak seme-alabak edukitzea edo familia-proiektuak hastea gomendatzen ez duenaren pertzepzio soziala leheneratu nahi da. Horretarako, herrialdearen familia eta haurtzaroren aldeko itun bat egiteko proposatzen da, hasiera batean 2020ra arte urtean 50 milioi euro inbertituz. Horrez gain, gizarte-politika horietarako inbertsioa handitu nahi da aurrekontuaren egoerak hori ahalbidetzen duenean. Iragarritako estrategia ibilbide-orri bat da inplikaturako eragile publiko eta pribatu guztiekin (erakundeak, alderdi politikoak, gizarte-eragileak eta hirugarren sektorea) eztabaidatzeko eta gaia jorratzeko. Estrategia horretan, proposamenen dekalogo bat jaso da eta horren helburua da esparru orokor egokia sortzea pertsonak bizitzaren etapa guztietan garatzeko. Neurri horietako asko ez dira laguntza edo diru-laguntzen definizioan sartzen; izan ere, horien helburua da baldintza egokiak sortzea familien zerbitzu-beharrak eta demandak asetzeko. Horrela, seme-alabak dituzten familientzat gutxieneko diru-sarrerak bermatu nahi dira; ekipamendu eta zerbitzu soziokulturaletarako sarbidea; gazteen emantzipazioa bultzatzea; denboraren antolaketa egokiagoa sustatzea familientzako eta adiskidetzarako; haurrei arreta emateko “kalitatezko” zerbitzu “eskuragarrietarako” sarbidea erraztea; gurasotasun positibo eta familia-bitartekaritzako programak ezartzea; familia-topaguneko puntuen sarea indartzea eta gizarte-hezkuntzako esku-hartze programak indartzea.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

2016. urterako egindako jarduketan planaren esparruan, jarraian, arlo horretan burututako jarduketa nagusiak adierazten ditugu:

4.1. Bilerak elkarteekin

Beste urte batez, harremana eduki dugu –bileren bidez edo familien demanda eta interesen inguruko gaiekin lotutako foro eta topaguneetan parte hartuz– Euskadiko familia aniztasunaren interesak ordezkatzeko dituzten elkarte ezberdinekin. Horren bidez, euren lan ildo nagusiak, beharrak eta botere publikoei eskatzen dizkieten kontuak ezagutu ahal izan ditugu. Horien artean, azpimarratu behar dugu Euskadiko familia ugarien elkartearekin, hau da, [Hirukiderekin](#) dagoen harreman estua. Izan ere, horiekin, beste harreman batzuen artean, Arartekoak bilera bat egin zuen urtearen hasieran; bilera horren helburua elkartearen demanda nagusiak ezagutzea zen. Horien artean, nabarmendu nahi dugu elkarte horrentzat garrantzitsua dela euskal administrazioek seme-alabak dituzten familiengan egiten diren inbertsio publikoei bultzada handia ematearen aldeko apustu irmoa egitea. Horrez gain, aurretiazko ebaluazio-tresnak sortzeko eskatzen dute, esku-hartze publikoko sektore desberdinetatik sustatutako neurriek familiengan duten eragina ebaluatzeko.

4.2. Bilerak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailarekin

2016an, lankidetzaren harreman ona izan dugu [Eusko Jaurlaritzako Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzako](#) arduradun eta langile teknikoekin, herritarrek aurkeztutako kexa-espeditzeak izapidetzeko eta jarraitzeko eta adiskidetzarako laguntzen eta seme-alabengatik laguntzen inguruko dekretuen interpretazioari eta aplikazioari dagokienez. Puntu honetan, zuzendaritza horren harmena eta gogoak azpimarratu nahi ditugu; Arartekoa zuzendaritza horrekin bildu zen eta Arartekoaren [Familiei laguntzeko politikak Euskadin: azterketa eta proposamenak](#) izeneko Ez-ohiko Txostenean jasotako gomendioen egoera aztertu zen. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak [Haurtzaroen eta Familian Inbertitzeko Euskal Estrategiari](#) dagokionez egindako planteamendua aztertu da; Arartekoak horren edukia jakin nahi izan zuen zuzenean. Horrela, Familia Politikako zuzendariak azpimarratu zuen estrategia horrek, besteak beste, gazteen emantzipazioa sustatu nahi duela eta seme-alabak izan nahi dituzten euskal familiek nahi beste seme-alaba izan ahal izatea. Hala, estrategia horretan Arartekoak familiak babesteko politiken inguruko ez-ohiko txostenean emandako gomendio asko hartu dira kontuan. Horrez gain, bilera horretan Arartekoaren kexa-espeditze batzuen egoerarekin lotutako beste gai batzuk jorratu ziren.

4.3. Bestelako jarduerak

Arartekoak eta familien arloko zenbait arduradunek jarduketaren eremu horrekin lotutako zenbait jardunaldi eta forotan parte hartu dute 2016an. Bereziki, azpimarratu nahi dugu Arartekoak Eusko Jaurlaritzako 2016ko martxoan antolatutako jardunaldiaren aurkezpenean parte hartu zuela; jardunaldi horren izena hauxe izan zen *“Eraldatzen duten gurasotasunak, gizonak, emakumeak, hazkuntza eta boterea”*. Horretan, tradizionalki emakumeek euren gain hartutako zaintzaren balio sozial eta ekonomiko handia azpimarratu zuen eta adierazi zuen premiazkoa dela gizonen erantzunkidetasuna sustatzea gure gizartearentzat funtsezkoa den lan horretan. Horrez gain, adierazi du garrantzitsua dela aurre-rapausoak ematea familia-bizitza eta laneko bizitza adiskidetzeko; horretarako aldaketa kultural, sozial eta ekonomiko sakonak egin behar dira, familien beharrak eraginkortasunez eta osorik integratu ahal izateko gure produkzio-jardueran.

Bestalde, aurreko urteetan bezala, Arartekoak, maiatzaren 15ean, Familien Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin, [erakunde-adierazpen](#) bat egin zuen. Horren bidez, gogorazi zuen familia dela pertsona guztien euskarri material eta afektibo nagusia. Hala, Euskadiko botere publiko guztiei eskatu zien familiei baliabide egokiak eskaintzeko, duten gizarte-babeseko funtsezko eginkizun horren garapena errazten dutenak. Horrez gain, euskal familiei ematen dieten babes finkatu eta ezartzeko eskatu zien, familien ikuspegia politika publiko guztietan integratuz.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Gure gizarte-ereduan, familiak oinarrizko euskarria dira, pertsona guztien giza-garapena bermatzen duena, bereziki, pertsona ahulenen garapena. Horrez gain, guztiek herritartasun erantzuleko estatusa lortzen dutela bermatzen du, eskubide sozialekin eta banakako eskubideekin. Hori dela-eta, gizarte-ongizatea mantentzeko, ezinbestekoa da familiak babestea, eskubideen berdintasuna eta gizarte-kohesioa bermatzeko, baita pobretasuna eta gizarte-desegituraketa prebenitzeko ere. Gure bezalako gizarte garaikide europarrak **erronka demografiko** bat dute gaur egun: seme-alabak dituzten familien zailtasun ekonomikoak areagotu dira; zailtasuna gehiago daude gizarte-mugikortasunerako eta aukeren berdintasunerako eta pertsonen familia-proiektu bat hastea eta nahi adina seme-alaba izatea eragozten duten oztopoak mantentzen dira. Egoera horren aurrean, Arartekoak irmoki defendatzen du **seme-alabak dituzten familiengan egiten den inbertsio ekonomikoa** nabarmen handitu behar dela, Eusko Jaurlaritzak 2016an iragarritakoarekin bat etorritik. Horrez gain, uste du beharrezkoa dela **familia-proiektuak eta gure gazteen emantzipazioa errazten dituzten baldintzak** erabakitazunez bultzatzea.

Familien aldeko apustu hau, gure ustez, **honako eremu hauetan** zehaztu behar da:

Ekonomia eta finantzen eremuan, **inbertsio ekonomiko handiagoa egin behar da familiak babesteko politike-tan**. Horrek esan nahi du **seme-alabak dituzten familiei** laguntza zuzenak eman ahal zaizkiela edo familia horiek zeharka babesteko beste neurri batzuk hartu behar direla, arreta eta zaintzako zerbitzuen zuzkidura publikoa bezalaxe. Azpimarratu nahi dugu seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntza ekonomiko zuzenen sistema unibertsala den sistema batera bideratu behar dela. Aldi berean, kargu dituzten seme-alaben haztapena ere areagotu behar da maila eta zerga-tresna guztietan. Gainera, ezin dugu ahaztu herri-tarren zahartzeak familiengan duen eragina; horrek **adineko pertsonak edo menpekotasun edo ezgaitasun egoeran dauden pertsonak dauden familientzako** inbertsio publiko indartzera behartzen du.

Gainera, **araudiaren eremuan**, uste dugu komenigarria dela, **familia ugarien** inguruko Estatuko legeriaren aplikazioak sortutako disfuntzio asko argitze aldera, euskal eremuan berezko arauketa bat sortzearen aukera aztertzea, familia horiei aitortzen zaizkien estatusa eta onurak argitzeko, edo hala badagokio, Familiei Laguntzeko [abenduaren 12ko 13/2008 Legean](#) familia ahulenen inguruan ezarritakoaren arabera, **bere kargu seme-alabak dituzten familiei** laguntzeko neurri bultzada berri bat ematen dien arauketa bat. Ekimen arautzaile hori komenigarria da eta, bereziki, **guraso bakarreko familiei** dagokienez, familia horiek ahulagoak dirrelako. Zentzu horretan, gogorazi behar dugu lege horrek euskal herri-administrazioei helarazten diela derrigorrezkoa dela oztopoak kentzea eta jarduketa-neurri positiboak hartzea, ahultasun bereziko egoera batean dauden familiei laguntzera bideratutakoak. Hala eta guztiz ere, puntu honetan, gure legeria ez dago guztiz garatuta eta, autonomi erkidegoko beste araudi batzuek ez bezala, ez du mugapen-jarraibiderik edo definiziorik jasotzen, zehaztasunez identifikatzeko zeintzuk diren guraso bakarreko familiaren eremuan sartzen diren familia-unitateak. Izan ere, orokorrean baino ez du adierazten beharrezkoa dela ahultasun bereziko egoera batean dauden familiei babes gehiago ematea eta horrek, azken batean, babes berezirik gabe uzten ditu guraso bakarreko familiak. Adierazi behar da guraso bakarreko familia horietako titularrek –emakumeak batez ere– zailtasun gehiago dituztela seme-alabak zaindu eta hezteko eta, bereziki, laneko eta familiako bizitza adiskidetzeko.

Bestalde, beharrezkoa da zenbait neurriekin familiengan izan dezaketen **eragina ebaluatzea**; horrela, **familien ikuspuntua** integratuko da neurri publikoetan. Horrek **neurri fiskalei eta zerga-neurri** eragiten die **batez ere, bere kargu seme-alabak dituzten familientzako babes** indartu behar dutenak (zaintza eta hezkuntzagatik kostuak konpentsatzera bideratutakoak). Aldi berean, prebenitze aldera, beti aztertu behar da neurri edo erreforma fiskalek eta zerga-neurri edo erreformek familia-bizitzako proiektuetan duten eragina.

Adiskidetzeko erronka handia da familia garaikideentzat. Horregatik, **denborak antolatzeko planteamendu global berriak** nabarmentzea beharrezkoa da, lanak gure bizitzetan duen lekua zailtasun jartzen dutenak eta laneko bizitza mantentzea ahalbidetzen dutenak, behar pertsonalak eta familiarrak behar bezala aseztu. Puntu honetan, azpimarratu nahi

dugu **zaintzaren balio soziala eta ekonomikoa** -tradizionalki emakumeek bere gain hartu dutena-. Horrez gain, premiazkoa da **gizonen erantzunkidetasuna** sustatzea gure gizartearentzat funtsezkoa den lan horretan, baita aurrerapausoak ematea ere familiako eta laneko bizitza adiskidetzeko. Horrek **euskal botere publikoak behartzen ditu aldaketa kultural, sozial eta ekonomiko sakonak zuzentzera, familien beharrak gure produkzio-jardueran eraginkortasunez eta osorik integratu ahal izateko**, adiskidetzea sustatzeko programak, baimenak eta zerbitzuak indartuz eta bide berriak esploratuz, lan-sektore guztietara (publikoak eta pribatuak) hedatzeko malgutasun handiago bat, lanaldia murrizteko eta berriz antolatzeke eta lanean egoteko denborei dagokienez, adiskidetzea errazteko. Adiskidetzearen kostuak partzialki konpentsatzera bideratutako diru-laguntzak lasaitasun partzialeko neurriak

dira jasotzen dituzten pertsonentzat. Hala ere, mantendu behar dira eta etorkizunean areagotzen saiatu. Hala, beharrezko araudi-aldaketak egin beharko dira gaur egun laguntza horietatik baztertuta dauden kolektibo batzuk sartzeko, langile autonomoak eta etxeko zerbitzuko langileak bezalaxe.

Familien aldeko apustua egiteak estrategiak ezartzea esan nahi du eta neurri desberdinak pentsatzea eta sustatzea, **gure gazteen emantzipazioa bultzatzera** bideratutakoak. Izan ere, gazteek bereziki jasaten dituzte krisiaren eta langabeziaren ondorioak; hori dela-eta, ezin diote bizitzako proiektu autonomo bati aurre egin, horrela jatorrizko familiariekiko menpekotasuna luzatzen da eta horrek oso eragin negatiboa dauka gure gizartearen ongizate eta garapenean.

III. ATALA

III

2

EMAKUMEEN BERDINTASUNA ETA OSOTASUNA

Aurrekariak



Arartekoak, pertsonen eskubideak defendatzeko lanen barruan, emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipio konstituzionala (EK 14. artikulua) betetzen dela ziurtatu eta babesteko eginkizuna du. Horretarako, euskal agintari publiko guztiei eskatzen die beharrezko neurriak har ditzatela, berdintasunaren eta sexuagatiko bereizkeriarik ezaren printzipio hori, ikuspegi formaletik harago, benetakoa eta eraginkorra bihur dadin, horretarako helburu hori zailtzen duten oztopoak era aktiboan baztertuz (EK 9.2 artikulua).

Berdintasunaren eta sexuagatiko bereizkeriarik ezaren eskubidean egiten den edozein urraketari dagokionez euskal herri-administrazioen jarduerak edo jarduera-faltak kontrolatzea da, funtsean, Arartekoak berdintasunaren arloan duen funtzioa, **bai ikuspegi formaletik, bai ikuspegi materialek**. Eremu horretan, geroz eta garrantzitsuagoa bilakatzen ari da administrazio desberdinei berdintasun materiala lortzeko ekintza positiboak martxan jartzeko eskatzea, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legeak* eta *emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoak* ezarritako parametroen arabera, lehen aipatutako aurreikuspen konstituzionalak garatuz.

Genero-indarkeria emakumeen giza eskubideen kontrako atentatu larria da eta, horren oinarrian, gizonen eta emakumeen arteko egiturazko desberdintasuna dago, baita balio sexisten sistema bat nagusitzea ere. Hala, arlo honetako eginkizunen artean, lehenetsia daukate genero-indarkeria ezabatzeke borrorak eta ahaleginak.

Arlo honetako jardueran proiektatzen dira, era berean, **emakumeen herritartasun oso eta aktiboaren eta protagonismo sozialaren** alde egiten duten ekimen desberdinen **sustapen eta bultzada**, oraindik emakumeak gizonen aldean gutxiesten dituzten inertzia kultural eta sozialen aurrean.

1. Kexarik aipagarrienak

1.1. Herri-administrazioek emakumeekiko inklusioa ez den hizkuntza erabiltzea

Arartekoak 2016an bi kexa-espeditu izapidetu ditu herri-administrazioak hizkera sexista erabili izanagatik eta hori emakumeekiko inklusioa ez zelako. Eragindako administrazioek –Osakidetzak eta Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailak– irregulartasunak zuzendu dituzte kasu bietan. Beraz, gai horiek ebatzita edo ebazteko bidean gelditu dira erakunde honen esku-hartzearen ondoren. Hori dela eta, ondorioztatu du salatutako irregulartasuna behar bezala konpondua izan dela.

Kasu horietako bat Osakidetza zenbait formulariok osatu zuten, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean* ezarritako oinarrietara moldatu gabe baitzeuden. Izan ere, lege horren xedea euskal administrazioek hizkuntza erabilerak ez sexista egitea da eta aipatutako formularioak Osakidetza erabiltzaile guztiei maskulinoaren forma erabili zuzentzen zitzaizkien. Gure esku-hartzearen ondorioz, Osakidetza ospitale eta ambulatorioetan erabili ohi diren formulario guztiak berrikusi ditu eta moldatu gabeko bost formulario antzeman ditu (ospitalean sartzeari, larrialdietako laguntzari, ospitaleratzeari eta etxeko ospitaleratzeari buruzko ziurtagiriak eta ebakuntza egiaztagiria) eta horiek 2017ko otsailerako moldatzeko konpromisoa hartu du.

Arazo berbera islatzen zuen beste gai bat, Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailaren web orri bati zegokion, justiziako langileen (abokatuak, prokuradoreak, etab.) dagoen JustiziaSip izeneko orriari hain zuzen ere. Gure esku-hartzeari lotuta, aipatutako Eusko Jaurlaritzaren sailak adierazi du dagoeneko berrikusketa lanei ekin diela eta era berean, orrialde hori aurki hizkera ez sexistara eta berriaz emakumeekiko inklusioa izango den hizkerara moldatzeko konpromisoa hartu du.

Kasu bietan, erakunde honek eragindako herri-administrazioei jakinarazi die Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera euskal herri-administrazio guztiek dutela genero ikuspegia beren jarduerak guztietan gauzatzeko betebeharra. Hain zuzen ere, aipatutako lege horren II. tituluan berriaz jaso dira *euskal herri-administrazioen eta aginteen jardunean genero ikuspegia integratzeko neurri* batzuk. Hala, aipatutako II. titularen IV. kapituluaren barruan, 18. artikulua 4. Idatz zatian berriaz aipatu du honako hau: euskal herri-aginteek **“ez dute hizkera sexista erabiliko, ez zuzenean, ez beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan”**. Gainera, Europa eta nazioarte mailako zenbait tresnek ere erreferentzia egin diote gai horri eta nazio mailako agintariei eskatu diete estrategiak

martxan jar ditzatela, hizkera inklusiboa eta ez-baztertzaila erabiltzea lortzeko bidean. Horien artean, hurrengoak dira azpimarragarri: Europar Kontseiluaren Ministro Batzordearen R(90)4 Gomendioa, hizkuntzan sexismoa kentzeari buruzkoa eta berriagoa den [Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordearen CM/Rec\(2007\)17 Gomendioa](#), berdintasun araei eta mekanismoei buruzkoa.

Bestalde, Arartekoak gai horien harira aukera izan du azpimarratzeko aipatutako tresna juridikoetatik eratorritako legebetebeharretik harago eta herri administrazio guztietan onartutako hizkuntzaren erabilerari buruzko orientazioak kontuan hartuz, Eusko Jaurilaritza ereduagarria izan behar dela eta eremu honetan buru izan behar duela. Bi arrazoi horiengatik, ezin da onartu dokumentuetan edo euskarrietan bi sexuak barne hartzen dituen hizkuntza erabiltzeko jarraibideak ez betetzea; izan ere, jarraibide horiek zabalki onartuta daude.

1.2. Aurrerapenak Irungo 2016ko jaietarako karteletan, alardean parte hartzen duten emakumeak ikusarazteari lotuta

Emakumeek alardeetan parte-hartzearen gaiari lotuta, aurreko Arartekoak konpromiso aktiboa hartu du, erakunde eta gai horrek eragindako sektoreen arteko elkarlana eta elkarbizitzaren bidez, jai guzietan emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko helbururako bidean aurrera egiteko. Jarduera horiei erreferentzia egingo diegu aurrerago. Hori bai, kexa edo kontsulta espedientei dagokionez, 2016an ez dugu gai horri lotutako salaketa edo kexarik jaso, aurreko urteetan gertatu ez bezala.

Horri dagokionez azpimarratu beharreko bakarra Irungo Udalak publiko egindako komunikazio bat da. Horren bidez, adierazi da herriko jaiak iragartzeko kartela aukeratzeko mekanismoa aldatu egingo dela berriro ere; hala, aurre-fase bat ezarriko da, eta bertan, batzorde artistiko batek aurre-aukeraketa bat egingo du, gerora herritarrek kartelik onena aukeratzeko bozkatuko dituzten lanak aurre-hautatzeko. Horren bidez, ziurtatu nahi da aukeratutako kartelak ez duela inoren eskubiderik urratuko edo ez duela emakumeak baztertu edo albo batera uzten dituen edukirik izango, erakunde honek herritar batek egindako kontsultari emandako erantzunean antzeman zuen bezala.

Aurreko urteetan (2014 eta 2015) Irungo Udalak jaiak iragartzeko kartelak aukeratzeko prozedura herritarren bozka zuzenez egin ohi zuen, inolako filtrorik ezarri gabe. Horren ondorioz, emakumeek alardean parte-hartzen zutela ikusarazten ez zuten kartelak aukeratu izan dira, 2015. urtekoa adibidez. Bertan, gizonen baino osatzen ez zuten konpainia bat ageritzen eta karteleko emakume bakarra une horri argazkia ateratzen ari zen. Beraz, kartel horretan parekidea ez den alardea erakusten zen soilik eta ondorioz, ez ziren ikusarazten urtero herri horretan berdintasunaren izenean alarde mistoan parte hartu ohi duten emakume asko.

Arazoi hori dela eta erakunde honetara jo zuen herritarra berriro ere zuzendu zaigu eta adierazi digu asko pozten dela Arar-

tekoak emandako ebazpenak udalak aintzat hartu beharreko zenbait irizpide ezarri zituelako, kartelak aukeratzeko prozedura erabakitzerako orduan eta udalak 2016an irizpide horiei jaramon egin dielako. Horrek aldaketa eragin du kartelak aukeratzeko prozeduran eta adierazi da, -erakunde honek azpimarratu bezala- alde batetik, aukeratutako kartelek genero ikuspegia aintzat hartu behar dutela eta, ondorioz, emakumeek Irungo jaietan parte-hartzea ikusarazi behar dutela. Bestalde, modu horretan ekidin egin nahi da kartel irabazleek eskubideak urratzea edo delitu-ekintzak egin edo bultzatzea.

1.3. Udalek papera kultur elkarteetan berdintasunaren printzipioa sustatzeari dagokionez: diru-laguntzak ukatzea emakumeen sarrera eta parte-hartzea berdintasunez bermatzen ez duten elkarte gastronomikoei

2016an erakunde honek ebazpen bat eman du udalen papera argitze aldera, emakumeen sarrera debekatu edo presentzia mugatzen duten elkarte gastronomiko edo bestelako erakunde pribatuetan emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeari dagokionez. Arartekoaren [2016ko urtarilaren 27ko Ebazpena](#) da. Horren bidez, [Tolosako Udaleri](#) gomen datu zaio ez diezaiela eman, edo, eman badie, ken diezaiela udalari horretako elkarte gastronomikoei edozein diru-laguntza zein laguntza publiko, onarpen prozesuan, funtzionamenduan edota jardueretan emakumeen sarbidea baldintza beretan onartzen ez badute, eta, era berean, susta ditzala genero estereotipoak deuseztatzeko neurriak, baita ekintza positibokoak ere, espazio horietan emakumeek jasaten duten bereizkeria zuzentzea lortzeko xedez.

Arartekoaren ebazpen horrek berriaz aipatu du dimentsio juridiko bikoitza duen gai horri buruzko doktrina. Izan ere, alde batetik arlo pribatuari eragiten dio, elkartearen eskubidea osatzen den aldetik –eta botere publikoek ez dute berez hor sartu beharrik– eta bestetik, arlo publikoari ere bai. Azken horri dagokionez, gure araubide juridikoak gaitzetsi egin du babes publikoa ematea, dela babes ekonomikoa edo juridikoa, sexu arazoengatik bazterketa egiten duten jarduera edo elkartei. Era berean, herri-administrazio guztiak behartu egiten ditu (udalak barne) kulturaren arloan benetako berdintasun eraginkorra lortzeko bidean eragingo duten ekimen eta neurri positiboak sustatzera.

1.4. Emakunderi igorri zaizkion kexa-espedienteak

Azkenean, aipatu beharra dago 2016an, aurreko urteetan gertatu bezala, Arartekoak lankidetzan izan duela Emakunderekin, erakunde biek 2008ko maiatzaren 21ean sinatu zuten Lankidetzaren Akordioaren baitan. Horren bidez, kexak erakunde batetik bestera bideratzen dira, erakunde bien gogoetarako aurkeztu diren gaiek helmen juridiko-pribatua edo publikoa dutenaren arabera.

Hala, Emakundetik esparru publikoan emakumeen eta gizonen berdintasunari lotuta igorri dizkiguten kezez gain, Arartekoan zenbait keza jaso ditugu, arlo pribatuari lotuta zeudenez, erakunde honen eskumen-esparrutik kanpo gelditzen direnak eta Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunaren [otsailaren 18ko 4/2005 Legearen VIII Kapituluaren III Tituluan](#) xedatutakoaren baitan sartzen direnak. Horregatik, keza horiek Emakunderi birbideratu dizkiogu, bertan izapidetu ditzaten. Kexa horien gaia batez ere lan munduan sexu arrazoiengatik bazterkeria gertatu izanari dagozkio, bai eta komunikabide pribatuaren emakumearen preterizioa edo objektualizazioa bultzatzen duten edo genero estereotipoak sustatzen dituzten iragarkiak antzeman direlako.

2. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Europar Batzordearen Estrategia genero berdintasunerako, 2016-2019

2016an indarrean sartu da [Genero Berdintasunerako Europar Estrategia 2016-2019](#). Horren bidez, Europar Batzordearen lan-markoa ezarri da hurrengo hilabeteetan alor horretarako. Estrategia horrek bost alor nagusi jorratuko ditu, Europako jendarteek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez momentu honetan bizi dituzten lehentasunen arabera; hala, ezarri dituen oinarriak euskal jendarteari ere zuzenduko zaizkio, berdintasunaren alorrean lehentasunezko jarduerak eta helburuak ezartzeko orduan. Hala, lehenengo xedea [emakumeek lan-munduan duten parte-hartzea areagotzea](#) izango da, independentzia ekonomikoari dagokionean ere genero berdintasuna bultzatzearekin batera; [emakumeen diru-sarrera eta pentsioei dagokien aldea txikitzea](#) gizonenarekiko, horren bidez emakumeen artean pobrezia handiagoari aurre eginez; [erabakiak hartzerakoan emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea](#); [genero indarkeriari aurre egitea](#) eta biktimak babestea eta, azkenik, [genero berdintasuna eta emakumeen eskubideak sustatzea munduko beste lekuetan ere](#).

Estrategia horrek zehaztu egin ditu datozen urteetan Europar Batasunetik genero berdintasuna lortzeko martxan jarriko diren jarduera ezberdinak; modu horretan, Europar Batasunak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin duen konpromisoa indartu egin da, politika eta jarduera guztiei dagokienez. Era berean, jarduera horiek [Europa Estrategia 2020](#)aren genero ikuspegiaren baitan kokatu dira.

Arartekoak uste du Euskadin emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean bat egin behar dutela aipatutako Europako lehentasunezko helburuekin. Horregatik, esparru horretako eskubideen balorazioei dagokien atalean, azpimarratu nahi izan dugu garrantzitsua dela lehentasun horien bidean aurrera pausuak ematea.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren eta organismo autonomoen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako lehenengo plana

Eusko Jaurlaritzak 2016ko irailaren 6an onartu egin du [administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako emakume eta gizonen arteko berdintasunerako plana](#). Plan hori 4 urtez egongo da indarrean eta hasiera batean berdintasunaren ikuspuntutik egoeraren diagnostia egin da, administrazio orokorrean eta organismo autonomoetan lan egiten duten ia 7.000 pertsonaren ezaugarriak aztertu dira, antzemandako ezberdintasun egoerari aurre egiteko asmoz Eusko Jaurlaritzak martxan jarriko dituen jarduteko 6 ildo nagusi eta 26 neurri zehatz ezartzeko. Ondorio nagusien artean, azpimarratu da, lan-taldearen gehiengo emakumeek osatzen dutela, baina, hala ere, gizonen baino lan-ezgonkortasun handiagoa bizi dutela eta %87,17an emakumeak direla lana eta adingabekoen edo familiako kideen zainketa bateragarri egiteko neurriak eskatu ohi dituztenak. Hala, gizonen eta emakumeen soldaten artean ia %8,5eko alde dago, baina bazterkeria hori ez da zuzenean gertatzen, izan ere, horretarako arrazoa da emakumeek maila eta soldata baxuagoko postuak bete ohi dituztela, zainketa lanekin bateragarri egin ahal izateko. Ezberdintasuna murrizteko proposatutako neurrien artean, azpimarratu beharra dago Arartekoaren iritziz jarraian aipatuko diren neurriek garrantzia berezia dutela, plan hori indarrean egongo den urteetan garatuko direlako:

- Hautaketa, sarbide eta aurreikuspen prozesuekin lotutako dokumentazioa berrikustea, berdintasunaren alorrean indarrean dagoen araubidea betetzea sistematizatzeko helburuarekin (berdinketa hausteko klausulak, ordezkapen orekatua, gaitegietan berdintasunari lotutako gaiak saritzea, haurdunaldia eta erditzea hautaketa prozesuetan).
- Bateragarritasuna sustatzeko neurriak hartzeak karrera profesionalean duen eragina ikertzea, lanaldi murriztuarekin dauden langileak ez ordezkatzeko edo udaran eszedentziak eskatzeak gainerako lankideengan eraginik izan ez dezaten eta murrizketa egoeraren gainean dagoen presioa ekidin dadin.
- Generoaren ondoriozko soldata aldeari eragiten dioten faktoreetan sakontzea eta hori zuzentzeko neurriak proposatzea.
- Erantzukizunaren banaketa sustatzea, langileen beharrei hobeto moldatuz eta amatasun eta aitatasun baimenak berdintzeak duen eragin ekonomikoa aztertzea, iraupen berbera izan dezaten eta besterenezinak izan daitezten.
- Jazarpen sexuala eta sexu arrazoiagatiko jazarpena gertatzen den egoeren aurrean jarduteko berriazko protokolo berria eratzea.
- Genero indarkeria edo sexu jazarpena edo sexu arrazoiengatiko jazarpena jasan duten emakumeek dituzten eskubideak eta eskura dituzten baliabideak zabaltzea, babes neurriak ezartzeko eta biktimen lan-baldintzek okerrera egin ez dezaten.

3. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

Jarraian, arlo honetan burutu ditugun jarduera garrantzitsuenak azalduko ditugu. Hain zuzen, agerian jarriko dugu zeintzuk izan diren Ararteko erakundearentzat arreta-gune nagusiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan:

3.1 Bilerak elkarteekin

Emakumeek alardeetan parte hartzea defendatzen duten kolektiboak

Azpimarratu behar dugu, aurreko urteetan bezala, Arartekoan zenbait bilera egin dituela, emakumeek alardeetan parte hartzea defendatzen duten taldeekin, Irunen eta Hondarribian arrazoi horregatik bizi duten gatazkaren inguruan hitz egiteko. Bilera horietan kolektibo horiekin urtero alardearen baitan gertatzen diren erakundeen esku-hartzeekin lotutako alderdi zehatzak alderatu ditugu, bai eta estrategikoagoak diren gaiak ere, emakumeek alarde bietan erabat sartzeko bidean aurrera egiteko beharrezkoa den gizartearen eta erakundeen laguntza lortzeko. Gainera, urte osoan zehar, erakunde honetatik etengabeko harremana eduki dugu kolektibo horiekin, beraien kezka jasotzeko eta informazioa, babesa eta orientazioa eskaintzeko.

Arartekoak gai horren inguruan adierazpenak egin dituen aldiro adierazi du, lanean jarraitzeko eta bere esku dauden bitarteko guztiak erabiltzeko konpromiso irmoa duela, Irun eta Hondarribiko jaietan elkarbizitza demokratikoa eta gizon zein emakumeen arteko integrazio berdintzurako bidean.

3.2. Bilerak administrazio eta erakundeekin

Arlo horretan eragina duten esparruetan funtzioak dituzten herri-administrazioekin egindako bileretatik hauek azpimarratu nahi ditugu:

Erakundeen arteko lankidetzak Emakunderekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin alardeetan emakumeen berdintasuna defendatzeko

2016an zehar Arartekoak indartu egin du 2013an abiarazi zuen lanerako konpromisoa, [Emakunderekin](#) eta [Gipuzkoako Foru Aldundiarekin](#) batera, Irun eta Hondarribiko alardeetan emakumeek berdintasunez parte-hartzearen ondorioz sustatutako erakundeen arteko espazioan. Besteak beste, esparru horretatik eragindako bi udalekin elkarriketa egitea edozein lankidetzak instituzionalerako oinarri gisa sustatu da, edo gai horrek eragiten dien bestelako kolektibo edota sektoreen arteko lankidetzarako oinarri gisa. Bestalde, espezializatutako esku-hartze prozesua ere bultzatzen ari gara, eragindako erakunde eta eragile sozial ezberdinen artean, herri bietan, gatazka horiei konponbidea emateko espazioak irekitze-aldera.

Arartekoak konpromiso irmoa du erakundeen arteko elkarlanarekin eta espazio horren baitan maiztasunez bilerak egitearekin, dagoeneko hiru urtez gauzatu den Emakunde eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko elkarlan jarraitu eta egonkorraren baitan. Lankidetzak horren helburua erakundeen arteko aliantza bat erdiestea da, aurrera pausuk ekarriko dituen gai horretan, hau da, Irungo eta Hondarribiko alardeetan emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzean.

Erakunde honen ustez emakumeen berdintasunerako esku-bidea eta printzipioa argi eta garbi zalantzan jartzen duen gatazka batek irauteak zinez oztopatzen eta ahultzen du gure sistema demokratikoa, eta euskal botere publikoek erabakitazunez heldu behar diote, pertsonen eskubideei zalantzarik gabeko babesa emanaz. Arrazoi horregatik, Arartekoak aurrera egin du aipatutako erakundeekin estrategia bateratuak eginez, alardeen gatazka bideratzeko bide posibleak jorratzeko akordio sozial eta instituzional zabalak bultzatzeko bidean. Sortutako erakundeen arteko espaziotik, uste dugu beharrezkoa dela esku-hartze profesional eta parte-hartzaile ezberdinak babestea, Irunen eta Hondarribian eztabaida eta elkarriketa sozialerako guneak sortzeko.

Ararteko erakundeak Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordean parte hartzea

Aurreko txostenetan dagoeneko jaso dugunez, 2011. urtetik Ararteko erakundeak [Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordean](#) parte hartzen du —bai batzordean bai erakundeen arteko talde teknikoan—, gure erakundearen ikuspuntua emateko helburuarekin, genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei zuzendutako jardun publikoen osotasunean sor daitezkeen hutsuneak edo arazoak agerian jartzeko eta horiek hobetzeko proposamenak egiteko.

2016. urtean Ararteko erakundeak batzorde horren eta bertan sortutako erakundeen arteko talde teknikoaren zenbait bileratan hartu du parte. Zenbait lan-bileratan, gure ikuspuntua eman dugu genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen arretaren inguruan landuz joan diren zenbait alderdiren inguruan. Aurten akordio hori osatzen duten erakundeen artean adostutako lehentasunen gainean egin da lan. Zehazki, aurretik hasita zegoen lanari jarraipena eman zaio, adingabekoei arreta genero indarkeriaren biktimen seme-alabei, emateari dagokionez; hala, esku-hartze publiko koordinatua egiteko irizpideak eta jarduteko bideak garatu dira, indarkeria hori jasan duten biktimak diren aldetik. Era berean, funtzio aniztasuna duten emakumeek jasandako genero indarkeriaren berezitasunak ezagutzeko eta hedatzeko lan egin da.

Bestalde, genero indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko irizpide komunak ezartzeko prozesu bat abiatu da, azken finean emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta emateko nazioarteko kalitate estandarrak ezartzera bideratuta dagoena. Emakunde da prozesu horren buru Euskadin eta lanketa hori [NBE](#)ren zenbait agenziarekin egindako koordi-

nazio-lanaren baitan kokatu behar da, tartean [Nazio Batuen Biztanleria Funtza](#) eta [NBE Emakumeak](#). Horren helburua indarkeria jasan duten emakumei arreta emateko gutxieneko estandarrak zeintzuk izan behar duten zehaztuko duen mundu mailako akordio batera iristea da. Horretarako, Euskadin genero indarkeriaren aurkako akordioan parte hartu duten pertsona eta erakundeen babesa du eta bereziki, erakundeen arteko lan talde teknikoarena, Arartekoaren parte-hartzea ere baduena. Hala, prozesu horren markoan, Arartekoan 2016an lankidetzatza estua hasi du Emakunderekin, erakundeen arteko lan talde teknikoaren baitan, eta 2017an ere jarraituko du. Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako lehentasunak, besteak beste, gobernantza hobetzea, balioen aldaketan aurrera egitea, emakumeen jabeakuntza eta autonomia bultzatzea eta jendartearen sentsibilizazioa handitzea izango lirateke. Programa horrek Euskadiri aukera eman dio emakumeen aurkako indarkeriari buruzko nazioarteko agindu zehatzak tresna bihurtzeko.

3.3. Beste jarduerak batzuk: jardunaldiak, foroak, zenbait ekitalditan parte hartzea

Foroak eta jardunaldiak

Aipatu behar dugu, Emakunde eta Arartekoak 2016ko azaroan [emakume eta adingabeak sexurako salerosketa](#) gaiari buruzko jardunaldi bat antolatu zutela. Aipatutako jardunaldian, alor horretan ospe eta ibilbide handia duten adituek parte hartu zuten, honako alor hauetako adituek, alegia: akademikoa, estatuko nahiz nazioarteko judizialekoa eta hirugarren sektorekoak; horiez gain, biktimen horiei arreta zuzena ematen dieten gobernu kanpoko erakundeak (GKE) laguntza jaso zen. Jardunaldian, sexu-ustiapeneko helburuak dituzten emakume eta adingabeen salerosketa-arazoa luze eta zabal jorratu zen ikuspegi juridiko, soziologiko eta biktimekin egindako esku-hartzearen ikuspegi batetik. Jorratutako gaien xehetasun handiagorako, jardunaldi horretan azaldutako hitzaldiak kontsulta daitezke.

Gainera, Arartekoak arlo horretako lanari eragiten dioten gaiei buruzko beste erakunde batzuetan ere parte hartu du, eta haien artean ondorengoak nabarmendu behar ditugu: [genero-indarkeriako delituen justizia konpontzaileari buruzko](#) mintegi batean parte hartzea, 2016ko maiatzan egin zena Oñatiko Soziologia Juridikoko Euskal Institutuan UPV/EHUko Kriminologiaren Euskal Institutuak eta Bitartekaritzarako Europako Magistratuaren Taldeak (GEMME) antolatuta; eta UPV/EHUren [Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoko](#) saioretan parte hartzea, egoitza UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatean izanik.

Adierazpen instituzionalak eta jakinarazpen publikoak

Bestalde, Arartekoak 2016an zenbait adierazpen instituzional egin ditu nazioarteko ekitaldi batzuk direla bidez, eta adierazpen horiek emakumeen eskubideen urratzea desagerrarazteko lan egiteko beharra azpimarratzen duten gertaerak oroitzen dituzte. Aipatutako ekitaldi horiek honako hauek dira:

- [Emakumeen genitalen mutilazioaren kontra inolako tolerantziarik ez izateko nazioarteko eguna](#) (otsailak 6);
- [Emakumeen nazioarteko eguna](#) (martxoak 8); eta
- [Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna](#) (azaroak 25).

Azken egun hori dela-eta, Arartekoak gizartearengana jo zuen prentsan ondorengo tituluekin argitaratutako artikulua baten bidez: [“Emakumeen aurkako indarkeria; eteten ez den patriarkatua”](#); artikulua horren bidez, emakumeen oinarriko giza eskubideen urratze sistematikoa irmo salatzen zen, bizitzeko eskubidea esate baterako eta osotasun fisiko eta moral, duintasuna, kontzientzia- eta adierazpen-askatasuna, eta nortasuna bera garatzeko eskubidea. Urratze sistematiko hori gure gizarte garaikideetan egiten da genero-indarkeria moduan ezagutzen dugun krimen matxista horien bidez; haien arrazoi nagusiak dira, alde batetik, emakumeek jasaten duten egiturazko desberdintasuna, eta bestetik, ideologia patriarkalaren kultur errotze sakon eta boteretsua, ondorengo defen-datzen duena: botere publikoek eta gizarte osoak desagerrarazten saiatu behar diren balioak.

Gainera, Arartekoak bi jakinarazpen egin ditu Irungo eta Hondarribiko alardeak ospatzen direla-eta [ekainaren 30ean](#) (Irun) eta [irailaren 8an](#) (Hondarribia), hurrenez hurren; bi kasuetan azpimarratu du [bizikidetzaren mesedetan elkarrekin bidea egiteko funtsezko eragile moduan tokiko agintarien parte hartzea errazteko lan egiteko konpromisoa hartzen duela, pertsona guztien eskubideak errespetatuz, bereizkeriarik gabe](#).

Gainera, aurreko urteetan egin duen moduan, Arartekoak 2016ko udan berriz ere gogoratu du zer garrantzitsua den jaiak errespetatuz bizitzea, [Ez ezetz da](#) kanpainaren bitartez, sexu-erasorik gabeko jai batzuen alde.

Azkenik, 2016rako Haurren eta Nerabeen Bulegoko txostenen xehetasun handiagorekin jasotzen denez ere, Arartekoaren Parte Hartzeko Kontseiluko neska-mutiek, ikasturtean zehar, [“Berdintasuna harremanetan – la relación es cosa de dos”](#) izeneko bideo bat egin dute [harreman afektiboari buruzko beraien lanaren ondorio gisa](#). Haren bidez, gazteen arteko harremanen arteko desberdintasunari aurre egin nahi zaio.

4. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Emakumeak lan- eta ekonomia-arloan zer egoeratan dauden: desberdintasunak Euskadiko emakumeen egoera ekonomikoan eta ongizatean zer eragin duten

Gurea bezalako gizarteetan emakume eta gizonen arteko berdintasun-alorrean aurrerapen handiak eta ukaezinak izan badira ere, egia dena da 2016an Euskadin, munduko gainerako tokietan bezala, [emakumeak oraindik gizonekiko](#)

desabantaila-egoera nabarmenean daudela, lan-arloan eta arlo ekonomikoan, batez ere. Hain zuzen ere, lehenago aipatu ditugun hainbat dokumentutan egiazta daiteke **soldaten arteko aldeari, kristalezko sabaiari** eusten zaiola emakumeen lanbide-karreretan aurrera egiteko, eta beste pertsona batzuen **zaintzan duten erantzukizunak** zer eragin duen beraien ekonomia-egoeran bizitza guztian zehar. Emakumeek egiten dituzten zaintza-lanak ordainduta ez egoteaz gain, honako ondorio txarrak dakartza ere: lan-aukerak eta egoera ekonomikoa galtzea, lanbide ezegonkorragoak nagusitzea eta, azkenik, pentsioen arteko aldea izatea emakumeek dagoeneko lan-bizitza aktiboa izateko adinik ez dutenean. Emakumeen lanbide-karrerak beraien genero-egoerak baldintzaten ditu hasieratik bukaeraraino. Gainera, ikusi da –Europako gizarte guztientzat arrunta den zerbait– aurrekoari beraien familien eta pertsona maiteen zaintza ordaindutako lanarekin bateragarri egiteko zailtasunak eransten zaizkiola, eta horrek **osasunean ere eragina duela, bai eta emakumeen zoriontasun eta bizi-kalitatean ere.** Emakume horiek parametro horietan ere kaltetuta daude gizonekin alderatuz, eta horrek osasunaren sistema publikoari eragiten dio.

Beharrezkoa da jabetzea **emakumeen berdintasunaren alde lan egiteak gizarte guztiaren biziberritzeari eragiten diola** eta ez diela soilik emakumeei mesede egiten. Etorkizuneko gizarte batentzat honek guztiak dakarren erronka asotarikoa da, baina horretarako nahitaez neurri gogorrek eta irmoak hartu behar dira **desberdintasun horiek lehendabizi hauteman eta objektibatzeko** eta ondoren **gizon eta emakumeen soldata-berdintasuna eta lanbide-sustapena ziurtatzeko**, oztupoak kentzeko bideratutako **jarduera positiboan** bidez, bai eta emakumeek egindako **zaintza-lanaren aitortza ekonomikoa ere.** Gainera, zaintzan gizon eta emakumeen erantzunkidetasunak ondorengo ezartzen du: gurea bezalako gizarte batek, arlo publikoan nahiz pribatuan, **kontziliatorako formula malguak eta eskuzabalak** orokortu behar dituela, ekoizpen-sisteman sartuko direnak justizia sozialeko behar handi horri erantzunez.

Emakumeen langabezia-tasa handiagoak, emakumeen aurkako indarkeriak jarraitzeak, **pobrezia** krisi-testuinguru batean **feminizatzeak**, emakumeak zenbait esparrutan kaltetzen dituzten **estereotipoek** irauteak, emakumeek **justiziarako duten sarbide** zailak: horrek guztiak argi eta garbi justifikatzen du **botere publikoek berdintasunaren xedean** ahalegin berezia egiteko exijentzia, **jarduera positiboak sustatuz** eta **genero-ikuspegia** duen mundu-ikuskerara bat egitura ekonomiko eta sozial guztian txertatzea.

Emakumeen aurkako indarkeria: kasuak hautematea eta biktimak diren emakumeen jabekuntza. Ikusten ez diren emakumeen aurkako indarkeriaren beste zenbait modu

Genero-indarkeriako kasuetan egiaztatzen da, alde batetik, **dauden kasuak ez direla behar adina hautematen:** beharrezkoa da gure arreta-sistema emakume horiek artatzeko

prestazio nahiz baliabideak bideratzeko gai izatea, eta edozein eratako indarkeria matxistaren hautemate goiztiarra azpimarratu behar da (osasun-bidea, gizarte-zerbitzuak, eskola, hezkuntza, komunitateko sareen esperientziak...). Bestalde, **emakume biktimek duten babes ezaren sentsazioaren** egoera ikusi dugu, eta prozesu judizialean adierazten da bereziki, baina denboran zehar irauten du eta salaketarako beldurra sortzen, edota baliabide nahiz zerbitzuekiko mende-kotasuna: beharrezkoa da kasu horiei arreta ematea, indarkeriaren aurka emakumeek defentsarako beraien eskubideak baliatzeko osatu beharreko bidean topatzen dituzten zailtasunak aztertuz, eta emakumeen jabekuntza erasoan aurka defendatzeko bitarteko eraginkor moduan (denboran jarraipena emanez) baliatuz.

Gainera, beharrezkoa da **emakumeenganako beste indarkeria-modu batzuei** buruzko arreta deitzea, oraindik neurri handi batean ikusezinak direnak gizartearen gehiengoarentzat, **sexu-ustiapeneko helburuak dituzten emakume nahiz haurren salerosketa** esate baterako; hari erakunde honek, Emakunderekin batera, hausnarketarako jardunaldi bat eskaini dio, eta alor horretara Euskadin etorkizunean egin beharreko lan baterako jarraibide eta orientazio interesgarriak ekarri ditu. Halaber, haur eta emakumeen eskubideen beste urraketa larri batzuk ezin ditugu ahaztu, emakumeen genitalen mutilazioa edo behartutako ezkontzak adibidez, gure inguruneko kultur anitzeko gizarteetan agertzen hasi direnak; eta beharrezkoa izango da biktimak prebenitzeko nahiz artatzeko irizpideekin aztertzea.

Emakumeak aisialdi, kultura eta arteko espazioetatik baztertzea

Euskadin emakumeak aisialdian (elkarte gastronomikoak), kulturean, jaietan, artean eta kirolean parte hartzeko eta ikusarazteko zailtasunek jarraitzen dute. Arlo horietan oraindik nabarmena da emakumeek ez daukatela presentziarik eta ikusgaitasunik, edo partaidetzako eta onarpeneko maila batzuetarako sarbidea mugatuta dutela, eta baita kirol-jarduera edo jai-ekitaldi batzuetarako ere (alardeak, esate baterako). Historikoki presentzia edo ikusgaitasun gutxiago izan duten arloetan emakumeen partaidetzarako eta ikusgaitasunerako bideak zabalduko dituzten jarduera positiboko neurriak herri-administrazioetarako erronka serioa da. Horren ondorioz, erakundeek ezinbestean ahaleginak egin behar dituzte genero-ikuspegiarekin jarduteko, ordezkari txikiago hori antzemateko eta emakumeentzako desberdintasun materialeko egoerak iraunarazten dituen gizarte-inertziari era kontzientean aurre egiteko berariazko borondatearekin. Izan ere, emakumeentzako desberdintasun horiek ezin dira onartu sexuen arteko berdintasun osoa aldarrikatzen duen sistema batean.

III. ATALA

III

3

EZINTASUNEN BAT DUTEN PERTSONAK

Aurrekariak



Aurreko urteetan bezalaxe, atal honetan saiatuko gara desgaitasuna duten pertsonen eskubideak aldeztuko 2016an azaldu dizkiguten gai guztiak aztertzen, erakunde honen jardura esparruei buruzko zeharkako ikuspegi batetik.

Arartekoaren erakundeak, pertsona ororen eskubideak defendatzeko duen lehentasunezko eginkizuna betez, azpimarra berezia jarri izan du beti beren eskubideez baldintza- eta aukera-berdintasunean baliatzeko zailtasun handienak dituzten pertsona guztien defentsan.

Horri dagokionez, [otsailaren 27ko 3/1985 Legeak](#) honakoa dio: *“Legebiltzarrek Konstituzioaren I idazpuruak dakartzan eskubideak Legeak dionez bermatuz aldeztu, eta Autonomia-Estatutuaren 9. Atalak dakartzan demokraziako oinarri irizpide orokorrek bete daitezenez arduratzeko jarritako goi-karguduna da Arartekoa”*. Horretarako, erakunde honen egitekoa da, herritarrek eskatuta edo bere ekimenez, administrazio publikoaren jardura kexa espedienteen bitartez ikertzea, baina, baita ere, politika publikoak eta pertsonen eskubideen babes-sistema ebaluatzea, botere publikoei gomendioak eginez nahiz pertsonen eskubideak betetzeko eta babesteko kultura indartzea xede duten txosten, analisi edo ekimenen prestakuntza sustatuz.

1. Kexarik aipagarrienak

Atal honetan zehatzago aztertuko ditugu, gure iritziz, arlo honetan interesgarriak izan daitezkeen eta ekitaldi honetan bideratu diren jarduerak eta zenbait kexaren izapidea.

1.1. Hirigintza irisgarritasuna eta mugikortasuna garraioan

Zuzkidura publikoak eta ekipamendu kolektiboak erabiltzeko eskubidearen edukia abiapuntu gisa hartuta, egon litezkeen oztopo arkitektonikoak kenduz herritarrei fisikoki irisgarriak izatea bermatzearen gaia jorra dezakegu. Ekipamenduaren edo zuzkiduraren kontzeptu horren barruan, kontuan hartzeak dira herritarrei askotariko zerbitzu publikoak eskaintzeko eta emateko beharrezkoak diren azpiegiturak (urbanistikoak, garraioak, hezkuntzarekin lotutakoak, sozialak, kulturalak, osasunaren arlokoak, etab.).

Arlo honetan jaso diren kexetan planteatu da erabiltzaileek, bizi diren eraikinetan oztopoak daudela-eta, zailtasunak dituztela beren etxebizitza eta hiri-ingurua behar bezala erabiltzeko.

Garraioaren esparruan, zoritxarrez, gure garraibide publikoek ezgaitasunak dituzten pertsonak beren kabuz moldatzeko dauden oztopoak kendu gabe jarraitzen dutela adierazten jarraitu behar dugu. Joan-etorrien kate osoan irisgarritasuna bermatzeko beharra oso garrantzitsua dela kontuan hartzea ezinbestekoa da, jatorritik helmugara, zenbat etapa egin diren eta zer garraio-modu erabili den alde batera utzita. Garraibideen irisgarritasun unibertsalak herritarrek gizartearen eta ekonomian aukera berdinekin aktiboki parte hartzea ahalbidetzen du.

Azkenik, erakunde honek irisgarritasuna sustatzeko gauzatu dituen ekintzei dagokienez, azpimarratzekoa da kexa askotan adierazten dela udalek ez dutela kontrolatzen lokal komertzialen jardura berrietan edo beren erreformetan oztopo arkitektonikoak kentzeko araudia betetzen den ala ez. Erakunde honi egokia iruditu zaio udalei gogoraraztea beharrezkoa dela lokal edo establezimendu publikoak berritzen direnean irisgarritasunari buruzko araudia betetzetik salbuesteko espedienteak izapidetzea, hiri inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemaren irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen [apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren V. eranskinean](#) ondorio horretarako ezartzen den bezala. Horrela bermatzen da horrelako jardueretan beharrezkoa den kontrola benetan gauzatzen dela.

1.2. Hezkuntza

Ezgaitasunen bat daukaten ikasleak Diseinuko Goi mailako Arte Irakaskuntzara sarbidea izateko probetan txertatutako aldaketek osatzen dute erakunde honen eta hezkuntza arloko arduradunen arteko kolaborazioaren beste emaitzetako bat. Aurreko konpromiso bat betez, aurtengo (2016. urtea) proba antolatu, garatu eta ebaluatzeko emandako jarraibideetan eskaintutako plazen %5 erreserbatu da %33 edo gehiagoko ezgaitasun maila aitortuta daukaten ikasleentzat.

Ezin da gauza bera esan ezgaitasunen bat daukaten ikasleek erdi mailako eta goi mailako prestakuntza zikloetara sarbidea izate aldera erakunde honek planteatutako iradokizunari dagokionez, aurreko eskolatze fasean erabateko hezkuntza normalizazioa lortzeko laguntza eta baliabideak behar izan dituzten ikasleei ezarritako erreserba handituz. Erakunde honen ustez, hezkuntza arduradunek oker interpretatu dute egin zitzaizen iradokizuna. Horregatik, gure asmoa gai hau errepikatzea da.

Beste gai batzuei dagokienez, hezkuntza beharizan bereziak dituzten ikasleen gaineko kexa kasuetan hezkuntza arduradunek izandako kolaborazio jarrera ere nabarmendu behar da; oro har, kaltetutako familiei behar bezalako erantzun azkarra eman zaie. Oro har, adibide gisa Euskadiko Dislexia Elkartearen (DISLEBI) izenean aurkeztutakoa aipa daiteke; Hezkuntza Berrikuntzako Zuzendaritzak ondo hartu zuen. Kexa horretan, kexagileak kezkatuta agertu ziren hezkuntza administrazioak ez zuelako erantzunik eman dislexia daukaten ikasleen hezkuntza

beharrizanei erantzun hobea emateko balizko ekarpen gisa planteatutako hainbat ekimenen aurrean, Euskadiko Logopeden Elkargoaren parte hartzearekin prestatutako "Esku-hartzeen eraginkortasuna dislexia artatzerakoan: berrikustea" izeneko txostena egin ondoren, ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei arreta emateko mahai teknikoan.

Jarrera berezi horri esker, Gasteizko Gorbeialde HBI zentrorako doazen ikasleen eskolatze baldintzen inguruan jasotako keak laster bideratu ahal izatea espero dugu; EAeko hezkuntza bereziko zentro publiko bakarra da Gorbeialde HBI, eta erakunde honek ez du baztertu ofiziozko jarduketara hastea, ikasle horien osasun beharrizanei ematen zaien erantzuna aztertzeko, horren ondorioz legebiltzarrean lege besteko proposamena onartu baita.

1.3. Funtzio Publikoa

Eremu honetan, adierazi beharra dago 2016an kexa kopuru garrantzitsua erregistratu dela, familia eta lan ardurak gehiago eta hobeto bateratzeko beharra dela eta sustatutakoak. Honi dagokionez, behin betiko ebazteke ditugu oraindik gaitortasun larriak dituzten seme-alabak zaintzeko lan-jardunaldia murrizteko aukerei lotutakoak.

1.4. Ogasuna

Ezgaitasun bat izateak esfortzu ekonomiko osagarria exijitzen du pairatzen duen pertsonarentzat eta haren senideentzat, botere publikoek are gehiago aintzat hartu behar dutena, pertsona hauek herri-administrazioek burutu beharreko politiken planifikazioaren barruan sartzeko xedez, horien artean zerga administrazioa, hori guztiori Espainiar Konstituzioaren 49. artikulua barne hartzen duen konstituzioaren agindua betez.

Botere publikoei dagokie beharrezkoak diren neurriak hartzea eta baldintzak sustatzea gizabanakoen eta taldeen berdintasuna erreala eta eraginkorra izan dadila. Ezgaitasuna duten pertsonen eskuragarri dagoen errenta handitzera zuzendutako neurriak ezartzea ezgaitasuna duten pertsonen gizartean parte hartzea eta barneratzen laguntzen dute.

Ondorioz, zerga araudiak pertsona hauei, eta zaintzen dituzten senideei ere, konpentsatzeko aukera ematen duten elementuak ezarri beharko litzuke, bere gain hartu behar duten esfortzu ekonomiko horren kostuagatik.

PFEZa ezgaitasuna duten pertsonen kolektiboan eragin handiena duen zerga da, helburu den zergak jasotako errenta mota ugari barne hartzen dituelako eta egiturak jasotzen diren errenta motak bakarrik ez, zergadunen egoera pertsonalak ere aintzat hartzen ditu. Beraz, logikoa da PFEZa legegileak gehien azpimarratu duen zerga izatea ezgaitasuna duten pertsonentzako zerga onurak zehazterako orduan. Dena den, arrazoi horregatik ere da zalantzak sortzen dituen zerga, onura horien hedapenari dagokionez, bereziki, ezarri ahal izateko errenta duena ezgaitasuna duen pertsonaren laguntza, zaintza eta arreta betebeharrak onartzen dituen senide bat denean.

Horrela, herritar batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuten [Bizkaiko Foru Ogasunaren PFEZa](#) kudeatzen duen bulegoaren jardunarekin zuen desadostasuna zela eta, honek ez baitzizkion onartu zergadunak aplikatu zituen aurreko ahaideengatik eta ezgaitasuna duen pertsonagatik egindako murrizketak.

Kudeaketa bulegoak bi murrizketen aplikazioa ukatu zuten aurreko ahaidearekin bizikidetzara irizpidea betetzen ez zuelako, ezgaitasuna duen pertsonarekin hain zuzen.

PFEZa kudeatzen duen bulegoak, bere jardunean, ez zituen Bizkaiko Lurralde Historikoan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga erregulatzen duen [abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauak](#) ezartzen dituen aurreikuspenak bete.

Ezgaitasun edo dependentziagatik egiten den murrizketa aipatutako Foru Arauaren 82. artikulua erregulatzen du, eta hiru murrizketa kasu planteatzen dira bertan:

1. Murrizketa ezgaitasuna edo dependentzia duen zergadunari berari praktikatzeko Zergaren autolikidazioan.
2. Murrizketa ezgaitasuna duen pertsonarekin bizi den senideak edo senideek praktikatzeko, edo ezgaitasuna duen pertsonaren egoitza gastuak ordaintzen duten senideek, dagokion fakturarekin egiaztatzen denean betiere.
3. Ezgaitasuna duten 65 urtetik gorako pertsonak direnez, murrizketa hirugarren batek praktikatzeko, edo hirugarren pertsonak, senide zuzenak ez direnak, bizi direnekin eta ezgaitasuna edo dependentzia duen pertsona euren menpe dagoenean.

Hau da, murrizketa senide batek praktikatzen duenean, murrizketa eskubidea izateko, zerga erregulatzen duen arauak berariaz horrela ezartzen duelako, beharrezkoa da zergaduna ezgaitasuna duen pertsonarekin batera bizitzea, edo bi pertsonak banatuta bizi badira, beharrezkoa da murrizketa hau aplikatzen duen senidearen egoitza gastuak ordaintzen ari dituela egiaztatzea.

Edozein kasutan, egiaztatu behar da ezgaitasuna duten pertsonen jasotzen dituzten urteko errentak, errenta salbuetsiak kontuan hartu gabe, zergaldi zehatz horretan lanbideen arteko gutxieneko soldataren bikoitza gainditzen ez dutela.

Tokiko zergen mailan, Higiezinaren gaineko Zerga, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga, Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga, zabor-tasa, eta abarrek ezgaitasuna duten pertsonen benetan eskuragarri duten errentan eragin handia izan dezaketela aitortu beharra dago. Hala ere, gaur egunera arte ezgaitasunari oso iragazkorra izan ez diren zergak izan dira, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga, Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga eta Instalazioen eta Obren gaineko Zerga izan ezik. Kasu batzuetan, gainera, hobera hautatzeko da, hau da, toki erakundeari dagokio, bere zerga ordenantzaren bidez, onura zehatzaren sorrera onartzea eta hobariaren funtsezko alderdiak eta alderdi formalak erregulatzea. Beste gai batzuen artean, zerga ordenantzak

hobari horiek aldi berean ezar daitezkeen edo ez zehaztu behar du, beste hobari batzuekin batera ematen direnean.

Bizikidetzan, ezgaitasuna duen pertsonak jasotako arretan gertutasun eta intentsitate handiagoa dagoenean bezala ulertua, erreklamatu egiten da ere senideek tokiko zerga batzuk ezartzen dituzten hobariez gozatzeko orduan, bereziki Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergan. Egoera hau ibilgailua senide batek gidatu baina ezgaitasuna duen pertsona eramateko erabiltzen denean ematen da. Kasu hauetan, tokiko araudiak bizikidetzan exijitzen du eta ibilgailua ezgaitasuna duen pertsona eramateko bakarrik erabiltzea.

Senide batek eramateko kasu zehatz hauetan, ibilgailua ezgaitasuna duen pertsonak bakarrik erabiltzea ezgaitasuna duen pertsonarekin bizi ez bada egiaztatzeko oztopo bat da.

1.5. Osasuna

Eremu honetan azpimarratu nahi dugu tratamendu odontologikoa behar zuen adingabearen kasuaren inguruan gertatutakoa, autismoa pairatzen duenez, anestesia behar zuena ebakuntza-gelan.

Adingabeak, [Osakidetzaren](#) planifikazioaren arabera, Gipuzkoako osasun eremuari dagozkion osasun zerbitzuak esleituta ditu. Tratamendu odontologikoa daukan plangintza, ordea, [Osasun Sailak](#) itundutako [Haurren Hortzak Zaintzeko Programan \(PADI\)](#) sartzen denez, ez dator bat Osakidetzaren osasun eremuarekin. PADIren planifikazio honen arabera, duen autismoa dela eta behar duen arreta berezia Bizkaian eman behar zaio, Sestaoko anbulatorioan, eta ebakuntza-gela behar izatekotan, Santurtziko [San Juan de Dios ospitalean](#).

Hasiera batean Sestaoko medikuak pentsatu zuen adingabeak behar zuen interbentzioak hartzeak ez zuela ebakuntza-gelarik behar eta lasaigarri batekin egitea proposatu zuen. Ez zen posible izan eta PADIren haren odontologoarekin Ermuan hiru hilean behingo azterketa koordinatuak egitea erabaki zuten, haginaren bilakaera ikusteko. Aurrerago, odontologoak interbentzioa sedazioarekin (ebakuntza-gelarik gabe) egiteko aukeraren inguruko informazioa biltzeko gomendatu zien haren gurasoei. Izan ere, txantxarraren neurria ikusita, ezin zen gehiago itxaron.

Gurasoek, zeuden aukerei buruz informatu ondoren, hitzordua eskatu zuten [Donostiako Quirón osasun-zentroan](#) (Osasun Sailarekin itundutako zentroa, interbentzio hori behar duten Gipuzkoako pazienteentzat). Gurasoek horren berri eman zioten Sestaoko zentroari eta zentro honetan aurreikusitako hitzordua bertan behera utzi zuten. Quirónen esan zieten ezinezkoa zela sedazio bidezko interbentzioa egitea, interbentzioa luzea izango zelako eta ondorioz, anestesia orokorra beharko litzatekeelako (ebakuntza-gela).

Aurrekari horiekin, gurasoek euren semeari interbentzioa Quirónen egiteko baimena eskatu zuten. Osasun administrazioak ukatu egin zien Gipuzkoako zentro horretan interbentzioa egiteko baimena, zegokiena ez zelako. Horregatik, hitzordua eskatu zuten Sestaon eta han adierazi zieten, ebakuntza-gela

behar bazuten, zegokien zentroa Santurtziko San Juan de Dios ospitalea zela.

Ikuspuntu administratibotik, Osasun Sailaren erantzuna zuzena izan zen. Laguntza prozesuaren bilakaeraren gertaerak direla-eta, ordea, Quirónera jotzeko ukatutako baimena eskatu zuten unean adingabea zegoen egoera bi proposamen terapeutikoa zen: Bizkaian zegokion zentroan (laguntza horretarako itunduta) kaltetutako hagina ateratzea proposatzen zioten; Quirón zentroan (Gipuzkoako pazienteentzako itunduta), ordea, endodontzia egitea proposatzen zioten.

Osasun Sailari arazoa modu horretan azalduta, osasun administrazioak aurrekari guztiak aztertu zituen, funtsean bi proposamen terapeutikoak, eta azkenean gurasoen nahia bideratu zuten, proposamenean espezifikotasuna kontuan hartuz.

1.6. Segurtasuna

2016an berriz ere zalantzan jarri da Bilboko [Trafiko eta Aparkamendu Ordenantzak \(TAO/OTA\)](#) ezartzen duen exijentzia, ezgaitasuna duen pertsonen ibilgailuen ez-ohiko erregimenean sartu ahal izateko ezgaitasuna duen pertsona ibilgailua gidatzen duena izatearena, hain zuzen (36 eta 37.1 artikulak). Erakunde honek gai hau aipatu zuen Bilboko Udalarri zuzendutako aurreko bi gomendioetan, adierazitako erregimenaren onurak aparkatzeko txartel bakarreko titular guztiei zabaltzeko ([Arartekoaren 2014ko urriaren 30eko ebazpena](#) eta [urriaren 29ko 24/2004 Gomendioa](#)), onartu ez zirenak. Horretaz gain, egokitutako jo dugu aurten berriz ere gaia udalarri planteatzea, kexa berri batean oinarrituz berriz ere aztertzeko, ulertzen dugulako [martxoaren 22ko 50/2016 Dekretuak](#), aurten onartutako ezgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela onartzekoa, gomendioak oinarritu dituzten argudioak indartzen dituela. Udalak, hala ere, erakunde honen irizpidea onartu gabe jarraitzen du.

1.7. Etxebizitza

Etxebizitzaren eremuan, herritar batek Arartekoari bidalitako kexa aipatu behar dugu, gure esku-hartzea eskatu zuena Gipuzkoako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzara bidali zuen eskari baten erantzuna jaso ez zuelako, bizi den udalerrian, Donostian, "BOE etxebizitza baten esleitzeko azkarrerako".

Kexagileak, mugikortasun murriztu jarraitua duen pertsona batek, bere kexa idatzian adierazi zuen 2002an eman zuela izena Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan eta denbora asko zeramala egokitutako etxebizitza bat esleitzeko eskatuz.

Gipuzkoako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzatik azaldu zituzten kexagileari 2013an aitortu zitzaizkion mugikortasun murriztu jarraitua eta egokitutako babestutako etxebizitzaren esleitzeko legeak ezartzen duen baremazio prozeduraren bidez ere egin behar zela, eskatzaileen kopurua egokitutako babes ofizialeko etxebizitzak baino gehiago zirelako.

Ezaguna da gaur egun dagoen babestutako etxebizitzaren parkearen murrizketa, herritarren eskari kopurua herri-ad-

ministrazioek duten eskaintza baino askoz gehiago izatea dakarrena.

Errealitate honen aurrean, etxebizitza eskatzaileen erregistroaren eta babes ofizialeko eta erkidegoko erregimene-ko zuzkidura etxebizitzak esleitzeko prozeduraren [2012ko urriaren 15eko aginduaren 50. artikuluan](#) eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera, alokairu erregimeneko babestutako etxebizitzak etxebizitza behar duten pertsona guztiek parte hartzen duten prozedura baten bidez eta baremazio sistema baten arabera esleitu behar dira.

Ondorioz, babes ofizialeko etxebizitzaren esleipen zuzena ez-ohiko neurria da eta araudiak muturreko logela-premia ematen dela aurrekusten duen tasatutako kasuetan ematen da.

Araudiaren testuinguru honetan, abian dagoen espedientearen izapidetzea bertan behera geratu zen, eta kexagileari jakinarazi zitzaion, edozein kasutan 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, [Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legearen](#) laugarren xedapen iragankorraren arabera, etxebizitza bat legearen arabera okupatzeko eskubide subjektiboa aitortuko zaiela kide batez osatutako bizikidetzaren unitateei, urtean 9.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituztenak eta alokairu eskatzaile bezala izena eman dutenak, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan lau urte baino gehiago daramatenak.

2. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Duela 10 urte, 2006ko abenduaren 13an, Nazio Batuen Asanblada Orokorrak [Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Nazioarteko Konbentzioa](#) onartzeak ezgaitasuna duten pertsonentzako, euren senide eta inguruarentzako eta elkarte mugimenduarentzako ere -egite prozesuan izandako esku-hartzea erabakigarria izan zen- mugarri garrantzitsua izan zen.

Ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren X. urteurrena dela eta, XXI. mendeko Giza Eskubideen lehenengo Itun hau onartu zenetik eman diren legedi aurrerapenen gaineko azaleko ibilbide bat egin da.

Jakina denez, Espainiak Hitzarmena eta haren Hautazko Protokoloa berretsi zuen 2007ko azaroaren 23an, 2008ko maiatzaren 3an indarrean sartu zena. Momentu horretatik aurrera barne ordenamendu juridikoaren parte da.

Ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Hitzarmen zehatz baten beharra ezgaitasuna duten pertsonen giza-eskubideetan ematen den urraketa egiaztatze orokorretik dator, hedapen orokorra duten arauak eta hura babestea bermatzen duten nazioarteko itunak existitzen diren arren. Horrela aitortzen du hitzarmenak hitzaurrean, “arduraz ikusten du instrumentu eta jarduera anitz hauek gain ezgaitasuna duten pertsonen bizitza sozialean besteekin baldintza berdinetan parte hartzeko oztopoak izaten jarraitzen dutela eta mundu osoan euren giza-eskubideak urratzen jarraitzen direla”.

Horregatik, hitzarmenaren xede bat, 1. artikuluan dion bezala, “ezgaitasuna duten pertsona guztiek giza-eskubide eta askatasun guztiak berdintasun baldintzetan eta osotasunean gozatzea sustatu, babestu eta bermatzea, eta berezko duintasunaren errespetua sustatzea” da. Honekin esan daiteke hitzarmenak ez dituela eskubide berriak sortzen, baizik eta ezgaitasunaren testuinguruan existitzen diren giza-eskubideen itunetan diskriminazio ezaren printzipioa ezarriz, ezgaitasuna duten pertsonen unibertsalki aitortutako eskubide guztiak baldintza berdinetan gozatu eta gauzatzea egokitu nahi du, elementu zehatzak barne hartuz.

Espainiar sistema juridikoak aurreratuen artean dagoen legedi bat duen arren, hitzarmena berresteak araudia egokitzeko prozesu bat ireki zuen duela 10 urte, estatu mailan zein maila autonomiko edo lokalean.

Estatu mailan, [abuztuaren 1eko 26/2011 Legea](#) onartu zen, ezgaitasuna duten pertsonen eskubideetan eragina duen araudia hitzarmenari egokitzeko saiakera egiten duena, eta [irailaren 16ko 1276/2011 Errege Dekretua](#) ere, zentzu berekoa, ezgaitasuna duten pertsonen eskubideak bermatzeari dagokionean bultzada berritzailea emateko saiakera, euren bizitzako eremu guztietan, pertsonala zein kolektiboa, erabakiak hartzea errazteko, autonomia pertsonalaren eremuan aurrera egiteko eta dituzten gizarte desabantailak ezabatze-ko, diskriminatzaileak direlako eta giza-eskubideak urratzen dituztelako.

Araudia egokitzeko 26/200 Legeak barne hartzen dituen araudi berrikuntzei dagokienean, ezgaitasuna duten pertsonen aukera berdintasunean, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko [abenduaren 2ko 51/2003 Legearen](#) artikulua ezberdinak aldatzeko errepikatu dugu. Egindako aldaketan artean, gailentzekoa da Hitzarmenean jasotakoaren arabera ezgaitasunak dituzten pertsonen legezko definizioa egokitu egin zela eta [abenduaren 26ko 49/2007 Legea](#) beste zehapen osagarri bat sartu zela (lege horrek ezgaitasuna duten pertsonen aukera berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren esparruko zehapen-arabidea ezartzen du).

Osasun eremuan hainbat lege aldatu dira, eta ezgaitasuna duten pertsonak osasun administrazio publiko ezberdinekin duen harremanean diskriminazio ezaren arrazoi bezala sartu da. Horrela, ezgaitasuna duten pertsona emailea izateko aukera barne hartu da; espezializatutako osasun formazioa jasotzea erregulatu da, eta informaziorako eskubidea pertsona guztientzat eskuragarri eta ulergarri diren formatuetan erregulatu da.

Irisgarritasunaren eremuan, irisgarritasun unibertsalaren eraginkortasun osorako giltza gisa jabetza horizontalari buruzko [uztailaren 21eko 49/1960 Legearen](#) 10. artikuluko 2. atala eta 11. artikuluko 3. atalaren aldaketa aipatu beharra dago, jabeakideen komunitateek ezgaitasuna duten pertsonen higiezinaren elementu komunak egoki erabili ahal izateko beharrezkoak diren irisgarritasun jardun eta obrak egiteko betebeharra ezartzen duena. Modu berean, komunitatearentzat derrigorrezkoa da kanpoaldearekiko komunikazioa errazteko beharrezkoak diren dispositiboak instalatzea.

Enplegu publikoaren eremuan ere, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legeak ezgaitasuna duten pertsonentzako plaza hutsen erreserba kopurua ehuneko zazpira igo du eta legearen arabera lehenengo aldiz ezgaitasun intelektuala duten pertsonentzako kuota berezia sortu da.

Araudien inguruko ibilbide honetan, [martxoaren 25eko 422/2011 Errege Dekretua](#) aipatu behar dugu, ezgaitasuna duten pertsonen bizitza politikoa eta hauteskunde prozesuetan parte hartzeko oinarrizko baldintzak bermatu nahi duena. Horretarako, erregelamendu horrek hauteskunde-lokaletarako oinarrizko irisgarritasun-baldintzak eta hauteskundeekin, hauteskunde-kanpainako ekitaldi publikoekin eta hauteskundeetako propagandarekin lotutako informazio instituzionalerako irisgarritasun-baldintzak ezartzen ditu. Era berean, ezgaitasunak dituzten pertsonen bizitza politikoa parte hartzeko baldintzak zehazten ditu.

Azkenik, ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta euren gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartu zuen [azaroaren 29ko 1/2013 Errege Dekretu Legegilea](#) onartzeko egindako esfortzua azpimarratu behar dugu. Ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei lotutako hiru lege adierazgarri moldatu dira: Ezgaitasuna duten pertsonen gizarteratzeari buruzko [apirilaren 7ko 13/1982 Legea](#); ezgaitasuna duten pertsonen aukera berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legea eta aukera berdintasunaren eremuan arau-hauste eta zigorrer buruzko abenduaren 26ko 49/2007 Legea.

Espainia ordenamendu juridikoa Hitzarmenera egokitze-ko berriazko lege bat ematen lehenengo estatu-erretuko bat izan bada ere, baita Batzordean 2011ko irailean jarraipen txostena aurkezten ere, Herriaren Defendatzaileen Koordinazio XXVIII. Jardunaldietan, 2013ko urriaren egindakoak Hitzarmena egokitze eta ezartzeko azterketa egiteko, azken ondorioetan argiki egiaztatu zen oraindik gai garrantzitsu asko daudela erregulatu edo berrikusi behar direnak: premiazkoen artean ordenamendu juridikoak Hitzarmenak gaitasun juridikoarekin lotuta ematen dituen tratamendura egokitze-ko lege-aldaketak, behin betiko "borondatearen aldaketa" eredu gaituz "erabakiak hartzeko laguntza" eredu onartzeko, eta era berean, borondatekoa ez den ospitaleratze-ko neurriaren lege aldaketa, neurri hori ezgaitasun ideiatik aldentzeko eta pertsona bat (gaitasunarekin edo gabe) haren borondatearen aurka ospitaleratze-ko aukera guztiak atertzeko. Azken ondorioak eta prestakuntza tailer bakoitzean egindako lanak gure web orrian eta Diputado del Común delakoaren web orrian ikus daitezke.

Defendatzaileek jardunaldi horietan partekatutako gogoetan, ezgaitasunaren eremuan egunero jorratzen dugun lana aztertzean, bat gertatzen ezgaitasunaren alorreko araudian aurrerapenak eman diren arren (bai autonomia mailan baita estatu mailan ere), askotan botere publikoek ez dituztela Hitzarmenari dagoeneko egokituta dauden arauetan ezarritako aurreikuspenei dagokionean. Era berean, egiaztatu da ohikoa dela salatutako administrazio jardunetan interpretazioa ekiditea existitzen diren eta oraindik aldatu ez diren arauen printzipioen arabera.

Araudiaren marko autonomikoan ez da eremu honen gaineko erregulazio autonomikoan aurrerapen esanguratsurik eman Hitzarmena indarrean sartu zenetik.

EAEn duela gutxi onartutako bi arau aipatu ditzakegu: ezgaitasuna duten pertsonen aparkatzeko txartela erregulatzen duen [martxoaren 22ko 50/2016 Dekretua](#) eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko [maiatzaren 12ko 6/2016 Legea](#)

Erreferentziadun dekretuak, bizitza independentearen eta irisgarritasun unibertsalaren printzipioen arabera, euren ezgaitasuna dela eta mugikortasun murriztua duten pertsonen ibilgailuak aparkatzea errazteko neurriak osatzen ditu. 2014an estatuan onartutako Errege Dekretuari dagokionez aldaketak ezartzen ditu, helburu berdinarekin. Izan ere, ikusmen ezgaitasuna duten pertsonen, ezgaitasuna duten pertsonen garraio kolektiboan lan egiten duten pertsona fisiko eta juridikoei eta behin-behinean aparkatzeko txartelen aurreikuspenei aparkatzeko txartela izateko eskubidea aitortzeaz gain, txartela izateko eskubidea duten titularren artean euren bizi-funtzioetarako aparatu teknikoak modu jarraituan ezinbestekoak dituzten 3 urte baino gutxiago dituzten pertsonak, edo larritasuna dela eta 4 edo 5 motako ezgaitasunarekin baloratu dituztenak ere sartu dituzte (patologia larria edo oso larria).

Euskadiko Hirugarren Sektoreko Legea bezala izendatutakoak elkarrizketa zibileko II. printzipioa eman zuen, ezgaitasuna duten pertsonen eta euren senideen antolakunde ordezkarietat ezartzen duen eskumena, honen bidez: Nazio Batuen ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Hitzarmenaren 4.3 artikulua alde batetik, eta ezgaitasuna duten pertsonen eskubideen eta euren gizarteratzearen Lege Orokorraren Testu Bategina onartu zuen azaroaren 29ko 1/2013 Errege Dekretu Legegilea beste aldetik, eta Euskadiko hirugarren sektore sozialeko parte-hartzea barne hartzen du gizarte esku-hartzearen eremuan politika publikoak egin, gauzatu, jarraitu eta ebaluatzean. Parte hartze hori, beste bideen artean, Euskadiko Elkarrizketa Zibileko Mahaiaren -hirugarren sektore sozialaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko elkarrizketa espazio nagusia- eta euskal Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren bidez osatu zen.

Ondorio gisa aipatu beharra dago gure gizartean ezgaitasuna duten pertsonen eskubideak gauzatzeko hartu diren neurriekin lotutako aurrerapenez gain, oraindik lan asko dagoela egiteko ezgaitasuna duten pertsonen eskubideen gaineko erreferentziadun araudi autonomikoaren eguneratzean sakontzeko. Zentzu honetan, beharrezkoak dira hura aplikatzean kontraesanak ekiditeko egokitzapen eta aldaketak zehatzak, modu horretan Hitzarmenak jasotzen dituen eskubideen eraginkortasuna bermatu ahal izateko.

3. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

3.1. Bilerak elkarteekin

Arartekotik betidanik pentsatu dugu EAEn eremu honetan lan egiten duten erakunde horiek egiten duten lanak gure zeregina aberasten duela, kolektiboaren errealitatea ezagutzera ematen duten antena gisa dihardute eta. Hori dela eta, ezinbestean eman behar dizkiegu eskerrak, erakunde honekin etengabe lankidetzan aritzen direlako.

Ekitaldi honetan [APDEMA](#) elkartearekin biltzeko aukera izan dugu, Arabako Ezgaitasun Intelektuala duten Pertsonen aldeko Elkarte. Elkarte honek kolektiboan eragina duten gai batzuk planteatu zizkion Arartekoari, horien artean %65 edo gehiagoko ezgaitasuna duten pertsonen diru-sarrerak bermatzeko errentaren osagarria iraungitzearen harira sortutako arazoak, eta pertsona horien gurasoak dira prestazioa jasotzen dutenak, euren menpe seme-alabak izateagatik.

Gai honekin lotuta, [2015eko uztailaren 21ean Arartekoak emandako ebazpena](#) jakinarazi zitzaion. Horren bidez, abenduaren 23ko 18/2008 Legeko 9.2.a) artikulua onorioetarako Lanbideri "seme-alaba ardurapean izateagatik esleipenaren" kausatzaile jakin batzuei pentsioduntzat jo zitzaion eta, pentsioen osagarri modalitatean, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioak eten eta iraungitzeko zenbait prozedura berrikusi ditzaion gomendatu zion erakunde honek.

Era berean, Lanbiderekin erakunde honek zuzendutako gomendioa onartu ez zutela jakin ondoren egindako kudeaketan berri eman genien, eta ofiziozko espediente berri bat abiaraziko zela, horretarako arrazoi nahikoak zeudelako.

Atal hau idazterako orduan Lanbideren errekeritutako erantzuna jasotzearen zain gaude.

3.2. Ezgaitasuna duten pertsonen EAeko ospitaleetan dute irisgarritasunaren diagnostia

2016an bultzada garrantzitsua eman zaio Euskadiko ospitale zentroen irisgarritasunaren gaineko ez-ohiko txostena egiteari.

Txosten hau ezgaitasuna duten pertsonen kolektiboak Arartekoari egindako eskaeragatik batez ere egin da, urte haueetan, banaka edo modu kolektiboan, hainbat kexa aurkeztu dituztelako EAeko osasun-zentroetan zein ospitaleetan dauden oztopo ugariak direla eta.

Irisgarritasunari buruzko araudiaren betetze maila aztertzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleen sistemaren ga-

beziak identifikatzea da helburua, ezgaitasunen bat daukaten pertsonen lekualdaketen segurtasunari eta eraginkortasunari lotuta.

Horregatik, ikerketa honen xede izan dira Osakidetzako sare publikoko ospitaleak eta Osakidetzarekin hitzarmena duten ospitale pribatu batzuk.

Hautemandako gabezietan oinarrituz, lehentasuneko ekin-tza plan bat ezarri nahi da, eta Euskadiko ospitale sistemaren irisgarritasunaren diagnostia izan ondoren, kaltetutako administrazioak zuzentzeko beharrezko gomendioak zehaztu behar dira, irisgarritasun araudia betetzen dela exijitzeko, modu horretan ezgaitasuna duten pertsonen diskriminatuak ez izateko eta aukera berdinak izateko duten eskubidea erreala eta eraginkorra dela bermatzeko.

Azkenik, emaitzen zabaltze publikoaren bidez erakundeen, enpresen eta gizartearen kontzientziak sustatu nahi da, modu horretan lortuko baita beharrezkoa den bultzada irisgarritasun zailtasun handiak dituzten pertsonen bizi-kalitatearen hobekuntza lortzeko nahitaezkoak diren neurriak eta ekimenak abian jar daitezela.

4. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

4.1. Ezgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmena indarrean sartzeak ezgaitasunak tratatzeko modua aldatu zuen. Konbentzio hori onartu zenetik, ezgaitasuna giza eskubideen ikuspuntutik tratatu behar da, eta horrek esan nahi du ezgaitasunen bat duten pertsonak eskubideak dituzten gizabanakotzat jo behar direla erabat, hau da, ez direla laguntza-politiken xede huts gisa ikusi behar.

Horregatik, ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Hitzarmena onartu zeneko 10 urte betetzean, Arartekoak azpimarratu nahi du euskal administrazio guztiek ezgaitasuna duten pertsona guztiei, inolako diskriminaziorik gabe, giza-eskubideak eta askatasunak bermatzeko eta sustatzeko konpromisoa hartu behar dute, itun hau berretsi zeneko momentuan onartutako betebeharrak eraginkortasunez betez.

Ezgaitasuna duten pertsonen eskubide eta betebeharren bermea ezinbesteko baldintza da euskal gizartearen sartzeko eta gizaki bezala kohesionatutako gizarte bat lortzeko helburu zintzo eta desiragarria lortzeko.

4.2. Testuinguru horretan, gure ustez egokia da, era berean, ezgaitasunak dituzten pertsonen eskubideen arloko araudi autonomikoaren eguneratzean sakontzearen beharra azpimarratzen jarraitzea, egokitzapen eta aldaketa batzuk egiteko, araudi horien aplikazioarekin lotutako kontraesanak ekiditeko eta konbentzioak jasotzen dituen eskubideak benetan gauzatzen direla bermatu ahal izateko.

Eremu honi lotutako elkarreetatik, honakoak berrikusteko beharraz ohartu da: irisgarritasuna sustatzeko [abenduaren 4ko 20/1997 Legea](#), hiri inguruen ,espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzeko [apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua](#), eta garraioaren irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzeko [uztailaren 10eko 126/2001 Dekretua](#).

Irisgarritasun eremuan nahikoa berme eta babes ematen duen araudi bat izan arren, 1997an dagoeneko irisgarritasun printzipioa eta ezgaitasunaren tratamendurako gizarte eredu barne hartzen zuena, erakunde honek askotan egiaztatu ahal izan du euskal herri-administrazioek hura ezartzean interpretazio mugatzailea egin dutela, arauan bertan zehaztutako oinarritzko printzipioetatik aldendutako jardunak burutuz eta aurrerago Itunean aitortu direnak.

Edozelan ere, uste dugu premia duela botere publiko guztiek haien jardueren premisa gisa irisgarritasun unibertsalaren kontzeptua gain har dezaten eta herritar guztien beharren aniztasunari erantzuten dion ingurunea sortu dezaten. Horretarako, jendea biltzen den eraikin, establezimendu eta instalazioetan irisgarritasuna bermatzen duten ezinbesteko neurriak, lurraldea antolatzekeo tresnak, hirigintzako planak eta urbanizazio-proiektuak abian jarri behar dituzte.

4.3. Hala, gogorarazi behar dugu ezgaitasunak ezgaitasuna duenaren ahalmen ekonomikoa ez ezik haren familia-inguru-nearena (aurreko ahaideak, ezkontideak eta ondorengoak)

ere murrizten duela, benetan eskuragarri daukaten errenta mugatzen duten gastu gehigarri batzuk gain hartu behar dutenena. Zentzu horretan, ezgaitasunen bat duten pertsonak gizartean sartzeko eta bertan normaltasunez parte hartzeko ahalegin ekonomikoa handiagoa egin behar dute egunerokotasunean, beraz, desiragarria da zerga-neurriek ahalegin hori kontuan hartzea. Ezin dugu alde batera utzi botere publikoei dagokiela beharrezkoak diren neurriak hartzea eta baldintzak sustatzea gizabanakoen eta taldeen berdintasuna erreala eta eraginkorra izan dadila.

4.4. Beharrezkoa da ezgaitasunen bat duten pertsonak haien eskubide guztiak baliatzeko eta gizartean guztiz parte hartzeko aukera emango dien ekintza positiboaren neurriak hartzen sakontzea. Horretarako, gizarte politiketara ezgaitasunen bat duten pertsonen autonomia erraztu ere egin behar dute parekatzea lortzeko. Ezgaitasunen bat duten pertsonak modu indibidualen haien bizitza-eredua eraiki eta ezarri ahal izateko beharrezkoak diren baliabideak eta bitartekoak behar dituzte.

4.5. Amaitzeko, adierazi nahi dugu ezgaitasunen bat duten pertsonak gizartean baldintza berberetan parte har dezaten era askotako trabak gainditzeko, erabakigarria dela herri-administrazioek gizartearen kultura-arloko eraldatzeari zuzendutako sentsibilizazio-, sustapen- eta prestakuntza-jarduerak gara ditzaten, aukera berdintasuna eta bereizkeriarik eza kontuan hartuta, baita egoera horren, arrazoen eta ondorioen ezagutza handiagorako aukera eman dezaten ere.


III. ATALA

III

4

GAIXO KRONIKOAK

Aurrekariak



Gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak euskal herri-administrazioen arreta berezia behar duten behar zehatzak erakusten dituzte.

lazko txostenean ere jaso genuen etiologia ezezaguneko gaixotasunak pairatzen dituzten eta tratamendu zehatzik ez duten pertsonen arazoa, horien artean inguruarekin erlazionatutakoak; hala nola, sentsibilitate kimiko anizkoitza, gastu handiei aurre egin behar izatearen arazoa ere gehitzen baitzaie.

Sentsibilitate Kimiko Anizkoitza (SKA) pairatzen duen pertsona batek kexa bat aurkeztu zuen Ararteko erakundearen aurrean gaixotasun horren kontrako tratamendua gauzatzeko dituen zailtasunen ondorioz. Arabako Unibertsitate Ospitaleko Endokrinologia Zerbitzuak, 2014ko ekainean, haren egoera erreferentziatzeko zentro espezializatu batean baloratzeko proposamena egin zuen. Proposamen horren oinarria da Euskal Osasun Zerbitzuko espezialistek zailtasunak dituztela patologia hori artatzerako orduan.

Kasuaren aurrekariak aztertu ondoren eta informazioa osasun administrazioarekin egiaztatu ostean, erakunde honek iradokizun bat igorri zion [Osasun Sailari](#) SKA pairatzen duen

pertsonak aurkeztutako proposamen terapeutikoa abiarazteko baimen eskaera berrikus zezan; proposatutako tratamendu edo esku-hartze terapeutikoari buruzko ondorioa aldatuko ez dela onartuta, haren sintomatologia eta bizikaltatea hobetzen lagundu dezaketen alderdiak ebaluatuz. Kexa horren gaineko Arartekoaren gogoetak [Arartekoaren 2016ko maiatzaren 17ko ebazpenean](#) jaso dira. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari iradoki zaio zentro pribatu bateko esku-hartze terapeutikoaren aurretiazko jakinarazpenaren eskaera berrikusteko.

Osasun Sailak ez du iradokizun hori onartu eta erabaki hori honetan oinarritu du: proposatutako tratamenduaren ziurtasunik eza, bai sendatzeko gaitasunari dagokionez, bai sintomak arintzeko ahalmenari dagokionez.

Tratamenduaren ebidentziari lotutako alderdiak zalantzan jarri gabe, Arartekoaren ebazpenaren xedea bertan jasotako datuak hizpidera ekartzea zen (tartean Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak beharrezko sendagaiak inportatzeko baimenari dagokiona), interesdunaren eskaerari lotuta, aldeko baimena emateko zantzuak izan zitezkeelakoan. Erabaki horrek ez luke baldintzatutako proposatutako tratamenduaren arintzeko efektuen jarraipena egitea.

Arartekoak uste du iradokizuna onartzeak bat egingo lukeela sentsibilitate kimiko anizkoitzaren inguruan Osasun Ministerioak adostutako agiriaren proposamenetako batekin. Honekin hain zuzen ere: ikertutako tratamenduen ebidentzia falta oinarritzat hartuta, esku-hartze terapeutikoen helburua sintomak eta bizi-kaltatea hobetzea izan behar da. Hala, erakunde honen iritziz, agiri horrek aipatzen dituen sintomen tratamenduek, berez, gaur egun, ez daukate ebidentziarik.

Horregatik, sentitzen dut erabaki hori hartu izana, izan ere, ebidentzia falta horretatik abiatuz, iradokizunaren asmoa zen tratamendu alternatiborik ez duen patologia jasaten duen pazienteari aukera bat ematea, haren eskaera zilegi bideratuz.

III. ATALA

III

5

BURUKO GAIKOTASUNAK EDO NAHASMENDUAK DITUZTEN PERTSONAK

Aurrekariak



Buruko gaixotasunak edo nahasmenduak dituzten pertsonak, ahulgarrtasun berezia dutenez Arartekoak arreta berezia eskaintzen dion kolektiboa da. Uste dugu autonomia pertsonala sustatzea eta gaixotasun hauei lotutako estigma-ekin amaitzea, zaintzekin jarraitzea, zuzentasuna, ardura, koordinazioa, integrazioa, eraginkortasuna eta parte-hartze foroen eta senideen eta gaixoen asoziazio sustapenak gure herri-administrazioen jarduna inspiratzen duten printzipioak izan behar dutela, batez ere osasun, gizarte, hezkuntza, enplegu, justizia eta etxebizitza eremukoak.

Gure funtzioen artean administrazioen jardunak printzipio horien isla izaten laguntzea dago.

1. Kexarik aipagarrienak

Elikadura-portaeraren nahasmenduek ukitutako pertsonari laguntzeko elkarteek proposatutako zenbait alderdiren ganean jarraipen bat egite aldera, Arartekoak kexa-espediente bat ireki zuen. Horren bidez, [Osakidetzaren](#) 2014ko abenduko txosten batean jasotako ebaluazioa hartzen zen abiapuntutzat, pertsona horiek artatzeari buruzko eskaerari erantzunez.

Izapidetutako espedientea txosten hartako bi puntutan oinarritu da: paziente larriak ospitaleratze unitate espezializatu bat sortzeko eskaria, eta jantoki terapeutikoen zerbitzuak osatzeko beharra.

Lehenengo puntuan, zenbait gogoeta mota dela-eta, ezinezkoa izan da unitate espezializatu hori garatzeko eraren ganean ados jartzea. Bigarren puntuan –jantoki terapeutikoak– ordea, adostasuna dago haien erabilgarritasunari dagokionez, baldin eta laguntza-eskema koherente eta koordinatuan sartuta badaude.

Arartekoak puntu horiei buruzko informazio-eskaeraren artean eta Osakidetzak emandako erantzunaren artean igarotako denbora-tartean, lurralde historiko bakoitzeko ACABE eta Osakidetzako ordezkarien arteko bilera bat egin zen. Arartekoa ere joan zen bilera horretara. Jantoki terapeutikoen egungo egoeraz eta elikadura-portaeraren nahasmenduen berriazko arretaz hitz egin zuten, bai eta egungo gabeziei aurre egiteko aurreikusitako jardueraz ere. Alderdi horiei buruzko informazio-eskaerari Osakidetzak emandako erantzuna elikadura-portaeraren nahasmenduak ukitutako pertsonari laguntzeko hiru elkarteekin egiaztatu ondoren, Arartekoak [erakunde honek 2016ko uztailaren 14an emandako ebazpena](#) helarazi du. Horren bidez, Osakidetzari gomendatzen zaio beharrezko zuzkidura jaso dezala elikadura-portaeraren nahasmenduek ukitutako pertsonak artatzeari lotutako jardura-proposamenak aztertze aldera.

Buruko gaixotasuna duten pertsonen zaintza oraindik konpondu gabeko arazo bat da, zaintza hori eteten denean haiek osasun-zentrora joateko Ertzaintzako agenteen laguntza behar izan denean. Guraso batzuk kexa batean Arartekoari esan zioten beraien semea anbulantzia Arabako Unibertsitate Ospitalera eraman zutenean agente batzuk harekin joan zirela, baina bertara iristean, agenteek larrialdietako pazientek onartzeko zerbitzuan utzi zutela eta alde egin zutela ospitaleko langileek egoera horri aurre nola egin jakin gabe.

Ez da antzeko egoera bat jasotzen duen kexa bat Arartekora igortzen den lehen aldia: Ertzaintzako agenteek psikiatriako gaixo bati laguntzea –ziur asko borondatezkoa ez den modu batean ospitaleratze– eta gaixoak ondoren zentroa uztea ez baita behar bezala zaindu. Kasu honetan ere planteatu da gaixoa zaintzea nori dagokion osasun-zentrora heltzen denean, medikuak arreta eman aurretik.

Borondatezkoa ez den mediku-laguntzak dakarren egoera delikatu horren barnean, beste kexa bat aurkeztu da berriz bestelako alderdi bati dagokionez, honako honi lotuta: buruko gaixotasuna duen pertsona bat premiaz ospitaleratze psikiatrikoko unitate batean sartzeko (borondatezkoa ez dena) Osakidetzak eskatutako poliziaren esku-hartze bati. Espediente honetan, txosten hau egiteko ulean oraindik irekita zegoena, herritarraren erresistentziari poliziak emandako erantzuna ez zela egokia izan irizten zen, era honetako gaixotasunak dituztenek berriaz zer egoeran dauden eta kontrolik gabe daudela kontuan hartuz, haien emozio eta buruko orekari eusten dioten medikazioa eten izanaren ondorioz. Bere ustez, agenteek indarra erabili eta herritarra lurrean etzanda geratu zen hiru orduz, eskuburdinak jarrita, uniformeaz jantzitako lau agente bere ganean zituela eta beste bi, berriz, zutik, uniformerik gabe, harik eta ospitalera eraman behar zuen anbulantzia iritsi zen arte.

Borondatezkoa ez den ospitaleratzearekin duen desadostasuna era ez ohikoan ospitaleratutako pertsonak kexa jartzeko arrazoia izan da. Halakoetan, nahitaezkoa da ospitaleratze

prozedura betetzeari buruzko informazioa eskatzea eta, horri esker, Arartekoan egiaztatu ahal izan da ospitaleratzearen kontrol judiziala bermatzeko ezarritako betebeharrak bete direla.

Mediku batek hala erabakita ospitaleratzeak aukera hori ebaluatzean, beharrezkoa da honako hau kontuan hartzea: borondatezkoa ez den ospitaleratzeak, askatasunaren eta pertsonen borondatearen aurkako neurria denez, helburu terapeutiko bati erantzun behar diola eta epaileen baimena izan behar duela. Larrialdi kasuetan bakarrik baimentzen du legeak ospitaleratzea oinarrizko izapide hori gabe, lekuagatik dagokion epaileari ahalik eta lasterren jakinarazteko betebeharrarekin. Epaileak, muturreko neurri hori justifikatzen duen mediku-txostena aztertu eta ukitutako pertsonari entzun ondoren, neurria baliozkotu dezake.

Beste ikuspegi batetik, senide bat buru-osasuneko arazo batengatik artatu behar zela iritzitako zenbait pertsonak beste zailtasun bat ere adierazten zuten: haien ez zutela beraien borondatez osasun-zentrora joan nahi. Pertsona batek Arartekoari bere kezka helarazi zion senide baten jokabidea zela-eta, bere iritziz, tratamendu bat behar zuena, baina bere borondatez onartzen ez zuena.

Ezinbestean, kontuan hartu behar da kasu hauetan egindako edozein jarduera, osasun-arlotik nahiz arlo judizialek sustatutakoa, egungo legeriarekin bat etorri behar dela; legeriak borondatezkoa ez den ospitaleratzea soilik aurreikusten du, baldin eta nahasmendu psikikoa (Prozedura Zibilaren Legearen 763. artikulua) badago. Aurreikuspen horrek, ordea, ez du tratamendu ambulatorio baten ezarpena babesten osasun-zentroko bere psikiatraren bitartez.

Epaileen aurretiazko baimena beharrezkoa da, beraz. Hala ere, ospitaleratzea baimenik gabe egin daiteke larrialdiko arrazoiengatik, baina ondoren hura baieztatu dezakeen (edo ez) organo judizialaren jakinarazpena eskatzen du, tartean dauden inguruabarrak aztertu ondoren; haien artean, ospitaleratzea tratamenduaren neurri gisa agindu duen medikua-ren txostenetik sortutakoak.

Tratamenduaren beste edozein bidek pazientearen baimena eskatzen du, eta balizko jarduera edo bilatzen ez den ondorio baten hipotesiak pertsonaren autonomiaren aurkako neurri bat hartzen ez du utziko.

Buruko gaixotasuna duten eta eguneko zentroetan arreta jasotzen duten pertsonen komunitate-arretari dagokionez, 2015. urteko txostenean Basauriko erabiltzaile batzuek aurkeztutako

kexen zioa dela-eta hasitako jarduerak jaso ziren; izan ere, erabiltzaile horien iritziz, haien lurralde-eremuan behar adina tutoretzapeko pisu ez daudela esan zuten.

Buruko gaixotasun larriak dituztenei ostatu emateko komunitateko zerbitzuak eta baliabideak (tutoretzapeko pisuak eta egoitza txikiak) buru-osasuneko komunitatearen laguntza-zerbitzuen sareko ezinbesteko elementuak dira.

Errekurtso garrantzitsu horren eskariari buruz zer balorazio duen jakiteko, Arartekoak Osakidetza informazioa eskatu zion. Erakunde honi emandako erantzunaren arabera, ados agertu da ondorengoarekin: ostatu emateko baliabide soziosanitarioak buru-osasuneko komunitate-zerbitzuen beste elementu baten gisa hartzeko beharra dagoela, eta haien garapenean eta plangintzan aurrera egin behar dela; horretarako, pertsonen ingurune naturala erreferentzia modura hartzen da. Haien erabilgarritasunari dagokionez, Bizkaiko buru-osasuneko sarearen ustez, osasun-zerbitzuek ez bezala, ostatuko dispositibo soziosanitario horiek ez daude biztanle-kopuruaren arabera sektorizatuta, planifikatuta eta banatuta; beraz, Bizkaian duten banaketak eta kokapenak ez diete erantzuten udalerrien edo laguntza-sektoreen beharren irizpideei. Halaber, azaldu zuen komunitateko ostatu-baliabideak garatzeko egungo ereduari lotutako plangintzari eta erabakiei buruzko erabakiak, oro har, Bizkaiko Foru Aldundiak eta hirugarren sektoreko erakundeek hartzen dituztela.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak emandako informazioaren arabera, behar horien erantzuna Eusko Jaur-laritzak, foru aldundien eta udalen laguntzarekin, egiten ari den Gizarte Zerbitzuen Maparen esparruan kokatu behar da, biztanleak eta eskuragarri dauden baliabideak erreferentzia-tzat hartuz, bai eta aurreikusita daudenak ere.

Lan-esparruko arazo garrantzitsu bat lan-munduratzeko da, eta gai horrek buruko gaixotasuna duten pertsonak ukitzen ditu, neurri handi batean. Lan-merkatuko exijentzia zailen pertsona horiek topatzen dituzten zailtasun bereziak erantsi behar zaizkie. Enpleguarekin duen loturagatik, txosten honen Lan eta Gizarte Segurantzako arloan, arazo hori aipatu da.

Hain zuzen, Lan eta Gizarte Segurantzako arloan ere jasotako arazo horri dagokionez (hari lotzen gatazka), buruko gaixotasuna duten pertsonen arretan lan egiten eta beraien lan-munduratzeko eta gizarteratzea bilatzen duten zenbait elkartetan, Arartekoari beraien desadostasuna helarazi diote enpleguko zentro berezietako jarduera arautzeko orduan ez delako aurrerapenik egin.



III. ATALA

III

6

ESPETXERATUAK

Aurrekariak



Presoen bizi-baldintzak Arartekoaren etengabeko kezkarako arrazoia dira. Espetxeratuak beren askatasuna galdu izanak ez du esan nahi ahultasun egoera bizi behar dutenik. Aitzitik, beren eskubide guztiak normaltasunez gauzatu eta epaian zehazki mugatu ez dizkieten gizarte-onura guztiak izan behar dituzte. Gure espetxeetako errealitateak, ordea, presoek eskubide horiek praktikan baliatzerakoan bizi dituzten mota guztietako zailtasunez hitz egiten digu.

Administrazioaren jarduna ikuskatzeko eskumenik ez dugun eremua da, hura Estatuko Administrazioari dagokiolarako. Aldiz, esku har dezakegu, **administrazio autonomikoak, foru erkidegoetakoek eta tokikoek eskaintzen edo kudeatzen dituzten zerbitzu eta ekimenen menpekua** denean espetxean dauden pertsonen eskubideen eraginkortasuna. Funtsean, hauek dira aipatu zerbitzuak: osasuna, hezkuntza, garraioa, prestakuntza-programak, gizarte-ongizatea eta laneratzea.

Bestalde, erakunde honek beti pentsatu izan du bere betebeharrak dela **egungo zigor-sistemari buruzko hausnarketa bultzatzea**, legeak egotzi dion lana, hau da, giza eskubideen kultura hedatzeko lana, betez. Zentzu horretan, gure betebeharrak da Eusko Legebiltzarrari eta gizarte osoari jakinaraztea gure espetxeetan dauden espetxeratuak bizi dituzten baldintzak, askatasuna mugatzeak benetan dituen eraginak jakinaraztearekin batera. Hori guztia, ildo estrategiko hauen bidez gauzatzen den esku-hartzearen bitartez:

- **Politika kriminalaren eta espetxe-ereduaren** inguruan hausnartu beharra dagoela adieraztea gizarteari.
- **Espetxearen ordezkotzat** aukerak dibertsifikatzea, eta **ahalik eta gehien hedatzea erregimen irekia**.

- Gizarteratzeko bideak indartzea, bai maila soziolaborean, bai, askatasuna kenduta duten pertsonak eduki ditzaketen behar kognitibo-konduktualen gainean esku-hartuz.
- Espetxeek **irekiagoak** izan behar dute, **lotura handiagoa izan behar dute gizarte osoarekin**. Beraz, egin dezagun parte hartzeko sistemak garatzearen eta indartzearen alde, bai espetxeen barrualdean, bai antolatutako gizarte zibilarengandik datozen ekimenei dagokienez.

Azkenik, eskumen-mugaketak ditugun arren, espetxearen errealitatearen eta **legeak zigor askatasun-gabetzaileari esleitzen dion errehabilitazio-zereginaren artean sartzen diren arazo ugariak** konpontzen saiatzen gara. 2016an, ez dira ildo horretan jasotako kekek gehiegi aldatu, eta, ondorioz, hiru mailatan hartu dugu esku:

- Osakidetzaren aurrean, gure espetxeak betetzen dituzten pertsonen osasuna zaintzeko erantzukizuna baita; izan ere, gainerako biztanleak artatzen dituen osasun-sare berberak artatzen ditu espetxeratuak. 2016an, mediku-buruzagitza berria izendatu da Arabako espetxean. Zentro horri buruzkoak izan dira eremu honetan ireki diren espediente guztiak, eta, horri esker, prebentzioaren zein diagnostikoaren eta tratamenduaren arloan egin diren hobekuntzak egiaztatu ahal izan ditugu.
- Euskadiko agintaritzen aurrean ere jardun dugu, Barne Ministerioaren mendeko **Espetxe Erakundearen Idazkaritza Nagusiarekin** elkarlanean garatzen dituen presatuntza-jardueren edo lan-sustapenerako jardueren inguruan.
- Era berean, borondate oneko kudeaketaren bidez, gai hauen inguruan azaldu dizkiguten kekei ere arreta ematen saiatu gara: seme-alaba adingabeekin dauden emakumeen moduluak bizi-baldintzak, espetxe-saillkapena, baimenen emakida, lekualdatzeak, helmugak eta zigor-araubidea. Hori guztia, eskudun **Herriaren Defendatzailearekin** koordinatuta, Estatuko Gobernuaren mendeko administrazio-jarduerak dira-eta.

Edonola ere, Bilboko Espetxe-zaintzako Epaitegitik eta Zigor-erloto Betearazpen Epaitegitik jasotako laguntza eskertu behar dugu, bai eta, beste behin ere, gure kudeaketek Arabako, Basauriko eta Martuteneko espetxeetako Zuzendaritzengan aurkitu duten jarrera harkor eta laguntzailea eskertu ere.

1. Kexarik aipagarrienak

Arartekoak bere jardueraren eremu honetan egin duen esku-hartzearen erakusgarriak izan daitezela kasu hauek.

1.1. Gizarteratzeko bideak diseinatzeko kudeaketak

Jasotako kexa

Urtean zehar, espetxeratuek abiarazitako hainbat espediente izapidetu genituen. Pertsona horiek galduta zituzten beren erreferente familiarak, bai eta sozializatzeko erreferenteak ere, espetxean luzaroan egoteagatik, askotariko mendekotasunengatik edo jarrera-arazoengatik.

Ondorioz, adierazten zutenaren arabera, ordenamenduan aurreikusten diren erdi-askatasuneko modalitateetako batean kondena betetzeko baldintzak betetzen zituzten arren, ezin zieten horiei heldu, kanpoan ez zutelako inolako laguntzarik. Gabezia hori betetzeko laguntza eskatzen zioten Arartekoari, gizarteratzeko neurrien onuradun izateko aukera eduki zezaten, horietarako eskubidea zutela uste baitzuten.

Arartekoaren esku-hartzea

Beren inguruabarretara egokitutako gizarteratzeko eta laneratzeko bideak eduki ahal izan zituzten hartu zuen esku Arartekoak. Hiru neurri mota hartzea ahalbidetzen zien horrek espetxe-agintaritzei, edo, hala bazegokion, Espetxe-zaintzako Epaitegiari: baldintzapeko askatasuna, hirugarren graduako sailkapena eta [Espetxeen Erregelamenduaren](#) 100.2. artikulua bigarren mailako espetxealdia betetzen ari diren kasu zehatzetarako aurreikusten dituen malgutzeko-bideak.

Horretarako, maila ezberdinetan aritu ginen lanean:

- Espetxeetako Zuzendaritzak eta Espetxe-zaintzako Epaitegiak. Hain zuzen ere, aipatu neurriak ez emateko eragozpen bakarra gizarteratzeari laguntzeko baliabideen falta zela egiaztatzeko xedez.
- Pertsona horiek har litzaketen baliabide eta programe-tako foru-agintaritzak arduradunak.
- Hitzarmenen edo diru-laguntzaren bidez, aipatu bitartekoak kudeatzen zituzten gizarte-ekimeneko erakundeak
- [Zigorrek Kudeatzeko Euskal Zerbitzua](#) (ZKEZ).

Emaitza

Kasu gehienetan, egoitza-baliabideak esleitzea eta gizarteratzeko eta laneratzeko programak diseinatzea lortu zen, eta horiek, aipatu neurriak betetzea ahalbidetzeaz gain, segimendua egiteko baliozko erreferentzia ziren. Zentzu horretan, ZKEZren laguntza erabakigarria izan zen, bai neurri

horiek emateari eta kexagileak espetxetik ateratzeari begira, bai eman zitzaion laguntzak pertsonen beharrak kontuan hartzeari begira, bere osotasunean.

Esku-hartze horien arrakasta, ordea, ez da erabatekoa izan; izan ere, kasu jakin batzuetan, foru-erakundeek, eskura zuden baliabideen titularrak ziren heinean, uste zuten ez zegoela pertsona zehatz bati egokitzen zitzaion baliabide egokirik. Espetxeetako agintaritzek, berriz, neurri horiek jasotzeko gai ikusten zituzten pertsona horiek. Beraz, disfuntzioa dakar egoera horrek, eta berori gainditzeko xedez jarraitzen dugu lan egiten.

1.2. Arabako Foru Aldundiaren tutoretzapeko adingabe batek Arabako espetxean barneratuta zegoen bati bisitak egitea

Jasotako kexa

Arabako espetxean barneratuta dagoen herritar batek Arartekoari jo zuen; hala, kexa bat jarri zuen Arabako Foru Aldundiaren tutoretzapean dagoen adingabe batekin harremanetan jartzeko zailtasunak direla-eta; neska hori bere semearen neska-laguna da eta, adierazi zuenez, bere familiak beti izan du oso harreman estua berarekin.

Kexagileak adierazi zuen berak eskatu zituela bisita horiek espetxetik eta, ukatzeko arrazoirik ez badago ere, bere baimena atzeratzen zela, koordinaziorik ez dagoelako espetxe-zerbitzuen eta adingabearen tutoretza duten foru arduradunen artean.

Arartekoaren esku-hartzea

Kasu honetan, Arartekoaren esku-hartzearen xedea ez zen soilik izan, kexa eragin zuten oztopoak baztertzeko aldera, indarreko araudia aplikatzea. Izan ere, horien izaera juridikoa nahiz egitatezkoa zen: hobetzeko marjina erakusten zuten ukitutako bi administrazioen arteko koordinazioan, baita horien eta kexagilearen arteko komunikazioan ere.

Foru-aldundiari informazioa eskatu ondoren, horrek baieztatu egin zuen tutoretzapeko gaztearen kargura zegoen heziketa-taldearen eta psikologoaren ustez, bisitek on egingo lioketela garapen emozionalari begira, gazteak kexagilearekin zituen loturak kontuan hartuta. Ondorioz, eta adingabe baten interes gorena jokoan zegoenez, harremanetan jarri ginen Espetxeko Zuzendaritzarekin. Aipatu komunikazioak ez baimentzea erabaki zuela adierazi zigun horrek, lagun gisa eskatzen diren bisitak ukatzea baita beren irizpide orokorra, adingabeen kasuan.

Arartekoak bi inguruabar adieraziz erantzun zuen. Horiekin, kasu honetan, ñabartu egin zen irizpide horren ezarpena, eta eskatutako bisitak bateragarriak izan zitezela lor zitekeen, erakunde honen iritziz, espetxeko araudiak komunikazioen arloan duen ikuspegiarekin:

- Adin txikiko hori adin-nagusitasuna betetzetik hurbil zegoen, eta behin baino gehiagotan eskatu zuen bere tutoretza duen foru erakundearen aurrean barneratua bisitatu ahal izatea; izan ere, horrekin ia-ia ama-alaba harremana dauka. Neska horrentzat, kexagilea eta bere seme-alabak familia-erreferentzia bakarra dira, eta, gainera, barneratuaren semearen bikotea da.
- Tutoretza duen erakundea aipatu komunikazioa gertatzearen alde zegoen; izan ere, adingabearentzat onuragarria zela uste baitzuen, barneratuak berarentzat duen erreferentziako irudia kontuan hartuta.

Emaitza

Planteamendu horren aurrean, zentroko Zuzendaritzak bere irizpidea aldatu zuen, eta komunikazioa baimenduko zuela jakinarazi zion Arartekoari. Baldintza bakarra ezarri zuen: bisiten egutegiaren berri eta adingabeari lagunduko zion pertsonaren berri ematea Arabako Foru Aldundiari.

Erabaki horren berri eman genion tutoretza zuen erakundeari, eta laguntzaile gisa barneratuaren semea bera izendatu ostean, berehala bidali zizkion horren datuak espetxeari, Adin Txikikoaren Kontseiluaren baimenarekin eta hurrengo bi hilabeteetarako bisita-programarekin batera. Horri esker, egun gutxi batzuetara, lehen komunikazioa gertatu zen barneratuaren eta gaztearen artean.

2. Araudi- eta gizarte-testuingurua

2016an, gure espetxeetan barneratutako pertsonen kopuruak behera egiteko joerari eutsi zaio, gure azken txostentan azaldu dugun moduan. Eta, beste behin ere, bi arrazoi-rengatik gertatu da:

- Delituen kopuruak behera egin du. [Ertzaintzaren estatistiken](#) arabera, eta aurreko urtearekin alderatuz, % 3,17 jaitsi da kopurua, eta, funtsean, zigor mota guztiei ezar dakieke ehuneko hori. Bereziki adierazgarria da, zentzu horretan, bizitzaren aurkako delituak % 33,87 jaitsi izana, ordena publikoaren aurkako delituak % 24,21 jaitsi izana eta osasun publikoaren aurkako delituak (droga-trafikoa) % 11,54 jaitsi izana, eta ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkako delituek, aldiz, bere horretan jarraitu izana. Ertzaintzak dakielako, 61.790 kasu gertatu dira 2016an, eta gure espetxeetan dauden biztanleek gehien egindako arau-hausteak izaten jarraitzen dute horiek.
- Egun betetzen diren kondenen gainean ondorioak edukitzen jarraitzen dute, denborari begira elkarrengandik hurbil egon arren, [Zigor Kodea aldatzen duen 5/2010 Lege Organikoak](#) egin zituen bi aldaketa hauek:

- Osasun publikoaren aurkako delituen modalitate jakin batzuei esleitutako zigorrak jaitsi egin dira.
- Arrazoi horrengatik atzerritarrei ezartzen zaizkien zigorrak betearazpenak ordezkatzeko dira, jatorrizko herrialdeetara itzularazten baitira. Zigor Kodearen 89. artikulua erreformak, ildo horretan, [Atzerritarrei buruzko 4/2000 Lege Orokorren 57.2. artikulua](#)ren filosofia Zigor Kodera eramaten duela dirudi, zigor askatasun-gabetzailea duten herritar atzerritar guztiak sartzen baititu hor, horiek erregularak, irregularak edo are EBko herritarrak izan gorabehera. Egia da [Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2014ko maiatzaren 13ko epaiak](#) zehaztu egin zuela horren ezarpenaren automatizazioa; izan ere, kanporatzea aginduko duen ebazpenak hauek kontuan hartu behar dituela ezartzen du: atzerritarrak Espainian bizitzen egindako denbora, bertan sortutako loturak, adina, kanporatzeak interesdunari eta haren familiari dakartzkien ondorioak eta beste herrialdearekin dituen loturak. Hala ere, eragile juridiko guztiek bat egiten dute adieraztean, beste behin ere, neurri horren ondorioz atzerritarren kopuruak behera egin duela gure espetxeetan.

Horren ondorioz, azken zortzi urteetan, biztanleriaren % 17 galdu dute Euskadiko espetxeek. Txosten hau ixterakoan, 1.223 pertsona ziren (1.100 gizon eta 123 emakume). Emakumei dagokienez, % 55 zeuden Arabako espetxean, % 24 Basaurikoan eta % 21 Martutenean.

Alabaina, askatasun-gabetzea gehiegi erabiltzen dela adierazten dute zifra horiek, eta egitate hori azpimarratu beharrean gaude. Espetxeen Inguruko Gizarte Erakundearen Sareak 2016ko apirilaren agerian jarri zuen mezu hori, berrituz ere, [Zigorren eta espetxeen errealtateari buruzko ikerketan](#). Ikerketan eman diren datu esanguratsuen artean, hiru nabarmendu nahiko genituzke. Aipatu ditugun alderdietatik harago, etorkizunera begira jarri du Euskadiko espetxeetako biztanleriaren beherakada, eta politika kriminal zehatz baten epe luzerako ondorioen testuinguruan kokatu du:

- Kondena, batez beste, 18 hilekoak izaten dira. Euskadiko espetxeetan betetzen diren zigorraldiek bikoiztu egiten dute Europako batezbestekoa, eta bederatzi aldiz gaintzen dute Danimarka bezalako herrialdeetakoak. Izan ere, azken 20 urteetan hazi egin da espetxe-zigorraren iraupena, eta, bestetik, zailtasun handiagoak daude baldintzapeko askatasuna edo hirugarren gradua eskuratzeko. Horrek eragiten du Espainian eta Europar Batasunean dauden presoaren kopuruaren arteko desberdintasuna.
- Espainian, 100.000 biztanletik 133 espetxean daude; Europar Batasuneko mendebaldeko 15 herrialdeetan baino % 31,68 handiagoa da espetxeratze-tasa. Horrela, aipatu tasa eta Europar Batasuneko batezbestekoa berdinak balira, eta gure krimen-kopuruak kontuan hartuta, egungoaren erdia izan beharko litzateke espetxeratuta dagoen Euskadiko biztanleria.

- Egungo joerak aurrera egingo balu, Espainiako delituen tasa 1.000 biztanleko 40 ingurukoa litzateke 2019an. Bada, horrek 1987ko krimen-kopuru berean jarriko gintuzke, baina, urte hartan, espetxeetako biztanleria egungoaren erdia baino gutxiago zen.

Datu horiek zerikusia dute urte amaieran Gipuzkoan espetxe berri bat irekitzeko espedienteak abiarazi izanarekin, beste behin ere. Izan ere, azken hamarkadan, hainbat aldiz iragarri da oztopo gehiegi zeudela Iparralde III espetxea egiteko (horrela esaten zaio, ofizialki, Zubietako espetxeari), eta beste hainbat aldiz eten izan da proiektua. Aurreikuspen berrien arabera, 2017aren amaieran hasiko dira obrak, eta espetxe berriak ez ditu 2020aren amaierara arte irekiko ateak.

Bitartean, hasiera batean azpiegitura horrentzat aurreikusi zen neurria murriztu egin da; hala ere, Gipuzkoako espetxe zaharren edukiera bost aldiz gaindituko luke zentro horrek. Hiru bizitegi-modulu edukiko litzuke, eta erabilera anitzeko beste bat. Guztira, 508 ziega egongo liriteke (Martutenek 108 dauka), eta horietako lau banakakoak izango liriteke, mugikortasun murriztua duten pertsonentzat. Berez, ziegen erabilera orokorra banakakoa izango litzateke, baina bi pertsona hartu ahalko litzukete, beharrezkoa balitz. Gainera, beste 80 ziega osagarri edukiko litzuke, honela antolatuta: 24 banakako erregimen itxiko moduluan, 32 erizaindegian eta 24 sartzetean, irteeretan eta igarotzetan.

Martutenek duen gabezia handienetako bati irtenbidea emateko aurkeztu da proiektua, bertan ezin baitira presoak delituaren eta ezaugarrien arabera banandu, nahiko litzatekeen bezala. Erakunde honen iritziz, ordea, behar horren aurreko sentsibilitateak, zalantzarik gabe positiboak izan arren, ez luke zertan proiektatu den bezalako irtenbidea ekarri. Behar horri arreta emateko modu gehiago daude, eta Euskadi eduki beharko lukeen espetxe-ereduari buruzko hausnarketa orokor batean azaldu beharko liriteke modu horiek, horretarako eskumena onartzearekin batera. Jakina, lehenbailehen onartu beharko litzateke eskumen hori. Arartekoak hainbat aldiz aipatu du hori urtean zehar, eremu honetan herritarrek dituzten eskubideen egoera baloratzean, aurrerago jaso ditugun terminoetan.

Azken alderdi horrekin zuzeneko lotura duenez, aipatu beharra dugu indarrean jarri dela, [Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2016-2019ren](#) esparruan, gizarte-zerbitzuetako prestazioen zerrenda berria.

Azkenik, eta urtean zehar erakunde honetan jaso diren kexa batzuetan garrantzia duela kontuan hartuta, ebazpen hauek aipatu behar ditugu:

- [Auzitegi Gorenaren 2015eko abenduaren 9ko epaia](#), espetxeen arloan doktrina bateratzeko kasazio-errekurtsoak aurrera egin ahal izateko betekizunak ezartzen dituena.
- [Konstituzio Auzitegiaren 2016ko ekainaren 23ko 123/2016 epaia](#), baliogabe eta konstituzioaren aurkako izendatu zituena Estatuko 2014rako Aurrekontu Orokorren Legeak Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean sartu zituen aldaketa zehatz batzuk. Aldaketa horien

arabera, terrorismoarekin zerikusia zuten delituengatik kondenatutako 220 pertsonak langabeziagatik sorospena jasotzeari utzi zioten, behin espetxetik kanpo zeudela. Espetxetik atera direnentzako sorospena izaten da hori, eta [EEZPk](#) kudeatzen du. Epai horri helduz, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko lan-arloko Salak adierazi zuen preso-ohiek sei hilabetez jaso dezaketela espetxetik ateratzeagatik sorospena, eta sei hileko aldietan luza daitekeela, gehienez ere urte eta erdi egin arte.

- Bizkaiko Entzutegi Probintzialeko bigarren atalaren auzitegiak, 2016ko azaroaren 18koa bata eta 2016ko abenduaren 7koa bestea. Basauriko espetxean barneratutako bi presok jarritako kexak balioestean adierazi zuten beren zigor- eta espetxe-egoerari buruzko informazio eguneratua edukitzeko eskubidea dutela, eta zentroko langileek ahalbidetu behar dietela hori. Eskubide horren urraketak lotura zuzena zuen barneratutakoaren arretak zituen gabeziekin. Arartekoak Legebiltzarrarentzako iazko txostenean azaldu zuenez, presoek ematen zitzaizkien informazioari eragiten zion horrek, kondena-berrikuspenen, moldaketen eta gizarte-erantzukizunen arloan.

3. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

3.1. Bilerak elkarteekin

Hiru lurraldeetan bilerak egin ditugu presoek birgizarteratzean lan egiten duten gizarte ekimeneko erakundeekin eta abokatu elkargo bakoitzeko Espetxe Laguntzako Txandaren ardura duten abokatuarekin.

Urtero dauzkagun topaketa horien bitartez, burutzen ditugun jardueren berri elkari emateko esparru egonkorra izan nahi dugu, urte osoan gure esku-hartzea eskatzen den kasu jakinei buruz daukagun harremanaz gain. Bestalde, adierazten dizkiguten kezkarako arrazoiei esker, gure espetxeetako egoeraren bilakaera ezagutzen dugu lehen eskutik.

3.2. Bilerak administrazioarekin

Urtean zehar, etengabeko harremana eduki dugu Justizia Sailburuordetzarekin, horren mendekoa baita [Zigorrek Kudeatzeko Euskal Zerbitzua](#), gizarteratzeko eta laneratzeko bideekin zerikusia duten kontuen inguruan.

Era berean, Osakidetzako arduradunekin lan egiteko aukera eduki dugu. Laguntza hori erabakigarria izan da espetxeen osasunaren arloan azaldu diren espedienteak ebazteko orduan.

3.3. Ikuskapen bisitak

Estatuko Herriaren Defendatzailearen lantaldera gaineratu zitzaizkion Arartekoko langileak. Urrian, bi eguneko ikuskapena egin zuen talde horrek Arabako espetxean, zentro askatasun-gabetzaileen kontrol-lanen esparruan. Tortura eta tratu txarrak prebenitzeko mekanismo nazionalaren barruan dago kokatuta hori.

Bestetik, instalazio psikiatrikoak ikuskatzeko nazioarteko prestakuntza-tailerrean hartu zuen parte erakunde honek, Vilnan (Lituania). Askatasuna kenduta duten pertsonen eskubideak bermatzeko erakundeei zuzendutakoa zen tailerra. Ombudsmanaren Nazioarteko Erakundeak antolatuta, Tortura Prebenitzeko Elkartearen (APTren) laguntzarekin, eta hamazazpi herrialdeetako adituak bildu zituen (herriaren defendatzaileen arloan ziren adituak). Erakunde psikiatrikoetan gogoz kontra sartzearen gaineko kontrolarekin zerikusia duten erronka espezifikoak maneiatzeko behar diren esperientziak, ezagutzak eta trebetasunak trukatzeko aukera egon zen han. Torturaren eta Tratu Txarren aurkako Nazio Batuetako Biltzarren Protokoloak diseinatutako prebentzio-mekanismoen funtzionamendua erreferentetzat hartuta, ikuspegi batez ere praktikoa eduki zuen topaketak, eta egun bateko ikuskapena egin zen Lituaniako espetxe-psikiatriko bakarrera.

3.4. Parte-hartzea ekitaldietan, ikastaroetan biltzarretan

Urtean zehar, erakunde honek hainbat aldiz hartu du parte, hizlari lanetan, presoen egoerari buruzko mintegi espezializatuetan; hiru eremutan, batez ere:

- Unibertsitatekoan, arlo horretan egiten dugun esku-hartzearen ildoak zeintzuk diren erakusteko eta Arartekoak Euskadiko espetxeen egoeraren gainean egin duen diagnostikoa azaltzeko aukera eduki dugu, Euskal Herriko Unibertsitateko graduondoko zenbait ikastaroren harira. Era berean, eta gure unibertsitate publikoaren udako ikastaroen esparruan, espetxe-eremuko osasun mentalari buruzko ponentzia eman zuten erakunde honetako langileak, [Buru-osasuna eta bizi-kalitateari buruzko ikastaroan](#).
- Elkartearen sarearen eremuan, espetxe-ingurunean lan egiten duten gizarte-ekimeneko erakundeek antolatutako topaketen bidez. Zentzu horretan, jardunaldi hauek nabarmendu daitezke: [Zigor-prozeduren mende edo espetxean dauden eta gaixotasun mentalak dauzkaten pertsonen arreta, komunitate-eremuan](#).
- Beste alde batetik, espetxeetako errealitateari buruzko azterketa azaltzeko aukera eduki du erakunde honek. Bi kolektibo espezifikoari buruzkoa da azterketa:
 - Emakumeak: [Emakumeak eta Kartzelari buruzko Nazioarteko Jardunaldien](#) baitan, Bilbon.
 - Terrorismoarekin zerikusia duten delituengatik kondenatuta edo espetxean dauden pertsonak:

mintegiak eta hausnarketarako foroak, bai [gizarte zibilak](#), bai [Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritzak](#) deitutakoak horiek.

4. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

4.1. Espetxeratuena da gure gizarteko talde ahulenetako bat. Horregatik, elkarrekin joan behar dira **espetxe-transferentziaren eskaera** eta euskal herritar guztien deia, gizartea jakitun izan dadin espetxea ez dela erakunde urruna eta besterena, eta errealitate horren gaineko erantzukizuna hartu behar dugula.

Zentzu horretan, transferentzia horren ikuspegia (zeinaren aldarrikapena Arartekoak ere sinatzen duen) eta espetxeen errealitatea komunitatean hobeto sartzeko beharra lotzea da gure lana, presoak gure erakunde autonomikoei, foralek eta tokikoek antolatzen eta kudeatzen dituzten zerbitzuen (gizarte zerbitzuak, hezkuntza-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak eta lana sustatzeko zerbitzuak) sare normalizatura sartzek edukiko lukeen eraginaren bidez.

4.2. Aipatu eremuen artean, **gizarte zerbitzuenak eragin ditu berrikuntza gehien aurten**, zentzu bikoitzean:

- Alde batetik, **alderdi arautzailea** dugu, indarrean jarri baita gizarte-zerbitzuetako prestazioen zerrenda berria. Urrats positiboa da hori, [Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Legearen](#) garapenaren amaiera baitakar. Horrekin, erregulatu egin dira herritarrek, askatasuna kenduta duten herritarrek barne hartuta, gizarte-zerbitzuak eskubide subjektibo gisa eskatzeko baldintzak, bai eta zerbitzu horiek modu homogineoan gozatzeko baldintzak ere, gure autonomia-erkidegoari dagokionez. Alabaina, gabezia baten berri eman dute hirugarren sektoreko erakundeek zein Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2016-2019 planak berak: eremu soziosanitarioa, batez ere, mendekoa den hirugarren adinaren inguruan garatu da, eta ez horrenbeste gizarte bazterketaren errealitateen inguruan. Eta, horien artean, presoen errealitateak dira arreta gutxien jasotzen dutenak, eta horrela izaten jarraituko dute, espetxeen espazioa gure erakunde eskumen-eremukoa ez dela uste den bitartean.
- Beste alde batetik, **esku hartu behar izan dugun dis-funtzioak daude**; izan ere, administrazio batzuek berantolaketa-lanak egin dituzte, aurreko puntuan salatu dugun gabeziaren testuinguruan, askatasuna kenduta duten pertsonen laguntzeko lana araudi berri horri egokitzeko xedez.

Hirugarren sektoreko erakundeek kudeatzen zituzten, funtsean, tradizionalki laguntza hori zehazten zuten bitartekoak. Horiek izan dira hirugarren gradura sartzeko ahalbidetzen zuten betetze alternatibo eta bide ugari gehien arduradunak. Laguntza publikoak zituzten horretarako, bai diru-laguntzen bidez, bai hitzarmenen bidez. Egoera horrek, prekarioa eta ez oso homoginea izan arren, malgutasunak eta arrazoizko

epean erantzuteko gaitasunak ezaugarritzen zuen esku-haritze mota sortu zuen. Gainera, gure ustez, ezagutza aditua bermatzen zuen, artatutako pertsonen problematika osoa jorratzea ahalbidetzen zuena.

Erregulazio berria, zalantzarik gabe, aurrerapausoa da, sisteman sartzen duen arrazionalizazioa dela-eta. Alabaina, egiaztatu dugun arriskua dakar: gure espetxeetako errealtateari lotutako gizarte-bazterketaren berezitasunak kontuan hartu gabe egin dira horietako batzuk, prestazioen eta zerbitzuen zerrenda berrian, memoria ekonomikoan eta gizarte-zerbitzuen mapan jasotako irizpide berriei errokatu direnean beren baliabideak.

Ildo horretan, nahitaez ezagutu behar da zein azpiegitura behar den sustraitzerik ez duten pertsonak baimenez goza dezaten, edo nolabaiteko erregimen irekia baimentzen duten bigarren graduako modalitateetan bete ahal izan dezaten kondena. Espetxeen Erregelamenduaren 100.2. eta 182. artikuluek erraztu egiten dute, zalantzarik gabe, bergizarteratzeko eta komunitate-arekiko harremanak eraikitze eta berreraikitze xedeak betetzea, baina, horretarako, plazetan indartsuagoa den eta plaza horien esleipenerako balorazioan eta esleipenean arinagoa eta malguagoa den laguntza-sarea behar da.

- Familiaren laguntzarik ez duten pertsonak laguntzeko beharrei arreta emateko zentro eta plaza mota nahikoak eduki behar ditu gizarte-zerbitzuen zerrendak. Hala ere, laguntza hori ezin daiteke espetxe-ostekoa bakarrik izan. Espetxekoa ere izan behar da, horren arabera baina pertsona horiek erregimen irekira iristea, baimenen eta aurretiko erregimen irekien bidez. Izan ere, graduaren sailkapenean aurrera egitea ahalbidetzen dute baimen horiek, eta oinarritzekoak dira, gizarte- eta komunitate-mailan, pertsona horiek erakundeekin lotzeko, erakunde horiek lagunduko baitie gero gizarteratzeko bideak arrakastatsuak izan daitezkeen.
- Eskaera-prozedurei eta bazterketa baloratzeko tresnei dagokienez, beti erroldatuta ez dagoen eta eragile espezifikoen arabera (hala nola, askatasun-gabetzea bera, lekualdatzeko eta zigortzeko aukera eta gizarte-erakundeetatik jasoko duen laguntza) gizarteratuko eta laneratuko den biztanleriari egokitu behar zaizkie.
- Erakunde honen ustez, ez da onargarria eskura dauden laguntza-baliabideetan onartzeko irizpideek horietatik kanpo uztea egokitu gabeko profila duten pertsona batzuk, espetxean egotea eraginez, espetxe-agintaritzek eta agintaritzak judizialek adierazi dutenean espetxetik ateratzeko prest daudela. Zentzu horretan, ezinbestekoa da foru-agintaritzek eta Osakidetza lan egin dezatela, gure administrazioek eskaintzen dituzten zerbitzu soziosanitarioen zerrendaren bidez bideratu ahal izan daitezkeen kasu horiek guztiak, eta eremu horretako baliabide publikoen neurria, diseinua eta eskuragarritasuna une oro egon daitezkeen tratamenduak aurrera egitearen mende, eta ez alderantziz.

4.3. Gomendio horiek **espetxe-eredu propioaren** esparruan hartzen dute erabateko zentzua, eta, Eusko Legebil-

tzarrentzako urteko txostenetan, urterik urte eman dugu behar horren berri. Bazterketa areagotzen ez duen zigor-betearazpeneko sistema integrala nahi dugu, gure espetxeetan dauden pertsona gehienak delitu egitera bultzatzen dituzten eragileak kroniko bihurtuko ez dituen. Gure ustez, **Zigor eta Espetxe Betearazpen Politikaren ildo nagusiak** ikerketa kontuan hartuta diseinatu beharko litzateke mota horretako sistema bat, behar diren eguneratzeekin. Euskal Herriko Unibertsitateak egin zuen aipatu ikerlana, Eusko Jaurilaritzako Justizia Sailak eskatuta.

Gauzak horrela, Zubietako espetxearen proiektua berriro aktibatua izana azpimarratu behar dugu, hasieran pentsatutakoa baino espetxe txikiagoa aurrekusten baitu, bazter utzi ostean bai Gipuzkoan eraikiko zen gizarteratze-zentroa, bai Bizkaian eta Araban proiektatutakoak. Erakunde honen ustez, dimentsio berri txikiago horiek eragin dituzten aurrekontu-mugaketak aukera izan litezke, eremu horretan lan egiten duten erakunde bidez, **eredu-aldaketa** eskatzen ari den gizarte zibilaren proposamenen inguruan hausnartzeko, eta, zentzu horretan, **Euskal Autonomia Erkidegoan espetxe "itxi" edo "konplimenduzkoa" (Arabakoa) nahikoa den eta Bizkaian eta Gipuzkoan bi gizarteratze-zentro behar diren** aztertze bidea emateko. Askatasuna kenduta edukita, gizarteratzeko eta laneratze bideetan aurrera egiten ari diren pertsonen arreta emateko zentroak dira gizarteratzeko zentroak. **Arabian bizi diren presoentzat, nahikoa izan liteke Gasteizen harrera-pisuak jartzearekin.**

Eredu baten edo beste baten alde egitea, gure ustez, hausnarketa baten ondoriozkoa izan beharko litzateke, eta, hausnarketa horrekin batera, arlo honetako eskumenak onartzeko prozesua gertatu beharko litzateke. Edonola ere, gure ustean, **aukera ezberdinen kostuak neurtu** beharko litzuzke gaiari buruzko hausnarketa arduratsuak; ezer baino lehen, gizarte- eta justizia-terminoetan, baina baita aukera bakoitza bideragarria izan dadin behar diren azpiegiturek eta langileek ekartzen duten gastu ekonomikoari erreparatuta ere.

4.4. Aurten, oso erabakigarria izan da erakunde honen lana, presoak, kondena eduki arren, herritarren eskura dauden zerbitzuen sare normalizatura iristearen alderdi espezifikoki bati dagokionez. **Gure osasun mentaleko baliabideek Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona guztiak artatzeko** beharraz ari gara; hau da, patologia psikiatriko kronikoa edukita, zigor-prozedura judizialean dauden edo horien ondorioz zigorrak edo neurriak betetzen ari direnez ari gara. Gure iritziz, Euskadin betearazten den zigor edo neurri bat jaso duen pertsona orok eduki beharko luke aipatu arreta jasotzeko aukera, zigorra erabaki duen organo judizialaren kokapena eta jurisdikzio-eremua edozein izanda ere. Zentzu horretan, arazoa bideratzeko modu egokia izan liteke tartean dauden erakundeen arteko hitzarmena.

4.5. Gure aurreko txostenetan adierazi genuenez, kontraesankorra da eta, gainera, berdintasun-printzipioaren aurkakoa, behar terapeutikoengatik espetxetik kanpo bizi diren zigortuek (Espetxeen Erregelamenduaren 182. artikulua) **diru-sarrerak bermatzeko errenta** jasotzeko aukerarik ez edukitzea. Beren mantenu-gastuek ez dute inolako estaldura instituzionalik jasotzen, baina beren egoeran, gainerako

betekizunak betetzen baldin badira, hirugarren graduan daudenei diru-sarrerak bermatzeko errenta ematea justifikatzen duten arrazoi berberak daude, eta azken horiek jasotzen dute. Espetxeko egoera horrek ez du ez horien birtualtasuna, ez laguntzaren funtsa deuseztatzen.

Hirugarren graduan –murriztuan, arruntean edo telematiakoan– dauden pertsona askorekin egiten da mendekotasunekin lotutako esku-hartze terapeutikoa, baina ez zaie kentzen DSBE jasotzeko eskubidea. Era berean, toxikomanien tratamendua edo tratamendu psikiatrikoa jasotzen ari diren pertsona guztiei ematen zaie DSBE, zigorra betetzen ari ez badira, baina ez zaie prestazioa ematen tratamendua Espetxeetako Erregelamenduaren aginduz egiten ari direnei, kasu batean eta bestean baloratu behar diren oinarrizko gizarte-egoerak ia berberak izan arren.

Azken batean, Espetxeetako Erregelamenduaren 182. artikulua bidez hirugarren gradua ezartzeak ezin dezake diru-sarrerak bermatzeko errentaren sarbidetik baztertu, eta egoera horretan dauden pertsonak prestazioaren sarbidetik kentzeak, berdintasun-printzipioa urratzeaz gain, larri kaltetzen ditu zaugarritasun bereziko egoeran dagoen kolektibo bat gizarteratzeko aukerak. Halaxe jaso zuen, beraz, **Arartekoaren 2016ko abenduaren 22ko** ebazpenak. **Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte**

Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren etete bati eusteko erabakia.

4.6. Urtean zehar, aldaketa aipagarriak egin dira **terrorismo-delituen zigor- eta espetxe-tratamenduan.**

Zentzu horretan, Arartekoak adierazpen publikoen bidez berretsi du, askatasuna kenduta duten pertsonen dagokienez, pertsona guztien titulartasunekoak diren giza eskubideen gozamena bermatzeko beharra dagoela.

Azkenik, erakunde honek errepikatu egiten du egokia dela espetxe-zigorra duten pertsonen jatorrizko tokietatik hurbil dauden espetxeetan bete dezatela zigorra, xede hirukoitz hau asebetetzeko: gizarteratzeari laguntzeko, ordenamendu juridikoak eskatzen duen bezala; zigortuen gizarte-desezrotzea saihesteko, lotura sozialak indartuz; eta urruntzeak familiei ekartzen dizkien ondorio negatiboak, kostuak eta arriskuak desagerrarazteko. Horren inguruko kexek berretsi egiten zuten, zehazki, zigorrak etxetik urrundutako zentroetan betetzeak kaltea eragiten diela adingabeei. Bestetik, gaixotasun larriak edo sendaezinak dituzten presoen dagokienez, eta behar diren zuhurtziak ezarritik, Espetxeetako Erregelamenduan aurreikusita dauden neurriak horien alde ezartzea oso garrantzitsua dela azpimarratu nahi dugu.

III. ATALA

III

7

IJITOAK ETA BESTE GUTXIENGO KULTURAL BATZUK

Aurrekariak



Arartekoak arreta berezia jartzen die ijito herriaren zailtasun eta beharizanei. Gutxiengo kultural horrek bazterkeria sozial eta politikoa jasan du, eta berdintasuna sustatzeko, bereizkeriaren aurka borrokatzeko eta bere nortasun kulturala aitortzeko politikak zor zaizkio. Ijitoei dagozkien Arartekoaren jarduketak azaltzen ditugu atal honetan, eta aurten nabarmendu behar diren elementu adierazgarrietariko batzuk aipatzen ditugu.

1. Arloa kopurutan

Ijitoei buruz jasotzen ditugun kexak, oro har, Arartekoaren arlo ezberdinetan aztertzen dira (gizarteratzea, hezkuntza, etxebizitza) edo Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostenean, izan ere, horietan gainerako herritarrek helarazten dizkigutenean antzeko kontuak jorratzen dira. Horrela, nekez aipa dezakegu gutxiengo horretako kideek egindako kexa kopuru jakin bat.

Ijitoek zailtasunak izaten dituzte etxebizitza bat eduki eta mantentzeko, prestazio ekonomikoak eta gizarte zerbitzuak jasotzeko, udal erroldan inskribatzeko eta herri bateko bizilaguntzat hartuak izateko. Batez ere horrexegatik jotzen dute erakunde honetara. Kexak jartzeko beste arrazoi bat izaten dira, zenbaitetan, hirigintza hondamena jasan duten eta hirigintzako birgaitze prozedura behar duten auzoetan bizitzearekin lotutako kontuak. Era berean, kexak sorrarazten dituzte auzotarrekiko harremanetan dituzten arazoek. Hurrengo atalean kexa berezi batzuk aipatuko ditugu, berriazko trataera behar baitute.

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria prestazio ekonomikoak etetea eta ukatzea

Ijitoei eragiten dieten kexetan, batzuetan, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria prestazioak arautzen dituen araudiko zenbait betekizun betetzeko zailtasuna aintzat hartu beharreko elementu garrantzitsu bat izan ohi da ([Gizarteratze eta Diru-sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legea](#)). Besteak beste, etxebizitza bat okupatzea egiaztatze titulu juridikoak edo kaleko salmentan lan egiten duten pertsonen kasuan diru-sarrerak egiaztatze betekizunei lotutakoak izaten dira.

Ijitoek izaten duten beste zailtasun handietako bat etxebizitza bat lortzea izaten da. Egoera horretan hainbat faktorek erasaten dute, esaterako, etxebizitza batean bizi diren bizikidetzaren unitate kopurua mugatzen duen betekizunak (adibidez, adingabeak kargura eta familia harremanak daudenean, bi urteko muga dago) edo jasotzen den diru-sarrerak bermatzeko errentako kopuruak; kopuru hori ez da aldatzen bizikidetzaren unitateko kide kopurua hiru baino gehiagokoa izan arren.

Lanbidetik igortzen diren komunikazioen zailtasunak ere eragina dauka familia horietan; izan ere, azaldu dutenez, askotan ez dituzte erakunde horren idatzizko komunikazioak jasotzen etxebizitzetako postontziekin arazoak izaten direlako.

Jasotzen ditugun kexen artean zenbait betebeharrak bete behar zituztela jakin gabe, betebeharrak ez betetzeagatik prestazioak eten edo iraungitze kasuak nabarmendu behar dira. Horregatik, betekizunak eta betebeharrak betetzeari buruzko eta betekizunak ez betetzeak eragiten dituen ondorioei buruzko nahikoa informazio eta informazio egokia eta enpatikoa izatea ezinbestekoa da.

Laneko Diru-sarrerak Osatzeko Errentaren modalitatean eragina daukaten kexak jasotzen jarraitzen dugu. Modalitate honi esker, laneko diru-sarrerak laguntza batekin osatu ahal dira, familia unitateak hilerok jasotzen duen zenbatekoa duina dela bermatzeko, eta baldintza prekarioetako lanak batzuetan pizgarriak kentzeko izan dezakeen ondorioa saiheste aldera. Horretarako, zenbaketatik norberaren edo besteen konturako lan jardunetik eratorritako diru-sareren ehuneko jakin bat kentzen da. Ijitoek kalek salmenta bezalako jardueretan egiten dute lan, eta zenbait berezitasun dituzten kooperatibetan antolatzen dira. Burutzen dituzten jarduerak ez dituzte diru-sarrera altuak ekartzen, eta, ondorioz, askotan bateragarriak izaten dira diru-sarrerak bermatzeko errentarekin, laneko diru-sarrerak osatzeko modalitatean. Diru-sarrera horiek modu

berezi batean jasotzen dira kontabilitate dokumentuetan edo zerga araudiari dagokionez.

Horren haritik, araudi bera izan behar ote den alde batera utzita, ijitoek lan jardunak nola garatzen dituzten jakitean sarkontzea interesgarria dela uste dugu, jasotzen dituzten diru-sarrerak osatu behar diren zehatz aztertzea ahalbidetuko duen dokumentazio egokia eskatu ahal izateko.

Zenbait agiri zehatz eskatzeak eragotzi egiten du, pertsona batzuen kasuan, prestazioa jasotzea, kasu askotan lan prekarioak dituzten arren. Horrenbestez, bereizi egin beharko lirakeke, batetik, diru-sarrera nahikoa eragiten duen jarduna, eta lan prekarioa izateagatik osatu egin beharreko jarduna. Gogoan izan behar da errenta osagarriak lan jardunarekin jarraitzea ahalbidetzen duela, eta hori oso positiboa da epe ertain eta luzean.

2.2. Beste zailtasun batzuk: udal erroldan izena ematea

Erroldan izena emateko zailtasunak urtero ageri dira keketan, nahiz eta, oro har, bideratu egiten diren. 2016. urtean ere familia bat udal erroldan ez erroldatzearen ondoriozko kexa bat jaso genuen, eskaeran benetan egoitza zeukatela egiaztatu arren, Gasteizko Udalak egiaztatze funtzioak betez aldez aurreko administrazio prozedura bat izapidetzeko eskaera egin zuelako, ulertzen baitzuen ez zegoela etxebizitza okupatzeko titulu baliagarririk. Ondoren, alokairu kontratu bat aurkeztu eta gero, familia hura udal erroldan erroldatzea erabaki zen.

Udal erroldan sartzeko eskubideak ondorio garrantzitsuak ditu zerbitzu publikoetara sarbidea izateko eta beste eskubide batzuk baliatzeko, esaterako eskubide politikoak (bozkatze eskubidea, parte hartze eskubidea, etab.). Zerbitzu publikoetan, sarbidea izateko betekizunen artean erroldan erroldatuta egotea egiaztatzeke ziurtagiria aurkeztea aurreikusitako ohi da. Aipatutako espedientean, erroldan jasota ez egoteak zaildu egin zuen neskato bati ikastetxe batean plaza bat esleitzea; erroldatu ondoren, Hezkuntza Sailak berehala esleitu zion plaza bat ikastetxe batean.

2.3. Egonlekuak

Arartekoak esku-hartze bat abiatu du Durangoko Aramotz auzoan jatorri errumaniarra daukaten pertsonen egonleku bati lotuta. Lortutako informazioaren arabera, ijitoen etniako hogeit hamar pertsona egonleku batean bizi ziren, eta bizilagunen artean ezinezona sortzen ari zen egonlekuko bizi baldintzak osasunerako kaltegarriak zirelako, eta ur, berokuntza edo osasun baliabiderik gabe bizi zirelako.

Arartekoak, informazio eskaeran [Arartekoaren 3/2011 Gomendio Orokorra, urriaren 5ekoa](#) aipatu zuen. *Jatorriz Europar Batasunekoak diren eta Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren ijitoen egonlekuetan esku hartzeko jardute protokoloak garatzeko beharra.*

Erakunde honen iritziz, herri-administrazioek horrelako egonlekuetan esku hartu behar dute, pertsonen beharrezko aintzat hartuta, ez baita soilik espazio publikoa erabiltzeari edo leku bat utzarzeari lotutako arazo bat (jabetza pribatuko ondasun higiezin bat okupatzeagatik); **aizitik, eskubide eta betebeharren titularrak diren pertsonen bizitzari lotuta ere badago, eta zaurkortasun egoeran daude.**

Era berean, honako hau adierazi genuen: *“Erakunde honek lehenetsutakoak jotzen du lankidetzaren eta koordinazio mekanismoak ezartzea tartean dauden eragilean, herri-administrazioen eta gizarte eragilean artean. Azken horiek, gure ustez, garrantzi handia dute ijitoekin esku hartzeko unean.*

Talde horiekiko jardunbideen berezitasunen ondorioz, beharrezkoa da aurretik ezagutzea nolako harremanak dituzten gizarte zerbitzuekin eta nolako den euren migrazio proiektua, eta, hala balitz, baita gizarteratzeko jardura eta ibilbide posibleak zeintzuk diren jakitea ere.

Beste alde batetik, euskal herri-administrazioek bete egin behar dituzte Europar Batasuneko, Europar Kontseiluko eta Nazio Batuetako estatu kidea izateagatik hartutako konpromisoak; beraz, aplikatu egin behar dituzte giza eskubideak babestera, proportzionaltasunez jardutera eta gizarteratzeko politikak sustatzera behartzen dituzten itunak eta hitzarmenak. Zentzu horretan, Ministroen Batzordearen akordioz gauzaturako estrategiatik, hau da, ijitoak Espainian gizarteratzeko estrategiatik (2012-2020) eratorritako betebeharrak gogorarazi nahi genituzke. Aipatu batzordeak apirilaren 5ean Europar Legebiltzarrari, Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Batzordeari eta Eskualdeen Batzordeari zuzendutako komunikazioaren ondoriozkoa da estrategia hori. Ondorioz, komunitateko jatorria duten ijitoak gizarteratzeko neurriak gara daitezela aurreikusi du Europar Batasunak. Era berean, baliabideak eman ditu, herri-administrazioek eta gizarte eragileek onartutako tresnetan ezarritako xedeak bete ahal izan ditzaten”.

Durangoko Udalak igorritako erantzunean, garatutako zenbait jarduketa aipatu ziren, besteak beste, administrazioen artean koordinatzeko jarduketak, herritarrekin bilerak egitea edo egonlekua osatzen duten pertsonen entzuteko saioa aurreikusi izana. Erantzunetik nabarmendu behar da egonlekuan egindako lehenengo esku-hartzea udaleko gizarte zerbitzuetatik egin zela, Biltzen Integrazioarako eta Kulturen Arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuaren laguntzarekin, pertsona bakoitzaren banakako diagnostiko sozial bat egin ahal izateko. Arartekoa udalaren partetik informazio osagarria jasotzeko zain dago, azken balorazioa egin ahal izateko.

2.4. Bizilagunen arteko harremanak

Gasteizko Abetxuko auzoan eta Bilboko Ollerieta inguruan izandako bizikidetzaren arazoei buruzko kexak jaso ditu Arartekoak.

Hala, 2015eko azaroan Atxurigorri bizilagunen elkarteak Arartekora jo zuen, Ollerieta inguruan gertatzen diren bizikidetzaren arazo larrien aurrean erakunde honek esku hartzea eskatzeko; egoera horietan familia bereko mutiko talde bat zen protagonista neurri handi batean, gehienak adingabeak, eta

beste bizilagun batzuk ikaratu, asaldatu eta horiei lapurreta egin izana leporatzen zaie.

Elkarteko kideek modu aktiboan parte hartzen dute auzoan eta, horiek horrela, auzo horretan bizi diren hiritarrek sentitzen duten segurtasunik eza, zaurgarritasun sentimendua, ekintza horiekiko inpunitateak sorrarazten dien nekea eta inpotentzia partekatzen dituzte. Hala eta guztiz ere, uste dute irtenbideak ez direla eskusiboki “segurtasunaren” ikuspuntutik edo kode polizialek bakarrik artikulatu behar. Izan ere, haien ustez erasoak eta lapurretak egiten ari diren adingabeek bizi duten egoeratik oso kezkatuta agertu dira; babesgabetasun egoera larriar daudela uste dute, ez dutelako erreferentziarako pertsona heldu egokirik, eta une honetan hilda edo espetxean dituzten gurasoen istorioa errepikatuzera “bideratuta” daudelako. Jorrratu nahi duten errealtatea konplexua dela jakin badakite eta irtenbidea ere konplexua izango dela uste dute; izan ere, egoerak auzoko komunitate-bizitzan presentzia eta erantzukizuna duten hainbat eragile konprometitzen ditu. Elkartek komunitate lana bultzatzeko eskatu du, gizarte eragile edo administrazio bakoitzari dagozkion jarduketak koordinatzeko lidergoa erakundeetatik bideratuz. Bestalde, inplikatur dauden haur eta nerabeekin egiten diren esku-hartzeak areagotu behar direla uste dute, babesgabetasun egoera argian baitaude; hori guztia, belaunaldi arteko desberdintasunaren eta baztertzearren transmisioa apurtzen laguntzeko. Arartekoak hainbat gairi buruzko informazioa eskatu zion Bilboko Udalari, administrazio honen esku-hartzea baloratu ahal izateko.

Arartekoak, jasotako informazioa aztertu ondoren, egindako esku-hartze ugari buruzko eta sailen artean eta erakundeen artean koordinatzeko premiari buruzko zenbait ohar igorri zituen. Horren haritik, inguruan esku-hartze holistikoa egiteko premia aztertu zen, esku-hartze planifikatua, ordenatua, eta erantzukizuna daukaten erakundeak eta udal arloak garatu beharreko ekintzak antolatuko zituena. Esku hartzearen helburu nagusien artean, nolana ere, ahultasun handieneko egoerak artatzea egon behar da, hau da, familia zabal honetako haur eta nerabeak artatzea; horretarako, [Bizkaiko Foru Aldundi](#)ko Adingabeak Babesteko Zerbitzuaren eta [Bilboko Udal](#)aren arteko kolaborazioa behar da, baita komunitateko bitartekaritza eta garapen programak martxan jartzea ere. Arartekoak positibotzat jo zuen 2016ko ekainean Osoko Bilkurak onartutako plana.

Hain zuzen ere, honako hauek bereziki garrantzitsutzat jo zituen:

- administrazioen arteko kolaborazioa eta koordinazioa, nukleo-elementu gisa;
- inplikaturtako haurrak eta horiekiko interesa kontuan hartzea, planean jasotako ekintza eta neurri bakoitzak horiengan izan dezakeen eragina aztertuz;
- komunitate-bitartekaritarako eta komunitate-garapenerako neurriak artikulatzea;
- gizarte zibilaren parte-hartzea, bereziki zona horretan presentzia duten erakundeena eta erreferente edota aldagai kultural nabarmenak ematen dituztenena diagnostika egin eta neurriak martxan jartzeko;

- ebaluazioaren aurreikuspena, jarduketan ahultasunak eta egokitasunak zehazteko eta etorkizuneko antzeko egoeren aurrean esku-hartze publikoa hobetzeko.

Arartekoak planeko helburuen betetzearen gaineko jarraipena egingo du 2017. urtean.

Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostenean haur eta nerabeei dagokien esku-hartzea sakonago landu zen.

Gasteizko Abetxuko auzoko jarduketei dagokienez, esku-hartzea irekita dago eta hainbat mailatan eragiten du (segurtasuna, bizikidetzak, gizarte zerbitzuak, etab.); horrenbestez, datorren urteko txostenean jasoko da.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Aurten ez da esku-hartze nabarmenik gertatu araudi eta gizarte testuinguruari dagokionez.

Zenbait txosten aipatu behar dira, garrantzitsuak direlako, esaterako 2016. urteari dagokion [Batzordearen Txostena](#); bertan Ijitoak gizarteratzeko estrategia nazionalen Europar Batasuneko esparruaren eta Ijitoak estatu kideetan gizarteratzeko neurri eraginkorrak hartzeari buruzko Kontseiluaren gomendioaren aplikazioa ebaluatu ziren; azken horrek eremu horretako lehenetsun neurriak ezarri zituen, besteak beste, ez baztertzeari buruzko legedia erabat aplikatzea bermatzea, ijitoen populazioa integratzera bideratutako estatu kideen lana babestea, eta Europa mailako eskalan interesatutako alderdi guztien elkarriketa eta parte hartzea sustatzea. Txostenak agerian utzi zuenez, estatu kideek aurrerapenak egin dituzte zenbait arlotan, baina esfortzua areagotu egin behar da. Hala, hezkuntzan inbertitu den arren, nahitaezko kaleratzeen edo laneko bereizkeriaren aurkako neurriak ez dela hartu nabarmendu zuen. Baztertutako komunitateak integratzeko EBko funtsen helburuetan ere gabeziak antzeman ziren, ez baitira aski erabili deprimitutako hiri inguruak lehengoratzeko; tokiko aginteen eta gizarte zibilaren artean lankidetzak estuagoa egon behar dela ere ondorioztatu zen bertan.

2016. urtean, Munduko Bankuak [ikerketak](#) argitaratu du, “Being Fair, Faring better Promoting Equal opportunities for Marginalized Roma” izenpean; lan horretan ijitoen egoera aztertu zen, bereziki haur ijitoena, desabantaila egoera batetik abiatzen baitira (pobrezia inguruneak, gurasoen hezkuntza maila baxua, infraetxebizitzak, eta ura, elektrizitatea, osasun zerbitzuetara sarbide mugatua). Ikerketa horretan hezkuntzak eta hezkuntza sisteman jarraitzeak daukaten garrantzia nabarmendu zen, eta laneratzeko zailtasunak eta prekarizazio maila altuak ere azpimarratu ziren. Azkenik, proposamenak landu ziren, besteak beste, gizarte langileen betebeharrak indartzea, estatu kideen gobernuen neurriak koordinatzea tokiko mailara iritsi ahal izateko, ijitoen populazioaren egoera erreala aztertu ahal izateko datu zorrotzak izatea, mitoak eta estereotipoak apurtzen laguntzeko, eta desabantailatsuenen gizarteratzea sustatzeko Europako funtsei ahal bezain etekin

handiena ateratzen laguntzea. Bidenabar, dokumentuan ijitoen populazioaren gain aplikatzen diren estereotipo negatiboak eta bereizkeria ere agerian utzi ziren.

Ijitoen integrazioarako EBko finantza laguntza eta ekimen politikoei buruzko Europako Kontuen Auzitegiaren [txostena](#) ere ageri da; estrategia nazionalen plangintzan akatsak ageri dira, esaterako ekintza horiek egiteko beharrezko finantzaketa ez jasotzea, ezta eskuragarri zegoen finantzaketa ere, ijitoen aurkakotasuna eta bereizkeriaren aurka borrokatzea aintzat ez hartzea, edo aipatutako estrategietan ijitoen komunitateak parte hartzea Txostenean estatu kideetarako eta Europako Batzorderako zenbait gomendio jaso ziren.

Azkenik, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia aipatu zen, European ijitoen familia asko nahitaez kaleratzea salatzen oso aktiboa izaten ari baita, eta emandako zenbait epaitan estatu batzuetan administrazioaren jarduketak zalantzan jarri ditu, beste bizilekuren bat eman gabe kaleratzeak erabaki edo familiak zein egoeratan uzten diren aztertu gabe.

Etxebizitza egoki eta segurua ez izatea, edo horrelakorik ez egotea, eta ura edo argia bezalako oinarrizko zerbitzuak izateko zailtasunak ijitoen bereizkeria soziala eta marjinazioa sustatzen duten faktoreak dira.

laz, ijitoen erritualaren bitartez egindako ezkontzetatik eratorritako desberdintasunak ere agerian jarri dira, alarguntza prestazioa jaso ahal izatea eragozten baitute; horren ondorioz, [Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean](#) aldaketa bat egiteko zenbait jarduketa egin dira; hala, prestazio horretara sarbidea izatea ahalbidetuko litzateke. Argudioen artean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia aipatu da, [Muñoz Díaz v. España epaia](#), 2009ko abenduaren 8koa, Giza Eskubideen Europako Auzitegiarena. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ulertu zuenez, alarguntza pentsioa ukatzeak desberdintasun baztertzaila dakar, parekotzat jo beharreko beste egoera batzuekin konparatuta tratatu desberdina dakarrelako, ezkontzako fede onaren ondorioei dagokienez.

Gaztela eta Leongo Erkidegoaren ekimena oso interesgarria dela uste dugu; hezkuntzako curriculumean ijitoen historia eta kultura txertatzen aitzindaria izan da.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

4.1. Ijitoen eskubideak babesten lan egiten duten gizarte erakundeekin bilera bat egin da, pertsona horien egoerari eta parte hartze sozial, kultural eta ekonomikorako zailtasunari buruzko kezak partekatzeke.

Bileran landutako gaiak Lanbideri zegozkion, erakunde horretan baitago ezarrita arreta erakunde kolaboratzaile batera bideratzen duen prozedura; ez dago argi bideratze hori bo-

rondatezkoa edo nahitaezkoa den, eta, bere ustez, ñabar-dura garrantzitsua da. Lanbiderekin izandako harremanetan erabilitako lengoia eta komunikazioak ulergarriak izatea garrantzitsua dela aipatu da. Deigarria da, halaber, pertsonaren jokabidearen eta ondorioen artean batzuetan izaten den neurrigabekeria (prestazioa etetea edo bertan behera uztea, urtebetean eskatzeko debekua); neurri horiek, gainera, familia osoarengan daukate eragina, haurrak izateak dakarren ondorioekin, bizirauteko prestazio bat baita. Aipatutako proposamenen artean dago, besteak beste, prestazioak eten aurretik familiekin hitz egiteko beharrari buruzko proposamena; izan ere, askotan ez dakite zein betebeharrak daukaten. Hala, horren ondorio larriak saihestu eta prebenitu nahi dira. Zalantzan jarritako sistemako beste elementu bat enplegurako pizgarriei buruzkoa da, Lanbideri lanean ari dela jakinarazten zaionean, prestazioaren ordainketa eten egiten delako, baina ondoren lan kontratua bukatzen bada, prestazioa berriz ere jasotzea atzeratu egiten da.

Hezkuntzari dagozkion gaien haritik, bekak ematean atzeratzea arazo gisa hartzen dira. Eskola porrot handia dagoela ere aipatzen da, eta ijitoen komunitateak dituen hezkuntza beharriari eman beharreko erantzuna hobetzeko hausnarketa egin beharra ere jaso da (ikaskuntza komunitatea, erdi mailako edo, kasu batzuetan, goi mailako moduluetara sarbidea izateko ekintza positiboak, hizkuntza ereduak eta banaketa, etab.). Bileran laneratzean pairatzen duten bereizkeria aipatu zen, komunikabideek islatzen dituzten irudiak, estereotipo negatiboak eraikitzen dituztenak, gizarte esku-hartzea ijitoek egitearen garrantzia, ijito erreferente positiboak existitzearen premia, baita eragile publiko eta gizartearen beharrezko sentsibilitate eta prestakuntza ere.

Bidenabar, ijitoek etxebizitza duin batera sarbidea izatearen garrantzia bereziki nabarmendu zen.

4.2. Arartekoak bilera bat izan du Euskal Kazetarien Elkargo eta elkartearekin; bileran, besteak beste, pertsona zaurkorrenen eskubideen gaineko kezak eta informazio jakin bati dagokionez komunikabideak ematen duten tratamendua izan zituzten hizpide; halaber, kode deontologikoaren aplikazioa eta arlo horretako kezak helarazteko prozedurak landu ziren.

4.3. Arartekoak [erakunde adierazpen bat](#) argitaratu zuen apirilaren 8an, Ijito Herriaren Egunean. Egun horren ospakizunean, Arartekoak ijitoen herriarekiko elkartasuna agertu zuen, herri horrek tratatu txar eta bereizkeria mota ugari pairatu dituelako bidegabeki historian zehar, behin eta berriz. Haur eta gazte ijitoen beharrezko prestakuntza eta kualifikazioa ahalbidetzeko eta eskola porrotari aurre egiteko hezkuntza neurriak hartu beharra bereziki deigarria izan da aurtun; izan ere, ezinbesteko baldintza da lan merkatura baldintza duinetan iristeko, eta hausnarketa publiko bat egiteko gonbidapena egin zuen, helburu horiek lortzeko eta komunitate horren hezkuntza prestakuntza eta prestakuntza kolektiboa hobetzeko proposamen berritzaileak bultzatzeko; hala, egoera gehiegitan pairatzen dituzten prekariotasun egoerak gainditzeko aukerak areagotuko dira.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

5.1. Ijitoak desberdintasun eta gizarte bereizkeria egoeran daude, eta kontuan hartu beharrekoa da hori, baita sustapenerako politika publikoen xede izan ere, ijitoek sozialki, politikoki eta ekonomikoki aurrera egin ahal izateko. Ijitoek geuk denok osatzen dugun gizartearen bizitza laborala eta ekonomikoa garatzen laguntzeko betebeharra eta eskubidea daukate. Oraindik pairatzen dituzten oztopoak desagerrarazi egin behar dira bereizketaren aurkako neurriekin, eta prestatuntza, erantzukizuna eta parte hartzean lagunduko duten politika publikoekin.

Erronka garrantzitsuak daude oraindik ere, esaterako prestatuntza profesional eta hezkuntza prestatuntza hobetzea, etxebizitza egoki eta seguru bat izateko sarbidea izatea, parte hartze ekonomiko, sozial eta politiko handiagoa, eta bereizkeriaren aurkako borroka.

5.2. Bereizkeriaren aurkako borrokan aurrera egiteko politika publikoen diseinuan kultura arteko gakoak eta aniztasuna kudeatzeko gakoak gogoan izatea garrantzitsua da, baita eragile publikoen prestatuntza ere. [Biltzen](#) Integratzaileko eta Kulturen Arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua ari da prestatuntza programak egiten, eta Era Berean sarea ari da neurriak martxan jartzen, [Eusko Jaurilaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak](#) bultzatuta, zenbait gizarte elkarrekin kolaborazioarekin, arraza, etnia edo nazio jatorriko bereizkeriaren aurka borroka egiteko (baita genero nortasun edo nortasun sexual edo orientazioko bereizkeriaren aurka ere); positibotzat jo dira.

5.3. Ijitoen komunitatearekin esku hartzearen bereizgarriak aintzat hartuko dituen gizarteratze eta laneratze ibilbideetan aurrera egitea posible izateko neurri zehatzak hartu behar dira. Ijitoak gizarte talde zaugarria osatzen dute, eta komunitate horren iritzi eta premiak aintzat hartu behar dira erabaki publikoak hartzerakoan.

Horren haritik, lan arloko orientazioan, Lanbidek aintzat hartu beharko luke ijitoen bereizitasuna, gizarteratze aktiboko hitzarmenetan komunitate horren egoerara egokitutako konpromisoak txertatzeko. Bidean, diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria prestazioen kudeaketan aintzat hartu beharko lirateke informazio nahikoa izateko dauzkaten zailtasunak; bete behar dituzten betebeharrak eta betebeharrak ez betetzearen ondorioei buruzko informazio egoki eta osatua izatearen garrantzia ere gogoan izan beharko litzateke. Bidean, bete beharreko betekizunei eta, diru-sarrera txikiak dauden kasuetan, Laneko Diru-sarrerak Osatzeko Errenta eskatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzko komunikazioa hobetu beharko litzateke, laneko diru-sarrerak osatzeko prestazioa eskatu ahal bada, baita betekizunak galtzeak eragiten dituen ondorioei dagokienez ere.

Enplegua eta gizarteratzea sustatzeko edo bereizkeriaren aurka borroka egiteko neurriak, eraginkorrak izan ahal izateko, ijitoen zehaztasunak eta kulturen arteko gakoak aintzat hartu behar dira. Horregatik, Arartekoak emakume ijitoen

egoera zehatzari buruzko arreta deitu zuen, politika publikoen diseinuan arretaz erreparatu behar zaielako, bereziki gizarteratzea eta sustapen ekonomikorako politiken kasuan. Azkenik, haur ijitoak eta ijito nagusiak artatzeko neurri zehatzak behar dira, arretaz landu beharreko bereizgarriak dituzten beharrezkoak eta egoerak baitituzte.

5.4. Ijitoen eskubideak defendatzen lan egiten duten elkarrekin laguntza bereziki baloratzen da. Gizarte elkarrekin horiekin, ijitoek gizartearen eta politikan parte har dezakete, eta horiekin hitz egiteak erraztu egiten du komunitate horretara bideratutako politika publikoak eraginkorrak izatea. Horren haritik, [Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluak](#) egindako lana oso garrantzitsua da ijitoen egoera hobetzeko eta herri horren kultura aintzatezteko beharrezko neurriak hartze aldera. Adostutako tresnetan onetsitako konpromisoak (planak, estrategiak, etab.) onartu egin beharko dira, salbu eta neurri aproposak ez direla justifikatzen duten arrazoiak baldin badaude.

5.5. Antzemandako arazoaren artean dago, oraindik ere, etxebizitza egoki eta seguru batera sarbidea izateko zailtasuna, besteak beste, etxebizitza ijitoei alokatzea erabaki duen jabeari jabeen erkidegoak igorritako aurreiritziengatik edo etxebizitzaren titularrak etxebizitza ijitoei alokatzeko erreparatuak dituelako. Horri gehitu behar zaio merkatu pribatuaren etxebizitzek prezio altuak dituztela, etxebizitza bezalako funtsezko eskubide bati sarbidea izatea zailduz. Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitza eskubide subjektibo gisa aitortzeak zailtasun hori konpontzen lagun dezake. 2017. urtean zehar komunitate honetan izan duen eraginaren jarraipena egingo da.

5.6. Bizilagunen arteko harremanek eragin garrantzitsua daukate bizikidetzan eta bereizkeriaren aurkako borrokan. Bizikidetzako arazoak larriagoak izatea sailhesteko aurretiaz azkartasunez jokatzeko eta prebentzioa faktore erabakigarriak dira. Administrazioen arteko kolaborazioa eta koordinazioa, komunitatea garatzeko eta komunitate bitartekaritzarako neurriak artikulatzea eta gizartearen parte hartzea ezinbesteko elementuak dira horretarako, baita gizarte bereizkeriaren aurkako neurriak ere; den-denak beharrezko jarduketak dira.

5.7. Ijitoen sustapen sozialak Europar Batasuneko Batzordearen lehentasuna izaten jarraitzen du, eta gizarteratze eta laneratze neurri berriak berriazko garrantzia daukate EBko funtsetan.

Euskal herri-administrazioek ijitoen aukera berdintasunerako eta gizarteratze eta laneratzerako neurri zehatzak garatzen jarraitu beharko lukete, [Ijitoak gizarteratzeko estrategia nazionala](#) betearaziz.

5.8. Eskola uztearen eta eskola porrotaren aurkako borroka eta prestatuntza akademiko eta profesionala hobetzea ezinbesteko gakoak dira ijitoen etorkizunerako. Hausnarketa egitea eta helburu hori lortzeko beharrezko hezkuntza neurriak etengabe ebaluatzea lehentasunezkoa izan beharko lirateke.

5.9. EAEn oraindik ere ijitoen egonlekuak daude, eta erakundearen arteko beharrezko koordinazioa beharrezkoa da,

Arartekoaren urriaren 5eko 3/2011 Gomendio Orokorrean adierazi bezala, *Jatorriz Europar Batasunekoak diren eta Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren ijitoen egonlekuetan esku hartzeko jardute-protokoloak garatzeko beharra* izenburuean; horrez gain, ikuspuntu desberdinak aintzat hartuko

dituen hurbilketa lana ere egin behar da, gizartearen ikuspuntua eta pertsonen beharrezanean erantzuteko ikuspuntua lehenetsiz, bereziki adingabeen kasuan. Euskal herri-administrazioek ahalegin handia egiten ari dira erantzun horiek gailentzeko.



III. ATALA

III

8

ETORKINAK ETA KULTURA ANIZTASUNA

Aurrekariak



Atal honetan, Arartekoak burututako immigranteen eskubideei eragiten dizkieten jarduketak azaltzen ditugu; izan ere, pertsona horiek dira euskal herri-administrazioen politiken hartzaileak. Halaber, immigrazioaren fenomenoari eta atzerriko pertsonen eskubideei eragiten dizkieten berritasun nabarmenenak adierazten ditugu. Azkenik, arlo honetako eskubideen egoeraren balorazioa aurkeztuko dugu.

Ikuspegiren, hau da, Immigrazioko Euskal Behatokiaren [datuen arabera](#), 2016an, beste estatu batean jaio diren eta Euskadiko Autonomi Erkidegoan bizi diren pertsonen kopurua 188.213 zen. Zifra horrek euskal herritarren % 8,6 hartzen du; 2015ekin alderatuz, biztanleria apur bat areagotu da (% 8,4), batez ere Gipuzkoan eta Bizkaian; Araban, berriz, apur bat murriztu da.

Jatorrizko nazionalitateei dagokienez, gehienak herrialde hauetakoak dira: Maroko, Kolonbia, Errumania, Bolivia, Ekuador, Portugal eta Nikaragua.

Ikuspegiren 2016ko barometroaren arabera, tolerantzia-indizeak erakusten du azkenengo urteetan hobekuntza txiki bat egon dela; horrez gain, atzerriko jatorriko immigrazioarentzako agertoki lagungarriago eta optimistago bat finkatu da. Hala ere, adierazi behar da oraindik ere pertsona batzuei ez zaiela immigrazioa gustatzen (hain zuzen ere, herritarren % 18ari, barometroaren datuen arabera).

II. Mundu Gerratik ezagututako errefuxiatuen krisirik handienan murgilduta jarraitzen du Europak eta inoiz ez bezala igo da asiloa eskatzen dutenen kopurua. Migrazioen Nazioarteko Erakundeak esan du 2016an 5.079 pertsona baino gehiago hil zirela mediterranea zeharkatzen saiatzen zirenean; hala ere, datuak ez dira zehatzak eta baliteke kopuru hori handiagoa izatea.

Europara 350.000 pertsona inguru heldu dira; 2015eko datuekin alderatuz, kopuru hori murriztu da. Izan ere, 2015ean, 1.000.000 pertsona baino gehiago heldu ziren Europara. Bi-

tartean, 60.000 pertsona baino gehiago erantzun baten zain daude Greziako errefuxiatuen esparruetan.

Siriako gatazkaren ondorioak suntsitzaileak izan dira: 250.000 pertsona hil dira eta 11 milioi pertsona baino gehiagok euren etxeetatik ihes egin behar izan dute; horietatik, 4.500.000 inguruko herrialdeetan bizi dira oso baldintza gogorretan.

Europara sartzen diren eta nazioarteko babesa edo asiloa eskatu nahi duten pertsonak heltzen diren lehenengo herrialdean eskatu beharko dute; hala, horrek presio handia eragiten die mugako herrialdeei. Horrez gain, estatu kide batzuek Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako herrialdeekin ezarritako kontrolak berraktibatu dira eta, horren ondorioz, krisi humanitario larri bat sortzen ari da. Ez dago baliabide nahikorik pertsona horiek hartzeko eta horiei arreta emateko eta neguan tenperatura baxuak jasaten ari dira. Hori dela-eta, European milaka pertsona muturreko baldintzetan daude. Balkanetako ibilbidea ofizialki itxi zen 2016ko martxoan; horregatik, milaka errefuxiatu Serbian daude geldituta, asiloaren zain edo Europako beste herrialde batzuetarako ibilbidea jarraitzen saiatuz.

1. Arloa kopurutan

Etorkinek, gainerako herritarrek bezalaxe, erakundearen lan arlo guztiei eragiten dieten kexak aurkezten dituzte. Azpimarra daiteke kexa asko gizarte-eskubideei dagozkiela, hortaz, batez ere, gizarteratze, hezkuntza, etxebizitza eta osasun arloei eragiten dietela. Eragindako beste arlo bat segurtasuna da.

Aldingabe atzeritarrei dagozkien kexak Haur eta Nerabeen Bulegoko txostenean aztertu dira. Haren txostena geure egiten dugu. Bestalde, Estatuko Administrazio Orokorrarekin zerikusia duten kexak Herriaren Defendatzailearen Bulegora bideratzen dira.

Hori guztia dela eta, zaila da kolektibo horrek aurkezten dituen kexen kopurua zehaztea.

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzea, etetea eta iraungitzea

Atal honetan, atzeritarrek atzeritartasunaren ondorioa den arrazoi batengatik aurkeztutako kexak baino ez ditugu aipatu. Txosten honen II. kapituluko gizarteratzeari buruzko atalean,

prestazioak ukatu, eten edo azkentzearekin zerikusia duten kexa orokorrak aipatu ditugu.

2.1.1. Herritar atzerritarrek Arartekoarengana jotzeko kexa-arrazoietako bat da **eskaera artxibatu izana edo prestazioa ukatu izana**, prestazioak aitortzeko beharrezko dokumentazioa ez aurkezteagatik. Dokumentazio horrekin, baliabide ekonomikoak dituztela justifikatzen da eta pertsonen identitatea egiaztatzen da.

Kexa horiek jarri dira zailtasunak daudelako dokumentu hori eskuratzeko edo Lanbidek baliotasunik ematen ez diolako. Arartekoak Lanbideri askotan helarazitako iritzi bera dauka, hau da, **hausnarketa bat egin beharko litzateke pertsona immigranteei dokumentu horiek eskatzeari dagokionez**. Izan ere, pertsona horietako batzuek bere jatorrizko herrialdeak utzi dituzte indarkeria edo txirotasunarengandik ihes edo gatazka historikoek edo hondamendi naturalek suntsitutako lurraldeetatik ihes, errefuxiatu estatusa lortu duten gorabehera. Hori dela-eta, nekez sinestekoa da baliabide ekonomikoak dituztela. Hausnarketa horrekin batera, eraginkortasunaren ebaluazioa egin beharko litzateke, hau da, administrazio-egituran dauden desberdintasunak eta atzerritarrek lortzeko dituzten zailtasunak kontuan hartuta, zentzuduna ote den eskakizun hori mantentzea, lortzen den informazioa aintzat hartuta.

Eskakizun hori **147/2010 Dekretuaren** 9.3 artikularekin lotu behar da; artikulua horren arabera, eskubidea eskatzen duenak betekizun hau betetzen duela egiaztatzea beharko du: *“Nahikoa baliabiderik ez edukitzea. Horrelako baliabiderik ez daukala iritziko da, honako baldintza hauek guztiak betetzen direnean:*

(...) b) *Inolako ondasun higiezinik ez edukitzea”.*

Zentzu horretan, Lanbidek eskatzaileek edo titular atzerritarrek betekizun hori betetzen dutela egiaztatzea eskatzen du. Horretarako, ondasunen ziurtagiri baliadun bat aurkezteko eskatzen du, hau da, jatorrizko herrialdean duten ondarea jasotzen duena.

Oro har, atzerriko dokumentu publiko guztiak legeztatu behar ditu aurretik dokumentu hori igorri den herrialdean jurisdikzioa duen Espainiako Bulego Kontsularrak edo, hala badagokio, Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioak. Hori horrela izango da herrialde igorleko agintaritza eskudunak dokumentu horretan oharrak egin baditu izan ezik, 1961eko urriaren 5eko Hagako Hitzarmenaren arabera, eta dokumentu hori legeztatzeaz salbuetsita badago izan ezik, Nazioarteko Hitzarmenaren arabera.

Gaur egun, Lanbide eskatzen ari da ondasunen gabezia egiaztatzen duen dokumentazioa aurreko kanonak betez legeztatuta egotea. Horretarako, erreferentziatzen hartzen ari da Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiaren 56/2016 Epaian aurreikusitakoa, 323/2015 prozedura laburtua. Eskakizun hori dela-eta, arazo berriak sortu dira, jatorriz Nigeriakoak diren pertsonen kasuan bezalaxe. Izan ere, pertsona horiei Espainiako Enbaxadak ez die ondasunen ziurta-

giria zigilatzen, bere lan arruntean ohiko dokumentu bat ez izateagatik. Beraz, ezin dute eskakizun berri hori bete.

Lanbideri askotan adierazi zaion bezala, dokumentu hori eskatzeak kostu altua eragiten die atzerritar onuradunei. Hala, dokumentu hori eskuratzeko zaila da pertsona hori luzaroan egon denean bere herrialdetik kanpo.

Horrenbestez, balioztatu egin beharko litzateke dokumentu horiek aurkezteko ezintasuna justifikatua ote den eta neurtu egin beharko litzateke gainerako dokumentazioarekin baldintzak betetzen ote diren. Helburua da, dokumentu bat aurkeztea ezinezkoa denean, hori ez aurkeztearen ondorioz eskubidea izatea ez eragozte; izan ere, batzuetan espedientearen inguruabarrak eta dokumentuak aztertuta, pertsonak bizitzeko gutxienekoa bermatzen duten prestazioak jasotzeko eskubidearen titularra izateko beharrezko baldintzak betetzen dituela ondoriozta daiteke.

Nolanahi ere, Lanbidek aurkeztutako dokumentua baliozkoztat ez jotzeko arazoak azaldu beharko litzateke, baita hori onartzeko izan behar dituen ezaugarriak ezarri ere.

2.1.2. Arartekoari azaldu zaion beste arazo bat da **atzerriko pertsonak identifikatzeko behar**arekin lotutakoa. Horretarako, Atzerritarren Txartela edo indarreko pasaporteak eskatzen da. Indarreko pasaporteak aurkeztu ezin bada, Lanbidek prestazioen eskaerak edo horien berritzea ukatzen du.

Arartekoak atzerriko pertsonak ukitzen zituzten kexa batzuk izapidetu ditu, horien enbaxaderek pasaporteak igortzen ez zutelako. Hori da, hain zuzen ere, jatorriz Ekuatore Gineakoak diren pertsonen kasua; hala, Gineako dagokion agintaritza nazionalak soilik igortzen du pasaporteak jatorrizko herrialdera badoaz. Lanbidek ez du onartzen pasaporte fisikoaren gabezia azaldu eta justifikatzen duen ziurtagiria, ezta pasaporteak ordeztzen duten dokumentuak ere. Ezin dugu ahaztu lekuz aldatu behar izatea eragozpen handi bat dela duen kostuagatik eta Espainian sartzeko dituzten zailtasunengatik egoitzako administrazio-baimena ez dutenean. Kontu horri dagokionez, Arartekoak ofiziosko jarduketara bat zuzendu dio Herriaren Defendatzaileari; hori 4. Epigrafean dago jasota.

Beste kasu batzuetan, atzerapena egoten da pasaportearen berritzean, besteak beste, Aljeriako Enbaxadaren kasuan. Izan ere, horrek pasaporte biometrikoko berria eskuratzeko betekizunak aldatu ditu. Beraz, jadanik zegoen atzerapenaz gain, betekizun gehigarriak eskatzen ditu, besteak beste, Espainian atzerriko pertsonak sartzeko eta bizitzea arautzen dituen legeriatik ondorioztatutako eskakizunak betetzea. (Espainian bizi diren atzerritarren eskubideei eta askatasunei buruzko urtarriaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa; hala, honako lege-testu hauek aldatu dute aipatutako lege organikoa: 8/2000 Lege Organikoa; 14/2003 Lege Organikoa; 2/2009 Lege Organikoa; 10/2011 Lege Organikoa eta 16/2012 Legegintzako Errege dekretua). Eskakizun horiek ezartzen ditu Estatuko Administrazio Orokorrari (Barne Ministerioa) eskatu ahal izateko egoitza-baimena errotzeagatik. Aljeriako Enbaxadaren atzerapena zenbait pertsona ukitzen ari da, horien artean, sahararrak. Izan ere, Aljeriak pasaporte bat igortzen die Saharako herritarrei. Horren

bidez, bidaiatu ahalko dute su-etena ezarri zenetik saharar desplazatuak errefuxiatuen esparruetan bizitzera behartzen dituen gatazka ebatzi arte. Hala, su-etena ezarri zen Nazio Batuak Saharan erreferenduma egiteko misioa abiarazi zuenetik (MINURSO).

Oztopo horiek ez daukate zer ikusirik pertsonak indarreko pasaporte bat eskuratzeko dituen borondatearekin, ezta jorkabidearekin ere. Izan ere, oztopo horiek dira azken finean prestazioa jasotzea eragozten dutenak.

2.1.3. Arartekoan hautemandako beste zailtasun bat da dokumentazioaren aurkezpena horren egitasunaren inguruko zalantzak daudenean.

Aurkeztutako dokumentuen egitasunari buruzko zalantzek prozesu penal batean aurkatzera eta salatza eraman dezakete. Kasu hauetan, Lanbidek administrazio-prozedura bukatu ohi du eremu penaleko erabaki judiziala hartu baino lehen, prestazioak jasotzeko eskubidea ukatuz, geldiaraziz edo iraungiz.

Lanbidek salaketa penal bat dagoela dakienean, pertsonari jakinarazten dizkio dokumentuaren egitasunaren inguruan dauden zalantzak; hala, hitzordua ematen dio dagokion entzunaldi-izapiderako, bertan jasotakoa egiaztatzen duten edo ez duten beste dokumentu batzuk aurkeztu ahal izateko. Oro har, diru-sarrerak bermatzearekin eta gizarteratzearekin lotutako prozedura baten instrukzioan aurkezten den edozein dokumenturen eztabaidatze penalararekin batera, eskaera ukatu ohi da. Hau da, entzunaldi-izapide horren ostean, prozedura bukatutzat jotzen da eta interesdunari jakinarazten zaio, prozedura penalaren emaitzaren arabera, eskaera berri bat egon dezakeela.

Hortaz, ordura arte ezin du beste prestaziorik jaso, eskaerazailaren identitatearen edo beste edozein dokumenturen egitasunaren inguruko zalantzak baitaude. Arartekoak gogorarazten du, kasu hauetan, aintzat hartu behar dela salaketa penal batek soilik ez duela pertsona hori erruduna denik esan nahi, EKren 24. artikulua jasotzen duen errugabetasun-presuntziorako funtsezko eskubidea aplikatuz. Prozedura penalean argituko den kontua erabakigarria bada prestazioen eskubideari eragiten dion erabakian, Lanbidek administrazio-prozedura eten beharko luke prozedura penalean hartzen den erabakia jakin arte. Hala, prestazioa jasotzeko eskubidea berriz aitortuko du edo iraungiko du epai penalaren epaitzaren arabera edo [18/2008 Legearen](#) 28.1 d) artikulua aplikatuko du: “Etenaldi-egoera mantentzea hama bi hilabetez baino gehiago”.

2.1.4. Jasotzen ari garen kexen beste bloke bat prestazioaren titular izateko betekizunak betetzearekin lotuta dago, zehazki, bizikidetzaren unitate bat eratzeko betekizunarekin.

Araudiak ezartzen du ezkontza bidez edo senar-emazteen antzeko harreman iraunkor baten bidez lotuta dauden pertsonak elkarrekin bizi behar direla bizikidetzaren unitate bat izateko. Immigranteen kasuan, araudiak aurreikusten du bizikidetzaren unitate bat izateko betekizuna betetzen dutela bi urtez gehienez ere. Hori horrela izango da senarra/emaztea edo

senar-emazteen antzeko harreman iraunkor bat duen pertsona Espainian bizi ez den arren. Bi urteko epe hori igarotakoan, senarra/emaztea edo bikotea etxe berean bizi ez bada, ezingo dute diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko eskubidea berritu. Aurreikuspen hori soilik eragiten die atzerriko pertsonari. Izan ere, pertsona nazionalen kasuan (nazionalitate hori orain dela gutxi eskuratu badute ere), senarra/emaztearekin bizi ez badira, ez dute diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko eskubidea hasiera-hasieratik.

Kontua da, askotan, senarra/emaztearekin edo senar-emazteen antzeko harreman iraunkor bat duen pertsonarekin ez bizitzea ez daukala zer ikusirik bikotearen borondatearekin, baizik eta gaur egun zenbait jatorri nazionalak dituzten zailtasunekin, estatuetatik zirkulatzeko, mugak gainditzeko edo jatorrizkoa ez den beste herrialde batean ezartzeko.

Arartekoak Lanbideri helarazi dio, egindako zenbait esku-harzteetan, uste duela senar-emazte atzerriarrak familiarekin elkartzeko dituzten zailtasunak hartu beharko lirakeela kontuan.

Arartekoaren ustez, bizikidetzaren egiaztatze eskakizuna, familiarekin elkartzeko eskaera ukatu zaion atzerriko pertsona batekin ezkontideen antzeko harremana duten edo senar-emazte harremana duten pertsonak osatutako bizikidetzaren unitateen kasuan, bete ezin duten betekizun bat betetzeko eskatzea da, daukaten borondatea eta interesa gorabehera. Gainera, kontuan hartu behar da ahultasun egoeran daudela. Hain zuzen ere, normalean, familiarekin elkartzeko eskaera ukatzen da baliabide ekonomiko nahikoak dituztela ez egiaztatzeagatik. Beraz, erabaki hori baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela egiaztatzen duen froga-baliabidetzat hartu behar da.

Araudi-aurreikuspen horrek eragin larriagoa dauka ezkontideetako batek Espainiako herritartasuna duen kasuetan eta ezkontidearekin elkartu ezin denean betekizunak ez betetzeagatik. Izan ere, kasu horietan, ez dute prestazioa jasotzeko eskubidea hasiera-hasieratik. Arartekoak uste du ez dela berdintasun-printzipioa betetzen.

Migrazio mugimenduek bizikidetzaren kasu berriak sortzen ari dituzte, kasu honetan bezala, non immigrante batek espainiar herritartasuna lortu duen beste herritartasun bat duen bere ezkontidearekin berriz elkartu aurretik. Hortaz, gure iritziz, Eusko Jaurlaritzak, 147/2010 Dekretuaren 5.4 artikuluan ezarritako aurreikuspena aplikatuz, berak hala erabakita edo beste herri-administrazioek hala proposatuta, bizikidetzaren unitate kasu berriak ezarri beharko litzuzke gizarte garapenari erantzuna emanez, eta zehazki, familia egitura eredu bilakaerari.

2.2. Horrez gain, etxebizitza familia elkartzeko egokitzeari buruzko txostena egiteko egondako atzerapenarekin lotutako zenbait kexa izapidetu dira. Eusko Jaurlaritzak arin eman zuen aldeko erantzuna eta erakunde honek uste du hori positiboa dela.

2.3. Halaber, [Donostiako Udalak](#) asilo-eskatzaile baten ztat egindako **gizarte-arretako eskaera** baten inguruko kexa bat aipatu behar da. Hala, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren Immigrazio eta Emigrazio Idazka-

ritz Nagusiak aurreikusitako baliabideen bidez babesten ari ziren pertsona hori baina Donostiako Udaleko gizarte-zerbitzuen arreta jasotzeko eskatzen zuen. Bertan, aukera bat azaltzen zen, pertsonaren hasiera bateko hirian ezartzeko nahiaren eta gizarte-larrialdiko baliabideen mugaketaren artean, babeseko azken sarea bihurtzen dutenak. Udalak jo zuen babes-eskatzaileei zuzendutako baliabideak izan beharko liritekeela hasieran familiari arreta emateko erabili beharrekoak; beraz, baliabide horietara bideratu zuen familia hori. Izan ere, gizarte-larrialdiko baliabidearen helburua ez da egonkortasuna sustatzea, adingabeen beharrei erantzun integral bat eman ahal izateko (behar fisikoak, emozionalak, sozialak eta eskola-beharrak). Arartekoak balorazio hori zuzena zela jo zuen.

2.4. Jasotako zenbait kexen helburua da **laguntza eskatzea Grezian babesa eskatzen duten pertsonak Euskadiko Autonomia Erkidegora etorri ahal izateko** eta euskal familiek horiei arreta emateko. Ekimen humanitario horiek ez dute erantzunik asiloko egungo sisteman; izan ere, sistema horretan aurreikusten da Europara sartzeko estatua izango dela asilo-eskaera kudeatuko duena, birkokapen-programaren salbuespenekin. Arartekoak asilo-eskaeraren izapidez arduratu da eta informazioa eskatu dio ACNUR-i.

2.5. Azkenik, **laneko eta egoitzako baimenik ez duten baina prestazio ekonomikoan onuradunak izan diren** eta pasaportearekin identifikatu diren **pertsonen prestazioak erreklamatzeko prozedurak hasteko aukerari** buruzko kontsulta bat aipatuko dugu. Bertan, ondorioztatu zen aplikagarria den araudiaren azterketatik ez zela ondorioztatzen legezko eragozpenik dagoenik identifikazio-dokumentu gisa indarreko pasaportea duten pertsonen bidegabeki jasotako prestazioak erreklamatzeko prozedura hasteko.

2.6. Txostenaren beste atal batzuetan jasotzen diren kexak

Hezkuntzaren arloan, Lasarte-Oriako ikastetxeen artean ikasle immigranteak modu orekatuagoan banatzeko behararen inguruko kexa bat dela-eta hasitako jarduketa aipatzen da. Horren azterketatik, ondorioztatu zen ez zegoela eragozpenik gurasoak ikasle ohiak izateko baldintzarekin lotutako irizpidea ikasleak onartzeko irizpide gisa erabiltzeko. Irizpide hori erabiliko da eskainitako plazen kopurua nahikoa ez denean demanda guztia asetzeko eta, horrenbestez, beharrezkoa denean aurkeztutako eskaeren baremazioa egitea. Horrez gain, adierazi zen **Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza-politika eta Kultura Sailarentzat** helburu utziezina dela ikasle immigranteen banaketa orekatua lortzea Lasarte-Oriako haur eta lehen hezkuntzako bi zentro publikoen artean.

Arartekoak beste kexa bat izapidetzea onartu zuen; hala, kexa horren arrazoia zen lehen hezkuntzako ikastetxe batera beloa zeraman ikasle bat sartu zela. Kexa horretan, askatasun erlijiosoa zalantzan jartzen zen. Sailak zirkular bat bidali zien zentroi; horren bidez, hezkuntza inklusiboa eta aniztasunaren trataera eraentzen dituzten printzipioak helarazi

zizkien. Horrez gain, ikastetxeen antolakuntza eta funtzionamenduko araudietan jaso beharreko edukiaren inguruko zenbait gomendio egiten ditu.

Osasunaren arloan, egoera irregularrean dauden atzerriko pertsonen administrazio-egoera konplexuarekin lotutako kexak izapidetzen jarraitzen dira. Hala, pertsona horiek egoera horretan daude egungo arauketa dela-eta.

Kexa horiek erakusten dute oraindik ere atzerriko pertsona horiek osasun-laguntza jasotzea zailtzen duten egoera ez-desiragarriak daudela; hala, arazoak daude Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Osasun Sistema Nazionalaren osasun-prestazioak emateko araubideari buruzko **ekainaren 26ko 114/2012 Dekretuan** aurreikusitako egiaztapenaren eskaeran eta Aseguramendu eta Kontratazioko Zuzendaritzaren Instrukzioetan. Zailtasun horiek ere agertzen dira atzerriko pertsona horiek **Osakidetzaren** osasun-zentroetara joaten direnean.

2.7. Estatuko Administrazio Orokorrari dagozkion kexak

2.7.1. Arartekoak kontsulta ugari jasotzen ditu administrazio-egoera erregularizatzeko eta familia berriz elkartzeko zailtasunak direla eta; horiek Aholku Sarea izeneko Euskal Jaurlaritzako zerbitzura bideratzen ditugu.

2.7.2. Laneko edo egoitzako baimena edo herritartasuna ukatzen duten kexei dagokionez, Herriaren Defendatzaileari bidaltzen dizkiogu, erakunde eskuduna delako. Horien artean, Espainiako herritartasuna lortzeko prozedura berriari buruzkoak aipatzen ditugu; prozedura hori **azaroaren 6ko 1004/2015 Errege Dekretuan** araututa dago. Arau horrek alde aurretik eta nahitaez bete beharreko betekizunak ezartzen ditu, eskatzaileak gizartean duen integrazio maila eta Espainiako kultura eta ohituretara egokitzea ebaluatzeko. Hain zuzen, azterketa batzuk gainditu beharko dira: alde batetik, Espainiako konstituzioaren eta alderdi soziokulturalen gaineko ezagutzari buruzko azterketa, eta bestetik, gaztelania azterketa, eskatzailearen jatorrizko herrialdean gaztelera hizkuntza ofiziala ez bada. Halaber, tasak ordaindu beharko dira azterketak egiteagatik eta espediente irekitzeagatik. **Herriaren Defendatzaileari** bidali zaizkio Espainiako herritartasuna eskatzen duten pertsona batzuk azterketa egiteaz salbuesteko aukera proposatzen duten kexa batzuk. Proposatzen da unibertsitate publiko edo pribatuen berezko zentroetan matrikulatuta dauden eta agintaritzaren eskudunak ezarri beharreko gutxieneko kreditu europar batzuk (ECTS) gainditu dituzten pertsonak azterketa egiteaz salbuesteko. Administrazioak erantzun zuen antolamendu juridikoa aldatu behar dela; beraz, Herriaren Defendatzaileak informazio osagarria eskatu du, ondorio horietarako araudia aldatzearen inguruko gogoetari dagokionez.

Gainera, Herriaren Defendatzaileak adierazi du gomendio bat bidali diola Estatuko Justizia Idazkaritzari honen inguruan: "Instrukzioak emateko beharrezko babesak eta doitze zentzudunak barne hartzeko, berdintasun eraginkorreko bal-

dintzetan sartzea bermatzen dietenak analfabetismoa duten eskatzaileei egoitzagatik Espainiako herritartasuna eskuratzeko prozeduran. Horrez gain, horien beharretara egokitu-tako metodoak ezarri behar dira herritartasuna eskuratzeko eska daitezkeen froga guztietan”. Hala, adierazi beharra dago idazkaritza horrek gomendioa onartu duela.

Joan den urtean, irailaren 30eko JUS/1625/2016 Agindua onetsi zen, egoitzagatik Espainiako herritartasuna emateko prozeduren izapidetzeari buruzkoa. Cervantes Institutuko frogen inguruko 10. artikularen 5. atalean haxe adierazten da: “froga horiek dispentsatu ahalko zaizkie Espainian eskolatuta egondako eta derrigorrezko bigarren hezkuntza gainditu duten eskatzaileei”. Bi alderdi horiek egiaztatu beharko dira dagokion dokumentazioa jasoz espedientean”.

Egoitzagatik Espainiako herritartasuna emateko prozeduren izapidetzeari buruzko irailaren 30eko JUS/1625/2016 Aginduaren 10.5 artikulak aurreikusi du Cervantes Institutuak jarduketa bereziak eskainiko dituela DELE eta CCSE frogen administrazioan ezgaitasunen bat duten pertsonentzat, frogetan berdintasun eraginkorreko baldintzetan parte hartzeko moduko babes eta doitzeko zentzudunak izan ditzaten. Idazten eta irakurtzen ez dakiten edo ikaskuntza-zailtasunak dituzten pertsonen frogak horiek dispentsatzeko eska diezaiokete Justizia Ministerioari.

2.7.3. Era berean, Herriaren Defendatzaileari beste kexa batzuk bidali zaizkio. Horien bidez, salatu egin da Barne Ministerioak aberrigabeko edo nazioarteko babeseko eskaerak ebazteko izandako atzerapena; azkenik eskaerak ebatzi dira.

Emandako babesari dagokionez, Herriaren Defendatzaileak adierazi du aberrigabe-estatutua duten eta hori eskatzen duten pertsonen egoeraren arauketa desberdina dela gure antolamendu juridikoak nazioarteko babeseko eskatzaile eta onuradunentzat aurreikusten duenarekin alderatuz. Aberrigabe-estatutua eskatzeko prozeduraren izapidetzeak lurralde nazionalen dagoen eta kanporatzeko edo itzultzeko prozedura batean murgilduta ez dagoen eskatzailearen aldi baterako egoitza baimentzea ahalbidetzen du. Hala eta guztiz ere, denbora horretan, ezingo dute laneko baimenik eduki, hala badagokio, aberrigabe-estatutua aitortu arte. Horrez gain, ez dute gizarte-laguntzako konpromiso espezifikorik eta Asilo, Migrazio eta Immigrazioko Funtsen ez da horien babes aurreikusten. Hala ere, Immigrazio eta Emigrazioko Idazkaritza Nagusiak aberrigabe-estatutuaren eskatzaileak eta onuradunak hartzen ditu barne nazioarteko babesaren eskatzaileen eta onuradunen harrerako eta integrazioeko Sistema Nazionalaren balizko onuradun gisa.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Argitaratu egin da **Euskadiko Osasun Sistemaren Gomendatutako Jardunen Eskuliburua** emakumeen genitalen mutilazioaren ingurukoa.

Gorrotaren hitzaldiaren aurkako borrokan interesgarria izan daitekeenez, **Gorrotaren hitzaldiaren aurkako borrokari eta azalpen-memorandumari buruzko 15. Gomendio Orokorra** aipatzen da. Gomendio hori 2015eko abenduaren 8an eman zen Estrasburgon, Europako Batzordearen 2016ko martxoaren 21ekoa Arrazismoaren eta Intolerantziaren aurka, Europako Kontseilua.

Bertan, proposamenak egiten dira adierazpen eta iritzi askatasunerako, tolerantziarako eta gizarte demokratiko eta pluralista batean gizaki guztien duintasun beraren errespeturako eskubidearen mugen barruan, pertsona edo pertsona-talde baten aurkako gorrotaren edo mespretxuaren sustapena, promozioa edo zirikaldia saihesteko.

Nabarmendu behar dira Herriaren Defendatzaileak ACNUR-ekin elkarlanean egindako lanaren **ondorioak eta proposamenak**; lan hori herri-administrazioek babesaren arloan egiten dituzten jarduketaren ingurukoa da eta proposamenak egin dira arreta hobetzeko, bereziki hezkuntzari eta etxebizitza bat eta enplegua eskuratzeari dagokionez. Izan ere, horiek dira errefuxiatuek eta asilo-eskatzaileek dituzten erronka nagusiak Espainian integartzeko prozesuan zehar.

Gainera, aurten, Herriaren Defendatzaileak **txosten** bat egin du, Espainiako asiloari, nazioarteko babesari eta harrera-sistemaren baliabideei dagokionez.

Azkenik, Barne Ministerioaren gorroto-delituarekin lotutako gorabeheren inguruko **txostena** aipatu behar dugu. Bertan, adierazten da gorabehera gehien erregistratzen dituen eremua dela arrazismo/xenofobiarena. Hala, gorabehera gehien gertatzen diren autonomia erkidegoak dira Katalunia eta Euskadi.

4. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

4.1. Ofiziozko jarduerak

4.1.1. Joan den urtean, Herriaren Defendatzaileari helarazitako jarduketa bat aipatu zen, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak Gipuzkoan Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak argitaratutako prentsa-ohar bati dagokionez egindako informazio-tratamenduaren inguruan. Ekainaren 10ean argitaratutako prentsa-ohararen, immigrazioak, eta zehazki, bakarrik dauden adingabe atzerritarren kolektibo ahulak gizartean duen irudiari eragiten dieten adierazpenak egin dira. Aipatutako prentsa-oharrak oihartzuna izan zuen hedabideetan (Diario Vasco, 2015-06-11) eta egiaztatu gabeko delituak aipatzen zituen. Horrez gain, balorazio batzuk jaso ziren, dei efektua bat dagoela bezalaxe.

Herriaren Defendatzaileari helarazi zitzaion Arartekoaren iritzia, hau da, jokabideak epaitzea auzitegiei dagokiela eta komenigarria zela irizpide erantzule eta haztatu bat mantentzea poliziak immigranteen jarduketei buruzko ematen dituen

informazioei dagokienez. Horrela, saihestu nahi da informazioa diskriminazioa sortzeko, erreproduzitzeko eta indartzeko tresna bat bihurtzea.

Herriaren Defendatzailearen Bulegoak erakunde honi erantzun dio; hala, jakinarazi dio zenbait jarduketa burutu dituela immigrazioaren hedabide-tratamenduarekin zer ikusia duten erakunde eskudunekin. Horrez gain, azpimarratu du beharrezkoa dela Konstituzioaren 20. Artikuluak babesten duen informazio-askatasuna diskriminazioaren eta intolerantziaren prebentzioarekin uztartzea. Zentzu horretan, Europako Kontseiluaren Ministroen Komitearen 97. Gomendioa aipatzen da; gomendio hori hedabideen eta tolerantziaren kultura sustatzearen ingurukoa da. Herriaren Defendatzaileak gehitu du Poliziaren Zuzendaritza Nagusiari helarazi diola bere balorazioa. Hala, adierazi dio interesdunen adindun izaera ez dela ezartzen proba oseometrikoak eta erradiologikoak egin ostean. Izan ere, froga horiek aztertutako pertsonen hezugarapenaren estimazio estatistikoa baino ez dute egiten eta ez dute, inola ere, adin kronologikoa egiaztatzen. Bere ustez, Ministerio Fiskalaren esku-hartzea beharrezkoa da beti; horrek adina ezartzeko dagokion dekretua emango du behin espeditentean dauden datu guztiak aztertuta. Horrez gain, auzitegiko txostena aztertuko du; bertan, batera ebaluatuko dira adinen urkila egokia jasotzen duen txosten erradiologikoa eta anamnesi zuzendua eta egin diren gainerako txosten medikoak (ortopantomografia, klabikularen mutur proximalaren erradiografia, etab.) Hortaz, Herriaren Defendatzaileak Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi dio oharra igorri zenean, bertan adierazitakoaren aurka, gutxienez kasuetako batean, prozedura penala artxibatuta zegoela. Izan ere, fiskalak atzera egin zuen espeditentearen hasieran “egitatearen garrantzi eskasa kontuan hartuta; gainera, egokia da adingabearen interes eta egoeratarako”. Hala, horrekin, ondoriozta daiteke interesdunak adingabearen izaera mantentzen zuela. Era berean, adierazi du beste bi kasutan pasaporteak bere herrialdeek Espainian duten Enbaxadan eskuratu zirela; beraz, ezin da horien baliotasuna zalantzan jarri. Horrez gain, adierazi du aipatutako prentsa-oharra igorri zenean interesdunek adingabeak babesteko zerbitzuen esku jarraitzen zutela. Hortaz, ez litzateke zuzena izango adinduntzat hartzea. Era berean, uste du prentsa-oharrak ziurtzat jotzen duela atzerriko herritarrek pasaporteak faltsifikatzen dituztela eta horien herritartasuna aipatzen du, erregabetasun-presuntzioa errespetatu gabe eta gai horren inguruko ebazpen judiziala emateke dagoela kontuan hartu gabe. Azkenik, erakunde horri gogorazti dio kautela bereziarekin jokatu behar dela adingabeen edo ustezko adingabeen edo atzeritarren taldea bezalako beste talde batzuen datuak ematerakoan; izan ere, pertsona edo talde horiek estigmatizatu daitezke legez kontrako jarduerekin lotzean eta pertsona horien inguruko estereotipoak eta aurreiritziak sortzea edo sustatzea saihestu behar da.

4.1.2. Joan den urtean, Herriaren Defendatzaileari zuzendutako ofiziozko jarduketa bat hasi zen; horren bidez, Espainiako Gineako Enbaxadan pasaporte bat izapidetzeko ezintasunaren ondorioen inguruko kezka adierazi zen. Ezintasun hori dela-eta, zailtasun ugari sortzen ari dira, besteak beste, ama Gineakoa den haurren kasuan, Erregistro Zibilean inskribatzea edo Lanbidek beharrik oinarritzkoenak asetzeko presazio ekonomikoak izapidetzea ukatzea. Herri-administrazio

guztiek ez dute onartzen enbaxadak igortzen duen ordeko ziurtagiria pertsona hori ondorio guztietarako identifikatzen duen dokumentu gisa.

4.1.3. Azkenik, Greziako Herriaren Defendatzaileari bidalitako gutuna aipatu behar dugu. Bertan, zenbait euskal ekintzaileen jarduketaren izaera humanitarioa baloratzen zen; izan ere, horiek 8 babes-eskatzailerik Euskadira ekartzen saiatu dira, asmo solidarioarekin, pertsonen trafikotzat ulertzen denaren edozein konnotaziotik urrun. Bertan, Arartekoak Europar Batasunak eta Europako gobernuak asiloari dagokionez bere gain hartutako konpromisoak ez betetzearen aurrean zabaldutako frustrazioaren berri eman zuen. Hala ere, euskal herritarrek pertsona horiek hartzeko, laguntzeko eta babesteko borondatea erakutsi dute. Herriaren defendatzaileari helarazi zitzaion, bi erakunde horiek interes komuneko gaiak dagokienez mantentzen duten lankidetzaren esparruan.

4.1.4. Azkenik, Arartekoak uste du beharrezkoa dela babes-eskatzailerik berriz kokatzeko eta finkatzeko zailtasunak nabarmentzea. Beraz, baterako ekintza bat proposatu du beste autonomia erkidegoetako herria defendatzeko bulegoekin. Horrela, autonomia erkidegoek protagonismo gehiago izango dute eta Estatutik lankidetzaren areagotu ahal da, berriz kokatzeari eta finkatzeari dagokionez onartutako konpromisoak betetzen direla sustatzeko. Baterako jarduketa hori 2017ko lehenengo hiruhilekoan burutuko da.

4.2. Beste jarduera eta bilera batzuk

4.2.1. Arartekoak zenbait hirietan abiarazitako zurrumurruren aurkako estrategiak biltzen dituen webgune baten aurkezpenaren parte hartu du; aurkezpen hori maiatzaren 3an egin zen Donostiako Udaleko Osoko Bilkuren Aretuan eta zenbait eragile publikok eta pribatuk hartu zuten parte.

Zenbait erakunde-eragilek eta erakunde sozialek sustatu dute zurrumurruren aurkako sarea, besteak beste, Immigrazioaren Euskal Behatokia, Ikuspegi; Donostia eta Getxoko Udalak; SOS Arrazakeria Gipuzkoa eta CEAR. Hiri horiek **Kultura Arteko Hirien Sarearen** parte dira, Europako “intercultural cities” Sarera lotutakoa. Programa hori **Europako Kontseiluak** sustatu du Europako Batzordearekin elkarlanean; hala, horren parte dira, besteak beste, Donostiako, Bilboko eta Getxoko Udalak. Hala, Donostia programaren kide diren lehenengoetariko hiri bat da.

4.2.2. Arartekoa Deustuko Unibertsitateko Giza-eskubideen Institutuarekin bildu da, askatasun erlijiosorako eskubidearen inguruan egindako lana partekatze aldera. Institutu hau zenbait administrazioekin elkarlanean ari da, besteak beste, Eusko Jaurlaritzarekin, politika publikoetan eragina izan nahi duen eskubide hori garatzeko.

4.2.3. Bilera bat egin da erkidego musulmaneko ordezkariekin; horretan, aldarrikapen batzuk egin dituzte eta gai hauen inguruan dituzten konpromisoak azaldu ere bai: Halal janaria sustatzea hezkuntza zentroetan, ospitaleetan eta espetxeetan; kultura musulmaneko lurperatzei dagokienez eta Derioko hilerrian soilik egin ahal izateak dakartzan gabeziak; beloaren

kontua hezkuntza-zentroetan eta hezkuntza-zentroetan erlijio musulmana eman ahal izateko betekizunak betetzeko zailtasuna euskara-profila eta irakasletza egiazatzeko zailtasuna dela-eta. Bildotsaren jaia ospatzeko edo beste jardunbide batzuetarako zailtasunak aipatzen dituzte, besteak beste, zirkunzisia. Horrez gain, adierazi dute ezinezkoa dela PFEZan ekarpen bat egitea erlijio musulmanari, erlijio katolikoarekin egiten den bezala. Kontuan hartu beharreko elementu gisa adierazi da erkidego musulmanarekiko elkarrizketan gai hauek aintzat hartu beharkeo liratekeela: babes soziala, askatasun erlijiosoa eta hezkuntza, segurtasunaz gain.

4.2.4. Era berean, bilera bat egin da SOS Arrazakeria Gipuzkoa elkartearekin, horrek helarazitako arazo batzuk jorratzeko. Arazo horiek zer ikusia zuten laguntzarik gabeko atzerriko adingabeen arretarekin eta [Arartekoaren ekainaren 17ko 5/2013 Gomendio Orokorren jarraipenarekin](#). Hori Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostenean aztertzen da. Erakunde honi aurkeztutako arazoan artean dago Gipuzkoako lurraldean egoitza-baimena izapidetzea ukatzea babes-erakunde batean 9 hilabetez egon ez badira, 9 hilabetez epea gehieneko muga giza ezartzen bada ere. Beste kezka bat ere azaldu zuten; izan ere, kezkatuta daude prozedura penala artxibatzen denean baina pasaporte itzultzen ez denean pasaportearen faltasunagatik jarritako salaketa dela-eta. Arartekoak Fiskaltzarekin eta Gobernuaren Salarekin izandako bileretan kontu hori aipatu da; hala, bilera horietan jakinarazi dira pasaportea ez itzultzeak dakartzan zailtasunak eta sortzen den paradoxa. Izan ere, igortzen den pasaporte berriak entregatu ez den pasaportean dagoen eduki bera dauka.

4.2.5. Horrez gain, 2016an, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari atxikitako euskal zerbitzu juridikoko (Aholku Sarea) koordinatzailearekin elkartu ginen. Horren helburua da atzerriko pertsonen erregularizazio dokumentalaren inguruan orientatzea eta bat-bateko irregularitasun-egoera saihestea, baita familian bizitzeko eskubidea gauzatzeko laguntzea ere. Bertan, Aholku-Sareak 2015ean egindako lanaren berri eman zen eta 2016rako lan-ildoak azaldu ziren.

4.3. Jardunaldi eta mintegietan parte hartzea

Arartekoak zenbait forotan parte hartu du; foro horietan, asilorako eskubidea defendatu du giza-eskubide bezala. Horiek gehiago zehazten dira txosten honen IV. eta V. kapituluetan. Horien artean, Madrilgo Ateneoan defendatu du eskubide hori hitzaldi honekin: [Europa ispiluaren aurrean: errefuxiatuen krisia](#).

Aurten, urtero UPV/EHUrekin elkarlanean antolatutako udako ikastaroan, izenburua hauxe zen: [“Europa, asilo lurraldea? Erroka eta erantzunak”](#).

Jardunaldi horietan aztertu zen Europan behar bezala errespetatzen ote den asilo eta babeserako eskubidea, bereziki gatazka odoltsuetatik ihes egiten duten pertsona-saldoak direla eta.

Arartekoak, Europako Egunaren ospakizuna dela bide, Eusko Legebiltzarrak eta Euskobaskek antolatutako jardunaldi batean parte hartu du: [“Europa berri baterako eztabaidak”](#).

Arartekoak, Emakunderekin batera, [Emakume eta adingabeak salerosteari buruzko jardunaldi bat antolatu du](#).

2016ko otsailaren 27an, Arartekoak bat egin zuen [Iheslari eta etorkinen eskubideen aldeko martxa Europan Ibilbide seguru](#) ekimenarekin. Europako hiri askotan egin zen ekimena eta, horren bidez, erantzun humanitario bat eskatzen da, asiloari eta giza-eskubideen babesari dagokienez onartutako nazioarteko betebeharrak errespetatzen dituen.

Horrez gain, Arartekoak, ekainaren 20an, [erakunde-adierazpen bat igorri zuen Babesaren Nazioarteko Eguna dela-eta](#).

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

5.1. 2016an, Europar Batasunak eta Espainiak ez diete erantzun egoki bat eman Europan sartu diren pertsonen. Izan ere, pertsona horiek gatazka beliko batetik ihes egiten dute, euren bizitza eta seme-alaben bizitza arriskuan zegoelako.

Gainera, Espainian, asilo-sistema gainezka egon da nazioarteko babeseko eskaerak nabarmen areagotu direlako nazioarteko egoeraren ondorioz eta, bereziki, Siriako gatazkaren ondorioz. Sistema horrek ez du malgutasun nahikoa izan Europar Batasunarekin bere gain hartutako konpromisoak bete ahal izateko, babes-eskatzailak berriz kokatzeari eta finkatzeari dagokienez. Horrela, Grezian eta Italian, oraindik ere, pertsona ugari daude dagozkien asilo-eskaerak ebaztearen zain. Izan ere, pertsona horiek baldintza tamalgarriak jasaten ari dira denboraldi luzeegiaz.

5.2. Ehunaka pertsona etortzen ari dira Europara eta horren aurrean ematen ari den erantzuna ez da nahikoa. Hori dela eta, askotan, babesa eskatzen duten pertsonen beste norako batzuetara bidaiatzen jarraitzen dute eta ez dute babes-eskaera aurkezten lehendabizi sartzen diren edo zeharkatzen dituzten estatuak. Horren ondorioz, estatu kide batzuek Europar Batasuneko beste herrialde batzuekin abiarazitako kontrolak berraktibatu dira. Ez dago baliabide nahikorik pertsona horiek hartzeko eta horiei arreta emateko eta neguan temperatura baxuak jasaten ari dira. Hori dela-eta, Europan milaka pertsona muturreko baldintzetan daude.

Berriz kokatu eta finkatzeko programak eskasak izaten ari dira eta erritmo izugarri geldoan egiten ari dira, larrialdi humanitarioari aurre egiteko. Europar Batasunak eta Turkiak erabaki bat sinatu zuten (formalki, adierazpen bat) 2016ko martxoaren 18an migrazioaren kontrolari buruz. Hala, horren helburua zen Egeo itsasoa zeharkatzen duten pertsonen joan-etorriak etetea. Erabaki horretan itzulerak kudeatzeko ekintza-plan bat jaso da.

Erabaki hori aplikatuz, Turkiatik Greziako uharteetara modu irregularrean heltzen diren migratzaileak eta asilo-eskatzai-leak Turkiara itzul daitezke. 2016an, Europara sartu diren pertsonen kopurua murriztu da eta itzulerak areagotu dira.

Abiarazi diren neurriek zalantzan jartzen dute Europar Batasunaren gaitasuna arazo komun bati aurre egiteko, baita estatu kideen solidaritatea eta horien borondatea eta konpromisoa ere asilorako eskubidea betearazteko. Hala, eskubide hori aitortuta dago estatu kideen antolamendu juridikoetan eta Europar Batasunaren Funtsezko Eskubideen Gutunean.

5.3. Dauden erronken artean dago babesa eskatzen duten pertsonen harrera eta, gainerako immigranteekin bezalaxe, horien integrazioa eta diskriminazioaren aurkako borroka.

5.4. Aipatu behar da, oraindik zehaztu gabe dagoen kontu bezala, Osasun Ministerioak duen konpromisoa lehen mailako arretan osasun-arretarako eskubidearen aitopenearekiko, atzerriko pertsonen administrazio-egoera gorabehera. Hori autonomia erkidegoek lehen mailako arreta jasotzeko sarbidea argitzea eragozten ari da, Euskadiko Autonomia Erkidegoak bezalaxe. Izan ere, horrek adierazi du talde horri osasun-estaldura ematen jarraitzeko asmoa duela.

5.5. Nabarmentzeko moduko elementu positibo bat da Euskadin dagoen diru-sarrerak bermatzeko sistema; sistema horren bidez, diru-sarrerak bermatzeko errenta, etxebizitzarako prestazio osagarria edo gizarte-larrialdiko laguntzak jaso daitezke. Horrez gain, baztertze larriko prozesuak saihesten ditu, berreskuratzeko zailak direnak. Gainera, azpimarratu behar da immigrazioko langile teknikoek toki-sarea eta euskal herri-administrazioek duten inplikazioa eskola inklusiboarekin. Izan ere, integrazioa eta sentsibilizazioa eta diskriminazioaren aurkako borroka errazten dituzten zenbait programa babesten ditu (Aholku Sarea, Era Berean eta erki-dego-integrazioko beste programa batzuk).

5.6. Hirigintza-antolamenduko politikak sustatzeko beharra baloratzen jarraitzen da, hiri-eremu batzuetan kultu-espazioen bereizketa saihesteko, “hirirako eskubidea” deritzona aplikatuz. Izan ere, pertsona guztiek dute eskubide hori hiri-ingurura sartu ahal izateko baldintza-berdintasunean eta **beste eskubide batzuk gauzatzeko** beharrezkoak diren ekipamenduak eta zuzkidurak baliatzeko, besteak beste, **askatasun erlijiosoko eskubidea gauzatzeko**.

5.7. Horrez gain, beharrezkotzat jotzen da atzerriko gazteei zuzendutako prestakuntza-eskaintza eratzea, horien egoera akademikoak eta dokumentazioa erregularizatzeak dakartzan zailtasunak kontuan hartzen dituen.

5.8. Urtero adierazten dugun kezkatzeko arrazoi bat da pertsona batzuek eta, bereziki, gazteek duten zailtasuna laneko eta egoitzako baimen bat eskuratzeko lan-eskaintza bat ez izateagatik. Euskal herri-administrazioak hezkuntza bezalako zerbitzu publikoak kudeatzen ari dira, baita laneko orientazioko eta prestakuntza okupazionalerako zerbitzuak ere. Halaber, gure hirietan bizi diren atzerriko familiei laguntzak eta prestazioak ematen dizkiete orain dela urte asko, horiek euren oinarrizko beharrak ase ahal izateko eta horien gizarteratze eta laneratze prozesuak babesteko. Hala ere, pertsona horietako askok ez dute lan egiteko baimenik, edo zaila da lana lortzea; beraz, agerian jartzen da euskal herri-administrazioek egiten dituzten ahaleginen eta lan-munduan sartzeko oztopoen arteko inkoherentzia, lan egiteko baimen administratiboa izan behar baita, eta hori Estatuko Administrazio Orokorrak ematen du. Hala, euskal herri-administrazioen jarduketara horiek ez dute merezi duten pisua.

5.9. Aurten, aurrerapausoak eman dira gorrotoaren hitzaldiari emandako erantzunean. Hala, interesgarria izango litzateke gorrotoaren hitzaldiaren aurkako borrokaren inguruko 15. Gomendio Orokorra hedatzea, baita Europako batzordearen Arrazismoaren eta Intolerantziaren aurkako azalpen-memoranduma ere bai, Europako Kontseilua. Talde desberdin eta ahulen inguruko iritzi estereotipatu eta iraingarriak sortzea pertsonen duintasuna izateko eskubidearen aurka doa eta diskriminazioaren aurkako borroka ahultzen du, baita integrazio-politikak ere.

III. ATALA

III

9

LESBIANAK, GAYAK, BISEXUALAK, TRANSEXUALAK ETA INTERSEXUALAK

Aurrekariak



Arartekoak arlo honetan egiten duen lanak [Konstituzioaren 14. artikuluan](#) du oinarria; izan ere, pertsona guztiak berdina direlako printzipioa ezartzen du, eta bereizkeria debekutzen. Era berean, eta eremu horretan egiten duen lanaren bidez, [Yogyakartako printzipioetan](#) ezarritakoa bete eta errespetatu behar dela babesten du Arartekoak; bai eta lesbianen, gayen, bisexualen, transexualen eta intersexualen eskubideen alde lan egiten duten Europako eta nazioarteko erakundeen erabakiak, jarraibideak eta aholkuak errespetatu behar direla ere. Giza eskubideei buruzko nazioarteko legedia ezartzearen ingurukoak dira aipatu Yogyakartako printzipioak, sexu-joerari eta genero-identitateari dagokienez. Sexu-joera edo genero-identitatea ezin da diskriminatzeko arrazoi bihurtu, eta euskal botere publikoek dagokie pertsona guztien berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izan dadin eragozten duten oztipoak kentzeko betebeharra.

Giza duintasunaren defentsan eta pertsona guztiek sexu-joera eta genero-identitate librea edukitzeko giza eskubidea dutelako defentsan dago oinarrituta eremu honetan egiten dugun lana. Horrekin, LGBTIQ pertsonak eskubide guztiak berdintasunez eta guztiz erabiltzen dituztela ziurtatu nahi du Arartekoak. Zentzu horretan, euskal herri-administrazioek beharrezkoak diren neurriak eta jarduerak garatzea bultzatu nahi dugu, pertsona horiek baztertzeko edozein kausa kentzearen eta haien eskubideak berdintasun osoz gauzatzea lortzearen. Gai horrekin zerikusia duten kexak izapidetzeaz gain, hainbat jardura egin ditugu, euskal administrazioetan, talde horren eskubideak erabat integraztearekin loturiko funtzionamendua hobetu eta hobekuntzak bultzatu eta sustatzeko. Hiru xede hauei begira daude gure jarduerak:

- Euskal herri-administrazioek euren jardura guztietan berdintasuna erabat errespetatu dezaten eta sexu-orientazio eta genero-identitatearen ondoriozko bereizkeriarik egin ez dezaten lortzea, eskubide horien gauzatzea benetakoa eta eraginkorra izateko beharrezkoak diren neurriak abian jarri.

- Euskal gizarte osoan, bazterkeriarik eza eta aniztasun afektibo-sexualari eta genero-aniztasunari lotutako eskubideen errespetuan oinarritutako kultura zabaltea.
- Homofobia edo transfobiaren aurka borrokatzea (edozein formatan agertzen bada ere), Euskadin LGBTIQ pertsonen egoeraren gaineko ezagutza eta sentsibilizazioa zabalduz.

1. Kexarik aipagarrienak

Genero-identitate edo -adierazpen anitza¹ duten haurrei ematen zaien osasun-arreta

[Osakidetzako Gurutzetako ospitaleko](#) Genero Unitateko jardura zalantzan jartzen zuen kexari dagokionez, legez neska erregistratuta zegoen baina mutil bizi eta sentitzen zen adingabe bati emandako arreta ezegokiari buruzkoa hori, Arartekoak gomendio bat igorri du 2016an, [Arartekoaren 2016ko otsailaren 12ko Ebazpena](#), Osakidetzari zuzendutakoa. Gomendio horren helburua zen **elkarrizketa-bide irekiak** ezar ditzala Osakidetzak, eta **zabal-zabal erantzun diezaiela** genero-identitate anitza duten haurren familiek **osasun-zerbitzuen ikuspegiaren inguruan dituzten kezekei eta egiten dituzten informazio-eskaerei**. Bestalde, gomendioaren xede ere bazen Osakidetzak kontuan har ditzala zenbait **printzipio edo jardura-ildo** bai transexuali ematen zaien arretan, bai euskal legeriak arlo honetan aurrekusi duen gida klinikoan.

Arartekoak egindako ikerketaren emaitzari dagokionez, eta Osakidetzak adierazitako gogoetak ere aintzat hartuz, erakunde honek ondorioztatu ahal izan du **erronka zientifiko, sozial eta gizatiar berriak dituen jardura-eremu baten aurrean gaudela**, eta pertsona horiek eta bereziki haurrek eskatzen duten **arretan inplikaturik dauden zerbitzu publiko guztiei** -baita osasun-zerbitzuei ere- eragiten diela.

Gauzak horrela, Osakidetzak-Euskal Osasun Zerbitzuari zuzendutako gomendio horrekin, aipatu pertsonen arreta emateari bideratutako **jardura publikoak hobeto orientatzen lagundu dezaketen eta nazioartean aitortuta dauden printzipio batzuk gogorarazi** nahi izan ditu Arartekoak. Horien artean, printzipio hauek nabarmentzen ditugu: **transexualitate despatologizatze**ko printzipioa, sentitutako sexua

¹ Termino horren bitartez, ikuspegi zabala eman nahi zaie genero-identitatea biltzeko modu desberdinei, genero hori jaiotakoan esleitutako sexuarekin bat ez datorrenean. Barne hartzen ditu bai sexua berriz esleitzeko medikuntza-prozesua burutu eta/edo hormona bidezko terapia egin nahi dituzten pertsonak, baita halako prozesurik gabe genero-identitatea beste modu batera bizitzea erabaki duten pertsonak ere. Gure ustez, haurrei edo adingabeei buruz hitz egiten dugunean batez ere, kontzeptu horrek hobeto deskribatzen du, transexual terminoak baino, haurtzaroan eta nerabezaroan bizitzen den identitate-erakuntzaren errealitate dinamikoa.

errespetatzeko printzipioa, ezagutza zientifikoari eta praktikari irekitzea, bai eta arlo honetan eskarmentu aitortua duten beste instantzia batzuen doktrina-korrante ezberdinei irekitzea ere, eta informazio zabala jasotzeko eskubidea, zerbitzuaren erabiltzaileak modu aktibo eta informatuan hartu ahal izan dezan parte bere osasunari eragiten dioten erabakietan.

Haurrei dagokienez, era berean azpimarratu nahi izan da haur horiek adierazitako eskaerak entzutea eta egoki bideratzea eskatzen duela adingabeen interes gorenak, eta **profesional adituen laguntza bermatu behar dela horien banakako ibilbidean**, hori edozein izanik ere, eta, horretarako, **zerbitzu publikoen esparruan sartu behar direla psikologiako profesionalak**. Bestalde, **haurtzaroak eta nerabezeroak berezkoa duten eboluzio-izaera** dela-eta, pertsonen nortasuna osatzean etapa batzuen garrantziari arreta emanez gainera, egokitzat jotzen dugu osasun zerbitzuek eremu honetan egiten dituzten jardunetan gizarte ikuspuntua barne hartzea eta **tentuz ibiltzea, diagnostiko azkarrek edota itxiak egitea ekidinez**, kategoria geldi edo finkoen arabera, **atzeratu bueltarik gabeko prozesuetara azkarregi jo dezaketena**.

Azkenik, Arartekoak Osakidetzari adierazi dio gai honen inguruan **dauden askotariko ikuspegi sozial, zientifiko eta doktrinalak** sartu behar direla **legez aurreikusi den gida klinikoan**, transexualen arretan orientatzeko balio behar diela horrek osasun-zerbitzuei, eta **ezagutzaren azken-mailara eta ebidentzia zientifikora** igo behar dela arreta, horretarako, beharrezkoa balitz, nazioarteko eremuko pertsona eta erakunde adituen irizpideetara joz.

Lesbiana-bikoteen seme edo alabaren seme-alabatasuna erregistroan inskribatzeko arazo legalak

2016an, aurreko urteetan bezalaxe, gai honen inguruan jarraitu dugu, eta zenbait kexa jaso ditugu seme edo alabaren ama ez biologikoaren aldeko seme-alabatasuna erregistratzeko orduan lesbianen bikoteek izaten dituzten zailtasunak aipatuz. Arrazoi horren harira, hainbat arazo juridiko sortzen dira, eta guztiek eragiten diote estatuan arlo honen inguruan dagoen legediaren ezarpenari, *laguntza bidezko ugalketa-teknikei buruzko maiatzaren 26ko 14/2006 Legearen* ezarpenari batez ere. Ondorioz, zailtasunak agertzen dira bi emakumek osatutako familietan jaiotako haurrak erregistroan inskribatzeko orduan.

Legeak mugak ezartzen dizkigun arren –gure zeregin instituzionaletatik kanpo geratzen baita botere judiziala kontrolatzea, bai eta Gorte Orokorrek emandako legeak aldatzeko proposatzea ere–, Ararteko erakundeak, bere eskumenen neurrian, zenbait jardueraren bidez jorratu du dagoeneko kontu hori. Alde batetik, txosten bat bidali diogu **Espainiako Herriaren Defendatzaileari**, eta, horren bidez, *laguntza bidezko ugalketa-teknikei buruzko maiatzaren 26ko 14/2006 Legearen* 7.3. artikulua interpretatzeko orduan sortzen den arazoaren berri eman diogu. Zehazki, artikulua interpretazioa

argitu ahal izateko egoki zeritzon jarduketara has zezala eskatu genion erakunde horri, erregistroko praktika homogeneoa lortzeko eta erregistro zibil guztien jarduerak konstituzioko berdintasun printzipioarekin guztiz bat etortzea bermatzeko. Bestalde, 2010eko abenduan, **4/2010 Gomendio Orokorra** ematea erabaki genuen, eta, horren bidez, besteren artean, Eusko Jaurlaritzari eskatu genion **eragindako herritarrei eta laguntza bidezko ugalketa-teknikak burutzen dituzten euskal osasun-zentro guztiei** lege-anbibalentzia horren berri eman ziezaiela, egoera horretan dauden emakume-bikoteek laguntza bidezko ugalketako tratamendua hasten dutenean, etorkizunean izango dituzten seme-alaben seme-alabatasuna erregistroan inskribatzeari dagokion egoeraren berri izan zezaten.

Hala eta guztiz ere, ezin dugu alboratu egun indarrean dagoen araudiak –ama bien aldeko seme-alabatasuna onartzeko xedea duenak– egun ezartzen duen erregulazioa: hain zuzen, emakume horiek ezkontuta egon behar dute eta seme-alabek laguntza bidezko ugalketa-teknikak erabiltzearen ondorioz jaiotak izan behar dute. Bi baldintza horiek biltzen ez badira, ama biologikoaren bikotekidearen aldeko seme-alabatasuna ezartzea adopzio-prozesuaren bidez baino ezin da egin, ezkontza zibilaren esparruan edo autonomia erkidegoak izateko bikoteen inguruan duen legediari jarraiki. Prozedura hori, ordea, ez zaie bikote heterosexualei ezartzen, ezkontuta egon edo izateko bikote izanda ere, automatikoki onartzen baitzaie seme-alabatasuna. Ildo honetan, aipatu behar dugu, estatuko legegilearen aukera denez, Arartekoaren erakundeak ez duela eskumenik estatutu juridiko hori, laguntza bidezko ugalketari buruzko legeak sortu duen hori, zalantzan jartzeko. Hala ere, jakin badakigu araudi horrek pertsonen arteko berdintasunaren printzipioa kaltetzen duten disfuntzioak sor ditzakeela, nekez justifika daitekeen desberdintasuna eragiten baitu bikote heterosexualak eta sexu bereko bikoteak tratatzeko moduan. Beraz, diskriminazioa sor dezaketen desberdintasunak dira. Kontu horren gaineko kexak eta kontsultak jasotzen jarraitu dugu, eta eragindako herritarrentzat konpondu ez den gaia dela adierazten digu horrek. Arrazoi horiengatik guztiengatik, erakunde honek horren berri emango dio, berriro ere, Espainiako Herriaren Defendatzaileari, eta eskura dituen bitarteko guztiak jarriko ditu egungo egoera aldatzea ahalbidetuko duten aldaketak sustatzeko.

Gizarte Segurantzako inprimakiak ez daude sexu bereko bikoteen errealitatera egokituta

2016an, beste kontu batek ere bereganatu du gure arreta: Gizarte Segurantzako inprimaki jakin batzuk ez daude familia homoparentalen errealitatera egokituta. Estatu-eremuko administrazio bati eragiten dion kontua dela aintzat hartuta, **Espainiako Herriaren Defendatzaileari** bidali diogu, erakunde horrek izapidetu dezan. Bada, gero jakinarazi digu, bere esku-hartzearen ostean, seme edo alaba jaiotzeagatik prestazioen eskabideetako zenbait alderdi aldatu direla; zehazki, *A gurasoa* eta *B gurasoa* jarri da, *aitaren* eta *amaren* ordeaz. Aitzitik, inprimakietan bertan jasotako beste

erreferentzia batzuk ez dira aldatu; hala nola, *amatasunagatiko* prestazioei eta *aitatasunagatiko* prestazioei egiten zaien aipamena; izan ere, eta Herriaren Defendatzaileak adierazitakoaren arabera, *Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean* eta horren garapen-araudian ezartzen dena kopiatuz jaso behar da aipatu izendapena, eta ez aipatu legea, ez horren araudia, ez daude alderdi horretan aldatuta.

2. Araudi- eta gizarte-testuingurua

EAEko esparru juridikoa

Azken urteotan, LGBTI pertsonen eskubide zibilak legez parekatu dira gure inguruko herrialdeetan, bai sexu bereko pertsonak ezkontzeko aukerari dagokionez, bai transexualen genero-identitatea sentitzen duten sexura legez egokitze ahalmenari dagokionez. Hala, gure lurralde-eremu zehatzean, *izatezko bikoteak arautzeko maiatzaren 7ko 2/2003 Legea* onartu zen lehendabizi; ondoren, *Kode Zibilaren erreforma, uztailaren 1eko 13/2005 Legearen* bidez egina, zeinak *Kode Zibila aldatzen baitu ezkontzeko eskubideari dagokionez*; eta azkenik, *martxoaren 15eko 3/2007 Legea, pertsonen sexuari buruzko erregistroko aipamena zuzentzea arautzen duena*.

Hori dela eta, *transexualek genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legea* onetsi zuen Eusko Legebiltzarrak. Lege horren helburua da transexualei arreta integrala ematea eta transexualen izaera edo egoera pertsonal edo sozialagatik legedian dauden diskriminazio guztiak gainditzeko bidean aurrera egitea. Azkenik, 2015eko abenduan, *abenduaren 22ko 234/2015 Dekretua* onartu zuen *Eusko Jaurkitzaileak*, transexualen administrazio-dokumentazioari buruzkoa hori. Horren bidez, aipatu 14/2012 Legearen 7. artikulua garatuz, transexualek –nazionalak zein atzerriarrek–, Erregistro Zibilean edo beren jatorrizko herrialdean sexua zuzendu artean, Euskadin erabili ahal izango duten administrazio-dokumentazioa erregulatu da, horrela, modu askean zehaztutako genero-identitatearen araberrako tratua jaso dezaten.

Arau-multzo horrekin, eskubideen legezko aitortza-eredu berria ezartzen duen esparru juridikoa eratu da LGBTI kolektiboarentzat. Hala ere, errealitateak erakusten digutenez, oraindik ere ugari dira eremuak, non praktikan urratzen baitira LGBTI pertsonen eskubideak.

Nazioarteko eta Europako esparrua. European LGBTIen eskubideak hobetzeko lehentasunezko ekintzak

Europako Batzordeak onartu egin du Europar Batasuneko estatu kide askotan lesbianek, gayak, bisexualek, transexualek eta intersexualek (LGBTI) diskriminazioa eta erasoak

jasotzeko arriskua dutela egunero. Homosexualitatearen, transexualitatearen, sexu-joera aniztasunaren eta genero-identitatearen gaineko aurreiritziak, nahasteak eta ezjakintasanak elikatu egiten dituzte komunitate horrenganako jarrera intolerante eta oldarkorrak. Zuzenbide Europarrak pertsona guztientzako tratu-berdintasuna bermatzen du enpleguaren eta prestakuntzaren testuinguruan, sexua edo sexu-joera gorabehera. *EBko itunek, EBko Oinarrizko Eskubideen Gutunak* eta *Enpleguko Berdintasunerako Zuzentarauak* ziurtatu egiten dute berdintasunerako eta diskriminazio gabeziarako eskubidea, eta, era berean, diskriminazio mota horri aurre egiteko orduan, EBk jarrera proaktiboa izan dezala eskatzen dute.

Nazioarteko Zuzenbideak ere LGBTI pertsonen eskubideak finkatu ditu, *Giza eskubideei, sexu-joerari eta genero-identitateari buruzko Nazio Batuen Ebazpenaren* bidez (2011ko ekainekoa da ebazpena). Bestalde, eremu horretan, garrantzitsua da Europako Kontseiluak duen tokia, *Ministroen Batzordeak estatu kideei egindako gomendioarekin, sexu-joeragatiko edo genero-identitateagatiko diskriminazioari aurre egiteko neurriei buruzkoa hori*.

Alabaina, *Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziaren (FRA)* hainbat txostenek erakusten jarraitzen dute, hala nola *27 estatu kideetako legediaren konparazio-azterketaren txostenak* edo *LGBTI pertsonen bizitza sozial eta ekonomikoaren eremu ezberdinetan (enplegurako, hezikuntzarako eta osasunerako sarbidean) bizi duten egoeraren konparazio-azterketak*, Europako arazo izaten jarraitzen dutela LGBTI pertsonenganako diskriminazioak eta gorroto-delituek. Iaz, txosten honen bidez, *aipatu agentziak intersexualei buruz egindako beste txosten* baten berri eman genion Eusko Legebiltzarrari. Pertsona horiek gure gizarteetan dituzten zailtasunetan jartzen zuen arreta txosten horrek.

Europako Batzordeak egin duen ekintzen zerrendan (*List of actions by the Commission to advance LGBTI equality*) sar daiteke eskubide horiek hobetzeko ekintza-esparrua. Europako Batzordeak datozen urteotan buru nahi ditu aipatu ekintzak, eta LGBTI pertsonen egoera hobetzeko orduan lehentasuna duten jardun-esparruen inguruko orientabide izateko balioko dute. Besteak beste, hauek dira jardun-esparru horiek: eskubideak hobetzeko eta horiek babesteko legezko bermeak zabaltzea; dagoeneko aitortuta dauden LGBTI pertsonen eta euren familien eskubideen eragin-kortasunaren monitorizazioa eta jarraipena; herritarrengan duten eragina lortzeko neurriak, hala nola, aniztasuna eta bereizkeriarik eza sustatzea; Europa mailan LGBTI pertsonen eskubideen berdintasuna bultzatzeaz eta horretan aurrera egiteaz arduratzen diren funtsezko eragileei laguntzea; tokian tokiko botere publikoek datuak biltzea eta ikerketa-lanak egitea; herrialdearen barruko kontuak, mugakideen artekoak, eta kanpo-ekintza hirugarren herrialdeekin batera. Europar Batasuneko estuetako administrazio ezberdinen esku dago ekintza horien zati handi bat lurralde-mailan abiarazteko erronka. Zalantzarik gabe, ardura hori euskal botere publikoena ere bada. Horretarako, esparru juridikoa eta eskubide horien defentsaren aldeko gizarte-borondatea dute.

3. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

Jarraian, arlo honetan 2016an burutu ditugun jarduketara garrantzitsuenak azalduko ditugu. Hain zuzen, agerian jarriko dugu zeintzuk izan diren Ararteko erakundearentzat arreta-gune nagusiak LGBTI pertsonen eskubideen defentsaren arloan:

3.1. Bilerak elkarrekin

Bilera Aldarte elkarrekin

LGBTI pertsonen arreta emateko elkarrekin horretako ordezkariekin elkartu dira Ararteko erakunde justizia eta LGBTI eskubideen eremuetako arduradunak. Bilera horietan, gai hauei buruz aritu dira: emakume lesbien beren semeak edo alabak Erregistro Zibilean inskribatzeko orduan dituzten zailtasunak, laguntza bidezko ugalketarako osasun-zerbitzuetan emakume-bikoteei eragiten dieten hesi administratiboak, bai eta, oro har, indarrean dagoen legeditik eratorritako arazoak, lesbiana-bikoteen berdintasun-arloari dagokionean. Ararteko erakundeak kontu horien inguruan egin du lan azken urteotan, eta gai horien gaineko gogoeten berri eman dio aipatu elkarrekin. Bestetik, gai horien inguruan lan egiten jarraitzeko asmoa adierazi dio, eta bere konpromiso argia erakutsi, sexu bereko bikoteen eskubideen erabateko berdintasuna lortzeko begira.

3.2. Bilerak administrazio eta erakundeekin

2016. urtean, bilera bat egin da Arartekoaren eta [Eusko Jaurlaritzako Familia eta Komunitate Politikaren Zuzendaritzaren](#) artean. Gainera, urtean zehar, harreman jarraitua egon Ararteko erakunde langile teknikoaren eta aipatutako zuzendaritzaren artean. Interes komuneko gai hauek jorratu dira aipatu bileran:

- Arartekoak [Rainbow](#) eta [Rainbow Has](#) proiektu europarren esparruan egin dituen jardueren ibilbidea, horiek garatu bitartean zuzendaritza horrekiko lankidetzak sortu baita. [Rainbow](#) mintegia -2014an egin zen, Bilbon- berrargitaratzeko aukera planteatu da, han jorraitutako gaiak eguneratze aldera. Mintegian, erakunde eta elkarrekin askok hartu zuten parte, eta, horretarako, zuzendaritza horren lankidetzak eskatu zen. Gainera, etorkizunean laguntzeko prest agertu da hori.
- [Berdindu Eskolak taldearen](#) jarraitutasuna eta Ararteko erakundearen parte-hartzea. [Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak](#) eremu horretan duen protagonismoaren garrantziaz hitz egin da.
- LGBTI pertsonen arreta emateko [Berdindu Zerbitzuaren](#) egoera; batez ere, adingabeak eta euren familiak artatzeko moduari dagokionez.

- Transexualen administrazio-dokumentazioari buruzko [abenduaren 22ko 234/2015 Dekretu](#) berriaren ezarpenaren egoera eta garapena.
- Osasun-gida klinikoa, [transexualen arretarako 14/2012 Legean](#) aurreikusitakoa: Gida egiteko zailtasunez hitz egin da, eta [Arartekoaren 2016ko otsailaren 12ko Ebazpena](#) eman zaio Eusko Jaurlaritzari. Osakidetzari zuzendutako ebazpena da, eta kontu honekin dauka zerikusia.
- Genero-adierazpen edo -identitate anitza duten edo genero-jokaera ez normatiboak dauzkaten adingabeak (familien eskariak eta osasun-, gizarte- eta hezkuntza-arreta). Gai horri buruzko hausnarketa patxada-tsuagoa egiteko beharra jorratu da.
- Administrazioak familia homoparentalei jartzen dizkien hesiak eta lesbien bikoteek beren semeak edo alabak erregistroan inskribatzeko orduan dituzten arazoak. [Arartekoaren 2/2010 Gomendio Orokorra](#) entregatu da, lehen esan dugun moduan, oraindik zati batean konpontzeko dagoen gaia jorratzen baita bertan.

Txosten hau ixtean, Eusko Jaurlaritzako aipatu zuzendaritzari gai horien guztien egoeraren berri emateko asmoa dauka Arartekoak, aurretik ezarritako lankidetzak estua berritzeko xedez; izan ere, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan titularrak aldatu du.

3.3. Hainbat forotan, jardunalditan eta zabaltzeko beste jarduerak batzuetan parte hartzea

Eskola segurua izeneko esparruan parte hartzea

Arartekoak, Haurren eta Nerabeen bulegoaren bidez eta LGBTIen eskubideen atalaren bidez, [“Eskola seguruaren aldeko talde egonkorra”](#) izeneko espazioan parte hartzen jarraitzen du. Eraketa mistoa (soziala-instituzionala) duen lan-foroa da, [Eusko Jaurlaritzako Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak](#) eta [Berdindu Zerbitzuak](#) babesten dutena. Eskolan, mutikoen, neskatuen eta nerabeen aniztasun sexu-afektiborako eskubideekiko errespetua eta sustapena bultzatzeko xedea dauka talde horrek, eta Arartekoak aldizka hartzen du parte bertan -Haurren eta Nerabeen bulegoaren bidez eta LGBTIen eskubideen atalaren bidez-, beste erakunde batzuekin batera (horien artean, [Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila](#) nabarmentzen dugu). Talde horren zeregina, funtsean, adingabeei, familiei eta irakasleei laguntzeko jarduerak eta protokoloak koordinatzea da, hezkuntza-zentroetan ikasleen genero-identitateei eta -rolei eragiten dieten egoerak eta jarrerak agertzen diren kasuei dagokienez.

2016an egin zen bilera bakarrean, Euskadiko hezkuntza-zentro guztiei zuzendutako dokumentuaren azken idazketa hitzartu zen. Hauxe da dokumentuaren izenburua: [Ikastetxeen zuzen-](#)

dutako protokoloa, ikasle transei edo genero portaera ez normatiboa dutenei eta haien familiei laguntzeko. Dokumentuak sarreraren adierazten duen moduan, *hezkuntza-sistemaren lerro estrategiko bat da aniztasunari erantzutea. Hori dela eta, hezkuntzako profesionalek gai izan behar dute, eskola inklusiboaren parametroetan oinarrituta, ikasleen eta haien familien dibertsitateaz ezagutu eta aitortzeko. Hezkuntzako profesionalek aniztasun horiek detektatuz gainera, ikasle horiei beren eragozpenak gainditzeko lagungarri izango zaizkien bitartekoak eskaini behar dizkiete bizi dituzten egoera jakin batzuk gainditzeko, gainerako ikaskideekin berdintasun baldintzetan pertsona oso bezala garatzeko, aske eta zorionsu bizi izateko eta arrakasta akademikoa lortu ahal izateko.* Protokolo horrekin, Euskadiko hezkuntza-sisteman sexu-joera eta genero-identitate edo -adierazpen anitzi ematen zaien arretari erantzun nahi zaio, bai eta eskolan homo/lesbofobia eta transfobia prebenitu nahi ere.

Arartekoaren erakunde-adierazpena, LGBTIen Harrotasunaren Nazioarteko Egunean

Beste behin ere, LGBTIenganako elkartasuna eta beren eskubideen defentsarekiko konpromiso sendoa adierazi nahi izan ditu Arartekoak 2016an, eta LGBTIen Harrotasunaren Egunean ospakizunari batuz adierazi du, egun horretan bertan igorritako [erakunde-adierazpenaren](#) bidez. Bertan gogorarazi nahi izan du azken bost urteetan lau pertsonatik batek indarkeria fisikoa edo mehatxuak jasan dituela bere sexu-joeragatik edo genero-identitateagatik lurralde europarrean, eta egiteko asko dagoela oraindik ere kolektibo horren benetako berdintasun eraginkorra lortze aldera; besteren artean, LGBTI pertsonen eratuak familiei erabateko aitortza eman behar zaie, –aurre-rapen legalak egin badira ere– beren berdintasuna eragozten duten oztopo burokratikoak jasaten baitituzte oraindik.

4. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Lesbianen bikoteen berdintasuna seme-alabatasuna aitortzean

Arartekoak egiaztatu egin du [laguntza bidezko ugalketa erabili duten emakume-bikoteen seme-alabatasunari ezar dakioken legezko erregulazioak, estatu-eremukoak](#), pertsonen arteko berdintasunaren printzipioa kaltetzen duten disfuntzioak sor ditzakeela, nekez justifika daitekeen desberdintasuna eragiten baitu bikote heterosexualak eta sexu bereko bikoteak tratatzeko moduan. Beraz, diskriminazioa sor dezakete erregulazio horrek. Kontu horren gaineko ke-xak eta kontsultak jasotzen jarraitzen dugu, eta eragindako herritarrentzat konpondu ez den gaia dela adierazten digu horrek. Beraz, legedia horren inguruko hausnarketa kritikoa egin behar da, bikote heterosexualen gertatzen ez den bezala, ezkontza eta laguntza bidezko ugalketa ezartzen baitie horrek lesbiana-bikoteei ama ez biologikoaren seme-alabatasuna aitortu ahal izateko, adopzio-prozesura jo nahi ez bada. Bikote horiek heterosexualen bikoteekin parekatuko

dituen lege-erreforma bultzatzera bideratu beharko litzateke aipatu hausnarketa.

Genero-identitate edo -adierazpen anitza duten haurrei arreta egokia ematea

Arartekoaren erakundearen kezkatuta gaude laguntza publikoak hobeto zehatzeaz, haurren eskubideei hobeto egokituak izan daitezten. Laguntza horiek, oro har, [14/2012 Legearen](#) babesean ezarri dira, pertsona heldu transexualentzat. Era berean, kezkatuta gaude genero-adierazpen edo -identitate anitzak dituzten edo genero-jokabide ez arautuak bititzen ari diren haurrek gutxietsita dituztelako beren eskubideak, bai eta pertsona gisa modu askean eta erabat garatzeko ahala ere, helduak ados ez jartzearen edo behar bezalako orientabiderik ez edukitzearen ondorioz (familiarak, ikastetxea edota herri-administrazioak). Horregatik, Arartekoak uste du funtsezkoa dela arlo honetan esku hartzeko eskumena duten erakundearen arteko estrategiak adostea eta irizpide argiak ezartzea, euren jardueren oinarri haur eta nerabeen interesa eta eskubideak hartuz, hori guztia, haurrak babesteko legeek eta araudiak ezarritakoari jarraiki (adingabearen interes gorena, bere iritzia emateko eskubidea, etab.), eta LGBTIren eskubideak babesteko nazioarteko eta hemengo tresnetan jasotako printzipioekin, edota emakumeen eta gizonen berdintasunerako legedian ezarritakoarekin bat eginez.

Aniztasun afektibo-sexualaren eta generoaren aniztasunaren inguruko arreta, hezkuntza-arloan

Ikastetxeei zuzendutako protokoloa, ikasle transei edo genero portaera ez normatiboa dutenei eta haien familiei laguntzeko aurrerapen nabarmena da, eskolan aniztasun sexu-afektiboa aitortzeari begira. Horrekin guztiarekin, irakasleen prestakuntza espezifiko azpimarratu behar dugu orain, aipatu protokoloa ezartzeko erantzukizuna duten horiek baliabide nahikoz hornitze aldera, bai arrakastaz bete ditzaten protokoloan jasotako xedeak, bai, eskolako egoera indibidualetatik harago, giza aniztasunari harrera egiteko eta, bereziki, aniztasun sexu-afektiboari harrera egiteko klima era dadin ikasgelan eta hezkuntza-zentroaren multzoan, prebentzio gisa. Irakasleak prestatzeko eta sentibilizatzeko plan edo programa nahikorik ez egotea, gai horiek ikasgelan modu sistematikoa eta antolatuan jorratu ez izana, sexu-joera eta genero-identitateari buruzko material zehatza modu antolatuan erabili ez izana edo egun dauden tresna didaktikoetan bizikidetzaren berriak islatu ez izana horren adibide argiak dira, eta, horren ondorioz, irakasle kontzienteen ez dute behar besteko laguntza jasotzen hezkuntza-sistemaren eskutik, gai horiek behar bezala jorratu ahal izateko.

Beraz, ezinbestekoa da Euskadiko hezkuntza-zentroen eta hezkuntza-erakundearen artean baterako lana sustatzea, eskola haur horientzat benetan inklusiboa eta toki segurua dela ziurtatuko duten tresnak sortzeari begira, euren sexu-joera edo genero-identitatea edozein izanik ere.

III. ATALA

III

10

ADINEKOAK ETA MENPEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONAK

Aurrekariak



Kapitulu honetan Arartekoak bi norabideetan egindako jardunak aurkeztuko dira, batzuetan aldi berekoak direnak. Batetik, gizarte zerbitzuek eta zerbitzu soziosanitaroek mendekotasun egoeran edo arriskuan dauden pertsoneri emandako arreta, adinari erreparatu gabe. Horrela, gai honen inguruan jasotako kexa guztiak zenbatu dira eremu honetan, baina ezgaitasuna duten pertsoneri dagozkienak (65 urtetik behar-rakoak), zehatzago aztertuko dira III.3. atalean, ezgaitasuna duten pertsoneri dagokiena, eta mendekotasuna duten haurrei dagokien ikerketa kualitatiboa Haur eta Nerabeen Bulegoaren txostenean egingo da.

Bigarrenik, eremuaren interesekoak dira adineko pertsonengan bereziki eragina duten gai guztiak, horien artean mendekotasuna. Giza-eskubideetan oinarritutako ikuspegi berriek (eskubideen titulartasunaren printzipioa), adineko pertsonen ahaluntasuna azpimarratu nahi dute, eskubidea duten subjektutzat joz, eta ez bakarrik gizarte asistentzia jasotzen duten pertsonak bezala bakarrik. Ikuspegi honek Herritartasun berri bat dakar, beharrezko berrmeez gozatzen duena, rol eta aukera berriak hartzen dituena eta euren autonomia sustatu eta indartzen duena.

1. Arloa kopurutan

2016an, guztira 27 kexa berri erregistratu dira adineko pertsonen arloan, guztiak mendekotasunaren arretari lotuta. Batzuk **mendekotasunaren balorazioen** emaitzarekin duten desadostasuna adierazten dute, bai lehenengo balorazioan baita berrikuspen fasean ere.

Mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako prestazio eta zerbitzuei lotutako kexen taldean, batzuk herrialdeen arteko ezberdintasunak adierazten dituzte, udalerrri ezberdinean emandako modalitate bereko zerbitzuen arteko ezberdintasun aipagarrietan, prestazioen eta zerbitzuen arteko bateragarritasun graduari dagokion irizpide ezberdinak edo lurral-

deen arabera zerbitzuen, zerbitzuaren intentsitatearen eta erabiltzaileak hura finantziatzeko parte-hartzean oinarrituta daude, prestazioaren lekuaren arabera.

Egoitza zerbitzuei dagokienean, kexa batzuk plaza faltari egiten diote erreferentzia, batez ere Araban buru-osasun arazoak dituzten pertsoneri zuzendutakoetan.

Egoitza zerbitzuei lotuta kexetan adierazitako beste alderdi bat atzerapenak dira, batez ere zentro batetik bestera aldatzeko edo zentro batean sartzeko. Dena den, aitortu beharra dago kasu guzti hauetan plaza esleitu zaiela eskaera izapidetzen ari zen bitartean. Egoitza plaza publiko bat lortzeari lotutako azken kexa batek judizialki ezgaitasuna ez duten baina euren arretarako beharrezko laguntzak kudeatzeko baldintza pertsonalak betetzen ez dituzten eta hori egiteko gertuko familiarik eta baimena duena ez duten pertsonen ahulgarritasun egoera berezia planteatzen zuen.

Egoitza zerbitzuen arretaren kalitateari buruzko kexek (higie-ne gabeziak, momentu eta leku batzuetan berrikuspen gutxi, norberaren gauzen gaineko kontrol eza, etab.) Ikuskaritza Zerbitzuen jardunari buruzko interesa piztu dute, aztertutako kasu guztietan modu egokian jardun dutenak salatzaileen audientzia emanez, gertakariak tentu handiz ikertuz, zentroetan hobekuntzak proposatuz eta betetzeen jarraipena eginez. Jardun horrek, hala ere, ez du kasu guztietan zalantzan jarritako egoitza zentroan galdutako konfiantza berrezartzea lortzen.

Aurreko kexekin lotuta, zaharren-egoitza batean aldi baterako estantzia epe baten ostean emakume baten heriotzaren ondoren ondare arduragatiko erreklamazio judizial bat aipatzen duenez, familia batek Bizkaiko Foru Aldundian eskatutako bitartekaritza eskaria nabarmenduko dugu, administrazio honen erreklamazioak dituen kostu judizialen kopuru handiarekin lotuta. Jarduna amaitzeke, Arartekoak kexagilearen aldeko ebazpenarekin amaitzea espero du, bere garaian *Administrazioarekiko auzibideko apelazioen arriskuak: erabiltzaileentzako informazioa hobetzeko eta Administrazioak kostu gisa erreklamazioak dituen profesionalen ordainsariak neurtzeko beharri buruz foru erakundeak Arartekoaren 2/2009/320 Gomendio Orokorriari emandako erantzunari jarraiki, honakoa esaten duena: "Bizkaiko Foru Aldundiko Zerbitzu Juridikoei 2/2009/320 Gomendio Orokorra helarazi zaie, berriaz aintzat hartzeko aginduz eta horren arabera defentsarako izan duen profesionalaren ordainsari gisa erreklamazioak dituen profesionalen ordainsari gisa erreklamazioak dituen irizpideak modu neurtuan aplikatzearen emaitza izatea, ebazpen honetan adierazitakoaren arabera".*

Prestazio ekonomikoei dagokienean, ohiko eskariak ebazpenetan ematen diren atzerapenei buruz ari dira, dena den, azkenean egoki ebazten dira, ondorioetarako data egoki aitortuta eta kopuru egokiak ordainduta.

Beste kexa gutxi batzuk prezio publikoari eta horri lotuta erabiltzaileak ordaindu behar duenari egiten dio erreferentzia. Egoitza zerbitzuetan eragina duten kasuetan, erabiltzaileek ez dituzte aintzat hartu euren erreklamazioetan aurreko urteetan egindako ondare emateak. Etxez etxeko laguntzaren kasuan, jasotako zerbitzuen kalitatea zalantzan jarri gabe, eskatzaileak erakunde honek 2016an argitaratutako udal zerbitzu sozialen egoerari buruzko ez-ohiko txostenean dagoeneko jasotako gertakaria egiaztatu zuen (IV. kapituluaren xehetasun handiagoz aurkeztutakoa), sektore pribatuko zaintzaileen eskaintzan dagoen lehiakortasunak, “merkatuko” prezio baxuekin, etxez etxeko asistentziaren eskaintza publikoarentzat suposatzen duena.

Azkenik, zentroetako, Lurralde Historiko ezberdinetara egoitza lekualdatzei eta eguneko zentrorako garraio baimenei lotutako beste kexa eta kontsulta batzuk aipatuko ditugu.

2. Kexarik aipagarrienak

2.1. Apirilaren hasieran [Gipuzkoako Foru Aldundira](#) zuzendutako ebazpen bat eman zen. Bertan, herritar baten **Familia Inguruneko Zainketetarako Prestazio Ekonomikoa** iraungitzea erabaki zuen ebazpena berrikusteko aholkatu zen, baita kontzeptu honengatik jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra aitortzen zuen ebazpena ere.

Familia Inguruneko Zainketetarako Prestazio Ekonomikoaren iraungitzearen eta ondoriozko oker jasotako prestazioen erreklamazioaren oinarria zen **zaintzailea ez zegoela onuradunarekin batera erroldatua**. Hau egia izanda, kexagileak argudiatu zuen bere amarekin bizitza osoan bizi ondoren, etxebizitza aldaketa bere amaren mugikortasun beharrei erantzuteko eman zela, okupatzen zuten alokairuko etxebizitzan obra handiak egitea behar zutenak. Gauzak horrela, higiezin bereko beste etxebizitza batera eramatea erabaki zuten, bere beharrei arreta ematea errazteko (sendagaiak antolatu eta eman; eguneko zentroaren aurrean ardura gain hartu; hortzoi, presioagatik ultzeren eta abarren ondoriozko zainketa higieniko-sanitarioak; elikadura; pixoihala aldatzea eta laguntza orokorra etxean dagoen bitartean) eta aurreko egoerari dagokionez aldaketarik ez jasateko.

Erakunde honen ustez, araudi horrek Autonomiarako eta Mendekotasunari Arreta emateko Sistema sortu duenak, besteren artean, mendekotasun-egoeran dauden pertsonak artatzeko eta babesteko xedea du. Familia Inguruneko Zainketetarako Prestazio Ekonomikoaren kasuan, bizikidetzaren betekizuna justifikatuta dago mendeko pertsonak behar dituen zainketak ziurtatzean. Kasu honetan, semeak urte askotan zaindu zuen ama, eta urte askotan bizi izan zen harekin. Arreta eta zainketak hobetzeko asmoz atari berean beste etxebizitza bat alokatzeko erabakiak ez zekarren bere gain hartutako legezko betebeharrak bat uztea, ezta seme gisa zuen konpromiso pertsonal eta morala uztea ere.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak aholkatu zuen irizpide hori *Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoaren [urriaren 1eko](#)*

40/2015 Legearen 4. artikuluan adierazitako Herri-Administrazioen esku-hartzearen printzipioen arabera interpretatzeko, irizpideak betetzeko exijitzean neurri ez-murriztaileena aukeratzeko, eta interesa babesteko beharra arrazoitzeko.

Gomendio hau ez onartzeko erantzun horretan, *abenduaren 14ko 39/2006 Legean* eta *uztailaren 21eko 25/2009 Foru Dekretuan* ezarritako aurreikuspenak bete dituela aipatu du foru sailak. Era berean, Lurralde Kontseiluak Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren inguruan egindako Hitzarmena eta *abenduaren 27ko 1051/2013 Errege Dekretua* aipatu dira. Errege dekretu horren bidez, bizikidetzaren betekizuna salbuestea aurreikusten da baliabide publiko edo pribatu egiaztatu nahikorik ez dagoen ingurunea denean, baina hori ez da oraingo kasua. Legearen aurreikuspen hauek, ezinbestean, aintzat hartu zituen erakunde honek gomendioa egiterako orduan eta zehazki, irizpidearen salbuespenen existentzia nabarmentzeko helburuz. Azpimarratu nahi dugu, iradokizuna bidaltzeko orduan, kontuan hartu zela zaintzailea higiezin eta atari berean bizi zela, eta, beraz, mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren arreta eta zaintzak bermatuta zeudela. Prestazioaren helburua, erakunde honen ustez, berdin jarraitzen zuen. Izan ere, foru erakundeak une batean ere ez du adierazi beste etxebizitza atari berean alokatzeko erabakiaren ondorioz, babes txikiagoa eta arreta gabezia egotean. Gainera, bizi-baldintzak hobetzeko hartu zen erabaki hori. Zentzu horretan, Kode Zibilarren 3. artikulua aipatu da. *Kode Zibilarren* aurretiko izenburuan, “Arau juridikoei, ezartzeari eta eraginari buruz” atalean, dago jasota hori, eta oinarritzko araua da zuzenbidearen ezarpenean: “*Arauk hitzen berezko zentzuari jarraiki interpretatuko dira, aplikatu behar diren garaiko testuingurua, aurrekari historikoak nahiz legegintzakoak eta gizarte errealitatea aintzat hartuta eta, funtsean, haien espiritu eta xedeari jarraiki*”.

Etxebizitza-aldaketa beste higiezin batera egin izan balitz, distantzia handiagoa egongo zatekeen, eta zentzua edukiko zukeen betekizuna betetzeko eskaera zorrotz eta baztertzailer horrek. Kasu honetan, ordea, aurretik familia-bizikidetzaren egon dela egiaztatuta, eta mendekotasun-egoera hain handiarekin, araudiaren beste interpretazio bat egin liteke; hots, erakunde honek iradokizunean azaldutako horixe.

2.2. Beste kexa pare batzuk, Familia Inguruneko Zainketetarako Prestazio Ekonomikoaren gainekoak ere, zaintzailearen heriotza aipatzen dute. Bi kasuetan, mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren beharrak ez ziren aldatu zaintzailea hil zenean. Era berean, ez zen aldaketarik egon behar horiek betetzeko, jarraitzen baitzuen arreta jasotzen, etenik gabe, beste senide baten esku. Gainera, zaintzaile berriek diligenza berezia nabaritu zuten gertakarien jakinarazpenean eta zaintzaile berria aitortzeko dokumentazioaren aurkezpenean. Horretaz gain, **Bizkaiko Foru Aldundiak** jarraitutako prozedura, zeinaren bidez Familia Inguruneko Zainketetarako Prestazio Ekonomikoa iraungi zen, hildakoa zaintzaile bezala aitortzen duena eta berriz ere horren eskubidea ematen diona zaintzaile berriarekin, prestazio gabeko hilabete batzuk pasatzeko haina atzeratu da. Arartekoaren esku-hartzea, beraz, zaintzaile ez profesionala aldatzeagatik emandako aldaketetarako ezarritako prozeduren eragina aztertu du; horrez gain, egikaritu diren denborak aztertu egiten dira.

Kasu hauetan, Arartekoaren iritziz, prestazioa jasotzeko esku-bidea aitortzearen aldeko interpretazioa egin daiteke, zerbitzu edo prestazioaren onuradunaren kalterakoak diren etenik edo aldaketarik eragin gabe. Interpretazioak legezko babesa du aurretik aipatutako Sektore Publikoaren araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 4. artikuluan.

Bizkaian Familia Ingurunekeo Zainketetarako Prestazio Ekonomikoa erregulatzen duen araudiak (ezta *azaroaren 29ko 179/2011 Foru Dekretuak* ez eta *urriaren 11ko 152/2016 Foru Dekretuak* ere) ez dute zaintzaile printzipalaren aldaketa egoera berariaz aipatzen, prestazioaren iraungitzerako ez bada. Egoera ohikoa ez bada ere, ezin da esan gutxitan gertatzen denik. Hortaz, erakunde honek gomendatu nahi dio Bizkaiko Foru Aldundiari familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoaren arautegian zaintzailearen aldaketari buruzko xedapenak sar ditzan (baita aurrekarien existentzia ere), arreta behar duten pertsonak zaintzen jarraitzeko; bestela, baliteke pertsona horiek babesik gabe geratzea.

Gizarte Ekintza Sailak helburu hori lortzeko neurriak hartzea aurretik informazio-eskaeran aurkeztutako proposamene-tako bat izan zen; eta foru erakundeak aztertzen ari zela erantzun zion horri. Arartekoak positiboki baloratu du aldeko xedapen hau, duela gutxi onartutako Familia Ingurunekeo Zainketetarako Prestazio Ekonomikoaren erregulazio berrian behintzat islatu ez bada ere.

2.3. Arartekoak apirilean ofiziozko jardun bat abiarazi zuen (ebazpenean lagundu zuen kasu partikular batean egindako esku-hartzetik sortua), istripu, traumatismoa, prozesu kroniko baten okertzea edo larrialdi/interbentzio kirurgikoa, espero gabeko lesio larriak sortu duena eta eguneroko oinarrizko jarduerak egitea mugatzen diena, izan duten pertsonen hasiera bateko mendekotasunean aurreikusitako arretari eta ospitaleko altari lotutakoa. Zaintza soziosanitarioen intentsitate altua behar duten egoerak.

Kasurik onenean, pertsona hauek euren senideen laguntza izango dute, baina hala ere, izan daiteke sarrera errazten dien aparkalekurik ez duen errehabilitazio zentroetara edo beste instantzia batzuetara joan behar izatea, edo etxebizitza egokitzeko edo laguntza teknikoaren gastuei aurre egin (aulkiak, oheak, garabiak...), beti egin ezin den gastu handi bat dena. Baita ere posible da unitate soziosanitarioetara bideratuak izatea, eskuragarri dagoen informazioaren arabera beharrak eta eskariak dauden plazak baino gehiago dira.

Edozein kasutan, Arartekoak hiru foru aldundietan eta Euskal Kontseilu soziosanitarioan behar egoera hauen, eta batez ere, ondorengoan, gainean galdetu zuen: 1) Mendekotasunaren balorazioan aurreikusitako ohiko epeak eta salbuespenak, egoera egonkorrei arreta emateko; 2) lurralde bakoitzean pertsona hauei arreta emateko zerbitzu eta prestazioak, ezgaitasun edota mendekotasuna baloratzeko aurreikusitako epea lortu arte; 3) egoera hauetako arreta hobetzeko eman beharreko erantzun posibleen gainean duen iritzia.

Jarduna amaitzeko oraindik, galdetutako administrazio guztiek adierazi dute behin betiko mendekotasunari laguntzeko errekurso sistema bat existitzen bada ere, ez dugula

errekursoen partekatutako zerrendarik gaixondo, mendekotasun iragankorrerako edo egonkoritu gabekoentzat. Ildo honetan, euren iritzia da, Arartekok ere konpartitzen duena, eremu soziosanitarioaren garapen handiago baten beharra, zerbitzu soziosanitarioen zerrendaren definiziotik ospitaleko alta eman ondoren gaixondoei erantzunak ematean aurrera egiteko, izaera iragankorreko etxeko zerbitzuak unitate soziosanitarioetan plaza kopuru nahikoarekin batuz, lurraldean egoki banatuta egongo direnak. Baldintza horietan, pertsonak euren ezgaitasun edota mendekotasun graduaren balorazio prozesuei aurre egin ahalko diete, eta ondorengo zerbitzu eta gizarte prestazioei ere, arreta eta laguntza egokia jasoko dutelarik.

Edozein kasutan, hauematen den bitartean, [Arabako Foru Aldundiak](#) mendekotasun eta ezgaitasun egoerak aitortzeko prozedura erregulatzen duen 36/2014 Foru Dekretua onartu zuen, [abuztuaren 3ko 56/2016 Foru Dekretua](#), ospitaleko alta eman ondoren gertakizun hauen balorazioa ahalik eta lasterren abiarazteko aukera ez-ohiko moduan jasoz. Hau pozteko arrazoi bat da erakunde honentzat.

2.4. EUSTATEk Arartekoari jakinarazi dio 2016ko azaroan euren estatistika betebeharrak betetzean adineko pertsonen kolektiboari sortutako eragozpenak gutxitzeko protokoloa onartu zuela. Jardun hau lotuta dago erakunde honek abuztuan emandako iradokizunarekin, era berean pertsona batek bere amaren izenean jarritako kekatik sortutakoa, 2015eko Familia-Ingurumen Inkestarekin lotutako estatistika datuak lortzeko sortutako eragozpenen aurrean, bere adina dela eta. Gomendioak estatistika betebeharren aitzaki egoerak erregulatzeko helburua zuen, arazoia inkestatutako pertsonen adina izanik. Modu berean, Arartekoak Eustati hori kontuan hartzeko eskatu zioen, beren beregi adineko pertsonen egindako prozedura eta galdetegietan, eta zuzenean datu estatistikoak lortzerakoan gehiegizko karga saihestu beharko du.

EUSTATEk onartutako protokoloak inkestatzaileek adina, mendekotasun larria edo osasun txarra dela eta erantzuteko zailtasunak dituztela ikusten badute jarraitu beharreko prozedura ezartzen du. Protokoloak informazioa zuzenean adineko pertsonetatik, euskal populazioaren handitzen doan zatia, lortzeko interesa ahalik eta arazo gutxien sortzeko konpromisoarekin lotzen du. Oso nagusiak diren pertsonen kasuan edo informazioa eskuratzea zail egiten duen egoera batean dauden pertsonen kasuan, erantzuna hirugarren pertsonengandik jasotzeko aukera ere badago (familiako kideak edo kofidantzazko pertsonak), beste neurri batzuen artean. Era berean, prozedura bat ezarri da, erantzuteko ezintasuna dagoela adierazi duen bigarren kontaktu bat eta gero, operazioa ikuskatzen duen pertsonak inkesta behin betiko bukatutzat eman dezan.

Arartekoak uste du EUSTAT/Estatistikaren Euskal Institutuaren protokolo horrek eskatu zaizkion neurriak barne hartu dituela, kasu bakoitzean, datu estatistikoak zuzenean biltzerako orduan kolektibo horri gehiegizko kargarik ez ezartzeko.

3. Araudi- eta gizarte-testuingurua

3.1. Ez dugu topatu berariaz adineko pertsonen **giza-eskubideez** arduratzen den **Nazio Batuen nazioarteko instrumenturik** (Hitzarmen, Itun, Paktu), baina badira hauen egoeraren gaineko Asanblada Orokorraren ebazpen ugari. Horien artean Adineko Pertsonen aldeko Nazio Batuen Printzipioei buruzko **46/91 Ebazpena** nabarmentzen da. Bertan, “*gobernuen euren nazio programetan ahal den guztietan honako printzipioak barne hartzeko eskatzen zaie; independentzia, parte-hartzea, zaintzak, autoerrealizazioa eta duintasuna*”.

Nazioarteko eremuan oraindik, Nazio Batuetako kide diren Estatuak nazioarte ekintza planak hartu dituzte (Viena, 1982, eta Madrid, 2002), zahartzeari buruzko lan-taldeak (2011ko otsailaren 4ko Nazio Batuen Asanblada Orokorraren **65/182 Ebazpenaren** bidez sortua) eta adineko pertsonen giza eskubide guztiez gozatzeko aditu independenteak (2013ko irailaren 27ko Giza Eskubideen Kontseiluaren **24/20 Ebazpenaren** bidez izendatutakoa) ebaluatutako eta jarraitutakoak. Azken txostenean, 2016ko uztailaren 8an aditu independente honek aurkeztutakoa, Zahartzeari buruzko Madrileko Nazioarteko Ekintza Plana ezartzeak giza-eskubideen eremuan dituen ondorioen analisisaz gain, indarrean dauden nazioarteko instrumentuen ezarpena ebaluatu da adineko pertsonen dagokienean, aldi berean praktika onak eta hautemandako gabeziak zehaztuz. Beste gomendioen artean, Estatuari adineko pertsonen giza-eskubideen babesa indartzeko modurik onena zehazteko esfortzuak handitzeko eskatu zaie, eta aurkeztutako proposamen ezberdinak kontuan hartzeko, bereziki adineko pertsonen eskubideei buruzko hitzarmen bat egitea.

3.2. Mendekotasun egoera aitortzeko, familia ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa eta egoitza zerbitzura lotutako prestazio ekonomikoa prozedurak erregulatzean eragina duten **Bizkaiko araudietan aldaketak** eman dira, batez ere euren edukia *Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemaren prestazioen eta zerbitzuen zerrendari* buruzko **urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan** eta prozedura administratiboak egoitza elektronikoa sartzetik sortutako aginduek ezarritakoari egokitzeko beharretik sortua, (2015ean herri-administrazioen «ad extra» eta «ad intra» harremanak, hurrenez hurren, erregulatu dituzten *Herri-administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari* buruzko **urriaren 1eko 39/2015 Legea** eta Sektore Publikoaren araubide Juridikoari buruzko **urriaren 1eko 40/2015 Legearen** onarpenarekin lotutakoak). Laugarren dekretu batek, **mendekotasuna duten pertsonak eguneko zentroetan** sartzeko aldatzen duenak, erabiltzaileen arretarako zonifikazio berri bat barne hartzen du, EAEko Gizarte Zerbitzuen Maparen arabera, eta zerbitzuaren erabilera modalitateetan malgutasun garrantzitsua ere barne hartzen du, hura garraiorik gabe erabiltzeko eta asteburuetara hedatzeko aukera ere sartuz.

Arabian, “kexa azpimarragarrien” 2. atalean adierazten zen bezala, mendekotasun egoera aitortzeko prozeduraren dekretu erregulatuaren aldaketa onartu da kasu batzuen

aitortzea barne hartzeko (istripu larrien edo gaixotasun neurodegeneratiboen kasuak, lesioak “*per se*” behin betikoak diren eta edozelan ere okerrera joan daitezkeenak), orokorrean gabezien behin betiko izaera ulertzeko beharrezkotzat jotako denbora itxarotea egokia ez denean.

3.3. Araban ere aurten **Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapa 2016-2019** onartu da, Foru Aldundiak eta Lurraldeko Udalek **EUDELe**k ordezkaturakoak, egindako lanaren fruitu gisa. Mapak Arabako prestazio ekonomikoa eta zerbitzuak barne hartzen ditu, bai foru eskumenekoak baita udal eskumenekoak ere. Lurraldearentzat adostutako zonifikazio geografikoa deskribatzen du eta hurrengo 3 urteetarako garapen aurreikuspenak jasotzen ditu. Modu osagarrian, Arabako Foru Aldundiaren eta arabar udal bakoitzaren arteko akordioa eta ondoriozko *zerbitzu eta prestazioen lekualdatzeko* lanak jarraitzen du, hauen osaketa zerbitzu sozialen bakoitzari esleitzen dion eskumenaren arabera. 2016an oso aurreratua zegoen Gasteizko udalarekin, eta Diputatuen Kontseiluak abenduko azken egunetan bi urteko epe iragankor bat ezartzea adostu zuen, 20.000 biztanle baino gutxiago dituen arabar udalerrri bakoitzarekin berantolaketa hau adosteko. Denbora horretan, Arabako Foru Aldundiak inolako aldaketarik gabe egun ematen dituen udal eskumena duten gizarte zerbitzuak ematen jarraituko du.

Gasteizko Udalak, bere aldetik, bere gizarte zerbitzuetako sailaren Plan Estrategikoa egiteko gogoeta prozesu parte hartzaile zehatz eta sakona egin du.

3.4. Urte hasiera, **Eusko Jaurlaritzak** Demografia Aldaketari buruzko Europar Itunera gehitu zen, europar Eskualdeen Batzordeak sustatutakoa, zahartze aktiboa eta adineko pertsonen adiskidetsuak diren inguruak eta ikasteko eta kolaboraziorako aukerak ere bultzatzen dituena.

Euskadirentzat **Zahartze Aktiboaren Estrategia 2015-2020** markoaren barruan **Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailak** urte amaieran **Gobernantza +65** ekimena jarri du martxan. Ekimen hori, sustatzaileen arabera, adineko pertsonen ordezkartza eredu bat zehazteko asmoz sortu zen, euren eragina duten erabaki politiko eta sozialetan parte hartzeko. Gogoeta prozesu honetan pertsona asko ari da parte hartzen, horien artean erakunde honen ordezkariak.

Zahartze Aktiboaren Euskal Estrategiarekin lotuta **Euskadi Lagunkoia Sustraietatik**, udalerrien sarea ere dago, 2016 hasiera 28 udalerririk osatzen zutena. Ekimenak adineko pertsonen eta orokorrean herritarren parte hartzea sustatu nahi du, bizi garen auzoak eta inguruak hobetzeko eta aldi berean guztiontzako adiskidetsuagoak diren inguruak sustatzeko.

3.5. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak adineko pertsonen zuzendutako orientazio juridikoko doako zerbitzua martxan jarri dela zabaldu du **Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren** laguntzarekin. Zerbitzuak oinarritza aholkularitza juridikoa ematen du, zalantzak argituz, eta, hala badagokio, arazo larrienak konpondu ditzakeen pertsonarengana bideratuz.

4. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

4.1. Urte honetan EAEn [gizarte zerbitzuen plan estrategikoaren](#) garapenak aurrera jarraitu du, 2015. urte amaieran onartutakoa. Lurralde analisi, akordio eta konpromisoetan sakontzen jarraitu dute, gizarte zerbitzuen Mapak direnak (2015ean [Gipuzkoan](#) eta 2016an Araban). Horietan, mendekotasun egoera jorratzen da, gutxienekoetatik larritasun handiena dutenera. Garrantzitsuak dira Legeak aitortutako gizarte zerbitzuetarako eskubidea bermatzeko egiten ari diren esfortzuak, eta hori praktikan lurraldeen arteko ezberdintasunak murriztean eta pertsonenganako arretaren kalitatea hobetzean eragina izan beharko luke. Iaz bezala positiboki baloratu zen adierazitako Plan Estrategikoaren onarpena (EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan sartutakoa) eta prestazio eta zerbitzuen Zerrenda Dekretua, 2016an emandako aurrerapenek iritzi positiboa eta itxaropenekoa merezi dute.

4.2. Erakunde honek gizarte zerbitzuen sistema integratutako funtzionamenduan eta Zerrendan agertzen diren mendekotasuna duten pertsonentzako zerbitzu eta prestazioak hobetzeko kontuan izan beharko zirela uste dituen elementuetako batzuk adierazi dira [udal gizarte zerbitzuen egoerari](#) buruzko ez-ohiko txostenean, txosten honetako IV. kapituluan xehetasun handiagoz aurkeztuko dena. Mendekotasun egoeran edo arriskuan dauden pertsonen arreta emateko ikuspuntutik, azpimarratu behar dira honakoei buruz ari diren gogoetak (txostenaren ondorioekin lotutakoak):

- Esku-hartzearen eredu komunitarioari eta arretaren jarraikortasun printzipioari edukia ematea, pertsonari bere bizi prozesuan arreta bermatuz arreta horretan eteteak edo atzerapenak eman gabe.
- Profesionalen diziplina anitzeko ekipoak konfiguratu, kantitate nahikoarekin eta kualifikazio egokiarekin.
- Koordinazio horizontaleko egiturak artikulatu, kolaborazioa, gogoeta, informazioa eta lehenengo arretako gizarte zerbitzuen laguntza teknikoak errazten dutenak.
- Pertsonak banakako esku-hartzean edo esku-hartze familiarrean parte hartzea sustatu.
- Prebentzio jarduerak indartu.
- Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren gaineko gogoeta sakonari ekin, zaintzaileen laguntza zerbitzua bultzatu eta eguneko hartze zerbitzuak eta lehenengo arretako egoitza zerbitzuak garatu.
- Legean aurreikusitako araudi garapenean aurrera egin (Zerrendako zerbitzu eta prestazio bakoitza erregulatzen duten arauak) eta Zerrenda egoki eguneratuta mantendu, pertsonen behar aldakorrei egokitzuz.

- Lehenengo arretaren eta bigarren mailako arretaren arteko koordinazioa hobetu, baita arreta soziosanitarioa ere.

4.3. Erakunde honek adierazi duen bezala, **babes-maila osagarriak sustatzeko** aukera horrek Sistemako osagai garrantzitsua izaten jarraitu behar du. Mendekotasunera bideratutako gastu publikoa ez da *abenduaren 14ko 39/2006 Legean* ezarritakoari egokitzen. Estatuko Administrazio Orokorraren ekarpena, adostutako mailaren ezabatzea, gutxieneko mailaren murrizketa eta familia zaintzaileen kotizazioen ezabatzea kontuan hartuz, ikerketen arabera gastu publikoaren %22,6 igo da, gainontzeko %77,4 autonomia erkidegoen kontura geratuta. Testuinguru horretan, euskal administrazio publikoek babes jarraituko maila osagarriak hartzea errealitate bat izaten jarraitzen du. 2015ean erreallitate hau berriaz aipatzen bazen *aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretu Legeak* Euskadin izandako inpaktu txikitua azpimarratzeko, aurtengo adierazpena mendekotasuna baloratzeko baremo berriarekin mendekotasun gradua berrikusi ondoren dagokion prestazio batzuen intentsitatea ez murrizteko erabakia da.

4.4. Arartekoak aurreko txostenetan ere adierazi du **mendekotasuna baloratzeko baremo** berria ezartzeak, *otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuaren* bidez onartutakoa, 2012ko otsailean indarrean sartu zena, ondorio argiak izan dituela balorazioen emaitzari dagokionez, eta zerbait gogortu direla esan daiteke (apur bat beherantz doazen emaitzekin), gehiago nabaritzen dena, orokorrean, ezgaitasun intelektuala edo buru-gaixotasuna duten pertsonetan. Baremoaren aldaketa, haren eduki eta erabileran adituak diren pertsonen arabera, aldaketa argigarriak eta mendekotasun egoerak neurtzean egokitzapen hobea suposatzen du. Zentzu honetan, besteren artean, baloratutako pertsonaren osasunaren gaineko alderatutako informazio nahikoa bermatzea suposatzen du; eguneroko bizitzaren oinarritzako jarduerak bakoitza osatzen duten lanen banaketa egokiagoa, baremoaren analisiaren helburua dena; lan hauek mendekotasuna dela eta edo, aldiz, gizarte, kultural, gainbabesa, eta abarrek arrazoiengatik ez egitea ezberdintzea, mendekotasun gisa joko ez zirenak; lanean laguntzeko beharrezko maiztasun faktorea sartzeko, mendekotasun iraunkorraren larritasun handiagoko egoerak hain larriak ez direnetik bereizteko eta zehazteko aukera ematen dutenak; balorazioaren behin betiko edo behin-behineko balioa zehazteko irizpide argiak ezartzea. Horretaz gain, hala ere, baremoa eta hura ezartzeko gidaliburua hobetu daitezke, goian adierazitako ezgaitasun intelektuala edo buru-patologia duten pertsonen balorazioetako datuak aurkezten duela ematen duen bezala. Ildo honetan, mendekotasun graduaren balorazioa oinarritzen duen txostenaren izaera teknikoak aintzat hartuz betiere, erakunde honi balorazio bakoitzaren eduki zehatzari buruzko adierazpenak egitea galarazten diona, ezarri beharreko erreferentziadun araudiak eta irizpide eta puntuazio sistema oso zehatzak existitzen direnez (kexagileei gai guzti hauen berri eman zaie), Arartekoak Mendekotasunari Autonomia eta Arretarako Sistema ezartzeari lotutako elementuak aztertu, baloratu eta aukeratzeko dituzten organoetan presentzia duten administrazioei ahultasun hauek

parte hartzeko aukera duten estatuko, erkidegoetako edo edozein motako bileretan adierazteko eskatu die.

4.5. Berriz ere nabarmendu nahi genukeen gauzetako bat hauxe da: komenigarria izango litzateke **balorazioari buruzko irizpena** mendekotasunaren aitorenari eransteko aukera aztertzea. Gure ustez, konpondu behar den gaia da, eta aztertu beharko litzateke mendekotasunari buruzko aitorenari oro har aplikatzea.

4.6. Egoitza errekursoetako plazak handitzeko beharra, behar mota guztietarako -mendekotasuna, babesgabetasuna, bazterketa- egun indarrean dauden Gizarte Zerbitzuen Mapetan islatzen da eta aintzat hartu da (Euskadi, Gipuzkoa, Araba). Guztiek jaso eta estaldura handitzeko helburu garrantzitsuak planteatzen dituzten arren, aurten erakunde honen jardueran izan duen presentzia dela eta, **egoitza zenitroetan eta buru-gaixotasunak dituzten pertsonentzako laguntzak dituzten etxebizitzetan** dauden plaza beharra azpimarratu nahi dugu. Egungo errealitatea da eskuragarri dauden plaza urritasuna, errotazioa txikia dela eta egoera larrientzako arreta lehenesten duen irizpidea dela eta, pertsona batzuk –oso larriak ez diren mendekotasun mailarekin eta ekonomia baliabide batzuekin– denbora luze egoten direla itxaron zerrendetan.

4.7. Ardura bezala azpimarratu nahi dugu **istripua izan duten edo degenerazio prozesu baten garapen azkarra** dela eta, adibidez, ospitale alta ondoren euren eguneroko oinarrizko jardunetarako euskarria larritasunez behar duten pertsonen arreta denbora eta modu egokian eskuratzeko dituzten zailtasunak. Mendekotasuna baloratzeko prozedura, egoera onartzeko diseinatutakoa, beharrenez oreka fasean dagoenean, baloratzeko 6 hilabeteko itxaronaldia ezartzen du, kasu hauetan amaigabeak eta onargarriak ez direnak laguntza eza

dela eta. Oraindik ondorio zehatzagoa falta denez, erakunde honek uste du duten ahulgarritasuna dituzten beharrak azkartasun nahikoarekin arreta ematen dioten esku-hartze soziosanitarioko programak martxan jartzeko exijitzen dutela, mendekotasuna baloratzeko prozesua egin aurretik edo bitartean.

4.8. Urtez urte errepikatu dugu politika publikoek adineko pertsonen parte hartzea erraztu behar dutela eta gizarte aldatetari egindako ekarpena aitortu, gizarte esku-hartzean eta bitartekaritzan merezi duten protagonismoa eta gaitasuna eman. Helburu honekin Euskadik konpromisoa hartu duen ekimen ezberdinak -**Euskadirentzat Zahartze aktiborako Estrategia (2015-2020)**, Euskadi Lagunkoia udalerrri lagunkoien sarea, Demografia Aldaketari buruzko Europar Ituna- gure adineko pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta gizarte ongizateari egindako ekarpena sustatzeko instrumentu garrantzitsuak izan daitezke. Inplikazio aldetik suposatzen dutenaren balorazio positiboa ez da euren garapenerako errekursoen dedikazio urriagatik murriztua izan behar.

4.9. Estatu mailako ikerketa batzuen arabera, mendekotasunari arreta emateko gizarte zerbitzuek enplegua sortzeko eta itzulera lortzeko gaitasun ikaragarria aurkeztu dute. 2015ean (oraindik ez ditugu 2016ko daturik), gastu publikoko milioi bakoitzetik sortutako enplegu zuzenen ratioa 35koa izan zen eta itzulera tasa %38,3koa. Kalkulu berdinen arabera, espainiar Estatuan itxaroten dauden 384.000 pertsonen arreta momentu honetan ematekotan -modu horretan Legea betez-, 90.000 ex-novo enplegu zuzen baino gehiago sortuko lirateke. Horrela, gizarte zerbitzuetako sistema honen ekarpenak azpimarratu behar ditugu, mendekotasun egoeran edo arriskuan dauden pertsonen eta adineko pertsonen ongizatea emateaz gain komunitatearentzat **enplegu eta diru-sarrera iturrien sorrera** da.

III. ATALA

III

11

TALDE TERRORISTEN BIKTIMAK

1. Arloa kopurutan



2016. urtean jardun-eskaera bakarra jaso dugu talde terroristen biktimen alorrekin lotuta.

Herritar batek, ETak bere anaia 90. hamarkadan hil zuenak, Ararteko erakundeari galdetu dio ea terrorismoaren biktima bezala kalte-ordaina jasotzeko eskubidea duen.

Behin-behineko kalte-ordain honetarako eskubidea duen zehazteko, kontuan izan behar da [irailaren 22ko 29/2011 Legean](#) ezarritako kalte-ordainak eskatzeko epea iraungita zegoela galdera egiteko momentuan eta beste senide batek -bere aitak- bi kalte-ordainak jaso zituela [urriaren 8ko 32/1999 Legea](#) eta [urriaren 28ko 1311/1988 Errege Dekretua](#) ezarriz, eta eskatzaileak atentatuaren biktima izandakoarekin zuen ahaidetasun harremana -anaia-.

Arartekoaren erakundeak [Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin](#) jarri zen harremanetan, kexagilearekin askotan bildu zena, [Barne Ministerioari](#) laguntza eskatzen lagundu ziona.

Azkenik, Barne Ministerioak anaiatzeko bi ez-ohiko laguntza horiek aitortu ditu irailaren 22ko 29/2011 Legearen 36. artikuluan eta [irailaren 6ko 671/2013 Errege Dekretuak](#) onartutako Araudiaren 42. artikuluan oinarrituz, adierazten dutenak ministerio horrek behar pertsonal eta familia behar egoerak arintzeko ez-ohiko laguntzak eman ditzakeela.

2. Araudi- eta gizarte-testuingurua

2.1. Justiziarako eskubidea

Eskubide hau Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko [ekainaren 19ko 4/2008 Legearen](#) 3. artikuluan jasotzen da. Lege honen arrazoiak azaltzean adierazi da, “*eskumen-arrazoiak direla-eta, artikulua horrek bere edukia mugatzen du justizia eskubidearen osagarritzko alderdiak arautzera, Estatuari baitagokio funtsean hori arautzea*”.

Justiziarako eskubidea terrorismoaren biktimiek eta euren elkarteek gehien eskatzen duten aldarrikapenetako bat da. Biktimak, testigantza ezberdinetan, beti erreklamatu dute justizia egiteko beharra eta Ongizatearen Estatuaren funtzionamendu egokian duten konfiantza adierazi dute.

Zigorgabetasunaren aurkako Behatokiaren -terrorismoaren biktimen elkarte ugari osatutakoa-, 2011ko txosten batean, hilketa terroristekin lotutako konpondu gabeko hirurehun kasu baino gehiago zeudela adierazi zen, eta horietako batzuk preskribatu dutela. [Covite](#) elkarteak askotan egin du konpondu gabeko ETaren hirurehun hilketak argitzeko aldarrikapena. Zentzu berean, Audentzia Nazionaleko Fiskaltzak 2011n txosten bat egin zuen [Terrorismoaren Biktimen Fundazioak](#) hala eskatuta, argitu gabeko ETaren krimenen gainean, eta ondorioetan adierazi zen momentu horretan ebazpen judizialik gabeko 349 hildako zeudela.

2014ko abenduan, [Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Orokorra](#) erakunde terroristek 1960-2014 bitartean hildakoeekin egindako atentatuen auzi egoeraren gaineko txosten bat egin zuen. Txosten honetan, beste gai batzuen artean, erakunde terroristek (ez bakarrik ETak, baitak BVEek eta GALEk eta ezezagunek egindako beste batzuk ere) egindako argitu gabeko krimen kopuru garrantzitsu bat existitzen dela ageri da, kasuak artxibatuta daudelako.

2015ean [Herriaren Defendatzaileak](#), Dignidad y Justicia elkarteak hala eskatuta, Estatuako Fiskaltza Orokorri eskatu zion argitu gabeko ETaren krimenen “zigor ardurak burutzen saiatzeko zigor prozedurak egin daitezkeen” kasuen analisia.

2.2. Memoria eta egiarako eskubidea

Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko 4/2008 Legeak 7 eta 8. artikuluetan terrorismoaren biktimiek egiarako eta memoriarako duten eskubidea barne hartzen du.

Agindu hauetan egia horren aitorten publikorako eskubidea aitortzen da eta “*euskal botere publikoek bakean eta askatasu-*

nean oinarritutako elkarbizitza lortzen eta biolentzia erabat eta errotik deslegitimatzen lagunduko duen memoria kolektiboa finka dadin sustatuko dute”.

Biktinek eta euren elkarteek uste izan dute memoria, biktimen testigantzen bidez, euren eskubideak errespetatzen dituen terrorismoaren amaierarako giltza dela.

Memoria tratatzeko oinarritzko instrumentuetako bi, legearen arabera sortutakoak eta iraganean [Bake eta Bizikidetzaren Planean \(2013-2016\)](#) kudeatutako lotutako ekimen gisa aurreikusitakoak, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua -Gogora- eta Terrorismoaren Biktimen Memoriala dira, 2015ean gauzatu zirenak. Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren ekimenak zein Terrorismoaren Biktimen Memorialaren ezinbestekoak dira memoriaren politika publikoak sustatzeko.

Arartekoaren [Euskadin Terrorismoaren Biktimei erakundeek emandako arreta](#) txostenean zein urteko txostenetan azpimarratu da asko direla euren udalerrietan bertan hildakoak eragin dituzten atentatuak pairatu dituzten udalak, eta hala ere ez dutela biktimen omenezko ekitaldirik egin.

[Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, herriz herri \(1960-2010\)](#) dokumentua, Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzaren Idazkaritzak egindako hiru lurralde historikoetako udalerriz udalerrikoa, oso garrantzitsua izan zen terrorismoaren biktimak oroitzeko ondorioetarako. Dokumentu honek 2014an amaitutako [Memoriaren Mapa](#) osatzeko balio izan du, udalei biktimak aitortuta sentitzen diren memoria ekimenak ospatzen lagunduko diena.

Zentzu honetan, azpimarratu beharra dago 2016ko azaroan [Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, herriz herri \(1960-2010\)](#) dokumentuaren bigarren edizioa egin zen. Udalei eskainitako informazio dokumentu bat da, memoria ekimenak eta biktimak aitortzeko ekimenak sustatzeko, aurreko dokumentura egindako ekimenak barne hartzen dituena.

Udal eremua herritarrengandik gertuen dagoena da, hiri eta herriak bizikidetzaren espazioak direlako, non pertsonen harremanak eta gizarte harreman hurbilekoenak garatzen diren. Tokiko eremuan garrantzi berezia hartzen dute terrorismoa deslegitimizatzekeko politikak.

[Memoriaren Plaza](#) deitutako ekimena euskal herri ezberdinetan programatu den esposizio ibiltaria da, herritarren parte-hartzea sustatzen duen proiektu interesgarria eta terrorismoaren biktimen memoria anitzari zuzenduta dagoena, frankismoaren biktimei eta 1978 aurreko legez kanpoko poliziaren biktimei ere.

Arartekoaren 2009ko [Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeetatik ematen zaien arreta](#) txostenean dagoeneko mehatxu terroristen biktimei buruzko kapitulu bat barne hartzen zen, “jazarpen indarkeria” bezala ezagututakoa. Bertan, “*kolektibo askotako aurreratutako ez-ohiko biktimizazio egoera*” existitzen zela adierazi zen. Kapitulu horretan gogorarazi da Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Erreparatzeko

4/2008 Legeak ere adierazten duela 9. artikuluan mehatxuak ezin direla inolako egoeran justifikatu eta euskal botere publikoek pertsonen indarkeriarik, beldurrik, zapalkuntzarik edo larderiarik gabe bizitzeko duten eskubidea bermatzeko lan egingo dutela. Txosten berdinean adierazi zen “*euskal erakundeek neurri bateko erantzukizun maila dute beharrezko neurriak hartzerakoan, eta horiek, kasu bakoitzean, egokiak izan behar dira mehatxaturiko eta hertsapen terroristen pean kokaturiko biktimen segurtasuna, ongizate fisikoa eta psikologikoa, duintasuna, bizitza pribatua, mugimendu eta adierazpen askatasuna eta haien eskubide politikoak babesteko*”.

Positiboki nabarmentzekoa da 2016an argitaratutako Bake eta Bizikidetzaren Idazkaritza Orokorrek [ETAk mehatxatutako pertsonen pairatutako bidegabekeriak \(1990-2011\)](#) txostena.

Ezinbestekoa da ETAk mehatxatutako pertsonen memoria eta egitarako eskubidea aitortzera zuzendutako politika publikoak sustatzea, baita justizia eta erreparazioa zuzendutakoak ere. Beharrezkoa da ETAREN mehatxupean bizi izan ziren biktinek pairatutako sufrimendu bidegabea ezagutzea eta hura deslegitimizatzea.

Terrorismoaren jazarpen eta mehatxuak jaso duten kolektiboetako bat segurtasun indarrena da, eta batez ere Ertzaintza eta euren familiek. Horregatik, bereziki egokia da Bake eta Bizikidetzaren Idazkaritzak ere sustatutako [Ertzainek eta haien familiek ETAREN mehatxuaren ondorioz jasan duten bidegabekeriari buruzko txostena](#).

Txosten hauek botere publikoek ETAREN mehatxuak jaso dituzten pertsonekin lotutako ekimenak egiteko erreferentzia zeko material baliagarria izan daitezke.

3. Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

3.1. Elkarte eta fundazioekiko harremanak

Terrorismoaren biktimen elkarte eta fundazioen papera ezinbestekoa da justiziari, egiari, memoriari eta erreparazioari legeak aitortzen dizkien eskubideen defentsarako, eta horrela aldarrikatu du beti Ararteko erakundeak. Garrantzi handikoa da halaber bizikidetzaren eta bakearen baloreen alde lan egiten duten erakunde eta elkarten lana.

Ararteko erakundeak erakunde horiek ezinbesteko aktoretzat ditu eta hori dela eta oinarritzko iruditu zaio elkarte eta fundazio horiekin harreman pribilegiatuak izatea.

Erakundearen ordezkariak ekitaldi, foro eta mintegi ezberdinetara joan dira 2016an. Bertan, terrorismoaren biktimen eskubideen inguruan eztabaidatu da edo pertsona hauekin lotuta politika publikoek jakinarazi behar dituzten printzipioak aldarrikatu dira. Zentzu honetan, arartekoak eta era-

kundeko beste ordezkari batzuk Fernando Buesa eta Jorge Diezen oroitzan egindako In Memoriam ekitaldira joan ziren, 2016ko otsailean egin zena. Gainera, erakundeko ordezkari batek Fernando Buesa XIV. Mintegian parte hartu zuen, “Biktimak: denak berdinak edo denak ezberdinak?” izeneko, 2016ko azaroaren 10 eta 11n egindakoa. Bestalde, Arartekoa Terrorismoaren Biktimen Fundazioaren 2016ko sariak emateko ekitaldira joan zen, pasa den azaroan Madrilen egin zena.

3.2. Administrazio publikoekiko harremanak

Arartekoak eta bere taldeak Bake eta Bizikidetzeta Idazkaritzarekin eta Biktima eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin izan dituzte bilera eta topaketak, bizikidetzari eta biktimen eskubideei lotutako gaiak joratzeko.

4. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

- ETak “indarkeriaren behin betiko etetea” izendatu zuena aldarrikatu zuenetik terrorismo jarduerarik ez egoteak baimendu du 2016an Euskadin bizitzarako eskubidearen, askatasunaren eta herritarren segurtasun pertsonalaren urraketarik ez egotea, erakunde terroristen jardunak direla eta.
- Azpimarratu beharrekoak dira terrorismoaren biktimen eta orokorrean euskal gizartearen memoria eskubidea sustatzera zuzendutako politika publiko ezberdinak.
- Tokiko eremuko memoriaren politika publikoek garrantzi berezia dute herritarrenganako hurbilen dagoen eremua delako, eta are garrantzitsuagoak dira atentatu terroristengatik hildakoak egon diren udalerrietan.
- Beharrezkoak dira ETaren mehatxu terroristak pairatu duten pertsonen eskubideak sustatzera zuzendutako politika publikoak.
- Terrorismoaren biktimek duten justiziarako eskubideak argitu gabeko hildakoak sortu zituzten ehunka atentatu terroristak argitzea exijitzen du.

IV

ATAIA

Arartekoaren
beste tresna batzuk
administrazio ona
izateko eskubidea
sustatzeko

IV. Atala

ARARTEKOAREN BESTE TRESNA BATZUK ADMINISTRATIO ONA IZATEKO ESKUBIDEA SUSTATZEKO

IV

Herritarrek beren eskubideak urratu direlakoan edo indarreko legea bete ez delakoan administrazio publikoen aurka aurkezten dituzten kexen gainean ebaztea da Arartekoaren oinarrizko eginkizunetako bat.

Bere funtzio adierazgarria hori izanik, Ararteko erakundeak administrazioaren kontrol eta orientazio jarduera proaktibo ugari burutzen ditu asmo orokorreko beste tresna batzuen bidez. Horien helburuak administrazioaren jardueran praktika onak edo aldaketak proposatzea, esparru jakin bateko herritarren eskubideen betetzeari buruzko ikerketa eta eztabaida sustatzea edo horien hedapena bultzatzea dira.

Kapitulu honetan 2016. urtean zehar bideratutako jardueren emaitzaren laburpena gaineratu dugu eta Arartekoaren web orrira bidaltzen ditugu horien inguruko informazio zehatzagoa nahi dituztenak.

1. Gomendio orokorrak
2. Ikerketa bekak
3. Txosten bereziak
4. Udako ikastaroak
5. Arartekoaren jardunaldiak
6. Arartekoaren argitalpenak
7. Aldizkari digitala

1. Gomendio orokorrak

Banakako kexen ebazpena, zalantzarik gabe, garrantzi handikoa da azaltzen diren kasu konkretuak argitzeko. Hala ere, batzuetan ikusten da auzia kasu partikularraz harago doa eta modu orokorrean hel dakiokela, herritar ugari edo, modu estrukturaleran, administrazioen jardunari eragin diezaiokeelako.

Zenbaitetan, arau aldetik hutsuneak daudela sumatzen da, edo aldatu egin behar direla lehenik dauden arauak, bidegabekeri azko egoerarik ez gertatzeko edo eskubideak hobeto bermatuko dituzten arauak lortzeko.

Halako kasuetan, Arartekoak gomendio orokorrak egiten ditu, administrazio bati edo hainbati begira.

2016. urtean, 3 gomendio orokor egin dira, beste hainbeste gairen inguruan. Gomendio horiek osorik gure web gunean aurki daitezke (<http://www.ararteko.eus>).

1.1. Arartekoaren 1/2016 Gomendio orokorra, urtarrilaren 26koa.

Euskadiko energia-pobreziari buruzko gizarte-eragingarritasun oinarriak.

XXI. mendean murgilduta bagaude ere, Euskadin jende askok oraindik benetako arazoak dauzka hilabete hotzetan bere etxean tenperatura egokia mantentzeko. 2014. urtean, 235.000 pertsonak baino gehiagok izan dute arazo hori, nahiz eta 2008an ez ziren 90.000ra iristen. Fenomeno horri energia-pobrezia deritzo. Baliabide ekonomiko nahikoak ez izateko sortzen du, baina baita ere etxebizitzaren baldintza objektibo txarrek edo energia-baliabideen gehiegizko prezioak.

Euskadin energia-pobrezia ezagutu eta prebenitu dadin sustatzeko, Arartekoak **gomendio orokor** bat egin zuen. Bertan, zenbait proposamen egin genizkien euskal administrazioei, orain dauden politika publikoei eta gizarte-ekimenei lagun diezaieten, fenomeno horrek gure erkidegoko milaka herritarrengan dituen ondorioak gutxitzeko eta arintzeko.

Energia-baliabideen eskasia ez dago lotuta pertsonen egoera ekonomikoarekin bakarrik. Energiaren beharra estu lotuta dago etxebizitzaren baldintza objektiboekin (etxebizitza mota, bere materialak, isolamendua edo aurrezpena eta energia-eragingarritasuna lortzeko neurriak). Energia-zerbitzuez hornitzeko merkatuaren baldintzekin ere lotuta dago (zerbitzuaren kostuak edo energia-iturriak eskuratzeko sistema zentralizatua edo deszentralizatua den). Horrela, energia-pobreziak ez die eragiten errentarik txikienerako pertsonen soilik, baizik eta gehiegizko energia-gastua egiteko arriskuan dauden beste talde batzuetara ere heda ditzake bere ondorioak. Arrisku hori eraikuntza-baldintza txarrek edo energiaren gehiegizko kostuak eragiten dute.

Erkidegoko araudiak agintzen die botere publikoei energia-pobrezia prebenitzeko eta horren ondorioak arintzeko estrategia bat presta dezatela. Estrategia horretan aintzat hartu behar dira orain arte gai horretaz egindako arauetan ezarri diren printzipioak eta zerbitzu publikoa egiteko betebeharrak.

Gizarte-bazterketa modu hori desagerrarazteko neurri publiko edo itunduetan, honako arlo hauek hartu behar dira kontuan:

1. Energia-sektorearen eta kontsumitzaile ahulenen erregulazio-eremua.

- 1.1. Euskadin energia-pobreziaren kontra borrokatzeko plan bat ezartzea.
- 1.2. Energia-pobrezia pairatzeko arriskuan dauden energia-kontsumitzaileak definitzea.

2. Energia-kontsumitzaile ahulena babesteko neurriak.

- 2.1. Talderik ahulenei energia-hornidura bermatzea.
- 2.2. Informazio egokia jasotzeko eskubidea, energia-kontsumitzaile ahulena ikuspegitik.

3. Energia-pobreziak eragindako etxe eta eraikinetan energia-eragingarritasuna hobetzeko neurriak.

- 3.1. Energia-ikuskapenak bezerorik ahulentzat.
- 3.2. Babes publikoko etxebizitza multzoaren energia-eragingarritasuna aztertzea.
- 3.3. Energia berritzatzeko laguntzak talderik ahulentzat.

4. Energia-pobreziaren ondorioak arintzeko gizarte-neurriak.

- 4.1. Gizarte larrialdietako laguntzak, energia-pobreziak eragindako etxeetan energia-eragingarria izan dadin.
- 4.2. Laguntzak energia-aurrezpenarekin uztartzea.

1.2. Arartekoaren 2/2016 Gomendio orokorra, otsailaren 16koa.

Eskola kirolean hasi aurreko adinetan kirol jarduera hezkuntza-balioetan oinarritu beharra, eta ez lehiakortasunean.

Zenbait bide erabiliz (norbanakoen kexak, gizarte- eta hezkuntza-erakundeekin egindako bilerak, adituekin egiaztatzea...), kezka adierazi diote Arartekoari klub edota entrenatzaile batzuek duten portaeragatik eta jarreragatik, eskola-kirolaren aurreko adinetan neska-mutilek egiten duten kirolaren esparruan.

Zehazki, entrenamenduetan eta partidetan, protagonismoa ematen zaie adingabe batzuei beste batzuen kaltetan, lehia-errendimendu handiagoa edo apalagoa izateko irizpidea aintzat hartuta.



Arartekoak badaki klub eta entrenatzaile gehienek erabat egoki burutzen dutela neska-mutilen eta nerabeen kirol-jarduera zuzentzeko eginkizuna. Hala ere, hori beti hala izango dela ziurtatzeko, komenigarria iruditu zaio tokiko administrazioei **gomendio orokor** bat egitea, gogoraraziz beraien herriko kirol-klubei laguntzak emango bazaizkie, haiek arlo horretako legezko xedapenak bete behar dituztela.

Horretarako, gure erkidegoko 12 udalerrik osatutako lagin baten informazioa bildu zen. Udalerririk ez dira aukeratu berorietan horrelako arazoak antzeman direlako, baizik eta, gure ustez, adierazgarriak izan daitezkeelako, kontuan hartuta lurralde-banaketa, biztanleria eta egindako kirol-jarduera.

Udalerririk horiek denak ados egon ziren erakunde honek azaldutako arazoibidearekin. Gainera, horietako batzuek egiaztatu zuten oso zaila dela horrelako portaerei kasu askotan banakakoak heltzea. Prest daude gai horretaz hausnartzeko, horrelako portaera desegokiak eragozteko bideak bilatzeko eta, gertatzen badira, horiek antzemateko eta esku hartzeko bideak jartzeko.

6/2011 Gomendio orokorrean (*Haurrek eta nerabeek egindako kirola, une oro eta edozein testuingurutan, hezkuntza parametroen arabera garatzen dela bermatzearen egokitasuna*) Arartekoak jada adierazi zuen zer irizpidek nagusitu behar duten neska-mutilak kirol bat egiten hasten direnean.

EAEko kirola erregulatzen duen araudian ere agertzen da orientabide hori, eta emaitzen eta lehiakortasunaren gainetik lehenesten da.

Kirolaren Euskal Planak (2003-2007) honako hau zehazten du eskola-kirolaren helburu nagusitzat: *“aukera eman behar dio haur kirolariari hezkuntza garapena osatzeko”*.

Bestalde, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko legeak hauxe ezartzen du: *“Haurrek eta nerabeek eskubidea dute kirolak eta jarduera fisikoak egiteko, eta saihestu egin behar da jarduera horietan lehiakortasuna lehenbiziko baliotzat sustatzea”*.

Horregatik, gomendio honen bitartez, Arartekoak **Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eskatzen die beraien udalerrietan neska-mutilentzat antolatzen dituzten kirol jardueretan**, batez ere eskola-kirolaren programan sartutakoen aurreko adinetan, **hezkuntza eta partaidetza irizpideetan oinarritu daitezela, eta ez lehiakortasun irizpideetan**, eta, beharrezkoa bada, hori betetzeko baldintzapean jar dezatela udaletik jasotzen duten laguntza, bai instalazioak uzteko orduan, bai diru-laguntzak emateko edo sustatzeko orduan.

1.3. Arartekoaren 3/2016 Gomendio orokorra, otsailaren 25koa.

Babestutako etxebizitza eskatzaileen erregistroko bajak norbanakoari jakinarazteko beharra, etxebizitza duina edukitzeko eta gizarte bazterketarako arriskua saihesteari begirako prestazio ekonomikoetarako eskubide subjektiboan duen eraginagatik.

Etxebizitza behar duten pertsonei, oro har, Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Erregistroan izena emanda egotea eskatzen zaie, alokairuko programa publikoetan sartuta dauden etxebizitza babestuak edo etxebizitza libreak eskuratu ahal izateko.

Azken urteotan, Ararteko erakundeak zenbait alditan adierazi du **Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Erregistroaren jarduera hobetu** behar dela, zehazki, izen-emateen ukapenak eta erregistroan baja emateko ebazpenak egiteko modua.

Herritarrek kexa asko azaldu dizkigute Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako bermeekin banan-banako jakinarazpenik egin ez delako. Kexa horiek gure urteko txostenetan aipatu ditugu, hurrenez hurren.

Gaur egun, elkarrekin uztartuta daude bi eskubide subjektibo: etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO) jasotzeko eskubidea (Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena emanda). Hori dela eta, Arartekoak **gomendio orokor** hau egin du, bizilekurik gabe edota gizartean baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonei eta familiei oinarrizko bi eskubide horietako edozein gauzatzea bidegabeki mugatu ez dakien.

Horregatik, **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari eskatzen zaio:**

- *Banan-banan jakinaraz daitezela Etxebizitza Babestuaren eta Zuzkidura Bizitokiaren Eskatzaileen Erregistroan egiten diren inskripzio-ukapenak eta baja-ebazpenak, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritakoaren arabera.*
- *EPOa edo beste edozein diru-laguntza etetea erabaki eta, jarraian, oker jasotako prestazioak itzultzeko prozedurak hasi baino lehen, Lanbidek egiaztatu dezala ea behar bezala jakinarazi diren Etxebizitza Babestuaren eta Zuzkidura Bizitokiaren Eskatzaileen Erregistroko baja-ebazpenak.*

2. Ikerketa beka

2.1. Arartekoaren ikerketa beka 2016-2017 aldirako

Joan den abenduan, Arartekoak ikerketa-beka bat eman du, 2016-2017 aldirako, honako izenburuko proiektua egiteko: "EAEn errefuxiatua naiz. Nor naiz eta zer eskubide ditut?". Proiektu hori Casilda Zarauz, Sofía Lucas eta Simona Sobotovicoca ikertzaileek aurkeztu dute.

Arartekoko eta Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkariak osatu dute Hautaketa Batzordea, eta, haien ustez, proiektu horretan zenbait baldintza biltzen dira: adibidez, proiektuaren diseinu egokia eta ikerketa horren erabilgarritasuna, errefuxiatuen arazoak kezka eta ardura sortzen baitizkio Ararteko erakundeari.

Deialdia abuztuan egin zen eta 20 proiektu aurkeztu ziren. Ikerketa-bekaren zenbatekoa 22.000 eurokoa da eta 10 hilabete iraungo du.

Ararteko erakundeak hainbat urtez iragarri izan ditu **ikerketa-bekak giza eskubideen arloan**. Horrela, bere eginkizunekin bat etorriz, diziplina arteko ikerlana bultzatu nahi izan du giza eskubideen arloan, gure autonomia erkidegoaren lurralde esparruan. Beka horien helburua da giza eskubideak Euskadin zenbateraino ezartzen diren ikertzea, egoerarik txarrean dauden gizarte-taldeetako bati dagokionez.

2.2. 2015ean iragarritako Arartekoaren ikerketa-beka

Arartekoaren aurreko deialdian, "Pertsonen salerosketak EAEn duen eragina aztergai" izenburuko proiektuak jaso zuen beka, Izaskun Orbegoza ikertzaileak aurkeztutakoak. Horren prestaketa-lana oso aurreratuta dago, bukatzean, eta datozen hilabeteetan argitaratuko da.

3. Txosten bereziak

3.1. 2016an argitaratutako txostena

3.1.1. *Udal gizarte zerbitzuen egoera Euskal Autonomia Erkidegoan. Egungo egoera eta hobetzeko proposamenak*



Ez da berria Arartekoak lehen arretarako gizarte zerbitzuei eskaintzen dien ardura. Herritarrei egunero erantzuteko beharrezkoa den ezagutza eta jarraipen-lanaz gain, jada 1999an eta 2010ean bi txosten berezi aurkeztu zizkion Eusko Legebiltzarrari. Orduz geroztik, ordea, aldaketa garrantzitsuak gertatu dira, dudarik gabe, gizartean, politikan eta araudian:

- Krisi ekonomikoa sendotu da, pobrezia eta gizarte-bazterketa areagotuz.
- Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari eskualdatu zaio Diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DBE) kudeaketa.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko dekretua onartu da, baita Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa ere. Azken horren barruan agertzen da gizarte zerbitzuen mapa.

Aldaketa horiek denek eragin nabarmena izan dute Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren, oro har, eta oinarritzko gizarte zerbitzuetan, bereziki.

Behin puntu horretara iritsita, Ararteko erakundeak oinarritzko gizarte zerbitzuen egoerari buruzko analisia eguneratzeko aukera aztertu zuen, eta orain udal gizarte zerbitzu guztietara hedatu du azterketa hori, zerbitzu horien premia duten pertsonen beharrei eta eskaerei modu egokian erantzuteko orduan dituzten arazoaren ikuspegitik.

Helburu horrekin eta ikuspegi horretatik begiratuta, txostenak hauxe eskaintzen du:

- Udal gizarte zerbitzuen eskaintzari, zerbitzu horietan diharduten langileei eta zerbitzuak finantzatzeko gas-tuari buruzko **azterketa kuantitatiboa**, azken urteotan zer bilakaera izan duen jakiteko.
- Gai hauen gaineko **azterketa kualitatiboa**: udal gizarte zerbitzuen egungo egoera, beraien aurrerapenak eta mugak, finantzaketa, antolaketa, erakunde arkitektura, e.a.
- **Beste autonomia erkidego batzuetako** udal gizarte zerbitzuen edo lehen mailako arretarako ereduaren **analisi**a.
- **Ondorioak eta gomendioak**, agerian jarri diren arazoak konpontzeko.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eskumenak dituzten administrazioako 3 maileri egin zaizkie gomendioak, ez udal erakundeei bakarrik. Horiek zenbait gairen arabera multzokatuta daude.

Lehenbiziko biak orokorrentzat jo litezke. Lehenengoak gogorarazten du **edukiz jantzi behar direla Gizarte Zerbitzuen Legeko funtsezko osagaiak**, zehazkiago, gizarte zerbitzuak jasotzeko eskubide subjektiboa, erkidegoko eredu eta arreta jasotzen jarraitzeko printzipioa. Bigarren gomendioak, berriz, **denboran barrena ahalegin jarraitua egiteko eskatzen du, gizarte zerbitzuen sistema unibertsal bat guztiz heda dadin 2020tik harago**, data hori hartu baita aintzat administrazioek onartu eta agindu duten Plan Estrategikoko denbora-mugan.

Gomendioen bigarren multzoan, **udal gizarte zerbitzuetako arlo eta sailetan esku-hartzeko lana** aipatzen da. Eskatzen da arduradun politiko eta teknikoek onar dezatela gizarte-lana eta horren eragina garrantzitsuak direla, ez bakarrik norberaren ongizatean, baizik eta baita ere gizarte-kohesioan eta ekonomia- eta kultura-oparotasunean.

Multzo horretan bertan, bereziki nabarmentzen dira edonork bere **bizi-prozesuan arreta jasoko duela bermatzeko hobekuntzak**, etenik edo luzapenik gabe, baita ere pertsonen eta horiek ordezkatzeko dituzten erakundeen partaidetza. Horretarako beharrezko baldintzat jotzen da **diziplina anitzeko lantaldeak taxutzea**, behar bezainbat adituk osatutakoak, eta esku hartzeko eredu komunak garatzea. Garapen hori koordinazio-egitura batean antolatuko da, oinarritzko gizarte zerbitzuei lankidetzat, hausnarketa, informazioa eta laguntza teknikoak emateko.

Gomendio gehien (7) dituen multzoa **udal gizarte zerbitzuek garatu beharreko programa eta zerbitzuekin** lotuta dago. Legearen katalogoan udal eskumeneko zerbitzu gisa bildutako ia zerbitzu guztientzat proposamen bat egiten da etxeko laguntza, gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzera, esku-hartzeko psikosoziala, zaintzaileei laguntzea, eguneko arreta eta egoitzakoa. Horrez gain, auzolana eta prebentzio-lana sustatu behar direla adierazten da, eta sakon hausnartu behar dela zerbitzuak zuzenean egitearen ordezkari ematen diren prestazio ekonomikoaren erabilera.

Udalen **kudeaketa eta finantzaketa hobetzeko** egin diren bi gomendioen bitartez, alde batetik, udalen arteko lankidetzat bultzatu nahi da, udalaren ardurapeko eta udalerrira baino lurralde-eremu handiagoko zerbitzuak garatzeak berez darraren zailtasunari aurre egiteko, eta, bestetik, bermatu nahi da udal aurrekontuetan beharrezko baliabide ekonomikoak jarriko direla herritarrei udal eskumeneko gizarte zerbitzuak eskaintzeko.

Arauk garatzeari eta sistema antolatzeari buruzko gomendioek bereizgarri bat dute: Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan bereziki azaltzen diren gaiak dagozkie. Plan hori txosten hau egiten ari ginela onartu zen, 2016-2020 aldirako.

Multzo horretan gomendatzen da jardun dadila, informazio-sistema garatzeko, ezagutzaren kudeaketa-jarduerak bultzatzeko, prestazio eta zerbitzuen zorroa behar bezala eguneratuta edukitzeko, Gizarte Zerbitzuen Legean xedatutako araudi-garapenaz arduratzen den sailaren baliabideak indartzeko eta euskal udalerriri biltzen eta ordezkatzeko dituzten elkarten ekintza-ahalmena sendotzeko, beraien ordezkari-tza-lana eta trebakuntza teknikoak hobetu ahal izan ditzaten.

Azken multzoan **lankidetzari eta koordinazioari buruzko** 5 gomendio egiten dira. Lehenengoak proposatzen du lankidetzat protokoloak edo hitzarmenak egin daitezela, baita ere lehen mailako arretaren eta bigarren mailakoaren arteko desadostasunak konpontzeko mekanismo eragingarri bat. Beste 3 gomendio, berriz, diru-sarrerak bermatzeko sistemarekin eta osasun nahiz hezkuntza sistemekin koordinazioa hobetzeko egin dira, horiekin osoki garatutako jarduerak partekatzen baitira. Multzo honetako azken gomendioak hirugarren sektorearekin du zerikusia, eta, funtsean, berriki onartu den Hirugarren Sektoreari buruzko Legean onartutako konpromisoak bete daitezkeen eskatzen du.

3.1.2. *Udal gizarte zerbitzuen egoera Euskadiko Autonomia Erkidegoan. Egungo egoera eta hobetzeko proposamenak izenburuko txostena eguneratzea*

Atal honetan, Euskadiko Autonomia Erkidegoko foru aldundiek eta udalek gai horretan eman berri dituzten aurrerapauso garrantzitsuak aipatzen dira. Funtsean, gizarte zerbitzuen mapak eginez eman dituzte aurrerapauso horiek eta Arartekoak uste du garrantzitsua dela informazio hori ematea.

Halaber, Arartekoaren txostenean jasotako datu kuantitatibo batzuk eguneratu dira (2015ean zegoen azkenengo eragiketa estatistikoan oinarrituta egindakoak, 2013ko datuekin). Izan ere, 2014ko gizarte zerbitzuen eta gizarte-ekintzako estatistika berria dago eskuragarri.

Aurretiazko kontu gisa, adierazi beharra dago gizarte zerbitzuen inguruko estatistika ofizialetatik abiatuz **eskuragarri dauden datu kuantitatiboek** oso informazio erabilgarria ematen dutela Euskadiko Autonomia Erkidegoko udal gizarte zerbitzuen tamainen bilakaerari buruz. Hala eta guztiz ere,

bi urteko desfasea egon denez horren eraketan, udalak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio eta zerbitzuen zorroaren Dekretuan (2015eko urrian onartutakoa) eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan (2015eko azaroan onartutakoa) xedatutakora egokitzearen ondorioz 2016an eta 2017an egondako eraldaketen eragina ez da hautemangarria izango, gutxienez, bi urte barru arte.

Hortaz, adierazitako mugapen hori kontuan hartuta, udalek finantzatutako gizarte zerbitzuek 2014ra arte izandako bilakaeraren datuek, edonola ere, egoera hauek nabarmendu dituzte:

- **Lurraldeen arteko desberdintasunak.** 2014ko datuak sartu dira gizarte zerbitzuetan egindako udal gastuaren serie historikoetan; hala, datu horiek ez dute nobedade handirik erakusten hiru lurralde historikoen artean desberdintasunak mantentzeari dagokionez. Udalek biztanle bakoitzeko egiten duten gastua gizarte zerbitzuetan Araban (141,7) da; Bizkaiko udalek (88,2) eta Gipuzkoako udalek (77,3) baino askoz gehiago. Horrez gain, oinarritzko gizarte zerbitzuetako langileei dagokienez dauden desberdintasunak nabarmenak dira.
- **Krisiaren eragina eta susperraldiaren hasiera.** 2008tik 2013ra arte, gizarte zerbitzuen udal gastua % 5 murriztu zen Euskadiko Autonomia Erkidegoan. Murrizketa hori askoz handiagoa izan zen Bizkaian; izan ere, beste bi lurraldeetan baino % 12 gehiago murriztu zen gastua. Araban eta Gipuzkoan, txostenean adierazi zen bezala, esan daiteke gastua gelditu zela. Egoera horren aurrean, 2014ko datuak positiboak direla esan daiteke. Izan ere, lehenengo aldiz 2009tik, lurralde guztietan erregistratu dira udal gastuaren gehikuntza positiboak aurreko urtearekin alderatuz. Halaber, 2014an, lehenengo aldiz krisia hasi zenetik, areagotu zen udalek gizarte zerbitzuetara bideratzen duten proportzioa egindako gastuaren zenbateko osotik. 2014an, proportzio hori % 8,8koa zen; 2013an % 8,3koa eta 2008an, % 8,6koa.
- **Udallerri txiki eta handien arteko desberdintasunak.** Analisi osagarri bat egin da udalek gizarte zerbitzuetan gastatzen dutenaren inguruan, udalerrien tamainaren arabera. Analisi horrek, lurraldeen artean dauden desberdintasunak gorabehera, erakutsi du harreman positiboa dagoela gizarte zerbitzuetako biztanle bakoitzeko batez besteko gastuaren eta udalerrien tamainaren artean. 2013an, –analisi hori egin daitekeen azkenengo urtea– Euskadiko Autonomia Erkidegoko 50.000 biztanle baino gehiagoko udalerrien biztanle bakoitzeko batez besteko gastua (114 €) 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriena baino 2,5 bider handiagoa izan zen (45,9 €); 10.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerrien gastua baino 1,8 bider handiagoa (63,7 €) eta 20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerriena baino 1,5 bider handiagoa (77,6 €). Bilakaeraren ikuspuntutik, esan daiteke urteak pasa ahala desberdintasun horiek areagotu direla: 2003tik 2013ra arte, udalerrri txikiak (10.001 biztanle baino gutxiagokoak) eta ertainak (10.001 eta

50.000 biztanle bitartekoak) gastua 3,6 eta 18,2 euro areagotu dute pertsona bakoitzeko. Hala, gizarte zerbitzuetako udal-gastua 40,2 eurotan handitu da pertsona bakoitzeko 50.000 biztanle baino gehiagoko udalerrien kasuan.

Lurralde historiko bakoitzeko **foru aldundiek eta udalek zenbait aurrerapauso eman dituzte** azkenengo hilabeteetan udal eskumeneko gizarte zerbitzuen zabaltzea planifikatze aldera, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen 2015-2017 Plan Estrategikoan ezarritako irizpideen arabera. Hauek dira aurrerapauso garrantzitsuenak:

2015eko amaieratik, eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Gizarte-zerbitzuen zorroaren eta plan estrategikoaren Dekretua onestearen ondorioz, lurralde bakoitzeko foru aldundiek eta udalek batera lan egin dute gizarte zerbitzuen lurralde-mapen eraketan. Gaur egun arte, eta udal eskumeneko gizarte zerbitzuei dagokienez, lurralde historiko bakoitzean definitu eta adostu dira lehen mailako arretako zentro eta zerbitzuen kasuan bermatu beharreko estaldurak, plan estrategikoaren, arlo geografikoaren eta eskualdearen arabera.

Arabako 2016ko uztailaren 22an Gizarte Zerbitzuen Mapa onetsi zenetik, eta erakunde bakoitzaren eskumenak eta bakoitzak benetan ematen dituen zerbitzuen arteko doitzea argitzearen ondorioz, honako aurrerapauso hauek eman dira:

- 2016ko abenduaren 1ean, foru aldundiak eta Gasteizko Udalak akordio bat sinatu zuten; horren bidez, bi erakunde horiek eskumenen transferentzia-berrantolaketa egin nahi dute gizarte zerbitzuen arloan. Akordio horrek –“**Arabako Foru Aldundiaren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren artean gizarte-zerbitzuen arloko eskumenak berrantolatze esparruko lankidetzaren hitzarmena**” izenekoa– aurreikusten du Gasteizko Udalak etxex-etxeko laguntza eta zaintzaileentzako laguntza zerbitzuen eskumena hartuko duela bere gain. Bestalde, Arabako Foru Aldundiak bere eskumeneko zenbait zentro eta zerbitzu finantzatu ditu, orain arte udalak kudeatu eta finantzatu dituenak.
- Arabako landa-eremuko udalak eta foru aldundia kudeaketa-formula baten garapenean lan egiten ari dira; formula horrekin, foru erakundeak udal eskumenekoak diren zerbitzuak eta prestazioak ematen jarraituko du hiriburutik kanpo.

Bizkaian: udal gizarte zerbitzuak araudi-esparru berrira egokitze prozesua 2016ko hasieran hasiko da eta EUDELek sustatuko du Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean. Prozesu honen mugari nagusiak hauek izan dira:

- 2016ko urtarriletik aurrera, EUDELek Bizkaiko udalerriek eta mankomunitateek eskatuta antolatutako 27 bilera egin ziren guztira, Bizkaiko maparen zonifikazio-proposamenaren eta hori eremu geografiko bakoitzeko kokatzearen inguruko erabakiak hartzea

errazteko. Apirilaren 29an, EUDELeko Bizkaiko Lurralde Batzordeak oniritzia eman zion adostutako zonifikazioari.

- Bi hilabete beranduago, 2016ko ekainaren 21ean, Bizkaiko gizarte zerbitzuen erakunde arteko mahaiak onetsi zuen zonifikazio hori; udaletako eta foru aldundietako ordezkariak osatzen dute mahai hori. Organo horren esparruan, arlo eta eskualdeko lurralde-eremu etako udalerrri bakoitzak udal gizarte zerbitzuei dagokienez 2017rako bete behar dituen helburuak ere adostu ziren, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan ezarritako mugapen geografikoarekin bat etorritik.
- Hauek dira Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Mapan dauden edukia: mapak gizarte zerbitzuen zonifikazio geografikoarekin lurralde-maila desberdinetan; arlo eta eskualdeko eremu demografikoari esleitutako udal gizarte zerbitzuetako helburuak 2017rako eta Ez-ohiko Funtza banatzeko irizpideak, udalei udal gizarte zerbitzuak planifikatzeko egindako zenbait gomendioekin batera. **Euskadiko Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapa zabaltzea Bizkaian.** Dokumentu honek oinarritzko gomendio batzuk jasotzen ditu udal gizarte zerbitzuen planifikazioari dagokionez, indarreko araudira egokitzeko prozesu honetan aurrera egite aldera. Bertan jasotako gomendioen artean, mugapen geografiko bakoitzeko udalerrien artean dauden zerbitzuak aztertze-ko edo 2017ko proiektzioak berrikusteko gomendioa agertzen zen, baita etorkizunean, hala badagokio, prestazioa taldekaturik emateko erabakiak hartzeko gomendioa ere.

Gipuzkoan: Foru Gobernu Kontseiluak onetsi zuen **Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen 2015-2017 Eperako Mapa** 2015eko ekainaren 2an. Dokumentu honetan, Gipuzkoako erreialitatera eramaten dira Euskadiko Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen 2015-2017 Plan Estrategikoan ezarritako planifikazio-irizpideak; bertan, lurralde-maila bakoitzean lortu beharreko estaldurak proposatzen dira, bai foru eskumeneko bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuentzat, bai, partzialki, udal eskumeneko lehen mailako arretako zerbitzuentzat.

Gizarte Zerbitzuen Lurralde-mapa onetsi zenetik, lurraldean udal gizarte zerbitzuen plangintzan eragina izan duten aurrerapauso nagusiak hauek izan dira:

- Batetik, aipatu behar da **Gipuzkoako gizarte zerbitzuen erakunde arteko mahaiaren** (2016ko uztailaren 13an erabakitako) esparruan egindako lana foru aldundiaren eta udalen arteko baterako jarduketan planifikazioa diseinatzeko, gizarte zerbitzuen arloan eta Gizarte Zerbitzuen Maparen lurralde-antolaketa dagokionez. Orain arte, organo hori bitan bildu da. 2017ko urtarrilaren 25ean egindako azkenengo bileran, besteak beste, honakoa aztertu zen: gizarte zerbitzuen finantzazioa 2017-2019 eperako; eskumenen doitzet berritik eratorritako aurreikuspenak eta gizarte zerbitzuen erakunde arteko funtsaren banaketa.

- Erakunde arteko mahaiaren erabakien paraleloan, lurraldeko zenbait udalerrri **udal-mapak** egiten ari dira edota negoziazio-prozesuan, eskualdea edo arloa mugapen geografikotzat duten zentro horiek zabaltzeko, Gizarte Zerbitzuen 2016-2019 Plan Estrategikoak xedatutakoaren arabera.

Aurrerapauso horiek eragina dute Gizarte Zerbitzuen planifikazioan eta diseinu globalean; hala ere, 2016an, ez dute islarik izan herritarrei eskaintzen dizkieten zerbitzuetan. Hortaz, 2017an, horren abiaraztearen segimendua egingo da, udal gizarte zerbitzuen inguruko ez-ohiko txostenak duen informazioa eguneratzen jarraitzeko.

3.2. 2016. urtean egiten ari diren txosten bereziak

2016. urtean aurrera egin da hiru txosten berezi berri prestatzen:

3.2.1. *EAEko ospitaleek ezgaituentzat duten irisgarritasunaren diagnostikoa*

Azterlan hori laster argitaratuko da eta, horren bidez, ezgaituek erabat gizarteratu eta gizartearen parte hartzeko Arartekoari funtsezkoa iruditzen zaion gai bat jorratu nahi da: Euskal Herriko ospitaleen irisgarritasuna.

Irisgarritasunari buruzko araudia zenbateraino betetzen den aztertu nahi da eta Euskal Herriko ospitale sistemaren gabeziak identifikatu nahi dira, ezgaituen joan-etorrien segurtasunari eta eraginkortasunari dagokienez.

Antzemandako akatsetan oinarrituta, lehentasunezko ekin-tza-plan bat ezarri beharko litzateke, eta Euskal Herriko ospitale sistemaren irisgarritasunari buruzko diagnostikoa lortu eta gero, beharrezko gomendioak egin beharko litzazkieke eragindako administrazioei, irisgarritasun arloko araudia bete dezaten eskatzeko eta, hala, ezgaituek diskriminatuak ez izateko eta aukera berberak izateko duten eskubidea benetakoa eta eraginkorra izango dela bermatzeko.

Azkenik, emaitzak jendaurrean hedatuz, erakundeak, enpresak eta gizartearen kontzientziaztea sustatu beharko litzateke, behar adinako bultzada lortzeko beharrezko neurri eta ekimenak abiaraz daitezten, irisgarritasun-arazo handieneko pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko asmoz.

3.2.2. *EAEko bitartekotzarako zerbitzu eta programa publikoak ezarri, finkatu eta ikuskatzea*

Arartekoa pertsonen eskubideak babesteko Eusko Legebiltzarraren goi mandataria da, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen (Eusko Jaurilaritza, foru aldundiak, udalak eta administrazio horietakoren baten mendeko erakunde publikoak) jardura eta politika publikoari dagokienez. Zeregin hori betetzean, hurbiletik aztertu du EAEn bitartekotzak izan duen bilakaera eta sendotzea, eta sistema alter-

natibo hori sustatu du gure lurraldeko herritarren gatazkak konpontzeko.

Ohiko justiziaren formula alternatibo edo osagarri gisa bitartekotzarako programa eta zerbitzuak eta bitartekotza bera finkatu ostean, Arartekoaren ustez, iritsi da bitartekotzaren ezarpena ebaluatzeko unea, hasierako diseinuetatik abiatuz eta operadore juridiko eta erabiltzaileen artean izan duen eraginkortasuna eta onarpena aztertuz. Horretarako, kontuan hartuko dira urteotan gertatu diren legegintza berrikuntzak eta Estatuan eta nazioartean izandako beste esperientzia batzuk, baita estatistika emaitzak ere.

2016ko bigarren seihilekoan hasi zen txosten berezi horren bidez, informazio kontrastatu eta objektiboa eman nahi dugu bitartekotza zerbitzu publikoen jardueraz, baita horiek euskal herritarrei ekartzen dizkieten onurez ere. Era berean, lortutako emaitzak gatazkak modu baketsu eta eragingarrian kudeatzeko baliagarriak ote diren balioztatzen saiatuko gara. Azkenik, baldin eta, azterlan horretan, hobekuntzak egin behar direla ondorioztatzen bada, zenbait gomendio egingo dira.

3.2.3. *Euskal Herria energia-eredu iraunkorrago eta karbono gutxiagoko batera igarotzea*

Txosten hori 2016ko azken hilabeteetan hasi da. Bertan, zenbait oinarri proposatu nahi dira gai hauek hausnartzeko: alde batetik, Euskadiko oraingo energia-eredua, eta, bestetik, zer jarraibide izan daitezkeen gomendagarriak Euskadi energia-eredu iraunkorrago batera igarotzeko.

Energia-estrategia iraunkor baten oinarritzko zutabeak abiapuntu hartuta (energiaren kostua eta prezioa, hornidura ziurtatzea, ingurumenean eta kliman duen eragina, gizarte-eragina eta herritarren onargarritasuna), txostenean azaldu nahi da gai horiek zer egoeratan dauden Euskal Herrian, aurre egin beharreko erronka nagusiak aipatuz. Era berean, zenbait gomendio egin nahi zaizkie gai horretan esku hartzen duten eragile nagusiei.

4. Arartekoaren udako ikastaroa



Iazko uztailaren 7 eta 8an, EHUko XXXV. Uda Ikastaroetan, Manuel Lezertua arartekoak honako ikastaro hau egin zuen: [“Europa, asilo lurraldea? Erronkak eta erantzunak”](#).

Arartekoak, pertsona guztien eskubideen defendatzailea denez, asilo eta babes eskubidea bultzatu nahi du ikastaro honen bitartez. Eskubide hori bermatzen dio Nazioarteko Zuzenbideak jazarpena pairatzen duen edonori, baldin eta, arrazoi horregatik, bere bizia edo osotasuna, edo bere familiarena, arriskuan badaude.

Azken hilabeteotan, bigarren mundu gerratik hona izan den asilo-eskaerarik jendetsuena eta handiena ikusten ari da Europa. Horrek inoiz izan ez diren erronkak sortzen ditu, aparteko egoeretan asilo eskubidea modu eragingarrian beteko dela bermatzeko. Ikastaro honetan aztertu eta eztabaidatu nahi zen zenbaterainokoak diren sortzen ari diren arazoak, eta zer-nolako erantzunak ematen ari diren (edo ematen ari ez diren) Europako, Estatuako eta Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat erakunde.

Asilo eskubidearen norainokoa eta hori osatzen duten arauen interpretazioa ez datoz bat Europako estatuetako legerian eta jurisprudentzian. Gainera, eztabaida pizten ari da errefuxiatuak artatu eta babesteko zereginari buruz, estatuen artean desberdintasunak baitaude nazioarteko konpromisoak beren gain hartzeko orduan.

Jurista adituen mintzaldien bitartez, asilo eskubidearen edukia aztertu zen ikastaro honetan, bai ikuspegi teorikotik, bai eskubide hori arautu eta gauzatzearen ikuspegitik ere.

Orobat, ikastaroan gai hauek aztertu eta alderatu genituen: Europako Parlamentuak –Europako herritarren ordezkari goberna denez– zer ekimen abiarazi dituen, eta talde politikoek zer iritzi duten egungo egoeran asilo eskubidea baliatzeak sortu duen erronkari eman beharreko erantzunaz; gizaldekako erakundeek zer ikuspegi duten, zer neurri hartu dituzten edo zer ekimen bultzatu dituzten jazarpen-pairatzaileak babesteko eta haien sufrimendua arintzeko.

Horrekin batera, zuzen-zuzenean ezagutu nahi genuen errefuxiatuak hartzeko zer egitarau eta neurri zehatz onartu dituzten euskal administrazioek eta Euskadin kreditatuta dauden gizarte erakundeetako batek, haien arduradunen testigantza bidez.

5. Arartekoaren jardunaldiak

5.1. “Europako Zuzenbide Penalaz azaleratzen ari da” Arartekoak EHUrekin lankidetzan antolatutako hitzaldia



Arartekoak gonbidatuta, martxoaren 4an hitzaldi bat eman zuen Bilbon **Peter Jozsef Csonkak** -Europako Batzordeko Justiziako Zuzendaritza Nagusiko kontseilaria eta Europako Estatutu Fiskaleko erredaktore taldeko koordinatzailea da bera-. Topaketa hori Arartekoak antolatu zuen, EHUrekin elkarlanean, izenburu honekin: “[Europako Zuzenbide Penalaz azaleratzen ari da](#)”.

Peter Csonka aditua da alde anitzeko hitzarmenak egiten, baita Europako Zuzenbidean eta Zuzenbide Konparatuan ere, eta eskarmentu handia du, nazioarte mailan, giza eskubideekin lotutako gaietan.

Ekitaldi horretan, unibertsitateko, Fiskaltza eta justizia administrazioeko, Eusko Jaurlaritzako eta beste erakunde batzuetako ordezkariak izan ziren.

5.2. “Fiskaltzaren eginkizuna ingurumena kontrolatu eta babestean”



Arartekoak, Euskal Herriko Fiskaltzarekin lankidetzan, jardunaldi bat antolatu zuen Bilbon 2016ko apirilaren 8an, jakin nahi baitzen Fiskaltzak zer ekimen zuzendu dituen ingurumenaren kontrako delituak ikertu eta esestearen arloan.

Topaketa horren bidez, Arartekoak jendea sentikorrago bihurtzen lagundu nahi du gizartean gero eta garrantzi handiagoa duen errealitate baten gainean: ingurumena babestea.

Manuel Lezertua arartekoak eta Juan Calparsoro Euskal Herriko Auzitegiko fiskal nagusiak hasi zuten jardunaldia. Gero, ingurumen-eskubideak aitortzearen arloan, Arartekoak eta beste gizarte-erakunde batzuek zer lan egiten duten ezagutu ahal izan zen, eta gai horretako aditu batzuek ekarpenak egin zituzten.

Aditu horien artean izan zen Antonio Vercher, Auzitegi Goreneko fiskala eta Ingurumen eta Hirigintza arloko koordinatzailea baita. Ponentzia bat eman zuen Fiskaltzak ingurumena kontrolatu eta babestean duen eginkizunaz.

Ondoren, mahai-inguru bat egin zen, Arantza Lezamiz kazetari eta ingurumen arloko heziketako masterdunak moderatuta. Bertan, gure autonomia erkidegoko errealitateak abiatuta, beren ekarpenak egin zituzten Xabier Caño abokatuak (ingurumen arloan aditua), Carlos Barcinak (Ararteko erakundearen ingurumen arloko koordinatzailea); eta Ekologistak Martxan eta Eguzki bezalako elkarte ekologistek zuzentzen zituzten ordezkariak.

5.3. “Emakumeak eta adingabeak sexurako salerostea”



Arartekoak eta Emakunde antolatuta, azaroaren 10ean, [emakume eta adingabeak salerosteari buruzko jardunaldi bat](#) egin zen, Gasteizko Europa jauregian.

Jardunaldia Emakunde urtean behin antolatzen duen Berdintasunerako gunearen ekintzetako bat izan zen, eta indarkeria mota hori desagerrarazteko lan egiten duten profesionalek hartu zuten parte.

Jardunaldiaren helburuak honako hauek ziren:

- Fenomeno unibertsala den eta emakumezkoen eta neskatuen eskubideak sistematikoki urratzen dituen salerosketaren kausak zein diren aztertzea.
- Pertsonen salerosketari Espainiako estatuan eta nazioartean zein lege aplikatzen zaizkion ezagutzea.
- Salerosketak biktimen bizitzan duen eragina ulertzea.
- Salerosketaren biktima izan diren emakumeak eta neska-toak artatzean egun zein erronka ditugun identifikatzea.

Ekitaldia Izaskun Landaida Emakundeko zuzendariak eta Manuel Lezertua arartekoak hasi zuten.

Bertan, arartekoak esan zuenez, *“fenomeno honek ikaragarriko hedadura du, nekez neur badaiteke ere, eta gure gizarteko pertsonarik ahulenei eragiten die gogorkien, bereziki emakumei eta neska-mutikoei”*.

Lezertuak hauxe gaineratu zuen: *“ildo horretan, emakumeen kontrako indarkeriaren adierazpen garrantza da, eta, dudarik gabe, munduan emakumeen eta gizonen artean oraindik da goen desberdintasun orokor eta egiturazkoaren beste adierazpen bat”*. Gainera, adierazi zuen jardunaldia abiapuntu izatea espero zuela, gizarte eta erakundeak sentikorrago bihurtzeko, lanbide- eta lurralde-ikuspegi desberdinetatik, baita esku hartzeko diziplina edo eremu desberdinetatik ere iritziak trukatzeko, eta geroan elkarrekin lan egiteko oinarriak ezartzeko.

Gianluca Espositok –Europako Kontseiluaren zerbitzuberuak– esparru-ponentzia bat aurkeztu zuen, non gizakien salerosketaren kontrako borroka Europako Kontseiluak 2005ean sinaturiko Hitzarmenaren berri eman zen. Bestalde, Inmaculada Montalbán Andaluziako Auzitegi Nagusiko magistratuak eta Luis Lafont fiskalak –salako fiskalari, atzerritarren arloko koordinatzaileari atxikia– hizpide izan zuten gai horrek Espainian eta nazioartean bizi duen egoera.

Jardunaldi horretan, gaia generoaren eta giza eskubideen ikuspuntutik ere aztertu zen, lehen mahai-inguruan; baita poliziaren ikuspegitik ere, poliziako hainbat adituk osatutako beste mahai-inguru batean.

Ondoren beste bi mahai-inguru egin ziren: bata, delitua pertsegitzeko gaur egun dauden erronkez, eta, bestea, gizakien salerosketaren biktimekin gizartean esku hartzeaz.

5.4. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 68. urtemuga ospatu du Arartekoak



Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatzen zela eta, abenduaren 9an, Arartekoak, Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkunak eta Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak hitzaldi bat antolatu zuten Bilbon. Hitzaldi hori Guido Raimondi Giza Eskubideen Europako Auzitegiko presidentek eman du, izenburu honekin: [“Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia, eskubide sozialen arloan”](#).


Bere mintzaldian, Raimondik hauxe esan zuen: eskubide zibil eta politikoak lehen belaunaldiko eskubidetzat jotzen dira eta babes juridikozional zabala dute; aldiz, eskubide ekonomiko eta sozialek, hau da, historikoki eskubideen bigarren belaunaldia osatu dutenek, ez dute horrelako babes sendorik. Nabarmendu zuenez, *“Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak ere ez die arreta handiegirik eskaintzen”*.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiko presidentek zenbait eskubide ekonomiko eta sozial aipatu ditu, hala nola askatasun sindikala, jabetzarako eskubidea, hezkuntzarako eskubidea edo bizitza pribatua errespetatua izateko eskubidea.

Arartekoak efemeride hori nabarmendu nahi izan du Giza Eskubideen Egundun Unibertsean, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsearen 68. urtemugan. Agiri hori mugarrria da nazioarteko Zuzenbidearen historian. Lege- eta kultura-tradizio ezberdinak dituzten munduko eskualde guztietako ordezkariak prestatu zuten Aldarrikapena, eta planetako herri eta nazio guztientzako eredu komun izendatu zuten. Aldarrikapenean lehen aldiz aipatu ziren banan-banan, nazioartean, gizaki guztiari datzekien oinarriko eskubide eta askatasunak.

6. Arartekoaren argitalpenak

6.1. 2015eko ekainean egin ziren XXXIV. Uda Ikastaroetako ponentziak



EHUren Uda Ikastaroen XXXIV. edizioan, Arartekoak honako jardunaldi hau egin zuen 2015eko ekainaren 19an Donostiako Miramar jauregian: “[Euskal gazteen zailtasunak beren hiritar eskubideak egiaz baliatzeko, batez ere bizimodu autonomoa egiteko proiektua eraikitzearekin lotutakoak](#)”.

Jardunaldi horretan, Espainiako Konstituzioak ezarritako oinarriko eskubideak abiapuntutzat hartuta (besteak beste, gizarte- eta ekonomia- politika zuzentzeko printzipioak, gizartearen parte hartzeko eskubidea, lanerako eta soldata nahikoa jasotzeko eskubidea), egungo egoeraren erradiografia egin nahi zen, baita ere Konstituzioko xedapenaren eta Euskadiko gazteen benetako egoeraren artean dagoen desorekarena.

Horretarako, gaiok aztertu ziren: lanak gizarteratzeko eta norberaren autonomia lortzeko duen betekizuna, euskal administrazioaren ekimenak eta, guretzat garrantzitsua, gure gazteek (zuzenean mintzatuz edo parte hartzen duten elkarrekin ordezkarien testigantzen bitartez) egingo dituzten biltzarren deskribapenak

Argitalpen hori 2016ko maiatzean atera zen, eta bertan bildu ziren ikastaroan azaldutako ponentziak.

6.2. 2016ko uztailean egin ziren XXXV. Uda Ikastaroetako ponentziak



Kapitulu honen 4. atalean azaldu denez, 2016ko uztailean, honako ikastaroa egin zen Donostiako Miramar jauregian, Arartekoak antolatuta: [Europa, asilo lurraldea? Erronkak eta erantzunak](#).

Ikastaro horretan, arretaz aztertu eta eztabaidatu nahi zen sortzen ari diren arazoaren norainokoa, baita ere Europako, Espainiako edo Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat erakunderen erantzuna egoera horren aurrean. Zehazki, asilo eta babeserako eskubidea European modu egokian betetzen ari den aztertu zen.

Argitalpen hori joan den abenduan atera zen, eta bertan bildu ziren ikastaroan azaldutako ponentziak.

7. Aldizkari digitala

Arartekoak etengabe egiten du apustu berritatzearen alde, baita herritarrei gure lanaren berri emateko bideak hobetzearen alde ere, eta, horri esker, 2016an “[e-albisteak](#)” aldizkari digitala sendotu da. Oso tresna erabilgarria da herritarrei erakunde honek gauzatzen dituen jardura guztien berri emateko. Bi hizkuntzatan argitaratzen da eta erraz irakurtzen da. Aldizkari honen formatua malgu da, eta, bertan, Arartekoaren jarduerarik garrantzitsuenetako batzuk jasotzen dira: gomendioak, artikulak, argitalpenak, ebazpenak...

Informazio eguneratua eskaintzeaz gain, aldizkari digitalak, era berean, zuzeneko esteken bitartez [web](#) orriko beste eremu batzuetara sartzeko aukera ematen du; adibidez, Haur eta Nerabeentzako Bulegora, arreta publikoko kolektibotara, ebazpenetara, gomendioetara, ohiko txostenetara eta ezohiko txostenetara.

Gobernuz kanpoko erakundeak eta gizarte zibil antolatua buletin honen xede garrantzitsua dira, baita herri-administrazioak, komunikabideak eta Arartekoak egiten duen lanaren informazio eguneratua izan nahi duten herritar guztiak ere. 2016an 25.000 bidalketa inguru egin ditugu.



A large, bold, white letter 'V' is positioned in the upper right quadrant of the page. The background consists of several overlapping, semi-transparent circles in various shades of green, creating a layered, organic effect.

ATAIA

Gizartearekiko

harremanak eta
erakundeen arteko
lankidetzarako jarduerak

V. Atala

GIZARTEAREKIKO HARREMANAK ETA ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZARAKO JARDUERAK

1. Gizarte erakundeekiko harremanak

Gobernuz kanpoko erakundeak eta antolatutako gizarte zibila, Arartekoaren ustez, euskal gizartearen arazoaren begiak eta belarriak dira. Haien informazioari esker, jardunak hasten ditu ofizioz eta politika publikoen ebaluazio egokiagoa egiten du Arartekoak. Horregatik, erakunde honek beti nabarmendu izan du erakunde horiek eta boluntarioek modu konprometitu eta eskuzabaltasunez egiten duten lan baliotsua.

Gizarte esku hartzeko hirugarren sektorea, une honetan, Euskadin pertsonen eskubideen gizarte sistemaren bideragarritasunaren zutabeetako bat da. Orain bizi dugun krisialdi ekonomiko eta sozialean inoiz baino argiago ikusten dugu haien lana zein garrantzitsua den. Era berean, inoiz baino babes publiko handiagoa behar dute haiek beren baliabide ekonomikoei eusteko, horiei esker esku hartzen baitute gizartean. Bidezkoa da hori aitortzea eta gizartearen eta erakundearen aurrean hala aldarrikatzea. Gizarteak eta erakundeek laguntza eman behar diete egunetik egunera eta trukean ezer eskatu gabe beren lanarekin gizartearen eta baztertuen edo baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen arazorik larrienak beren gordintasun osoan ager daitezzen galarazten dutenei. Bazterketa gero eta zifra kezkarriagoak lortzen ari da, eta gizarte-baliabiderik sekula jaso ez zuten pertsona askori eragiten ari zaie pixkanaka; horrela, eraldatzen ari da krisialdia piztu arte zegoen profila, hau da, pobrezia handian zeuden pertsonena.

Arartekoa pertsonen eta pertsonentzat asmatutako erakunde da, euskal administrazioak kontrolatzeko funtzioa herritarren arazoaren arabera betetzen baitu. Horrek Arartekoak hiru planotan jardutea dakar:

- Salatutako administrazioak indarrean dagoen legeriaren arabera jardun duen egiaztatzea.
- Administrazioetan jardunbide egokia bultzatzea, herritarren eskubideei arreta hobea emateko eta tratua hobea eta eraginkorragoa emateko.

- Kasuan bitartekari lana egitea. Izan ere, askotan, administrazioak zuzen jokatu duen arren, gure esku hartzearekin, hurbileko tratua emanez, errealitatearen edo jardun den kasu zehatzaren ikuspegi ezberdina eskainiz edo araua modu malguagoan interpretatuz, pertsonen arazo zehatzak konpondu ahal izaten dira, edota berdintasun ezeko, babesik gabeko eta bidegabeko egoerak eragozten dira.

Eginkizun horiek bete eta lortu nahi diren helburuak lortu ahal izateko, gizarte-elkarteak ezinbesteko lankideak dira. Horregatik sustatzen dugu horiekin harreman jarraitua izatea.

2016. urtean erakundearekin bilerak egin dituzten elkarteak eta taldeak

2016. urtean, Arartekoak gizarte eragileekiko harremana zaintzen jarraitu du bere ohiko jardunean. Batez ere, egoera txarrean dauden pertsonen laguntzeko edo askotariko gizarte arazoak konpontzeko lanean aritzen diren elkarte, erakunde eta taldeekin: giza eskubideen aldeko taldeak, atzeritarrei, presoei edo baztertuta daudenei laguntzekoak, etxerik gabekoei laguntzekoak eta abar.

Urte hauetako esperientziak erakutsi digu, izan ere, erakunde eta talde ugari giltzarriak izan daitezkeela gure gizarteko sektore baztertuen edo oso ahulen eta Arartekoaren eta halako erakundeen arteko bitartekari lanetan; hala, beren eskubideen eta gatazkak konpontzeko bideen jakitunago egin ditzakete, beren aldarrikapenak adierazteko laguntza eman, administrazioei herritarrentzako zerbitzu arretatsua eman dezaten eskatu, eta, modu horretan, erakundeetan konfiantza handiagoa izateko eta gizarte kohesio handiagoa lortzeko modua egin.

Hala, 2016. urtean, Arartekoak lankidetzaren harremanak izan ditu, estuagoak edo ez hain estuak, honako elkarte, erakunde eta gizarte talde hauekin:

- ACABE Araba
- ACABE Bizkaia
- ACABE Gipuzkoa

- ADSIS fundazioa. Bestalde proiektua
- Afro elkarte
- Ai Laket
- Aldarte
- APDEMA
- APRREUS-Ekoiure
- Arabako abokatuen elkarte
- Arabako Gurutze Gorria
- Ardura
- Argilan-ESK
- Arrastalo
- Auzo elkarte
- Avifes
- Bakeola
- Betiko Gasteiz
- Bidesari
- Bilgune Feminista
- Biltzen
- Bizitegi
- Bizkaiko abokatuen bazkuna
- Bizkaiko Gurutze Gorria
- Bizkaiko Gurutze Gorria. Esku-hartze soziala
- Cáritas Bizkaia
- Cáritas Euskadi
- Cáritas Gipuzkoa
- CEAR Euskadi
- Demokrasiaren aldeko epaileak
- DSBE plataforma
- EAPN (Pobrezia eta Giza Bazterketaren aurkako Europar Sarea Euskadin)
- ELA
- Elkartzen Bap
- Etorkintza
- Euskadiko emakume ijitoen elkarte
- Euskadiko Gurutze Gorria
- Euskadiko otso taldea
- Euskal kazetarien elkarte
- Fernando Buesa fundazioa
- Gao Lacho Drom
- Gernika Gogoratu
- Gernikako Bakearen Museoa
- GIETIJE Ijito elkarte-Gipuzkoaren etorkizunerako ijito elkarte
- Gipuzkoako abokatuen elkargoa
- Gipuzkoako Gurutze Gorria
- Gizakia Helburu
- Gizarte hezitzaileen Euskadiko elkargoa
- Gizarterako
- Goztiri
- Gurutze Gorria
- Harrera
- Hirukide
- Hizkuntz Eskubideen Behatokia
- Hondarribiko emakumeak
- Ijito elkarten batzordea
- Ijitoen Idazkaritza fundazioa
- Ijitoen Kontseilua
- Industria ondarea babesteko elkarte
- Iresgi
- IRSE-EBI
- Jaizkibel konpainia

- Jolas eta Ekin
- Kalé Dor Kayikó
- Kaleratzeak stop desahucios
- Kriminologiaren Euskal Institutua
- Lanbidek kaltetutakoen plataforma
- Leizaola fundazioa
- Loiola etxea
- Lur Gizen
- Munduko medikuak
- Noismart
- Sartu Araba
- SIDALAVA (HIESaren aurkako Arabako Herritar Batzordea)
- Solokoetxe ikastola
- SOS arrazakeria
- T4 elkarte
- TAT (Torturaren aurkako taldea)
- Unesco Etxea
- UNICEF
- Zazpigarren Alaba AE
- Zubia
- Zubietxe
- Zubiko elkarte
- Zurrumurrurik Ez sarea

Txosten honetako III. ataleko arreta publikoko kolektiboan arloetako ataletan, erakunde horiekiko lankidetzari buruzko erreferentzia zabalagoak daude.

2. Giza eskubideak defendatzen dituzten erakundeen inguruko jarduerak

2.1. Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako XXXI. Jardunaldiak



Erkidegoetako Herriaren Defendatzaileek eta Espainiako Herriaren Defendatzaileak *Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako XXXI. Jardunaldiak* egin dituzte Iruñean. Bertan,

ikuspuntu ezberdinetatik aztertu zuten hots-kutsadurak bizi kalitatean duen eragina.

Gizakien jardunetik sortutako zarata ohikoa da aisialdiko inguruetan eta egunerokotasunean egiten ditugun jardueretan. Zarata horrek, gehiegizkoa denean, bizi kalitateari modu negatiboan eragiten dio eta ingurumena kaltetzen du.

Jendartean sortzen duen egonezina gizarte-gatazken iturri izan da eta horren ondorioz, erreklamazio eta kexa ugari ekarri ditu Herriaren Defendatzaileetara. Aurkeztutako kexen inguruko gomendioekin batera, gai horri dagokionez txosten berezi ugari egin izan dira. Herrien defendatzaileen jarduera horiek zarataren aurkako gizarte-kultura bat sortzen lagundu dute, poliki-poliki, botere publikoen artean hedatzen doana, pertsona guztiak hots-kutsadurarik gabeko etxebizitza batean bizitzeko duten eskubidea aitortzeko bidean.

Herrien defendatzaileek jakin badakite hots-kutsadurak herritarren bizi-kalitateari eragiten diola eta horregatik, eragin horrek urra ditzakeen eskubide konstituzionalak benetan eta modu eraginkorrean bermatzeko beharrezko neurriak hartzea sustatu nahi izan dute.

Neurri horiek botere publikoei igorri zaien **dekalogo** batean bildu dituzte. Bertan, herriaren defendatzaileek konpromisoa hartu dute haien esku dauden jarduerak egiteko herritarrek zaratarik gabeko etxebizitza batean bizitzeko duen eskubidea eraginkortasunez bete dadin.

HERRIAREN DEFENDATZAILEEN DEKALOGOA ZARATAREN KONTRA

Herritarrek zaratarik gabeko bizilekua izateko duten eskubidearen alde.

Herriaren defendatzaileek, hots-kutsadurak herritarren bizi-kalitatean eragin kaltegarria duela ohartuta, zenbait neurri proposatu nahi dituzte benetan eta eraginkortasunez bermatzeko eragin horrek urra ditzakeen eskubide konstituzionalak.

Eskubide horien artean, eta Europako Giza-eskubideen Auzitegiaren, Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia finkatu baten arabera, honako oinarritzko eskubide hauek nabarmentzekoak dira: osotasun fisiko eta psikikorako eskubidea, intimitate pertsonal eta familiarerako eta etxearen bortxaezintasunerako eskubidea, baita ingurumen egokia izateko eta osasuna babesteko guztiok dugun eskubidea ere.

Eskubide horiek pertsonak lasaitzeko eta isiltasuna izateko duten eskubidearen barruan sartzen dira.

Hala ere, gogorarazi behar da eskubide horien gozamena errespetatzea ez dela soilik botere publikoen betebeharra, baizik eta gizarte zibilarena ere. Hortaz, hauxe uste dute:

1. Botere publikoek (eta, zehazki, administrazio eskudunek) aldagetak sustatu behar dituzte kutsadura

akustikoa eragiten duten jardunbide sozialetan eta gizartearen kontzientziarazioa bultzatu kutsadura horrek herritarrentzat dituen ondorio kaltegarri buruz, eskola-hezkuntzaren eta herritarrek sentsibilizatza bideratutako prestakuntza- eta informazio-kanpainen bidez.

Zarata arazo garrantzitsu bat bezala landu behar da, pertsonen bizi-kalitatean eragin handia duena.

2. Ingurumen egoki baterako eskubidea bermatzeko, landa- eta hiri-eremuetan, eta bereziki, etxebizitzetan, botere publikoek kutsadura akustikoaren ingurumen-kontrola egiteko funtzio publiko bat dutela jakin behar dute eta hori onartu, kutsadura hori eragiten duen igorpen-gunea zein den gorabehera, arauak ezarritako mugak gainditzen direnean.

Funtzio publiko hori gauzatzearen nahitaezko helburua, herritarren zerbitzura dagoen administrazio on baten adierazpen gisa, zaratarik gabeko etxebizitza bat izateko eskubidea bermatzea da, bertan bizi diren pertsonak lasaitzeko duten eskubideaz goza dezaten.

3. Helburu horrekin, administrazio publikoek, lurralde-antolatamenduaren, hirigintza-plangintzaren eta ingurumen-kontrolaren eta diziplinaren eremuan esleituta dituzten ahalmenak gauzatu behar dituzte eraginkortasunez, oinarritzko eskubideak gauzatzea eragozten edo mugatzen duen kutsadura akustikoa prebenitzeko, saihesteko edo, hala badagokio, baztertzeko.
4. Kutsadura akustikoaren kontrolarekin lotutako funtzio publikoa gauzatzearekin batera, ikuskapen-planak egin behar dira, kutsadura akustikoa sortzen duten establezimendu eta instalazioek dagozkien funtzionamendurako administrazio baimenak dituztela ofizios egiaztatza bideratutakoak. Hala, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen direla egiaztatuko da.
5. Autonomi erkidegoetako, probintzietako eta tokiko administrazioek koordinazio eta lankidetzara esparru bat sustatu behar dute; horrek udalerririk guztiak esleituta dituzten administrazio-ahalmenak modu eraginkorrean gauzatzea bermatuko du, berdintasuna bermatuz oinarritzko eskubideen zaintza eta gozamenaren, herritarren bizilekua gorabehera.
6. Era berean, eta udalerririk eremu honetan esleituta dituzten eskumenak gauzatu ahal izateko helburuarekin, berezko baliabideen bidez edo beste administrazio publiko batzuekin lankidetzara arituz, beharrezko baliabide teknikoak eta giza-baliabideak izan beharko dituzte lurralde osoan, hiri- eta landa-eremuetan, zarata kontrolatzeko eta ikuskatzeko zerbitzu publiko bat sortzeko.

Halaber, ingurumen poliziaren papera aitortu eta sustatu beharko zen (maila guztietan: tokikoa, probintziakoa edo autonomi erkidegokoa), arazo hori azkar antzemateko funtsezko erakunde gisa, bertan ikuskatzeko aukerei dagokienez, zaraten igorpen-gunean, etxeetan zarata-mailen neurketa zuzena egiten

dela bermatzeko, eta, hala badagokio, kautelazko esku-hartzea.

7. Administrazio publikoek ez dituzte soilik ukitutako pertsonak etxeetan zarata gehiegi dagoelako jartzen dituzten salaketak sustatu eta horiei erantzun behar. Izan ere, hartzen diren neurrien jarraipena ere egin behar da, baliabideak hornituz, herritarrek, gardentasunez, neurri horiek hartu direla jakin dezaten, edo, hala badagokio, agintariek eta funtzionarioek erreklamazio horien aurrean ezer egin ez dutela salatzen.

Era berean, justizia auzitegien epaiak atzerapenik gabe bete behar dituzte (batez ere, Giza-eskubideen Europako Auzitegiarenak); horiek babesa ematen diete herritarrei frogatutako eskubideen urraketa eman denean.

8. Gomendagarria izango zen administrazio publikoek herritarrek parte hartzeko mahaiak edo foruak sustatzea, gaueko aisialdiko lokal gehiegi egotearen edo etengabeko bizikidetzaren eragozpen larriak sortzen dituzten jardueren funtzionamenduaren ondorioz sortutako gatazka sozialak kudeatzeko.

9. Zuzenbide Estatu batean desiragarria da herritarrek jasan behar ez dituzten immisio akustikorik gabeko etxe bat izateko duten eskubidea funtzio publiko hori gauzatzeko ahalmena esleituta duten organoek zaintzea; Defentsa Bulegoek modu positiboan baloratzen dituzte epaileen, justizia auzitegien eta fiskalen jarduketak kutsadura akustikoak urratutako eskubideak bermatzerakoan, administrazio egoitzan arduradunak diren funtzionario eta agintariek behar bezala babesten ez dituztenean.

10. Herriaren Defentsa Bulegoek azpimarratu dute herritarren oinarrizko eskubideak babesteko konpromisoa dutela, kutsadura akustikoaren ondorioz horiek urratzen direnean.

Helburu horrekin, hitza ematen dute legez onartuta dauden jarduketa guztiak burutuko dituztela modu eraginkorrean babesteko herritarrek zaratarik gabeko etxe batean bizitzeko duten eskubidea; hala, fiskaltzari jakinaraziko dizkiote herritarren eskubideak urratzen diren eta zigor daitezkeen kasuak.

Era berean, Herriaren Defentsa Bulegoek hitza ematen dute udaletan jardunbide egokien inguruko informazioa emango dutela eta koordinazio eta zabalkunde jarduketak sustatuko dituztela, izaera desberdineko neurriak hartzea sustatzeko, ingurumen-gatazkak prebenitzeko edo kudeatzeko. Horrez gain, hitza ematen dute kaltetutako herritarrak lagunduko dituztela beharrezkoa den orientazio juridikoan; horrela, horiek zenbait ekintza egin ahalko dituzte beren eskubideak defendatzeko aginte eskudunetan.

2.2. Nazioarteko harremanak

2.2.1. Greziako Herriaren Defendatzaileak antolatutako jardunaldia

Arartekoak krisi ekonomikoari eta humanitarioari eta gure hirietako auzo pobreenetan duen eraginari buruzko jardunaldi batean parte hartu zuen Atenasen, [Greziako Herriaren Defendatzaileak](#) antolatuta. Euskal Autonomia Erkidegoko Ombudsmanen betebeharra, kasu hauetan, administrazioaren esku-hartzea bultzatzea izan da, auzo horietan herritarren segurtasun egokia bermatzeko, gizarte gatazkak piztea eragotziko duten gizarte politika inklusiboak bultzatuz.

Atenasen, Arartekoak nabarmendu zuen hiri lehengoratzera bideratutako tokiko politikek ikuspegi integratzailea izatea beharrezkoa dela, sozialki inklusiboa izango den garapen adimentsu eta iraunkorrean oinarrituta. Horren haritik, berrantolaketa mekanismoetan funtsezko zerbitzuak ematea gogoan izan behar da, ingurua are gehiago kaltetzea saihesteko, hiri lehengoratzera bukatu arte. Izan ere, gizarte bereizketako arriskuan dauden pertsonak eta komunitateak horrelako hiri eremu baztertuetan biltzea soilik esku-hartze publiko eta azkar bati esker saihets daiteke. Populazio egoiliarren kultura aniztasunak dakarren erronkak kultura ongi kudeatu beharra dakar.

Edozein motatako bereizkeriaren aurka erakundeen jarrera argi eta tinkoa ezinbestekoa da berdintasun kultura sustatzeko. Horregatik, Arartekoak erakundeen arteko lankidetzaren eta herritarren parte hartzea sustatuko duten gobernantza mekanismo egokiak finkatzeko beharra jaso du.

2.2.2. Hizkuntza-Ordezkarien Nazioarteko Elkartearen Biltzarra



Arartekoak Hizkuntza-ordezkarien Nazioarteko Elkartearen (IALC) Nazioarteko Biltzarrean parte hartu zuen 2016ko martxoaren 7tik 9ra bitartean, Galwayn (Irlanda). Irlandaren independentziaren ehungarren urtemuga ospatzeko aurten antolatuko diren ekitaldietako bat da hori.

Elkarte horretan biltzen dira hizkuntza-eskubideak babesten dituzten erakundeak, eta Arartekoa ere bertako kide egin da. IALCen helburua da mundu zabalean berdintasuna, aniztasuna eta hizkuntza-eskubideak sustatu eta bultzatzea, eta hizkuntza-ordezkariei laguntzea, maila profesional gorenak lortu ahal ditzaten, bide hauek erabiliz:

- Hizkuntza-ordezkariek sortzean, aholkuak ematea.
- Prestakuntzako eta lanbide-garapen, ikerketa eta informaziorako baliabideak truka daitezzen erraztea.
- Hizkuntza-ordezkariek garrantziari buruzko ezagupenak eta kontzientziazioa areagotzea.
- Azterlan enpirikoak partekatzea, hizkuntza-eskubideak sustatzeko asmoz.

Hasierako hitzaldian, Irlandako Errepublikako presidentek adierazi zuen hizkuntza zein garrantzitsua den identitate nazionala taxutzeko orduan.

Manuel Lezertua arartekoak gai honen gaineko ponentzia bat emanez esku hartu zuen: nortasun kolektiboaren kontzeptua, postmodernitateak sortzen dituen erronken ikuspegitik. Euskal Herrian hizkuntzak zer bilakaera izan duen azaldu zuen: arrazaren osagaitzat hartetik hasi eta hizkuntza errebinkatzen iritsi arte, askatasunen aldeko borrokaren, erakundeak sendotzearen eta globalizazioak sortutako erronken esparruan.

2.2.3. Herriaren Defendatzaileen Europako Sarearen biltzarra -ENO 2016-, Europar Batasuneko Herriaren Defendatzaileak antolatuta

Arartekoak, Manuel Lezertuak, Emily O'Reilly Europar Herriaren Defendatzaileak gonbidatuta (European Ombudsman) Herriaren Defendatzaileen Europako Sarearen biltzarrean parte hartzeko aukera izan zuen, 2016ko ekainaren 13an eta 14an, Bruselan Arartekoak parte hartze aktiboa izan zuen biltzarrean, eta Europar eskubideak babesten dituzten erakundeentzako ezinbesteko bi gai landu ziren, Europar errefuxiatuen krisia eta gardentasuna zuzenbide estatuaren eta gobernantza onaren baldintza gisa.

Lortutako ondorioen artean honako hauek nabarmendu daitezke:

Errefuxiatuen krisiari dagokionez:

- Europar pertsona migratzaileek harrera estatuetakoa herritar nazionalen baldintza berberetan izan behar dute zerbitzu publikoetara sarbidea.
- Ombudsman eta Europako Herriaren Defendatzaileak eragina izan behar dute une honetan errefuxiatuak Europara iristeari buruz zabaltzen ari den iritzi joera garrantzitsuen narrazioan, errealitate horri buruzko kontakizun positiboa hedatzeko.
- Europara iristen diren pertsona migratzaileek Europa hobe egiteko ekarpena egin dezakete; izan ere, Europak

inkorporazio berri eta dinamikoak behar ditu lan merkatu europarrean, zahartze azkarra eta jaiotza tasa baxuak arintzeko eta, hala, gizarte sistemen bideragarritasuna eta ekoizpena zaintzeko.

- Europar pertsona migratzaileen aldeko gizarte kontzientzia aktibatu behar da, eta EBra iritsiko direnei premia harrera, hizkuntza ikastea, eta hezkuntzara, etxebizitzara eta osasun zerbitzuetara sarbidea izatea bermatu behar zaie.
- Une honetan Europara masiboki iristen ari diren haurren egoerari lehentasunez erreparatzearen garrantzia nabarmendu da.
- Lankidetzaren eta elkartasun baloreen inguruan batutako Europak arrakasta handiagoz kudeatu ahalko luke une honetako errefuxiatuen krisia, zalantza izpirik gabe azken urteetan Europak bizi izan duen erronka handiena baita. Nazioarteko eta Europa mailako araudia errespetatuz eta demokrazia indartuz baino ezingo zaio erronka honi aurre egin. Oinarrizko eskubideak ez dira negoziagarriak, eta eskubideok defendatu behar duten erakundeek etengabe gogoratu behar dute.
- Horrez gain, ombudsmanak zerbitzu publikoak oro har hobetzeko eskaeran bereziki inplikatu beharko lirateke, zerbitzu horiek hondatzeak pertsona migratzaileen inguruan bidegabeki sortutako irudi negatiboari ere erasaten baitio.

Gardentasunari dagokionez, bereziki presio taldeei dagokionez, honako ondorio hauek nabarmendu behar ditugu:

- Pertsonen eskubideak defendatzen dituzten erakundeek administrazio ona eta herritarren eskubideen defentsa kontrolatzeko lanak egin behar dituzte, administrazio publikoen jardun oro interes publikoa lortzera bideratuta egotea bermatuz, interes orokorraren berme gisa.
- Austriako eta Irlandako araudi ereduak erreferenteak izan daitezke gaia oraindik arautu ez duten eskualde eta estatuetakoko. Irlandako sistema, zehazki, bereziki aipagarria da, presio taldeek han presentzia indartsua duten neurrian.
- Garrantzitsua da Europako lurralde osoan gai hauei buruzko araudiak orokortzea.

Herriaren Defendatzaileen Europako Sarea 1996an eratu zen, eta Europar Batasuneko estatu kideetako, EBn sartzeko herrialde hautagaietako eta espazio ekonomiko europarreko beste estatu batzuetako eskualde eta herri nazionalen defendatzaileak eta pareko erakundeak biltzen ditu, baita Europar Herriaren Defendatzailea eta Europar Parlamentuko Eskaera Batzordea ere.

2.2.4. Ombudsmanen Nazioarteko Institutuaren mintegia



Ombudsmanen Nazioarteko Institutuak antolatuta, apirilaren 26an eta 27an Giza eskubideen gaur egungo erronkak: *Ombudsmana mehatxuen aurrean* izeneko mintegia Bartzelonan garatu zen.

Topaketa horretan bildutako herrien defendatzaileek askatasuna-segurtasuna dilema, migratzaileak eta errefuxiatuak, krisi soziala eta eskubideak izan zituzten hizpide, baita Ombudsmanetarako mehatxuak ere. Horrez gain, politika publikoek ere gai horiek giza eskubideak erabat errespetatuz landu behar dituztela adierazi zuten; herrien defendatzaileek arreta berezia jarri behar diete legediari eta eskubideak arriskuan jar ditzaketen administrazio jardunei.

Arartekoak parte hartze aktiboa izan zuen mintegia osatu zuten mahai inguruetan, eta *Segurtasuna birpentsatzea eskubideen defentsatik* mintzaldia eskaini zuen; mintzaldian aipatu zuenez, *“giza eskubideen etika ezin da erlatibizatu. Giza eskubide oro errespetatu behar da eta zehazki eta banaka zaindu behar da; eskubide horiek ezin dira izan une bakoitzeko egoeraren arabera defendatzea ekarriko duten prestazio edo kontraprestazioen helburu”*.

2.2.5. Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren (OIF) XXI. Biltzarra eta Batzar Nagusia



Arartekoa eta bere ondokoa Tenerifen izan ziren azaroaren 22tik 24ra bitartean, OIFen Biltzarrean eta Batzar Nagusian. “Pobrezia, duintasuna eta giza eskubideak” izenburu orokorrarekin, honelako gaiak aztertu ziren hainbat ponentzia eta mahai-ingurutan: muturreko pobrezia, gosea eta desnutrizioa, etxebizitza izateko edo oinarrizko zerbitzuak jasotzeko eskubidea.

Topaketa horren aurretik, jada eginak ditu bilera batzuk bere lana garatzeko baliatzen dituen gaikako sareekin: migratzaileak eta pertsonen salerosketa, haurrak eta nerabeak, emakumeen defentsa-erakundeak eta komunikatzaileak.

Bilera horretan OIFen 2016ko *Txostena: Pobrezia eta Giza Eskubideak* aurkeztu zen, eta hiru mahai-inguru egin ziren:

- Lehenengoan hizpide izan zen Ombudsman erakundeek eta Giza Eskubideen erakundeek zer eginkizun duten Nazio Batuen 2030eko Agendan jarritako lehen helburua lortzeko orduan: pobrezia desagerraraztea, modu guztietan eta mundu osoan.
- Bigarren mahai-inguruan, Julia Hernández arartekoaren ondokoak hizlari jardun zuen. Mintzagai izan zuen Ombudsman erakundeek zer eginkizun duten 2030eko Agendako 11. helburua zehazteko orduan: etxebizitza egokia izateko aukera bermatzea, hiri barneratzaile eta seguruetan.
- Hirugarren eta azken mahai-inguruan gai hau jorratu zen: zer garrantzitsua den pobrezia zikloa haustea, hezkuntza barneratzailea ematea eta aukera berdintasuna eta kalitateko lanbide-prestakuntza bermatzea.

Orobat, OIFen Batzar Nagusia egin zen. Bertan, besteak beste, argibideak eman ziren federazio horren gaikako sareez (migratzaileak eta gizakien salerosketa, emakumeen defentsa-erakundeak, haurrak eta nerabeak, OIF-ComOIFen komunikatzaileak) egin diren txostenen gainean.

OIF herritarren eskubideak babestu eta zaintzeko federazio iberoamerikarra da. Bere helburu nagusia foro bat sortzea da, elkarrekin lan egiteko, elkarri bere esperientzien berri emateko eta Ombudsmanaren irudia sustatu, ezagutarazi eta indartzeko.

Era berean, giza eskubideetan oinarritutako kultura sustatu eta zabaldu nahi du bere kideen herrialdeetan, lankidetzan arituz giza eskubideak errespetatu, babestu eta bultzatzen ahalginduko diren nazioarteko eta gobernu arteko erakunde eta organismoekin, baita gobernu kanpoko erakundeekin ere.

OIFek bere baitan hartzen ditu Iberoamerikako edo Latinoamerikako herrialdeetako herriaren defentsa-erakundeak, Espainia, Mexiko eta Argentinako autonomia erkidegoetako edo estatuko defentsa-erakundeekin batera.

3. Beste jarduera batzuk

Arartekoaren eta haren ondokoaren jarduerarik esanguratsuenak, hitzaldiak emateari dagokionez, eta administrazioek eta gizarte erakundeek antolatutako ekitaldietan parte hartzeari dagokionez

Baloreak eta giza eskubideak sustatzeko lanean, Arartekoaren erakundeak urte osoan zehar jarduera ugari gauzatzen ditu, adibidez, gizarte-erakundeek antolatutako ekitaldietan parte hartzen du, giza eskubideekin lotutako gaien inguruko foroetan hitzaldiak egiten ditu, erakundearen helburuekin estuki lotuta dauden ekitaldi instituzionaletan esku hartzen du, etab.

Jarduera horien guztien katalogoa [web orrian dagokion atalean](#) kontsulta daiteke.

Jarraian, Manuel Lezertua arartekoak eta Julia Hernández arartekoaren albokoak garatutako jardueren lagin laburtua jaso da:

- 2016ko otsailaren 26an Bizkaiko Foru Aldundiak Gizartegune hausnarketarako espazioaren jardura berri bat antolatu zuen, "Gizarte-bazterketa eta patologia mental larria: lankidetzaren soziosanitarioa ezinbestekoa da" izenburupean; arartekoak ere parte hartu zuen, aipatuz *Koordinazio soziosanitarioari buruzko printzipioak, gaixotasun mental larria eta gizarte bazterketa gertatzen direnerako*.
- Martxoan, Hizkuntza Komisarioen Nazioarteko Elkartearen Biltzarra ospatu zen Galwayen (Irlanda); bertan, Manuel Lezertuak postmodernitateak ekartzen dituen erronketatik nortasun kolektiboaren kontzeptuaren inguruko mintzaldia eskaini zuen.
- Eusko Jaurlaritzak eta Emakundeak "Aitatasun positiboak eta eraldatzaileak" jardunaldiak antolatu zituzten hil horretan, eta testuinguru horretan arartekoak "Aitatasun eraldatzaileak, gizonak, emakumeak, hazkuntza eta boterea" mintzaldia eskaini zuen.

- Eurobaskek eta Eusko Legebiltzarrak maiatzaren 9an *Europa berri baterako eztabaidak* jardunaldia antolatu zuten, hain zuzen ere Europako Egunean. Jardunaldia irekitzeko saioan arartekoak Europar Batasunaren sorrerako printzipioak gogoratu zituen.
- Madrilgo Ateneoan arartekoak *Europa ispilu aurrean: erre-fuxiatuen krisialdia* mintzaldia eskaini zuen maiatzaren 26an.
- Elkartuk iazko ekainaren 9an Donostian antolatutako jardunaldian, *Berdintasunean aurrera eginez, aniztasunetik izenburupean*, Manuel Lezertuak "Ezgaituen eskubideak bermatzea" mintzaldia eskaini zuen.
- Ekainaren 17an, ingurumen arloko fiskaltzak Segovian elkartu ziren, *Ingurumenaren ikuspegia Europako esparruan* mintegian; arartekoak ere parte hartu zuen, *Herriaren defentsa erakundearen eginkizuna ingurumena kontrolatzen* berbaldiarekin.
- Iazko ekainaren 16tik 18ra *Justizia leheneratzaile eta terapeutikoa: justizia eredu berritzaileetarako biltzarra* egin zen Donostian, GENMEk sustatuta (Espainiako Bitartekaritzaren aldeko Magistratuen Europako Taldea); saio hartan arartekoak *Justizia leheneratzailearen egungo jardunbidea eta teoria* mintzaldia eskaini zuen.
- Udako ikastaroen testuinguruan, Kriminologiaren Euskal Institutuak antolatuta, ekainaren 28an *Tortura, tratu txar eta umiliagarrien biktimetako egia eta aitortpena* jardunaldia egin zen; bertan, Manuel Lezertuak *Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia torturaren gainean* mintzaldia eskaini zuen.
- Horrez gain, hil bereko 30ean arartekoak udako beste ikastaro batean parte hartu zuen, EHUko Medikuntza Fakultateak Bilbon antolatutakoa, *Minari buruz kontzientzia hartu, diagnostikatu eta terapia egiteko eskola* izenburupean, *Minaren tratamendua* eskubide gisa mintzaldiarekin.
- Manuel Lezertua Herriaren defendatzaileak eta ACNURrek urriaren 5ean Madrilen egindako lansaioan ere izan zen, *Espainian errefuxiatuak hartu eta gizarteratzea* izenburupean.
- Urriaren 20an eta 21ean Konstituzio Auzitegiko Abokatuaren Elkartearen XXII. Jardunaldiak egin ziren Gasteizen, eta arartekoak kolaborazio aktiboa izan zuen jardunaldien antolaketa zein eztabaidetan.
- Hil berean, 24an, Sabino Arana Fundazioak *Delituak ikeritzeko bermeen sistemak versus Teknologia berriak* topaketa-etzabaida antolatu zuen Bilbon; arartekoak ere parte hartu zuen.
- Arartekoa Iñigo Urkullu lehendakariak kargu hartzeko ekitaldian izan zen Gernikan, urriaren 26an.
- Ezgaitasunen bat daukaten pertsonen eskubideei buruzko NBERen hitzarmenaren X. urteurrena zela eta, EDEKA Elbarrituen Ordezkarien Euskadiko Euskal Koordinatzaileak jardunaldi bat antolatu zuen azaroan, Bilbon. Arartekoak *Lorpenak eta lortzeke dauden erronkak* izan zituen hizpide.

- Abenduaren 13an DEMOSPAZ Institutuak eta Bakearen Kultura Fundazioak *Euskadin bake etorkizuna izatearen alde: udalerriak bake eta bizikidetzaren espazio lan mintegia* egin zuten Bilbon; arartekoak ere parte hartu zuen jardunaldian, bakea helburu eta bitarteko gisa sustatuko duen kulturaren alde tokiko administrazioek egin dezaketena nabarmenduz.
- Abenduaren 16an arartekoak *Gizarte bazterketa eta komunikabideak* jardunaldia bukatzeko saioan hitz egin zuen, Pobrezia eta giza bazterketaren aurkako europar sarea Euskadin elkarteak Bilbon antolatutakoa. Komunikabideek iritzia sortu eta osatzen egiten duten funtzio soziala nabarmendu zuen, baita gizarte bazterketako egoeran dauden komunitateentzat herritarrek daukaten jarrera eratzten ere.
- Arartekoaren ondokoak Paulo Freire helduentzako ikastetxeko mahai inguru batean parte hartu zuen iazko urtarrilaren 14an, Gasteizen.
- Horrez gain, Gasteizko Arriaga parrokiaren beste hitzaldi batean parte hartu zuen, otsailaren 9tik 12ra Julia Hernándezek Turkiako Ombudsman erakundearen eratzeko laguntza programan parte hartu zuen, erakunde gisa, hainbat komunikazio eta mintzaldi eskainiz.
- Arabako Foru Aldundiak ekitaldi bat antolatu zuen iazko martxoaren 5ean Artium Museoan, Emakumeen Nazioarteko Eguna zela medio; Julia Hernández bertan izan zen.
- Arartekoaren ordezkioak Eusko Jaurlaritzak eta Emakundek Gasteizen antolatutako *Aitatasun positiboak eta eraldatzaileak* ekimenean parte hartu zuen, hil bereko 19an.
- Maiatzaren 9an ONCEk ONCE Sari Solidarioak banatu zituen Bilbon; Julia Hernándezek administrazio publikoaren kategorian Arartekoaren erakundeari emandako saria jaso zuen, *“gure gizartearen gabezien aurrean azken mende laurdenean adi egoteagatik giza eskubideak erabat bermatuz eta babesgabeak babestuz, eta Euskadi bezalako herrialde moderno eta aldakor batek dituen dilema eta erronka berrien zantzuak eman dituzten txostenak egiteagatik”*.
- Aipatutako **FIOren kongresuan**, azaroan egindako *Pobrezia, duintasuna eta giza eskubideak* izenburupean, arartekoaren albokoak hiri seguru eta inklusiboetan etxebizitza egoki batera sarbidea izatea bermatzeko herrien defendatzaileen rolari buruzko mahai inguru batean parte hartu zuen. Eskainitako mintzaldian ingurumen, etxebizitza, hiri espazioa eta lurraldearen antolamendurako erabaki maila guztietan emakumeak txertatzearen alde agertu zen.
- Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren (FIO) Emakumeen Sareko Eskualde Europarreko koordinatzailea den aldetik, Julia Hernándezek parte hartze aktiboa izan zuen emakumeen sare horrek Costa Rican ekainaren 3an egindako bileran, Emakumeen Defendatzailearen Sarearen 2016. urteko lan programaren betetze maila ebaluatze aldera.
- Horrez gain, ekainaren 7an, arartekoaren ordezkioak FIOko Emakumeen Sareak, Costa Ricako Herriaren Defendatzaileak eta FIOk antolatutako nazioarteko biltzarrean parte hartu zuen, Iberoamerikan indarkeria obstetrikoren arazo eta sexu eta ugalketa eskubideen egoera aztertzeko.
- Berriztu hezkuntza elkartearen 25. urteurrena zela medio, elkarteak *Alternatibak berrituz XXI. mendeko indarkeria egoeretan: nerabezaroa, emakumeak eta familia* jardunaldia antolatu zuen Deustuko Unibertsitatean azaroaren 11n; Julia Hernándezek parte hartu zuen.
- Arartekoaren albokoak Emakume Abokatuen Estatu mailako XXVIII. Batzarraren irekieran parte hartu zuen azaroaren 18an, Donostiako Abokatuen Elkargoan.



Arartekoaren
gomendioak eta
iradokizunak
zenbateraino bete diren

VI. Atala

ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK ZENBATERAINO BETE DIREN

Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen 3/1985 Legeak -otsailaren 27koak- 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoari dagokio: *“Dagokien ihardutze-sailei, herrilariari edo hoi lanariburuei aholkuak ematea edo legezko egitekoak gogoraraztea, legez kontrako edo bidegabekeriako egintzak zuzentzen edo Arduralaritza-zerbitzuak hobetzea lortzen saiatzeko”* (sic).

Horregatik, kexak aztertzean administrazioaren jokaera ez dela zuzena izan ondorioztatzen dugunean, gomendio edo iradokizun bat bidaltzen diogu kexak eragindako administrazioari, bere jokaera alda dezan eskatzeko.

Gomendioak ordenamendu juridikoa urratu dela, legez kontra jokatu dela edo hutsegite larria izan dela ikusten denean egiten dira eta, horien bidez, delako jarduera berrikusteko eskatzen zaio kasuan kasuko administrazioari. Formula honen pean egiten dira, orobat, legeak bete behar dela gogorarazteko oharrak.

Iradokizunak, aldiz, honelako kasuetan egiten dira: eragindako administrazioak legeei jarraiki jardunda ere, eskubiak babestearren edo administrazio egokia bermatzearen, beste era bateko jarduera behar denean. Kategoría honetan barneratzen dira, orobat, administrazio bakar bati zuzenduta dauden eta kexa-espeditante jakin batekin zerikusia duten arau aldaketako proposamenak ere.

Hala ere, adierazi nahi dugu beti ez dela beharrezkoa izaten gomendioa edo iradokizuna egitea. Askotan, administrazioak bere jokaera jakin bati buruzko informazioa eskatzeko idazkia jaso eta bere jokaera legezketasunarekin bat ez zetorrela egiaztatu ondoren, bere jokaera ez dela zuzena izan aitortzen du, luzamendutan ibili gabe, eta kexagileari urratutako eskubidea berrezartzen dio. Arazoak konpontzeko modu honen bidez, ez da beharrezkoa gomendio edo iradokizun bat beren-beregi egitea; horri esker, irregulartasunak antzeman diren administrazio-jardueretatik %93,04 gomendio edo iradokizunik egin gabe konpondu dira.

Egindako gomendio eta iradokizunak betetzeari dagokionez, azpimarratu beharra dago 2016. urtean egindako 87etatik eta 2015eko txosteneko datuen arabera erabakitzeke zeuden beste 17etatik, 31 onartu egin direla; 38 ez

direla onartu eta 35 erantzunaren edo azken erabakiaren zain daudela.

Horrela, bete diren ala ez jakiteko aztertu ditugun gomendio eta iradokizunen kopuruak behera egin du iaz erregistratutakoaren aldean, neurri batean aurreko urteetatik erantzunaren edo azken erabakiaren zain zeuden gomendioak gutxiago zirelako.

Egindako gomendio eta iradokizunen onarpen-maila orokorrak ere atzera egin du, baina horrek badu bere azalpena: 2016. urtean gomendio asko daude oraindik erantzunaren edo azken erabakiaren zain. Horien artean guztiz nabarmentzen dira gizarteratze arlokoak (20 dira, guztien erdia ia-ia).

Azken urteotan ohikoa denez, gizarteratze arloan egindako gomendioak guztien %30 pasatxora iritsi dira 2016an. Jakina, beti bezala, Diru-sarrerak Bermatzeko Legearen ondorioz sortu ziren prestazio ekonomikoen gainean espeditante asko bideratu direlako gertatu da hori, aurreko ekitaldian gertatu zen moduan. Gomendio horiek bereziki Lanbideri eragin diote. Kexa horien artean, berriz ere oso esanguratsua onartu ez diren gomendioen kopurua (alde batera utzita erantzun edo azken erabakiaren zain zeudenak eta, hortaz, berarizko erantzuna jaso dutenak bakarrik aintzat hartuz): Lanbidekin egin zaizkion gomendioetatik 2 besterik ez ditu onartu, eta 13 kasutan adierazi du ez duela gomendioa onartu.

Emaitza horiek aintzat hartzean, ezin dugu ahaztu erakunde honek egindako gomendio edo iradokizunak ez direla lotesleak eta, ondorioz, limurtzea edo pertsuasioa besterik ez dugula laguntza eskatu diguten pertsonen egoera juridikoak konpontzen saiatzeko.

Horregatik, aipatu nahi dugu erakunde honek garrantzi handia ematen diola administrazio publikoetara bidaltzen dituen erabakiak behar bezala arrazoitzeko beharrari, batez ere erabaki bat edo esku hartzeko irizpide batzuk aldatzeko eskatzen denean. Beti esan izan dugu behartzeko gaitasunik ez izateak ahalegin dialektiko handiagoak egitera behartzen gaituela, gure analisisietan sakontzera, desadostasun juridikoak egiaztatzen eta gure argudioak errepikatzen, gure gomendioak eta gogorarazteko oharrak betetzeko orduan bidegabeko aitzakiak jartzen direla ikusten dugunean.

Beti onartu dugu Ararteko erakundeak administrazio jokoera bat aldatzea gomendatu edo iradokitzen duenean, administrazioak ez duela zertan onartu gomendioaren eta/edo iradokizunaren interpretazio juridiko hori, eta ados ez egoteko arrazoiak zeintzuk diren argudia dezakeela.

Batzuetan, eragindako administrazioak ez du adierazten gomendia edo iradokizuna onartzen duen ala ez. Kasuok bestelako balorazioa merezi dute, eta halakoetan, erantzunik ezak gomendia edo iradokizuna ez betetzeko asmoa estaltzen duela susmatzen da, eta, hortaz, administrazioari adierazten zaio erantzunik ez emateko jarrerari eusten badio, ez onartuzat joko dela gomendia edo iradokizuna, eta zertzelada hori jakinaraziko dela Legebiltzarrari egiten zaion urteko txostenean.

Espedienteak bukatzeko beste modu desegoki bat zera da: eragindako administrazioak gomendia ez onartzea eta bere ezezkia oinarritzeko argudio nahikorik ez ematea.

Egoera horrek kezkatzen gaituenez gero, berriz ere adierazi beharra daukagu horrelako jokoerek urratu egiten dutela Eusko Legebiltzarreko erakunde ordezkari gisa eman dizkiguten eginkizunak onartzea. Era berean, gure iritziz, jokoera horiek begirunerik eza erakusten dute Zuzenbideko Estatuak arazoak konpontzeko eman duen tresnetako bat erabiliz beren eskubideak aitor diezazkieten eta legeria bete dadin erakunde honetara babes eske etorri diren herritarrekiko. Ildo horretan, gogorazi behar da onartu gabeko gomendio edo iradokizun bakoitzak, erakunde honen bermatze lanerako oztopoa izateaz gain, batez ere legea ez betetzen edo herritarren eskubideak urratzen jarraitzea dakarrela berekin, herritarrei legez dituzten eskubideak berrezartzea galaraziz.

Ohikoa denez, atal honetan aipatuko dugu zein egoeratan dauden 2016an egindako gomendio eta iradokizunak, baita 2015eko txostena bukatu genuenean erabakitzeke geratu zirenak ere. Aipamen hori hiru kategoriatan bildutako gomendioen azaleko deskribapena baino ez da izango. Hiru kategoriak honako hauek dira: 1) Administrazioak onartu dituenak; 2) Administrazioak onartu ez dituenak; eta 3) txosten hau amaitutakoan, administrazioaren azken erabakiaren zain daudenak.

Ebazpen guztiak, oso-osorik, gure web orrialdean kontsulta daitezke.

1. Onartutako gomendioak eta iradokizunak

A) EUSKO JAURLARITZA

Herri Administrazio eta Justizia Saila

Arartekoaren ebazpena, 2016ko maiatzaren 12koa. Horren bidez iradokitzen zaio orientazio psikologikoa edo soziala emateko aukera aztertzeko, aita baten eta bere alabaren artean dagoen kaltetutako lotura berrezartze aldera. Horiek Bilboko deribazio judizialaren bidezko familia elkargune baten erabiltzaileak dira.

1793/2014/QC espedientea

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Arartekoaren ebazpena, 2016ko otsailaren 24koa Horren bidez gomendatzen zaio ebazpen berariazkoa eta arrazoitua emateko kexa sustatu duen interesdunak Hezkuntza Ikuskaritzara bideratutako idatziari.

371/2015/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko urriaren 3koa. Horren bidez gomendatzen zaio 2016-2017 ikasturterako ikasleak onartzeko prozesuan YYren izenean egindako eskaerari emandako tratamendua berrikus dezala, zehazki: etxebizitza eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan egoteagatik hasiera batean esleitu zitzaizkion puntuak kentzeko erabakia.

1264/2016/QC espedientea

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Arartekoaren ebazpena, 2015eko abenduaren 22koa. Horren bidez gomendatu zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarri gisa bidegabe jasotako zenbatekoak eskatzean jardunbide jakin batzuk burutu ditzala.

835/2015/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko apirilaren 20koa. Horren bidez gomendatzen zaio baliogabetu dezan laguntza-eskaera baten prozeduran emandako ebazpena. Delako eskaera seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzeko dekretuak xedatutakoari helduz egin zen (abenduaren 19ko 255/2006 Dekretua).

1710/2015/QC espedientea

Ogasun eta Finantza Saila

Eustat

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abuztuaren 24koa. Horren bidez gomendatzen zaio pertsona nagusiei datu estatistikoak emateko betekizunetik salbuesten dituen irizpideak sustatzeko. *1251/2015/QC espedientea*

Osasun Saila

Osakidetza

Arartekoaren ebazpena, 2016ko urtarrilaren 4koa. Horren bidez iradoki zaio zentroetan osasun arreta jasotzeko irizpideak modu zehatzean gogorarazteko, izan ere, kexek frogatu dute zenbait zentroan modu okerrean ari direla aplikatzen. *1954/2015/QC espedientea*

Arartekoaren ebazpena, 2016ko ekainaren 7koa. Horren bidez iradokitzen zaio iradokizunak izapidetzerako eta ebaluatzerako orduan kontuan izan behar duela ekainaren 21eko 147/2015 Dekretuan aurreikusten den betebeharra, hau da, aurkezten zaizkion ekimen eta iradokizunei erantzun egin behar diela. *112/2016/QC espedientea*

B) FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Arartekoaren ebazpena, 2016ko apirilaren 4koa. Horren bidez gomendatzen zaio neurriak har ditzan sarbide elektrotiko neutrala bermatzeko helburuz norberaren errenta-aitorpena era telematikoan aurkezteko aplikazioan. *758/2015/QC espedientea*

Gizarte Zerbitzuen Saila

Arartekoaren ebazpena, 2016ko martxoaren 9koa. Horren bidez iradokitzen zaio beharrezko jarduketak sistematizatzan, betiere foru erakundeak zaindutako haur eta nerabe babesgabeek entzunak eta haien iritzia kontuan hartuak izateko eskubidearen egikaritzapen efektiboa bermatzeko. *317/2015/QC espedientea*

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Ekintza Saila

Arartekoaren ebazpena, 2015eko urriaren 15koa. Horren bidez gomendatzen zaio Zornotzako Lehen harrerako zentroko instalazioak hobetu ditzala. Halaber, babesik gabeko adingabeak hartzeko Bizkaian dauden egoitza-harrerako baliabideetan bizi diren bakarrik dauden adingabe atzeritarrek adin-nagusitasunera heltzen direnean eman-tzipazio-programetan sartzeko irizpideak berrikus ditzala gomendatzen zaio. *673/2015/QC espedientea*

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua

Arartekoaren ebazpena, 2016ko ekainaren 27koa. Horren bidez gomendatzen zaio kirol hastapeneko unitateetako irakaskuntza jardueretan adingabeek parte har dezaten aukerak zabaltzeko neurriak har ditzan. *1744/2015/QC espedientea*

Gizarte Politikako Departamentua

Arartekoaren ebazpena, 2015eko urtarrilaren 22koa. Horren bidez, adin eta egoera guztietako haurren arretan aurrera egin dezala iradoki zaio, maizago eta berme handiagoarekin; babesik ez duten haurrentzako gizarte-zerbitzuetan artatuta o haur eta nerabeek entzun diezaieten eta euren iritzia kontuan har daitezen duten eskubidea erabilia. *677/2014/QC espedientea*

Arartekoaren ebazpena, 2016ko azaroaren 21ekoa. Horren bidez gomendatzen zaio behar bezala arrazoitzeko aurkeztutako gorako errekurtsoko bat ezesteko erantzuna. Errekurtsoko hori aurkeztu zuen ez dagoelako ados egindako mendekotasun-balorazioarekin. *1949/2014/QC espedientea*

Arartekoaren ebazpena, 2016ko azaroaren 21ekoa. Horren bidez gomendatu zaio, epe laburrera eta ertainera, egoitza-zentroak ikuskapen-txostenean adierazitako alderdiak zuzentzeko egiten duen lanaren segimendua egitea aintzat har dezan, oro har egoitza-baliabideei aplikatu ohi zaien ikuskapen-plana baino zorrotzagoa izango den baten bidez. *553/2015/QC espedientea*

C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

ARABAKO KUADRILLAK

Añanako Kuadrilla

Arartekoaren ebazpena, 2016ko azaroaren 9koa. Horren bidez, Añanako Kuadrillari, Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari eta Osmako Administrazio Batzarrari gomendatu zaie Osma herrian dauden hiri-hondakinak biltzeko edukiontzia beste leku batean jar ditzatela.

1567/2015/QC espedientea

ARABAKO UDALAK

Gasteizko Udala

Arartekoaren ebazpena, 2015eko urriaren 2koa. Horren bidez gomendatzen zaio har ditzala dagozkion neurriak Gasteizko higiezin bat kontserbatzeko eta birgaitzeko luzatu diren exekuzio-aginduak betearazteko.

584/2015/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko ekainaren 17koa. Horren bidez, Gasteizko Udaltzaingoari gomendatzen zaio trafikoko is-tripu bati buruzko txostena berrius dezala, erreklamazio egileak haren zuzentasunari buruz planteatu dizkion zalantza guztiak argitu ditzala eta, beharrezkoa bada, dokumentu horren edukia berrikuspenaren emaitzari egokitu diezaiola.

1464/2015/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko irailaren 20koa. Honen bidez gomendatzen zaio bermatu dezala etxebizitza bateko osasungaitzasun-fokua deuseztatzeko eskatu ziren neurriak gauza daitezela.

2385/2015/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko azaroaren 15koa. Honen bidez gomendatzen zaio, 2017ko oportetako programa hobetzeko aurrekusi duen prozesuan, azter dezala plazak esleitzeko prozeduraren fase guztietan heziketa behar bereziak dituzten neska-mutilentzako plazen erreserbari eusteko aukera.

1086/2016/QC espedientea

BIZKAIKO UDALAK

Bermeoko Udala

Arartekoaren ebazpena, 2016ko martxoaren 7koa. Horren bidez, aldian behingo azoketan espazio publikoa legeria errespetatuz adjudikatzeko gomendatzen zaio.

1601/2015/QC espedientea

Bilboko Udala

Arartekoaren ebazpena, 2016ko apirilaren 12koa. Horren bidez, Bilboko Udalarari iradokitzen zaio neurriak har ditzala bizikidetzaren egiaztatzeke polizia-txostenak behar bezala burututakoak izan daitezzen bermatzeko.

336/2015/QC espedientea

Erandioko Udala

Arartekoaren ebazpena, 2016ko otsailaren 22koa. Horren bidez gomendatu zaio atzerapen gehiagorik gabe har ditzala Lubarri kalean ezarri duen oinezkoentzako araubidea eta kale horrek Meso kalearekin bat egiten duen gunean trafikoko araudia betetzea bermatzeko neurri egokiak.

2647/2014/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko apirilaren 21koa. Horren bidez gomendatzen zaio asteko azoka txikietako postuak esleitu ditzala indarrean dagoen legeriari jarraiki.

1099/2015/QC espedientea

Gernika-Lumoko Udala

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abuztuaren 16koa. Horren bidez gomendatu zaio, indarreko ordenantzaren arabera, espazio publikoa terrazekin okupatzeko baldintzak betearaz ditzan.

1387/2015/QC espedientea

Sopuertako Udala

Arartekoaren ebazpena, 2015eko azaroaren 12koa. Horren bidez gomendatu zaio berriaz erantzun diezaiola herritar baten eskaerari. Edateko ura banatzeko hodi bat aldatzeko eskatu du, zuntz-zementua baitu horrek.

393/2015/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko urriaren 25koa. Horren bidez gomendatzen zaio udal ondasun komunalei buruz eskatutako informazioa emateko.

908/2016/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko urriaren 25koa. Horren bidez gomendatzen zaio azken bi urteetan lur-zati publiko zein pribatuetatik zura atera duten enpresei buruzko informazioa emateko.

909/2016/QC espedientea

GIPUZKOAKO UDALAK

Donostiako Udala

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 15koa. Horren bidez gomendatzen zaio jarritako ingurumen-salaketei erantzuteko. Kexagileak salaketa horiek jarri ditu gaueko garbiketa udal zerbitzuak bere etxebizitzaren inguruan eragiten duen zaratagatik.

1753/2015/QC *espedientea*

Tolosako Udala

Arartekoaren ebazpena, 2016ko urtarrilaren 27koa. Horren bidez gomendatzen zaio ez diezaiela eman, edo, eman badie, ken diezaiela udalerrri horretako elkarte gastronomikoei edozein diru-laguntza zein laguntza publiko, onarpen prozesuan, funtzionamenduan edota jardueretan emakumeen sarbidea baldintza beretan onartzen ez badute, eta, era berean, susta ditzala genero estereotipoak deuseztatzeko neurriak, baita ekintza positibokoak ere, espazio horietan emakumeek jasaten duten bereizkeria zuzentzea lortzeko xedez.

158/2015/QC *espedientea*

Zaldibiako Udala

Arartekoaren ebazpena, 2016ko maiatzaren 19koa. Horren bidez gomendatzen zaio espazio publikoa terrazekin okupatzeko baimena izapidetzeko eta dagokion tasa igor dadin irabazizko aprobetxamenduagatik.

1033/2015/QC *espedientea*

2. Onartu ez diren gomendioak eta iradokizunak

A) EUSKO JAURLARITZA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Arartekoaren ebazpena, 2016ko otsailaren 26koa. Haren bidez gomendatzen zaio, beren-beregi eta modu arrazoituaren ebatz dezan elkarbizitzari larriki eragiten dion jokabide bategatiko neurri zuzentzailea aplikatzeko jarraitutako prozeduraren balioabetasuna adierazteko egindako eskaeraren inguruan.

628/2015/QC *espedientea*

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Arartekoaren ebazpena, 2015eko maiatzaren 19koa. Horren bidez gomendatzen zaio babesgabetasun egoeran dauden haur eta nerabeak egoitzan hartzeko baliabideetako hezitzaile batzuek dituzten titulazio-arazoak konpontzeko irtenbidea bilatzeko lanetan jarraitzeko eta gai horren ingurukoa den 2012ko maiatzaren 22ko zirkularra indargabetzeko.

2299/2014/QC *espedientea*

Arartekoaren ebazpena, 2015eko abuztuaren 17koa. Horren bidez gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta bat (DBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarri (EPO) bat jasotzeko eskubidearen etetea berrikusteko.

337/2015/QC *espedientea*

Arartekoaren ebazpena, 2015eko urriaren 13koa. Horren bidez gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarria benetako bizilekua galtzeagatik (EGPO) eten izana berriro hausnartzea, ez baita bizilekua galdu.

52/2015/QC *espedientea*

Arartekoaren ebazpena, 2015eko urriaren 19koa. Honen bidez gomendatzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko erabakia.

2659/2014/QC *espedientea*

Arartekoaren ebazpena, 2015eko azaroaren 2koa. Horren bidez gomendatu zaio berrikusi dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarri baten iraungitzea.

1250/2015/QC *espedientea*

Arartekoaren ebazpena, 2015eko azaroaren 4koa. Horren bidez gomendatu zaio efekturik gabe utz dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren iraungitzea.

1948/2014/QC *espedientea*

Arartekoaren ebazpena, 2015eko abenduaren 29koa. Horren bidez gomendatu zitzaion mailegu bat ez ohiko diru-sarrera bezala ez kontatzea diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioaren kopurua kalkulatzeko eta jasotako prestazioen itzulera adosteko ebazpena berrikusteko.

976/2015/QC *espedientea*

Arartekoaren ebazpena, 2016ko urtarrilaren 27koa. Horren bidez gomendatu zaio azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea ez berritzeagatik iraungitzea eta efekturik gabe utz dezala 16.195 euroko erreklamazioa, ez baitira bidegabeak izan diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa jasotako zenbatekoak.

154/2015/QC *espedientea*

Arartekoaren ebazpena, 2016ko otsailaren 17koa. Honen bidez gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eskaera onar dezala eta dagozkion atzerakinak ordain ditzala.

955/2015/QC *espedientea*

Arartekoaren ebazpena, 2016ko martxoaren 11koa. Horren bidez gomendatzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) ukatzeko erabakia.

788/2015/QC *espedientea*

Arartekoaren ebazpena, 2016ko martxoaren 14koa. Horren bidez gomendatzen zaio berrikus dezan Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta baten eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarri baten eskaerari emandako ukoa.

848/2015/QC *espedientea*

Arartekoaren ebazpena, 2016ko maiatzaren 26koa. Horren bidez gomendatzen zaio ebazpen bat berrikusteko. Ebazpen horretan, pertsona bat atzera egindakotzat jo da diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren eskaeran, ez duelako dokumentu bat aurkeztu. Hala ere, dokumentu hori ez da funtsezkoa ebazpena emateko eta diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzerako 18/2008 Legearen 62.2 artikuluan ezarritako epea baino beranduago errekeritu zen.

695/2015/QC *espedientea*

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abuztuaren 3koa. Horren bidez iradokitzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteko eta iraungitzeko espediente bat berrikusteko. Halaber, jasotzen diren ez betetzeak eta ukitzen dituen eskubide eta betebeharrak haztatzeko iradokitzen zaio, proportzionaltasun-printzipioa kontuan hartuz.

839/2015/QC *espedientea*

Ingurumen eta Lurralde Politikako Saila

Euskotren

Arartekoaren ebazpena, 2016ko uztailaren 19koa. Horren bidez, Euskotren elkarte publikoari gomendatzen zaio aldi baterako lan-poltsa bat eratzeko prozesuan egindako nor-tasun-probetan eta elkarrizketa pertsonalean aplikatu ziren irizpideak eta horiek nola aplikatu ziren jakinaraz diezaiela kexagileei.

2009/2015/QC *espedientea*

Osasun Saila

Arartekoaren ebazpena, 2016ko maiatzaren 17koa. Horren bidez iradokitzen zaio zentro pribatu bateko esku-hartze terapeutikoaren aurretiazko jakinarazpenaren eskaera berrikusteko.

378/2015/QC *espedientea*

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 19koa. Horren bidez gomendatzen zaio berrikus dezala pertsona bat Figuereseko ospitaletik Donostiako Unibertsitate Ospitalera osasun-garraio lagunduan eramateko baimen-eskaera ukatzeko erabakia.

1309/2016/QC *espedientea*

Osakidetza

Arartekoaren ebazpena, 2016ko otsailaren 12koa. Horren bidez gomendatzen zaio elkarrizketarako bideak ezar ditzala eta erantzun diezaiela genero-identitate eta genero-adierazpen anitzeko adingabeak dituzten familiek organismo horri azaldu dizkieten kezka, kritika eta eskaerei. Orobat, pertsona horiek artatzerakoan, kontuan har ditzala zenbait jarraibide eta printzipio, baita genero-identitateagatiko bazterkeriaren aurkako eta transexualen eskubideak aitortzeko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 9. artikuluan jasotako gida klinikoa egiterakoan ere.

576/2015/QC *espedientea*

Arartekoaren ebazpena, 2016ko uztailaren 14koa. Horren bidez gomendatzen zaio elikadura-portaeraren nahasmen-duta duten pertsonen laguntzeko jarduketaren proposamenei heltzeko behar den zuzkidura aztertzea.

412/2016/QC *espedientea*

B) FORU ADMINISTRAZIOA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Ekintza Saila

Arartekoaren ebazpena, 2015eko abenduaren 10ekoa. Horren bidez gomendatu zaio eraginkor egin dezala 2008an goimailako funtzioak erregulatzeko hartu zuen konpromisoa, eta, bitartean, aldi baterako kontratazioak eskaini diezaiola kexagileari, azken hautapen-prozesuaren ondoriozko gizarte langileen lan-poltsa osatzen duten gainerako pertsonen aukera beretan.

1238/2015/QC *espedientea*

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 12koa. Horren bidez iradokitzen zaio familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoaren emakida aztertzeko, urrirako ondorioekin.

2329/2015/QC *espedientea*

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 12koa. Horren bidez iradokitzen zaio egoitza bateko plazaren eskaera ezestea xedatu duen ebazpena berrikusteko eta dagozkion kudeaketak egiteko egoitza-zerbitzura sartzeko prozedura izapidetzen amaitzeko.

799/2016/QC *espedientea*

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua

Arartekoaren ebazpena, 2016ko otsailaren 25ekoa. Horren bidez gomendatzen zaio bermatzeko Donostiako Arte Ederren eraikineko kupula berri jarri dela.

1885/2015/QC *espedientea*

Gizarte Politikako Departamentua

Arartekoaren ebazpena, 2016ko apirilaren 5koa. Horren bidez iradokitzen zaio familia inguruko zaintzarako prestazio ekonomikoa azkentzen duen ebazpena eta helburu horrekin jaso diren prestazioak itzultzera behartzen duen ebazpena berrikusi eta prestazioak berriro ordain ditzan.
472/2014/QC espedientea

C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

ARABAKO UDALAK

Arratzua-Ubarrundiako Udala

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abuztuaren 11koa. Horren bidez gomendatu zaio biztanleen errolda araupetu duen arautegia egoki aplikatzeko.
1827/2015/QC espedientea

Guardiako Udala

Arartekoaren ebazpena, 2016ko martxoaren 16koa. Horren bidez gomendatu zaio erantzun diezaiola bere garaian formalizatutako salerosketa kontratua eskritura publikora igo ahal izateko beharrezko izapideei buruzko eskaerari.
1012/2015/QC espedientea

Laudioko Udala

Arartekoaren ebazpena, 2016ko azaroaren 15koa. Horren bidez gomendatzen zaio berriz azter dezala informazioa eskuratzeko eskaera bat ukatzeko erabakia.
24/2016/QC espedientea

Gasteizko Udala

Arartekoaren ebazpena, 2015eko maiatzaren 19koa. Horren bidez gomendatu zaio efekturik gabe utz dezala Gizarteratzeko Zerbitzuaren Harrera Programen eta Baliabideen buru izateko lanpostua, zerbitzuen batzordean, iragankorki estaltzeko deialdiaren emaitza, eta deialdi berria abiarazi dezala aipatu lanpostua estaltzeko.
2640/2013/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko otsailaren 29koa. Horren bidez gomendatzen zaio desjabetutako lonja baten balio justuari buruzko espedientea behar bezala izapidetu dezala.
1449/2015/QC espedientea

ARABAKO ADMINISTRAZIO BATZARRAK

Mezkiako Administrazio Batzarra

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abuztuaren 22koa. Horren bidez gomendatzen zaio lursail pribatuen okupazioa legeztatzeko.
2364/2015/QC espedientea

BIZKAIKO UDALAK

Barrikako Udala

Arartekoaren ebazpena, 2016ko uztailaren 4koa. Horren bidez gomendatzen zaio (...) jatetxeak eta bere kanpoko terrazak sortzen dituen eragozpenak saihesteko beharrezkoak diren neurriak har ditzan eta ingurumen-legezketasuna betetzeko errekeritu diezaion.
94/2016/QC espedientea

Bilboko Udala

Arartekoaren ebazpena, 2016ko martxoaren 8koa. Horren bidez gomendatu zaio berrikus dezala Aparkamendurako Zerbitzuari (TAO/OTARI) buruzko Ordenantza, TAO eremuan jabetzapeko ibilgailua duten egoiliarren araubidea zabal diezaien egungo ibilgailu onuradunen mugaketa oinarritzen duten irizpide orokorrak eta aipatu araubidearekin lortu nahi den xedea materialki betetzen dituzten ibilgailuei.
295/2015/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko maiatzaren 17koa. Horren bidez, Bilboko Udalarik Aparkamendurako Zerbitzuari (TAO/OTARI) buruzko Ordenantzaren 27.1.b). artikulua berrikus dezan gomendatu zaio, enpresa ibilgailu bat esleituta eta ibilgailu partikularra duten pertsonen ibilgailu bat ala estea hautatzeko aukera izan dezaten, egoiliarren araubideari onura ateratzeko.
6/2015/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko uztailaren 7koa. Horren bidez, Bilboko Udalarik gomendatzen zaio trafikoko araudia hausteagatik jarritako zigor bat indargabetzeko (zehapen-prozeduraren zk.: XXX).
124/2015/QC espedientea

Mungiako Udala

Arartekoaren ebazpena, 2016ko apirilaren 19koa. Horren bidez gomendioa egin zaio familia bati zaborren tasaren kontzeptupean kobratutako likidazioak ofizioz baliogabetu ditzan, familiaren baserrian ez duelako zaborrak batzeko inolako zerbitzurik eman.
11/2016/QC espedientea

Ondarroako Udala

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abuztuaren 1ekoa. Horren bidez gomendatu zaio mahaiak eta aulkiak instalatzeko baimen bat indargabetzeko, jabari publikoaren okupazioa erregulatzeko duen udal ordenantzaren aurkakoa delako.
1211/2016/QC espedientea

GIPUZKOAKO UDALAK

Donostiako Udala

Arartekoaren ebazpena, 2016ko uztailearen 29koa. Horren bidez gomendatzen zaio erantzun diezaiola, Donostiako Mirakruz kaleko 19. zenbakian dagoen eraikina dela eta, eraikitako ondasun urbanistikoa babesteko Plan Berezia aldatzeko eskaerari.
879/2016/QC espedientea

Lasarte-Oriako Udala

Arartekoaren ebazpena, 2016ko irailaren 21ekoa. Horren bidez gomendatzen zaio jarrai dezala bere jardueran, lizentziarik gabeko obra bat salatzeko aurkeztutako kexari erantzuteko.
426/2016/QC espedientea

3. Erabaki gabe dauden gomendioak eta iradokizunak

A) EUSKO JAURLARITZA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Arartekoaren ebazpena, 2016ko apirilaren 5ekoa. Horren bidez iradokitzen zaio berriaz aztertu ditzala Euskal Autonomia Erkidegoko itundutako ikastetxe publiko eta pribatuaren erdi edo goi mailako heziketa zikloan ikasleak onartzeko jarraibideak.
1281/2014/QC espedientea

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Arartekoaren ebazpena, 2016ko martxoaren 22koa. Horren bidez gomendatu zaio berriaz aztertu dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta baten etetea, ez baitago horretarako arrazoirik.
1091/2015/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko apirilaren 4koa. Horren bidez gomendatzen zaio berriaz aztertu dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzen dituen ebazpena.
1536/2015/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko apirilaren 4koa. Horren bidez gomendatzen zaio berriaz aztertu dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazio baten ez berritzea.
686/2015/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko maiatzaren 2koa. Horren bidez gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta baten etetea ondorioz gabe utz dezan.
1330/2015/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko maiatzaren 24koa. Horren bidez iradokitzen zaio gizarte-hezkuntza esku-hartze programa batean parte hartzen ari den familia bati eragiten dioten erabakiak hartzean gizarte-zerbitzuekin koordinatzeko eta Arartekoaren apirilaren 8ko 2/2012 Gomendio Orokorren edukia kontuan har dezan. Politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharrak; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman; horrez gain, iradoki da, aztertutako kasuan, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzeko erabakia berrikusteko.
1259/2015/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko ekainaren 14koa. Horren bidez gomendatu zaio berriaz aztertu dezala diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta etxebizitzarako prestazio osagarriko eskaera bat eta ordaindu ditzala dagozkion atzerakinak.
1348/2015/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko ekainaren 27koa. Horren bidez gomendatu zaio berriaz aztertu dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarri baten iraungipena.
661/2016/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abuztuaren 23koa. Horren bidez diru-sarrerak bermatzeko errenta baten prestazioaren iraungipena berrikusteko iradokitzen zaio. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eskubidea iraungitzeko ondorioak izateko jakinarazpen batek bildu beharreko bermeak ez betetzeagatik eta aurreko jakinarazpenaren edukia espedientean jasota ez egoteagatik iraungi zen prestazioa.
1579/2015/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko urriaren 5ekoa. Horren bidez gomendatu zaio berriaz aztertu dezala diru-sarrerak bermatzeko errentarako prestazio batean egindako murrizketa.
545/2016/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko urriaren 13koa. Horren bidez gomendatu zaio berriaz aztertu dezala diru-sarrerak bermatzeko errentarako prestazio baten ukapena.
1266/2015/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko urriaren 18koa. Horren bidez gomendatu zaio erantzun bat eman diezaion diru-sarrerak bermatzeko errenta bidegabe jasotzeagatik sortutako zorraren harira egindako informazio eskaerari eta zor hori ehuneko txikiago batean zatitzeko eskaerari.

2020/2014/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko urriaren 28koa. Horren bidez iradoki zaio diru-sarrerak bermatzeko laguntza jasotzen zuen familia baten diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren espedientea eta ordainketa berrikusteko.

1477/2016/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko azaroaren 30ekoa. Horren bidez, Enplegu eta Politiketako Sailari eta, zehazkiago, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, gomendatzen zaie diru-sarrerak bermatzeko errenta baten zenbatekoa berrikusteko, mailegu pertsonala ezohiko diru-sarrera gisa hartu barik, bai eta oker jaso diren diru-laguntzak itzuli behar izateari buruzko ebazpena ere.

183/2016/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko azaroaren 30ekoa. Horren bidez gomendatu zaio berrikusi dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta berritzeko ebazpena.

1192/2016/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 1ekoa. Horren bidez gomendatzen zaio berraztertu dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta baten iraungitzea, ez baitago horretarako arrazoirik.

911/2019/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 2koa. Horren bidez iradokitzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzeko ebazpena berrikusteko.

34/2016/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 15ekoa. Horren bidez gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta baten iraungipena indargabetzeko, horretarako kausarik ez baitago.

1312/2016/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 16koa. Honen bidez gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta baten eta etxebizitzarako prestazio osagarri baten ukapena berrikusi dezala.

687/2015/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 20koa. Horren bidez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak datu pertsonalak babestearen arloan araudia urratu zutela salatzen zuen kexa batean bere esku-hartzea amaitu du Arartekoak.

1668/2016/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 22koa. Horren bidez Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren eteteari eusteko erabakia.

564/2016/QC espedientea

Gobernantza Publikoa eta Autogobernu Saila

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 20koa. Horren bidez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak datu pertsonalak babestearen arloan araudia urratu zutela salatzen zuen kexa batean bere esku-hartzea amaitu du Arartekoak.

2437/2016/QC espedientea

Segurtasun Saila

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 20koa. Horren bidez gomendatzen zaio Ertzaintzaren jokabideari buruzko kexari erakunde honen gomendioekin bat egiten duen tratamendua eman diezaiola eta jokabide horri buruz interesdunak agertutako zalantzak argitu ditzala.

2495/2014/QC espedientea

B) FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saila

Arartekoaren ebazpena, 2016ko azaroaren 9koa. Horren bidez, Añanako Kuadrillari, Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari eta Osmako Administrazio Batzarrari gomendatu zaie Osma herrian dauden hiri-hondakinak biltzeko edukiontzia beste leku batean jar ditzatela.

1940/2015/QC espedientea

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 22koa. Horren bidez gomendatzen zaio turismo-ibilgailuan garraio zerbitzu publikoa emateko txartel baten esku-aldaketaren baimena berrikusteko, baita administrazio prozedura orokorra ere.

57/2016/QC espedientea

Gizarte Zerbitzuen Saila

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 21ekoa. Horren bidez gomendatzen zaio Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bitarteko funtzionarioek zentro ofizialetan azkenengo azterketara joateko egindako lizentzia-eskaerei emandako tratamendua berrikusteko.

1499/2015/QC espedientea

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Ekintza Saila

Arartekoaren ebazpena, 2016ko urriaren 10ekoa. Horren bidez gomendatzen zaio prezio publikoa baieztatzea eta berrikustea ezetsi zuen irailaren 17ko 54295/2015 Foru Agindua berrikusteko. Hala, berraztertze-errekurtsoa onestea erabaki zuen 2015eko ekainaren 25eko 38950/2015 Foru Agindua aplikatuz, errekurtsogilearen asmoa aitortzen duen foru agindu berri bat emateko gomendatzen zaio, eta horrenbestez, eguneko 27,89 euroko prezio publikoa ezartze-ko, egoitzan sartzen den egunetik.

142/2016/QC *espedientea*

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 15ekoa. Horren bidez iradokitzen zaio azter dezan familia-giroan zain-
tzeko prestazio ekonomikoa ematea, erabaki horrek ondorioak irailatik aurrera izan ditzan.

1822/2015/QC *espedientea*

Ogasun eta Finantza Saila

Arartekoaren ebazpena, 2016ko azaroaren 2koa. Horren bidez iradokitzen zaio neurri egokiak susta ditzala seme-
alabak beren kargura dituzten familiei zerga-onurak aitortzeko, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagokionez.

1235/2016/QC *espedientea*

C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

ARABAKO ADMINISTRAZIO BATZARRAK

Osmako Administrazio Batzarra

Arartekoaren ebazpena, 2016ko azaroaren 9koa. Horren bidez, Añanako Kuadrillari, Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari eta Osmako Administrazio Batzarrari gomendatu zaie Osma herrian dauden hiri-hondakinak biltzeko edukiontzia beste leku batean jar ditzatela.

1941/2015/QC *espedientea*

Urrunagako Administrazio Batzarra

Arartekoaren ebazpena, 2016ko azaroaren 29koa. Horren bidez gomendatzen eta gogorarazten zaio ordenantza fiskalak aldatzeko prozedurari jarraitu behar diola, ur-horniduraren tasa igo ahal izateko.

1923/2016/QC

BIZKAIKO UDALAK

Erandioko Udala

Arartekoaren ebazpena, 2016ko irailaren 27koa. Horren bidez gomendatzen zaio hirigintza-zerbitzuen tasaren zein EIOZren kontzeptupean kexagileari igorritako likidazioak ofizioz baliogabetzea; izan ere, zerga horien zerga-oinarriaren zehaztapena ez dator bat zuzenbidearekin.

406/2016/QC *espedientea*

GIPUZKOAKO UDALAK

Donostiako Udala

Arartekoaren ebazpena, 2015eko azaroaren 25ekoa. Horren bidez gomendatzen zaio berriz azter dezala izapidetzen ari den autobus-geltoki berriaren arkitektura- eta jardueraproiektua, eta ahaleginak egin ditzala ditxoetarako aurreikusitako diseinuak irisgarritasun unibertsalaren printzipioa berma dezan.

1595/2015/QC *espedientea*

Hondarribiko Udala

Arartekoaren ebazpena, 2015eko otsailaren 2koa. Horren bidez gomendatzen zaio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeko 42. artikuluan xedatutakoaren arabera, ahalik eta lasterren erantzun diezaiola, idatziz, Elkartu Elkartek (kexagileak) egin duen eskariari.

1500/2014/QC *espedientea*

Arartekoaren ebazpena, 2015eko urriaren 22koa. Horren bidez gomendatzen zaio erreklamaziogileari errekargua duen Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga gisa bidalitako ordainagiriak ofizioz baliogabetzea, zergapetutako etxebizitza alokatuta baitago 2008tik.

1600/2014/QC *espedientea*

VII

ATAIA

Eranskinak

VII. ATALA

1

EMAN DIREN EBAZPENAK

VII. Atala

ERANSKINAK

Eman diren ebazpenak

Arartekoaren ebazpena, 2016ko urtarrilaren 4koa. Horren bidez, Osakidetzari iradoki zaio zentroetan osasun arreta jasotzeko irizpideak modu zehatzean gogorarazteko, izan ere, kexek frogatu dute zenbait zentrotan modu okerrean ari direla aplikatzen.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko urtarrilaren 27koa. Horren bidez, Tolosako Udalarri gomendatzen zaio ez diezaiela eman, edo, eman badie, ken diezaiela udalerrri horretako elkarte gastronomikoei edozein diru-laguntza zein laguntza publiko, onarpen prozesuan, funtzionamenduan edota jardueretan emakumeen sarbidea baldintza beretan onartzen ez badute, eta, era berean, susta ditzala genero estereotipoak deuseztatzeko neurriak, baita ekintza positibokoak ere, espazio horietan emakumeek jasaten duten bereizkeria zuzentzea lortzeko xedez.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko urtarrilaren 27koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politika Sailari gomendatu zaio azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea ez berritzeagatiko iraungitzea eta efekturik gabe utz dezala 16.195 euroko erreklamazioa, ez baitira bidegabeak izan diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa jasotako zenbatekoak.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko urtarrilaren 27koa. Horren bidez, Lanbideren "irizpideen dokumentua" izenekoaren edukia argitaratzeko beharrari dagokion ofiziozko jarduna amaitu du.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko otsailaren 12koa. Horren bidez, Osakidetzari gomendatzen zaio elkarrizketarako bideak ezar ditzala eta erantzun diezaiela genero-identitate eta genero-adierazpen anitzeko adingabeak dituzten familiek organismo horri azaldu dizkieten kezka, kritika eta eskaerei. Orobat, pertsona horiek artatzerakoan, kontuan har ditzala zenbait jarraibide eta printzipio, baita genero-identitateagatiko bazterkeriaren aurkako eta transexualen eskubideak aitortzeko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 9. artikuluan jasotako gida klinikoa egiterakoan ere.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko otsailaren 17koa. Honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eskaera onar dezala eta dagozkion atzerakinak ordain ditzala.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko otsailaren 22koa Horren bidez, Erandioko Udalarri gomendatu zaio atzerapen gehiagorik gabe har ditzala Lubarri kalean ezarri duen oinezkoentzako araubidea eta kale horrek Meso kalearekin bat egiten duen gunean trafikoko araudia betetzea bermatzeko neurri egokiak.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko otsailaren 24koa Honen bidez gomendatzen zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari ebazpen berariazkoa eta arrazoitua emateko kexa (371/2015/QC) sustatu duen interesdunak Hezkuntza Ikuskaritzara bideratutako idatziari.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko otsailaren 25koa. Honen bidez gomendatzen zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuari bermatzeko Donostiako Arte Ederren eraikineko kupula berriro jarriko dela.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko otsailaren 25koa. Horren bitartez, Lasarte-Oriako hezkuntza zentroetan ikasle etorkinak modu orekatuagoan banatzeko premiari buruzko kexa zela-eta abiarazitako esku-hartzea bukatu da (kexa espedientearen zk.: 811/2014/QC).

Arartekoaren ebazpena, 2016ko otsailaren 25koa. Arte Ederren jauregiaren osotasuna bermatzeko kultura ondarearen defentsan eskumenak dituzten administrazioen esku-hartzeari buruzkoa.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko otsailaren 25koa Arte Ederren Jauregiaren osotasuna bermatzeko kultura ondarearen defentsan eskumenak dituzten administrazioen esku-hartzeari buruzkoa.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko otsailaren 26koa. Haren bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari gomendatzen zaio, beren-beregi eta modu arrazoituan ebazteko dezan elkarbizitzari larriki eragiten dion jokabide bategatiko neurri zuzentzailea aplikatzeko jarraitutako prozeduraren baliogabetasuna adierazteko egindako eskaeraren inguruan (628/2015/QC).

Arartekoaren ebazpena, 2016ko otsailaren 29koa. Horren bidez, Gasteizko Udalari gomendatzen zaio desjabetutako lonja baten balio justuari buruzko espedientea behar bezala izapidetu dezala.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko martxoaren 7koa. Horren bidez, aldi behingo azoketan espazio publikoa legeria errespetatuz adjudikatzeko gomendatzen zaio Bermeoko Udalari.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko martxoaren 8koa. Horren bidez, Bilboko Udalari gomendatu zaio berrikus dezala Aparkamendurako Zerbitzuari (TAO/OTARI) buruzko Ordenantza, TAO eremuan jabetzapeko ibilgailua duten egoiliarren araubidea zabal diezaien egungo ibilgailu onuradunen mugaketa oinarritzen duten irizpide orokorrak eta aipatu araubidearekin lortu nahi den xedea materialki betetzen dituzten ibilgailuei.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko martxoaren 9koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiari iradokitzen zaio beharrezko jarduketak sistematiza ditzan, betiere foru erakundeak zaindutako haur eta nerabe babesgabeei entzunak eta haien iritzia kontuan hartuak izateko eskubidearen egikaritzapen efektiboa bermatzeko.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko martxoaren 11koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) ukatzeko erabakia.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko martxoaren 14koa. Horren bidez, gomendatzen zaio Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari berrikus dezan Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta baten eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarri baten eskaerari emandako ukoa.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko martxoaren 16koa. Horren bidez, Guardiako Udalari gomendatu zaio erantzun diezaiola bere garaian formalizatutako salerosketa kontratua eskritura publikora igo ahal izateko beharrezko izapideei buruzko eskaerari.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko martxoaren 22koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu zaio berrikus dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta baten etetea, ez baitago horretarako arrazoirik.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko apirilaren 4koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari gomendatzen diogu neurriak har ditzan sarbide elektronikoa neutrala bermatzeko helburuz norberaren errenta-aitorpena era telematikoa aurkezteko aplikazioan.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko apirilaren 4koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz aztertu dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazio baten ez berritzea.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko apirilaren 4koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berrikus dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzen dituen ebazpena.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko apirilaren 5koa. Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiari iradokitzen zaio familia inguruko zaintzarako prestazio ekonomikoa azkentzen duen ebazpena eta helburu horrekin jaso diren prestazioak itzultzera behartzen duen ebazpena berrikusi eta prestazioak berriro ordain ditzan.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko apirilaren 5koa. Horren bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari iradokitzen zaio berriz aztertu ditzala Euskal Autonomia Erkidegoko itundutako ikastetxe publiko eta pribatuetan erdi edo goi mailako heziketa zikloan ikasleak onartzeko jarraibideak.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko apirilaren 12koa. Horren bidez, Bilboko Udalari iradokitzen zaio neurriak har ditzala bizikidetzaren egiaztatzeko polizia-txostenak behar bezala burututakoak izan daitezen bermatzeko.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko apirilaren 14koa. Horren bidez, amaitutzat jo da Bizkaiko Foru Aldundiak Arartekoaren 5/2013 Gomendio Orokorra, ekainaren 17koa. «Bakarrik dauden adingabe/gazte etorkinen arretarako bermeak» gomendio orokorra bete ez izana salatzen zuen kexaren gaineko esku-hartzea.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko apirilaren 19koa. Horren bidez, Mungiako Udalari gomendioa egin zaio familia bati zaborren tasaren kontzeptupean kobratutako likidazioak ofizioz baliogabetu ditzan, familiaren baserrian ez duelako zaborrak batzeko inolako zerbitzurik eman.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko apirilaren 19koa. Horren bidez, amaitutzat jo da Bizkaiko Foru Aldundiak Arartekoaren 5/2013 Gomendio Orokorra, ekainaren 17koa. «Bakarrik dauden adingabe/gazte etorkinen arretarako bermeak» gomendio orokorra bete ez izana salatzen zuen kexaren gaineko esku-hartzea.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko apirilaren 20koa. Horren bidez, gomendatzen zaio Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari baliogabetu dezan laguntza-eskaera baten prozeduran emandako ebazpena. Delako eskaera seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzeko dekretuak xedatutakoari helduz egin zen (abenduaren 19ko 255/2006 Dekretua).

Arartekoaren ebazpena, 2016ko apirilaren 21koa. Horren bidez, Erandioko Udalari gomendatzen diogu asteko azoka txikiak postuak esleitu ditzala indarrean dagoen legeriari jarraiki.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko maiatzaren 2koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailari gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta baten etetea ondoriorik gabe utz dezan.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko maiatzaren 12koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailari iradokitzen zaio orientazio psikologikoa edo soziala emateko aukera aztertze, aita baten eta bere alabaren artean dagoen kaltetutako lotura berrezartze aldera. Horiek Bilboko deribazio judizialaren bidezko familia elkargune baten erabiltzaileak dira.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko maiatzaren 17koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari iradokitzen zaio zentro pribatu bateko esku-hartze terapeutikoaren aurretiazko jakinarazpenaren eskaera berrikusteko.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko maiatzaren 17koa. Horren bidez, Bilboko Udalari Aparkamendurako Zerbitzuari (TAO/OTari) buruzko Ordenantzaren 27.1.b) artikulua berrikus dezan gomendatu zaio, enpresa ibilgailu bat esleituta eta ibilgailu partikularra duten pertsonen ibilgailu bat ala estea hautatzeko aukera izan dezaten, egoiliarren araubideari onura ateratzeko.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko maiatzaren 19koa. Horren bidez, Zaldibiako Udalari gomendatzen zaio espazio publikoa terrazekin okupatzeko baimena izapidetzeko eta dagokion tasa igor dadin irabazizko aprobeixamenduagatik.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko maiatzaren 24koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari IRADOKITZEN zaio gizarte-hezkuntza esku-hartze programa batean parte hartzen ari den familia bati eragiten dioten erabakiak hartzean gizarte-zerbitzuekin koordinatzeko eta Arartekoaren apirilaren 8ko 2/2012 Gomendio Orokorren edukia kontuan har dezan. Politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman; horrez gain, iradoki da, aztertutako kasuan, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzeko erabakia berrikusteko.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko maiatzaren 26koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari gomendatzen zaio ebazpen bat berrikusteko. Ebazpen horretan, pertsona bat atzera egindakotzat jo da diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren eskaeran, ez duelako dokumentu bat aurkeztu. Hala ere, dokumentu hori ez da funtsezkoa ebazpena emateko eta diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzerako 18/2008 Legearen 62.2 artikuluan ezarritako epea baino beranduago errekeritu zen.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko ekainaren 7koa. Horren bidez, Osakidetza iradokitzen zaio iradokizunak izapidetzerako eta ebaluatzerako orduan kontuan izan behar duela ekainaren 21eko 147/2015 Dekretuan aurreikusten den betebeharra, hau da, aurkezten zaizkion ekimen eta iradokizunei erantzun egin behar diela.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko ekainaren 14koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politika Sailari gomendatu zaio berrikus dezala diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta etxebizitzarako prestazio osagarriko eskaera bat eta ordaindu ditzala dagozkion atzerakinak.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko ekainaren 17koa. Horren bidez, Gasteizko Udaltzaingoari gomendatzen zaio trafikoko-istripu bati buruzko txostena berrikus dezala, erreklamazio egileak haren zuzentasunari buruz planteatu ditzkion zalantza guztiak argitu ditzala eta, beharrezkoa bada, dokumentu horren edukia berrikuspenaren emaitzari egokitu diezaiola.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko ekainaren 27koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu zaio berrikusi dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarri baten iraungipena.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko ekainaren 27koa. Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiari gomendatzen zaio kirol hastapeneko unitateetako irakaskuntza jardueretan adingabeek parte har dezaten aukerak zabaltzeko neurriak har ditzan.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko uztailaren 4koa. Horren bidez, Barrikako Udalari gomendatzen zaio (...) jatetxeak eta bere kanpoko terrazak sortzen dituen eragozpenak saihesteko beharrezkoak diren neurriak har ditzan eta ingurumen-legezkoatasuna betetzeko errekeritu diezaion.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko uztailaren 7koa. Horren bidez, Bilboko Udalari gomendatzen zaio trafikoko araudia hausteagatik jarritako zigor bat indargabetzeko (zehapen-prozeduraren zk.: XXX).

Arartekoaren ebazpena, 2016ko uztailaren 14koa. Horren bidez, Osakidetza iradokitzen zaio elikadura-portaeraren nahasmendua duten pertsonen laguntzeko jarduketa-proposamenei heltzeko behar den zuzkidura aztertzea.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko uztailaren 19koa. Horren bidez, Euskotren elkarte publikoari gomendatzen zaio aldi baterako lan-poltsa bat eratzeko prozesuan egindako nor-tasun-probetan eta elkarriketa pertsonalean aplikatu ziren irizpideak eta horiek nola aplikatu ziren jakinaraz diezaiela kexagileei.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko uztailaren 29koa. Horren bidez, Donostiako Udalari gomendatzen zaio erantzun diezaiola, Donostiako Miracruz kaleko 19. zenbakian dagoen eraikina dela eta, eraikitako ondasun urbanistikoa babesteko Plan Berezia aldatzeko eskaerari.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abuztuaren 1koa. Horren bidez, Ondarroako Udalari mahaiak eta aulkiak instalatzeko baimen bat indargabetzeko aholkatu du jabari publikoaren okupazioa erregulatzen duen udal ordenantzaren aurkakoa izateagatik.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abuztuaren 3koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteko eta iraungitzeko espediente bat berrikusteko. Halaber, jasotzen diren ez betetzeak eta ukitzen dituen eskubide eta betebeharrak haztatzeko iradokitzen zaio, proportzionaltasun-printzipioa kontuan hartuz.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abuztuaren 11koa. Horren bidez, biztanleen errolda araupetu duen arautegia egoki aplikatzea gomendatzen zaio Arratzua-Ubarrundiako Udalarari.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abuztuaren 16koa. Horren bidez, Gernika-Lumoko Udalarari gomendatu zaio, indarreko ordenantzaren arabera, espazio publikoa terrazekin okupatzeko baldintzak betearaz ditzan.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abuztuaren 22koa. Horren bidez, Mezkiako Batzorde Administrazioari gomendatzen zaio lursail pribatuen okupazioa legeztatzea.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abuztuaren 23koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari diru-sarrerak bermatzeko errenta baten prestazioaren iraungipena berrikusteko iradokitzen zaio. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eskubidea iraungitzeko ondorioak izateko jakinarazpen batek bildu beharreko bermeak ez betetzeagatik eta aurreko jakinarazpenaren edukia espedientean jasota ez egoteagatik iraungi zen prestazioa.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abuztuaren 24koa. Horren bidez, Eustat Euskal Estatistika Erakundeari pertsona nagusiei datu estatistikoak emateko betekizunetik salbuesten dituen irizpideak sustatzeko gomendatzen zaio.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko irailaren 20koa. Honen bidez, Gasteizko Udalarari gomendatzen zaio bermatu dezala etxebizitza bateko osasungaitasun-fokua deuseztatzea eskatu ziren neurriak gauza daitezela.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko irailaren 21koa. Horren bidez, Lasarte-Oriako Udalarari gomendatzen zaio jarrai dezala bere jardueran, lizentziarik gabeko obra bat salatzeko aurkeztutako kexari erantzuteko.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko irailaren 27koa. Horren bidez, Erandioko Udalarari gomendatzen zaio hirigintza-zerbitzuen tasaren zein EIOZren kontzeptupean kexagileari igorritako likidazioak ofizios baliogabetzea; izan ere, zerga horien zerga-oinarriaren zehaztapena ez dator bat zuzenbidearekin.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko urriaren 3koa. Horren bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari gomendatzen zaio 2016-2017 ikasturterako ikasleak onartzeko prozesuan YYYYren izenean egindako eskaerari emandako tratamendua berrikus dezala, zehazki: etxebizitza eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan egoteagatik hasiera batean esleitu zitzaizkion puntuak kentzeko erabakia.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko urriaren 5koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari gomendatu zaio berrikusi dezala diru-sarrerak bermatzeko errentarako prestazio batean egindako murrizketa.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko urriaren 10koa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiari gomendatzen zaio prezio publikoa baieztatzea eta berrikustea ezetsi zuen irailaren 17ko 54295/2015 Foru Agindua berrikusteko. Hala, berraztertze-errekurtsoa onestea erabaki zuen 2015eko ekainaren 25eko 38950/2015 Foru Agindua aplikatuz, errekurtsogilearen asmoa aitortzen duen foru agindu berri bat emateko gomendatzen zaio, eta horrenbestez, eguneko 27,89 euroko prezio publikoa ezartzeko, egoitzan sartzen den egunetik.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko urriaren 13koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari gomendatu zaio berrikusi dezala diru-sarrerak bermatzeko errentarako prestazio baten ukapena.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko urriaren 18koa. Horren bidez Enplegu eta Gizarte Politiketarako Sailari gomendatu zaio erantzun bat eman diezaion diru-sarrerak bermatzeko errenta bidegabe jasotzeagatik sortutako zorraren harira egindako informazio eskaerari eta zor hori ehuneko txikiago batean zatitzeko eskaerari.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko urriaren 25koa. Horren bidez, Sopuertako Udalarari gomendatzen zaio azken bi urteetan lur-zati publiko zein pribatuetatik zura atera duten enpresei buruzko informazioa emateko.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko urriaren 25koa. Horren bidez, Sopuertako Udalarari gomendatzen zaio udal ondasun komunalei buruz eskatutako informazioa emateko.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko urriaren 28koa. Horren bidez, diru-sarrerak bermatzeko laguntza jasotzen zuen familia baten diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren espedientea eta ordainketa berrikusteko iradoki da.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko azaroaren 2koa. Horren bidez, iradokitzen zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari neurri egokiak susta ditzala seme-alabak beren kargura dituzten familiei zerga-onurak aitortzeko, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagokionez.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko azaroaren 9koa. Horren bidez, Añanako Kuadrillari, Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari eta Osmako Administrazio Batzarrari gomendatu zaie Osma herrian dauden hiri-hondakinak biltzeko edukiontzia beste leku batean jar ditzatela.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko azaroaren 9koa. Horren bidez, Añanako Kuadrillari, Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari eta Osmako Administrazio Batzarrari gomendatu zaie Osma herrian dauden hiri-hondakinak biltzeko edukiontzia beste leku batean jar ditzatela.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko azaroaren 9koa. Horren bidez, Añanako Kuadrillari, Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari eta Osmako Administrazio Batzarrari gomendatu zaie Osma herrian dauden hiri-hondakinak biltzeko edukiontzia beste leku batean jar ditzatela.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko azaroaren 15ekoa. Horren bidez, Laudioko Udalari gomendatzen zaio berriz azter dezala informazioa eskuratzeko eskaera bat ukatzeko erabakia.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko azaroaren 15ekoa. Horren bidez, Gasteizko Udalari gomendatzen zaio, 2017ko oporretako programa hobetzeko aurreikusi duen prozesuan, azter dezala plazak esleitzeko prozeduraren fase guztietan heziketa behar bereziak dituzten neska-mutilentzako plazen erreserbari eusteko aukera.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko azaroaren 21ekoa. Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte-Politika Sailari gomendatu zaio, epe laburrera eta ertainera, egoitzazentroak ikuskapen-txostenean adierazitako alderdiak zuzentzeko egiten duen lanaren segimendua egitea aintzat har dezan, oro har egoitza-baliabideei aplikatu ohi zaien ikuskapen-plana baino zorrotzagoa izango den baten bidez.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko azaroaren 21ekoa. Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte-Politika Sailari gomendatzen zaio behar bezala arrazoitzeko aurkeztutako gorako errekurtsio bat ezesteko erantzuna. Errekurtsio hori aurkeztu zuen ez dagoelako ados egindako mendekotasun-balorazioarekin.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko azaroaren 29koa. Horren bidez, Urrunagako Administrazio Batzarrari gomendatzen eta gogorarazten zaio ordenantza fiskalak aldatzeko prozedurari jarraitu behar diola, ur-horniduraren tasa igo ahal izateko.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko azaroaren 30ekoa. Horren bidez, Enplegu eta Politiketako Sailari eta, zehazkiago, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, gomendatzen zaie diru-sarrerak bermatzeko errenta baten zenbatekoa berrikusteko, mailegu pertsonala ezohiko diru-sarrera gisa hartu barik, bai eta oker jaso diren diru-laguntzak itzuli behar izateari buruzko ebazpena ere.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko azaroaren 30ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegua eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu zaio berrikusi dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta berritzeko ebazpena.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 1ekoa. Horren bidez, Enplegua eta Gizarte Politika Sailari gomendatzen zaio berraztertu dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta baten iraungitzea, ez baitago horretarako arrazoirik.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 2koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio dirusarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzeko ebazpena berrikusteko.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 12koa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari iradokitzen zaio egoitza bateko plazaren eskaera ezestea xedatu duen ebazpena berrikusteko eta dagozkion kudeaketak egiteko egoitza-zerbitzura sartzeko prozedura izapidetzen amaitzeko.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 12koa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Sailari iradokitzen zaio familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoaren emakida aztertzeko, urrirako ondorioekin.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 15ekoa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari iradokitzen zaio azter dezan familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa ematea, erabaki horrek ondorioak irailetik aurrera izan ditzan.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 15ekoa. Horren bidez, Donostiako Udalari gomendatzen zaio jarritako ingurumen-salaketei erantzuteko. Kexagileak salaketa horiek jarri ditu gaueko garbiketa udal zerbitzuak bere etxebizitzaren inguruan eragiten duen zaratagatik.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 15ekoa. Horren bidez, Enplegua eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta baten iraungitzea indargabetzeko, horretarako kausarik ez baitago.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 16koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta baten eta etxebizitzarako prestazio osagarri baten ukapena berrikusi dezala.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 19koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari gomendatzen zaio berrikusi dezala pertsona bat Figuereseko ospitaletik Donostiako Unibertsitate Ospitalera osasun-garraio lagunduan eramateko baimen-eskaera ukatzeko erabakia.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 20koa. Horren bidez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak datu pertsonalak babestearen arloan araudia urratu zutela salatzen zuen kexa batean bere esku-hartzea amaitu du Arartekoak.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 20koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Seguritasun Sailari gomendatzen zaio Ertzaintzaren jokabideari buruzko kexari erakunde honen gomendioekin bat egiten duen tratamendua eman diezaiola eta jokabide horri buruz interesdunak agertutako zalantzak argitu ditzala.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 20koa. Horren bidez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak datu pertsonalak babestearen arloan araudia urratu zutela salatzen zuen kexa batean bere esku-hartzea amaitu du Arartekoak.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 21ekoa.

Horren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailari gomendatzen zaio Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bitarteko funtzionarioek zentro ofizialetan azkenengo azterketara joateko egindako lizentzia-eskaerei emandako tratamendua berrikusteko.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 22koa.

Horren bidez, Arabako Foru Aldundiari gomendatzen zaio turismo-ibilgailuan garraio zerbitzu publikoa emateko txartel baten esku-aldaketaren baimena berrikusteko, baita administrazio prozedura orokorra ere.

Arartekoaren ebazpena, 2016ko abenduaren 22koa.

Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegua eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren eteteari eusteko erabakia.

VII. ATALA

2

GRAFIKOEN ETA TAULEN AURKIBIDEA

VII

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa	
Arartekoari 2016an egindako kexak	21
2. grafikoa	
Arartekoaren jarduera guztiak 2016an	22
3. grafikoa	
Aurrez aurreko kexen eta telefonozko aholkuen kopurua arreta zuzeneko bulegoetan.....	23
4. grafikoa	
Onartu gabeko kexa idatziak eta egoerak.....	24
5. grafikoa	
Bideratutako espedienteen banaketa, eragindako administrazioen arabera.....	26
6. grafikoa	
Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurka (Eusko Jurlaritz) bideratu diren espedienteen banaketa, sailen arabera.....	27
7. grafikoa	
Foru erakundeen aurka bideratutako espedienteen banaketa, lurraldeen arabera	27
8. grafikoa	
Erregistratutako kexa-espedienteen lurralde banaketaren bilakaera, jatorriaren arabera (2005-2016)	30
9. grafikoa	
Erregistratutako erreklamazio idatziak lurraldez lurralde, 10.000 biztanleko (2005-2016).....	31
10. grafikoa	
2016an bukatu diren espedienteak.....	32

11. grafikoa	
Kexa-espeditenteen egoera	32
12. grafikoa	
Jasotako kexen banaketa, kexagileen ezaugarrien arabera	34
13. grafikoa	
Kexen banaketa, erabilitako hizkuntzaren arabera	34
14. grafikoa	
Kexen banaketa, herritarrek erabili duten bidearen arabera	35
15. grafikoa	
Nolakoa iruditu zaizu Arartekoak bidalitako informazioa?	35
16. grafikoa	
Nolakoa iruditu zaizu Ararteko erakundeko langileek eman dizuten arreta (laguntzeko prest egotea, tratua, enpatia...)?	35
17. grafikoa	
Oro har, nolakoa iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)	36
18. grafikoa	
Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora joateko gomendatuko zenioke?	36
19. grafikoa	
Nolakoa iruditu zaizu kexa aurkeztu zenuenetik tramitazioa bukatu arteko denbora?	37
20. grafikoa	
Zure ustez, nolakoa da Arartekoak gizartearen eta herri-administrazioaren aurrean duen irudia eta sinesgarritasuna?	37

Taulen aurkibidea

1. taula	
Ararteko erakundearen esku-hartzearen eraginkortasun-maila	22
2. taula	
Hasitako kexa-espedienteen banaketa, jarduera-arloaren arabera	25
3. taula	
Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurka (Eusko Jaurlaritza) bideratu diren espedienteen banaketa, arloen arabera.....	26
4. taula	
Foru erakundeen aurka bideratu diren espedienteen banaketa, arloen arabera	28
5. taula	
Tokiko administrazioen aurka bideratutako espedienteen banaketa	28
6. taula	
Autonomia erkidegoko udalen aurka bideratutako espedienteak.....	28
7. taula	
Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka bideratutako kexa-espedienteak.....	30
8. taula	
Kexen banaketa, hiriburuko biztanleek edo lurraldeko gainerako udalerrietako biztanleek egin dituzten kontuan hartuta	31
9. taula	
Ofiziozko espedienteen banaketa, arloen arabera	33

VII. ATALA

3

ARARTEKOAREN ARGITALPENAK

Arartekoaren argitalpenak

Txosten bereziak

- *Kalaboak. Ertzaintzaren eta udalen atxiloketa egoitzak.* 1991.
- *Psikiatrikoak. Ospitale psikiatrikoetako buru-gaisoen egoera.* 1992.
- *Adinekoen egoitzak Euskal Autonomi Elkartearen (1992-1993).* 1994.
- *Euskal Herriko Ararteko Erakundearen lehen bost urteak (1989-1994).* 1994.
- *Euskal Autonomia Erkidegoan egoitzez kanpo adinekoentzat dagoen laguntzari buruzko txosten berezia (1994-1995).* 1996.
- *Euskal Autonomia Erkidegoko kartzeletako egoera.* 1996.
- *Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuak.* 1997.
- *Adin txikiko lege-hausleak.* 1998.
- *Uraren kalitatearen babesa Zadorra sistemako urtegietan.* 1999.
- *Oinarrizko gizarte-zerbitzuen egoera EAEn.* 1999.
- *Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo.* 2000.
- *EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna.* 2001.
- *Sasoikako langileen egoera Arabako mahats eta patata bilketan.* 2002.
- *Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn.* 2003.
- *Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna.* 2003.
- *Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn.* 2003.
- *Pertsona nagusiei emandako arreta EAEn: etxeko laguntza, eguneko zentroak eta egoitza-zentroak.* 2005.
- *Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera EAEn.* 2005.
- *Etixerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzuna.* 2006.
- *Bizikidetzak eta gatazkak ikastetxeetan.* 2006.
- *Gazteentzako etxebizitza politika publikoak EAEn.* 2007.
- *Arreta soziosanitarioa: esparru kontzeptuala eta nazioarteko eta autonomietako aurrerapausoak. Hurbilketa.* 2008.
- *Gizarte ekintza sektoreko lan baldintzak.* 2008.
- *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta.* 2009.
- *Adingabekoei balioak transmititzea.* 2009.
- *Transgeneroen eta transexualen egoera Euskadin.* 2009.
- *EAEko erakundeen jarduna nerabeen droga kontsumoaren arloan.* 2010.
- *Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko gizarte zerbitzuen egoera.* 2010.

- *EAEko garraio sistema publikoak duen irisgarritasunari buruzko diagnostikoa*. 2011.
- *Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak*. 2011.
- *EAEEn norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko legearen aplikazioa*. 2011.
- *E-inklusioa eta Euskadin herritarrek IKTen bitartez gizartean eta eremu publikoan parte hartzea*. (CD-ROM). 2013
- *Askatasunik gabe dauden pertsonen buruko osasunari EAEEn emandako arreta soziosanitarioa*. (CD-ROM). 2014.
- *Familiei laguntzeko politikak Euskadin: azterketa eta proposamenak*. (CD-ROM). 2014.
- *Udal gizarte zerbitzuen egoera Euskal Autonomia Erkidegoan. Egungo egoera eta hobetzeko proposamenak*. (Internet). 2016.

Urteko txostenak

- Liburukiak: 1989, 1990, 1991, 1992, 1993, 1994, 1995, 1996, 1997, 1998, 1999, 2000, 2001, 2002, 2003, 2004, 2005, 2006, 2007, 2008, 2009, 2010, 2011, 2012, 2013, 2014, 2015, 2016.

Gomendioak

- *Gomendio eta iradokizunak* 1991, 1992, 1993, 1994, 1995, 1996.
- *Gomendioak* 2002, 2003, 2004.

Bestelako argitalpenak

- *Idatz arauak / Normas de redacción*. 1992.
- *Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarra. Herrialdeko Ombudsmanaren garrantzia*. 1993.
- *Esanak eta eginak / Dichos y hechos*. Juan San Martín, Arartekoa. 1994.
- *XV Jornadas de Coordinación de Defensores del Pueblo*. 2000.
- *25 urte: lanean pertsonen eskubideen alde*. (USB). (2014).

Faksimilak

- *Jaquin-bide Iritarautia* - 1820. Kadizko Konstituzioari buruz euskaraz idatzitako eskuizkribu argitaragabea, irakaskuntzarako moldatua. 1991.
- Gaioren *Institutionum*. 1992. (Gaztelaniazko lehen argitaralditik aterea, Madril, 1845).
- Aita Frantzisko Vitoriakoaren *De indís insularis. De iure belli*. 1993. (Lyonen 1557an egindako lehen argitaralditik aterea).
- Valentín de Forondaren *Cartas sobre la policía*. 1998. (Iruñean 1820an egindako bigarren argitaralditik aterea).
- Miguel de Lardizábal y Uriberen *Apología por los Agótes de Navarra y los Chuetas de Mallorca, con una breve digresión á los vaqueros de Asturias*. 2000. (Madrilen 1786an egindako lehen argitaralditik aterea).
- Manuel de Lardizábal y Uriberen *Discurso sobre las penas contrahido á las leyes criminales de España, para facilitar su reforma*. 2001. (Madrilen 1782an egindako lehen argitaralditik aterea).
- Xabier Maria Muniberen *Discursos inéditos*. 2002.
- Rita de Barrenechea eta beste emakume batzuk. *Catalin y otras voces de mujeres en el siglo XVIII*. 2006.

«P. Francisco de Vitoria» Giza eskubideen saila (Bekadunen lanak)

- E. J. Ruiz. *El derecho al ambiente como derecho de participación*. 1993.
- M. Á. Encinas. *Viviendas de protección oficial y arrendamientos en el País Vasco (1982-1991)*. 1994.
- G. Varona. *La inmigración irregular. Derechos y deberes humanos*. 1994.
- A. Bergara. *Hezkuntza- eta Hizkuntza-eskubideak indarreko lege-araubidean*. 1996.
- M^a J. Fernández de Landa. *El control interinstitucional en la Unión Europea*. 1996.
- I. P. Sánchez. *Rechazo social hacia las personas seropositivas en la CAPV*. 1998.
- J. Morquecho. *Intervención comunitaria en Euskadi. Acercamiento a la acción social sobre la exclusión*. 1999.
- G. Moreno. *Trabajo y ciudadanía. Un debate abierto*. 2003.
- A. Olarte. *Alternativas a la cárcel en Euskadi: el trabajo en beneficio de la comunidad*. 2006.

- B. Sicilia. *Derechos fundamentales y Constitución Europea*. 2006.
- J. Zarauz. *Incidencia del padrón municipal en el ejercicio de los derechos de las personas extranjeras en situación irregular*. 2007.
- I. Mujika. *Visibilidad y participación social de las mujeres lesbianas en Euskadi*. 2007.

«Francisco de Vitoria» Giza eskubideen bilduma

Hausnartzeko eta parte hartzeko foroak

- *Eskolako bizikidetasuna eta gatazkak*. 2008.
- *Nerabe eta gazte lesbiana, gay, transexual eta bisexualak: trabak eta gaitzespenak beren garapen pertsonalean, harremanetan eta sozializazioan*. 2008.
- *Cannabisa. Erabilerak, segurtasun juridikoa eta politikak*. 2012.

Jardunaldiak

- *Eskubide sozialen egungo egoera*. 2008.
- *Politika publikoen erronkak demokrazia aurreratu batean*. 2011.
- *Eskubide sozialak krisi garaian* (CD-ROM). 2012.
- *Estatu soziala eta bizitza duina* (CD-ROM). 2015.

«Juan San Martín» Giza eskubideen bilduma (Bekadunen lanak)

- J. M. Septién. *Mugarik gabeko eskola. Ikasle etorkinen irakaskuntza Araban*. 2006.
- A. Bacigalupe, U. Martín. *Osasun arloko gizarte desberdintasunak EAEko biztanleen artean*. 2007.
- J. L. Fuentes, T. L. Vicente. *Biztanleria magrebtarra Euskal Autonomia Erkidegoan. Egoera eta itxaropenak*. 2007.
- F. J. Leturia, N. Etxaniz. *Adinekoen eskubideak eta tratu desegokiaren prebentzioa*. 2009.
- I. Orbegozo, A. I. Pérez, L. Pego. *Gizabanakoari eskubideak etetea terrorismo kasuetan: arreta berezia atxiloaldi inkomunikatuari*. 2009.
- A. Gozalo, E. Jiménez, L. Vozmediano. *Adingabeak edo*

atzeritarrek? Esku hartzeko politiken azterketa, lagundu gabeko adingabe atzeritarren gainekoa. 2010.

- M. Arnoso, M. Mazkieran, A. Arnoso, S. Luciani, A. Villalón, A. Otaegi. *Etorkinek zerbitzu eta prestazioetara dutensarbidea, Euskal Autonomia Erkidegoan*. 2011.
- Farapi: Ana Beatriz Rodríguez Ruano, Oihane García Santiago, Amaia Benito Pumarejo, Aritz Rodríguez Gutiérrez, Nerea Elías Muxika, Begoña Pecharromán Ferrer. *Aplicación de los derechos de las personas usuarias y consumidoras en la Comunidad Autónoma del País Vasco* (CD-ROM). 2012.

Material didaktikoak


- G. Azkarate, L. Errasti, M. Mena. *Giza Eskubideen hezkuntzari buruzko baliabideak* (Bigarren Hezkuntza). 2000.
- Zenbait egile (IPE). *Gure eskubideak* (Lehen Hezkuntza). 2001.
- E. Acero, I. Mier. *Giza eskubideak jokoan* (Bigarren Hezkuntza). 2001.
- Mugarik Gabe. *Sortuz / Generando* CDa. 2004.
- Ikasleen lanak. *Gure eskubideak / Nuestros derechos*. 2004.
- Ziber Bullying-a. *Teknologia berrien bidezko jazarpena prebenitzeko material didaktikoa*. 2008.
- Leihoak. *Abentura ERREALA Mundu BIRTUALEAN. Gozatu internetez... Sarean erori gabe*. 2008.

«Giza eskubideei buruzko jardunaldiak» bilduma (Uda ikastaroak)

- *El derecho a la no discriminación por motivo de raza*. 1997.
- *Vigencia y futuro de la Declaración Universal de los Derechos Humanos en su 50 aniversario*. 1998.
- *Los derechos no caducan con la edad: el año internacional de las personas mayores*. 1999.
- *Una cultura de paz: cimiento para los derechos humanos*. 2000.
- *Responsabilidad penal de los menores: una respuesta desde los derechos humanos*. 2001.
- *Derechos humanos y nuevas tecnologías*. 2002.

- *La prevención y erradicación de la tortura y malos tratos en los sistemas democráticos.* 2003.
- *El trabajo en el siglo XXI: perspectivas de futuro.* 2004.
- *Familia berriak eta berdintasun printzipioa: eztabaida irekia.* 2005.
- *Arartekoa: XXI. menderako Ombudsmana.* 2006.
- *Herritarrek ingurumenean edo gizartean eragina duten azpiegiturei buruzko erabakietan parte hartzea. Hausnartzeko eta herritarrek parte hartzeko IV. Foroa: Herritarren partaidetza: fikzioa ala errealitatea?* 2007.
- *Osasun mentala eta pertsonen eskubideak.* 2008.
- *Haurrak babesteko sistemak eta horien erronkak.* 2009.
- *Lana, familia eta norberaren bizitza bateragarri egiten laguntzeko politika publikoak berriz aztertzeko bidean.* 2010.
- *Gaixotasun arraroak: arreta publikoa behar duen errealitate baten argi-itzalak.* 2011.
- *Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak eta enpresa pribatuek interes orokorreko zerbitzuak egitea (CD-ROM).* 2012.
- *Pertsonen eskubideak babestea finantza-erakundeekin dituzten harremanetan (CD-ROM).* 2013.
- *Familiak eta beraien beharrak eta erronkak oraingo gizarte- eta ekonomia-egoeran: botere publikoen erantzuna (CD-ROM).* 2014.
- *Euskal gazteen zailtasunak beren hiritar eskubideak egiaz baliatzeko, batez ere bizimodu autonomoa egiteko proiektua eraikitzearekin lotutakoak (CD-ROM).* 2015.
- *Europa, asilo lurraldea? Erronkak eta erantzunak (CD-ROM).* 2016.

WWW.ARARTEKO.EUS



ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo